

Jakintza-arloa: Zuzenbidea

**Laugarren mundua: herri
indigenen erbeste ekintza,
onespen eta aldaketa eragile
nazioarteko harremanetan 1992-
2007**

Egilea: **JOSEBA IÑAKI ARREGI ORUE**

Urtea: 2010

Zuzendariak: JOSE LUIS DE CASTRO, JOSEBA AGIRREAZKUENAGA

Unibertsitatea: UPV-EHU

ISBN: 978-84-8438-339-0

Hitzaurrea

Doktorego tesia honen jatorria Euskal Herriko lurraldetik oso urrun aurkitzen da, eta derrigorrezkoa da 1992an EEBBetako lurraldea batean, Iowa City-n preseski gertatutakoa aipatzea. Bertan urriaren 12an Ameriketako konkistaren aurkako ekimen batean parte hartzen ari nintzela aukera izan nuen James Anaya-ren hitzak entzuteko: “Ez ezazu inoiz desagerturiko indigenaren mitoa sinistu”. Gaur egun James Anaya NBERen Herri Indigenen Auzietarako Errelatore berezia da, baina orduan zen irakasle ezezagun eta gaztea. Geroxeago famatua bihurtuko zen Anaya-ren hitz horiek ezusteko eragina izan zuten nigan eta esan beharra dut nire ikerketa gogoak erabat aldatu zutela. Honekin batera 1992an *Rio de Janeiro* egiten ari zen nazioarteko gailurrean lehen aldiz ikusi nuen telebistaz indigena bat estatu ordezkariari hitz egiten. Anaya-ren hitzak gogoratu eta ia 500 urtez “ikusezinak eta desagertuak” egin zituztenen itzuleraren aurrean nengoela pentsatu nuen. Bi gertakizun hauek piztu egin zuten indigenekiko nire jakingura. Baina urte bat geroxeago gertatu zen une benetan erabakigarria. 1993an Anaya-k antolatutako jardunaldi batzuetan aukera izan nuen Lakota herriko Glen Morris-ekin, abokatu eta unibertsitate irakaslearekin hitz egiteko eta berak euskalduna nintzela jakiterakoan zera bota zidan “herri indigenen (*indigenous peoples*) eta Estatu gabeko nazioen (*nation peoples*) arteko solasaldia positiboa eta beharrezkoa da, eta gure arteko zubiak irekiko dituen jendea behar da munduko estatu gabeko nazioen egoera sendotzeko nahi bada”. Morrisek botatakoa enbido eta erronka pertsonala bihurtu zen niretzat.

Proposamen honetan aurkituko du irakurleak doktorego ikerketa honen arrazoi nagusia. Baina herri indigenen nazioarteko lana eta ahalegin luze eta neketsu honetan lorturiko fruituak Euskal Herrian aurkezteko asmoa tesia bihurtzea ez da gauza erreza izan. EEBBetatik etorri eta Euskal Herrian hain ezezaguna zen gaiak ez zuela horrenbeste merezi uste izan zuten askok. Gaiak zer ikusirik gehiago zuela antropologiarekin entzun behar izan nuen sarritan. Gauzak are gehiago okertu ziren tesia euskaraz egiteko asmoa nuela entzun nuenean eta nazioarteko harremanen eremuan hain zuzen. Eredu akademiko honetan urriak dira euskaraz egindako lanak eta horrelako proposamen berriak mesfidantza sortu zuela aitortu behar. Gauzak horrela gogoan aparkatu nuen ez bainintzen Quixote izateko inolako borondaterik. Urteak pasa eta berriz ekin nion asmoari aurkitu nuenean tesia euskaraz zuzentzeko prest zegoen norbait: Iñaki Agirre Zabala jauna. Baina gaia ez zen bere gustuko hasiera batean. Zergatik ez egin Euskadiko kanpo harremanekin loturiko zerbait? Eta herri indigenekin loturiko zerbait egitekotan zein herri aukeratu, zein kontinentean? Eta beharko duzu hara joatea (oihanera zioen barre egiten zuen bitartean Levis Strauss-en lanak burura ekarriz)? Neuk argi nuen nazioarteko mugimendu bat zegoela eta hori nahi nuela aztertu. Nire ustea ikerketagaia zela frogatu asmoz 1999an eta 2000ean NBEk Genevan duen egoitza nagusian egiten zen Herri Indigenei buruzko Lantaldera joan nintzen bertan parte hartzeko. Lantaldean lorturiko informazioarekin itzuli nintzen eta frogatu egin nuen NBERako gai inportantea zena izan behar zuela Euskal Herrian gai inportantea izateko aukera. Gaiaren garrantzia frogatu ondoren 2000. urtean doktorego kurtsoak hasi eta tesia egiteko orduan, berriz ere, tesia egiteko hizkuntzari heldu behar

izan nion. Gai berria izanik eta literatura gehiena ingelesez eta apur bat gazteleraz egonik ea merezi zuen euskaraz egitea. Zergatik ez ingelesez doktoratu europarra ala gazteleraz? Ez zen auzi makala nolanahi ere. Latinoamerikako indigenek ere kezka bera agertu zidatelako, zergatik horrelako ahalegin bat ikerketaren onuradunek ezin bazuten ulertu. Eurek ezin baitzuten euskara ulertu. Auzi serio eta gogor asko hausnartzeko eta erabakitzeko. Galdera ez zen makala: zergatik idatzi hizkuntza gutxitu batean ingelesa nagusi duen zientzia eremu batean? Baina nola salatu kolonialismoa kolonialisten hizkuntzak erabiltzen badira. Nola ihes egin pentsaera kolonial horri? Nola erresistentziako borroka kontatu zapalduaren ikuspegitik beraien hizkuntza batean ez bada? Neuk argi nuen euskaraz nahi nuela egitea eta, gainera, erabaki nuen herri indigena (*indigenous peoples*) eta nazio herrien (*nations peoples*) arteko zubiak eraikitze helburua izanik, euskaraz egitea izan bazela munduko herri indigenei nolabaiteko omenaldia: duela gutxi akademikoa bihurtu den Europako hizkuntza zahar-gutxituan egiteak mezu baikorra erakusten dielako munduko beste hizkuntza gutxituei. Horrela pentsatu eta horrela egin. Hurrengo urteetan lana egitearekin batera tesia idaztea lortu nuen eta hau da esku artean duzuna. Gauzak ez dira errazak izan: batetik, gai honi buruzko bibliografia Euskal Herrian eskuratzea ia ezinezkoa zelako eta etengabe kanpora eta Internetera jo behar nuelako; bestetik 2003an tumore gaizto bat aurkitu zidatelako eta eten egin behar izan nuelako; azkenik 2006an nire tesiaren zuzendaria hil egin zelako. Egoera honen aurrean beharrezkoa izan nuelako berak hasitako lana beste batek hartzea. Eskerrak Jose Luis de Castro jaunari nazioartean aditu bezala hartu zuelako nahiz eta euskalduna ez izan, eta Joseba Agirreazkuenagari beraren laguntzagatik ez nuelako amaituko.

Baina utz dezagun lanarekin loturiko istorio paraleloak eta ekin diezaiogun lanari. Doktorego tesi honen helburu nagusia indigenen eta estaturik gabeko nazioen artean komunikazioa sustatzea da. Horretarako ezinbestekoa izan da Laugarren Munduak egindako bidea aurkeztea, eta baita berak onarturiko arrakasta ezagutaraztea.

Herri indigenen azken hamarkadetako paradiplomaziak onarpen maila handia jaso du, aurreko historia ez bezala: Lantalde propioa NBEn eta ondoren 2007ko beren eskubideen aldarrikapena. Guzti hau posiblea izan Laugarren Munduaren izenpean herri indigenek osotzen duten nazioarteko mugimenduari esker. Herri indigenek nazioartean eragiteko propio sortutako kontzeptua da laugarren mundua. Estatu barneko autodeterminazioa lantzen duen mugimendu honek, estatu gabeko beste nazioenek ez bezala (Euskadi, Katalunia edo Quebeckoak), onspena lortu du nazioartean. Hala ere, gure artean ezezagunagoa da, eta ideia horrek erakarrita hasi zen tesia: Laugarren Munduak azken hamarkadotan egindako lana ezagutaraziz, komunikazio zubi bat sustatzeko herri indigenetako eta estaturik gabeko nazioetako mugimenduen artean.

NBEn

1992tik hona indigenek nazioartean izan dituzten lorpen handienak deskribatzen dira ikerketa honetan. Indigenak laguntzeko erakunde ugari sortu dira AEBn eta Europan, hala nola Survival International edo Danimarkako Iwgia. Bestalde, ekologiarik dagokionez, indigenen lurraldeetan ematen den biodibertsitatea haiek berek egindako kudeaketa iraunkorraren ondorio dela frogatu ahal izan dute jendaurrean, eta nazioarteko dokumentu askotan aliatu estrategiko moduan agertzen dira horregatik. Gainera, Nazio Batuen Erakundeetan nabarmen agertzea lortu dute. Izan ere, Herri Indigenen Lantaldea eta Foro Iraunkor propioa dituzte bertan, eta 2007an Herri Indigenen Eskubideen Deklarazioa onartu zuen NBEk berak.

Tesiak azaldu bezala, nazioartean agertutako erresistentziari eta lanari esker lortu dute hori guztia indigenek. Beren buruaren irudi positibo eta modernoa sustatu dute, eta natura eta giza eskubideak zaintzen dituzten pertsonak direla eman dute aditzera. Era berean, herri indigenek urratu dute bidea ekologiarik eta giza eskubideei dagokienez, eta gobernuek eta erakundeek jarraitu egin diete; ez alderantziz.

Autodeterminazio alternatiboa

Laugarren munduaren helburu nagusietako bat haien patua kontrolatzea eta kolonialismoaren ondorio ezkorrak betiko uxatzea da. Autodeterminazioa aldarrikatzen du mugimenduak, baina estatuen barruan eta ez estatu berri bat sortuz, Hirugarren bidea deitu diot horri. Hain zuzen ere, estatu berri bat aldarrikatzen ez dutelako onartu dute indigenen saiakera nazioartean, tesiaren arabera.

Indigenek martxan jarritako nazioarteko ekimena paradiploiaz berezi eta interesgarritzat jo dut, eta besteak beste, hori dela eta, herri indigenen eta nazio herrien arteko komunikazioaren beharra defendatzen dut. Berezi Euskadin herri indigenekin lotura psikologikoa dagoelako. Horrenbestez, esperientziak elkartrukatu beharko liratekeela, batez ere gobernu autonomoaren kudeaketari eta euskara eta kultura berreskuratzeko lanari dagokionez.

Joseba Arregi
2011

**LAUGARREN MUNDUA: HERRI INDIGENEN
ERBESTE EKINTZA, ONESPEN ETA ALDAKETA
ERAGILE NAZIOARTEKO HARREMANETAN
1992-2007.**

Egilea: Joseba Iñaki Arregi Orue

Zuzendariak: Jose Luis de Castro eta Joseba Agirreazkuenaga

I. KAPITULUA: GAIAREN GARRANTZIA GAURKO NAZIOARTEKO TESTUINGURUAN	2
1. Aurkezpena	3
2. Herri Indigenen definizioak eta Laugarren Mundua gure aukera bezala	13
2.1 Herri Indigenen Definizioa: Eztabaidaren gakoa eta ikuspegi ezberdinak.....	15
2.1.1 Definizio Mugatzailea: Ikuspegi Historikoa	17
2.1.2 Definizio zabalak: Unibertsalismoaren bidetik	19
2.1.2.1 Definiziorik ez.....	19
2.1.2.2 Ikuspegi multianitza	19
2.1.2.2.1 Erica Daes-en aportazioa	20
2.1.2.3 Beste definizioak	22
3. Laugarren Munduaren Definizioa	23
4. Ikerketaren Helburua	29
5. Hipotesiak	30
6. Ikerketaren egitura.....	32
7. Metodologia	33
8. Bibliografia.....	35
II. KAPITULUA: KOLONIALISMO HISTORIKOA, ZAHARRAREN ERRAUTSEN GAINEAN ERAIKITAKO MUNDU BERRIA.....	37
Sarrera	38
1. Oparotasunaren kontinentea	38
2. Konkistatzaileen Garaia: Gurutzea eta ezpata	39
3. Erlijioa: Konkistaren indar legitimatzailea.....	40
4. Ohiko Errautsen Gainean Gizarte Berria Eraikitzen	41
4.1 Gizarte Koloniala: Kultur Askotasunaren Erauzketa	42
4.2 Diskurtso Etnokratiko-Zibilizatzailearen sorkuntza eta garapena	43
4.3 Historia Berria Mundu Berri batentzako: Oroimenaren Erauzketa eta Historia Kolonialaren Jaiotza.....	44
5. “Indio Cerdo”: Indigena gaiztoaren Irudikatze ezkorra	46
5.1 Atzerapen Teknologikoa.....	47
5.1.1 Hobekuntzaren Mitoa: Kolonoaren Indar Eraikitzailea	48
5.1.2 Txiroak Aberastasanaren Lurraldean.....	49
6. Basati onari loturiko errukizko menderakuntza.....	51
7. Iparraldeko Hitzarmenaren bidea	54
III. KAPITULUA: ESTATU KOLONIZAZIOA ETA MUGAZ BESTALDEKO	

LURREN KONKISTA	57
Sarrera	58
1. Errepublika Liberalaren Garaia. Berdintasunaren Izenean Aniztasuna Zanpatzen.....	59
2. Domestikazio Prozesua ala “anai gorria” “ume gorria” bihurtu zutenekoa	61
3. Modernotasuna Zabalduz Arrotzena Goratu	62
3.1 Etnozidioaren Politikak.....	64
3.2 Indigenismoa. Asimilaziorako Tresna.....	65
3.2.1 Jabego Pribatu eta Ekonomia Industrialaren Zabalkundea	66
4. Barne Kolonialismoa: Domestikatuena gaineko Inperio Etnokratikoa	68
IV. KAPITULUA: EKONOMIA GLOBALAREN GARAIAKO KOLONIALISMOA ...	71
1. Mundu Ekonomiaren Mehatxua.....	72
2. Amazoniaren Konkista.....	75
3. kolonialismo mota berriak	78
3.1 Kontserbazioa konfiskazioaren bitartez	78
3.2 Turismoa: Exotismoaren kolonizazioa	81
3.2.1 Marco Polo Garaikideak eta Turismo-Garapen Estrategia	81
3.2.1.1 Indigena produktu	82
3.3 Irudiaren galera eta kulturaren krisialdia	84
4. Biopirateria: Altxor berdearen bila.....	85
4.1 BBK: Erauzketa markoa ezartzen	87
4.2 Biobilaketa: Biolapurketarako Lasterketa	88
4.3 HUGO: Herri indigenen Arima xurgatzen.....	91
V. KAPITULUA: NAZIOARTEKO POLITIKAN AKTORETZAT ONARTU ZUTENEKOA	93
Sarrera	94
1. Nazioarteko aktorea berria: ¿pre ala post modernoA?	98
1.1 Paradiplomacia Indigena.....	100
2. Laugarren mundua: Paradiplomazia Indigenaren sorrera	102
3. Kanpoko Ekintza Indigena XX. Mendean. Historia Laburra	104
3.1 Aurrekariak	104
3.1.1 Birrinduriko Ahalegin Konstituzionalistak	105
4. XX mendean: Herri Indigenak Irauteko Borrokan	107
4.1 1960ko Urte Garratzak: Indigenismo gizatiarraren Hamarkada	110

4.2 1970ko Hamarkada: Mundu mailako mugimendu baten hasiera.....	113
4.2.1 Laugarren Mundua: paradiplomazia indigenaren agerpena.....	118
4.2.2 Indigenen aldeko erakundeen sorrera	118
4.2.2.1 George Manuel: Kontzeptuaren sortzailea	119
4.2.2.2 Paradiplomazia indigenaren lehenengo urratsak	120
4.3 1980ko Hamarkadan Mugimendua Sendotzen	124
4.3.1 169 Hitzarmena: Hamarkadako Aurrerakuntza Nagusia.....	133
4.4 Nazioarteko Aktorearen Sendotzea	135
5. Foro Iraunkorra: Partaidetza Indigenarako Mekanismoa	147
5.1 Giza Eskubideen Eremitik Haratago	149
5.2 Jatorrizko proposamen indigenak aurkituriko oztupoak.....	153
VI. KAPITULUA: HERRI INDIGENAK GIZA ESKUBIDE UNIBERTSALEN	
BIDETIK	155
Sarrera	156
1. Giza eskubideak eta Herri Indigenak: Ikuspegi Historiko labur bat	158
1.1 Giza Eskubideak eta Nazioarteko Orden berria	159
2. 1960-1990. Aldeko Marko baten Eraikuntza	161
2.1 1970ko hamarkada: herri indigenak indarra hartzen	164
2.2 1980ko Hamarkada: Zabalduriko Bidea Sendotzen	166
2.3 LNE 169 Hitzarmenaren Inguruko Hausnarketa Batzuk	170
3. Giza eskubideekin loturiko erronka eta aukera berriak.....	175
3.1 Giza Eskubideen Batzordea eta Errelatore Berezia.....	178
4. Aldarrikapenaren Inguruko Estatuaren Oldartzea.....	179
4.1 Autodeterminazio eskubideari buruz.....	193
VII. KAPITULUA: HERRI INDIGENEN EKARPENAK GARAPEN	
SOSTENGARRIAREN ERRONKAN	202
Sarrera	203
1. Garapen sostengarria eta Herri Indigenen Aldagarri Etnikoaren	
Nazioarteko Aitorpena.....	205
1.1 Aitorpen instrumentalistaren argi-ilunak	207
2. Basoaren patua, hil ala biziko borroka	210
2.1 Herri indigenak, Nazio iraupena eta Ingurumen Segurtasuna	212
2.1.1 Segurtasuna, ekologia eta herri iraupena uztartuz	213
2.1.2 Biziteko basoa versus produziteko basoa.....	216
2.1.3 Herri Lurrak eta Gobernu Indigenaren Garrantzia	218
3. Garapen sostengarria indigenentzako marko alternatiboa.....	219
3.1 Burujabetasuna lantzeko leiho bat.....	220

4. Garapen Sostengarrirako Proposamen Indigena	222
4.1 Autodeterminazioa Kontserbazio Ahaleginaren Muinean.....	224
4.1.1 Etnogarapena: Euren Giza Eskubide eta Kulturaren Oinarrituriko Bidea	226
4.1.2 Esangura Bereziko Lurralde eta Ekosistemen Babesa.....	228
4.2 Biopirateriaren aurkako borroka latza	230
4.2.1 Jaki eta Osasun Segurtasuna.....	234
5. COP Biltzarrak: gatazka eta elkarlana Biodibertsitatearen inguruan.....	234
ONDORIOAK	242
SORBURUAK ETA BIBLIOGRAFIA	254

ESKERRAK

Dotorego tesia ezer baino gehiago lan luzea, gogorra eta neketsuak da, eta lan pertsonalaren ondorio dela uste bada ere ezin uka askoren laguntza eta inspirazioa aurkitzen dela lan eskergea honen gibelean.

Lehenik eta behin euskera, euskal kultura eta oro har kultura gutxituekiko errespetoa eta maitasuna erakutsi zidaten Arregi-Orue familiako sendi guztiei. Euren artean aipamen berezia Eustaquia Ureta zenari berak erakutsi baitzizkidan Anbotoko Mariri buruzko hainbat istorio geroxeago indigenen mundua hobeto ulertzeko balio izan didatenak.

Nire guraso diren Iñaki Arregi eta M^a Teresa Orue eta Mireia eta Rikardo anai-arrebei inoiz gutxi ulertu ez duten bidai luze honetan lagundu egin nautelako.

Iowako lagun guztiei, baina bereziki mundu berri batekiko atea zabaldu zidan Roz Frank katedradunari eta, batez ere, Meredith McKinley andereari berak erakutsi zidalako herri indigenen garrantzia oso eurozentrikoa nintzen garai batetan. Baita ere Xabier Bilbaori eta luzaro lagun eta sostengu izan dudana Ana Lopez Loiarte andereari.

Arlo akademikoan ezin ahanzi Iñaki Agirre zena, euskeraz gai berri eta ezezagun bati buruzko tesia bere zuzendaritza pean egitera animatu ninduelako. Ildo beretik jota esker anitz Iñaki hil ondoren tesiaren zuzendaritza bere gain hartu zuen Jose Luis de Castrori, berak emandako aholkuak eta azaldutako argibideak asko hobetu dutelako esku artean duzuen bertsioa.

Baina nire eskerrik beroenak bihotz-bihotzez Joseba Agirreazkuenagari. Karreran bere marka uzten duen irakasle horietariko izateaz gain, neuk pertsonalki bizi nuen garai zail eta ilun batean aurrera segi eta hasitakoa amaitzera animatu ninduelako. Berari esker ezina ekinez egina bihurtu da, berak tesiaren zuzendaritza bere gain hartu zuelako, funtsezkoak diren argibideak eman eta lanean zeuden puntu indartsuak hobeto azaltzen lagundu nautelako. Berarekin izandako elkarrizketak eta berak esandakoak beti dira hausnarketarako gonbitea eta mundu akademikoan zenbat gelditzen zaidan ikasteko erakusten duten horietarikoak.

Eta azkenik baina ez azkena inolaz ere nire semeen den Hodei Arregiri eta Markel eta Izaro nire lobei herri txikiek duten baloreaz jabetuko direlakoaren esperoan.

**I. KAPITULUA: GAIAREN GARRANTZIA
GAURKO NAZIOARTEKO
TESTUINGURUAN**

1. AURKEZPENA

1992tik 2007ra doan epe historikoan indigenek aurreko 500 urteetan izan ez duten ikusgarritasuna lortu dute mundu mailan. Euren presentzia eta diskurtsoa nabaria izan da Amerikako Aurkikuntzaren 500. Mendeurrenean (1992), Garapen Iraunkorra (GS) munduratu zuen Errioko Gailurrean (1992), Giza Eskubideei Buruzko Vienako Mundu Konferentzian (1993), Herri Indigenei Nazioarteko Urtean (1993) eta hauei zuzenduriko hamarkadan (1994-2004), matxinada Zapatistan (1994) edota Seattle, Genova ala Porto Alegreko Globalizazioaren Aurkako Biltzarretan, bai eta Arrazismo eta Xenofobiaren Aurkako Durban-eko Bileran (2001) edo Rio de Janeiro-ko 10 urteren osteko Johannesburg-eko II Mundu Gailurrean (2002), Tunezko Informazio Gizarteari buruzko (2005) Gailurrean, eta, azkenik, Balin (2007) Klima Aldaketari buruzko Gailurrean. Biltzar hauetan sorturiko goi mailako dokumentuetan herri indigenak presente egon dira. Honetaz gain asko dira batez ere Latino Amerikan euren konstituzioetan herri indigenei mota bateko edo besteko aipamenak egin dietenak. Gauza bera esan dezakegu Bolivian gertatutakoaz non indigena militante bat presidentea izatera heldu den. Baina zalantzarik gabe, are inportanteagoa da guretzat 2007an gertatutakoa, hain zuzen, herri indigenen eskubideak onartu zituen aldarrikapen unibertsala ontzat eman zuela NBEko Batzar Nagusiak. Gertakizun guzti hauek indigenek mundu mailan lorturiko protagonismoaren isla dira eta orain urte batzuk ezinezkotzat ematen genituen, zalantzarik gabe.

Aipaturiko nazioarteko gailur eta biltzar hauetatik atera diren goi-mailako dokumentu guztietan herri indigenei aipamena egin zaie. Aipamenok herri indigenen eta nazioarteko gizartearen artean egon den historia luze eta gatazkatsuan mugari bat markatu dute zalantzarik gabe. Are gehiago, herri indigenek nazioartean jasan duten isiltasuna, isolamendu eta presentzia ezaren amaiera-puntuaren aurrean gaudela esan daiteke.

Aldaketa puntu honetan kokatzen dugu lan honen hasiera. Herri indigenen agerpena nazioarteko subjektu politikoa bezala, gatazka eta tentsio luze baten isla baita. Batetik botere kolonialek eta Estatuak eragindako domestikazioa (Martinez, 1999) eta ikusezintasuna dugu eta, bestetik, herri indigenek hauen aurka buruturiko erresistentzia luzea. Erresistentzia Laugarren Munduaren sorreran eta herri indigenen nazioarteko proposamen eta praktika politikoaren muinean aurkituko dugu. Errealitate honek galdera interesgarri batzuk planteatzen dizkigu ¿Zergatik hainbeste urte nazioartean izan gabe eta euren errealitatearen estalketa gertatu ondoren berriz agertzen dira XX. Mendeko 90ko hamarkadan?. ¿Zergatik ematen da 90. hamarkadan eta ez lehenago?. ¿Zeintzuk dira Laugarren Munduaren agenda politikoak planteatzen dituen gai nagusiak?.

Ikerketa lan honek aipatutako galderari erantzun bat eman nahi die: noiz galderari

erantzutearekin batera zergatik eta zertarako gertatzen den nazioarteko mobilizazioa argituz.

Indigenei buruz mintzatzen garenean oso zaila da indar kolonizatzaile ezberdinek sorturiko irudi eta estereotipoak gainditzea. Estalketaren alde eraikitako¹ diskurtsoa oso hedatua eta ondo errotuta dugu gure artean. Diskurtso honen ondorio nagusia herri indigenen ikusezintasuna da (Spicer, 1992:47), ikusezina diogu indigenei balorerik gabeko kulturak kontsideratu eta gainera ez zaielako pareko nazio estatusik² onartu. Irudi nagusi honen arabera indigenak barbaroak, periferikoak, basatiak, primitiboak eta modernotasunaren aurrekoak bezala aurkeztuko zaizkigu. Hau da desagerturiko indioa (vanishing indian) delakoaren diskurtsoa (Deloria, 1999; Arregi 1994). Honi jarraituz herri indigenak estali (Dussel, 1996) edota ezkutatu egin dituzte. Indigena ikusteko ezintasuna Estatuek praktikaturiko domestikazioaren (Martínez, 1999) edota Estatuan integratzeko (Duneway, 2003) estrategiaren ondorioa dugu. Ondorioz, indigenak diskurtso eta praktika politiko nagusitik kanpo gelditu dira, bai Estatu barneko zein nazioarteko politikan.

Deskribaturiko indigenak ikusteko ezintasuna gobernu eta populuaren artean ez ezik akademiko, GKE, nazioarteko aholkulari, eta gobernuetako teknikarien artean ere gertatzen da. 1950tik aurrera indigena “garapen arazoa” bezala agertzen zaigu definituta (Rodríguez-Piñero, 2005). Izan ere, garapenari buruzko pentsamendu nagusiak laguntzaren onuradunen artean dagoen kategoria bezala erabiltzen du indigena, euren miseria, marjinaltasuna eta beharra azpimarratzen direlarik (Arregi, 1993). Horrexegatik Estatuaren politiken objektu eta bere politika asimilatzaileen helburu bezala agertu zaigu orain gutxi arte. Hauxe baita indigenei oraingoz toki askotan aplikatzen zaien ikuspegi nagusia. Modu batean ala bestean, indigenak kanpoko aktore eta prozesuen eragina pasiboki jasaten dituzten objektu bezala agertzen dira, ukatu egiten zaie euren garaikidetasuna, modernotasuna, autonomia eta subjektu politikoa direnik. Are gehiago, euren kultura tradizionala, lokala eta estatikoa bezala irudikatuko da eta errez ondorioztatu da euren ezintasuna mundu modernoan integratzeko. Ikuspegi honek ez du aintzat hartzen herri indigenen aktoretza, ekimen politikoa, ezta, are gutxiago, beraiek pairaturiko erasoen aurrean buruturiko erresistentzia.

Gauzak horrela, ez da harrizkoa, orain gutxi arte, herri indigenen esperientzia ikerketa akademikoan hain gutxi agertzea. Hala ere, gauzak zertxobait aldatzen doaz, emeki-emeki eta herri indigenak eta euren aktoretza politikoa ikergai bihurtu dira azken bi hamarkadetan. Aktoretza indigena hau Latino Amerikan bereziki iragarri da (Martí i Puig 2000; Stavenhagen,

¹ Ikuspegi honen sorreran zientzia ezberdinetako adituek izan dute paperaz jabetzeko bide besteak beste Niezen (2003), Keal (2003), Smith (1999), Stavenhagen (1990), Melody eta alia (1994), Seini,(2003), Hall (2004), eta Williams (1990).

² Ikusezintasun politikoaz ari gara hondokoa deskribatzeko “a total inability on the part of members of the dominant nation to perceive the existence of any but themselves within the state” (Spicer, 1992:47).

1997; Bonfill-Batalla 1981; Díaz-Polanco 1996) eta gizarte mugimendu berrien barruan kokatu. Latino Amerikako kasuan herri indigena zehatzei edo konfederazio zein erakunde pan-indigenei loturiko ikerketa ugari txo aurki ditzakegu azken bolada honetan. Ikerketa monografikoak eta tokian tokiko mugimenduei buruzkoak nagusi dira. Gatazka etnikoa edo mobilizazio politikoa aztertzen dituzten ikerketak gehien bat antropologo, soziologo eta politikako adituen lana izan dira.

Antropologoek nortasun indigena berriaren agerpena, tradizio/modernotasunari eta giza eskubideei loturiko gaiak ukitu dituzte. Soziologoek, aldiz, mobilizazio indigenaren nolakotasunak, agenda eta antzekoak, eta politologoek, berriz, Estatu zein nazioarteko markoek eskainitako aukerak eta planteaturiko eragozpenak aztertu dituzte.

Jorraturiko gaiak mobilizazio etnikoa, ohiko lurren galpena, ekosistemen ustiaketa, lurralde indigenen militarizazioa, genozidio, etnozidio eta gainerako giza eskubideen bortxaketa; etab. Gainera, ikerketa asko erdaraz dago baina ikerlari amerikanoek sortua. Espainian herri indigenei buruzko ikerketa, gehien bat, historialari eta antropologoaren gauza da (Gómez, 2001), eta soziologo eta politologo gutxi batzuk sartzen ari dira orain gutxi.

Tokian tokiko mobilizazio indigenari buruzko ikerketa loratzen hasi bada ere ezta antzekorik gertatzen nazioartean indigenek buruturiko mobilizazioa helburu duen ikerketarekin. Izan ere, indigenek sorturiko nazioarteko mugimendu pan-indigena, berarekin loturiko ikusgarritasuna, eta indigenen eskaerak aurkitzen dituen oztopo eta aukerak ez dira horrenbeste ikertu. Honen arrazoa zera dugu: herri indigenak Estatu barneko arazotzat kontsideratu direla orainsu arte. Indigenekin loturiko ikerketan, oro har, maila tokian-tokikoa nazioarteari gailendu zaio. Ikerketan eta euren ondorengo literaturan eremu lokalak duen pisua indigena aborigen edota autoktono bezala identifikatzeko orduan antzeman daiteke. Honelako definizioek pisu handiagoa ematen diote lokaltasunari. Gainera, bakoitzak testuinguru eta diskurtso historiko zehatzei egiten die erreferentzia.

Esanak esan, orain ulertu dezakegu zergatik herri indigenen nazioarteko esperientzi garaikideak -ez duen horrenbesteko interesik sortu akademikoaren artean (Werther 1992; Sobero Martínez, 2003). Gauzak aldatzen hasi dira, eta mundu anglofonoan gero eta gehiago dira herri indigenen nazioarteko mobilizaziori erreparatzen diotenak. Nazioarteko abokatuak, aritu internazionalistak, antropologoak, soziologoak eta politologoak ari dira bidea zabaltzen, gehien bat (Anaya 2006; Churchill 2003; Kingsbury 1998; Pritchard 1998; Smith 1999; Wilmer 1993; Thornberry 1991). Egindako ikerketek kasu zehatzak aztertu dituzte eta nazioarteko zuzenbide berriak giza eskubide, ekologian ala garapen arloetan eskaintzen dituen aukerez zein oztopoez arduratzen dira. Hala ere, aipaturiko egile hauek oso gutxitan erreparatu diote herri indigenen

nazioarteko mugimendu honen sorrera eta garapen historikoari, Niezen (2003) eta Coates (2003) salbuespenak ditugu. Egindako ikerketek herri indigena zehatzen historia tokian tokiko Estatuaren eta beren historia nazionalaren testuinguruan kokatzen dute. Gauzak horrela, Nazioarteko Harremanen arlotik egindako ikerketa urria da oso (Werther, 1992). Halaber, dagoen apurra Nazioarteko Zuzenbide Publikotik, eta prezeskiago Giza Eskubideen ikuspegitik egina da. Joera honekin apurto nahian azken urteotan Keal (2003), Haw (2002), Wilmer (1993), Rysser (1995), Williams (1990), eta aipaturiko Niezen (2003) eta Coates (2003) zein Stavenhagen-ek, 1990tik aurrera egindako ikerketek, herri indigenen nazioartean egindakoari heldu nahi izan diote. Gaur egun, zorionez aditu batzuk hasi dira herri indigenen nazioarteko aktoretza ikertzen. Are gehiago, aditu hauek nazioarteko gizarteari buruzko proposamen alternatibo baten aurrean gaudela uste dute (Ryser 2001; Sheton 1999; Coates 2006; Sills 1993 y 2006; Nietschmann 1985, 1987 eta 1994, Griggs 1992; Smith 1999; Inayatullah & Blaney 2004).

Nazioartean dagoen interesa eta ikerketa kopurua gorantz badoa ez da gauza bera Espainia gertatzen mailako ikerketan. Bartolome Clavero-k eta bere jarraitzaileek egindako lanez gain, urriak dira egindako lanak, emeki-emeki kopurua handitzen doan arren. Egoera hau ez da hobeagoa Euskadin, non herri indigenen errealitateari buruzko ezagupen eza eta idealizazioa nagusi diren. Ezjakintasun hau are larriagoa da gure artean Estatu gabeko nazioen esperientziari buruzko interesa dagoelako. Adibidez, Gurr (2000), Riggs-ek (1998) edota Trejo (2000) gatazka etnikoa eta herri indigenak lotzeko egindako saiakerek ez dute inolako oihartzunik izan. Ondorioz, gatazka etnikoek arduratzen den ikerketa gehiago zentratzen da Estatuekin tirabiran dauden etnonazionalismoetan, gatazka armatua dagoen kasuetan (Trejo, 2000) edota Estatu independentea³ sortu nahi omen duten mugimenduetan (Wilkes-en 1997; Cornassel 2003) Euskadi, Quebec, Flandes, Ipar Irlanda, Katalunia dira, besteak beste, gehien aztertutako kasuak. Werther-ek (1992) gabezi honetaz jabetu da eta etnonazionalismoan berezituriko ikerketak duen ezkutuko pekatuaren esplikazioa eman du ere.

Clearly, the ethnonationalism literature has failed in this area for several reasons. First, most literature on ethnonationalism in the First World simply ignores or gives scant attention to aboriginal groups and has therefore been unable to examine differences and similarities across the whole spectrum of ethnonational movements ... Included in this point is the observation that there is a distinct bias toward studying larger, more powerful and disruptive groups in the larger countries of Europe and North America because of the assumption that the ability to disrupt the state at the center is requisite to success ...

Second, because of the assumptions from which they proceed ... the tendency among researchers has been to focus upon polity-level variables attaching to ethnonational groups generally, rather than on differences and similarities in the structure and content of political claims advanced by individual movements ... In effect, the theoretical, legal, and moral universe in which claims are grounded has usually been ignored. This directs attention away from smaller, less "powerful," and by extension, aboriginal ethno nationalisms that may choose

³ Gai honi lotuta interesgarria da oso Wilkes-en (1997) lana non kasu indigena aurkeztu egiten den eta era berean kritikatu gatazka etnikoan nagusi direla Estatu gabeko nazio euro-amerikanoen kasuak. Honekin bat egiten du Cornassel-ek (2003) eta Trejok (2000). Azken egile hauek indigenak etnonazionalismoaren sakan indigenak sartzeko saio interesgarria burutu dute.

LEHENENGO KAPITULUA: GAIAREN GARRANTZIA GAURKO NAZIOARTEKO TESTUINGURUAN

strategically different weapons because they cannot compete in a political universe dominated by large actors using most "direct" and "mobilization" resources ... The point here is that because of theory-driven attention about what is relevant for success, numerous scholars have ignored the content of political demands as an operational variable in favour of polity-level variables such as socioeconomic status, population, regional concentration, location vis-à-vis the centre, and coherence ... Differences in the legal, theoretical, and moral grounding of competing claims were ignored in favour of these system-level variables (Ibid:20-21).

Paradoxa zera da: mugimendu estaturik gabeko etnonazionalismoaren kasuek ez dutela euren eskubideekiko inolako nazioarteko aitortpenik lortu, eta literaturan bizi direneko Estatuarekin duten gatazka dela aztergai. Espainian, gatazka etnikoa aztertzen duten ikerlari batzuek apurtu egin dute joera hau eta has dira herri indigena eta estatu gabeko herrien arteko harremana aztertzen eta euren interesa zuzendu egin diote estatu gabeko nazioek indigenengan izan dezaketen ahalezko eraginean (Barrientos 2005; Gibernau 1996).

Akademian ez bezala, gizarte mailan, eta batez ere gizarte zibilaren eta mugimendu alternatiboen barruan, indigenen presentziari eta berezitasunari buruzko kontzientzia handitzen doa. Beste inon baino gehiago indigenen presentzia ekologiarren inguruan kokatzen da. Izan ere, indigenak bai popularen artean zein komunikabideetan ekologia eta “moda berdea” deitzen den horrekin lotuta aurkituko ditugu, batik bat (Arregi 1993; Arregi 2006; Landaburu 1998; Sobero Martínez 2003). Hainbat talde ekologisten ikuspegietan (Friedman, 1999), “New Age” mugimenduen esanetan (Aldred, 2000) edota komunikabide batzuek bultzaturiko mezuetan indigenak “homo ecologicus” gorpuzten agertzen dira (Arregi, 1993). Zalantzarik ez “basati onaren” mitoaren bertsio gaurkotu baten aurrean gaudela (Arregi, 2006).

Europako erakundeek⁴ herri indigenen garrantziari erreparatu egin diote, eta euren

⁴ 1980tik aurrera, Herri indigenen aktoretza berriak eta euren garrantzi estrategikoak jabetuz, asko izan dira Europako Parlamentuan herri indigenak, giza eskubideak, ekologia eta GSa lotu dituzten ebazpenak. Lehendabiziko saialera 1994an gertatu zen *Resolution for Indigenous People*. (Eur.Parl. Doc. PV 58(II) onartu zenean. Honelako erabaki batek herri indigenen agenda eta partaidetza bultzatu eta erraztu egin du. Ondorioz, herri indigenak giza eskubide Garapen Iraunkorrarekin (basoekin batik bat) eta garapen lankidetzarekin zein kanpo harremanekin lotuta aurkituko ditugu. DG I (DGIA, DGIB/B/I eta DG IB/D/4, IB/D/2), DG VIII (DG VIII/3, VIII/B/2) eta DG XI - Kanpo Harremanak, Garapen Lankidetzeta eta Ingurumena- dira herri indigenei arreta gehien eskaintzen dietenak. Askok kanpoko arazoa dela uste badute ere, ahaztu egin dute EBren barne ere direla herri indigenak. Indigenek herri batzuetan eragiten duten begikotasunaz aparte Finlandian, Suedian, Dinamarkan, Guayana zein Polinesia Frantsesean indigenak bizi direla ez dugu ahaztu behar, eta EBko nazio gutxiengoez zein hauek suposatzen dute kultur aniztasunari buruz mintzatzen garenean eurotat ere ari garela gogoratu. Hau dela eta, hainbat alditan Europar Batasuna herri indigenek pairaturiko giza eskubideen bortxaketaren aurka agertu da. Urteetan zehar pilaturiko ekimenen poderioz eta nazioarteko erkidegoan gai honekin lotuta izandako aurrerapenak islatuz EB-k dokumentu garrantzitsuak onartu zituen aurreko hamarkadaren amaieran. Modu honetan NBEren mailan gertatutakoei jarraituz EB-k herri indigenekiko Garapen Lankidetzarako Estrategia bat hasteko ideia ideiaz eta Maastrich-eko hitzarmenaren hastapenak goiburu, 1998rako Estrategia Europarraren printzipioak ezarri ziren. Prozesu honetan Laugarren Munduko ordezkariak partaidetza izan zuten. 1998ko martxoan Europako Batzordeak gonbidatu egin zituen Laugarren Munduko 30 aditu berak egindako zirriborroa ezbaidatzerako. Horretarako tailer berezia antolatu zuten *Workshop on Indigenous Peoples and Development Co-operation*, Brussels 1998. Honen antolakuntzak bai ordezkari Samiek zein Inuit Circumpolar Conference-k parte hartze importantea izan zuten. Tailer honek egindako iradokizunak kontuan hartuz, EBko Kontseiluak 1998an *Indigenous Peoples Within the Framework of the Development Cooperation of the Community and Member States* onartu zuen. Ebazpen honekin EB-k indigenak euren helburu eta igurikapenak erdiesteko etnogarapena gauzatzeko eskubidea onartu, euren subjektu izaera aitortu eta biopolitika zein etnoirauenarentzat hain erabakigarriak diren lurralde eskubideak aintzakotzat hartu egin ditu. Honekin batera herri indigenekin lotuta landuriko garrantzizko beste dokumentu bat *Working Document of the Commission in Support for Indigenous Peoples in the Development Cooperation of the Community and the Member States* izan zen. Dokumentu honetan herri indigenekin kontsulta zabala egin zen eta defendatu biodibertsitatearen kontserbazioaren garrantzia, natur baliabideak erabili eta kudeatzeko eskubidea, ohiko lurraldearen gaineko jabeago kolektiborako eskubidearen garrantzia eta eurak euren garapena definitzeko beharra (International Alliance of Indigenous Tribal of the Tropical Forest, 1999:28). Bertan iradokitakoari jarraituz, herri indigenekin loturiko auziak EBaren garapen ekimen guzietan kontuan hartu beharko lirarteke, dagozkion sektore eta erregio guzietan presente egongo dela ziurtatuz. Honek derrigortasuna ezarri du EB eta Estatu mailako garapenari loturiko negoziazioetan herri indigenen auzia planteatzeko eta horrela gertatu da hainbat kasuetan. EBren mailan garrantzizkoa ikusten da guzi honetaz jabetzea eta eraginortasuna bermatzeko departamendu ezberdinen arteko koordinazioa. Ministroen Kontseiluak ezinbestekoa ikusten du gai hau transbertsaltzat (cross-cutting) hartzea garapen plangintzan, are gehiago gobernuen izandako Garate. Modu honetan indigenak EB-ren lanaren

LEHENENGO KAPITULUA: GAIAREN GARRANTZIA GAURKO NAZIOARTEKO TESTUINGURUAN

garrantzia jorratzen duten erabakiak hartu eta ekimenak garatu dituzte. Erabaki eta ekimen hauek Laugarren Munduak irabazitako nazioarteko aktoretza indartsuaren lekuko dira.

Nazioarteko joera honi jarraituz Euskadin ere herri indigenen aldeko ekimenak hartu izan dira, horien artean, aipamen berezia merezi du honako honek: 1996tik aurrera Euskadiko Garapen Laguntzarako Deialdi publikoak lehenetsua handiko taldetzat izendatu ditu herri indigenak.

El día 13 de mayo de 1996 el Parlamento Vasco, a instancias de Mugarik Gabe y de distintas visitas realizadas por representantes indígenas, aprueba por unanimidad de todos los grupos políticos una Declaración institucional. Considerar que las iniciativas existentes en favor del reconocimiento, de los derechos de los pueblos indígenas y tribales en todas las regiones del mundo deben convertirse en parte integrante de una cooperación, Norte—Sur, preocupada por los aspectos que rigen las relaciones entre los pueblos y las personas. En este enunciado se encierra la certeza de que la cooperación entre los pueblos, para ser realmente solidaria y efectiva, debe dirigirse en multitud de ordenes, además de la propia cooperación a través de proyectos de desarrollo” (Gonzalez, 1998:18).

Erakunde mailan gertaturiko joera honetaz gain egon badaude Euskadik indigenekiko dituen ezaugarri berezi eta aipagarri batzuk: batetik, egon badagoelako herri indigenekiko kidesan sentimendua eta (Arregi 1994; Landaburu 1998), bestetik, Estatu gabeko nazioek egindako kanpo politikan euskaldunok dugun interesa⁵.

dimentsio berri bat bihurtzen dira, are gehiago euron lurretan edota kulturetan EB bultzaturiko edozein proiektu ondorioak baditu. Erabaki honekin herri indigenak sektore guziki eta mahi erregional orotan egongo dira. Hala ere, EBren eta Estatu europarren politikan herri indigenak garapen, giza eskubide eta Garapen Iraunkorrek, baso tropikalekin preseskiago aurkitu ditugu lotuta. Basoa herri indigenen habitat eta ezinbesteko baliabidea dela herri indigenentzat onartuko da. Beraz, bultzatu egingo da lurren mugaketa, kultura eta natur baliabideen gaineko eskubide indigenen sustapena, OJ aitopena, babesa eta sustapena etab. Estatuak garaturiko ekimen hauek gain Europako GKEek Herri Indigenekin Aliantza Europarra sortu zuten. Sare honetan Dinamarkako IWGIA, Ingalaterrako Anti Slavery International, Belgikako KWICIA eta Holandako NCIV eta Urriko 12aren Manifestua ditugu partaide. Herri indigenen alde ari diren erakunde hauen helburua EBrekin harremanak hobetzea, elkarren ulerkuntza sustatzea eta herri indigenen auzia EB ren agendan txertatzea da.

5 Indigenekiko lankidetzan Euskal Garapen Lankidetzaren zeregina izateaz gain kanpo ekintza ere da, eta horrela onartu zuten 2001an tesia bezain laster elkarriketatu nituen Euskal Parlamentuko Kanpo Harremanetarako ordezkariak ziren Ormaetxeak (EAJ), Knörr-ek (EA), Navas-ek (EBren Sailburuaren aholkularia). Ekarrizketaturiko eusko politikoei oso esanguratsua iruditu zitzaizkien Laugarren Munduaren agendan agertzen diren hainbat puntu, autodeterminazioari buruzko aurreko kapituluak deskribatu ditugunak. Gainera herri aniztasunarena, biodibertsitatearena edota aniztasun kulturalen auziak, gutxiengo etnikoa ere barne direlarik, (Ormaetxea, Knörr, Navas) garrantzi handikotzat jotzen dituzte. Knörr-ek (2001) dioenez, nazioarteko diskurtsoan den ikuspegi nagusiarekin apurtuz, “aniztasuna arazoa baino erroka bezala ulertu beharko genuke”. Gainera, guzikiok bat datoz “aniztasunaren (herri, biodibertsitatea, kulturala) txertaketa” XXI.mendeko nazioarteko zein barneko auzi nagusietariko bat dela esaterakoan. Erroka honi modu egokian erantzuteko eta nazio zein Estatuaren arteko elkarbizitzarako arkitektura berria eraikitzeko orduan, Euskadik kontribuitzerik baduela uste dute elkarriketatuek. Kontzientzi hau elkarriketatuek izandako nazioarteko esperientziaren ondorio izan da: Ormaetxeak AEBko eta Deustuko programan NBEren bekaunak diren indigenekin, Knörr-ek 2000. urtean Mexikoko Indigenen Kongresuan, Navas-ek Guatemalako eta Latino Amerikako beste kasuak ezagutu. Bertan eusko politikoa hauek Euskadiko esperientzi autonomoak pizten duen interesa ikusi dute. Autonomiaren gestioa, hezkuntza, administrazioa eta komunikabide elebidunak, hizkuntzaren berreskurapena eta birbizitzeko esperientzia etab. Indigenen interesa lortu erakarri dute eta euren esperientziarako Euskadi erreferentziatarako bat bihurtu. Horrela, erreferentzi hau autonomia indigenen esperientziarekin Nunavuut (Kanadan), Groelandia (Dinamarka) Samiland (Noruega, Finlandia eta Suedia) Kuna Yala (Panama) ala Miskituan (Nikaragua) izandakoekin alden du dezakete eta bakoitzaren kasuari zein moldatzen zaion hobeto erabaki. Eusko politikoei argi dute nortasuna mantentzeko eta autonomia kudeatzeko Euskadiko esperientzia inspirazioa izan daiteke indigenentzat ustez “nuestra experiencia es alentadora para ellos yo creo que les va a abrir mecanismos, les va a dotar de instrumentos políticos para poder mantener una nueva y distinta relación con su estado que les garantice a cambio un mayor espacio social, económico, político en el que ellos se sientan que pueden desarrollar sus peculiaridades como pueblo, y a la vez sentir que en el estado no son un eslabón sino que tienen consideración propia” (Navas, 2001:elkarrizketa). Navas-ek aipaturiko descentralizazio-autonomiaren defentsa eta sustapenarekin bat datoz Ormaetxea eta Knörr. Autonomia eta euren aferak euren erara kudeatzeko ahalmena ezinbestekoa ikusten dute “para poner fin a una situación de muerte anunciada” (Ormaetxea 2001:elkarrizketa). Autonomiaren gaia era positibo batean landu daitekeela zioen Ormaetxeak: kasu gehienetan indigenek independentziarik bilatzen ez dutelako eta nahi dutena dira “formulas asociativas de autonomía que les permitan empezar a salir de la difícil situación en la que están y por lo menos empezar a contar con lo principal: una cultura propia dignificada”. Honetaz gain, bere ustez Euskadik indigenek autonomiaren inguruan duten eztabaidan erreferentzia izan daiteke “referente en lo posible y no tanto como modelo” (Ibid.). Bestalde, etnoiraupenean kokatzen du ordezkari jeltzaleak kontribuzio inportantea. Eredu honetan balio gutxiko kultura direla dioen diskurtsoarekin apurtu “romper la imagen de que no tienen futuro y hay que hablar castellano” eta kultur harrotasuna sustatzea da helburua. “No hay culturas inferiores sino que culturas más desarrolladas en ámbitos concretos”. Kanpo Harremanekin, harreman instituzionalekin preseskiago lotuta egonik, esperientzia autonomikoaren eremuan interesgarria litzatekeela indigenek dituzten gobernu autonomoekin harremanak izatea diote elkarriketatuek, hauek Parlamentu zein Gobernu mailakoak izatera heldu daitezkeelarik. 2001ko asmoak errealtateak bihurtu ziren 2007an Jaurilartzak Kolonbiako Gobernuarekin euskararen esperientzia herri indigenen hizkuntza eta kulturak babesteko erabiltzeko akordioa sinatu zuten.

Indigenekin izandako harremana aspaldikoa da, bai Ameriketako Iparraldean mi'k maq -ekin modu baketsuan (McKeen 1995; Esteban 2006; Usereau 2003) zein Hegoaldean konkista garaian eman baitziren. Baina indigenekiko euskal elkartasunaren aurrekariak Sabino Arana-Goiri-k kolonialismoaren aurka idatzitakoetan aurkitu dezakegu (Larronde, 1977: 295-296 eta Clavero, 1998:35). Azken urteotan egon badago herri indigenekiko garatu den herri zaharren arteko kidetasun bat (Landaburu, 1998). Hau da, batetik herri zaharrak izanik, euren historian zehar “kultura primitibotzat/ez modernotzat” kontsideratuak izan direnekiko kidetasuna sentimendua antzeman daiteke. Landaburuk (1998:83) “egoera agoniakoan dauden herrien kulturen arteko elkartasuna” deitu dio honi. Lokarri psikologiko honek “Laugarren Munduaren” partaide diren Estaturagabeko nazioekiko elkartasuna adierazten du. “Euskadin elkartasuna Estatuekin baino herriekin garatzeko joera dugu” zion Garapen Lankidetzarako zuzendaria Igor Irigoienek (2001). Argudio honi gehitu egin behar diogu ondoko errealitate hau: Euskadik garatu duen erabaki gune autonomoa erreferentzia bat dela herri indigenentzat (Díaz Polanco, 1997:116-118). Beraz, kasu honetan lotura psikologikoari euskaldunon zein indigenen arteko interes praktikoa lotu behar zaio. Lotura psikologiko honen beste aurpegi bat hizkuntzak jasandako zapalkuntzari lotuta ala ohiko sistema politikoak jasandako zampaketari lotuta aurki daiteke. Honekin batera, kultur eta nazio gutxituek jasandakoari gehitu egiten zaio ekologia, garapen desarrollistaren aurkako borroka eta giza eskubideak konbinatzen dituen ikuspegi garaikidea. Indigenak globalismo kolonialistaren aurka borrokatzen diren herriak bezala irudikatzen dira eta euren inspirazioa bilatzen da globalizaziori aurre egiteko orduan. Izan ere, indigenak idealizatu egiten dira, eta globalizazio zampaketailearen irudia den Goliat-en aurka borrokatzen diren David txikiak bezala irudikatzen dira, finean “basati onaren” bertsio gaurkotua eginez (Arregi, 2006). Idealizazioari buruz Landaburuk (1998:81) sentimendu honek duen indarra aipatzen du indigenekiko jarrera berria eragin duten zioen artean.

No hay duda que este discurso idealista está presente en el tono y en el contenido de las campañas de opinión organizadas por sectores urbanos “ilustrados” contra los poderes que reprimen a los indios sean los colonos, los terratenientes, los ganaderos, las grandes compañías transnacionales, la represión estatal

Idealizazioa hasiera batean positiboa izan badaiteke ere gerora begira arazo asko sortu ditzake. Landaburuk argi uzten du herri indigenekin izan beharreko harremanean ezinbestekoa dela saihestea askotan gertatzen den “paternalismo y la intromisión indebida”. Honen adibidea eskaintzen digu Clavero-k (2009) deskribatu eta baloratu egiten duenean 2009ko Munduko Gizarte Foroan gertaturiko pasartea.

Las voces indígenas se acogían en efecto como si formasen la comparsa del coro destinado a resaltar unas voces solistas, las no indígenas, entre ellas primordialmente la catalana. Quien paga manda. Puede hacerlo quien financia. En el Foro Social Mundial, o al menos en el Espai pels Drets Col·lectius dels Pobles, las voces europeas se comportan como si les correspondiese ser anfitriones en casa ajena, como si las voces indígenas fueran huéspedes, como si éstas se encontraran invitadas en su propia tierra. De esa parte europea, sin escucharse previamente a la parte indígena, se ofrecen explicaciones sobre cuál deba ser el discurso de todo

LEHENENGO KAPITULUA:
GAIAREN GARRANTZIA GAURKO NAZIOARTEKO TESTUINGURUAN

pueblo sin Estado propio y, por ende según así se les adoctrina, de los pueblos indígenas de América. La aspiración ha de ser ésta, la de constituir un Estado propio, y a ello debe subordinarse cualquier otra aspiración. Las voces indígenas intervienen sin hacerse cargo de ese mensaje tan europeo y, por lo que en Europa todavía resulta que con todo se presume, universal (Ibid:2).

Claverok aipaturiko abanguardismoa 2009an Arkonada kazetariak Palacín izeneko politikari indigenari egindako elkarrizketa batean agertzen da.

En el FSM 2009 en Belem do Para, Brasil, se dio una articulación en torno a esta cuestión entre pueblos indígenas y naciones sin Estado que, liderada por vascos y catalanes⁶, construyeron el espacio de Derechos Colectivos de los Pueblos (Arkonada, 2009:22).

Horrelakoak etorkizunean saihestu nahian, tokian tokiko errealitateak eta kulturen arteko berezitasunak eta ñabardurak errespetatu asmoz, indigenekiko interesa eta errespetua erakutsi behar dela uste dugu. Hau da, herri eta kultura gutxituen arteko antzekotasunak hortxe badaude ere prozesu historikoak eta helburuak ezberdinak izan dira eta horrela diraute gaur egun. 1993an Gregg Morris-ek⁷ esan zidanez herri indigenen (indigenous peoples) eta Estatu gabeko nazioen (nation people) arteko solasaldia positiboa eta beharrezkoa da, ikuspegiak eta esperientziak hainbat arlotan elkartrukatzeko baina ahaztu gabe errealitate ezberdinak direla. Errealitate ezberdinen arteko solasaldiaren beharra eta elkarlanerako jarrera Palacín-en hitzetan aurkitzen dugu, baita Euskadi eta Kataluinaren errealitatearen ezagupen urriaren zantzuak ere.

Ambos nos definimos como pueblos y culturas ligados a la naturaleza⁸, defendemos nuestros orígenes, creemos en nuestra autonomía, desarrollamos políticas y ejercemos nuestros derechos y conocimientos en colectivo. Lo que nos diferencia es que vivimos en continentes separados, con procesos distintos. Pero en esta hora difícil estamos juntos en la tarea de construir un nuevo paradigma (Palacín, Arkonada, 2009:22an).

Aipaturiko solasaldia burutuz etnonazionalismoaren ikuspegi osoago bat, Euroamerikatik haratago doana, eta benetan mundu mailakoa dena izango dugu, horrela egoera hobeto egonik ulertzeko etnonazionalismoaren eskaerak XXI. mendean duten garrantzia. Berriz ere Palacín hitzetan nazio eta indigena herrien arteko solasaldia posiblea eta beharrezkoa da guztiok elkartzen dituelako paradigma berria sortzeko beharrak eta ondorengoak.

no queremos estados que saqueen, destruyan y militaricen nuestros pueblos, queremos la paz, la armonía con la pachamama y con los hombres. La integración de nuestros pueblos debe basarse en la cultura, el respeto y la armonía, no en simples relaciones entre estados basadas en intereses económicos (Palacín, Arkonada, 2009:22an).

Errealitate ezberdinen arteko solasaldi eta elkarlanerako proposamen honetan aurkitzen dugu ikerketa lan honen zutabe nagusietariko bat. Alde batetik dagoeneko Europar Batasunak eta bere kide diren Estatu batzuek onartu egin dutelako herri indigenen aktoretza politikoa nazioarteko erkidegoan eta martxan jarri dituzte euron garrantzi estrategikoa (demokrazia,

⁶ Azpimarraketa gurea izan da

⁷ 1993an Gregg Morris-ekin izandako elkarrizketa pertsonala.

⁸ Gure ustez esaldi honek ez du zer ikusirik euskaldunon azken 500 urteko errealitate historiko eta gaur egungoarekin. Era berean ezin dira konparatu indigenek euren sortzaile-jainkoarekin eta biziaren sarearekin dituzten harreman eta lokarri sakonak eta konplexuakloak geuk ditugunarekin. Harreman konplexu hau gaur egungo agenda ekologikoaren eta "Ama Lurra" defentsatik haratago doa eta ez dator bat euskal gizartearen sektore batzuk aldarrikatzen duten agenda garaikidearekin.

gataska prebentzioa, garapen partaidetza, giza eskubide zein ekologiaren eremuan) onesten dituen ekimenak. Halaber indigenek zabalduko bidea interesgarria delako euskaldunentzat autodeterminaziaren bide Estatuazaleari alternatiba egiten diolako Claverok azpimarratu duen moduan.

¿Interesa esto al pueblo vasco? Directamente, no, pues no parece que se califique como pueblo indígena. Indirectamente, sí, pues las novedades pueden alcanzar a todo pueblo. El derecho de libre determinación va a poder librarse de las adherencias coloniales que lo hipotecan y postcoloniales que lo desvirtúan. La Declaración de Derechos de los Pueblos Indígenas podrá tener un efecto retrospectivo sanatorio los mismos aspectos coloniales de la descolonización. Y pueblos que no han sufrido colonialismo o que han sido incluso partícipes del mismo, como el vasco en el imperialismo español, podrán ahora reconocerse como naciones en el escenario internacional con un derecho de libre determinación que pueda sustanciarse y no agotarse en un concreto régimen de autonomía. La Declaración de Derechos de los Pueblos Indígenas se basa expresamente en el principio de igualdad de todos los pueblos, de todos, de los indígenas y de los no indígenas (Ibid:5).

Errealitate hau abiapuntutzat hartuz, eta jakinik herri indigenen kasua garrantzitsua izan daitekeela Estatu gabeko nazioen nazioarteko politikan interesa duen edozeinentzat, abiatzen dugu gure ikerketa hau. Herri indigenen nazioarteko lan politikoari gutxitan erreparatzen zaiola ikusirik, nazioarteko aktore berri honen aurkezpenean kokatzen dugu gure ikerketaren kontribuzioa. Gure lanak nazioarteko mugimendu berritzaile honi buruzko klabe nagusiak eskaini nahi ditu: bere sorrerari, berau lagundu zuen une historikoari (pull factors), lorturiko errekonozimenduei eta nazioarteko alorrean zabalduko ekintza-eremu politiko berriei, eta prozesu honetan ezaguturiko muga eta oztopoei buruzko informazioa emanez. Era honetan herri indigenekiko nagusi den alterofobia edota alterofiliatik haratago (Arregi, 2006) joan nahi dugu, eta nazioartean garatu duten izate politikoan oinarritu euren buruzko ezagupen berria ezagutarazi. Ikerketa hau gehien bat Lehen Munduko, eta batez Amerikako kontinente osoaren indigenen esperientzian zentratuko da, euren buruzko bibliografia eskuratzea errazagoa delako beste kontinente batzuetako kasuak aipatzen badira ere.

Guzti hau garrantzitsua da oso, batetik, Laugarren Mundua euroamerikanoak ez diren Estatu gabeko nazioek osaturiko nazioarteko aliantza berritzaile baten kasua erakusten digulako. Bestetik, nazioartean bere agenda era arrakastatsuan bultzatu duen eragile etniko berri baten kasua eskaintzen digulako. Gainera, Laugarren Munduak Estatu eta nazioen arteko harreman berri bat defendatzen du, horretarako autodeterminazioari heltzeko beste modu bat proposatuz. Estatu-apurketarik gabeko autodeterminazio honek hirugarren bidea posiblea dela baieztatu du, horrela, gataska etnikoa ikertzen duten adituen artean nagusi den asimilazioa eta sezesioaren arteko eztabaida gaindituz.

Laugarren Munduaren agerpen indartsuak nazioarteko aktore geopolitiko berri baten existentzia eta agenda erakutsiko digu. Honen garrantzia handiagoa da gaur egungo munduan non Estatuak, Estatu gabeko nazioak, multinazionalak eta beste aktore batzuk elkarren aurka aurkitzen

LEHENENGO KAPITULUA:
GAIAREN GARRANTZIA GAURKO NAZIOARTEKO TESTUINGURUAN

dugun (Ter-Gabrielian 1999; Tauli-Corpus 2000; Robillos 2000; Gurr 2000, Gomez 2001; Ryser 2001; Bercovitch 2003; Sobero Martínez 2003). Gaur egungo nazioarteko agendan gatazka etnikoek duten inportantzia handia da oso, eta hauei loturiko ikerketek herri indigenen garrantzia erakutsi dute (Schechterman & Slann 1993; Ter- Gabrielian 1999; Ryser 2001; Gurr 2000; Bercovitch 2003; Murphy 2003). Gatazka hauek Estatu barnekoak dira eta intentsitate gutxikoak (Clay, 1994). Hauetan eta hein handi batean ekosistema indigenetan aurkitzen diren baliabideen gaineko kontrola da jokoan dagoena (Murphy, 2003). Are gehiago, Williams-ek (2003) Estatu barneko gatazka askoren iturburua Estatuek indigenekiko duten jokaera⁹ dela diosku. Horrexegatik, indigenak euren lurralde eta kulturak desagertzeko zorian jarri dituzten Estaturen aurka aurkituko ditugu borroka bizian¹⁰.

Herri indigenen oniritzia ez duten garapen planek eginkizun kolonialistak bihurtzen dira sarritan. Testuinguru honetan kokatu behar dugu Laugarren Munduaren sorrera eta garapena. Laugarren Munduan herri indigenen erresistentzia nazioartean proiektatzeko ahalegina baita.

The ethnic thrust of the Fourth World Movements is characterized by the attempt of indigenous peoples to retain and regain control over what traditionally was theirs to control before states were created or imposed upon them (Sills, 1993:10).

Gatazka etnikoek nazioarteko agendan duten garrantzia horren handia izanik nazioartetik euren prebentzio eta konponbiderako ahalegin dezente egiten dira (Gurr, 2000). Gainera, joera honek gora egingo duela dirudi NBEk 2002ko txosten batean agertu duen bezalaxe, Estatu barneko gatazkek inportanteak izango direlako 21. mendean (Dunaway, 2003).

Laugarren Munduaren errealitatea ezagutzeko premia handiagoa da 2007ko irailean NBEren mailan onarturiko Herri Indigenen Giza Eskubideen Aldarrikapena (hemendik aurrera HIGEA) onartu ondoren. Batetik onarpen honek zein herri indigenei propio zuzenduriko nazioarteko legediaren garapenak behartu egiten gaitu mugimendu honen historia eta garapenari erreparatzera. Bestetik, horrelako nazioarteko aitortpena jaso ondoren handitu egingo dira herri indigenekin batera eta bere ekimenez burutuko diren proiektuak. Kasu bietan Laugarren Munduak jorraturiko bidearen kode nagusiak ezinbestekoak bihurtuko dira munduko herri indigenekin lan egiteko orduan, are gehiago iraganeko akatsak errepikatu nahi ez badira.

⁹ Nazioarteko politikarako hain esanguratsua den Estatu barneko gatazken eremu honetan herri indigenen presentzia eta garrantzia asko handitu da azken hamarkadetan. "we would argue that the most important source of the War Within is exploitative (asymmetrical) domination that is, the use of coercion to control and extract gain from an encapsulated population without any corresponding flow of safeguards and benefits from the State or from its dominant ethnies to the subordinate populace (Williams, 2003:146).

¹⁰ Indigenen erresistentzia Estatuek edota honekin loturiko aktoreek egindako erasoei erantzuteko saiakera bezala ulertu behar da "Direct threats to land tenure or incursions by outsiders have always been met by a show of force, and many times have led to violent confrontations during which Indians usually suffer the highest casualties. On the rare occasions when Indians have formed armed organizations, they have almost always done so to defend themselves against violent attempts to expel them from ancestral lands, or to protest government attempts to dissolve Indian land rights protected by law" (Van Cott, 1996:2).

2. HERRI INDIGENEN DEFINIZIOAK ETA LAUGARREN MUNDUA GURE AUKERA BEZALA

Indigenaren kontzeptua Amerikako konkista bezain zaharra bada ere, ezin ukatu Herri Indigenen presentzia garaikidea, nazioartean onarturiko gizarte kategoria bezala, oso gertakizun berria dela. Batez ere, aurretik historian ez delako inoiz egon bost kontinentetan lanean ari den antzeko mugimendu pan-indigenarik.

Herri indigenei buruzko edozein ikerketak definizioaren auzi konplexu eta gogorrari heldu behar dio, inolako zalantzarik gabe. Jakin badakigu saiakera honek konponbide erreza ez duen auzia dela eta hain zuzen berau argitu nahian mundu osoko akademikoak, gobernuetako adituak eta herri indigenak ere ari direla eztabaida bizian.

Historikoki herri indigenek euren izen propioak erabili dituzte euren buruak definitzeko. “Quechua”, “Aymara”, “Sami”, “Inuit”, “Lakota”, “Dene”, “Kuna” jatorrizko izenak dira bakoitza herri bakoitzaren esperientzia historiko, kultural eta politikoaren isla izanik. Kasu guztietan izen hauek dimensio geografiko inportante bat dute, lurralde eta ekosistema zehatzekin estuki loturik aurkituko ditugarrik. Hala ere, XX. mendean emandako kontzientzi eta mobilizazio politikoaren ondorioz, europarrek emandako “indigena” deitura berreskuratu eta mesprezuzko definizio honi buelta emanez borroka anti kolonialista eta askatzailearen sinboloa bihurtu dute (Caravante, 1999)¹¹. “Herri Indigenen” nortasun pan-indigena baten deitura da hein handi batean. Intelligentsia indigena eta Estatu, aditu, GKE eta NBEren artean izandako elkarrengaitzaren ondorioa da. Definizioa nazioarteko konferentzi eta biltzarretan sortu eta NBEren Giza Eskubidearen Azpi Batzordeak antolaturiko ekimenen babespean loratu dela gogoratzen digu Daes-ek.

... the term, "indigenous"; and it has developed out of the efforts of the United Nations to do justice to hundreds of millions of neglected and oppressed people around the world, who all suffer from a particular form of racism based on their way of life: their religions, their means of subsistence, and their attachment to their lands (Daes, 2001:NET).

Hala ere, akademiko edota erakunde ez indigenek emandako izenekin ezagutzen ditugu. Hauek izan dira indigenen irudi historiko eta garaikidea eraiki dutenak azken bi mendeetan.

¿Para nosotros los indígenas siempre resultó sencillo llamamos los unos a los otros, no como indios sino, como en el caso de los terenas, como 'xané', "boinún", lo que significa "nuestra gente" o "hermano"; pero en un momento determinado, después del encuentro con los conquistadores, fuimos obligados a adoptar por lo menos dos formas de identificación. Por un lado, un nombre y un apellido cristiano y, en algunos casos, el bautismo. Por otro, una denominación tribal, debidamente catalogada, investigada y archivada. Naturalmente, para eso también tuvimos que adaptamos para no estar al margen de los conceptos designados para nosotros por los grandes "expertos" en asuntos indígenas. No bastando con eso, a partir de ese conocimiento, muchas veces momentáneo o vivido sólo en la época de las investigaciones, el hombre blanco estudioso creó conceptos

¹¹ AEBko indigenek etxean daudenean euren militantzi politikoa erakusteko “native American” erabiltzen dute. Osterantzean, NBEren inguruan daudenean “indigenous peoples” deitura erabiliko dute nazioarteko testuinguruarri moldatu asmoz.

LEHENENGO KAPITULUA:
GAIAREN GARRANTZIA GAURKO NAZIOARTEKO TESTUINGURUAN

de definición hasta el punto de que un día un indio que se había encontrado con un especialista había afirmado, después de leer esas tesis: 'doctor, leí sus estudios y continúo estudiando, porque todavía no conseguí ser el indio que el señor escribió...'; es decir, el proceso se estaba invirtiendo o peligrosamente (Terena, Caravantek aip.,1999:22).

Ez indigenek egindako definizio hauek kasu batzuetan kutsu kolonialista garbia dute eta gehienetan etnozentrismo izanik jatorrizko izenen tokia hartu dute. Are gehiago, kasu askotan herri indigenentzat iraingarriak dira “Apache” (etsaia), Eskimal (okela gordina jaten duen jendea) etab. direlarik. Aldiz taldea izendatzeko orduan “indios”, “indígenas”, “nativos”, “tribus”, “minoría tribal”, “pueblo nativo”, “aborigen”, “pueblo autóctono”, “primeras naciones”, “nacionalidades indígenas”, “pueblos indígenas”, y “Cuarto Mundo” (Sobero Martínez,2003) erabili dira. Izen hauek europar zibilizazioak sorturiko ikuspegi eta kategorietan oinarriturik daudelarik.

Testuinguru honetan deitura eta definizioen arteko talka topatzen dugu eta eztabaidaren gibelean zibilizazioen arteko hika-mika dago. Ondorioz gaur egun ez dago unibertsalki onarturik dagoen herri indigenen definiziorik. Batetik, Estatuak, nazioarteko erakundeak eta adituek definizio oro hartzaile bat egiteko asmotan dira. Bestetik, gai honek eztabaida franko sortu ditu indigenen artean eta ez dago erabateko jarrerarik. Esate baterako Asiako herri indigenek definizioaren alde agertu dira Estatuak inposatzen dieten estalketari aurre egin asmoz (Sobero Martínez, 2003), beste kontinente batzuetakoak, aldiz, auto definizioaren alde lerrotu dira. Comtassel (2003) identifikazioak sortu dituen arazo eta kategoriak aztertu ditu. Bere aburuz, akademian eta gobernuak sustaturikoak daude, aditu, erakunde indigenek eta GKEek sorturikoak eta aldiz nazioarteko erakunde berezituak sustaturikoak daude.

Gauzak horrela aurkezten den proposamen bakoitzak eztabaida bizia sortzen du. Eztabaida politiko hau gori-gorian aurkituko dugu, batez ere, nazioarteko zuzenbidearen inguruan gertatzen denean. Lege testuinguru batean ezinbestekoa baita eskubideen jabea nor den argitzea, jakin ahal izateko nor sartu daitekeen kategoria honetan, eta nor ez, jakiteko nori dagozkion babesak eta onurak eta nori ez.

Gure tesiaren kasuan debate konplexu hau saihesteko hautua egin dugu, jakin badakigulako gutxiengoaren kasuan ez dagoela definizio unibertsalik (Thornberry, 2002). Halaber, gure helburua herri indigenen mugimenduaren izate politikoan zentratzea da eta bere izaera transnazionala azpimarratzea. Arrazoi hauek direla medio indigenek beraiek sorturiko Laugarren Mundua hautatu dugu ikerketa honetan erabiltzeko. Proposamen hau indigena garbi-garbia delako, esperientzia indigena islatzen duelako eta Nazioarteko Harremanetan espresuki aritzeko sortua delako.

2.1 HERRI INDIGENEN DEFINIZIOA: EZTABAIDAREN GAKOA ETA IKUSPEGI EZBERDINAK

Laugarren Munduarekin loturiko auzitan pil-pilean dagoen hika-mikarik gogorrena herri indigenen “herri” (*Peoples*) ala “populazio” (*People*) izaeraren inguruan ematen da. Arazoa deitura soila baino askoz inportanteagoa da. Definizioaren inguruko eztabaidak nazioarteko legediari eta bere garapenari jarraitzen dio. Ezin dugu ahaztu gauza askoren gainerik Estatuak sorturiko eta bultzaturiko eztabaida dugula hau, eta bere benetako garrantzia sistema normatiboan izan dezakeen eraginean¹² aurkituko dugu. Hau dela-eta “herri indigena” deitura eta kontzeptu moderno, dinamiko, zabala eta aldakorra kontsideratu behar da.

El concepto de «pueblos indígenas» es, como cualquier otro concepto legal, una construcción que en si misma posee un efecto formativo sobre las opiniones sociales y la evolución legislativa (Kingsbury, 1997:55).

“Herriak” izendatzearen aurka Lehen Munduko eta bereziki Hirugarren Munduko, Estatu asko aurkitzen ditugu. Euren ustez honelako izendapen batek berorri nazioarteko legedian dagozkion autodeterminazio eskubidea eta Estatu berri bat eraikitze eskubidea aitortzea litzatekeelako¹³. Eztabaida ez da ahuntz baten gaueko eztula, inondik inora, bertan indigenentzat oinarritzko diren auziak biltzen direlako.

The use of the term, peoples rather than people is not simply a semantic concern. The former connotes not just the basic human rights to which all individuals are entitled, but also land, territorial and collective rights, subsumed under the right of self-determination. In contrast, terms like people, population, and minorities tacitly deny territorial rights (IUCN, 1997:28-29).

Euren historia paradiplomatikoa osoan “populazioa”¹⁴ ala “gutxiengoak” deitura indar osoz borrokatu egin dute herri indigenek. Deitura/kategoria hauek eurentzat historikoki pairatu duten diskriminazio eta arrotzen inposatzearen marka bat direlako¹⁵. Indigenen ustetan “gutxiengoak” bizi direneko Estatuaren gehiengoarekin bat egiteko borondatea erakutsi dute. Ez da horrelakorik gertatu itun bereziak eta nazio tratamendua izan duten hainbat herri indigenen kasuan. Eurak domestikazio politiken eta barneko kolonizazioaren ondorioak jasan dituztelako beste kategoria bat nazioarteko zuzenbidean dagokiela defendatu eta lortu dute.

The rights pertaining to minorities as recognised by the UN are weak (based on individual rights and state-centred peoples. Thus to label people as minorities when they consider themselves indigenous and are considered by other indigenous peoples as indigenous would appear discriminatory (International Alliance of Indigenous-Tribal Peoples of the Tropical Forest, 1999: 24).

Populazio ala herriak eztabaida hau nazio/herritasuna mugatzeko zentzuan gertatu da. Era

¹² Bide Daes (1996) eta (1997).

¹³ Herri hauek autodeterminazio hau kolonialismo kasuetara mugatu nahi dute, herri baltikoen eta Sobiet boterearen pean zeuden beste nazio berrien kasuan kontrakoa erakutsi badu ere.

¹⁴ Populazio deitura oso deskriptiboa da, munduko edozein giza taldea da populazioa eta, noski, honi ez dagozkio inolako eskubiderik nazioarteko legedian.

¹⁵ Diskriminazioa eta inposaketa diote NBERen Kartan herri guzietan dagoen berdintasuna eta autodeterminatzeko eskubidea ukatzen zaielako eta eurok euren burua definitzeko gaitasuna mugatu nahi delako kanpotik inposaturikoari lehentasuna emanez. Herri indigenek historikoki pairatu egin dituzte kanpotarrek egindako definizioak, hauek ezkorrak, partzialak eta zapalkuntza zein desitxuratze politiko-kulturala burutzeko balio izan dutelako.

LEHENENGO KAPITULUA:
GAIAREN GARRANTZIA GAURKO NAZIOARTEKO TESTUINGURUAN

berean HIGEAREN onuradunen kopurua murriztu nahi da (Sanders, 1999). Historian hainbat aldiz gertatu den bezala “indigena” zein den eta honi zer eskubide dagozkion ez indigenek erabakitzen ari dira. Hau horrela da nazioarteko sisteman eta bere erabaki esparruetan Estatuak dutelako nagusitasuna. Maila lokalean eztabaida honek ez du izateko arrazoirik. Aldiz, nazioartera egiten duenean eta herrien arteko eztabaidaren testuinguruan gai potoloa bihurtzen da. Are gehiago eskubideak baldin badaude jokoan.

Esaterako NLE 169. hitzarmenean, “herri indigena” deitura honekin batera ohar mugatzaile bat agertzen da. Oharrak argi uzten du bere erabilerak ez duela kategoria honi nazioarteko zuzenbidean onartzen zaizkion eskubideen onarpena suposatzen. Joera honen beste adibidea dugu 1993an onaturiko “UN International Year of the World Indigenous People”. Ahalegin sendoa egin da “herriak” izenburua saihesteko. Indigena eta Estatuak topo egin duten foro guztietan eztabaida gertatu egin da. Estatuaren beldurra antzua zela erakutsi zen 2002ko Johannesburgoko Aldarrikapenak eta berari loturiko Ekintza Planak “herri indigenak” deitura erabili zutenean¹⁶. Hau horrela onartu zen eta 100 Estatu buruek baietsi zuten. Hala ere, eztabaida honek herri indigenekin loturiko praktika politikoa eta eztabaida akademikoa baldintzatu du 2007an Nazio Batuetako Batzar Orokorrak Herri Indigenen Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onartu duen arte. Izenburuan nabaria den moduan, Laugarren Munduarentzat erreferentzia den dokumentu honek Herri Indigenak dio eta ez Populazioak aurreko bertsioek zioten bezala.

Era batean zein bestean, definizio eta herri ala populazio deitura erabiltzeko hika-mika ikuspegiaren arteko talka sakon baten erakuslea da: Batetik Estatuak eta bere aldekoak, bestetik erakundeak indigena eta bere aliatuen aurka.

Definizioaren arazoari heltzeko eginiko lehenengo saioen artean, zalantzarik gabe, Martínez Cobosek bere ikerketan egindako definizioa daukagu. Bera da beharbada onartuena gaiari buruzko literaturan. Bertan kolonialismoa baino lehen hantxe bizi ziren kulturekin harreman zuzena izatea ala hauen ondorengoa izatea¹⁷, berezko etnikotasuna mantentzea, bazterkeria pairatzea zein gizarte aginte gunetatik at egotea aipatzen dira. Baita ere euren kulturak mantentzeko eta euren ohiko kultura, lurraldeak, baliabideak eta sistema politikoak zein honi loturiko nortasuna ondorengoei helarazteko desio sendoa edukitzea. Hauek erabiltzen ditu

¹⁶ Onaturiko formula ondoko hau izan zen: “We reaffirm the vital role of indigenous peoples in sustainable development - 2001ko *Durban Political Declaration of the World Conference on Racism* dokumentuak ere erabiltzen du deitura hau baina 24. parrafoan deitura hau mugatu egin zen NLE 169an egin zen bezalaxe.

¹⁷ Iraupen kulturala deitzen dugun honen erakusle bezala hortxe ditugu beste batzuen artean ohiko lurraldeen ala euren zati baten okupazioa; bertan egon direnen ahaide izatea; kultura oro har ala honen agerpen zehatzak, hala nola, tribuan izandako bizimodua, komunitate indigena baten kide izatea, jantziak bizimodua, bizirauteko moduak, hizkuntza nagusia ala famili zehaideekin komunikatzeko hizkuntza indigena izatea; herri ala munduko zonalde zehatz batzutan bizitzea etab. Honetaz gehiago sakontzeko bide Martínez-Cobo (1986) 22 kapitulua. Dena dela, ezaugarri hauetariko baten iraupena nahikoa izango litzateke harreman historikoa frogatzeko

erakusle giza bere definizioa eraikitzeke orduan¹⁸.

Those which, having a historical continuity with pre-invasion and pre-colonial societies that developed on their territories, consider themselves distinct from other sectors of the societies now prevailing in those territories, or parts of them. They form at present non-dominant sectors of society and are determined to preserve, develop and transmit to future generations their ancestral territories, and their ethnic identity as the basis of their continued existence as people, in accordance with their own cultural pattern, social institutions and legal systems (Simpson, 1997: aip. 206).

2.1.1 Definizio Mugatzailea: Ikuspegi Historikoa

Definizioaren inguruan sorturiko eztabaida dela-eta ikuspegi hau osotzeko saiakerak egin dira. Alde batetik Miguel Alfonso Martinez-ek, bere 1999ko txostenean definizio historiko mugatzaile baten aldeko apustua egin zuen Cobos-en definizioan ia edozein sartu.

Ikuspegi honen aldekoek, definizioa egiterakoan Europarrek sorturiko nazionalismoaren mundu sistemaren garapenari begiratuko diote eta eurek sorturiko “indigenaren”¹⁹ definizio historikoari. Hau Amerika, Australia eta Zelanda Berrian gertatutakoa hartzen da kontuan eta Europarrek indigenatzat zituzten herriak kontuan hartuko ditu. Martinez-ek (1999) ezberdindu egiten du, hurbileko lurretan izandako zabalkuntza-zapalkuntza (kasu honetan zapalduak gutxiengoak direlarik) kasuak eta urruneko-urazandiko, itsaso beste aldeko lurretan, gauzaturikoaren artean. Martinez-ek europar kolonizazio biktima izatean aurkituko du indigenaren nolakotasun garrantzitsua bezala. “Blue water” printzipioari helduz, distantzi geografikoa egonez gero herri indigenen kasuan geundeke²⁰ bestela “gutxiengo” baten aurrean.

Deskolonizazioa burutu zenean, “Estatu indigenak” sortu zirelako, bertan herri indigenez ezin dela hitz egin defendatzen du²¹ egile honek. Beren ustez ezin da mantendu batzuk besteak baino indigenagoak direnik. Beraz, bere aburuz Hirugarren Munduko Estatu berrien kasuan hobe da “gutxiengo”²² kategoriaz mintzatzea²³.

Jarrera honekin Martinez-ek G-77 hitzarmendun herri indigenen aldeko laguntza lortu

¹⁸ Definizio hau gehien aipatzen dena dugu herri indigenei buruzko bibliografian.

¹⁹ Indigenak hemen europarrak ez diren guztiak izango dira. Hemen kolonizatzaile kolonizatuaren arteko botere harremana, hasierako kapituluaren deskribatu duguna, ezberdinen arteko izango da eta egitura sozial etnokratiko baten barruan gertatuko da.

²⁰ Intelektual indigenek gogor kritikatu egin dute ikuspegi mugatzaile hau, ordezko ikuspegi bezala bane kolonialismoarena bultzatuz. Hirugarren kapituluaren defendatu dugun bezalaxe historian zehar independentzia lortu berria duten Estatu askok herri eta kultur aniztasunaren gainean sistema eta praktika politikoa eraiki beharrean euren jauntxo kolonialek erabilitako ikuspuntu, praktika eta politika zapaltzaileak eta askotan, “garapena” bihurturiko behialako “ozidentalizazioarekin” gertatu den bezala, helburu berberak bereganatu ditu.

²¹ Asia ala Afrikako gobernuak ikuspegi honi helduko diote eta denak indigenak direla mantendu.

²² Martinez-ek Cobos-i egindako kritikan bere definizioan talde ezberdin asko kabitzen direla dio eta bereizi behar direla “gutxiengoak” (bertan gutxiengo etnikoak ala Estaturik gabeko herriak egonik) eta “herri indigenak” dio. Bere ustez bereiztu behar dira kolonialismo historikoak buruturiko urruneko lurren okupazioa eta Estatu modernoek burutu duten hurbileko lurren okupazioa. Bereizitasun honek noski ondorio latzak izango ditu “herri indigenei” eta “gutxiengoei” zabaldu dituzten eremuak eta prozesuak nazioarteko mailan eta, batez ere, NBEren mailan zeharo ezberdinak direlako.

²³ Azkenean errelatoreak salatu nahi duena zera da Estatuek zapalduko hainbat taldeek herri indigenen taldera jo dutela besterik ez dutelako ala aukera gehiago ikusi dituztelako prozesu honetan “gutxiengoen azpibatzordean” baino. Bere jarrera kontrarioa da eta zalantzarik gabe “herri indigenen” izaera dutenei bakarrik partaidetza eta lege prozesu berriaren onura mugatzea eskatzen du. Jarrera honek “herri indigenen nazioarteko mugimenduak” mantendu dituen unibertsaltasun eta berdintasun printzipioekin topo egiten du.

LEHENENGO KAPITULUA:
GAIAREN GARRANTZIA GAURKO NAZIOARTEKO TESTUINGURUAN

nahi zuen, Afrikan ala, batik bat, Asian honelakorik dagoenik ukatzen duen heinean²⁴. Txina²⁵ eta Asiako beste herri batzuk gogoko dute ikuspegi hau euren lurraldeetan indigenak daudenik ukatzen baitu (Kingsbury, 1997). Hirugarren Munduko Estatu batzuentzat herri indigenen kasua kolonialismo historikoarekin loturik aurkitzen dugu²⁶ eta ez gaur egungo prozesuekin. Bostwana eta Namibiak, Afrikako Estatu izenean hitz eginez, honelako argudioei heldu zieten 2006ko abenduan HIGEAren onarpena NBEko Batzar Nagusiak gelditzeko.

Gure ustez, Guda Hotzaren arrastoak aurkitu daitezke eztabaida honen gibelean. Esate baterako, herri indigenen auzia AEB-ek praktikatzen duen giza eskubideen tratamenduan kritikatzeko parada ematen dio Kubari (1999) eta Hirugarren Munduko beste batzuei Iran (2006). Horrela Lehen Munduak arlo honetan egindako salaketak itzultzeko eremu aproposa eskainiz. Esate baterako, Martinez-ek errelatore kubatarrak bere txostenean eraso gogorra egiten dio AEBri Hawaiko kasua gogoratuz. 1993an AEBko Kongresuak “Apology Act” pasatu zuen eta onartu bertan Hawaiko erresuma boteretik kentzea lege kontrakoa izan zela. Hau dela-eta, Martinez-ek deskolonizatzeko dauden NBEko herri deskolonizatuen zerrendara itzultzea eskatu zuen bere txostenean.

Ikuspegi honek tirabira asko sortu zituen NBERaturiko indigenen artean. Mugimenduaren batasuna eta mundu mailako zabalera kolokan jarritz, hala ere, askok ezetza eman zioten Afrika eta Asiako indigenak bakarrik uzteari.

Jokoan dagoena berebiziko garrantzia du Estatuaren erasoak pairatzen ari den edozeinentzat. “Herri indigena” ala “gutxiengo”²⁷ kontsideratua izateak, metafora bat erabiliz, kirol eta zelai zeharo diferentek aukeratzea delako, eta ezberdintasun honek jokoaren arauetan, arbitroaren jarreran eta publikoaren harreran erabateko eragina izango duelako. Finean, kategoria bakoitzari nazioarteko diplomaziak aitortzen dizkion eskubideak eta tratamendua ezberdinak direlako.

UN practice sees minorities as ‘confined to the realm of their individual rights and as a matter privy to the internal jurisdiction of states. Minorities now have their own Working Group and it should be used. In contrast, indigenous peoples have collective rights and seek international mechanism for the resolution of conflicts with state authorities (International Alliance of Indigenous-Tribal Peoples of the Tropical Forest, 1999:22).

²⁴ Martinez-ek hirugarren munduko Estatu berriek euren osotasuna zaintzeko duten mandatuaren alde jotzen du eta esan balkanizazioa eragotzi behar dela esan. Jarrera honen defentsa E/CN.4/Sub.2/1999/20:89 paragrafoan ikusten da argi eta garbi.

²⁵ Txinak ez du Tibet ala Taiwan-eko herri indigenen kasua NBEan tratatzerik nahi eta argi utzi du bere jarrera Taiwan-etik etorritako ordezkarien partaidetza Lantaldean behin eta berriz oztopatu duenean. Saio honen atzean herri hauek euren kasuak nazioarteko iritziaren begitik at mantentzeko gogo dago, jakin badakitelako herri indigenen egoera aldeko hainbat GKE eta erakundearen interesa erakarri egingo lukeela eta hauexek bizi duten egoera aztergai eta eztabaidagai bihurtu. Publizitate ezkor hau saihesteko asmoz, herri indigena batzuei laguntza eman, baina kategoria honetan sartu daitezkeen herriak bere lurretan daudenik ukatzea izango da erabilitako estrategia.

²⁶ Ikuspegi honetan Cojti-k (1997) hain sutuki kritikatu zuen “ur-gatzituaren” teoriaren isla ikusten da. Kolonialismo historikoarekin lotuz herri indigenak identifikatzeko irizpide historiko-geografiko bat bultzatzen da eta ukatu egiten da deskolonizazioaren ondoren sorturiko Estatuaren indigenak egon daitezkeenik ala barne kolonialismoaren antzeko fenomenoak izan daitezkeenik. Kasu honetan noski Afrika eta Asia kanpo gelditzen dira eta kolonialismo europarra historikoki jasan duten herrietara eta zonaldeetara mugatzen da definizioa.

²⁷ Auzi eta etengabeko eztabaida honi buruzko nondik-norakoak hobeto ulertzeko bide Thornberry (1995), Kingsbury (1997), Alfredsson (1993), Daes (1995).

Nazioarteko definizioarekin bat egiteak herri indigenek sortu duten nazioarteko laguntza sarean sartzea ala ez, herri indigenek NBen zabaldu duten eremuan parte hartzea ala ez eta nazioarteko zein barneko abantaila politiko eta legal guztiekin nazioarteko erakundeek herri indigenei zuzentzen dieten tokian tokiko zerbitzuetan, parte hartzea ala ez suposatuko luke (Kingsbury, 1997).

2.1.2 Definizio zabalak: Unibertsalismoaren bidetik

2.1.2.1 Definiziorik ez

Aukera honen aldekoa agertzen da Patrick Thornberry. Beraren ustez herri indigenek ez dute nahi eta ez dute horrelako definizio bat behar. Thornberry-k definizioaren aldeko argudio erabatekorik ez dagoela dio eta honelako saiakerak prozesua lagundu baino oztopatu egiten duela diosku. Bere apustua herri indigenak prozesu politiko eta diplomatikoen konplexutasunetatik at uztearen aldekoa da eta definizioaren mamia herri indigenen erabilera eta esperientzia praktikotik lortuko dugula dio. Azken finean herri indigenen kontzientzia eta mugimendua bera zapalkuntza eta injustizi esperientziez jabetzetik baitatorkie.

Definizioaren auzian hainbeste zalaparta egonik, askok ahaztu egin dute gutxiengoen kasuan ez dagoela unibertsalki onarturiko “gutxiengoen” definiziorik eta honek ez du orain arte lana eragotzi (Enriksen, 1999). Beraz, herri indigenei gauzak aurrera ateratzeko definizio bat inposatzeko nahia hainbat aldiz salatu egin duten bereizkeriaren adibidea dugu hau. Nahi dena da eskubideak eta honen jabe direnen kopurua mugatzea eta nazioarteko ikustatze sistema Estatuetatik kanpo mantentzea.

2.1.2.2 Ikuspegi multianitza

Daes, Burger ala Kingsbury antzeko adituek kontzeptuaren unibertsaltasuna, dinamismoa eta birdefinizioa azpimarratzen dituzte, kolonialismo mota berriei eta herri indigenek pairatzen duten egungo egoerari hobeto erantzuteko asmoz. Egile hauentzat auziaren gakoa, beraz, jatorriz Ameriketara jaiotako kontzeptua munduratzeko orduan planteaturiko arazo politikoan aurkituko beharko dugu, eta honek nazioarteko “status quo”ri planteatzen dion erronkan.

El caso de la expansión del concepto internacional de «pueblos indígenas» fuera de las áreas de colonialismo europeo en las cuales se desarrolló inicialmente, crea un espacio para la polémica política e interrogantes legales sobre el carácter y el desarrollo óptimo de este concepto legal internacional (Kingsbury, 1997:49).

Definizioaren auziari heltzeko International Alliance of Indigenous-Tribal Peoples of the Tropical Forest (1999) egindako artikuluan definizio anitza defendatzen da, ingelesez “polithetic” deitzen dena.

Polythetic refers to a form of classification where multiple criteria can be used, but not all factors need to be used at the same time. The Cobo report uses this model and it appears in writings by people such as Burger and Kingsbury. For example, Kingsbury compares essential aspects of being indigenous (self-identification, experience of vulnerability, connection to a region and a distinct identity) with other relevant criteria (non-dominance, link to territories, prior occupation, language and cultural differences). In this way, it becomes possible to approach indigeness from a flexible perspective, linking self-identification to general criteria, which all indigenous peoples share... not all of which need be at present at any one time (International Alliance of Indigenous-Tribal Peoples of the Tropical Forest, 1999:23).

Honi jarraituz, Kingsbury-k (1997) erakusle zerrenda baten alde agertzen da. Proposaturiko sistema konplexu eta korapilatsu horretan erakusleen artean aurrebaldintza direnen eta garrantzizko diren²⁸ erakusleen artean berezitu beharko litzatekeela diosku. Ikuspegi oro hartzaile honen arabera herri indigenen arteko antzekotasunak (kolonialismoek eragindako sufrimenduen esperientzia zein Lantaldea partaide izatea) hartzen dira kontuan.

Suele haber notables semejanzas entre los problemas, las quejas y los intereses de los diferentes pueblos indígenas, pese a su diversidad cultural y étnica, y, por consiguiente, en la manera en que los presentan ante los foros internacionales. La participación de las comunidades y organizaciones indígenas en las reuniones de las Naciones Unidas ha servido para poner de relieve estas semejanzas (ONU, 1998:5).

Ikuspegi anitzari heltzen dioten adituen artean, lan garrantzitsua eta sakona egin duelako, begiratu diezaiozun Erica Daes-ek (1996) egindako kontribuzioari. Gaiaren konplexutasunaz eta garrantziaz jabetuz egile honek erreferentziazkoa den ikerketa burutu zuen Populazio Indigenen Lantaldearen presidentea zenean. Daes-ek definizioaren ikuspegi zabala, geografikoki eta historikoki mugatuta ez dagoena defendatzen du, eta garrantzi gehiago ematen dio Estatu eta herri indigenen arteko harreman motari historia eta kolonizatzaileen jatorriari baino.

2.1.2.2.1 Erica Daes-en aportazioa

Ikuspegi historiko bati helduz Daes-ek ondokoa diosku “herri indigenak” deiturak lurralde zehatz batzuekiko bertakoak izanik arrotzen meneko bihurtu diren herriei egiten diola erreferentzia. Indigenaren definizioa historikoki aldatu egin da eta Daes-ek ez du arazorik ikusten deitura hau deskolonizazioaren osteko munduari aplikatzeko.

Daes-ek (1996) gai honetan erreferentzia den bere ikerketan, “indigena” deituraren eta bere bilakaeraren ikuspegi historikoa ematen digu. 1884ko Berlineko Konferentzian, adibidez, kategoria hau Europar ez ziren Afrikar guzietan aplikatzen zitzaiela dio. Nazioen Ligaren garaira etorri indigena deitura kolonialismo pean bizi zein independentzia lortu ez zuten herriei aplikatzen zitzaiela gogoratzen digu. Kasu honetan lurralde geografikoari ematen zitzaion lehenetsua. Daes-ek gogoratu egiten digu Belgikako gobernuak 1952an proposamena egin zuela “indigena” deitura populazio eta herri kolonizatuei ez ezik Estatu independenteen mugen barnean

²⁸ Hauen artean euren Estatuan ala erregioan talde nagusia ez izatea, lotura berezia lurralde zehatz batekin, bertakoekin lotura historikoa (ondorengoa izatea batez ere), inguruko populazioekin konparatuta ezberdintasun soziokultural sendoa izatea (ezugarri objektibo ezberdinak, hizkuntza, kultura materiala ala espirituala etab), alboko populazioek indigenatza ikustea eta horrelako tratamendua jasotzea administrazio eta lege sistemaren aldetik.

bizi ziren populazio indigena atzeratuei ere luzatzeko. Hau ez zen onartu eta “blue water” printzipioa bultzatu zuten Latino Amerikako gobernuek (Clavero1994) indigena kategoriaren aplikazioa mugatzeko. 1957an NLEren 107 Hitzarmenak zentzu honetan deskribatzen ditu “tribuak” eta azpigaratuak²⁹ bezala deskribatuko ditu. Geroxeago, Batasun Pan Amerikanoak Ameriketako bertako herriei erreferitzeko erabili zuen. NBERen sorrerarekin aldatu egingo da, Nazioen Ligaren garaian zuen esanahia, lurraldeari: garrantzia ematen ziona, indarra galduko du eta herri izaera gehiago azpimarratuko da. Garai honetan herrien auziak garrantzia irabazten du eta Harreman Adiskidetsuen Aldarrikapenak (1970) onartu egiten du Estatu batean herri bat baino gehiago bizi daitezkeela. Aitorpen honek berebiziko garrantzia du “herria³⁰” eta “Estatu”aren arteko bereizitasuna markatzen duelako.

Bilakaera historikoa eskaintzeaz gain, Daes-ek “gutxiengo” eta “herri indigenen” arteko ezberdintasunaren auziari heltzen dio. Bere ustez, herri indigenek lurraldearekin lotura sendoa dute eta lurraldearekiko lehenengo eta bertako herriak dira. Gainera, herri indigenen kasuan, euren sustaturiko HIGEAren zirriborroan erakusten dutenari helduz, euren eskubideek honako bereizitasun hauek izango lituzkete.

• legal personality, meaning that the draft “not only acknowledges indigenous peoples as peoples’ in the international sense, but recognizes that they continue to possess a distinct collective legal character, even in cases where they have agreed to be incorporated into existing states.

• territorial security: indigenous peoples define historical territories within the borders of existing states, and the right to keep these territories physically intact, environmentally sound and economically sustainable in their own ways.

• international responsibility: means that defending the right of indigenous peoples continues to be a matter of international concern, and a specific part of the mandates of international bodies and legal mechanisms to which indigenous peoples themselves should have direct access (Tauli-Corpuz, 1999:106 aip.).

Daes-ek ukatu egiten du europar eta beste herri batzuek egindako kolonizazioak oso ezberdinak direnik indigenei dagokienean. Gainera, ezberdintasun kulturala distantzia kontua dela eta hurbilekoen artean, Estatu barnean batik bat, balore partitu eta komuneko esperientziak daudela aurre suposatzea leporatu dio tesis historiko-kolonialistari. XX. eta XXI. mendeko gatazka etnikoek eta Laugarren Munduaren nazioarteko mobilizazioak Daes-ekin bat egin eta barne kolonialismoaren garaikidetasuna eta larritasuna erakutsi du.

Daes-ek bere aldetik ezaugarri hauek proposatzen ditu: (1) lehentasun historikoa bai kokapena zein lurraldearen erabilera kontuan harturik (2) ezberdintasun kulturalaren iraupena (3) auto identifikazioa eta beste talde batzuek buruturiko identifikazioa eta (4) baztertua izatearen esperientzia.

Daes-en aburuz “indigena” kategoria unibertuala da. Bere ustez herri baten lurrak

²⁹ Erizpide hau 169 Hitzarmena indarrean jartzen denean berplanteatu egingo da.

³⁰ Hemen herria nazio zentsuan ulertuko dugu.

kolonizatzaileak inbaditzen dituen kolonizatzaile eta indigenen arteko haustura markatzen da. Honek ez du zer ikusirik kolonizatzailearen jatorriarekin. Era honetan, Daes-en definizioak Asia eta Afrikako herriak indigenak bezala definitzeko bidea zabaltzen du, nahiz eta aitortu kontinente hauetan herri indigenak eta gutxiengoak nahastu egiten direla.

Aipaturiko egile hauek euren definiziotan “herri indigenen” garaikidetasuna, izaera dinamikoa, unibertsaltasuna eta nazioartekotasuna azpimarratzen dituzte. Herri asko Estatuekin duten gatazkan aurrera egin asmoz, bide indigenena hautatu, Laugarren Munduko nortasuna, agenda eta diskurtsoa bereganatu eta mobilizazioan parte hartu dute. Beraz, testuinguru honetan uler dezakegu nola euren burua herrizat dutenek aproposagoa dirudien esparru indigenara joko duten. Kasu honetan indigenatasuna nazioarteko erkidegoak ahalbidetzen duen espazio politiko eta bertan garaturiko praktika politikoek baldintzatuta etorriko da. Hemen zapalduen pragmatismo politikoa dugu nagusi. Ondorioz, herri indigenen zerrenda XXI. mendean luzatu egingo da nazioarteko erkidegoak eskaintzen dituen aukerak aprobeztatu egingo dituztelako eta kategoria honi loturiko borroka politikoa gauzatu. Prozesu hau are nabariagoa da Asia, Afrikako eta Sobiet Batasuna izandako herri indigenen kasuetan.

This shows that, on the whole, a pragmatic approach is operating where indigenous peoples know who they are, and react to the specific forms of injustice...Most of the peoples of Asia 'who are indigenous are those categorised as 'tribal peoples'. The majority live in hill or forest areas and were recognised as marginalised and distinct prior to and during colonisation in this way the identification of peoples as distinct had already taken place before the rise of contemporary nation states in Asia. The indigenous aspect of their identity became pronounced after decolonisation. Whereas during the colonial period all Indians on Filipinos were seen as indigenous, after decolonisation one language, territory and culture became dominant as the national state formation appeared. Those peoples who lived in hill and forest areas were marginalised, particularly when they retained their pre-colonial characteristics, such as cultural and linguistic distinctiveness, ties to ancestral territories, in many cases rotational agriculture and their sovereign political institutions. Initially labelled tribal they gradually became recognised by themselves and others in the movement as being indigenous (International Alliance of Indigenous-Tribal Peoples of the Tropical Forest, 1999:25).

2.1.2.3 Beste definizioak

Hemen herri indigenen ikuspegia dugu non auto definitzeko apustua egiten den³¹. Laugarren Munduaren aldetik hau dugu jarrera historikoa. Gogoratu behar dugu nola Herri Indigenen Munduko Batzarraren 1978ko bigarren bilerak ebazpen bat onartu egin zuen, esanez herri indigenek bakarrik esan dezaketela indigenak nortzuk diren (Werther, 1992:1). Orduz geroztik behin eta berriz mantendu egin dute euren buruak definitzeko eskubide osoa eta mugagabea, horrela Estatuen erasoei aurre egin asmoz. Historikoki arrotzek euren buruak definitu dituztenean eurak galtzaile atera dira. Azken finean, nazioarteko zein adituen erkidegoan eurozentrismoa nagusi delako. Autodefinizioaren aldeko jarrera sendo eta irmo hau mantendu da

³¹ Apustu hau eta honi loturiko eskubidea NLEaren 169 Hitzarmenean aitortzen da eta herri indigenak zer diren arrotzek definitzeko dugin joerarekin amaitzeko ahalegin inportantea dugu.

nazioarteko agerpenetan eta horrela onartu egin da PIL zein NLEren 169 itunean (Corntassel, 2003), eta baita ere indigenen eguneroko praktikan.

The importance of self-identification for indigenous peoples is recognized in the International Labour Organization Convention 169 (Article 2.2). Thus, "indigeness" is not just a term which is used to define particular types of people, but also a concept which the peoples themselves recognize and use as a part of their identity (Gray, 1997:15).

Beste kategoria batean, eztabaida honi eskapatu nahian, EB, Banku Mundialak³² ala NLE³³ bezalako erakundeak gai izan dira euren lanak burutu ahal izateko definizio praktikoak egiteko. Definizio hauek ez dute zama politikorik eta hau saihesteko saiakerak dira.

3. LAUGARREN MUNDUAREN DEFINIZIOA

Gure kasuan ez dugu beharrezkoa ikusten debate honetan sartzetik. Baterik, mundu guztiak onarturiko gutxiengoaren definiziorik ez dagoelako (Thornberry, 2002) eta horrek ez duelako lana eragozten. Bestetik, geuk agertu dugun asmoa Laugarren Munduaren izaera politiko eta alternatiboan sakontzea delako eta berorren nazioarteko izaera azpimarratzea. Horrexegatik aukeratu egin dugu Laugarren Munduak emandako definizioa hartzea eta hauxe hartzea aintzakotzat proposamen indigena hutsa den neurrian. Hau dela eta, autodefinizioaren kategorian sartzen dela uste dugu, gainera argi dago esperientzia indigena eta eurok nazioarteko harremani buruz duten iritzia islatzen. Arrazoi guzti hauengatik Laugarren Mundua hartuko dugu erreferentziatzen eta ez besterik.

Munduko herri indigenak gai izan dira, estreinako, herri indigenen aktoretza nazioarteko politikan ahalbidetu duen mugimendu politikoa martxan jartzeko. Esperientzia honek indigenek Estatuaren eta nazioarteko gizartearen periferiatik nazioarteko agendaren zentrorra egindako bidaia dugu. Modu honetan nazioarteko aktore kolektibo berria agertu zaigu: munduko herri indigenak osotzen duten Laugarren Mundua.

Increasingly the Fourth World is emerging as a new force in international politics because in the common defence of their nations, many indigenous peoples do not accept being mere subjects of international law and state sovereignty and trusteeship bureaucracies. Instead they are organized and exerting their own participation and policies as sovereign peoples and nations (Nietschmann, 1985).

Tesi lan honetan Laugarren Mundua zein herri indigenak izen baliokide gisa erabiliko ditugu. Jakin badakigu gure gizarteko edozeinentzat herri indigenak ezagunagoa egiten dela Laugarren Mundua baino. Hala ere, nazioarteko mugimendu pan-indigenaren aitzindaritzea

³² Munduko Bankuak (operational directive 4.20, 1991). „Indigenous Peoples can be identified in particular geographical areas by the presence in varying degrees of the following characteristics: a) close attachment to ancestral territories and to the natural resources in these areas; b) self-identification and identification by others as members of a distinct cultural group; c) an indigenous language, often different from the national language; d) presence of customary social and political institutions; and e) primarily subsistence-oriented production.,,

³³ Tribal peoples whose social, cultural and economic conditions distinguish them from other sections of the national community and whose status is regulated wholly or partially by their own customs or traditions or by special laws or regulations and to peoples who are regarded as indigenous on account of their descent from the populations which inhabit the country at the time of conquest or colonisation.

markatu zutenek karga politiko handikoa den Laugarren Mundu izen hau erabili dute. Herri indigenen presentzia nazioarteko erkidegoan markatzeko erabili da, eta originaltasun handikoa denez, erabili egingo dugu lan honetan. Izen honekin munduan bizi diren 300 milioi indigenek bizi duten egoera eta erresistentzi esperientzia aurkeztu nahi da. Indigenak munduko populazioaren %5 inguru besterik ez dira, baina munduko kultur aniztasunaren %90 eta biodibertsitatearen %80 dute euren lurraldeetan (Indigenous Peoples' Caucus, 2001). Hala ere, 300 milioi baino gehiago direla esan daiteke, Indiak eta Asiako beste Estatuak ez baitute onartzen herri indigenak dituztenik. Izan ere, Asia da indigena gehien duen kontinentea eta ez Amerika, askok hala uste arren.

Edonola ere, Laugarren Mundua ez dugu hemen inoiz erabiliko Griggs-ek (1992) erabilitako zentzuan. Griggs-en definizio hau askoz zabalagoa da, eta Estatu gabeko nazio guztiak besarkatzen ditu. Gure definizioa, beraz, herri indigenetara (*indigenous peoples*) mugatzen da eta ez du zerikusirik munduko beste Estaturik gabeko nazioen (*nation peoples*) kasuarekin.

Laugarren Munduaren ideia George Manueli sor diogu. Manuel Shuswap herriaren buruzagia, aktibista eta pentsalaria zen³⁴. Laugarren Munduaren ideia nazioarteari eta garai batean honen erakunde nagusia izan zen Herri Indigenen Mundu Batzarrari (HIMB) loturik agertzen zaigu. Are gehiago, nazioartean egindako lehen ahaleginak izenburu honekin egin ziren. Kontzeptuak erreferentzia egiten zion garai hartan indartsu ari zen Hirugarren Munduari eta bere deskolonizaziori. Indigenek deskolonizazio bera eskatzen zuten eurentzat (Pino-Robles, 1996). Gainera, Peang-Meth-ek (2002) gogoratzen digun bezalaxe 1981an proposamen bat aurkeztu egin zen izen hau erabiltzeko munduko herri indigena guztiei erreferitzeko.

In 1975 the World Council of Indigenous Peoples brought together indigenous movements and leaders from Canada, the United States, Australia, and New Zealand. In Geneva in 1981, the concept "Fourth World"-- as opposed to the less developed Third World struggling for independence and development-- was proposed at the International Non-Governmental Organizations Conference on Indigenous Peoples and the Land to refer to the world's indigenous peoples (Ibid:NET)

Manuelen eta HIMBren papera handia izan zen 1982an Populazio Indigenen Lantaldea (hemendik aurrera Lantaldea) sortu arte, eta bi hauek ideologia indigena internazionalistaren motortzat kontsideratu ditzakegu. Churchill, LaDuke (1999), Ryser (2001), Russel Means, Glenn Morris (1992) Manuelen mezuari lotu zaizkio eta Laugarren Mundukotzat dituzte euren buruak. Azken bi hamarkadetan badaude Seton (1999), Griggs (1992), Neitschmann (1987), Sills (1993), Riggs (1998) bezalakoak Laugarren Mundua nazioarteko harremanak ulertzeko modu aldizkakoaz gain, herri indigenak euren esperientziatik egindako proposamen hutsa dela

34 Manuelen handitasuna nazioartea erresistentzia indigenak jorratu behar zuen beste eremu bat zela ikustean eta transmititzean datza. Manuel eta Deloria bi liburu inportanteak idatzi zituzten nazioarteko beharraz baina zalantzarik gabe Manuelena gertatu zen eragin handiagoa izan zuena. Gainera Manuelek geroxeago Laugarren Munduak jorratu eta erabili dituen argudio batzuk planteatzen ditu. Horretan sakontzeko bide Dyson (2004).

azpimarratzen dutenak.

Aipaturiko egile hauek bat datoz Laugarren Mundua kolonialismoaren uhin ezberdinen aurrean indigenek egindako erresistentziaren semea dela esaterakoan. Izate antikolonistaren pisua azpimarratzen da hondoko aipamen honetan

They share experiences as peoples who have been subjected to the colonization of their lands and cultures, and the denial of their sovereignty, by a colonizing society that has come to dominate and determine the shape and quality of their lives, even after it has formally pull out (Smith, 1999: 7).

Wilmer-entzat (1993) Laugarren Mundua amaitu gabeko deskolonizazioaren azken atala da eta horrexegatik beharrezkoa da Hirugarren Munduari egindako erreferentzia ondo ulertzea, baina kontuan hartzea borrokatzen dutena kolonialismo historikoa zein barne kolonialismo garaikideak direla.

...The leaders of the Fourth World who emerged in different regions share an aim to preserve ethnic identity, language, and culture, just as leaders of the Third World do. But Fourth World leaders see their trouble as caused by both the colonialists who took over their lands and the contemporary descendants of the colonialists (Peang-Meth, 2002:NET).

Beraz, Laugarren Munduko kideak Manuelen ustez, bai kolonialismoaren zapalkuntza pairatu baita euren lurraldeen okupazioa zein euren ekosistemen gaineko kontrola galdu zuten herriak dira.

...indigenous peoples descended from a country's aboriginal population and who today are completely or partly deprived of the right to their own territories and its riches (Manuel& Posluns, 1974:40).

Manuel-ek iradokitako proposamen honi jarraituz, Laugarren Munduko kidea izateko beharrezkoa da: 1) konkista gertatu aurretik bertan ziren herrien ondorengo izatea, 2) herri hauetako kultura iraunkorarekin lotura izatea, 3) marjinazio politikoa pairatuz erabaki-hartze prozesuetatik at egotea, eta , ondorioz, 4) egoera larrian dauden herria izatea.

Manuelen definizioak gainera, mahai gainean jarri du akademizistagoak diren beste ikuspegiek hartzen ez duten beste erakusle bat, gure ustez ezinbestekoa dena: Naturarekin lotura eta honetatik eratorria den mundu ikuskera.

...Fourth World is a term used by the World Council of Indigenous Peoples to distinguish the way of life of indigenous peoples from those of the First World (highly industrialized), Second (socialist block) and Third (developing) worlds. The First, Second and Third Worlds believe that "the land belongs to the people": the Fourth World believes that "the people belongs to the land" (George Manuel, Burger, 1990:18-19).

Naturarekiko harremana ezinbestekoa gertatzen da Laugarren Munduak izatea eta egitea ondo ulertzeko, baita bere izaera alternatiboaz jabetzeko. Naturarekiko eta ohiko lurraldeekiko harremana inportantea da bi arrazoi nagusiengatik

Herri indigenen lurraldeak eta beren ekosistemak izan dira historikoki kolonialismoaren helburu

Naturarekin duten harremana euren nortasunaren muina eta beren mundu ikuskeraren

ardatza da, gainera, euren egitura komunitario guztietan presente egonik honen bihotza dela esan genezake.

Ikuspegi indigenaren arabera mundua “biziaren sarea” da eta sistema ezberdinen arteko oreka konplexu baten ondorioa. Euren aburuz, herri indigenei dagokie sistema hauek zaindu eta babesteko mandatuak. Oreka honen babesa kudeaketa optimo bat ekarriko du. Mundua eta herriek horretan duten tokia eta paperari buruzko zibilizazio talka hau ondo deskribatzen du Cronon-ek (1983:12).

The choice is not between two landscapes, one with and one without a human influence: it is between two human ways of living, two ways of belonging to an ecosystem (Cronon, 1983:12).

Indigenek planetan bizi garen guztiok harreman sistemikoan gaudela uste dute. Konplexutasun handiko sistemen arteko harremanean eta beraren gestio egokian jartzen dute euren izate eta egitearen funtsa. Laugarren Mundukoek naturarekiko harremana ez erasokor batean sinesten dute. “Ama Lurra”rekiko errespetuzko sinismen honek herri indigenek ordezkatzeko duten aniztasunari batasuna ematen dio, indioen zibilizazioa deitzen duen horren funtsa osotzen duelarik (Bonfill-Batalla, 1990). Padillak (1996) horrela deskribatzen digu funtzio bateratzaile hau.

... la reclamación de un saber, una idea propia fundamentada en una relación del humano con la tierra, un sentido profundo de pertenencia a la naturaleza, algo que envuelve instituciones, comportamientos, formas de asumir lo social y que desde Alaska hasta Patagonia identifica lo nativo en "una concepción del mundo, un pensamiento, compartido por todos los indígenas, que constituye un vínculo de unión tan real como podría serlo una lengua común" (Padilla, 1996:186).

Naturarekin duten harremanaz gain, beste erakusle inportantea autodefinizioa da, honek autokontzientzia sendoa erakusten duelako. Batetik herri autoktonoak eta zaharrak izatearen kontzientzia. Bestetik lurralde zehatza eta berezko gobernuak duten herria izatearena, kasu batzuetan horrela onartu zitzaielako sinaturiko itunetan. Gainera herri izaerari loturiko burujabetasuna eta autodeterminazio eskubidearen aldarrikapena erakusten dutelako HERRI indigenak direla esaterakoan. Azkenenik, herri izatearen kontzientzia hau Laugarren Munduak Hirugarren Munduari egiten dion erreferentzian ikusi daiteke.

...as the peoples and nations of the world have come to recognize the existence and rights of those peoples who make up the Third World, the day must come, and will come, when nations of the Fourth World will come to be recognized and respected" (The Dene Declaration, 1975, Burger, 1990:138 aip).

Herriak eta ez gutxiengoa izatearen kontzientzia, 1980ko hamarkada arte indigenak Estatuaren monopolioa diren gutxiengotzat kontsideratuak izan baitira. 1980ko hamarkadan hasita eta beren kanpo ekintzaren bidez, indigenek lortu egin dute “gutxiengo” kategoriatik askatzea. Indigenek ondo ezarrita utzi dute “gutxiengoak” ez direla, eta herri eskubideei loturiko autodeterminazioaren eskaerak bereizi egiten ditu “gutxiengo”engandik.

...two areas of difference between indigenous peoples and minorities: 1) indigenous peoples have their own distinct legal systems and are thus sovereign nations 2) indigenous peoples have a strong emphasis on

LEHENENGO KAPITULUA:
GAIAREN GARRANTZIA GAURKO NAZIOARTEKO TESTUINGURUAN

collective rights (International Alliance of Indigenous-Tribal Peoples of the Tropical Forest, 1999:22).

Azkenik, Laugarren Mundua definitzen duen erakusle garrantzitsua bere izaera internazionalista da. Hau da, nazioarteko erakundeetan arituz nazioartean zabaldu diren esparruetan eta nazioarteko gizarte zibilaren sareetan aktiboki parte hartzea. Hirugarren Munduko herriek lortutakoa eskuratu nahian, errekonozituak eta errespetatuak izateko asmotan, Laugarren Mundukoek nazioartera jo dute beste herri eta Estatuaren laguntzarekin beren eskubideak betearazteko asmotan. Hau diogunean bai nazioarteko erakundeek zein nazioarteko gizarte zibilak zabaldu dituen espazioak ditugu buruan. Esate baterako, Lantaldea eta Afera Indigenen Indigenetarako Batzorde Iraunkorra (HIABI). Are gehiago, Laugarren Mundua nazioartean esku hartzeko eta bertan garaturiko kontzeptua dela diogu honetan jakintsua den Daes-ek (2001).

... the term, "indigenous"; and it has developed out of the efforts of the United Nations to do justice to hundreds of millions of neglected and oppressed people around the world, who all suffer from a particular form of racism based on their way of life: their religions, their means of subsistence, and their attachment to their lands (Ibid:NET).

Daes-ek nazioarteko nortasun indigena eta bere diskurtsoa munduko herri indigenek eta nazioarteko gizarteak izandako elkarreragiketaren ondorioa dela diosku. Guzti hau esan ondoren, Laugarren Mundua, tokian tokiko herri indigenek nazioartean aritzeko erabiltzen duten komeni den izena dela argiago izan behar dugu. Izena izateaz gain nazioarteko sarea eta esperientzia kolektibo berria dela baieztatu behar dugu ere. Ikuspegi honekin bat dator Smith (1999:7), berak "herri indigena" deitura munduko herri indigena bere baitan hartzen dituen txapela erraldoi baten antzekoa dela esaten du

it has also been an umbrella enabling communities and peoples to come together, transcending their own colonized contexts and experiences, in order to learn, share, plan, organize and struggle collectively for self-determination on the global and local stage.

Gainera idazle honek "herri indigenei" erreferentzia egiterakoan, kolonizazioaren biktima izateaz gain nazioarteko sare baten partaide direla ere aipatzen du bere definizioan. Berak (1999) dioskunez nazioarteko sare baten partaide izateak euren tokian-tokiko testuinguru eta esperientzia gaintzeko aukera eta askoz globalagoak diren helburuak eskatzeko parada eman die. Helburu hauen artean kolonizazioaren salaketa eta autodeterminazio eskubidearen defentsa, maila lokalean zein globalean

Laburbilduz, Laugarren Mundua herri indigenek nazioartean aritzeko sorturiko mundu mailako sarea dugu. Gainera, Laugarren Mundua errealitate garaikide, modernoa dinamikoa dugu eta bere presentzia eta garapena nazioarteko erkidegoak azken 30 urteetan ezaguturiko aldatetei lotuta aurkitzen dugu. Ekintza politikorako sorturiko aukerak berriak giza eskubide eta ekologia arloetan izandako eboluzioekin elkartuta ikusten dugu.

Nazioarteko sare etniko honek, nazioarteko gizarte zibilaren partaide izanik, beste sareekin lan eginez euren helburuak erdiesteko gaitasuna erakutsi dute. Keck & Sikkink-ek

(1998) sare hauetan partaide izateko joeraz jabetu eta hauen garrantzia deskribatzen dute³⁵.

Gainera, Laugarren Mundukoek buruturikoak Keck & Sikkink-en (1998) “*boomerang effect*” erakusteko kasu aproposa dira. Egile hauek Estatuaren presioa oso handia denean aktore ezberdinek nazioartera jo dezaketela diote, euren Estatusa eta esku dituzten baliabideak handiagotzeko. Indigenek nazioarteko sareetan parte hartuz hauen boterea erabili dute euren mesederako eta etxeko gobernuaren gainean presio politikoa eragiteko. Are gehiago, boomerang efektuaren mugak gaindituz, eurentzat ez ezik munduko indigena guztien egoera hobetuko duen nazioarteko legedi eta Estatus berri bat izan dute helburu. Modu honetan hasierako helburu lokalak, globalak bihurtu da. Euskeraz etxean pentsatuz munduan jokatzu ari direla esango genuke. Beren kasuan nazioarteratzea jarrera sinbolikoa baino egungo garrantzia duen auzia da, erresistentziarekin gatazka konponketarekin eta giza eskubideen bortxaketarekin lotzen delako sarritan ahalegin hau. Lake & Rothchild-ek (1996) horrela deskribatzen dute indigenen boomerang efektua eskuratzeko ahalegina.

In their fear political minorities recognize the state's limited capacity to ensure physical and cultural safety. They hope the international community will restore a balance of power and hence make systematic, state-sanctioned ethnic killing too costly for hard-line leadership to condone (Ibid:74).

Ikerketa honetan erabilitako Laugarren Munduaren definizioa Bobiwash-ek (2001) 2001ko Porto Alegre Gizarte Foroari zuzenduriko aldarrikapenean erabilitakoa izango da. Definizio honetan, beste askotan ez bezala, asko azpimarratzen dira kolonialismo bihotzean diren “Myth of Conquest and the Doctrine of Discovery” delakoen biktima izatea. Hari beretik, barneko kolonialismoaren mozorro izan den “garapenaren” salaketa aurkitzen dugu. Hauekin batera garaikidetasuna emateko landa eremuan zein hiri nagusietan aurkitu daitezkeela gogoratzen zaigu.

Laugarren Mundua munduko herri indigenen mundua bezala definitzen da- Ameriketako eta beste eskualdetako bertako jendea, euren lurraldeetan marjatuak izan direnak, gizarte zibiletik kanporatuak, aukera ekonomikoak ukatuak izan dituztenak eta “Konkistaren mitoak eta Aurkikuntzaren Dotrinak” estigmatizatu egin dituenak-, hauek erori dira garapena izeneko determinismo ekonomikoak eraikitako eskailera faltsuaren azken mailaraino. Laugarren Munduko herriak -Andeetako goi lurraldetan, Tundra eta Antartikoan, Amazonetako Oihanetan, Australiako lurralde urrunetan, Siberiako Taigan edo eta munduko hiri nagusien basamortu antzeko kaleetan, bai New York, Sao Paolo, Jakarta hala Nairobiri aurkitzen direnak- globalizazioaren biktimak dira eta euren komunitateak neoliberalismoaren aurkako erresistentzia guneak ditugu (Ibid.).

³⁵ Definizioa interesgarria da aktore berriak ulertzeko. “These networks include those relevant actors working internationally on an issue, who are bound together by shared values, a common discourse and dense exchanges of information and services. Also, such networks appear mostly in issue areas characterised by high value content and informational uncertainty. These non-traditional international actors succeed in mobilising information strategically to help create new issues and categories in order to persuade, pressure and gain leverage over much more powerful international actors as international organisations and governments. There is a double aim in this action: to influence policy outcomes and to transform the terms and nature of the debate. And even if they don't succeed, they are already relevant players in policy debates.

These network actors “frame” issues to reach broader audiences and to fit with favourable institutional values, they bring new ideas, norms and discourses into policy debates and serve as sources of information and testimony. They also promote norm implementation they pressure state actors for example, but also other kind of actors like transnational companies or international organizations to adopt new policies and they monitor compliance with international standards. By these actions they contribute to change the identities and interests of other actors, to change their procedures, policies and behaviour. They are also political spaces in “which differently situated actors negotiate the social, cultural and political meanings of their joint enterprises”. (Ibid:3)

4. IKERKETAREN HELBURUA

Indigenek abian jarritako mugimendua interes bereziko dugu, gaur egungo nazioarteko sistemaren oinarri ideologiko/normatiboei erronka egin dielako, eta herri indigenek gorpuzten duten ikuspegi alternatiboa erakusten digulako. Euren ustez askatasuna, berdintasuna, giza eskubideak, autodeterminazioa edo garapena moduko kontzeptuak berraztertu behar dira, eta ez da bidezkoa eliteen ikuspegia eta berari loturiko diskurtso nagusia inposatzea, besterik gabe. Izan ere, gure historian sustrai sendoa duen kulturen arteko talka honek begien aurrera dakarkigu bai kulturen arteko gatazka bai kooperazio eta elkarlanari loturiko kulturen arteko solasaldia. Are gehiago, historian lehenen aldiz, modernotasunean oinarrituriko aktore eta erakundeak ez-modernotzat jo izan dituzten diskurtsoak kontuan hartzen ari dira. Modu honetan kulturen arteko solasaldia gauzatzeko eta harreman berriari hasteko parada zabaldu egiten da, Manuel-ek zioen bezala .

Beraz, doktorego tesi honen helburu nagusia Laugarren Munduak nazioarteko erkidegoan 1990tik aurrera lorturiko ikusgarritasunaren gakoak eta irabazitako espazio berriak zabaltzen dituen ekintzarako markoak eta euren aukerak aztertzea da. Horretarako mugimendu honen jatorria, bere agenda, bere egite politiko nagusia zer eremutan zentratu den (*issue arenas*) erakutsi nahi dugu. Azken finean nazioarteko aktore berri honek gauzaturiko jarduera politikoaren inplikazioak zeintzuk diren argitzeko asmoz. Inplikaziok oso inportanteak direla uste dugu, batez ere, Europar Batasunaren barnean zein Euskal Elkarte Autonomoan herri indigenekin lanean jarri nahi duten guztiontzat. Hasierako puntua hau da: herri indigenak mendeetan Estatu-nazioen politikaren eraginez ezkutuan egon ondoren gaur egun euren ikusgarritasuna eta nazioarteko aktoretza berreskuratu egin dutela. Gertakizun honek herri indigenekin aritzeko jarduera-eremua goitik behera aldatzen du. Indigenak ez-indigenen jardueren ohiko objektuak izatetik subjektu eta partaide aktiboak izatera igarotzen direlako (Barsh, 1994), euren eskubide eta aukerez inoiz baino kontzienteago izanik.

Esperientzia indigena honen testigantza eskaini nahi dugu Estatu gabeko herriek nazioarteko periferiatik zentrorra egindako bidaia delako, eta mendeetan estalduak eta ikusezinak izan direnak nazioarteko aktore bezala agertu zaizkigulako, ozen eta indartsu euren ahotsa eta ikuspuntua helaraziz.

Beraz ondokoa lortu nahi dugu:

- Laugarren Munduaren sorrera posible egin zuten faktoreak zeintzuk izan ziren agertu eta aktore berri eta indartsu bezala bere hazkuntza nola gauzatu den erakustea. Honekin 1990ko hamarkadan indartsu hazi den mugimendu honen etnogenesia deskribatzea dugu helburu.

- Herri indigenek pairaturiko kolonialismo uhin ezberdinak zeintzuk izan diren ikertzea.

LEHENENGO KAPITULUA:
GAIAREN GARRANTZIA GAURKO NAZIOARTEKO TESTUINGURUAN

Deskribapen honetan kolonialismo modu garaikideei erreparatuko zaie, bereziki Garapen Sostengarriarekin lotuta daudenei, hauek Laugarren Munduaren eskubide intelektualak eta bestelakoak urratzen dituztelako.

- Laugarren Mundua gaur egungo nazioarteko politikan agertu den nazioarteko aktore berri bat bezala aurkeztea. Aktore kolektibo berri hau Estatu gabeko nazioek osotzen dute, eta eurak bizi diren Estatuekiko nahiz guztiak bere baitan elkartzen gaituen nazioarteko gizaratekiko euren Estatusa eta harremana “vis a vis” berriz negoziatu nahi dute.

- Euren protagonismo politikoaren bitartez 90ko nazioarteko agendan aldaketa sustatzaile izan direla erakustea. Baita ere erakutsi nahi dugu Giza Eskubideen zein Ekologiaren mugimendu berritzaile honek egindako ekarpenak.

- Nazioarteko mugimendu berritzaile honek duen agenda hobeto ulertzeko hainbat irizpide eskaintzea. Ikerketa honetan egile, protagonista eta erakunde indigenei emango zaie lehentasuna. Gainera erakutsi egingo da agenda indigenak dituen inplikazioak Europatik, Espainiatik ala Euskaditik herri indigenekin aritzeko asmoa duten aktore ezberdinentzako.

- Aztertu herri indigenek irabazitako nazioarteko garrantzia, hau dela eta erakunde eta botere politiko ezberdinek ekimen instituzionalak martxan jarri dituztelako. Ekimen hauetan herri indigenek gorpuzten duten berezitasunaz jabetuz, propio diseinatu eta indigenak egindako eskaerei erantzun dien ekimenak biltzen dira.

- Azkenik, herri indigenekin aritu nahi duten aditu zein arituei marko eta lanabes teoriko batzuk eskaintzea. Helburua estereotipo zahar eta berriak gainditzen laguntzea, hain zuzen alterofilia eta alterofobiaren artean mugitzen diren horiek. Laugarren Mundua erakustea erresistentzia historia luzea izanik gaur egungo gizartea ondo ulertuz oso era dinamiko eta sormen handiz ari den aktore politikoa baita.

Jakin badakigu aipaturiko helburuak gehiegizkoak direla, eta horrexegatik esaten dugu hauexek gure azterketan izango duten tratamendua eta eskainiko ditugun erantzunak egokia izango dira, batzuetan, beste batzuetan, aldiz, ez horrenbeste. Edonola ere, geure helburu generikoa ikerketa alor berri bat definitzea eta mugatzea da, honek eskaintzen dituelako aurrerantzean sakontzeko adar asko.

5. HIPOTESIAK

- Mundu osoko indigenen historia eta gaurko egoera, bai gizabanako mailan nahiz talde mailan, baldintzatu duen kolonialismoa hiru epe historikoetan gauzatu dela esan genezake: 1) euro-kolonialismoa 2) errepublika inperialak eta 3) Globalizazio Harrapakeria. Kolonizazio esperientzia hau mundu mailakoa eta belaunaldien arteko erakusle etnikoa bihurtu da

indigenentzat, Laugarren Munduaren sorreraren oinarri-oinarrian aurki dezakegularik. Beraz Laugarren Mundu bere osotasunean eta trinkotasunean ulertzeko edozein ekimenak errealitate honi erreparatu behar dio, bera baita kanpora joateko (push factor) nagusia.

- Laugarren Munduak Estatuaren periferiatik nazioarteko zentrorra egindako bidai miresgarria protagonizatu du. Bere garaiko semeak direlarik, Laugarren Munduak isolamendua heriotza dakarrela ikusirik, mendeetan zehar garaturiko erresistentzia estrategiei kausa indigenaren internalizazioa gehitu diote. Era honetan estreinakoz egindako nazioarteratze kolektiboa protagonizatu, apurtu egin du indigenak Estatuaren objektu/meneko direla dioen diskurtso historikoarekin. Laugarren Munduak eraiki du tradizio eta modernotasuna konbinatzen dituen diskurtso berri bat, eta nazioarteko presioa erabili du bere eskubideak baliarazteko, baita honek ahalbidetzen dituen ekintza-eremuak nazioarteko sistemaren babesaz profitatzeko.

- Laugarren Munduak irabazitako onarpen eta partaidetzarako espazio berriak, Nazio Batuen Erakundearen mailan batik bat, beste indigena asko erakarri dituzte nazioartera, erakarpen faktoreak (*pull factors*) bihurtuz. Espazioak zein onarpenak ez dira norbaitek emanak paradiploiaz indigenak irabaziak baino. Nazioartean lorturiko indar berriaz profitatuz eta euren aldeko plataformak erabiliz, indigenek euren eskubideen aldeko nazioarteko sare bat eraiki dute, arau egile ekimenetan (*standard setting*) parte hartzen dutelarik. Nazioarteko ekimen honekin herri indigenen eskubide, indibidual eta kolektiboen aldeko iritzi eta nazioarteko marko garantista berria eraikitzea erdietsi dutelarik.

- NBERen mailan egindakoa bai giza eskubideen bai ekologiaren inguruan zentratu da. Bi eremu hauek indigenen ekimen eremuak (*issue arenas*) izateaz gain, gaur egungo nazioarteko agendan auzi inportanteak ere badira. Espezializazio honen bidez Laugarren Munduak nazioarteko gizartea bikain ezagutzen duela erakutsi du eta gai izan dela bere aportazioa hobeto non kokatu asmatzeko. Nazioarteko agendan eta europar pentsamenduan zeuden kontzeptuez jabetuz eta berriz interpretatuz lortu egin dute orain gutxi arte eurenak, eta aditu apur baten intereseko ziren gaiak, auzi globalak bihurtzea. Agenda indigenaren muinean autodeterminazio defentsa aurkitzen dugu. Hala ere, autodeterminazio indigenak ez da tradizionalismo antimodernistaren defentsa hutsa, edota isolamendu etnikoaren aldeko. Are gutxiago, Estatu independente baten bila dabilen indarra. Autodeterminazio indigenaren atzean harreman berriak ezartzeko eta aldaketa prozesuak modulatzeko gaitasunaren eskaera dago. Harreman politiko, kultural, ekonomiko eta sozial berria kodependentzian, subiranotasun konpartituan, elkarren onarpenean eta munduko herri indigena, Estatu eta nazioen arteko kooperazioan oinarriturik dagoena.

6. IKERKETAREN EGITURA

Ikerketa honen oinarrizko egitura bi bloke tematikoei osotzen dute.

Lehenengo blokeak, historikoa izanik eta II. III. eta IV. kapituluetan garatua, herri indigenen eta ez-indigenen arteko harremana baldintzatu duen marko kolonialaren historia laburra eskainiko du, eta honek ezarritako zapalkuntza patroia nagusiak aurkeztuko. Horretarako azterketa sozio-historikoa eta analitiko deskriptiboa erabiliko dugu. Kapitulu bakoitzak uhin kolonialista bakoitzaren azterketa burutuko du. Bigarren kapituluaren konkista eta gizarte etnokratikoaren zabalkundearen historia labur bat eginez, egundaino heldu eta herri indigenekin izandako harremanak baldintzatzen dituzten jarrerak eta diskurtsoak zeintzuk diren azpimarratuko dugu. III. kapituluaren kolonialismo errepublikanoak erabilitako estrategiak, argudioak eta indigenei eragindako ondorioak aurkeztu eta aztertuko ditugu. Kapitulu honetan AEBko esperientziari, honek herri indigenenganako politikak zein herrien irudia eraikitze orduan izandako garrantziagatik, emango diogu lehentasuna. IV. kapituluaren garrantzi handia emango zaio XXI. mendean inportanteak izango diren natur baliabideekin loturiko kolonialismo mota berriei (Garapen Iraunkorraren mozorropean daudenak zein bioteknologiari).

Bigarren blokeak erreparatu egingo dio nazioarteko aktore berriaren sorrerari eta nazioartean egindako lanari. V., VI. eta VII. kapituluetan, mobilizazio indigenaren historia eta bera posible egin duen nazioarteko marko instituzionala aurkeztuko dugu, ikuspegi deskriptibo-analitiko batetik. Kapitulu hauetan hautaturiko metodologia historiko-interpretatiboa dugu, eta nazioarteko mugimendu indigenek nazioarteko mugimendu sozialen teoria eta praktikara ekartzen duten berrikuntzari erreparatu nahi diogu.

V. kapituluak herri indigenek abian jarritako HIKeren historia laburra aurkeztuko du, bere garapenean izandako helmuga nagusiak markatuz. Helburua izango da argi uztea nazioarteko erkidegoan, XX. mendearen azken herenean, indigenekiko jarreraren gertaturiko eboluzioa, neurri handi batean, HIKeren ondorioa dela eta ez nazioarteko erkidegoak egindako oparia.

VI. kapituluak HIKEk giza eskubideen eremuan egindakoak aztertuko ditu. Historikoki hemen aurkitzen dugu HIKeren ekimen eremu nagusi bat. Ahalegin honetan aurkitzen diren aukerak eta, gaur egun, ugariago diren oztopoak ikusiko ditugu. Gure egitekoan erreparatu egingo diogu asimilazioaren arbuiazeari, kultur indigenen balioztapenari, autodeterminazio eta baliabide indigenen gaineko kontrolari buruzko ika-mikari.

VII. kapituluaren indigenentzat hain lagungarria izan den Garapen Sostengarriari (GS) helduko diogu. Herri indigenek GSri egindako kontribuzioa eta honek egindako aitortzea aztertuko ditugu. Garrantzi handikotzat dugu kapitulu hau azken urteotan lurralde indigenen okupazioa garapenaren izenean gertatu delako. Gainera, ekologia eta biziaren sarearekiko

harremana agenda indigenaren bihotzean dagoen gaia da. Zalantzarik gabe funtsezko gaia dugu hau. 1990tik aurrera eta nazio eraikuntzarekin hain estu loturiko "desarrollismo"ari alternatiba egiten dion GSk indigenen agendak aldarrikatutako hainbat gai eta ikuspuntu integratu ditu bere proposamenen. Hortxe ditugu segurtasunaren definizio berria, herri lurren sistemaren defentsa, talde eskubideak, dezentralizazio eta partaidetza zein indigenen ekarpenari eta garrantziari egindako aitorpena. Kapitulu honetan indigenek hainbat foroetan izandako partaidetza aztertuko dugu. Era berean, GSn nagusitu den aitoren instrumentalak dituen arriskuak eta mugak aipatuko ditugu. Azkenik, Estatuak GSa garatzeko nazioarteko hainbat ekimenetan indigenen partaidetza eragozteko jarritako oztopoei zuzenduko diegu gure analisia, horretarako biopirateria eta ohizko jakituriaren gaineko eskubideen inguruko eztabaidan zentratuko garelarik.

7. METODOLOGIA

Gure tesian mugimendu pan-indigenaren analisi sozio-historikoa burutuko dugu eta ikuspegi pan-indigenistatik egindako hurbilketa garatuko dugu. Ikuspegi konstruktibista bat erabiliz, aztertu egingo dugu 1990ko nazioarteko mobilizazio pan-indigena baldintzatu eta posible egin duen testuinguru politiko, ekonomiko eta soziala. Konstruktibismoak proposamen interesgarri bat eskaintzen digu, aktoreak izaki sozialak bezala ikusten dituelako, eta uste duelako nortasunak inguruko gizartearekin elkarreragiketan sortzen direla. Nortasuna ez ezik euren interesa ere beste aktore batzuekin dituzten harremanak baldintzatuta sortuko da. Aktoreen arteko harremanei ematen zaien garrantzia oso egokia da guretzat Laugarren Mundua ikertzeko orduan. Laugarren Mundua sozialki eraikia den nazioarteko mugimendua eta nortasuna dugu, historikoki aldakorra, besteen aurka definiturikoa, eta garatu egin den nazioarteko testuinguru eta une historiko zehatz batean garatua. Laugarren Munduaren ekintzek bizi gareneko nazioarteko gizartea erreproduzitu eta aldatu egiten dute. Hau horrela da Laugarren Mundua Estatu eta nazioarteko beste aktoreekin (multinazionalak, GKE, nazioarteko erakundeak) gatazkan dagoelako. Gatazka Estatuaren diskurtso nagusiari eginiko etengabeko interpelazio batean oinarritzen baita, eta hau da aurkituko duguna nortasun indigena eta berorren mobilizazioaren muinean. Aurrean dugun aktorearen nortasuna eta agenda, hain zuzen ere, Estatuarekin, modernotasunarekin eta garapenarekin izandako esperientzia ezkorren seme dira. Eta ezin dugu ahaztu sarritan esperientzia hau kolonialismo eta inperialismori lotuta agertu dela.

Dinamika honek erakutsi egiten digu, batetik, aktore indigena eta Estatuaren artean dagoen tentsioa, eta, bestetik, aktore kolektibo indigena eta Estatuak sorturiko nazioarteko egituraren arteko tentsioa. Tentsioak eta aukerak, ezin baititugu ahaztu, gogoratu behar Laugarren Mundua 70eko hamarkadan nazioarteko erkidegoak bizi dituen aldaketez aprobetxatuz jaio zela, bereziki Giza Eskubideen alorrean eman zirenei lotuta. Aukera-leiho hauek posiblea egin zuten bere jaiotza, eta ezarri egin zituzten oinarri berriak Estatuaren diskurtso nagusia eta euren jokaera

LEHENENGO KAPITULUA:
GAIAREN GARRANTZIA GAURKO NAZIOARTEKO TESTUINGURUAN

kuestionatzeko eta aldatzeko. Era honetan lortu egin dute herri indigenen izaera eta egoerari buruz nazioartean, baita ere Estatu barneko eliteek zituzten jarrerak eta joerak aldatzea, modu positibo batean.

Giro honetan loratzen da Laugarren Munduaren: bere nortasun eta irudi propioekin, diskurtso eta agenda politiko aldizkako batekin. Bere jaiotza eta bilakaeran Estatu eta nazioarteko gizartea derrigorrezko partaideak dira. Konstruktibismoak ahalbidetzen digu zibilizatu eta basatien arteko dikotomia estudiatzea, honek baldintzatu egin duelako indigena kategoria hau sortu zenetik. Honela Laugarren Munduaren sorrera ikusiko dugu proposamen anti-hegemonista bezala, nazioartean egindako ibilbidea, eta aldaketa agentea moduan egindakoa, honek aurretik nazioarteko erkidegoan ezagunak ez ziren erantzun eta aitorten positiboak eragin dituelako (aldarrikapenetan, konbentzioetan, etab.). Gainera, testuinguruari, harremanen izaerari aitortzen zaio aldakortasuna eta bizitasuna eta, azkenik, nazioarteko erkidegoa gobernatzen duten balore eta araei emandako garrantzia oso egokia iruditzen zaigu paradiploiazioa indigenarentzat oso garrantzitsua delako.

Aktoretza hau posible egin duen prozesua aztertzeke orduan, nahiz agenda eta paradiploiazio indigena deskribatzeko orduan, metodo ilustratibo-analitikoa erabiliko dugu, eta bibliografia pan-indigenari, intelektual (aditu) zein aktibista (aritu) indigenek egindako lanei eta ikuspuntuei, emango zaie lehentasuna. Modu honetan ahots indigena erabili nahi dugu nagusiki mugimendu indigena eta bere proposamen aldizkako aztertzeke orduan. Honetarako, indigenek egindako aldarrikapenak, adierazpenak, idatziak, liburuak eta antzekoak erabiliko ditugu, eta hauetariko asko Internet-en aurkituko ditugu ohiko bibliografian baino gehiago (Seton, 1999).

Literatura pan-indigenaren azterketa honekin batera ikerketa enpirikoa ere burutuko dugu. Batetik, NBEra joan eta bertan parte hartzen duten aktore indigenekin elkarrizketak burutu ditugu zuzenean zein Interneten bitartez. Bestetik, metodo enpiriko hau eta elkarrizketa sakon erdi egituratuak erabili ditugu Euskadiko ordezkari politikoek eta auzi indigenetan berezitu diren GKEekin.

Ikuspegi pan-indigena honetan, herri indigena eta ez-indigenen arteko harremana kolonialista modura ikusi eta barne kolonialismoarekin lotu izan dute. Jatorri kolonial honek baldintzatu egiten ditu nazioarteko erkidegoak eta beraren kide diren Estatuak indigenekiko dituzten harremanak, ikuspegiak eta politikak.

Si pueblo, nación, soberanía, autodeterminación y todo su etcétera siguen significando lo mismo que durante el tiempo de constitucionalismo colonial, nunca acabará de salirse del mismo no cesarán de operar tales palabras como mecanismos de jerarquía supeditación entre grupos humanos incluso cuando este efecto constitucionalmente se está negando (Clavero,1994:87).

Harreman hau aldatzeko, indigenek derrigorrezkoa ikusi dute nazioarteko politikan parte

hartzea, gero eta mundializatuago dagoen errealitatean ahal den neurrian euren onerako baldintzatzeko, dagoen marko normatiboa aldatzen ahaleginduz.

Laugarren Mundua aztertzeko orduan diziplina-askotariko hurbilketa erabiliko dugu gure diziplinak nazioarteko harremanak duten joera estatozentrikotik aldentzeko, gehien bat. Gauzak horrela, historian, soziologian (*ethnic studies*), zientzia politikoetan, antropologian, nazioarteko zuzenbidean, geografia politikoan eta nazioarteko harremanetan aurkituko dugu gure saioa burutzeko beharrezkoak ditugun iturriak. Diziplina askotasun honek indigenen errealitateari heltzeko erabilitako ikuspegi, teoria eta hurbilketa teoriko-praktikoen aniztasunaren isla dugu. Aniztasun honek batzuetan kontrajarriak diren definizio edo ikuspegi berri emango digu. Hau horrela gertatzen da diziplina bakoitzak emandako informazioa zatikatua, diziplina bakoitzari mugatua eta bakoitzean nagusi diren teorien isla delako. Askotasun honen lekuko dugu herri indigenen deskribapena egiteko aurkitzen dugun izen ugaritasuna: gutxiengoak, tribuak, talde etnikoak, nazioak, nazionalitateak, etab. Definizio hauek guztiek Estatuarekiko erreferentzia dute eta indigenek historian zehar pairatu duten egoera kolonialen erakusle dira.

8. BIBLIOGRAFIA

Laugarren Mundua aktore berria delako Euskadin eta Espainian honi buruzko bibliografia lortzeko zaila egin zaigu. Eskuragarri dugun bibliografia gehiena historia eta antropologiari buruzkoa da, eta tokian tokiko herri indigenak aztertzen ditu. Gainera testu hauek Hego Amerikan kokatzen dira eta ez dago ikuspegi zabalagoa duen bibliografia askorik. Giza Eskubideen alorrean kokatzen diren argitalpenak gehitzen badoaz ere, oso zaila egin zaigu Nazioarteko Harremanei lotzen zaion bibliografia aurkitzea.

Gauzak horrela eta ikerketaren diziplinen arteko izaera kontuan harturik aipaturiko bibliografiaz gain beharrezkoa izan dugu NBEra Populazio Indigenen Lantaldean informazioa jaso eta elkarrizketak egiteko, eta Iowako Unibertsitatera (AEB) joatea. Liburu eta artikulua akademikoez gain beharrezkoa izan da herri indigenak bultzaturiko aldarrikapenak irakurtzea, baita nazioarteko lege testuak, NBEko txostenak (bereziki Populazio Indigenen Lantaldean egindakoak), eta Interneten erakutsitako artikulua, liburuak, elkarrizketak eta erreportajeak.

Interneten aurkitzen den literatura oso interesgarria da Laugarren Munduaren sorrera eta zabalkunde, neurri handi batean, honekin loturik dagoelako. Herri indigenek Interneten duten presentzia muga historiko bat ezartzen du, apurtu egiten duelako inposaturiko ukazioa, marjinaltasuna eta ikusezintasuna nagusi izan duen aro historiko batekin. Ekintza paradipomatikoari eta berorrek izandako arrakastari esker gainditu egin da irudi tradizional eta ezkorra. Ostera, honekin eta Interneten izandako presentziarekin irudi positibo, moderno, garaikide, aktibo eta kreatibo bat sustatu da. Gainera, Internetek lagundu egin du izugarri giza

LEHENENGO KAPITULUA:
GAIAREN GARRANTZIA GAURKO NAZIOARTEKO TESTUINGURUAN

eskubideen kultura eta errealitatea zabaltzeko eta herri indigenen eskubideez jabetzeko. Berorren bitartez herri indigenen arteko koordinazioa, ikuspegi eta esperientzien trukaketa, arazoak ezagutarazi eta ametsak, diskurtsoak, agendak eta antzekoak hobetu eta elkartrukatu dira Era honetan lortu egin da, oso ezberdinak eta elkarrengandik oso urrun dauden herrien artean homogeneousazio eta diskurtso kohesio altua lortzea. Errealitate hau dela medio, herri indigenak helburu dituen edozein ikerketak kontuan hartu behar du berek duten presentzia eta garapena Interneten (Seton, 1999). Geuk hau hartu dugu aintzakotzat eta ikertu egin dugu herri indigenek egindakoa ziberdiplomazia kasu interesgarria delako (Arregi, 2006), eta bertan aurki daitezkeelako egile indigenak, euren pentsamendu eta ahotsekin egindakoa, eta hori aldeni daitezkeelako nazioarteko beste aktoreek egindakoarekin.

**II. KAPITULUA: KOLONIALISMO
HISTORIKOA, ZAHARRAREN ERRAUTSEN
GAINEAN ERAIKITAKO MUNDU BERRIA**

SARRERA

Herri indigenen gaur egungo egoera eta euren agendan nagusi diren autodeterminazioaren, kultur askotasunaren zein aniztasun biologikoaren aldeko ahaleginak ezin dira ondo ulertu 1492an hasitako Aro Kolonialari erreparatu gabe (Martínez Bringas, 2003).

Europako erresumek buruturiko kolonizazioak Amerikan bizi ziren herrien aurkako lehenengo oldartze erraldoia ekarri zuen. Gaur egun herri indigenak nozitzen ari diren era guztietako bazterketa eta etengabeko krisialdia konkista garaian hasitako mendetasun prozesu eta inposaturiko bereizkeriazko egituraren ondorioa dugu (Seed 1992; Niezen 2003). Beraz, kapitulu honen xede nagusia Europako botereek kultur askotasuna eta natur aniztasuna kontrolatzeko eraikitako gizarte ereduaren ezaugarri nagusienak aurkeztea da.

1. OPAROTASUNAREN KONTINENTEA

Europarrak Ameriketara heldu zirenean aniztasun handiko kontinentea aurkitu zuten. Gizarte oparotasunari dagokionez, adibidez, Ameriketako Iparrean ehiztari-biltzaileak edota nekazaritza zein arrantzan aritzen ziren herriak zeuden. Ostera, Erta eta Hego-ameriketan kokatu ziren giza kontzentrazio nagusienak. Inperio hauek egitura finkoak eta oso garatuak zituzten eta arteetan, zientzian nahiz teknologian lorpen aurreratuenak erakusten zituzten³⁶.

Amerikatako kolonizazioak bi zibilizazio kontaktu intimo eta eskapaezinean jarri zituen. Honekin batera indigena eta europarren arteko harreman dialektiko bati eman zitzaion hasiera. Harreman hau garrantzi handikoa da aktore etnikoek nazioarteko harremanetan izan duten presentzian interesa duen ororentzat. Elkartze honen historiak askotasun etniko eta biologiko konplexu zein ezezagun batekin izandako talkaren berri ematen digu. Baita ere gabezi batena: bestea den indigena, ezberdina izan arren, berdina bezala, bere eskubideekin propioekin, ikusteko ezintasuna (Todorov 1992:42). Hau horrela zen ordukoek berdintasuna euren antzekoa izatearekin parekatzen zutelako, eta ezberdina zenari eskubiderik ukatu, eta zibilizatu (gu) eta basatien (besteak) arteko hierarkia ezarri zitzaielako (Padgen 1993; Todorov 1992; McGrane 1989). Todorov-en esanetan, jarrera bikoitz hau bere horretan dirau eta Laugarren Munduak pairatu izan duen egoeraren muinean dago.

Orduko Ameriketako kulturek erdietsiriko maila politikoa, soziala, kulturala, ekonomikoa

³⁶ Gizarte indigenek errepresentatzen zuten gizarte aniztasuna eta teknologia mailan zuten garapenez jabetzeko: "La variedad de culturas era efectivamente muy grande. Se encontraban sociedades urbanas o semi-urbanas gobernadas por castas sacerdotales depositarias de complejas tradiciones astronómicas y filosóficas; imperios como el del Inca con una extensión mayor o comparable a la del Imperio romano; federaciones o redes de aldeas, periódicamente unidas en épocas de guerras; cacicazgos ordenadores de vastos trabajos hidráulicos o constructores de complejos ceremoniales; bandas de cazadores recolectores nómadas; tribus piratas viviendo de la rapiña y del tráfico de esclavos un poco a la manera de los vikingos; aldeas de horticultores de tumba y quema capaces de sustentar grupos humanos muy numerosos como en el Amazonas, etc. Existían sociedades con escritura y sociedades sin escritura, sociedades divididas en clases y sociedades relativamente homogéneas en cuanto a la producción de bienes; sociedades teocráticas, otras feudales o democráticas, acéfalas, etc... Una profusión de formas colectivas de vida y de adaptación a medios muy disímiles logradas tras más de cuarenta mil años de historia americana (Landaburu,1998:75).

eta teknologikoa altuak ziren. Errealitate hau hobeto ikusteko bertako gizarteek eraikitako hiriei erreparatuko diegu eta ondoko datua kontuan hartu: kontinenteko populazioaren³⁷ zati handi bat hirietan bizi zela, garaiko Europan bezalaxe Gure europar pentsamendurako sofistikazio eta modernotasunaren eramaile diren hiriak izatea garrantzizkoa da egiten ari garen hausnarketarako.

Biztanle gehienak hirietan bizitzea eta nekazaritza (Wright, 1994) zein merkataritzari bere ahalegin handiena dedikatzea ez zen Erdi- eta Hego-Ameriketan gertatu soilik, Iparraldean Cahokia eta Etowa-ren kasuek (Sturtevant, 1991) hirien inguruan sorturiko herri indartsuak bazirela erakusten dute. Adibidez, Etowa-k 40.000 biztanle zituen eta XIII. mendean Cahokia-k garaiko London edota Paris adina biztanle zituela gogorarazten digu (Wright, 1994:117).

Hirien existentziak ondo erakusten du Europarrak heldu zirenean kontinentea beteta zegoela eta bertan herri, nazio eta inperio osoak zeudela, bakoitza bere historia eta gizarte egiturarekin, eta jakintzarekin. Era berean, ageriko gauza da kontinente hartan pilaturiko giza esperientzia luzea eta konplexua zela, hainbat arlotan.

2. KONKISTATZAILEEN GARAIA: GURUTZEA ETA EZPATA

XV. mendearen amaieran egon bazegoen lurralde berrien konkista laguntzen zuen nazioarteko testuingurua. Errege zein elizarako lurrak, aberastasunak eta mirabe berriak lortzea herri eta nazio kristau-zibilizatuen betebeharrak ia sakratua zela uste zuten garai hartakoek. Euren ikuspuntutik, konkistarako gerra haiek, hau da, orduko erresuma fedegabeen kontra egitea, zilegia zen (Taylor, 1987). Beraz, arrazoi politiko-ekonomikoek³⁸ bat egin zuten garaiko konkista bultzatzeko³⁹ (Zinn, 1980) orduan.

Lurralde berrien konkista⁴⁰ bide lasterra zen banakoen ondarea eta Estatuaren boterea handitzeko. Orduko gizarteek ondo ulertzen zuten hau⁴¹. Praktikan, gizarte oso baten ekimena

³⁷Kolon heldu aurretik zenbat jende bizi zen argitzeko ahalegina polemika bizian dugu eta horrela izan zen 1992ko ospakizunen inguruan gertaturiko eztabaida akademikoan. Konkistaren handitasunaren aldeko egile asko saiatu egin dira kopuruak murrizten kolonizazioak eragindako genodizioari kopurua kendu nahian. Baina Landaburuk (1998:74-75) aipatzen duen bezalaxe, Berkeley eta Pariseko etnodemografoek egindako lanetan konkista aurretik zegoen giza presentzia handitzeko joera agertzen da, eta eurek kontinenterako proposaturiko populazioa 60 milioikoa da. Kontuan hartu behar dugu mundu osoko populazioa 350 milioikoa zela eta europarrena 55 milioikoa zela.

³⁸ Konkistaren bidez europarrek posible izan zuten herri autoktonoek zeukatzen aberastasun ondarea lapurtzea eta geroxeago, natur baliabideen kontrola eskuratu zutenean, lehengaiak esplotatzeko (laborantzan eta meatzetan batik bat) derrigorrezko lana ezartzea. Esplotazio sistema honek posible egin zuen mundu-ekonomiaren ondorengo garapenerako hain garrantzitsua izan zen kapitalismo merkantilistaren garapena. Merkataritzaren bidez koloniek bertan egindako produktu exotikoak, lehengaiak eta produktu manufakturatua metropolira bidaltzen zituzten eta ateratako etekina handia izan zen. Etekinaren aurreikuspen hau zela eta, konkistatzaileek espedizioak antolatzeko laguntza aurkitu zuten orduko dirudunen eta errege-erreginen eskutik

³⁹ Wallertein-ek kanpoko konkista egiteko gogo honetan ikusten du mundu sistema europarraren arrakastaren gakoa. Beraren ustez, garai hartan hobeto kokatuta zegoen Txinako inperioak, zenbait arrazoi zirela medio, ez zen gai izan bere boterea kanporatzeko. Txinari falta zitzaion konkista gogo hau europarrek soberan zuten.

⁴⁰ Garai hartan hasitako kapitalismo merkantilistarentzat ondare nazionala erdiesteko beharrezkoa ziren urrea eta zilarra modu ugarian izatea, eta hauekin batera aldeko merkataritza balantzea. Hauek lortzeko moduen artean konkista zuten askok gustukoena (Knox & Agnew, 1989). Are gehiago, Estatuak hau erabiliz lortu dezakeen gutzia lortu behar du eta merkataritza nahiz industria sortzeko erabili, eta hau noski besteen lepotik bakarrik egin daiteke.

⁴¹ Konkista ideologiaren esistentzia funtsezko faktorea dugu. Hau azpimarkatzeko Wilson-ek (1999) txinatarrak garai honetan zuten nagusitasunaren testigantza eskaintzen digu, baita hauek nagusiak izanda ere bai teknologian zein indar militarrean nola uko egin zioten erbesteko konkistari barne merkatuak eskaintzen zituen aukeretan zentratu asmoz. „The contrast also refutes the argument that as soon as a country possesses the technology of overseas trade and conquest it will use it. Zheng He's fleet was 250 times the size of Columbus's, and the Ming navy was many times larger and more powerful than the combined maritime strength of all of Europe. Yet China perceived its greatest challenges and opportunities to be internal ones, and Yong'le's overseas agenda was forgotten. Restrictions on private trade were reimposed, and commercial and military ventures in the Indian Ocean and South China Sea in subsequent centuries were dominated by the Portuguese, Arabs, Indians, Spaniards, Japanese, Dutch, British, and Americans,

eta indarra mobilizatzeko ahalmena zuen konkistaren ideiak. Ameriketako oparotasunari buruzko kondairak arin zabaldu ziren eta biztanleen aberastasun gogoia piztu egin zuen. Beren buruetan Amerika urregorri eta oparotasun amaiezinen lurra zen, eta maila soziala hobetzeko aukera eskaintzen zion bere herrian pobrezian zegoen edonori⁴².

Konkista posible egin zuen beste faktore bat ekintza militarri aplikaturiko aurrerakuntza teknologikoa dugu. Orduko europar potentziek botere lehiaketan jarioak ziren eta izan bazuten euren nagusitasuna segurtatzen zuen teknologia⁴³, bai eta antolamendu eta produkzio sistema hobea bat (Martinez, 1999). Maila teknologikoan aurreratuago egonik eta nagusitasun militarra edukirik⁴⁴, zein gaixotasuna zabalkuntza (Crosby 1986; Man 1994), posible izan zuten guda zelaian askoz ugariagoak ziren arerioak menderatzea eta konkista burutzea (Feagin, 1989).

3. ERLIJIOA: KONKISTAREN INDAR LEGITIMATZAILEA

Botere eta aberastasunaren egarriarekin batera erlijioa ere garrantzi handiko faktorea dugu. Are gehiago, Aita Santuak emandako legitimazioa funtsezkoa izan zen Ameriketako kolonizazioaren lehen uhina ulertzeko, bera baitzen orduko erresuma kristauak osotzen zuten nazioarteko erkidegoaren burua.

Urruneko lurren konkista bultzatzeko lehen kasua Nikolas II.ak 1452an Portugaleko Alfonso V.ari eman zion “*Romanus Pontifex*” Bulan aurkitu dezakegu. Berorren arabera, kristauak deklaratu zieten jentil herriei guda, eta espresuki bultzatu ziren herri jentilen konkista eta kolonizazioa. Aita Santuaren erabaki honek itsasoz bestaldeko herrien konkistarako pizgarria gertatu zen. Muga bakarra lurraldeak beste erresuma kristau baten esku ez egotea zen. Beraz, Hanke-k (1949:60) dioen bezalaxe, konkistan “*Dios y ganancias*” lotu ziren.

Ildo beretik jo zuen 1493ko “*Inter Cetera*” Bulak. Bertan Espainia eta Portugaleko erresumek Aita Santuaren babesa lortu zuten aurkituriko lurraldeak konkistatzeko eta gerora aurkitu zitezkeen lurren gaineko jabegoa eskuratzeko. 1493ko Tordesillas-eko Hitzarmena izan zen Eliza eta erresumen arteko aliantza honen lehenengo nazioarteko fruitua. Itun honek Espainia eta Portugaleko botere eremuak finkatu zituen. Eremu mugaketarekin batera, Aita Santuak sinaturiko hitzarmen honek konkistaren legeztatzea ekarri zuen Ameriketako lurralde osoa “*Terra Nullius*” deklaratu zuenean. Era honetan Erregeak mirabe berriak irabazten zituen eta Aita Santuak kristauak. Horrela, ezpata eta gurutzearen arteko aliantza onetsi zen (Williams 1990;

(Ibid:125).

⁴² Garaiko gizarte mailakatea zela-eta, Amerika mendeetan zehar izan da alternatiba aterabide argirik ez zuten “segundones”entzat. Familiako ondare guztia seme zaharrenarentzat izanik besteek konkistan aurki zezaketen lanbide aproposa.

⁴³ Gogoratu behar dugu Bepizkunde garaian egindako aurkikuntzen abantaila zutela orduko europarrek eta aurkitu zituzten herriek ez zutela zaldirik ez erroberarik, ez eta burdinarik eta hain erabakigarria gertatu zen bolborarik ezagutzen. Honen aurrean, orain europarrek mendeetan zehar garaturiko “erabateko guda estrategia” eta taktikak, aurkikuntza zientifikoaren laguntza zutenak, ez zuten mailako aurkakorik aurkitu. Herri indigenen arma eta guda moduak ez ziren gauza izan oldartzea gelditzeko.

⁴⁴ Guda egiteko orduan modernotasunak erakutsi duen nagusitasuna, zientziaren erabileran oinarritua (medikuntzatik, antropologiara), euren haragian jasan zuten herri indigenek (Todorov, 1992), eta horrela jarraitzen du izaten herri indigenen eta Estatuaren artean dagoen gatazkan.

Wilmer 1991; Morris 1992; Anaya 1996; Keal 2003).

Hegoaldean izandako konkistan erlijioak garrantzi handia izan bazuen ere, funtsezko faktorea izango dugu Iparraldeko kasuan, bertara joandakoek jazarkunde erlijiosotik ihesean heldu baitziren. Kasu batean zein bestean eragindako etnozidua zibilizazio aurreratuago bat eskuratzeko ahaleginean gertaturiko urrats tamalgarri baina beharrezkotzat hartzen da⁴⁵. Zibilizazioa eta erlijio kristaua mundu berrira ekarri izana konkistaren alde distiratsua azpimarratzeko erabiliko da, eta alde ilunenak ezkutatzeko edo erlatibizatzeke. Ikuspegi honek, Amerikari buruzko historiografian nagusia duguna, kontinente berrian kristau erlijioaren zein mendebaldeko kulturaren ekarpenak eta lorturiko handitasuna goraiatu du behin eta berriz.

...no cabe duda de que el paulatino progreso en la incorporación de la población originaria que se extendía por toda la América española a las formas de una vida cristianizada y al conjunto de la cultura occidental representó una elevación considerable...Simultáneo a la cristianización se produjo, y esto es de enorme importancia, el gran fenómeno de la incorporación a la cultura cristiano-occidental. Lo que se conoce como la aculturación de los pueblos autóctonos del Nuevo Mundo (Murillo, 1992:168).

4. OHIKO ERRAUTSEN GAINAN GIZARTE BERRIA ERAIKITZEN

Herri indigenak ez ziren gauza izan arrotzen gaixotasun, jakintza eta indar militarri aurre egiteko. Gainera, europar kolonizazioak ez zuen antzik ere ordura arte Ameriketako herri autoktonoek izandako konkista edota mendekotasun esperientziekin (Martinez, 1999). Gutierrez-ek (1992) dioten bezalaxe, herri indigenek zetorkiena ulertzeko eta honi erantzuteko tresna eta estrategiak sortzeko ezintasuna erakutsi zuten. Ezintasun honen sorburuan europarron konkista prozesuak ulertzeko gaitasun eta esperientzi eza zegoen⁴⁶.

Europarron agerpenak, funtsean, erabateko krisialdia ekarri zien euren agintepean erori ziren herriei (etengabeko inbasioa, bortxa, gaixotasuna, lurren galera, bizi iturrien eta kulturaren galera, asimilazioa, menekotasuna eta etengabeko txartze fisiko zein psikologikoa) (Deloria, 1992). Porrot militarren ostean, okupazioa gertatu zen. Herri indigenen aginte politiko, kultural eta ekonomikoak zuzentzen zituzten egituren ezabaketa gauzatzearekin batera, okupatzaileek gizartearen eraldatzeari ekin zioten (Calvet, 2005).

⁴⁵ Salbazioa eta zibilizazioa gaur arte iraun duen gaia da eta europarron jokabidean egun aurkitu dezakegun ezaugarri kultural-ideologiko kezagarria dugu. "Un elemento común a estas posturas ideológicas, que es característico de la mentalidad colonial; se trata del afán de salvación, con el cual se justifica cualquier acción emprendida. Los colonos luchaban para "salvar" sus tierras y para salvarse a sí mismos, defendiéndose de unas tribus "feroces" que dificultaban su instalación en los territorios conquistados; los religiosos dedicaron todo su esfuerzo para apartar a los nativos de sus creencias "paganas" y atraerlos a la fe para "salvar" sus almas. Este interés por la salvación sería asumido, después de la independencia, por la sociedad neobrasileña y, así, llega a nuestros días en una nueva forma, según la cual es necesario "salvar" la economía del país mediante el desarrollo de las regiones apartadas, que son precisamente aquellas donde suelen refugiarse las comunidades indígenas actuales. Hay también una versión de cuño romántico, aunque fuertemente impregnada de positivismo, que intenta "salvar" al indígenas como ser humano, e incluso algunos sectores pretenden salvar las culturas indígenas conservándolas en un aislamiento, cuando menos, artificioso" (Maderuelo, 1986:3).

⁴⁶ Europarrak ulertzeko ezintasuna funtsezko gaia dugu indigenen historian eta berau XX. Mendean konpondu dela esan genezake. "La resistencia india a las ofertas del hombre blanco y a la asimilación forzosa se basaba en la minuciosa observación y cuidadosa reflexión sobre las consecuencias probables de adoptar modos y maneras del hombre blanco... La conmoción ante la pericia tecnológica quedó por detrás de la incredulidad ante el modo de actuar de los hombres blancos, cómo trataban ellos a los indios, y cuántos hombres blancos existían realmente (Ibid.:10).

Ameriketako herri autoktonoentzat, kolonia bihurtzeak erabateko gizarte eraldaketa eta pentsa ezinezko krisialdia berarekin ekarri zuen⁴⁷. Europarrok gizarte eredu europarraren zabalkundea inposatzeko erabakia harturik zeukaten⁴⁸, eta ez zieten gehiegi erreparatu herri hauek berez zituzten gizarte egitura propioei. Ondorioz indigenen berezko gizarte egituren suntsipena eta ordezkapena politika kolonialen helburu bihurtu zen.

Esas metas se debían alcanzar cualquiera que fuera el costo, incluso si era necesario y posible mediante la destrucción de culturas, instituciones sociopolíticas y modelos económicos tradicionales que con frecuencia habían desarrollado a lo largo de los siglos los pueblos indígenas y que habían alcanzado un alto grado de desarrollo (Martínez, 1999: 174 parr.).

Politika honen ondorioak larriagoak izan ziren aginte egitura bertikalak zituzten herri indigenentzako. Bat-batean bai bizimodu politikoa, ekonomikoa, bai soziala eta kulturala, bai ekologikoa zein erlijiosoa arautzen zuten instituzioak eta aginte irudiak desagerrarazi zituzten. Ondorioz gizarte indigena osoa krisialdi gorri-gorrian sartu zen. Konplexu eta sofistikuak zirenak aginterik erreferentziarik gabe gelditzean gobernatzeko errazago ziren oinarritzko gizataldeetara mugatuta gelditu ziren.

En los imperios teocráticos agrícolas (Meso América, Andes centrales) donde se concentraban grandes contingentes de mano de obra, se institucionaliza la esclavitud de las clases trabajadoras a favor de los conquistadores y se destruye, por eliminación de las élites políticas y religiosas, todo nivel de organización social superior al de la comunidad primaria de familiares y vecinos. Desaparece rápidamente el saber intelectual de sacerdotes y administradores, se reduce considerablemente o desaparece el conocimiento técnico de los artesanos orfebres, alfareros, tejedores, escultores, arquitectos, navieros, etc (Landaburu, 1998:76).

Gizarte zaharraren porrotak eta berriaren gailentzeak Ameriketako bertako herri autonomoen subiranotasunaren galeraren mugarría, eta indigenen menpeko izaeraren hasiera puntua markatu zuen. Honek mendetasun politikoa eta ekonomikoa sortzeaz gain, maila kultural eta pertsonalean mendetasuna eta krisia ekarri zien Ameriketako herriei. (Dieterich, 1989).

4.1 GIZARTE KOLONIALA: KULTUR ASKOTASUNAREN ERAUZKETA

Europarrei, Ameriketara heldu zirenetik, arazo bihurtu zitzaizen bertan aurkituriko askotasun biologikoa zein kulturala, eta berau menderatzeko, murrizteko, mugatzeko, kontrolatzeko eta eraldatzeko politikak jarri zituzten martxan. Horrexegatik, europarrok etnokrazia⁴⁹ ala, Landaburuk (1998:76) dioskunez, sistema kolonial-esklabista bat menekotasuna

⁴⁷ Konkista garaitik hasita indigentzako erabat kaltegarriak gertatu zaizkie kontaktuak "...most of the encounters between so-called savages, primitives or natives and those who see themselves as representatives of civilization and order have ended badly, with indigenous peoples taken into the lowest levels of national or colonial society, their numbers diminished, their land stolen , their labor exploited, their culture flattened (Howe, 1998:5).

⁴⁸ Europarrok Iparraldean zein Hegoaldean mesianismo erlijioso eta politikoa jota berezkoak zituzten egitura eta gizarte sistema zein erlijioa zabaltzeari eman zioten, eta giza helburuen geruzaren pean ekintza anker asko burutu zituzten. Hala ere, inoiz gutxi zalantzan jarri zuten gizarte berriaren hedakuntza (Esteve, 1989).

⁴⁹ Talde etnikoen arteko harreman bertikala inposatuz taldeetako batek, kasu honetan europarrek, boterearen bitarteko guztiak kontrolatu eta besteei euren gizarte eta kulturaren moduak arlo sozialean, ekonomikoan, kulturean, politikoan eta izpiritualean inposatzen dienean gertatzen da. Talde honi dagozkio agintariak eta goi kargudunak; menekoak beste talde etnikoei dagozkie.

inposatu zuten agintea ezarri zuten tokietan.

La sociedad nativa, en otras épocas estratificada en distintas clases y profesiones, quedó reducida a un campesinado general. Los blancos ocuparon el lugar de los antiguos señores, los mestizos se encargaron del trabajo de escribientes y artesanos (Wright, 1994:191).

Egoera honetan arraza bereizkeria botere kolonialaren tresna bihurtu zen, eta eremu askotan aplikatu: lege munduan, gizartean, hezkuntza sistema, ekonomia, erlijioan eta politikan (Bauman, 1997) adibidez. Beraz, gizarte koloniala etnikoki mailakatua sortu zen, herri indigenen menekotasuna estreinakoz ezarri. Mailakatze honek 50 etnien arteko isolamendua eta behin-behineko kontaktuak bultzatuko ditu. Gizartean ez ezik Geografian ere aurkituko dugu egitura honen isla: europarrak hirietan bildu ziren (gunea) bitartean indigenak landa eremuetan (periferian) pilatu ziren⁵¹ (Olaechea, 1992). Modu honetan talde etnikoen arteko haustura geografiko-ekonomiko-kulturala eta bazterketa politikoa sustatu zen, Indigenak bere motakoei zegozkien herrietan pilatu zituzten berengan kontrol handiagoa izateko.

La aculturación comenzó, en verdad por la laboriosa tarea de intentar conseguir que los indígenas se sometieran a vivir en poblados, lo que se considero instrumento totalmente necesario para civilizarlos. Se utilizaron diversas modalidades para acometer este problema, distinguiendo entre los indios previamente sometidos y los que no lo habían sido, pero el criterio de que sin la reducción a poblados era imposible elevarlos humanamente fue casi unánime (Murillo, 1992:168).

Eredu honi jarraituz “indioen errepublika” delakoak sortu ziren indioen gaineko kontrola erraztuz⁵². Praktikan herri indigenen bazterketa eta periferiazioa burutu zen, koloniaren aurrerakadak herri eta gizarte indioaren atzerakada ekarriko zuen ia eremu guztietan. (Esteve, 1989). Hirietan aldiz ekonomia berria eta kontzentrazio geografikoa bultzatzearekin batera, europar erlijio, hezkuntza eta hizkuntzak nagusitu ziren⁵³. Eredu honetan gizarte duala indigenen eta ez indigenen artean haustura handia ardatzat duena indartuko da.

4.2 DISKURTSO ETNOKRATIKO-ZIBILIZATZAILEAREN SORKUNTZA ETA GARAPENA

Gizarte etnokratikoak ezinbestekoa zuen errez identifikatzen ziren ezaugarri fisiko, kultural zein moralak garatzea menekoa ondo definitzeko (Etxebarria, 1997). Diskurtso kolonial-

⁵⁰ Esan badugu ere herri indigenak direla gizarte piramidearen beheko aldean aurkitzen direnak ez dugu ahaztu behar talderik baxuena esklaboek osotzen zutela, eta hauetariko gehienak jatorri afrikarra zutela. Beltzek osatuko dute beraz gizarte honetan dagoen mailarik baxuena.

⁵¹ Gizarte etnokratikoaren presioa zela eta, haustura herri indigenen artean gertatuko da, eta gelditzen ziren goingo klasearen kideak hirietan gelditzen diren bitartean, beste askok landa inguruan kokaturik zeuden indioen errepubliketara jo zuten. Hirietakoak nortasun indigena berri bat sortuko dute eta gizarte berriarekin kontaktu estuago izan. Herrietan aldiz, kontaktua mugatu egin zen eta herri bakoitza barrurago sartu bere munduan (Varesse, 1996b). Hurrengo mendeetan gertatuko ziren matxinada indigenen buruak hirietatik atera ziren gehien bat sistemak behar duen eskulana herrietatik ateratzen zen bitartean.

⁵² Mundu-sistema nagusia izatera helduko zenak derrigorrezkoa zuen lan indar handia erabiltzea kontinenteak zituen baliabideak ondo ustiatzeko. Ekonomi eta gizarte berriaren beharrei erantzuteko, indigena gehienak nekazari bihurtu zituzten, eta euren eginbehar nagusienetarikoa bat eskulanaren beharra zenean hura hornitzea zen. Gizarte indigenetan zeuden klase eta bereizkuntzak ezeztatu eta meatzetan eta “*hacienda*” berrietan lan egitera derrigortu zituzten. Lan gogorrenak eta sinpleenak egitera behartu zituzten, eta mestizoak jarri zituzten idazkaritza edo burokrazia lanak egiten. “*Encomienda*” eta “*mita*” bezalako gizarte instituzio kolonialak horretarako erabili ziren.

⁵³ Gaiteleraren inposaketa helburu politikoa zuen eta horrela deskribatzen: “La castellanización del Indio a través de la enseñanza religiosa constituyó desde siempre un objetivo estratégico de la Corona. Pero enseñar el castellano a los indios también significa hacerlo más apto para convivir con los españoles y aculturarlos más fácilmente” (Esteve, 1989:169).

etnokratikoak definizio oro-hartzaile bat eraiki zuen: indioa.

...in the history of European encounters with non-European others 'the cultures of the West-do not merely respond to the presence of the "other": we actually construct him or her' (Padgen, 1993:183).

Era honetan aniztasuna sinplifikatuz eta herri zein kultur aniztasuna ezkutatzuz kontrola erraztu zen. "Indio" kategoria oro-hartzaile, murriztaile eta homogenizatailea da⁵⁴. Hau da zalantzarik gabe, Ameriketako errealtatean europarrek eragindako aldaketaren erakuslerik nabariena, eta betirako herri indigenei sufrimendu handiz inposaturiko kolonialismoaren marka. Errealitate hau indigenak Amerikarrak⁵⁵ bezala definitzeko zailtasunean aurkituko dugu oraingoz⁵⁶.

Es preciso tener en cuenta que, de acuerdo con toda la información disponible, los términos "indígena", "nativo", "mitayo", "indio", "poblaciones autóctonas" y otros similares no están extraídos del léxico de aquellos a los que hoy en día llamamos "pueblos indígenas", sino del vocabulario utilizado por los "descubridores/conquistadores/colonizadores" y sus descendientes, para diferenciarse de los primeros estableciendo una relación de superioridad/inferioridad con respecto a los habitantes originales de los nuevos territorios que se iban agregando a las coronas europeas (Martínez, 1999:177 parr).

4.3 HISTORIA BERRIA MUNDU BERRI BATENTZAKO: OROIMENAREN ERAUZKETA ETA HISTORIA KOLONIALAREN JAIOTZA

Historia⁵⁷ kolonialaren helburua gizarte kolonialaren botere egituraren ongitasuna, handitasuna eta zilegitasunaren aldeko diskurtsoa eraikitzea izan da. Helburu horrekin historia kolonialaren muinean "bestearekin" egindako topoaren nondik norakoak markatzeko saioa aurkituko dugu. Historia ofiziala bihurturiko europar nagusitasunaren istorio honetan (Wilson, 1999) konkistatzaile europarren epopeia kontatu eta berari loturiko mitoak zabalduko dira (Restall, 2003). Diskurtso kolonial honek⁵⁸ gizarte zaharraren ordezkatzeta defenditu eta gizartearen mailakatzearen onura zein herri indigenek pairatzen zuten menekotasunaren zergatiak esplikatzen dira.

Una vez lograda la destrucción de la identidad sui generis del sujeto histórico, el volumen de terror

⁵⁴ Azkenean sistema berriak bere helburuei erantzuteko herri indigenen gizarte berrantolaketa jarri behar zuen martxan. Modu honetan helburu ekonomikoak eta politiko kulturalak lortuz, eta, gainera, nortasun etnopolitikoaren inguruan gerta zitezkeen euren aurkako matxinadak eragotziz. Horretarako herri nortasunak (leialtasun etnolingüistikoak) ahultzeko edota apurtzeko ahalegin oro hartzaile hau jarri zen martxan (Varese 1996).

⁵⁵ XVIII. mende arte amerikano hitza erabiltzen zen bertako herriak deitzeko, baina XVIII. mendean kolonizatzaile britainiarrek "amerikano" hitza bereganatu zuten beraien buruak deitzeko (Wright, 1994:9).

⁵⁶ Indigenak Ameriketako bertako herriak badira ere, Amerikanotzat definitzeko oztipoak ikusten ditugu aipamena honetan. "se sigue haciendo genéricamente referencia a los pobladores originarios como "indios". La resistencia a rectificar el término a "americanos"-lo que constituye un nombre mucho más coherente y sin carga semántica negativa- obedece obviamente a intereses de dominación que se benefician del topos psico-lingüístico acuñado hace medio milenio. Las demás categorías utilizadas para los pueblos americanos: nativos, indígenas, aborígenes, primitivos etc sirven los mismos propósitos: no son categorías para descripción y/o explicación del fenómeno sino para su utilización propagandística al servicio de las élites vencedoras. Particularmente ilustrativos son en este sentido son los términos "aborígenes" y "naturales". El primero despierta inevitablemente asociaciones de entes paleontológicos o antropoides prehistóricos. El segundo está peor todavía. La diferencia específica entre el hombre y los animales radica precisamente en el hecho de que el hombre está dotado de la razón y del trabajo consciente. Al denominarlo como natural, se le hace parte del reino animal: se le asigna a la clase lógica de los infrahumanos (Dieterich, 1989:65).

⁵⁷ Historia honetan gizarte berriaren nagusitasuna agertzen da eta ohiko gizartearen handitasuna eta alderdi positiboak ezkutatu egingo dira menekoen askatasunez bizi ziren garaia oroitzen izan ez ditzaten.

⁵⁸ Koloniaren diskurtso hau historian ez ezik legedian eta garaiko zuzenbidean ere aurkitzen dugu. Honen kritika ikusteko bide Martínez Bringas (2003) eta Clavero (2002).

BIGARREN KAPITULUA:
KOLONIALISMO HISTORIKOA: ZAHARRAREN ERRAUTSEN GAINEAN
ERAIKITAKO MUNDU BERRIA

físico puede bajar, ya que su función es asumida, en gran parte, por mecanismos de adoctrinamiento ideológico. Dicho de otra manera: lograda la alienación del sometido mediante (primordialmente) la coerción física, la tarea del colonizador se concreta a mantener este estado de alienación y a convertirlo en su estado natural; es por eso que la colonización significa siempre la falsificación de la historia ...El vae victis de los invasores significa que se reescriba la historia del indígena para que, aunque vuelva la vista atrás, no se reconozca en ella. Cortado de raíz y enturbiado el espejo de la historia, el colonizado se convierte en fácil elemento de manipulación (Dieterich, 1989:62-64).

Horrela, mundu ezberdin eta posible baten oroimena erauztea, kultur askotasunari loturiko kultur harrotasuna desagitea eta erresistentzia posibleak itotzea lortu zuten. Historia koloniala kontrol tresna psiko-soziologikoa bihurtu zen. Kultur askotasunak sorturiko giza esperientziaren balorea ukatuz, bizirik zirauen esperientzi historikoaren aurkako oldartzea antolatu zen (Gonzalez, 2007). Helburuak hauek ziren: gizarte eta botere egiturak, espazioa, lurraldea, natura eta ekonomia berrantolatuz jendearen nortasuna, oroimena eta honekin loturiko mundu kodifikazioa berregitea.

Ahalegin honetan, Ameriketako bertako zibilizazioen historia ezkutatu eta historia koloniala inposatu zen errealitate eta balorezko erreferentzi bakarra legez (Wright, 1994). Beraz, diskurtso kolonialistak zaila egingo du indigenek beren hausnarketa marko zapaltzaile honetatik at egitea⁵⁹. Historia koloniala europarrak protagonista dituen epopeia izango da, eta beraz, irabazleen ikuspuntua argi eta zabal hedatuko du, galtzaileen ikuspuntuei⁶⁰ toki gutxi emanda⁶¹.

Los blancos sólo contaron una parte. La contaron para complacerse a sí mismos. Contaron muchas cosas que no son verdad. Sólo sus propias hazañas, solo las peores proezas de los indios, eso es lo que ha contado el hombre blanco. Yellow Wolf, Nez Percé, c.1877 (aip.Wright,1994:17).

Konkistatzaileen marka diskurtso historikoan ez ezik maila geografikoan, sinbolikoan eta hizkuntzan zein garaiko ezagupenean ere islatuko da. Ohiko izenak, bertako hizkuntzetan emanak, desagertu egin ziren eta berriak agertu, europar hizkuntzetakoak. Era honetan ezabatu egin zen kultur askotasunak sorturiko historia eta giza esperientzia. Mundu berriak zaharra ordezkatzeko beste urrats bat bete zuen horrela. Une honetan zaila litzaiguke herri indigenen benetako izenak ikastea⁶², ezagunak ditugun izenak europarrok eta euren ondorengoek emandakoak direlako⁶³.

⁵⁹ „no consiste en prohibir el discurso de determinados sectores de la realidad, sino en hacer imposible pensar esta realidad fuera de la ortodoxia establecida. Los mecanismos psico-lingüísticos para lograr ese fin son múltiples: la estigmatización negativa o ridiculización de lo indígena; el uso de términos peyorativos y/o eufemísticos; la utilización de premisas tendenciosas en la presentación de los hechos y la presentación de éstos de manera aislada o fuera de un marco de referencia significativo (Wright, 1994:65).

⁶⁰ Laugarren Mundua sortu zenetik saiatu da konkistadoreen historia honi buelta ematen eta euren ikuspuntua helarazten Salas-ek (2007) historia ezberdin baten beharra defendatzen du galtzaile eta zapalduen historia ere kontatuko duena. Baina salbuespenak salbuespen indigenak dira dekonstrukzio lan honetan ari direnak.

⁶¹ Herri indioen kalterako, konkistaren mitoa historiografia nagusiaren parte da eta zapalduaren mitoak errealitate honi erantzun beharko dio, jakinda ez dela erraza galtzaileen historia kontatzea euren esperientziaren testigantzak ez direlako maiz aurkitzen, desagertu zirelako edo desagerrarazi zituztelako edota bizi ziren erexistenziako egoeran ez zutelako horrelako gauzez arduratzeko denborarik. Dena dela, kontuan hartuta ahozko kulturak zirela, erexistentzia eta hondamendiaren oroitzapena errazago aurkituko da ahozko formatuan historia mendealdetzarrak gogoko dituen formatuetan baino. Galtzaileen ikuspuntua ikusteko, bide León Portilla (1992), Churchill (1992a), Deloria (1992).

⁶² Gaur egun oso zaila egiten zaigu sorturiko marko honetatik at hausnarketarik burutzea. Hau horrela dugu garaiko lekukoek ez dituztelako testigantza asko utzi, eta epopeiaren diskurtsoa nagusiaren ondoan diskurtso kritikoak ez duelako behar duen tokia lortu. Epopeiaren diskurtsoak gertakizun militarrei, politikoei eta kulturalei eman die garrantzia, eta azken bolada honetan ekonomiarekin loturiko gaiak jorratzen hasi dira, baina hauetan fokua gizarte europarra izango da eta ez herri indigena.

⁶³ Gertaera honen adibide batzuk aipatzeko, Sioux, Apache, Eskimal izenak europarrok jarritakoak dira; eurek Lakota, Dene edo Inuit erabiliko dituzte. Gertakari

Historia bihurturiko diskurtso kolonizatzaile honentzat behar-beharrezkoa zen indigenaren irudi ezkor bat sustatzea. Kolonia garaian sorturiko irudiek baldintzatu egin dituzte gaur arte heldu zaizkigun indigenei buruzko estereotipoak, eta diskurtso kolonial-arrazistaren zutabea dira. Orduko gizartea alterofobia eta alterofiliaren artean mugitu zen eta bi joera hauek bizirik iraun dute gaur arte. Arrazoi hauengatik deskribatu sakondu egingo dugu.

5. “INDIO CERDO”: INDIGENA GAIZTOAREN IRUDIKATZE EZKORRA

Kultur inposaketa zilegi egiteko eta berau zibilizazio bidea bihurtzeko derrigorrezkoa zen basatiaren irudia sustatzea konkista arazo etikorik gabe burutu ahal izateko (Restall, 2003; Keal, 2003, Niezen 2003, Dieterich, 1989, Hanke, 1949).

“*Indio Cerdo*” izenez ezaguturiko diskurtso honetan Ameriketako bertako herrien primitibokeria eta makurkeria⁶⁴ aipatuko dira bereziki (Hanke, 1949), euren gizatasuna ukatuz. Ikuspegi honek kolonialismoaren alderik basatiena eta ilunena islatzen du, zapalduen inolako errespeturik aitortzen ez diena, alegia. Eredu honek guda-okupazio-lapurreta-esklabutza sustatu zituen. XVI. mendeko Juan Lopez de Palacios Rubios idazlea dugu joera honen defendatzaile. Aita Santuak “*Terra Nullius*”-en aldarrikapena eta fedegabeen gainean bere gobernu ezartzeko gaitasuna ontzat eman ondoren, “*requerimiento*” asmatu eta indigenen aurkako guda eta konkista defendatu zituen (Morris, 1992). Geroxeago, Sepulveda jakintsuak⁶⁵ berea egin zuen ikuspegi hau. Sepulveda kolonizazio prozesuaren alderdirik krudelena defendatu zuen garaiko intelektuala dugu.

La del aniquilamiento de los indios, percibidos...como "animales más que como gente, como perversos, vengativos, cobardes, traicioneros, desconfiados, simuladores, violentos, ignorantes, indecentes..." en una palabra "bichos do mato" (Etxebarria, 1997:100).

“*Indio Cerdo*” ikuspegiaren jarraitzaileek gizarte berrian indigenek zuten menpeko lekua esplikatzen saiatu ziren⁶⁶. Hori bai, bultzaturiko irudia zeharo iluna eta ezkorra izango da: basatikeria, nagikeria, gobernu eza eta zibilizazio eza, Naturari loturiko bizitza eta nomadismoa, bortxa-zaletasuna, etab⁶⁷. Hanke-k (1949:99) deskribatzen du garaiko irudi ezkor hau⁶⁸, zeina gerora zabaldu eta gizarte askoren buruan sakonki errotu den.

hau kasu gehienetan ikusten da eta oso gutxitan agertuko zaizkigu eurek euren burua izendatzeko erabiltzen duten izena.

⁶⁴ Hasiara batean lehenengo Kolonoek deskribaturiko kontaktuaren indigenak baketsu agertzen badira ere, ondoren, eta inperioen kasuan batez ere, egindako giza sakrifizioak aipatuko dira basakeriaren lekuko.

⁶⁵ Sepulveda inoiz ez zen Ameriketara egon eta ezagutzen zituen indigena bakarrak Sevillako esklabo-azokan ezagutu zituen (Morris, 1992).

⁶⁶ Jarrera honek erabateko arrakasta izan zuen XIX. mendeko errepublikar konkistaren garaian, eta kolonialismoak bultzaturiko zientzia biologizistak ideia hauen bertsio berri eratu zuen. Iraganeko gauza ez dela esaten digu Amazoniaren konkistan ere ikus dezakegu (< ez da ulertzen esaldia). Spicer-ek (1992) kolonialismo eta Estatuaren ideologiarekin lotuta ikusiko du ikuspegi etnozida eta etnozentriko hau.

⁶⁷ Diskurtso zapaltzaile gordinarekin loturik bi irudi aurkituko ditugu: batetik, “txerriak edo abereak” eta “sasi gizonak” edo basatiak zirela aldarrikatzen zuena, eta bestetik, gizonak bai bazirela baina basatiak izanik esklabutza zegokiela esaten zutenak. Honetan gehiago sakontzeko bide Restall, 2003 eta Wilson, 1999.

⁶⁸ Egile honek irudi escora ondo deskribatzen du pasarte honetan: “Esta gente de su naturaleza es ociosa e viciosa, e de poco trabajo e melancolicos, e cobardes, viles e mal inclinados, mentirosos e de poca memoria e de ninguna constancia”.

Indigenek umekerietan erortzeko joera zutela aldarrikatu eta euren buruak gai ez zirela esanez, tutoretzaren beharra argudiatu zuten. Hala ere, tutoretza hau ez dute aita-semeen arteko harreman gisa ulertzen, jabeak eta animaliak duten antzeko harremanaren eran baizik. Konkista burutu arte aske eta bere burua gobernatzeko gauza zirenak, porrotaren ostean, euren buruak gobernatzeko ez direla esango da idatzi kolonialetan. Indigenak zibilizatzeko zeregin honetan oinarrituko dute konkistaren onura eta herri indigenen gaineko gobernuaren zilegitasuna. Gobernu kolonialak libreak zirenak morroi bihurtu ondoren egoera berriaren ongitasunaren zergatiak erakusteko basatia eta zibilizatzeko bidean zegoen indioak kontrajarri zituen. Lehenengoa basatia eta gaiztoa eta bigarrena, ordea, ona eta domestikatua.

que ni los hombres ni mujeres sabían cómo gobernarse ellos mismos ni siquiera como los españoles más toscos. Si se les dejaba en libertad los indios volverían a sus antiguos hábitos de ociosidad, andar desnudos, embriaguez, descuido, glotonería y bailes y acudirían a los brujos y comerían arañas y culebras. Además la colonia estaría abocada a la ruina económica. Según concluía Lucas Vazquez de Ayllón era mucho mejor que fueran hombres siervos que no siguieran siendo bestias libres. (Hanke, 1949:139)

Historia kolonialaren arabera, indar zibilizatzaileek derrigorrezkoa zenean erabiltzen zuten indarra odolzale ziren indioen aurka. Hil ala biziko borroka honetan zibilizazioa hedatzeak etsaiaren desagertzea eskatzen zuen⁶⁹.

Aldi berean, indigenei ukatu egiten zaie defentsa eskubidea. Honetara jotzen dutenean euron odolzaletasun eta maltzurkeriari nahiz zibilizazioaren aurkako joerari buruzko aipamenak egiten dira maiz. Bortxaren zilegitasunari eta zilegitasun gabeko erresistentziaren aipamenak nagusi dira historia kolonialaren hizkuntza eta terminologian.

El vocabulario entero está plagado de prejuicios y condescendencia: los blancos son soldados; los indios, guerreros; los blancos viven en ciudades, los indios en aldeas; los blancos tienen reyes y generales; los indios jefes; los blancos tienen estados, los indios tribus..."Denominan batallas a todas las victorias de los blancos, y a todas las victorias de los indios, matanzas...Los blancos se arman para proteger sus propiedades son patriotas, los indios que hacen lo mismo son, sin embargo, asesinos" (Wright, 1994:9-10).

Gauzak horrela indigenak kristau bihurtzeko agindua kolonizazioa legitimatzeko argudio izan da hasieratik. Honekin batera kolonizatzaileen nagusitasuna defendatzeko orduan nagusitasun teknologikoa (Restall, 2003) eta lurraldeari gorengo onura ateratzeko gaitasuna aipatuko dira sarritan (Wilson, 1999).

5.1 ATZERAPEN TEKNOLOGIKOA

Europarrok asmatutako indigena primitiboaren irudiari lotuta euren atzerapen teknologikoa aipatzen da sarritan. Aurreiritzi honen erakusle dugu Acosta (1576); berak, munduko herrien hierarkia egiteko saioan, tokirik baxuenean jarri zituen indigenak, nomadekin

⁶⁹ Historia konbentzionalak horrela erakutsi digu. "La historia convencional, incluso cuando reconoce la atrocidad de la acometida, nos induce a suponer que ésta ha concluido y que es irrevocable; que los pueblos de América se han extinguido o están en vías de extinción; que eran tan primitivos y desaparecieron tan rápidamente por no tenían nada que decir (Wright, 1994:16).

parekatuz (Morris, 1992). Behin eta berriz indigenak Europako behialako jentilekin parekatuko dira (Williams, 1990), beren kulturari edozelako balorea ukatuz eta zibilizazio kolonialaren ongitasuna defendatuz. Diskurtso hau zabaltzen ari zen une berean konkistatzaileek eta kolonoek herri indigenen jakinduriaz baliatuko dira konkista bultzatzeko: euren janariak, sendagaiak edota jakintza geografikoaz baliatuz (Herlihy & Knapp, 2003).

Herri indigenen irudi estatikoa hedatzeko orduan, atzerapen teknologikoa azpimarratu eta kultura hauek ezagupen sofistikaturik ez zutenik eta berari loturiko garapena ezagutu ez zutela azpimarratzeko⁷⁰ idazteko sistematik ez izatea⁷¹ leporatu zaie. Atzerapenaren beste erakusle bat Naturarekiko menekotasuna izan da. Hau da Natura gizonaren nahietara makurtzeko nahiaren eza (Martínez de Bringas, 2003).

5.1.1 Hobekuntzaren Mitoa: Kolonoaren Indar Eraikitzailea

Izaera basati eta atzerapen teknologikoarekin batera, kolonoek buruturiko hobekuntzaren mitoa agertuko zaigu diskurtso kolonialean. Hau oso inportantea izan zen bereziki XVII eta Ilustrazio garaian, XVIII. Mendean, Ipar Amerikan egindako konkista defendatzeko ahaleginetan. Ipar Ameriketako kasuan ez ditugu Hegoaldean bezala inperio handiak aurkituko, beren inguruarekin harreman estuan ari ziren talde txikiak baino. Peet-ek (1991) talde hauek komunismo primitiboan arituz, natur baliabideen ustiaketa talde egituran burutzen zutela gogorarazten digu. Gizarteen arteko kontrastea handikoa gertatu zen europarrentzako, eta hauek gizarte basati primitiboak zirela ondorioztatu zuten. Mundua gobernatzeko zientzia garatzen ari zen garai honetan. Mostesquieu eta Adam Smith-ek munduaren ikuspegi hierarkizatua defendatu zuten (Keal, 2003), non europarrok goian eta indigenak behean baitzeuden (Clavero, 1994). Locke-k eta Adam Smith edota beste batzuk bide beretik jarraituz Estatu moderno oinarri zen gizarte hitzarmena sinatu aurretik ziren erkidego naturalekin identifikatzen zuten Ipar Ameriketako indigenak, era honetan desjabetzea eta konkistarako bideak prestatuz (Martínez Bringas 2003; Niezen 2003; Keal 2003). Bere zibilizazio Natura gobernatzeko gaitasunean zentratzen zuten Europarrentzat Naturarekiko harreman estua basatiaren marka zen. Euren

⁷⁰ Gai hau klasiko bat bihurtu da eta oso sakonki errotuta dago gure kulturean. Orain bakarrik hasi gara gure tresnak ez zituzten herriek egindakoa ulertzen eta miresten. Etozentrismoa argi deskribatzen da ondoko aipamenean "La América antigua fue criticada por carecer de objetos de los que los europeos disponían, considerados epítomos del progreso humano. El arado y la rueda eran los favoritos; otro era la escritura. Nunca se les ocurrió a los historiadores eurocéntricos que los arados y las ruedas no son de gran utilidad sin animales de tiro como los bueyes o caballos, ninguno de los cuales existían en América antes de Colón. Lejos de maravillarse de que surgiera allí la civilización a pesar de tales desventajas, los historiadores consideraron que la ausencia del arado y la rueda demostraba que los antiguos no podían haber sido civilizados. Con ese mismo espíritu llegaron a la conclusión de que los jeroglíficos mayas no eran realmente escritura-aunque lo pareciera- dago que ningún hombre blanco era capaz de descifrarlos" (Wright, 1994:18).

⁷¹ Europar giza esperientziaren ikur bihurtu zen lorpen handi hau erabili egin zuten berea zen esperientziatik beste kultura batzuen balioa neurtzeko. Hau esaten denean gutxitan aipatzen da kultura hauek, nagusiki ahozkoak zirelarik, izan bazituztela informazioa pilotzeko eta hedatzeko berezko sistemak. Inke kipu sistema konplexu bat zuten memoteknian oinarrituta. Konkistatzaileek, ohiko erlijioaren apaizak ezabatzearekin batera, errotik erauzi zituzten ohiko jakinduria eta oroimenaren zaintzaileak, bai eta jakintza hauek hedatzeko sistema. Gaur egungo ikerketari esker badakigu garaiko herri batzuek idazkuntza sistema berezkoa zutela, eta geroglifikoetan oinarrituriko gizarte eta kultura oso konplexuak zirela. Frogatu egin da egutegiak eta eraikuntzak egiteko sofistikazio handia behar zela, are gehiago zaldia edota gurpila ezagutu gabe. Baina konkistatzaileek erauzi egin zituzten zibilizatuak bezala errekonozitzen ez zituzten sistemak eta moduak.

antzeko gizarte eta ekonomia antolaketa aurkitu ezean basatien aurrean ari zirela ondorioztatu zuten aguro. Era honetan indigenen zapalkuntzarako bidea prestatu zen zalantzarik gabe.

...no tienen por su particular state of society, por un estado que se juzga primitivo, neither sovereign nor commonwealth ni soberano ni república, derecho político alguno tampoco (Clavero,1994:23).

Pentsaera honi jarraituz, indigenei uko egiten zaie Estatu estatusa, eta Estatu aurreko sofistiazio txikiko tribu gisa definitu ziren. Horrela ez ziren garaiko nazioarteko erkidegoaren pareko partaidetzat kontsideratu, eta ondorioz ez zitzaizkien aplikatu kategoria berorri aitorturiko legeak eta babesak (Martínez Bringas, 2006).

5.1.2 Txiroak Aberastasunaren Lurraldean

Ameriketako konkista ekologikoa konkistaren alderik ezezagunetarikoa da. Herri Indigenen ikuspegian herrien zanpaketa ekosistemen konkistarekin batera burutu zen. Bi hauek ezin dira banatu ekarri intimoki lotuta egonik indigenen ikuspegian eta oroimenean. Gauzak horrela izanik Cronon-en (1983) lana iraultzailea zen, Ameriketako ekosistemaren konkistaz jabetzeko, Naturarekin harremana ulertzeko eta ondorengo bi munduen arteko talka bortitaz hobeto jabetzeko

Europarren begietan indigenen moduak ez ziren inola zere egokiak eta euren ustez indigenak inguruko aberastasunez baliatzeko gauza ez ziren herri txiro eta atzeratuak ziren; gainera indigenek zeramaten bizimodu sinpleak topo egiten zuen lurrak erakusten zuen oparotasunarekin. Europarrek behin eta berriz errepikaturiko leloa izan zen indigenak ez zirela gauza inguruan zegoen aniztasuna eta oparotasuna modu produktiboan ustiatzeko.

To European eyes, Indians appeared to squander the resources that were available to them. Indian poverty was the result of Indian waste: underused land, underused natural abundances, underused human labour.....Indians were not industrious, neither have art, science, skills or faculty to use either the land or the commodities of it (Cronon, 1983:56).

Europarrek, oparotasun hura basatia⁷² zela argudiatuz, begi aurrean zituzten lurrak jabe bakoak, hartzeko libre “*Terra Nullius*”⁷³ zirela aldarrikatu zuten. Euren pentsaeraren arabera, jendea ez bazegoen bertan bizitzen, eta indigenak nomadak izanik ehizan bakarrik zeharkatzen bazuten lurraldea, ondorioztatu zutena honako hau zen: herri indigenek ez zutela

⁷² Azkenean basati deitura ere erlatiboa eta etnozentrista dugu. Jakin badakigu ustiaketa intentsiboa jaso zuten lurraldeak eta ekosistemak krisialdian sartu zirela. Lur basati ala ereiteko lurren arteko definizioa zeharo kulturala da, eta zerikusi handia du ekosistema bakoitzean kultura bakoitzak duen teknologiarekin. Azkenean teknologia kultura bakoitzak duen jakinduria eta esperientziaren ondorioa izango da. XVIII. menderako Naturak berreskuratu egin zituen gizonak erabilitako hainbat lur Ameriketako toki askotan. Kolonizazioak, hasiera batean, bere interesa nekazaritza gune handietan eta lan esku franko zuten tokietan kontzentratu zuen. Hemen kontzentratzeko beste arrazoi bat da bertan tokiak eta eguraldia eurek ezagutzen zutenaren antzekoa zela. Konkista guztien marka izan da konkistatzaileek eurek ezagunak zituzten produktuak ereiteko apropos ziren lurretara eta euren teknologia aplikatzea onartzen zuten tokietara jo zutela. Adibidez, inguru tropikaletan, herri indigenen ustiaketa lurraz baziren ere, ez zuten ustiaketa burutu teknologia eta jakintza falta zitzaielako. Horregatik, eurek ustiatu ezin zituzten lurrak askotan lur basati izendatu zituzten. Gauza bera gertatu zen Iparraldeko basoetan. Honetaz gehiago jakiteko, vide Cronon (1983), Quin (1977), Vecsey & Venables (1980), Jennings (1975).

⁷³ Grindere-n (1996) Ameriketako zegoen populazioa finkatzeko orduan ustez historialarien eta demografoen artean dagoen eztabaidak badu zerikusirik, genozidioaren proportzioez aritzeaz gain, lurrak okupatzeko erabiliriko diskurtsoarekin. Lurraz hutsik zeudela eta populazio oso txikiak zirela esan ondoren kontrakoa onartuko balitz teoria tradizional hau kolokan geldituko litzateke.

BIGARREN KAPITULUA:
KOLONIALISMO HISTORIKOA: ZAHARRAREN ERRAUTSEN GAINEAN
ERAIKITAKO MUNDU BERRIA

inolako jabetza eskubiderik, eta, beraz, ez zegoela inolako arazorik, ez moralik ez legalik, lur haiek eskuratzeko.

Ostera, indigenen ikuspegitik, ondasuna eta aberastasuna lurak ematen zituen fruitu, landare edota bertan bizi ziren animalietan zegoen. Jabegoa berentzat ekosistemak ematen zituen fruituen gaineko zer bait zen. Hau argi eta garbi ikusten da ekosistemei emandako izenetan: fruituekin lotuta daude eta erabilerari egiten baitiote aipamena (Cronon, 1983:65). Indigenen ikuspegian jabegoa taldearena-herriarena zen eta ezin zen inolaz ere saldu⁷⁴, erosi edo besterendu (Manuel, 1974).

Cronon-en arabera, indigenek bazeuzkaten azokak eta elkartruke anitz burutzen ziren kostalde eta barruko herrien artean, baina honek ez zuen zerikusirik Europarrek zituzten merkataritza egitura sendoekin. Indigenek herri mailan kontsumitzen zituzten naturak ematen zizkien fruitu asko. Hauen balioa elikagai izatean zetzan, edota herriko jendeak zituen beharrak asetzeko gaitasunean, eta gauza gutxi erabiltzen ziren gizarte Estatusa markatzeko. Elkartrukea zegoenean ere, printzipio honi jarraitu zioten eta beste herri indigenekin janaria edo euren beharrak asetzeko tresnak aldatzen zituzten. Dena dela, ez zuten gauza hauen pilaketa handiegirik izaten ez zegoelako inolako gizarte pizgarririk honetan aritzeko.

Herri indigenek erabili eta ustiatu egiten zuten ingurunea euren gizarteek zituzten beharrei erantzuteko. Ahalegin honetan ezagupen sistema eta ustiaketa iraunkorrerako teknologia eta modu konplexuak sortu zituzten, baina kolonoek ez ziren gauza izan hauek errekonozitzeko eta preziatzeko⁷⁵. “*Terra Nullius*”k indigenek produzituriko jakinduriaz jabetzea ere ekarri zuen, baita ere hauek euren ekosistemekin mendeetan garatu zituzten harreman konplexuen ukazio eta ezkutatzea (Herlihy & Knapp, 2003).

Europarrek beren kontzeptu kultural eta ekonomikoen arabera ikusi eta balioztatu zuten mundu berria. Garrantzi eta balio handia ematen zieten Europako merkatuetan saldu zitezkeen gaiei⁷⁶. Testuinguru honetan jabego pribatua eta honi loturiko etekina bihurtuko ziren jainko.

⁷⁴ Cronon-en iritziz ez dago inolako pizgarririk baliabide pilaketa eragiteko, indigenak oinarritzko beharrak hasetzeko egituraturiko gizarteak zituzten. “All communities exercise choice in their labeling of resources but they do so in radically different ways. Perhaps the central contrast between Indians and Europeans at the moment they first encountered each other in New England had to do with what they saw as resources and how they thought those resources should be utilized. Indians had a far greater knowledge of what could be eaten or otherwise made useful in the New England environment; their economy defined a correspondingly greater range of resources. But most of the resources were consumed by the household which acquired them, or, if exchanged, were traded for similar items. Very few resources were accumulated for the explicit purpose of indicating a person's status in the community....There was little social incentive to accumulate large quantities of material goods. A wide range of resources furnished economic subsistence, while narrow range of resources conferred economic status. The community definition of “need” was inherently limited (Cronon, 1983:164)

⁷⁵ Kulturen arteko talkaren erakusle hau bizirik dirau konterbazionismo ekologistan “El invasor europeo consideraba vírgenes estos bosques, y nada igual se ha visto desde que los taló con sus sierras de acero y los transformo en tablas. Sin embargo, los cherokees y otros indios habían estado dominándolos sutilmente durante miles de años. Al quemar la maleza cada primavera, se anticipaba a los incendios forestales y mantenían claros abiertos entre aquellos adecuadamente distanciados patriarcas. Los jóvenes brotes que surgían después de la quema alimentaban a venados y búfalos, y éstos, a su vez atraían lobos y pumas; los osos acudían a las bayas, raíces y al ocasional banquete de la carne. Todos estos animales proporcionaban carne, grasa y pieles al bípedo custodio de los bosques (Wright, 1994:125).

⁷⁶ Hau garbi dago ondoko aipamenean. “Perception of “resources” were filtered through the language of commodities”, goods that could be exchanged in markets where the very act of buying and selling conferred profits on their owners. Because European economies measured many more commodities in terms of money values-abstract

Mundu ikuskera honetan lurraren jabegoa helburua bihurtu zen⁷⁷.

Lurraren hobekuntza printzipioak indigenen jabego eskubide naturala gainditzeko eta indargabetzeko balio zuen (Cronon 1983; Korman 1996). Ikuspegi hau nagusia zen garaiko Estatu-gizon zein intelektualen artean⁷⁸. Esate baterako Locke, Hobbes edo De Vattel-ek indigenen lurak Terra Nullius (vacant lands) deklaratu ondoren, defendatu zuten bertan lurra ereiteak jabego eskubidea ematen zuela (Williams 1990; Anaya 1996). Lurren ustiaketa eta hobekuntza merkatu balioa⁷⁹ ateratzeko izango da, eta hau zibilizazioaren aurrerakadaren erakusgarria izanik, hobeturiko lurren gaineko jabegoa bermatzen zuen (Martínez Bringas, 2003).

Gizarte berriaren aurrerakada baso eta oihanen konkistan ikus daiteke islaturik. Basoaren konkista eta ustiaketak aurre hartu zion naturarekin aritzeko beste “ustiaketa sistema zibilizatuei”, hots, abeltzaintza, nekazaritza, larru ehiza, etab⁸⁰. Ondorioz, baso ustiaketa kolonizazioaren eta zibilizazioaren. Eragindako aldaketak zibilizazioaren marka bihurtu ziren eta garai hartan inork gutxi hartu zuen prozesu hura deforestaziotzat are gehiago, basoaren eta basa bizitzaren konkistaren erakuslea zen, zibilizazio modernoan sartzea markatuz.

6. BASATI ONARI LOTURIKO ERRUKIZKO MENDERAKUNTZA

Sepulveda-k zabalduriko ikuspegiari aurre egin eta zapalduen eskubideez kezkatu⁸¹ eta gizatasunezko legeekin⁸² bat zetorren indigenen gaineko gobernu baten alde agertu zirenak ere⁸³. Hauen artean bai lehenetarikoa izateagatik bai Palacios Rubios-i kontra egin ziolako aipamen berezia merezi du Matias de Paz-ek (Morris, 1992). Bi hauen arteko ika-mika "Burgoseko debeteak" izenaz ezagutzen da. Giza eskubideen historian toki berezia merezi du,

equivalencies which could be accumulated, no matter what the resource involved, to become indicators of wealth and social status....European markets...erected a shrine to the Unattainable Infinite Needs. Those needs were determined not only by the local communities which became established in colonial New England but by all distant places to which communities sold goods" (Cronon, 1983:166).

⁷⁷ Lurraren jabegoa eta kolonizazioa sustatzen zuen ideologia nagusitu zen Ilustrazioaren zibilizazioaren motorra eta aktore nagusia gizabanako libre eta lur jabea izango da: "En líneas generales los recién llegados y sus sucesores conceptualizaron (y conceptualizan) la tierra como un valor esencialmente patrimonial, objeto de una apropiación individual exclusiva y, como tal, transmisible a otras personas según el deseo del titular, fuente de riqueza material y base de poder político y económico (Martínez, 1999:218 parr.).

⁷⁸ Intelektual europarren eboluzioz jabetzeko eta europarron nagusitasuna nola sartu zen diskurtso zientifikoa jabetzeko bide Smedley (1999).

⁷⁹ Gogoratu behar dugu merkatal kapitalismoaren garaian ari garena eta Europako merkatuetan saldu zitezkeen gaiak zirela preziatuak.

⁸⁰ Naturaren konkistan gizonen batera eurek ekarritako abere, landare eta mikro organismoek parte hartu zuten. Ardiak, zaldiak, txerriak eta behiak nekazaritzan erabilitako zuhaitz eta landareekin batera hazteko baldintzak aurkitu zituzten tokietan nagusitu ziren bertako espezieen gainetik askotan.

⁸¹ Hanke-k (1949) dioskenez, indioen gabeziak eta beren zibilizazio falta argudiatzen zuen ikuspegiaren aurka ahalegin asko egin ziren, baina defentsa saio famatuena Bartolome De Las Casas-ek burutu zuen. Kolonia aroan bakan batzuek idatzi franko egin zituzten gaizki zer zegoen, errudunak nortzuk ziren, gaizki egindakoa konpontzeko zer zen beharrezkoa adieraziz. Las Casas-ek defendatu egin zuen indigenen gizatasuna eta euren gaineko gobernu kristauei zegokien modu egokian burutzea eskatu zuen. Gizakia bai, baina gizaki basatiari zegokion izaera ikusi zuen Las Casas-ek indigenengan eta gehiegikeriak mugatzeko errege babesa eskatu eta lortu zuen berentzat.

⁸² Juan Ferrer-ek Mexikoko arkeologia aztertu eta tratatu bat idatzi zuen, behin betirako indiarrek izaki ez arrazionalak eta jakinduri gabekoak zirela esaten zutenen aurka, eta salaketa hau betirako erazteko. Domingo Santo Tomasek ildo beretik jo eta indiar hizkuntzen edertasuna eta oparotasun-zailtasunak aztertu zituen. Ikerketa hauek indigenen gizatasuna eta gizarte konplexutasuna erakutsi nahi zuten, eta gizatasun honi zegokion gobernu eskatzeaz batera indigenen basatia zirela zioen diskurtsoaren sinplekeria erakutsi.

⁸³ XVI mendean, kolonizazioa hasi bezain laster, indigenekin egindako gehiegikeriek kontrako jarrerak harrotu zituzten. Burgoseko debeteak izeneko eztabaidarekin Montesinos eta Matias Paz-ek indigenen gizatasuna defendatu zuten, erresistentzia egiteko zeukaten eskubidearen alde eta esklabutza eta lur desjabetzearen aurka atara ziren. Egile hauek Juan Lopez de Palacios Rubios-ek bultzaturiko "requerimiento"ren aurka ere aritu ziren. Lopez de Palacios Rubios-ek indigenen aurkako Guda Santua eta Aita Santuaren Bulak emandako lurraldeetan zeuden gizarte konkista aldarrikatzen zuten. Desadostasun hauek Las Casas, eta Sepulvedaren arteko eztabaidaren aurrekarizat jotzen ditugu.

izan zituen ondoko ondorioengatik.

The Burgos debates between Palacios Rubios and Matias de Paz were important for three reasons: first, they revealed dramatically divergent perspectives among European scholars regarding the rights of indigenous peoples. Second, they led to promulgation of the Laws of Burgos, theoretically regulating every aspect of Spanish colonial life in "New Spain" (in practice, of course, these laws were routinely violated or ignored). Third, they sowed the seeds for subsequent discussions of the same subject. The most critical of these subsequent debates took place at Valladolid between Bartolome de Las Casas... and Juan Gines de Sepulveda (Morris, 1992:NET).

Indigenen existentziak europarrek orduan zuten nazioarteari buruzko irudiaren krisialdia ekarri zuen. Ordu arte, munduan jentilak eta kristauak, zibilizatuak eta barbaroak soilik zeuden (Williams, 1990). Herri indigenek gorpuzten zuten “bestea” berri horrek garaiko nazioarteko harremanak birplanteatzera eramane zituen europarrak. Intelektual espainolen eztabaida indigenak Europarren munduan integratzeko ahalegin moduan ulertu behar dugu. Eurozentrismo gorritik egin bazen ere, balio handikoa izan zen indigenekin harremanak bideratzeko orduan (Yadira Martínez & Santamaría-Benz, 2004).

Indigenak europar mundu sisteman integratzeko ahaleginean nabarmendu egin ziren Vitoria⁸⁴ eta Las Casas. Etxebarriak (1997) dioenez, eztabaida ez zen saio bat izan kolonialismoa bera birplanteatzeko edo herri indigenak berdina bezala tratatzeko (Clavero, 2002). Honekin bat etorritik, Landabururen (1998) ustez aldeko jarrera ez da idealizatu behar, onartzen zen legedi bakarra koloniararena delako eta indigenek berezko legedia izan dezaketarik ukatu egiten baita.

Hala eta guztiz ere, gaur egun, europar eta europar jatorriko askoren buruan bizirik dauden ikuspegiak⁸⁵ islatzen ditu eta eztabaida honen ondorioak herri indigenen aldekoak izan ziren, gure gairako interesgarria den mugarri bat markatuz. Indigenen gizatasuna eta honi zegozkion eskubideak izan ziren eztabaidagai. Funtsean, herri indigenekin izan beharreko harremana eztabaidatu zen (Martínez Bringas, 2006). Honek berebiziko garrantzia izan zuen, orduko gizarteak indioekin zuen harreman genozida zeharo aldatu zuelako. Las Casas-ek Sepulveda-rekin izandako eztabaida gizartean zeuden bi pentsaeraren isla zen.

En general este conflicto tuvo lugar entre quienes considerando la conversión de los indios como de importancia secundaria se dedicaron a justificar ante la conciencia real la virtual esclavización de los indios como medio para fomentar los recursos del Nuevo Mundo para beneficio de la Corona y la gloria de España y quienes pusieron en primer plano la conversión de los indios y relegaron al segundo la explotación material del continente. (Hanke, 1949:20).

Vitoria-k egindako lanak eragin handia izan zuen Pablo III.gan: 1537an “Sublime Deus”

⁸⁴ Vitoria-k Aita Santuaren bula ezin zela indigenen gizatasuna edo euren lurren gaineko jabegea ukatzeko erabilia izan argudiatu zuen. Eta ukatu egin zuen, Paz-en argudioekin bat eginez, Kristauek inolako eskubiderik zutenik “Guda Zuzena” indigenen aurka aldarrikatzeko. Honekin Vitoria Konkista Eskubideak aldarrikatzen zutenen aurka altxatu zen. Vitoria indigenen herri izaera onartu eta hauek lurraldeak borondatez egindako hitzarmen baten bidez eskualdatu zezaketela esan zuen lehenengo europarra da.

⁸⁵ Zibilizazio kristauren nagusitasuna eta saihestezintasuna Las Casas eta Vitoriaren diskurtsoaren parte zen. Ikuspegi honek bizirik dirau. Las Casasen ikuspegi gizatiarragoaren antzeko zerbait aurki daiteke indigenismoaren ideologian zein gaur egungo talde ekologistetan zein garapen alternatiboaren inguruan mugitzen diren askoren artean. Erljioa, noski, kasu askotan ez da gai nagusia, baina bai honen tokia hartu duen modernizazio gogoia, edota Garapen Iraunkorra bultzatzeko gogoia. Azkenean, europarrek indigenei buruz izan duten irudia beti mugitu da arbuioaren eta idealizazioaren artean. Idealizazio bidetik Rousseau eta beste batzuk jo zuten. Euren ustez indigena naturatik gertu bizi ziren eta sinpletasuna, askatasuna eta sentsualitatea gozatzen zuten. Mundu modernoak honekin amaitu zuen.

bultzatu zuen indigenen gizatasuna aitortuz, eta debekatu egin zuen eurak bai esklabo egitea bai euren lurraldeak zein jabegoa lapurtzea. (Martínez Bringas 2003). Modu honetan Erromatarren zein Erdi Aroan oso finkatuta zeuden “aspaldiko jabegoa” (*native title*) zein “bertako herri subiranoen” printzipioak onartu ziren, eta Konkista ideologiari zilegitasuna kendu.

Las Casas saiatu zen orduko bidegabekeriak zuzentzen eta tratamendu hobea ematen bertako herriei⁸⁶. Ondorio praktikoetara etorriz, auzian zegoena indigenak nola kontaktatu eta gobernatu zen. Las Casasen ikuspegi arrazoien eta erlijiosoen lana zen, eta Sepulvedaren ustez guda eta soldaduen lana (Murillo, 1992). Las Casas-ek inoiz ez zuen kristautasunak edota europar moduek inposaturiko nagusitasuna auzitan jarri, eta inoiz ez zuen herri indigenen izaera subiranoa eta honi loturiko erlijioa, kultura, hizkuntza, hezkuntza zein ekonomia garatzeko biderik egokiena hautatzeko eskubidea defendatu (Clavero 2002; Martínez Bringas, 2003). Bere ustez askatasunaren gainetik kristautzeko beharra baitzegoen. Erlijioaren bidean hezteko behar honek ematen zien espainolei indioen gobernuaren beren esku izateko eskubidea, euren konbertsioa lortu asmoz⁸⁷. Las Casas eta Vitoriak bultzaturiko bidea paternalista dugu, nolabaiteko eliz kolonialismoari lotuta zegoena, eta barbaroaren irudiari lotuta agertzen zaiguna. Indioak basagizonak⁸⁸ ziren, kultura gabekoak, biluzik ibili eta inozenteak izanik, erregearen eta Aita Santuaren mirabe onak izango zirenak (Clavero 1994, Etxebarriak 1997). Bortxa eta krudelkeria arbuia eta horren ordean Las Casas-ek konkista zilegizatzeko bide baketsua eta konbertsioa defendatu zituen (Martínez & Santamaría-Benz, 2004).

XVI. mendeko kolonialisten begietan, basati, ahul eta txiroa zen (Clavero,1994.) Indioaren gaineko tutoretza gobernuaren zeregin bihurtuko da (Hanke, 1949), eta indigenen berezko ahulezian oinarrituriko gobernuaren ezarriko da⁸⁹.

Las Casas-en ahaleginak posible egin zuen 1542an “*Leyes Nuevas*” izeneko legedi berria indarrean jartzea. Legedi honi esker, XVII eta XVIII. mendeetan Erregearen tutoretza ezarri, posibilitatu zen gehiegikeriak mugatzea eta herri indigenen populazioa handitzea.

La ventaja que tuvo el orden cristiano católico sobre el orden liberal ulterior es que, a pesar de esta denegación primordial de un derecho propio, el otorgar al indio en cristiandad el estado de bárbaro y las condiciones ligadas de «rústico», « miserable» y «menor» permitía declararlo en situación de «amparo» y creaba obligación de tutela al poder superior es decir al Rey. Esto se tradujo en muchas disposiciones favorables de las famosas “Leyes de Indias”. Por ejemplo, en 1512, las leyes de Burgos prohíben la esclavitud del indio y reglamentan el trabajo forzado; en 1542, las leyes de Barcelona eliminan la perpetuidad de las

⁸⁶ Las Casasen aportazioa inportantea oso bada ere ezin da antkolonialistatza hartu. Bere lanaren ikuspegi kritiko eta osoago batez jabetzeko bide Clavero 2000 eta (Martínez Bringas, 2006).

⁸⁷ Argi ikusten da ondoko aipamenean. “Si bien se reconocía la libertad de los indios y su derecho a un tratamiento humano, se incluía que deberían ser sometidos a coerción estar cerca de los españoles a fin de fomentar su conversión” (Hanke, 1949:37).

⁸⁸ Barbaroaren ideia Landaburuk (1998:82-83) deskribatzen du. “el indio va a ser clasificado como un «bárbaro» es decir que no se le va a reconocer la pertenencia al estado civilizador, una categoría que da lugar a tratamientos más considerados, a «privilegios» superiores que obligan los soberanos a consultas y tratados”

⁸⁹ Esteva-k (1989:108) honela deskribatzen du: “El indio común sería representado como un ser sin voluntad, simple, flaco, pobre y fácil para la enfermedad. Se asumía que debía ser amparado por los demás sectores de gentes, porque siendo económicamente un miserable, era también el más miserable de los seres

BIGARREN KAPITULUA:
KOLONIALISMO HISTORIKOA: ZAHARRAREN ERRAUTSEN GAINEAN
ERAIKITAKO MUNDU BERRIA

encomiendas; en 1561 la Corona española reconoce tres tipos de tenencias de tierras: las propiedades de indígenas, las propiedades de particulares (sic), La propiedad de La Real Corona; en 1596 se inicia la asignación de tierras en tenencia comunal a indígenas, etc. Si bien es cierto que buena parte de estas medidas nacen del miedo de la Corona de perder sus súbditos tributarios por simple y llana desaparición física también es cierto que permiten el mantenimiento de unidades sociales indígenas muchas de las cuales subsisten hoy en la América india campesina en tanto que comunidades agrarias organizadas. Los indios son sujetos del Rey y tienen capacidad para constituir «repúblicas» (es decir para dotarse de un orden colectivo con derecho propio, subordinado claro está). De ahí provienen resguardos, ayllus, comunidades diversas existentes hoy en día. (Landaburu, 1998:83-84).

Aipaturiko debateak garrantzi handikoak izan baziren ere, ez zuten praktikan aldaketa handirik eragin aldaketarik eragin. Diskurtsoa eta bere eraginak maila intelektualean gelditu ziren eta ez zuten egunerokotasuna baldintzatzeko horrenbesteko indarrik (Martínez Bringas, 2003). Hori bai ezarri egin zuen Erregimen Zaharraren gizaldietan honen marka izan zen harreman paternalista bat, non maila ezberdinetan, baita nazioartean ere, euren babeserako mekanismoak existitzen ziren (Clavero, 2002).

Eragindako aldaketeei jarraituz banaketa fisiko eta kulturala burutu zen “republicas indias” delakoen bidez. Hemen kulturen arteko banaketa eta ia erabateko bereizketa fisikoa, politiko, ekonomiko eta kulturala burutu zen (Martínez Bringas, 2003). Hori bai herri indigenentzat euren iraupen fisikoa eta neurri batean euren kulturak babesteko baliozkoa izan zen (Landaburu,1998).

7. IPARRALDEKO HITZARMENAREN BIDEA

Orain arte, deskribatu egin duguna Hego Amerikan garaturiko eredu; honek asko zor zion Espainiak lorturiko egoera hegemonikoari. Iparraldean aldiz egoera ez-hegemonikoan burutu zen kolonizazioa eta horrek beste eredu ezberdin bat ezarri zuen, Laugarren Munduaren garapenerako hain garrantzitsua den itun-bidea ekarri zuena, hain zuzen.

Iparrera helduriko indarrak gutxiago zirenez gero, ohikoaren alboan zegoen gizarte berria eraikitzeari ekin zioten. Elkarbizitza bazen hasieran laster baliabideak kontrolatzeko gatazka bihurtu zen. Horrexegatik europarrok euren presentzia, natur baliabideen ustiaketa eta beraren gaineko jabego berria zilegi egiteko hitzarmenak⁹⁰ sinatu zituzten. Hauexek kolono eta herri indigenen eta botere europarren arteko harremanak kudeatzeko balio izan zuten.

...estos primeros contactos no se caracterizaron exclusivamente por la fuerza militar. Por una parte, estaban en relación con el discurso político y jurídico entonces predominante en las sociedades de las que procedían los forasteros. Por otra, reflejaban el equilibrio de fuerzas que originalmente existía entre los recién llegados y unas sociedades bien organizadas que llevaban siglos poblando esos “nuevos territorios”, equilibrio que iba a cambiar radicalmente a medida que iba progresando el proceso de colonización (Martínez, 1999:181 parr.).

Hitzarmen bideak, gehien bat, botere kolonialen arteko harremanak eta botere borroka⁹¹

⁹⁰ Gure eztabaidarako modelo honek izandako eragina inportantea da hitzarmen asko sortu zitu-elako eta hitzarmen hauetan onartu egiten zelako sinatzaile diren nazio indigenen askatasuna eta subiranotasuna. Erresuma espainolak ere Cherokee eta Mapuchekin XVIII mendean sinatu zituzten hainbat hitzarmen.

⁹¹ Botereen arteko borroka gauza ezaguna zen herri indigenentzat. Batzuetan parte hartu eta euren interesa defendatzeko erabili zuten. Kuna indigenek eta

BIGARREN KAPITULUA:
KOLONIALISMO HISTORIKOA: ZAHARRAREN ERRAUTSEN GAINEAN
ERAIKITAKO MUNDU BERRIA

kudeatu zituen. Hauxe horrela gertatu zen potentziek, botereen arteko borroka baten testuinguruan, ez ziotelako indar armatuari horrenbesteko zilegitasuna ematen, armez lortutakoa armez kendu zitekeelako.

Se trataba de legitimizar (mediante el consentimiento de los autóctonos soberanos del territorio en cuestión) todo “derecho” (real o supuesto) con el que pudieran oponerse a demandas opuestas formuladas por otras potencias coloniales con miras a adquirir el control de estos territorios.

Pero para adquirir esos “derechos” mediante títulos derivados (ya que evidentemente no poseían el título original o porque se estuviera poniendo en tela de juicio la legalidad de su presencia en el lugar), era necesario que obtuviesen el acuerdo de los poseedores legítimos del título original, es decir, de la nación indígena en cuestión. Estos deberían proceder a una cesión formal de sus tierras (o bien a su venta o a una concesión de posesión adquisitiva o a cualquier otro tipo de transferencia válida)

De conformidad con la tradición jurídica y los trámites europeos, esa transferencia había de aparecer en un documento que se pudiera presentar como prueba ante las demás potencias colonizadoras que en pie de igualdad constituían el “concierto de naciones civilizadas”. Para ello el instrumento ideal de acuerdo con el derecho internacional de la época era el tratado. Además, las únicas entidades con capacidad jurídica para concertar tratados eran, como hoy en día, precisamente los mismos sujetos internacionales que poseen la soberanía —por sí mismos o delegando en otros soberanos— mediante el ejercicio de ésta (Ibid: 187-189 parr.).

Bigarren eredu honetan, eragin handia izan zuen orduko nazioarteko testuinguruak. Europan indar hegemonista eta anti-hegemonisten arteko borroka gertatu zen eta honen eragina hedatu egin zen Ameriketako agertokira. Egoerak aginduta europarren eta herri indigenen arteko harremanak, nazio libreen artekoak ziren.

el amplio reconocimiento por parte de las potencias europeas y de sus sucesores, al menos durante la era del derecho de las naciones, de los “pueblos de ultramar”, incluidas las poblaciones indígenas en el sentido actual del término, como entidades soberanas (Ibid:104 parr.).

Nazio libreen arteko itunen adierazgarria dugu ondokoa: Ipar Ameriketako herri indigenek aliatu moduan parte hartu zuten botere borroka hauetan. Irokesak aktore estrategiko nagusi izatera heldu ziren gainera. Frantzia, Holanda eta Britainia Handiko gobernuek sinatu egin zituzten Irokesekin hitzarmenak⁹² (Dowd, 2005) eta hauen ordezkariak Europako kapitalak bisitatu zituzten (Zinn 1980; Woo 2003; Flaeger 1998; Viola 1995; Sturtevant 1991). Garai honetan indigenak “anai gorria” bezala tratatu eta eurekin hitzarmen bidea erabili zen nagusiki. Hala ere, orduko botere europarrek indigenekin sinaturiko hitzarmenak ez zituzten “pareko nazioarteko erkidegoaren kide batekin sinaturikoak” bezala hartu, orduko intelektualek zein diplomatikoez ez zituztelako “errepublika” kontsideratu (Clavero 1994; Williams, 1990), basatiekin egindakoak baizik.

nor did either colonial authorities or settlers regard local peoples outside their direct administration as constituted into proper states, though they made treaties and agreements of a kind with them” (Watson, 1992:257).

Nazio tratamendua europarron aldetik botere korrelazioak inposaturiko zerbait zen.

Misquito-ek, adibidez, Espainiar Inperioaren aurka erabili zuten euren etsai ziren kortsarioekin bat eginez euren lurraldea inbasiotik at mantentzeko. XX. mendean berriz, AEBekin bat egingo dute euren lurraldeak eta kultura defendatu nahian. Beste kasu batzuetan, Iparraldeko herriek potentzia europarrekin, Britaina Handiarekin eta Frantziarekin, sinatu zituzten hitzarmenak eta euren botere borrokan parte hartu, XVIII. mendean batik bat.

⁹² Interesgarriak dira Johansen-ek (1982 eta 1990an) idatzitako lanak non Iroquesek Benjamin Franklin eta AEBko beste aita-fundatzaileengan izan zuten eragina aipatzen den. Honek erakutsi egiten du harreman eta elkartruke indartsua zegoela indigena eta ez indigenen artean.

Indigenek herri subiranoen artean sinaturiko hitzarmenak zirela uste bazuten ere, eguneroko praktikak kontrakoa erakutsi zien. Indigenek hitzarmena sinatu ondoren ez ziren gauza izan euren lurren eskualdaketa-prozesuen gaineko kontrola bermatzeko (Wilmer 1993, Keal, 2003, Watson, 1992). Izan ere, sinaturiko hitzarmenek okupatzaileek egindako eskualdatzeak zilegi egiteko balio izan zuten. Gainera, kolonizatzaileen ikuspegitik, indigenek erregearen babesaren onartzen zuten momentuan euren subiranotasunari uko egiten zioten. Babes honek erresumaren lege eta agintearen meneko bihurtu zituen herri indigenak. Horrela gauzatu zen domestikazioaren lehen fasea. Lur sail berrien gose zen koloniarentzat indigenen lurak hazkunde eta zibilizazioaren aurrerakadarako behar-beharrezkoak ziren. Gose honi gehitu behar diogu beste faktore bat: XVIII. mendean jaiotzeaz zegoen Europako erresumek osotzen zuten nazioarteko erkidegoak, “nazio zibilizatuen familian” deitua, herri indigenak barbarotzat hartu zituen, ez zituen bere barruan onartu, eta, are gehiago ukatu egin zien euren kideei onartzen zitzaizkien eskubideak (Wilmer 1993, Keal, 2003, Watson, 1992) Nazioarteko erkidegoan ez kide moduan ez egoteak erabat kaltegarria gertatu herri indigenentzat.

1763an Iparraldean Britainia Handiko erregeak onarturiko legedia, kolonizazioa mugatu eta herri indigenen lurraldeen osotasuna onartzen zuena, maiz aipatzen da Ameriketako Iraultzaren⁹³ zioen artean (Hall 2004; Dennis 2003, Clavero 1994; Landaburu 1998).

⁹³ Iraultzaile eta leialistek mantentzen zituzten ikuspegi buruz, eta hauek indigenak nola ikusten zituzten jakiteko interesgarria da Hall (2004) eta Dennis (2003).

**III. KAPITULUA: ESTATU KOLONIZAZIOA
ETA MUGAZ BESTALDEKO LURREN
KONKISTA**

SARRERA

Deskolonizazio prozesuaren lehen uhinak erabat aldatu zuen XIX. mendeko mapa geopolitikoa. Era berean indigenen menderakuntzarako baldintza berriak ezarri zituen. Aro historiko berri honetan, herri indigenen menderakuntza liberal, kapitalista eta industrialaren den gizarte modernoaren⁹⁴ izenean gertatuko da (Lillian, 1997), eta aktore zapaltzaile-kolonizatzaile berria Estatua izango da. Errepublikak berriak sortu ziren Europar pentsamendu eta modeloari jarraituz⁹⁵, eta ondorioz garaiko “nazio zibilizatuen familian” kide bezala sartu ziren. Estatu berrien eraikuntza Erregimen Zaharrarekin lotzen zituzten herri indigenei⁹⁶ kendutakoaren gainean eraikiko da⁹⁷ “*winner take all mentality*” (Clay, 1993).

Garaiko errepublikanoentzat ezinezkoa zen indigenen eta errepublikanoen arteko elkarbizitza (Diaz-Polanco, 1991). Bai maila intelektualean zein popularean artean arraza zuriaren nagusitasunaren printzipioa oso hedatua zegoen, (Stafford, 1994). Ondorioz onartu egiten zen indigenak desagertu egin behar zirela gizarte modernoaren hedapenaren ondorioz, hau XIX. mendeko pentsamendu nagusia bihurtu zen indigenekiko harremanak bideratzeko orduan.

State-Building nation-destroying process, a process founded on the belief that indigenous peoples and states can't coexist (Cultural Survival, 1993:66).

Europarren esperientziari jarraituz, errepublikek hautaturiko Estatu-eraikuntza modeloen inperioen “zentro-periferia” logika difusionista bati jarraitu zioten (Dowd, 2005; Pino-Robles 2002). Zentroko gizartea konparatiboki aurreratuagoa izanik eta bitarteko nahikoak ukanez bere proiektua periferian⁹⁸ dauden herriei inposatzeko gai izango da (Ferro, 1997). Askatasunaren diskurtsoa erabiliko da herri indigenak zapaltzeko eta domestikatzen. Funtsean Estatu berrian zurien eta kultura euro-amerikarraren nagusitasunaren gainean eraikiko baita (Wong, 1999).

XIX. mendeko Estatu berrientzat bai beren mugen finkatzea, bai aginte egitura, merkatu zein hezkuntza sistema komuna sortzea premiazko arazoak bihurtu ziren. Honekin batera nazio nortasun berriaren sorrera eta finkatzea. Ondorioz, Estatu nazionalismoak bultzatuta gailenduko

⁹⁴ Industrialaren erabiltzen dugu liberalismoak eta sozialismoak bat egin zutelako modernotasunaren garapenak suposatzen dituen hainbat puntuekin. Puntu hauetan Naturaren ustiakuntzan, industrializazioa bultzatzeko saiakeran zientziaren nagusitasunean, historiaren ikuspegi lineala eta gizartearen sekularizazioa defendatzerakoan bat etorriko dira. Baita erregimen zaharreko edo atzeratutzat zuten gizarte sistemen aurka guda egiterakoan.

⁹⁵ Ez zen egon berrien artean aurreko Estatu indigenen erredura itzultzeko inolako asmorik. Denek ideia liberalei heldu zieten euren Estatuak egiteko orduan. “La ideología del Progreso y el positivismo en que se va a manifestar el liberalismo en América Latina a partir de la mitad del siglo XIX, y también el desarrollismo del siglo XX, van a seguir las mismas pautas el indio es un vestigio, un remanente (no lo dice pero se piensa: vergonzoso, una tara que hay que terminar de la mejor manera posible para entrar plenamente en la modernidad o el desarrollo donde nuestro futuro glorioso se asemeja a Francia e Inglaterra (hasta la Primera guerra mundial), a Estados Unidos (de entonces para adelante)” (Landaburu, 1998:87).

⁹⁶ Hemen zaharra bi zentzutan erabiliko dugu. Batetik, Sistema Zaharrarekin loturiko egitura politiko-sozialak. Iraultzaren aurkakoak zirenak eta iraultza burgesa borrokatu zutenak. Bestetik, gizarte modernoaren garapen ildoarekin bat ez zetozen europarrak ez diren mota guztietako giza egiturak. Ikuspegi lineala izanik modernoak aurreko zaharra ordezkatu behar zuela mantentzen baitzuen.

⁹⁷ Maila metaforiko batean europarrak antropofagoen antzera jokatu dugu herri indigenekin. Etsaia hil ondoren bere gorpua jan bere izpirituen indarra guregan izateko. Errepublikarrek bultzaturiko asimilazioa neurri batean honen itxura du. Borrokatu, irabazi eta jan bestea eta bestearena zena guregan modu aprobetxagarrian txertatzeko. Zibilizazioen arteko antropofogia honetan harreman guztiak hil ala biziko borrokaren kodeen burutuko dira.

⁹⁸ Periferiako gizarteek teknologia primitiboak dute, bizi irauteko nekazaritza praktikatzeko dute, industrializazio gutxi daukate eta nekazaritza populazioak dira gehiengo, hizkuntza eta erlijio minoritarioak praktikatu dituzte eta euren gizarte egitura talde partaidetza eta meritokrazian oinarrituko dute (Keating, 1998:6).

den ikuspegi berdintasunez mozorroturiko homogeneizazioarena izango da (Gonzalez, 2007), eta uko egingo zaio aniztasunean eraikitako proiektu bat⁹⁹ asmatzeari¹⁰⁰.

Hasiera hasieratik herri indigenek ez dute inolako partaidetzarik izango nazio berriaren nortasuna eta kultura nazionala eraikitzeko, are gehiago hau, neurri handi batean euren kontra zabaldu zela esan daiteke (Sosa, 2007, Sanchez, 1999). Proiektu nazional honetan indigenak kanpo geldituko dira, betebeharrak handiko eta eskubide urriko menpeko klase bezala jarraituz.

Por parte de la visión positiva del Estado, el orden legal pretendió excluir lo indígena en la construcción de la Nación, minimizando y estigmatizando cualquier posibilidad de valoración de culturas nativas, o como lo dice Dussel, negándose el europeo al descubrimiento del otro, clasificándolo como "lo mismo" atrasado, en un proceso de "en-cubrimiento" de lo no-europeo (Padilla, 1996:186).

Modu honetan, sistema errepublikanoak inperio garaiko egitura etnokratikoa (Gonzalez, 2007), eta politika ezkorrenak bereganatu zituen bere menpekoen gaineko gobernu efektibotasun handiagoz burutuz. Gainera gehitu egingo dio kolonia garaiko indigenen irudi ezkorri argudio berri bat: indigenak primitiboak etan gainera modernitatearen kontrakoak zirela (Sanders, 2006; Gonzalez 2007, Wilhelmi, 2005).

1. ERREPUBLIKA LIBERALAREN GARAIA. BERDINTASUNAREN IZENEAN ANIZTASUNA ZANPATZEN

XIX. mendean zehar mugen barneko herri indigenen aurkako erasoak burutzearekin batera mugaz bestaldeko lurren konkistari ekin zioten errepublika berri askok. Lur hauek beharrezkoak ikusten baitziren Nazio-estatuaren ekonomia garapenerako eta nazio eraikuntzarako. Beraz, herri indigenek euren independentzia borronteaz askatzen ez dutela ikusirik, konkista militarra arerioekin erabiliz eta pazifikaturiko indigenekin hitzarmena eta legea erabiliz burutuko da (Weyler, 1984; Prucha, 1994; Williams, 1990).

Mundu mailan kasurik ezagunena delako eta popularen irudimenean nonahi agertzen delakok AEBko kasua erakutsiko dugu, bera baita ezagunena eta aztertua seguruenik. Urruneko lurren konkista hauspoa izen zen AEBko “*Manifest Destiny*”. Are gehiago, Fennimore Cooper-ek “Azken Mohicano” idatzi ondoren: Estatu berria epopeia honen pertsonai nagusia da argi dago kolonialista europarrak zein indigenak behialako errealitateak direla. Botere berriaren aurrean gelditzen den irudia desagerturiko indioarena izan zen (Stafford, 1994).

Diskurtso mesianiko honek, amerikano zurien nagusitasuna aldarrikatuz, lurralde indigenen konkista sustatu zuen (Bronw 1970; Marienstras 1982; Morris 1992). Are gehiago,

⁹⁹ Egon egon ziren jarrera honen aurka aritu zirenak. Adibidez, Latino Amerikan hasiera batean, San Martin aitzindari errepublikanoak indigenen eskubideak onartu bazituen ere, euren eragin eremuak propioak ohiko lege sistema eta hizkuntza onartuz, Bolibar-en etorrerak itxaropenarekin amaitu zuen. Bolibar-ek eredu jakobino zentralistari gorpuztu eta San Martinen-ek egindako kultur aniztasunaren aldeko apustua ezetsi zuen. (Wright, 1994). Bolibar-ek 1812ko Cadiz-ko konstituzioaren ereduari jarraitu eta bide jakobinoa hautatu zuen. Ondorioz, indigenak errepublikan meneko bezala txertatu zituzten eta euren aurkako bazterketa gogortu egin zen.

¹⁰⁰ Nazio-estatuaren ideologiaren barnean zegoen garai honetan nazio bakoitzari Estatu bat zegokiola zioen ideia. Nazionalismoa hein handi batean inperioek suposatzen zuten egitura nazio anizdunen aurka garatuko da XIX. mendean zehar eta XX. mendean inperioen zatiketarekin izango du bere garaia. XX. mendeko hasieran 25 baldin baziren munduan zeuden nazio Estatuak zerrenda ia 200 izatera heldu da aurreko mendean.

zabalkunde bortitz eta konplexu honi egin behar zibilizatzailea deitu zitzaion (Ferro, 1997). AEBko orduko mugetatik mendebalderantz ziren lurren konkista ezinbestekoa zen AEBrentzat zabalkundea modernizazioa eta hobekuntza bermatzeko. Iparamerikarrek zibilizazio eramaile bezala ikusten zuten euren burua; finean zibilizazio eta unibertsaltasuna zabaldu nahi zuten konkistaren bidez (Wrobel, 2006). Mendebaldeko lurralde indigenen konkista nazio-erakuntza proiektuaren zutabe nagusi zen. Nazio berria gizabanako libre, berdinek eta jabedunek osoturiko gizartea da, homogeen arteko mundu hau euro-amerikar ereduari atxikiz eraikiko da (Scheckel, 1998). Zuriak gehiago eta indigenak gutxiago zirela zioen mitoa zabaldu eta sakonki sustraitu da (Yellow Bird, 2004), horrexegatik indigenen desagertzea zibilizazioaren aurrerakadaren prezioa izango da, gaur egungo terminologian kalte kolaterala esango genuke.

The eventual domination of the native tribes by white settlers was rapidly perceived as 'Manifest Destiny', and even those most concerned about the rights of the dispossessed seemed to accept that the process was an inevitable consequence of the irreconcilable differences between the two races. James Fenimore Cooper, for example, who was hardly blind to the virtues of the American Indian, nevertheless admitted that 'As a rule, the red man disappears before the superior moral and physical influence of the white'. Although Cooper, like many a liberal observer, hoped for a peaceful 'amalgamation' of the two races, he never doubted that the ensuing cultural alloy should be predominantly white. And this was, of course, the principle that informed both government policy and individual prejudice. What lay at stake was the identity of the American nation which, having struggled to be free from its European ancestry, was unlikely to succumb easily to an alien culture. As Roy H. Pearce observed with regard to the deep concern expressed over the plight of the Cherokees in the 1850s, 'still no one thought to denounce American civilization' (Stafford, 1994. 239).

Ez zen beraz onartu indigenak inolako eskubideak zutenik. Berriz ere berria zaharraren, primitiboaren errautsen gainean eraiki zen. Ez zegoen arazo handirik egon onartzeko prozesu zibilizatzaileak oso inzibilizatu zen bestearen desagertzea eskatzen zuela (Scheckel, 1998)..

Es la «nueva República». La conquista de universalidad que podía implicar el reconocimiento del derecho del individuo como tal es inmediatamente limitada por la consideración según la cual las sociedades que no estén fundadas sobre estos principios no tienen dignidad propia: son o primitivas o sojuzgadas. En ambos casos sometibles. Hacia ambas hay un deber de civilización que es liberarlas es decir destruir su ordenamiento interno, reconstruyéndolas a nuestra semejanza es decir disolviéndolas. La conquista de Europa por Napoleón o la eliminación de los pueblos Indios de Estados Unidos son dos ilustraciones de esta misma paradoja de liberación por la conquista (Landaburu, 1998:84-85).

Estatuaren gorengo interesaren leloari helduz, 1816tik 1848ra AEBko gobernuak, euren legeak erabiliz mehatxuz ala indarrez, kanporatu egin zituzten AEBko Ekialdeko indigenak (Robertson, 2005), eta euren lurak eskualdatu. Jackson presidentearen aginduz euren lurretatik kanporatu egin zituzten 1838 Nazio zibilizatuak izenez ezagaturiko Ekialdeko indigenek, eurek protagonizaturiko tragedia, “*Trail of Tears*”-ek mugarrira markatu zuen. Modu honetan indigenak periferiara bultzatuz lurralde artotzean moldatzera behartu, eta beste indigena batzuekin borrokatzera derrigortu zituzten ekialdeko indigenak. AEBk 1848tik aurrera Missisipitik haratago zeuden lurren konkista, segun non hitzarmenak zein bortxa erabiliz burutu zuen. Hemen ikusi dago AEBko inperialismoaren jaiotza (Hall & Fenelon, 2004), eta errepublika liberalek buruturiko herri indigenen konkistaren hasiera.

Estatuaren garapen prozesuak beharrezkoa zuen lur indigenen konkista. Helburua zen

Estatu modernoa eraikiz ekonomia kapitalista moderno-industriala martxan jartzea. Iparrameriketara gertaturiko konkista ezagunagoa egiten bazaigu ere, Txile eta Argentinak Mapuchen aurka izandako gudak edota Mexikok Iparraldean zein Perun burututakoak, ala Errusiak buruturikoak ez ziren makalak izan (Delgado 1996; Gonzalez 2007; Wilhelmi 2005).

Errepublikanoek zituzten populazio altuak eta indar militarra ia ezinezkoa bihurtu zuten herri indigenen erresistentzia¹⁰¹. Ondorioz, herri indigenen konkista zanpaketa, euren subiranotasunaren galtzea, euren lurren lapurreta eta birkokapena gertatu ziren. Konkista eta lurraren eskualdatzea lortu ondoren kolonoen etorrera gauzatu zen, hauek erabateko aldaketa sustatu zuten, gizarte berriaren moduak ekonomia, kultura, politika eta ekologian ezarriz.

XIX mendeko azken aldera konkista amaitu eta lurraldearen gaineko kontrola ezarriz, nazio-Estatuek zuten helburu bikoitza lortuko da lur-konkistarekin: batetik, nazio Estatuaren lurraldea eta mugak finkatzea; bestetik, lur hauetan egon daitezkeen baliabideen kontrola Estatuaren ekonomia bultzatzeko.

2. DOMESTIKAZIO PROZESUA ALA “ANAI GORRIA” “UME GORRIA” BIHURTU ZUTENEA

Kolonia zein ondorengo errepublika garaian, herri indigenekin egindako hitzarmenak¹⁰² nazio independente eta subiranoen artean ziren (Martínez, 1999). Hala ere, sinaturiko hitzarmenek askotan ez zuten izaten gutxienezko garantiarik herri indigenentzako, eta prozedura bera ere arrotzen hizkuntza eta beren interesa defendatzeko eginak zeudenaren frogara franko daudela digu errelatore honek¹⁰³ (Martínez, 1999:58 parr.). Lege trikimailuak erabiliz, Estatuak subiranoak ziren herri indigenak meneko eta Estatu barneko populazioak deklaratu zituzten. Honi domestikazioa deitu dio Martínez-ek (1999).

Así se inició el proceso que el Relator Especial ha preferido llamar (sin ninguna pretensión de originalidad) la “domesticación” de la “cuestión indígena”, es decir el proceso por el que todos estos problemas se sacan de la esfera del derecho internacional y se ponen directamente bajo la competencia exclusiva de la jurisdicción interna de los Estados no indígenas. En particular aunque no exclusivamente, esto se aplica a todo lo relacionado con documentos jurídicos que ya habían sido acordados o negociados más adelante por los Estados colonizadores originales y/o sus sucesores y los pueblos indígenas (Ibid: 191-92 parr.).

Hau lortzeko subiranotasuna posiblea egiten duen lau osagarrien aurkako erasoak gertatu zen.

... un proceso de retrogresión, mediante el cual se les ha privado o reducido en gran medida de tres de

¹⁰¹ Honetaz eta indigenen ikuspegi bat izateko bide Brown (1970) eta Marienstrans (1982).

¹⁰² Herri indigenek bizi dituzten arazoak konpontzeko beharrezkoa da Estatuarekin negoziatzea eta neurri batean Martínez-en txostenak gaur egungo harremanak eta hitzarmenak abiatzeko aspaldiko tratatuen bideak zer erakusten zuen ikusi behar zuten. Bertan Martínez-ek aurreratu egiten du hitzarmenak eta euren betetzea herrien arteko konfiantza sendotzeko tresna bezala ikusi zitezela herri indigenek eta Estatuaren jokabide historikoa konfiantza hau apurtu duela konfiantza zegoen tokian susmoa eraginez.

¹⁰³ Miguel Alfonso Martínez Jaunak Giza Eskubideen Batzordearen barruan dagoen Herri Indigenoaren Lan taldearen aginduz herri indigenek sinaturiko tratatuak ikertu ditu dokumentuaren erreferentzia honako hau da E/CN.4/Sub.2/1999/20. Hitzarmenaren gaurkotatzea defendatzearen bidea herri indigenek, batez ere Ipar Amerikakoek nahiz Australia edota Zelanda Berrikoek NBEan erabilitako borroka bidea izan da eta interes handiz itxoin egin da aditu honen txostena.

los cuatro atributos esenciales en los que se basaba su situación original como naciones soberanas, es decir su territorio, su capacidad reconocida de suscribir acuerdos internacionales y sus formas específicas de gobierno (Ibid.:105 parr.).

Lurraldea galdu, honen gaineko gobernu indargabetu, populazio serioa murriztu eta beste nazioekin akordioak sinatzeko gaitasuna indargabetu ondoren ez zegoen indigenentzat nora joaterik. Orduko, nazioarteko gizarte zibilizatuen familia izanik, basatiei ez baitzien euren kideei onarturiko eskubiderik edota babes mekanismorik onartzen. Adibidez, herri indigena ezberdinek Britainia Handiarekin sinaturiko akordioek ez zuten ezertarako balio. Egoera honetan argi gelditu zen herri indigenak Estatu kolonizatzaileen menekoak zirela eta berari zegokiela euren ardura. Nazioarteko jarrera honek ontzat eman zituen kolonizatzaileek inposaturiko domestikazioa.

“Gizon gorriak” Gobernuko “ume gorriak” bihurtu zituen domestikazio prozesuaren adibiderik argiena AEBko Gorengo Epaitegiaren Chief Marshall-ek harturiko erabakietan aurkitu dezakegu: 1823ko: (Johnson vs. M’Intosh) kasuan AEBko gobernuak herri indigenen lurren jabe absolutua zela onduzatu zuen, eta indigenei europarren lege tradizioa, kontzeptuak eta jabe go pribatua inposatu egin zitzaizkien orduz geroztik. 1831an (*Cherokee Nation vs the State of Georgia*) Marshall-ek erabaki zuen indigenak Estatuaren menpeko zirela, eta indigenak Estatuarekin babes tratatuak sinatu ondoren euren subiranotasunaren galdu zutela aditzera eman zuen. Vitoria-ren ikuspegiari berriz helduz indigena eta Estatuaren arteko harremana meneko eta jaunaren antzekoa dela dio *“resembles that of a ward to his guardian”* (Robertson, 2005). Ondorioz Estatuaren mugen barnean ez da onartuko Estatuaren subiranotasuna mugatuko duen beste aktorerik. Indigenak meneko nazioak (*dependant nations*) AEBko babes eta borondateari lotuta daudenak kontsideratuko dira. AEBko gobernuak modu honetan ukatu egin zuen, alde bakarkiki behialako tratatuak zuten nazioarteko izaera. Domestikazioaren filosofia inon baino argiago agertzen da *1871 Indian Appropriation Act* delakoan.

That hereafter no Indian nation or tribe within the territory of the United States shall be acknowledged or recognized as an independent nation, tribe or power with whom the United States may contract by treaty; Provided . . . , That nothing herein contained shall be construed to invalidate or impair the obligation of any treaty heretofore lawfully made and ratified with any such Indian nation or tribe.” (aip. Ryser, 1995)

Lurraldetasuna galduta, ohiko gobernuak ez eta euren nazio eskubideak balioztatzeko kanpoko laguntza erakartzeko ahalmenik gabe, herri indigenak bitartekorik gabe aurkitu zuten euren burua defendatzeko. Aro modernoan bizi zirenak bat batean menpekoak bihurtu eta erreserbetan bizitzera kondenatu zituzten.

3. MODERNOTASUNA ZABALDUZ ARROTZENA GORATU

Nazio-estatu berriek modernotasuna eraikitzeko aldaketa sakonak bultzatu zituzten, horrela zapalkuntza modernotasunaren¹⁰⁴ zabalkundearekin lotzen delarik. Frantzia eta Britainia

¹⁰⁴ Modernotasuna tradizionala berrikuntza, teknologia, ezagupen zientifikoen eta mendealdeko balore eta ikuspegiaren hedatzearekin lotuta ikusi da, honetaz gain ezagupen zientifikoen oinarrituriko hezkuntza sistema baten ezartzearekin lotu da. Aldaketa guzti hauek Europa izan zuten euren jatorria eta euren promozioari loturiko herriek

Handiko erreferentzetan zutenentzat (Sosa, 2007) ekonomia berriaren helburuak oztopatzen zituen edozein sinismen ala ohitura kulturala desagerraraztea zen¹⁰⁵ helburua. Modernotasunaren gustuko ez zirenak uxatu eta bultzaturiko balore berriak gizabanako liberal eraikitzailearenak izango dira (Stavenhagen, 1990). Breully (1987), Heckman (1983) eta Noguerol-ek (1999) deskribatu dute modernizazioaren osagarri etnozida hau. Etnozidioaren kultura gizarte errepublikanoaren eremu guztietan gertatuko da, baina are nabariagoa izango da eremu Estatu erakunde, erakunde erlijiosoetan eta hezkuntza mundua.

Estatuak behar beharrezko zuen industrian aritzeko ezinbestekoa zen hezkuntza sistema bateratu bat, ezagupen zientifikoan oinarritua eta errepublika berriaren nortasun nazionala, sinboloak, kultura komuna eta hizkuntza nazional¹⁰⁶ sustatzeko balio zuena (Sosa 2007; Stavenhagen 1990; Keating 1998; Spicer 1992; Wilmer 1993). Estatuak indigena zen guztia ukatzerekin batera kultura nazionala eta industrializazioa bultzatzen zuten estrategiak ezarri zituzten. Hots, nekazaritzan aldaketa teknologikoa eraginez, maila politikoan aginte politikoa arrazionalizatuz eta zentratuz, ahaidego lokarren apurketa sustatuz; bai eta gizabanakoen aurrerakuntzarako meritokrazia jarritz; ohiko kulturaren tokian alfabetizazioan sustatuz, zein zenbaki kulturaren oinarri duen ezagupen zientifikoa ezarritz. Hauekin batera indigenentzat hain inportantea zen natura eta erlijioaren arteko lokarria apurtu egingo da, erlijio indigenak debekatu, euren toki sakratuetan sartzea murriztu egingo da. Azkenik natura neurri ekonomikoetan bakarrik balioztatuko duen ikuspegia eta balore sorta bat ezarri zen. Are gehiago, harreman hau gabezi eta garapen gabeko kulturen erakusle bezala sustatu zen.

Finean, herri indigenek gorpuzten zuten aniztasuna Estatuaren areriotzat ikusiko zen, bere asimilazioa¹⁰⁷ xedea izanik. Francis Leupp's komisionatuak zioen bezala: indigena betirako hiltzea baina gizona salbatzea (*kill the Indian, spare the man*) formulari atxikiz (Churchill, 1997:245). Beraz talde nortasuna suntsitu eta gizarte nagusiaren gustuko den gizabanako domestikatua sortu. Asimilazio politikari “*the great pulverizing engine for breaking the tribal mass*” (Ibid.)-deitu zitzaion. Estatuak ez zuen kompetentzia egin ziezaiokeen herri nortasunaren arrastorik onartu. Berdintasuna, hazkuntza ekonomikoa eta modernotasunaren leloari helduz errepresio zuzena, zeharkako gobernuak, indoktrinazioa ideologikoa, asimilazio soziala,

lorturiko sistema eta garapen maila lortu nahi da imitazio prozesu baten bitartez.

105 Ikuspegi eboluzionista arrakasta gehiago izango du 60. Hamarkadan Rostow-ek bere bost garapen garaiak proposatzen dituen mundu mailako gizartearen garapena esplikatzeko orduan. Teoria honek Marx-ek planteaturiko eskemari erantzunez gizarte guztiek jarraitu beharra zeukaten modelo lineal bat asmatuko du. Modelo honetan gizarte tradizionalak hasierako garaian aurkituko dira eta Estatuaren lana garapena aieratzeko behar dituen neurriak hartuz garapen garaiak erretzea izango da. Ekonomia, kultura eta sistema politiko sozialaren zilegitasunaren aldeko borrokan hezkuntza eta zientziek garrantzi handia izango dute garapenaren eta modernotasunaren suspertzaile eta bultzatzaile bihurtuko direlarik.

106 Hizkuntza komunaren izatea berebiziko garrantzia du merkatu eta errepublikaren burokraziak duten beharrei erantzuteko. Bi hauen mugikortasun handiko jendea behar dute eta behar ere euren lanak egiteko eta komunikatzeko gauza direnak, euren jatorrizko kultura edota jaioterriari erreparatu gabe. Ezaugarri hauez gain hizkuntza komuna kultura eta nortasun komuna sartu ahal izateko bitarteko apartekoa da

107 XIX. mendean bane kolonialismoarekin lotuta garatu zen prozesua findu egin da XX. mendean eta “manifest destiny” maila unibertsalera heldu da mundu-sistema berrian. Behialako etnozidioa findu eta etnofagiaren garaia heldu gara. Hau ulertzeko bide eta Díaz-Polanco (2005) eta Patzi, (2006).

kulturala, hezkuntza eta hizkuntza inposatzea nahiz erlijio debekua erabili ziren tokian tokiko nortasuna indigenak erazteko. Kolonialismoa nagusia zuen mundu honetan “asimilazioa” egin behar “zibilizatzailea” zen. XX mendeko lehen hereneko pentsaera islatzen dute Burke goi mailako politikari Estatubatuarren hitzek: “

It is not consistent with the general welfare to promote [American Indian national or cultural] characteristics or organization (Churchill, 1997:245).

3.1 ETNOZIDIOAREN POLITIKAK

AEB-ek mendebaldeko konkista burutzearekin batera, indigenekin aplikaturiko modeloa nazioarteko erreferente bihurtu zen (Stavenhagen 1990; Urban & Sherzer 1993). Modelo honen esportazioan inportantea izan ziren bi gertakariak (Clavero, 1994:32-33): batetik, 1906an sortu berria zen “Carnegie Foundation”. Honek nazioarteko zuzenbidearen klasikoen lanak Vitoria, Smith, De Vattel argitaratzearekin batera indigenen aurkako iritziak zabaldu zituen. Bestetik, 1921an AEBko Estatu Departamenduaren enkarguz egindako lana, *The Question of Aborigines in the Law and Practice of Nations*, erreferentea bihurtu zen garaikoentzat. Bertan Snow-ek indigenak izendatu zituen “*as the wards and pupils of the nation and of the society of nations*”. Egile honek Estatu eta indigenen arteko harremana “*trusteeship*” (Clavero, 1994:33) modukoa izan behar zela baieztatzeaz gain, asimilazioa defendatu zuen helburu nagusi bezala, indigenak zibilizatzeko ahaleginean. Halaber, Estatu kolonialek indigenen lurretan zeuden baliabideak kontrolatzeko eta kudeatzeko eskubidea arrazoitu zuen ere. Azkenik, Snow jaunak “*to discourage tribal organizations and to deal with aboriginals as individuals*” (Ibid.:34) gomendatu zuen. Bere eragina handia izan zen orduko nazioarteko erkidegoan, eta indigenekiko harremanak zuzentzeko orduan pentsamendu nagusia izatera heldu zela esan daiteke. Urte batzuk geroxeago John Collier, Roosevelt presidentearen Afera Indigenetarako Komisionatuak 1934ko “*Indian Reorganization Act*” delakoaren muina deskribatzerakoan Britainiarrek erabilitako “zeharkako gobernuaren” sistemari egingo dio erreferentzia (Churchill, 1997). Hau baitzen orduko potentzia kolonialek gogokoena zuten gobernu modua. Protektoradoa izango da, beraz, kasu hoberenean inposatuko den bertsioa. Honelako egiturak hitzarmendun herriekin praktikatu dira. Gainerako kasuetan indigenekin izandako politikak asimilazio gordina eta lurraldeen kontrol zuzena bultzatuko dute.

Kultur askotasuna ezabatzeko ahalegin honetan, herri indigenen existentzia, persistentzia eta erresistentzia arazo bihurtu zen modernotasuna eta garapena bultzatzen zuten indarrentzat. Hau konpontzeko asimilazioa zen bidea. Estatutik bultzaturiko asimilazioak 108 gizarte indigenaren desagertzea eta modernotasunarentzat derrigorrezkoak ziren balore aldatetarako inposatzea bilatu zuen (Calvet 2005; Churchill 1997; Churchill 1992a; Deloria 1992;

108 Jasandako etnozidio ahaleginei buruzko kritikei eta honek sorturiko ondorioei buruz gehiago jakiteko bide U.N. E/CN.4/Sub.2/1998/16:59.

Stavenhaguen 1999; Noguerol 1999)). Hezkuntza eta hizkuntza nazionalak¹⁰⁹, indigenen adimena eta bihotza konkistatzeko (Mar-Moliner, 2000), hau da borroka ideologikorako tresna bihurtu ziren (Carretero, 2001). Gauzak horrela indigenen hizkuntzen desagertzea, euren arima eta kulturaren irenstea, glotofagia deitu dena (Calvet, 2005) helburu bihurtu zen. Honekin batera ohiko jakinduria basatitzat hartu eta bere ordezkari hezkuntza zientifikoaren ezarpena bultzatu zen (Seini, 2003), prozesu honetan zientziak, batez ere gizarte zientziak (Díaz-Polanco, 1997; Noguerol, 1999) berebiziko rola eduki zuten etnozidioa legitimatzeko orduan.

...the dismissal of ideas or experiences, accumulated wisdom, of the majority of humankind. Indigenous systems of health-care, medicine, education and agriculture as well as ways to understand the world and the place of people in it are equated with superstition and irrational beliefs. In those places where it has been successful the prevailing model has been mechanistic, technocratic, deterministic and materialistic (Ekins, 1991:64).

Asimilazioa eta berari loturiko kultur ordezkapena zilegi egiteko basati pobre, arkaiko eta ez modernoaren irudia zabaldu zen¹¹⁰ eskuan zituzten bitarteko guztia erabiliz. Hau bihurtuko Estatu eta bere aliatuen buruetan pentsamendu nagusia, eta hau izango da munduratuko¹¹¹ den irudi nagusia (Stafford, 1994).

Estatuak horren indartsuak ez ziren garai batean gizartearen laguntza funtsezkoa bihurtu zen indigenen asimilazioa erdiesteko: gizarte nagusi osoa, garaiko zientzia zein eliza ezberdinak, katolikoak zein protestanteak, bat etorri ziren eurentzat iraganeko aztarnak ziren herrien asimilazioa bultzatzeko orduan (Lewis, 1998). Gauzak horrela eurak, komunikabide eta arteen (batez ere literatura eta zinearen laguntzarekin (Alia, & Bull, 2005) arduratuko dira asimilazioaz eta kultur ordezkapenaz. Asimilazioa ez da bakarrik XIX. mendeko ala XX lehen erdiaren gauza izan Australia eta Kanadaren kasuetan ume indigenak euren familietatik urrun eramanez eta familia ez indigenekin jartzeko politika 1970ra luzatu zen: horrexegatik bi Estatu hauetan belaunaldi lapurtuez edota galduez hitz egiten da¹¹². Era berean hamarkada honetan ere aurkitu ditzakegu indigenen hazkunde demografikoa kontrolatzeko ahaleginak (Lawrence, 2000), mediku eta osasun erakundeen aldetik.

3.2 INDIGENISMOA. ASIMILAZIORAKO TRESNA

Etnozidioa gordina bultzatzen zuten politikekin batera, estrategia bigunagoa bezala,

¹⁰⁹ Asimilazio prozesuak lorturiko arrakastaren lekukoa dugu munduko hizkuntza aniztasunaren etengabeko txikitzea. Azken bi mendeetan hizkuntza txikiak etengabeko beheraketa eta krisialdia ezagutzen ari dira homogeneizazioa bultzatzen duten politikek eraginda. Hizkuntza desagertzen buruz bide Sampat (2001); Davis (1977).

¹¹⁰ "sus instituciones y sus culturas fueron consideradas por los sectores no indígenas como "inferiores", "arcaicas" o "ineficaces y poco prácticas". Estos juicios negativos fueron difundidos cotidianamente y universalmente por los más diversos métodos (publicaciones "científicas" o simplemente de boca a oreja) y rápidamente pasaron a ser la "idea dominante" de grandes sectores del mundo político y académico, así como de enormes segmentos de la población en general de las sociedades multinacionales en las que siguen viviendo las poblaciones indígenas (Martínez, 1999:238 parr.).

¹¹¹ Indigenei buruz munduraturiko irudiaz jabetzeko bide Riverwind (2007).

¹¹² Bide Report of the Royal Commission on Aboriginal Peoples (1996) eta Report of the National Inquiry into the Separation of Aboriginal and Torres Strait Islander Children From Their Families (1997). 2008ko otsailaren 13an Australia eta Kanadako Lehen Ministroek barkamena eskatu zuten euren Estatuak Herri indigenei. Honetaz gain bide RTVEk Australiako indigenei buruz eskaintako erreportaiak

kolonialismo errukitsuaren ereduari jarraitzen zion indigenismoa bultzatuko da hainbat tokietan, batez ere Latino Amerikan (Díaz-Polanco 1997; Cojti 1997). Anglosaxoien “apartheid” sistemaren aurka, Mexikon Vasconcelos-ek “arraza kosmikoaren” ideia bultzatu eta arraza nahasketatik sorturiko akulturazioa defendatuko du, herri nahasketa helburu modura ikusiz (Sanchez 1999; Sosa 2007; Dussel 1989). Mestizoa erreferentea zuen diskurtso ofizial honetan herri indigenen izatea eta kontribuzioa aitortu egiten zen, gehienetan ikuspegi historiko batetik, anglosaxoitik bereizteko (Gossen, 1992). Giro honetan desagerturiko basatia (*vanishing indian*) goraiatzen hainbat ekimenak burutu ziren. Alde batetik desagerturiko indigenei, hots, azteka eta inkei zuzenduriko ikerketak, indigenismoa izendaturiko genero literarioa eta hainbat liburuak agertuko dira Latino Amerikan. Museoek ere berebiziko pilaketa lana egingo dute iraganeko kulturen ondarea babesteko eta antropologo, etnologo historiari eta museo-egileek izan zuten berebiziko papera hildako indigenari zuzenduriko mirespen hau eraikitzen (Nicholas & Hollowell, 2007). Aldi berean, bizirik zirauten indigenentzat desagertzea defendatu zen¹¹³ (Díaz-Polanco, 1997). Mestizajearen diskurtsoa Estatu askorentzat politika ofiziala bihurtu zen 1940ko Pazcuaroko Aldarrikapenetik aurrera. Mexikoko ereduari jarraituz Institutu Indigenistak sortuko dira Latino Amerikan. Erakunde hauexen aitorturiko helmuga Vascelos-en “arraza kosmiko” erdiestea zen eta Gamio zein Aguirre de Beltranen ikuspuntu eta politikei atxikiz (Sánchez 1999). Jarrera politiko-intelektual nagusi honi jarraituz Mexiko (1917), Peru (1920 ala 1933) edota Guatemalako konstituzioetan ikuspegi paternalista eta indigenen gutxiengo estatusa eta asimilaziora abiatzeko gogoia erakutsiko dira (Escarzaga, 2004) Honelakoak bultzatzeko politikak indigenistak ezarri ziren¹¹⁴ Latino Amerika osoan.

3.2.1 Jabego Pribatu eta Ekonomia Industrialaren Zabalkundea

Hezkuntza mailan sustaturiko etnozidioarekin batera ohiko lurraldea eta berau kudeatzeko ahalmenaren galera izan zen indarrean jarri zen beste politika. Herri indigenentzat lurraldea euskarri fisikoa, kokaleku eta bizi irauteko beharrezko hornidura bermatzen duen tokia da; Bai eta nortasunaren marka, ondorengoei pasatu beharrekoa eta arbasoekin lotura zuena ere.

Indigenen kasuan, lurraldeak euren kulturaren garapen fisiko nahiz izpiritualarekin intimoki lotuta daude; lurra galtzerakoan oroimena, nortasuna eta kultura bera kolokan jartzen dira erabateko krisia sortuz. Modu honetan, arrotzek lortu egin zuten kolpe batez indigenen herri

¹¹³ Euren ustez indigenak egin dezakeena zera da: pobreziatik eta atzerapenetik ateratzeko bere kultura zaharra atzean utzi eta nazioak eskaintzen dion kultura berrian bere burua txertatu. Indigenari bere nortasuna uztea eta berria eskuratzea eskatuko zaio. Hainbat tokietan ideia hau indarrean aurkitzen dugu eta honen arabera gizarte nagusian parte hartzen duenak bere izate indioari utzi diolako izango da. Beraz, indigena periferian, gizarte nagusitik kanpo jarraitzen duena izango da.

¹¹⁴ XIX. mendean eta XX. lehen erdian hasitako prozesuen azterketa gaur egun bizirik diraute hainbat tokietan: “modernos países como Perú y Guatemala no son naciones nuevas sino retoños clónicos del viejo Imperio español, internamente dividido aún entre conquistador y conquistado. Sus políticos e intelectuales hablan a veces de potenciar el tipo de mestizaje-mezcla racial y cultural-que observan en México. Pero a lo que aspiran con ello es a la asimilación de los indios a las costumbres blancas, y no a un genuino encuentro intermedio. Y precisamente porque nada ofrecen a los indios excepto su extinción como pueblo, no tienen éxito (Wright, 1994:191-92).

nahiz gizabanako mailan zuten autonomiaren euskarria apurtzea eta dependentziazko egoera inposatzea. Honek horrela jarraitu du izaten XX. mendean eta horrela da XXI. gizaldian.

Next to shooting indigenous peoples the finest way to kill us is to separate us from our part of the Earth. Once separated, we will either perish in body or our minds and spirits will be altered so that we end up mimicking foreign ways, adopt foreign languages, accept foreign thoughts....Over time, we lose our identity andeventually die or crippled as we are stuffed under the name of "assimilation" into another society. (Hayden Burgess, World Council of Indigenous Peoples, Burger, 1990:122an).

Lur jabego pribatuaren ezarpena helburu ekonomikoak eta politikoak batera lortzeko tresna bezala erabili zuten. Herri lurren sistemaren suntsipena herri indigenak modernitatera ekartzeko modurik eragingarriena bezala ikusi zuten gobernuak, eta nazio indigenak domestikatzekeo prozesuan paregabeko tresna efektiboa bihurtu zen. Latino Amerikan, bide jakobinoa jorratuz, pribilegiotzat hartu zituzten kolonia garaiko indioei aitorturiko eskubideak. Konstituzio berrian jasota ez zegoena ez da onartzen eta kolonia garaiko lege babesak desagerrarazi zituzten (Anaya, 1996, Williams, 1990, Morris 1992, Clavero 1994, Leger 1994). Honekin batera XVII eta XVIII. mendeko kolono liberalek egin zuten bezala errepublikanoek legea erabili zuten herri lurren sistema zein erreserba sisteman zeuden lurrak eskuratzeko (Martínez, 1999:223 parr.), Latino Amerikan hau “*desamortizaciones*” izenarekin izan zen ezagutua (Díaz-Polanco, 1997).

Indigenei mendeetan gauzatu zuten ustiaketa sistema eta ekonomia burutzea ezinezkoa gertatu zitzairen, ohiko lurren gaineko kontrolik ez, ezta esplotazio euren erara egiteko aukerarik ez zutelako, eta, gainera, ohiko lurretan sarrera debekatuta zutelako. Erreserban eta euren moduei lotuta jarraitzea aukeratu zutenek, lege sistema berriek jartzen zizkieten oztopoei aurre egin behar zieten. Euren lurrak izandakoetan ohiko sarrera debekatua egonik, ehiza nahiz arrantza ezin egin, beharrezkoak zituzten landare nahiz belarrak ala basoko fruituak ezin zuten eskuratu aginte berriaren baimena lortu gabe (Martínez, 1999:229 parr.). Ironikoa bada ere kontserbazioaren jomugak eta gaur egun ikurrak diren parke asko indigenen desjabetzearen gainean eraiki ziren (Spence, 1999).

Estatuek lurralde indigenetan zeuden baliabideen ustiaketa modu intentsiboan burutu zen. Naturak garapen industrialistaren inpaktua jaso zuen. Estatuak bultzaturiko ekonomian kanpoko merkatuak eskatzen dituen jakiak eta lehengaiak ekoiztu ziren. Tabakoa, azukrea, bananak, kautxua, urregorria, zilarra edota kobrea Estatu ezberdinen ekonomia bultzatzeko erregaiak bihurtu ziren. Honekin batera lur asko abeltzaintzarako erabili eta behi zein ardiaren ustiaketa masiboak antolatu ziren. Bestalde, ezin dugu ahaztu garraio azpiegituren inpaktua, garai honetan trenbideak, errepideak eta urtegiak zein ibaiak garraio bide bezala erabiltzeko eraikuntza lana erraldoiak egin zirela. Guzti honek berebiziko inpaktua izan zuen ekonomian, gizartean zein ingurumenean. Industrializazioa, bide zein urtegi erraldoien eraikuntza, hirien garapena etab., garapen erakusleak ziren, eta hauen aurkako edozein jarrera Estatu garapenaren aurkakotzat hartu

zen.

Native American lands have been taken for dams, national parks, and rights-of-away for roads. The sale of lands to private lumbering and mineral interest continues. Any attempt by tribes to control the use of their lands have led ranchers and other white interests to argue that self- government by Native Americans is an unreasonable threat to "rational" development (Feagin, 1989:194).

Lur galpena jasan ondoren herri indigenei eskaintzen zitzaien etorkizuna ekonomia berrian nekazari ala behe mailako langilea bezala txertatzea zen. Bestela, euren kulturen itzala zen erreserbako errealitateari lotuta jarraitzea izan zen¹¹⁵. Erreserban behin eta berriz irabazleek galtzaileei inposaturiko errealitate eta irudia errepikatzen zuten indigenen auto estimaren aurkako eraso bortitza eginez. Erreserbak ziega antzeko egiturak bihurtu ziren etorkizunik gabeko populazio batentzat.

El proceso por el que los pueblos indígenas fueron despojados de sus tierras dejó tras de sí poquísimas y debilitadoras alternativas para la supervivencia: el vasallaje (o la servidumbre en sus diversas formas), la segregación en arcas reducidas que se les "reservaban", o la asimilación en el seno de un sector no indígena de la nueva entidad sociopolítica creada sin ninguna aportación indígena. Esta última alternativa implicaba la marginalización social y la discriminación prevalentes en esas sociedades mixtas, problema de escasa o nula solución pese a los meritorios esfuerzos realizados por ciertos sectores no indígenas (Martínez, 1999:219 parr.).

4. BARNE KOLONIALISMOA: DOMESTIKATUEN GAINEKO INPERIO ETNOKRATIKOA

Deskribaturiko egoerak barne kolonialismoaren existentzia erakusten digu¹¹⁶, honetan kolonialismo tradizionalen ez bezala, transplantaturiko Estatua(settler state) delakoa izango dugu aktore nagusia (Nietschamnn, 1993). Errepublikiek kultur askotasuna nagusi zen herrialdeetan, zentro-periferia modeloari jarraituz, arrazismoa nagusi izanik, nazioen arteko harremana bertikala ezarriz, inperioaren antzeko egitura bat inposatu zuten (Stavenhagen, 1990; Clay, 1993). Pino-Robles-ek (1998) komentatu egiten ditu Inuit eta Miskitoen kasuak eta deskribatu kapitulu honetan deskribaturiko prozesua, barneko kolonialismoa sortzen duena.

The workings of colonization for Indigenous peoples did not end with the independence of Nicaragua or Confederation in Canada; the same structures of oppression continue to exist in the relations between non-Indigenous and Indigenous peoples in the new nation-states. For the Miskitu-nani this became what is called internal colonialism; for the Inuit, welfare colonialism (Ibid:23).

Bere aipamenean barneko kolonialismoa Hirugarren Munduko herrien kasuan eta Lehen Mundukoaren artean "welfare colonialism" dagoela diosku. Biak dira txanpon beraren bi aldeak.

Another expression of dependency is welfare colonialism. Whereas the Inuit preserved their self-respect and certain autonomy, the development of a welfare society in the Arctic pushed them even further into the margins of society. Inuit fell under state financial assistance and control which transformed them from self-

¹¹⁵ Ustiaketa nola burutu zen ikusteko bide basoaren ustiaketa kolonialak aztertzen duen Tucker (1983).

¹¹⁶ Kontzeptu hau 70. hamarkadan izandako giza eskubide eta anticolonialismoaren aldeko mugimenduak zirela eta ikuspegia aldatu eta onartu egiten da aniztasun etnikoa duten errepublika berrietan boterea eskuratu duten taldeek izan dezaketela jarrera eta jokaera inperialistak. Kontzeptu hau aurkeztu eta garatu zuten artean aipagarriak dira Pablo González Casanova eta Rodolfo Stavenhagen mexikarrak. Hauek egindako proposamenei jarraitu egin zieten arazo indigena estudiatu duten idazle indigena eta ez indigena askok. Dependentsiaren teoriaren moldaketa bat dela kontsideratu behar dugularik. Kontzeptu honetan zapalkuntza ekonomikoarekin batera zapalkuntza eta esplotazio kultura ere aztertzen dira. Kontzeptu honi heldu diote geroxeago idazle indigena batak zein Ipar Ameriketako indigenen kasua aztertu duten idazle ez indigenak. Paine-k (1977) Ipar Ameriketako indigenei aplikatuz "welfare colonialism" kontzeptua erabili zuen USAko eta Canadako Estatuek egin dutena deskribatzeko. Gartrell-ek (1981) bide honi jarraitu dio beste batzuen artean. Gaur egun, Afrikara ere, zabaldu da bere aplikazioa bide Abaga (2005) y Kabunda (2005).

sufficient hunters into a society which felt inadequate and hopeless. Among policies and aims for assimilation one of the most important is the process of forcing the market economy by providing social services among Indigenous peoples. This precluded the Inuit from maintaining and developing their own mode of production. By and large, the Inuit were also prevented from entering the labour force. In 1977 Robert Paine coined the concept of welfare colonialism, a notion that applies when the centres of power dispense with the Indigenous labour force, when settlers begin encroaching on Aboriginal lands forcing them off their lands either by treaty or repression and when the state assumes wardship of the Indigenous population. Beverley Gartrell agrees on the need to apply a variant term to the condition of internal colonialism of Indigenous peoples in Canada, Australia and New Zealand. She noted that welfare colonialism is “recognizably colonial, yet fundamentally unlike any other colonial situation seen before.” Whether under the burden of internal colonialism or welfare colonialism, social relations in the Americas have been based on European and Eurocentric domination and exploitation. An important consequence of this domination is the resulting discrimination against some social groups and the creation of two levels of cultures which are mutually exclusive (Ibid.37)

Finen, zentroek, zibilizazio eta garapenaren izenean, periferiako herriek osoturiko barne koloniei bere bitarteko ekonomikoan, politiko, kultural, sozial eta espiritualen gaineko kontrola ezarri zieten. (Hicks, 2004). Modu honetan izateko eta egiteko (Pino-Robles, 2002), ezagutzeko (Smith, 1999) eta ukaiteko (Seini, 2003) modu berriak eta indigenentzako arrotzak zirenak inposatuz. Horrela Estatua bere mugen barruan botere hegemonikoa bihurtuko da. Harreman honetan ematekoduna gobernua izango da eta hartzekoduna periferiako herri indigena. Estatuek egitura kolonial honetan ustiaketa bitartekoak (ekonomikoak), hondamendirako bitartekoak (militarrak), aginte bitartekoak (politikoak), sortzeko bitartekoak (kultura) eta komunikazio bitartekoak (garraioak eta hedabideak) gizarte nagusiaren esku daude. Egitura honek oso ondorio kaltegarriak ekarri die herri indigenei.

Internal colonialism arose as a consequence of the collapse of the old colonial system. Aboriginal people were unable to achieve political, social and economic autonomy when the new nation-states obtained their independence or confederation. After achieving independent status, the new states reproduced the relations that existed between the Aboriginal peoples and the metropolis; thus Natives produced for others and, also, became “... totally dependant on the state for their power, a power which could be withdrawn at any moment” (Pino-Robles, 1999:40).

Antzekotasunak antzekotasun, Feagin-ek (1989) gogoratu egiten digu kolonialismo tradizionalaren ezaugarri batzuk izanik, urruntasunaren (ur gazituaren printzipioa delakoa) baldintza betetzen ez duen fenomeno dugula. Are gehiago hurbiltasunean dagoela gakoa egiztatzen du. Xehetasun honekin batera beste ezaugarri nagusia konkistak sorturiko etnokrazian datza: hau da, (Kay, 1989:66), eta XIX. eta XX. mendeko lehen erdian mundu sistema europarraren sasi periferia ziren Estatuek euren periferia esplotatu zuten kapitalismo industrialak beharrezko zituen produktuez hornitzeko¹¹⁷, horrela indigenen inoiz baino efikazagoa zen esplotazio burutu zuten (Wright, 1994). Stavenhagen-ek (1973) herri indigenen kasuan egon badagoela beste ezaugarri bat gogoratzen digu: martxan jarritako modeloek produkzio modu kapitalistaren aurreko eta bere meneko diren pilaketa moduak erabili zituela¹¹⁸. Gogoratu behar dugu NLEk “*peonaje*” edo sasi-esklabutza kasuak ikertzeko hasi zion indigenen kasuak

¹¹⁷ Adibide gisa gogoratu Kalifornian aurkituriko urregorria ala Amazoniako kautxua. Gaurko kasuen artean hortxe dugu Ekuadorreko Amazonian aurkituriko petrolioa eab.

¹¹⁸ Nazioarteko Lan Erakundeak XX mendeko lehen urteetan esklabutza eta egoera feudalak aurkitu zituen hainbat tokietan. Delgado-k (1996) gogoratu egiten digu nola 1994an Bolivian esklabutza egoeran bizi ziren indigena gauranien kasua gogoratzen digu. Horrelako egoerak oraingoz bizirik ditugu munduko bazter askotan

aztertzeari

Kulturen arteko haustura, tentsioa eta mesfidantza gizarte egituraren ezaugarria bihurtu zen honela (Burger 1993 ; Martínez Bringas, 2003) barne kolonialismoa praktikatzen duten errepubliketan. Kolonizatuek ez dute gizarte nagusiaren instituzio nagusietan parte hartuko, arrazismoa nozitu dutelarik (González Casanova, 1969). Gauzak horrela barne koloniak uharteak bihurtu ziren Estaturen baitan, zentroko nagusiek eragindako boterearen objektu pasiboak izanik.

Errepublika liberal-inperialek eraikitako modeloa eta portaera neurri handi batean internazionalizatu egin zen XX. mendeko lehen erdian, indigenekin aritzeko eredu nagusia bihurtu arte. Bide honetatik jo zuten deskolonizazioaren osteko Estatu berri askok XX. mendean, laugarren kapituluan ikusiko dugun bezalaxe.

**IV. KAPITULUA: EKONOMIA
GLOBALAREN GARAIKO
KOLONIALISMOA**

1. MUNDU EKONOMIAREN MEHATXUA

Aurreko kapituluetan Europako botere kolonialek eta Ameriketako errepublika berriek eraikitako egitura zapaltzailea eta herri indigenei aplikaturiko politikak. Hauek ez ziren gehiegi aldatu II Mundu Gerrateak sorturiko nazioarteko erkidego berrian; izan ere, herri indigenen aurkako eraso eta etnozidio ahaleginak biderkatu egin baitziren ondoko urteetan.

1950tik 1990ra munduak deskolonizazioaren bigarren eta hirugarren uhinak ezagutu ditu. Baina gauzak ezer gutxi aldatu ziren indigenentzat. XIX. mendeko errepublikanoek egin zuten bezalaxe XX. Mendeko Hirugarren Munduko deskolonizatuak muga kolonialen gainean eraikitako Estatu onartu zuten oinarritzko egitura bezala. Honekin batera Estatu goiburu zuen nazioarteko kideak bihurtu ziren. Era honetan Estatu esperientzi eta egitura unibertsala bihurtu zen (Del Aranal, 2002). Estatu berriek nazio-estatu industrializatuaren garapenaren ideia helburu bihurtu zuten eta kristau berrien oldartzearekin ekin ere fede berriari. Estatu berriek XIX. mendeko errepublikek egin zuten legez, mendebaldeko Estatuak eraikitako biderei jarraitu 119 zioten¹²⁰.

Ondorioz, Estatu mugen barruan bizi diren indigenei inposatuko zaie garapena eta tokian-tokiko nazio-estatuaren eraikuntza. Nazioarteko merkatuan bere burua txertatzea helburu duen Estatuaren garapenak sustatu du “urruneko lurren konkista” XX. mendeko bigarren erdian (Hyndman, 1987, Nietschmann, 1987). Beraren mesedean XIX mendeko mezuek eta ikonografia jarriko dira martxan (kolonoen epopeia, basa lurren eta azken mugaren ideologia) (Hyndman 1987; Maderuelo 1986; Churchill, 1992; Maybury-Lewis 1992) XX. mendeko komunikabideak eta teknologiak erabiliz.

Indigenous peoples are victims of a modern-day colonialism driven by humanity determination to know all, explore all, exploit all. The insistent impulse to turn the planet into an interlinked whole, with global production marketing and communication has brought a powerful impatient world to the doorstep of indigenous peoples (Cultural Survival, 1993:4).

Estaturen askoren hazkuntza herri indigenen lurretan dauden baliabideak ustiatuz burutu da. Prozesu hau II. Mundu Gerra amaitu zenetik gauzatu da etengabe. Gerra osteko ekonomiek hazkuntzari hasteko zuten lehengaien beharra nabaria zen (zura, mineralak eta, batez ere, energi

119 Estatu-nazio tradizionalaren ereduak kultura bakarraren bidea hautatzea dakar. Horrela, eta are gehiago kultur aniztasunak diren herrietan, gatazka etnikoaren hazia ereiten hasiko da. Estatuaren kultura gehiengoarena bihurtuko da, eta gainerako kultura gutxituak izango. Gutxitua estigmatizatu izango da eta trufa zein erredikuluak jasango ditu, eta bakarrik onartuko dituzte gehiengoaren kulturaren euren kulturaren bateragarriak diren aspektuetan. Gainera, kultura gutxitu baten partaidea izatea “naziotasuna” erdiesteke eta gizarte aurreratuaren onurak eta abantailak jasotzeko oztopoa bihurtuko da. Nazioarteko garapenaren aldeko diskurtsoa neurri handi batean eta 80ko hamarkada arte nazio suntsitzailea izanda da eta herrien berezko tradizioaren aurkakoa, hainbat arlotan.

120 Von Laue-k mundu sistemaren aktore nagusia dela ondorioztatzen du eta egitura unibertsala dela esan “Statehood has universalized Western institutions like government bureaucracy, diplomatic service, and armed forces. It has transformed non-political people into citizens, often against their will, always in an effort to mold their capacities for the global competition of power. It has thereby made into universal requirements all Western accomplishments that contribute to power, including science and technology, literacy and education, industrialism, effective communications, and large-scale organization, as well as, more subtly, the cultural skills that sustain the visible foundation of power. There is no escape from the pressures of the global power competition and from the necessity of keeping up with its strenuous pace” (Von Laue, 1987:335).

hidroelektrikoa etab.). Eskura errazak ziren lehengaien eskaintza agortzeko zegoenez, beharrezkoa egin zen urrunago ziren lurralde eta produktuen esplotazioa burutzea. Zientzia, teknologiaren nahiz garraiobideen garapenak posiblea bihurtu zuen urrun egon eta arriskutsuak ziren lurraldeetan zeuden baliabideen esplotazio komertziala burutzea. Kontsumo behar honek ordura arte periferia sakonean bizi ziren lurralde eta bertan zeuden baliabideak (Burger, 1990:79) herri industrializatuek osotzen duten zentroren begietara ekarri zuen. Ondorioz, Alaska, Amazonia, Siberia ala Australiako barneko lurraldeak miatu egin ziren lehengaien bila. Era honetan, eragile industrialek ordura arte menturazaleen lurraldeak zirenak arakatzen hasi ziren (Burger, 1990). Izan ere, mundu osoko herri indigenen aurkako oldartzea areagotu egin zen 1970tik 2000ra.

El modo de vida tradicional de los Sami de Escandinavia se vio amenazado por importantes proyectos hidroeléctricos y forestales, en lo que constituye un conflicto clásico entre las necesidades aborígenes y las aspiraciones económicas nacionales. El debate de los Yanomamis, cuya lucha en Brasil por la supervivencia cultural ha atraído la atención internacional de manera considerable durante los últimos veinte años, fue provocado por las incursiones en los territorios tradicionales de los mineros de oro, los constructores de autopistas y los madereros. En años recientes, la expansión del desarrollo de los recursos naturales en gran medida, pero no exclusivamente, madereros, en Tailandia y en Malasia ha ocasionado conflictos entre decisiones y prioridades económicas por una parte y pueblos aborígenes aislados desde hace mucho tiempo y ecosistemas únicos por la otra. Indonesia, en una repetición de las situaciones generadas en el siglo XIX, ha extendido sus fronteras agrícolas y de asentamientos a Irian Jaya, introduciendo poblaciones de colonos en las tierras natales de sociedades aborígenes que, durante muchas décadas, habían restringido voluntariamente su contacto con el mundo industrial (Coates, 1996:15-19).

Gertakizun honek ondorio larriak eragin zizkien ordura arte urruneko lurraldeetan, isolaturik egonik, modernotasunaren kontroletik at zeuden herri indigenei. Ondorioak are larriagoak ziren nazioarteko iritzi nagusia honen aldeko eta indigenen kontrakoa zelako. Estatu eliteek eta nazioarteko adituek bat zetozen garapena nazio zibilizatu guztien helburua zela esatera. Nazio berriek Nazio-estatua oinarrizko instituziotzat duen nazioarteko sistema politiko, estrategiko eta ekonomikoaren parte izatea aukeratu zutenean, NBEren laguntza jasotzeko egoeran aurkitu ziren. Gauzak horrela, Estatutuen interesen aldeko zen Nazio Batuen Erakundeak (NBE) mendebaldeko gizarte egiturak, baloreak eta produktuak inoiz baino indartsuago zabalduko ditu mundu mailan (Von Laue 1987; Jacobson 1984).

Testuinguru honetan, 1970ko hamarkadan Hirugarren Munduko Estatuak Nazioarteko Orden Ekonomiko Berria defendatu zuten. Modu honetan Hirugarren Munduko nazioek bizi zuten menekotasun ekonomikoarekin amaitu nahi zuten eta euren ekonomiak garatu¹²¹. Ahalegin honetan, Hirugarren Munduko Estatuak kolonizatzaileak¹²² bihurtuko dira eta multinazionalekin batera, nazioarteko lege eta laguntza markoaz baliatuz, globalismo

¹²¹ Hirugarren Munduko nazioek nazioarteko erkidegoan euren indarra ezartzeko eta aktoretza irabazteko gaitasuna erreferentea bihurtuko da herri indigenentzat. Gainera, arrazismoaren aurkako eta garapenaren aldeko borrokan herri hauetan laguntza eta aldeko jarrera aurkituko dute indigenek.

¹²² Nazio-anitzak ziren Estatuaren Estatuaren oinarria den nazio bakarra eraikitze politikak ezarriko dira eta "herri indigenen" izaera lurralde nazionala puskatzeko mehatxuekin parekatuko da. Homegeneizazio kulturala bultzatzeko saiakera honek Estatu eta herri indigenen arteko gatazkak piztuko zituen munduan zehar. Indonesiako kasua honen adibide dugu baina antzekoa gertatuko da Bangla Desh-en.

harrapakeriaren bultzatzaile petoak¹²³ egingo.

Garapena bultzatzeko NBEk 1960, 1970 eta 1980eko hamarkadak “Garapenaren Hamarkadak” izendatu zituen. Modu honetan Nazio-estatuaren moderno, sendoa eta nazioarteko merkatuan ondo txertatua erdiestea izango zen xedea, honetan laguntzeko mundu mailako jakintza eta baliabideen transferentzia burutuko delarik (Von Laue, 1987). Egile honek prozesu honi deituko dio “the world revolution of Westernization” eta honekin herri indigenei buruzko irudiak eta politikak munduratu egingo dira.

1960-80ko garapen teoriak Rostow-en (1961) modelo eboluzionistan oinarritu ziren, honek herri indigenei buruzko estereotipo tradizionalak integratu egin zituen; hain zuzen, herri indigenak herri primitiboei dagokien kategorian kokatuz. Izan ere, garaiz kanpoko gizarteak bezala itxuratu zituzten, berriz ere, baina orain pobrezia estigma gehituz (Arregi, 2006). “Txiro-behartsuarena” da orain nagusituko den estereotipoa. Adibidez, Mundu Bankuko ikerketek errealitate hau herri indigenen ezaugarri nagusia bihurtuko dute (Deruytère 1997; Psacharopoulos & Patrinos, 1994). Hazkuntza eta modernizazioaren paradigma nagusi honetan pobrezia errua tradizioari leporatu egin zaio, eta berari eusten dioten herriak izango dira euren atzerapenaren errudun nagusiak (Norwine & Gonzalez, 1988).

Rostow-en ildotik jo zuen Hardin-ek (1968) “herri lurren tragedia” hipotesiarekin¹²⁴. Hau sona handikoa bihurtu zen garapen aldeko adituen artean. Hardin-ek berreskuratu zuen aurreko mendeetan herri lurra pribatizatzeko erabilitako argudioak zen eta “lurren hobekuntzak ematen duen jabego eskubidearen bertsio modernoa. Berriz ere, egitura modernoak indigenen gainetik jarriko dira diskurtso honi esker. Izan ere, XIX. mendeko aditu modernista askok uste zuten modernizazio-garapen-paradigma nagusiaren jarraitzaileek herri indigenak garapena erdietsi ahala desagertuko zirela¹²⁵.

Kolonizazio garaikide honi Nietschmann-ek (1986:2) “Economic development by invasion of indigenous nations” deitu dio, hau ekonomia globalizatuaren testuinguruan gertatu

¹²³ Gobernuak sarritan nazioarteko erakunde eta multinazionalen esanetara makurtzen dira euren inbertsioa lortu asmoz. Kolonialismo berri honetan Estatuak nazio garatuen laguntza, euren multinazionalen zein nazioarteko erakundeen partaidetza bilatuko dute (Von Laue, 1987; Jacobson, 1984). Kolonialismo garaikidea inoiz baino eranginkorragoa izango da. Estatu eta nazioarteko aktoreen arteko aliantza da herri indigenen aurkako kolonialismoaren hirugarren uhinarekin protagonista nagusia.

¹²⁴ Bere lanean zera diosku: herri lur sisteman dagoen baliabideen eskuragarritasun libre delako, eta inork gain esplotazioaren kostea ez duelako ordaindu behar, banako bakoitzaren interesa dauden baliabideak gain esplotatzea da. Honelako portaerak baliabide komunaren narriadura eta agortzea ekarriko du. Herri lurra guztienak izanik inorenak ez direlako eta batzuk “debalde” besteen lepotik profitatzen direlako. Hau gertatu ez dadin herri lurra Estatu ala beste aktore arrazional baten esku jartzeko proposatuko du. Bere proposamenari jarraituz gero, lurren jabetzaren eskualdatzea zerbait naturala da, nahi badugu noski gizabanako berekoiek eragindako esplotazioa mugatzea eta honi sorturiko gain esplotazioa eta natur baliabideen narriadura sahistea. Azken finean, guzti hau gertatzen da baliabideen gaineko kontrolrik ez dagoelako eta hauen eskuragarritasuna libre delako. Hardin-en ikuspuntu honek erabateko arrakasta izan zuen gobernu, garapen aditu eta akademikoaren artean. Lur transferentzia erraldoiaren alde egindako defentsa honek eragin handia izan zuen euren bizimodua mantentzeko hauekiko mendetasuna zuten herri indigena askorentzat. XIX eta XX mendeetan gertaturikoak zilegi egin eta Europar esperientzia maila unibertsalera goratu zituen Hardin-ek. Lur galtze honek beste irtenbiderik ez dituzten hainbat herri indigena eta nekazari narriadura ekologikoaren biktima eta eragile izatera kondenatu ditu (Parajuli, 1990; Ghai, 1992).

¹²⁵ Modernisten ikuspegi hau oraindik bizirik dirau hainbat tokietan. “Neoliberal anthropologist and politicians think that the Indian problem would disappear by way of community development, regional planning, education, technological innovation and paternalistic acculturation of which the state is in charge” (Stavenhagen, 1992:430).

delarik. Estatuak nahiz nazioarteko aktoreak¹²⁶, bakoitza bere arrazoï propioekin, bat etorriko dira Estatuén natur baliabideén ustiaketa intentsiboa behar duela defendatzerakoan. Hots, natur baliabideén ustiaketa intentsiborako laguntzak Munduko Bankuak ala Nazioarteko Moneta Fondoak egindako negoziazioén eta proiektuén parte inportantea izango dira (Burger, 1990).

Nazioarteko erakundeek eta Estatuék sustaturiko indigenen lurraldeen konkista garaikideak, batez ere Hirugarren Munduan, herri indigenen aurka bortxa, barne-kolonialismoa eta derrigorrezko asimilazioa sustatu ditu (Churchill 1992; Swerdlow 1999; Schechla 1993). Konkista deskribatzeko Amazoniako¹²⁷ kasua erabiliko dugu irakurleari ezagunagoa egingo zaiolakoan¹²⁸. Hala ere, antzeko prozesuak ohian tropikalak dauden munduko zonalde guztietan gertatzen ari dira eta garapén proiektuén parte dira¹²⁹.

Estatuék nazioarteko garapén proiektu erraldoiak erabiliz baso tropikalen konkista, urruneko lurraldeen kolonizazioa nola burutzen duten ikus daiteke, eta herri indigenen eskubideak eta existentzia bera nola mehatxatu den antzemateko¹³⁰ balioko digu. Estatuék eta beste aktore batzuek sustaturiko erasoén aurka herri indigenen erresistentzia modu ezberdinetan burutu da.

Direct threats to land tenure or incursions by outsiders have always been met by a show of force, and many times have led to violent confrontations during which Indians usually suffer the highest casualties. On the rare occasions when Indians have formed armed organizations, they have almost always done so to defend themselves against violent attempts to expel them from ancestral lands, or to protest government attempts to dissolve Indian land rights protected by law (Van Cott, 1996:2).

2. AMAZONIAREN KONKISTA

Aurreko kapituluan deskribatu egin dugu errepublika liberalek egindako konkistak: mendebaldeko azken muga (*last frontier*) AEBren kasuan, ala Argentina ala Txilerentzat “basarmortukoak”, kasu guztietan indigenen lurrak. Konkista nazio-eraikuntzaren mugarría markatu zuén, eta indigenei ez zitzaieén gelditu epopeia nazional honetan gáinditu beharreko oztopoak izatea besterik. Antzekoa aurkituko dugu Amazonian XX. Mendean. Bere kasuak beste askorenaren antza du mundu mailan. Lurralde erraldoi hau Estatu ezberdinen artean banatuta dago eta 60ko hamarkadatik hona bere konkista garapénaren sinonimoa bihurtu da batzuentzat,

¹²⁶ Multinazionalen garrantzia deskribatzen da pasarte honetan: “Worldwide there are 50 large transnational corporations each with annual turnovers higher than those of one-third of the world’s nation states. Their capacity to invest with hard currency, to bring in advanced technology and to create jobs lends them formidable political influence. Poor countries often offer them tax concession and subsidies and allow them to export both profit and resources.....Equally influential in development policy are the multilateral development banks (MDBs)... This promotes a Western model of development since both private and public funds are concentrated in the rich north.....Such developments projects are often large-scale dependent on high technology and sometimes damaging to the fragile habitats in which they take place. Proclaimed as being of national interest, very often it is the First and Third World that are enriched, while the poor receive few of the benefits (Burger, 1990:80).

¹²⁷ Bide Bunker (1987), Allegarti & Schwartzman (1987), Swezey & Faber (1988), Mendes (1989), Schwartman & Allegretti (1989), Gradwohl & Greenberg (1988).

¹²⁸ Europan Amazoniako ustiaketaren aldeko eta kontrakoén arteko borroak ezagunak ditugu. Amazonia desarrollismoaren aurkako ikurra dugulako eta bera munduko birikía dela zabalduko ideia ekologista buruan dugulako.

¹²⁹ Honelako prozesuén berri izateko bide Mundo Indigena IWGIA-k argitaratzen duén urtekaria. Bertan munduan herri indigenen lurretan martxan ari diren kolonizazio-garapén bideén aurkitzen diren tokian tokio kasu zehatzen berri emango zaigu. Adibide bezala, urruneko ala zibilizatu gabeko lurren kolonizazioén ari diren artean aurren hauek ditugu: Nikaragua, Brasil, Kolonbia, Argentina, Chile, Burma, Kanputxea, beste batzuen artean.

¹³⁰ Bide Anderson (1989), Bunker, (1987), Clay (1988) Davis, (1977), Gradwohl & Greenberg (1988) Bodley (1982), McCuen, (1993)

beste askorentzat ordea, desarrollismoaren ikurra. Brasil natur baliabideetan aberatsa izanik garapen duen Estatuaren mitoa gorpuztu du. Gainera, aldaketak klimatikoaren beldur garen garai honetan bertan dagoen oihana estrategikoa da munduko klima-oreka mantentzeko. Amazoniak hain zuzen azken mugaren kondaira mitiko-tragikoa erakusten digu eta bertan kolonialismo historiko eta berriaren trazak aurkitu egiten direlako aukeratu dugu kasu interesgarri gisa¹³¹. Gainera Amazonian gertaturikoa, munduko beste tokietan, ohian tropikalen konkista prozesuetan gertaturikoaren berri emango digu¹³².

Azken lau hamarkadetan Amazonian basoko milaka akreak birrindu egin dituzte, eta urtegi erraldoiak, mehatsak, errepideak, petrolio bilatzeko zuloak, plantazioak etab. zabaldu egin dira nonahi (Clay 1998; Berraondo 2006). Honekin milaka indigenen birkokatzea gertatu da, Amazonia osotzen duten Estatuaren errealitatean asimilatzeke ahaleginean.

Amazonian aplikaturiko garapen programek lurraldearen errealitate demografikoa, ekonomikoa, soziala eta kulturala errotik aldatu egin dute. Aktibitate ekonomiko berriak sortu dira. Hauek deituta kolono populazioak bertaratu dira hiriak eta herri moderno berriak oihanean barrena eraikiz. Baina hasitako kolonizazio honek arrazoi ekonomikoak eta sozialak ez ezik politikoak ere erabiliko ditu. Amazoniako lurraldeari, “azken muga” (*last frontier*) tratamendua aplikatu zitzaion, hau da, zibilizaziorik gabeko basa lurra eta bere kolonizazioa nazio eraikuntzaren parte garrantzitsu bat (López, 2006) kontsideratu zen¹³³. Hau horrela da Amazoniako konkista etekin ekonomiko ugari eskaintzeaz gain, herri xeheak zituen arazo ekonomiko eta sozialei aterabide berri bat eskaini zielako, Amazoniako konkistak pobre ziren nekazariei lurra eskaintzen zien aberatsen lurra ukitu gabe¹³⁴.

Kolonizatzaileen¹³⁵ begietan lur asko eta jaberik gabekoa zegoen. Bertara joan eta hartu. Hau da enpresa gizon eta pobre askoren buruan zegoena. Gobernuak bere bitarteko guztiak erabili izan ditu kolonizazio prozesua bultzatzeko, enpresa gizonak erakartzeko eta Amazonia kolonoen

¹³¹ Gonzalez (1995) bere tesian Aguarunek jasandakoa aztertu egiten du eta herri honen esperientziaren bitartez munduko herri indigena askok jasan dutena eta gaur egun nozitzen ari direnaz jabetzeko aukera eskaintzen digu.

¹³² Asian emandako kasuak ondo deskribatzen ditu Hyndmanek bibliografian publikaturiko erreferentzietan. Beste kasuez jabetzeko bide ere Sponsel (2000), McCuen (1993).

¹³³ Topikoa bada ere beti esan da Brasil, Venezuela, Kolonia eta antzekoak natur baliabideetan aberats oso izanik pobrezian bizi diren herriak direla. Ikuspegi honetan inplizituki duguna natur baliabideak ondo ustiatzeko eta kudeatzeko gaitasunaren eza dago. Basa lurra izaten jarraitzen dute ziklo ekonomikoan ez direlako txertatu. Nolabait, Amazoniak zituen altxorrik diru bihurtuko zuen esku eta ekimenaren zain zegoen eta kanpoko enpresak eta bertako eliteen lana izango da betebeharrak hain ondo burutzea.

¹³⁴ Chase-k eztabada soziala sahiesteko eta hazkuntza ekonomikoa sustatzeko lurradetat kontsideratzen duela Estatuak azpimarkatzen du: “La mayoría de los estados de América Latina que colindan en la Cuenca Amazónica empezaron a enfocar sus esfuerzos de desarrollo sobre esta vasta y no explotada selva a comienzos de 1960, buscaban resolver potencialmente explosivos problemas sociales y económicos que se fueron acumulando en sus regiones costeras. La elaboración de programas para la construcción masiva de caminos fue mano a mano con la colonización planeada y espontánea, con poblaciones agroindustriales y con esquemas para la extracción de minerales y recursos forestales (1996:104).

¹³⁵ Inbasioaren aktoreen artean nazio Estatuak beste lurraldeetatik etorritako txiroak, jabeago handiko baserriak eta nazioarteko agro-industriak, droga trafikatzailerak, militarrek eta gerrillariak aurkituko ditugu.

begietan toki erakargarri a egiteko¹³⁶.

1966an Brasileko Presidentea zen Castelo Blanco Amazoniako zonalde inportanteetan garapen guneen sorrera iragarri zuen. Hura lortzeko opor fiskalak, lur emateak, diru laguntzak eta kontratu komertzialak jarri zituen kolonizatzaileen esku. Honekin batera presidenteak Brasil-go beste lurraldeetatik etorritako emigrazioa bultzatzeko neurriak hartu zituen. Herri berriak eraikitzeko asmoak iragarriko dira. Ekonomia eta populazioaren hazkuntza errepide berriak eraikiz zein nekazaritza eta abeltzaintza garatuz lortuko zela agindu zen. Baita ere, planak Amazonaseko lurraldean mineralen eta euren ur baliabideen nahiz zur baliabideen potentziala modu egokian esplotatzeko garatuko dira (Hecht & Codeburn, 1989).

Politikoez bertako baliabideen esplotazioan oinarrituriko hazkuntza ekonomikoa agintzen zuten. Amazoniako konkista kostaldeko txiroentzat ere konponbide ona suposatzen zuen, hirietan bizi zuten eguneroko miseriari agur esan, eta bizitza berri eta hobego baten ametsari egiteko aukera irudikatzen zuelako (Lopez, 1995). Amazoniako konkistaren inguruan gizarte nagusiak zentsu zabalean zeukan kontzientzia baten isla aurkituko dugu: Amazonia “*Terra Nullius*” eta populazioz gainezka zeuden hirietako biztanleentzako hura “aginduriko lurraldea” zen¹³⁷ (Calvo, 1990).

Azken mugaren ideia araber, Amazonia konkistatu eta makurtu beharra zegoen eta enpresa hau gauzatzeko beharrezkoa zen Estatu, multinazional eta nazioarteko laguntza ekonomikoa eta teknologikoa. Ekimen koordinatu hauen bidez basa lurra zena zibilizazioa bihurtuko da. Amazoniako paisaian errepideak, herriak, elizak, errantxoak eta urtegiak nagusitzen direnean burutuko da lurraldearen garapena. Ikuspegi honetan interes ekonomikoak bat egiten du politikoarekin kolonoaren irudi erromantikoa bultzatzerakoan. Kolono brasildarra, “bandeirante” delakoa, gizarte modernoaren eraikitzailea eta bitarteko nagusia bihurtuko da Amazoniako konkistari esker.

...desde los tiempos de la colonia, vienen configurando la idea de que el desarrollo económico se basa en la explotación de cada vez mayor de los recursos de las regiones inexploradas....ese interés por la exploración de regiones del interior, configuran las avanzadas de la civilización frente a las comunidades indígenas. La acción de los bandeirantes, movidos por el afán de enriquecimiento rápido, expresa, en cierta manera la ideología de y los intereses de un muy importante sector de la sociedad. Estos pioneros, que, partiendo de Sao Paulo, se adentraban hacia la meseta y la floresta, pretendían regresar de nuevo a su lugar de origen, cuando hubieran conseguido sus propósitos, a veces a costa de masacrar a grupos enteros de indígenas (Maderuelo, 1986:193).

¹³⁶ Maderuelo-ren aipu honetan ikusi daiteke errealitate hori: “Desde hace más de dos siglos, los dirigentes brasileños vienen soñando con la apertura de los grandes espacios del interior del país, lo que les permitiría un notable incremento de la explotación económica de sus recursos, además de una mejor distribución de la población que se concentra en las regiones del litoral. En función de esta idea, la expansión económica por regiones como la Amazonía ha supuesto la cesión de grandes extensiones de tierra a algunas compañías extranjeras. Es evidente que existen enormes intereses en explotar dicha zona y la mayoría de los brasileños ven en ello una posible realización del viejo sueño de la integración y el desarrollo. Para ello el gobierno se ha visto en la necesidad de crear carreteras que unan la región amazónica con los puertos del sur y del este” (1986:199).

¹³⁷ Gobernutik bultzaturiko kolonizazioak eta emigrazio erraldoiak, esate baterako Indonesiako Irian Jayako konkistan ere aurkitu daitezke.

Nazio eraikuntza eta garapena bultzatzeko plan hauetan herri indigenak oztopo bezala agertuko dira. Amazonaseko indigenak “segurtasun arazoa” legez tratatzera heldu ziren (Hyndman, 1994). Bide militarra aukeratu zen lurralde kontrola segurtatzeko, mugak dauden inguruetan batik bat, eta kontrola ziurtatu ondoren herri indigenen asimilazioa burutu da.

El deseo indio de no abandonar sus modos de vida estigmatizado, por ello, como atrasado e ignorante, como divisivo, y, finalmente, como subversivo. De modo irónico, los actuales esfuerzos del gobierno brasileño para "emancipar" a los indios, con un coste cruel para éstos, son defendidos como la culminación lógica de la tradicional tolerancia e incorporación brasileña a otras culturas. En Brasil como en otras zonas de las Américas, raramente consideraba posible o deseable que indios y no indios pudiesen vivir juntos en la misma nación mientras mantenían diferentes modos de vida....El Brasil actual.. es una sociedad preocupada por el desarrollo y dominada en sus zonas rurales por empresarios, negocios agrícolas e intereses mineros. Ellos quieren que los indios abandonen sus tierras y sus culturas y se sumen a los pobres rurales. Pero éstos también son temibles como potencialmente subversivos. Las élites dominantes, por consiguiente, tienen una visión de Brasil en la que no hay lugar alguno para los indios (Maybury-Lewis, 1992:119).

3. KOLONIALISMO MOTA BERRIAK

Aurreko kapituluan XIX. mendeko errepublikek buruturiko baliabideen esplotakuntza deskribatu dugu. Antzeko eskemak baliabideen ustiaketa intentsiboa burutzen dutenak aplikatu dira Amazonian, eta munduko beste ohian tropikaletan. Hori bai ustiaketa askoz efektiboagoa izango da XX. zientzia eta teknologiak lagunduta. XX. mendean mundu ekonomiaren hazkuntzak eragindako kaltea mundu mailakoa ere bihurtu da. Kolonizazioaz ari garenean berritasuna 1990eko hamarkadan Garapen Sostengarriaren (GS) agerpenarekin helduko zaigu. Honek nazioarteko diskurtsoan lorturiko sonak, ohiko ustiapen moduak aldatzera bultzatu ditu hein handi batean. Ondorioz, paradigma berri honi loturiko kolonialismo modu berriak 138 agertu dira.

3.1 KONTSERBAZIOA KONFISKAZIOREN BITARTEZ

1992tik aurrera hainbat kasutan, herri indigenen aurkako kolonialismoa Garapen Iraunkorraren izenean garatuko da (Adams eta alia, 2003). Betiko mamua jantzi berriekin. Estatuek diskurtso berdea erabili dute lurralde indigenen gaineko kontrola ziurtatzeko (Nietschmann, 1990). Are gehiago, sarritan kanporaketa eta ondorengo lur okupazioa aldarrikatu da ingurumenaren babesa burutzeko (Andrade, 2001). Honelako proiektuak Estatuko erakundeen bidez, kanpoko nahiz barneko enpresak erabiliz¹³⁹ gauzatuko dira (Ramachandra, 1997). Ondorioz, herri indigenek ohiko lurren gaineko kontrola galdu egin dute. Askotan indigenak ezin dira euren lurraldeetan sartu eta ezin dituzte biziraupenerako beharrezko zituzten baliabideak betiko moduan erabili (Rodriguez, 2000). Gainera, arrotzek euren parajeetan kontrola nola

¹³⁸ Garai honetan nolabait industrian nahiz merkataritzan erabiliko lehengaiak bizigabeak izan dira baina egoera hau zeharo aldatu egingo da XX. mendearen azken zatian garaturiko bioteknologiaren industriak direla eta. Industri berri honek bizidunak erabiliko ditu lehengaitzat egile batzuk "bizitzaren industria"ren beharrak asetzeko. Honek kolonialismo mota berri bat sortu du.

¹³⁹ Hemen Hardin-en teoriaren aplikazioa eta bertan dagoen etnozentrismoa ikus daitezke. Etnozentrismo honen arabera kultura batzuk ez dira gai izango kontserbazio ekologikoa modu egokian burutzeko, eta kontserbazioa mendebaldeko jakintza, teknologia eta kudeaketa moduak erabiliz burutuko da. Gobernuak ikuspegi hau erabiliz kanpoko GKE ekologistekin bat egiten dute, euren laguntza eta babesa gauzak ondo eta egoki egin direla bermatzeko. Kasu hauetan dirua ez ezik irudiaren hobetzea dakar nazioarteko GKE bat erabiltzea natur babeslekuak kudeaketa burutzeko.

ezartzen duten dakusate. Eginkizun hauek kasu batzuetan nazioarteko GKE eta talde ekologisten laguntzarekin egin dira¹⁴⁰.

Kontserbazioa bultzatzeko parkeen eraikuntzan ikusi daiteke aliantza Estatu eta GKE batzuen artean. Andrade-k (2001) kontserbazioa konkisfazioren bitartez (conservation through confiscation) deitu dio okupazio mota honi. Irakurritakoa ez da harrizkoa kontuan hartzen badugu AEBko Yellowstone parkea indigenen lurraldeak okupatuz sortu zela eta neurri handi batean indigenen aurka (Spence, 1999). Gainera Igoek (2005:6) 1872 – 1961 bitartean parkeen sorrera kolonialismoarekin lotzen du zuzenean. Prozesu historiko honen bertsio garaikide honetan mendeetan zehar euren ingurumena mantentzeko gai izan diren indigenei kanpotik etorritako ikuspegiak eta moduak inposatuko zaizkie (Rodriguez, 2000). Ezaguna zaigun eredu kolonialari jarraituz, berriz ere, arrotzek erabaki egingo dute indigena nor den (Dumoulin, 2005), zer den baliozkoa bere kulturari, zer mantendu, zer sustatu behar den eta zer ez, horrela etnofagia burutuz, (Díaz-Polanco, 2005) eta azkenik nolakoa izan behar duen euren lurraldeen gainean eraikitako parkeetan jarraitu ahal izateko beharrezko den “portaera ekologiko” berria¹⁴¹ (Adams & Mulligan 2003; Hames 2007; Ramachandra 1997). Gainera parkeetako zonalde askotan giza presentzia mugatua ala erabat debekatuta egongo da (Igoe, 2005). Egile honek gotorlekuaren antzeko kontserbazioa (*fortress conservation*) deitzen dio honi. Beraz, tokian tokiko herriek bizirauteko egiten zituzten ohiko ekintza batzuk mugatu ala bertan behera utzi beharko dituzte, eta bakarrik erabili zonaldeak aurreikusitako moduetan¹⁴².

The old, strictly punitive protectionism has now being replaced by an equally dangerous ‘people-oriented conservationism... By the same token, their cultures redefined by experts in a way that appears ecologically sound and satisfies policy makers, project planners and funding agencies (Novellino, 1999:44).

Zonaldeen banaketa sistemak ez du kontuan hartuko ekosistema hauen menpeko diren herrien bizitza ekonomiko, politiko eta kulturalean izan dezakeen eragina¹⁴³. Berriz ere, arrotzek

140 Palawan-en IUCN-ek egindako proiektu batean gertatutako deskribatzen da. “In Palawan, as a result, imported agricultural techniques and western criteria for land management have been regarded as the auspicious standards to which indigenous groups should conform. Thus the joint venture of development and conservationism has become a most sophisticated strategy to avoid listening to people’s concrete needs and aspirations (Novellino, 1999:57). IUCN, WWF-rekin batera, ekologi mailan, nazio arteko eremuan dauden erakunde handien artean da eta bere lana ondo errespetatua, NBEan aholkulari egoera duelarik

141 1993an idatzitako tesian salatu egiten nuen idealizazio hau. Ingurugiroa mantentzeko euren trebezia oinarrituriko ikuspegi exotiko-idealista zabaldu du mendebaldeko ekologista askoren artean. Euren ekologiak agintzen duen “homo ekologikus” horren tokian indigena jarri dute. Ikuspegi honek, berriz ere, ikuspegi modernoaren edota postmodernoaren inposaketa dakar. Indigenak, arrotzek definituriko ideologia eta beharretara makurtu behar dira. Gainera, ikuspegi hau zeharo funtzionalista izanik herri indigena bakoitzari, berezko kultura izateagatik, sor zaion errespetua ukatu egiten da. Ekologisten agenda laguntzen duten “basati onak” bakarrik onartuko dira. Ikuspegi honek, gainera, min asko egiten dio gaur egungo mugimendu pan-indigenari aspaldiko moduak eta erdi isolatuta bizi diren herriak “benetako indioak direla esaterakoan”. Askotan gertatu den bezalaxe ukatu egiten zaie euren nortasuna eta egunerokotasuna euren terminoetan definitzeko gaitasuna.

142 Ondoko testuak ondo erakusten du aipaturikoa: “What is striking about the NIPAS land classification is that the harmonious interaction of man and land’ is almost viewed as a precondition for residing in areas of national significance. One may gain the impression that local communities are allowed to move within a protected area on the condition that they obtain from the forest what is strictly essential to satisfy basic subsistence needs. Undoubtedly this expectation matches conservationists perception of the ideal interaction between man and nature” (Novellino, 1999:47).

143 Gupta (1999) ondo deskribatu digu herri indigena eta ekologisten arteko borroka Artikoko baleen ehizaren inguruko tirabirak ikertu dituen. Artikulu honetan antzeko kasuei buruzko bibliografia zuzenbidearekin lotuta batik bat eskaintzen da. Gupta kritikoa agertzen da jarrera ekozentristekin eta hauen atzean aurkitzen diren GKE zein hainbat zientifikoekin. Berak komunitate epistemologikoen paperaz jabetuz defendatu egiten du eztabaida honetan indigenen ahotsa txertatzeko aukerak sortzea monokordea den pentsamendurekin aipatzeko. Baleen kasua interesgarria deritzogu berak aipatzen duen lez euskaldunak hasi ginelako XI mendean bale arrantzan.

lurraldea banatzeko irizpideak ezarriz eta zonalde bakoitzeko erabilera inposatuz, zonalde bakoitzari dagokion erabilera erabakiko dute. Nazioarteko garapen agentziak eta gobernuak arin apuntatu dira mota honetako estrategiak bultzatzen (IWGIA eta alia, 1998). Gainera, zonaldeak erabiltzeko moduak estereotipoen meneko dira askotan. Sri Lankako ondoko kasuak erakutsi egiten digu herri indigenei buruz arrotzek dituzten ohiko estereotipoak zein okerrak diren:

Algunos funcionarios gubernamentales piensan que los nativos deben llevar sólo una tela que les cubra el torso, y vivir en un simple refugio. La cacería sólo debe realizarse con arcos y flechas, mientras que las latas de salmón y las bicicletas son incompatibles con la tradicional vida vedda. Otros están de acuerdo en que los wanniyala-aetto puedan usar un sarong, andar en bicicleta, y usar fusiles para cazar, pero sólo para su propio consumo. No puede haber ninguna venta de productos del bosque a los forasteros (IWGIA, 2000, 331-332).

Babes zonaldeen diseinuan herri indigenen ikuspegia eta erabilerak ukatzeaz gain, naturarekin izandako harremana balioztatzeko orduan mendebaldeko zientzia eta teknologien erabilera ezinbestekoa izango da (Seini, 2003). Bertan bizi diren herri indigenei euren lurraldeetan aurkitzen den aniztasuna eta ekosistemak gestionatzeko erak kanpotarrek erabiltzen dituzten tresnak eta kategoriak erabiliz deskribatzea eta birdefinitzea eskatuko zaie¹⁴⁴. Honela mendebaldeko gizonak errekonozitu dezakeen modu batean¹⁴⁵ egin behar dute euren jakinduriaren aurkezpena. Era honetan modernizazioaren moduak inposatu eta gain balioztatu egiten dira. Ondorioz, herri indigenen jakinduria, ikuspegiak eta ohiko moduak bigarren maila batean mantenduko dira, hauexek ez dute modu zientifikoaren mailako balorerik izango “ustiaketa ekologiko egokia” burutu dutela frogatu arte (Warren, 1994). Zientifikoek hizkuntza ala hauen onespena lortzen duten teknika eta ezagupenak soilik aterako dira “sineskeri” ala efizientziarik gabeko tekniken multzotik (Ford, 2000). Egoera honek berebiziko arazoak planteatzen dizkio “ohiko ezagupen sistemari” gazteak sistema zientifikoaren aldeko apustua egin eta ohikoari uko egingo diotelako gehienetan (Gupta, 2000). Gauzak horrela, euren lurren gaineko jabego eskakizuna burutzeko orduan, euren ekosistemaren balioa frogatzeko, edota aspaldi erabilitako sendagaien egokitasuna frogatzeko, derrigorrezkoa izango dute “sistema zientifikoan” jantzita dauden teknikoek laguntza izatea, egoera honek mendetasun mota berri bat ezartzen badu ere¹⁴⁶. Horrela indigenak etnofagia bidean jartzen direlarik.

Paradoxically, the indigenous peoples are asked to utilize western analytical tools to interpret, document, and explain their own culture. Therefore, if local communities want to enforce their land claims, they need to request the assistance of foreign experts, NGO representatives and government officials. Again, it is the authority of western scientific methods to provide the criteria for what constitute legitimate ancestral rights over land. On the other hand, local criteria of validation of land claims are not fully taken into account (Novellino, 1999:51).

¹⁴⁴ BBKren 8J artikulua munduko biodibertsitatea mantentzeko herri indigenen ohiko jakinduriaren garrantzia aipatzen du eta asko dira biodibertsitatea mantentzeko ahaleginetan herri indigenen jakinduria txertatzen saiatuko direnak. Saiakera hau gainera partaidetzarako modelo bat izan daiteke bi tradizioen arteko elkarketa dakarrelako. Baina bi jakinduri sistemen arteko harremana zelan burutzen den jakitea inportantea da. Kasu honetan argi dago arrotzen sistema zientifikoak gaintik dagoela eta ez dagoela ezagupenak partitzeo eta elkartrukatzeko berdin arteko komunikazioak behar duen oinarria, ezta aldeko jarrera minimo bat ere.

¹⁴⁵ Egoera honek ohiko kulturarentzat eta bere usadioentzat hil ala biziko egoera suposatzen du. Baliozkoa dena arrotzek ez badute baieztatzen euren errespetua ziurtatuz desagerrarazi daitekeelako.

¹⁴⁶ Mendetasuna zientzia arloan ez ezik giza zientzietan nahiz zuzenbide mailan ikaragarria izango da, baita lurraldeen mugak eta antzekoak egiteko orduan.

3.2 TURISMOA: EXOTISMOAREN KOLONIZAZIOA

Munduko kulturak elkarri lotuak diren garaian bizi gara. Kultura, lurraldeak, moda, artisautza eta sinismenak produktu bihurtu dituen gaur egungo mundu ekonomian turismoak garrantzi handia du (Honey, 1998). Turismoak bere produktu modu erakargarriago batean saltzeko maiz erabili ditu herri indigenak. Izan ere, indigenak exotismo eta primitibismoaren erakargarritasuna gehitzen dio eskaintza turistikoari (Rossel, 1988). Azken urteetan natura eta bertan bizi diren kulturekin errespetuzko harremana bultzatu asmoz¹⁴⁷, ekoturismo ala etnoturismo deituriko pakete bereziak eta garestiak eskaintzen dira (Young, 1995). Etnoturismoa ala turismo ekologikoaren¹⁴⁸ gorakadak gaur egungo gizaki globalizatuok munduko bazter guztiak ezagutzeko eta arakatzeko beharrek du zer ikusirik handia¹⁴⁹. Gainera, gizarte zein banako mailan urruneko kulturei buruzko informazioa kontsumitzeko grina sortu da. Exotismo gose hau ez da gaurkoa, Levi-Strauss-ek (1988) ondo gogoratzen digun bezalaxe, baina orain edozeinen aukera bihurtu da. Gaur egun menturazalea izatea guztion esku dago orain, eta asko bihurtu dira Marco Polo berriak.

Hoy, ser explorador es un oficio; oficio que no sólo consiste, como podría creerse, en descubrir, al término de años de estudio, hechos que permanecieron desconocidos, sino en recorrer un elevado número de kilómetros y acumular proyecciones, fijas o animadas y si es posible en colores, gracias a lo cual se colmará una sala durante varios días, con una multitud de oyentes para quienes vulgaridades y trivialidades aparecerán milagrosamente transmutadas en revelaciones, por la única razón de que en vez de plagiarlas en su propio medio, el autor las santificó mediante un recorrido de 20.000 kilómetros...¿Diremos entonces que nuestros modernos Marco Polo traen de esas mismas tierras, ahora en forma de fotografías, libros y relatos, las especias morales que nuestra sociedad sintiéndose naufragar en el hastío necesita con mayor apremio? (Levi-Strauss, 1988:42).

3.2.1 Marco Polo Garaikideak eta Turismo-Garapen Estrategia

Turismoaren hazkundera 1970ko hamarkadaren azken zatian eta 1980ko lehen urteetan gertatu da (Chavez, 1999). Garapen estrategien bila zeuden hainbat gobernuek turismo bultzatzeari, ekin zioten lan sorkuntzarako ona eta kanpoko dibisak eskuratzeko¹⁵⁰ hobeagoa zela ikusirik¹⁵¹. Gainera, 1992tik aurrera¹⁵² Munduko Bankuak (MB) eta Nazioarteko Moneta

¹⁴⁷ Irakurri 7.E/CN.17/1999/L.6 turismo eta garapen sostengarriarekin loturiko gaiak nazioarteko garapen proiektuetan nola uztartzen diren ikusteko. Eta kultur aniztasuna zein turismoaren gaineko ikuspegiak eta planak nolakoak diren jakiteko bide UNEP eta CDBrekin bibliografian agertzen diren WEB hestekak. Bertan dokumentu interesgarriak aurkitu daitezke gai honekin lotuak. Turismoaren alde baikorrak zein ezkorrak komentatzen dira bertan. Aipaturiko dokumentu hauek turismoa, GI eta kultura uztartzeko nazioarteko erakundeek erabiltzen dituzten erizpideak agertzen dituzte.

¹⁴⁸Turismo etnikoaren inguruan emandako esperientzi positiboen eta alde baikorren nahiz ezkorren testigantza eskuratzeko bide Young (1995) Jonhston (1998), Carling (1998), Trask, (1998), Novellino (1999).

¹⁴⁹ Honen adibide bat hemen Euskadin dugu: Euskadi Irratian Roge Blasco-k zuzentzen duen "La Casa de la Palabra" programak kanpoko kulturei buruzko informazioa bidaiaren ikuspegi eta esperientziatik eskaintzen da. Blasco-k beste programa bat zuzentzen igandero "Levando Anclas" bigarren honetan bidaiarien esperientziak eta abenturak dira kulturak baino inportanteago. Programa hauek hamar urte baino gehiago iraua dute irratian eta edozein euskaldunak munduko kulturei buruzko berriak lortu ditzake, azkenean modu honetan mundua gure etxetxoan sartzen zaigulako.

¹⁵⁰ Hortxe dugu Kubako kasua. Bertako gobernua apustu gogorra egin du turismoan oinarritutako estrategia baten alde, eta hau dute kanpoko dibisak lortzeko modu garrantzitsuenetariko bat.

¹⁵¹ Gobernuek turista eta turismoan ari diren multinazionalak erakartzeko asmoz errepideak eta hotelak zein baliabide turistikoaren promoziorako nazioarteko programetan sartu dira, hots, GATS (General Agreement on Trade and Services).

¹⁵² Errioko Jarraipenerako Komisioak 2002 nazioarteko eko-turismoaren urtea izendatu du. Aurten Turismo eta Garapen Sostengarriari buruzko lan programa bat.

Fondoak¹⁵³ (NMF) turismo sostengarria bultzatzeko jarritako dirua eskuratzeko modua ikusi zuten¹⁵⁴. Biodibertsitatea mantentzeko eta garapena bultzatzeko estrategietan toki berezia eskaini zaio turismo ekologikoari (AECI, 1997).

3.2.1.1 Indigena produktu

Multinazionalak hirugarren munduko herriek eskaintzen duten kultur exotikoez, natur aberastasunaz, lan-eskuaren kostu merkeaz eta bizimoduaren kostu baxuaz profitatzen dira (Carling, 1998).

Normalean ekoturismoaz ari garenean gailentzen den irudia eta ikuspegia Estatuak nahiz multinazionalak bultzatzen dutena izango da. Ekoturismo proiektuak garatzen dituztenean, kontsumitzailearen ikuspegitik heltzen diote gaiari, eta ez indigenen ikuspegitik. Ondorioz, ez zaio behar bezalako garrantzirik eman turismo mota honek sorturiko mota guztietako kalteei.

Indigenous cultures are increasingly commoditized in the marketing of all types of tourism; indigenous peoples have lost access to the land and resources essential to their food security, their self-sufficiency, and their cultural identities. The result in indigenous communities is usually poverty and environmental degradation. The traditional resource rights and intellectual property rights of indigenous peoples are violated daily by tourism and tourism consumers (Jonhston, 1998:48).

Euren lurra turismoak okupatu ondoren bertako herriei, babesturiko zonaldeetan gertatu den bezalaxe, sartzea debekatuko zaie. Trask-ek (1998) bertako herritar baten testigantza eskaintzen du¹⁵⁵ turista eta bertakoen artean borroka erakusteko¹⁵⁶. Larriena zera da turistentzat aisialdirako direnak indigenentzat bizirauteko baliabideak direla¹⁵⁷.

Kontuan hartzen ez den beste gaitz bat herri indigenen biodibertsitatearen eta jabego intelektualaren lapurreta da. Herri indigenekin loturiko lurra, ohiturak¹⁵⁸, artisautza, diseinuak,

Bertan herri indigenen iritzi txertatzeko ahalegina egin nahi da. Helburua turismoa eta garapen estrategiak lotzen dituzten nazioarteko nahiz nazio mailako proiektuak diseinatzea da. Nazioarteko lana Estatu nahiz udal zein lurralde mailan gertaturikoa baldintzatzeko asmoz egiten da. Bestalde, Nairobini egindako den Biodibertsitateari Buruzko Konbenioaren Partaideen Konferentziaren Bileran Turismoa ere izan zen tratatuko diren gaietariko bat. Helburua ingurugiroa bermatzea eta mantentzea ez ezik beraren erabilera sostengarria eta sorturiko etekinen banaketa justua lortzeko bideak arakatzea da. Hiru helburu hauek lortu ahal izateko beharrezkoa da alderdi guztiak adosturiko eta konpromisoa lortuko dituen hitzarmena erdiestea non alde zientifikoekin batera alde sozialak, kulturalak eta ekonomikoak lotzea interes handikoa gertatzen den.

¹⁵³ Munduko Merkataritza Erakundea eta GATS (Merkataritza eta Zerbitzuetarako Hitzarmen Zabalak) ere garrantzi handia eman diote mota honetako turismoari, garapen sostengarria bultzatzeko orduan. Baina nazioarteko multinazionalen etorrerak bertako industri turistikoaren eta enpresari txikien aurka doa eta erraztu egiten du bertako kapitalen kanporaketa. Beraz, aginduriko etekina ahaltsuen eskuetara pasatu da eta tokian tokiko biztanleek eta kulturek jasan behar izan dituzte kulturen eta ingurugiroen aniztasuna esplotatzen duen turismo mota hau.

¹⁵⁴ Nazioarteko Moneta Fondoak turismoa jarri zuen bere egitura doiketak bultzatzeko estrategien artean, modu honetan bere laguntza eskatzen zuen herriak bere ekonomia mundu ekonomian txertatzeko ahaleginari jarraitzeko liberalizazioa bultzatu, merkatua zabaltzeko eta nekazaritzan oinarrituriko ekonomia gaitzeko estrategiak jarri behar zituen tokian. Helburua manufaktura eta zerbitzu gizarte bat sortzea eta helburu hau erdiesteko turismoa bihurtuko da bultzatu beharreko ekonomia sektorea, miloi asko eskuratzen direlako eta kanpoko zorra ordaintzeko bidea ematen duelako (Chavez, 1999)

¹⁵⁵ Garapen planak eta turismoak inoiz gutxi erreparatzen baitote herri indigenen kultura eta sentimenduei euren planak diseinatzeko orduan. Askotan lurralde sakratuak, euren praktika eta tradizio erlijiosoa euren baimenik gabe egiten da euren eskubideen bortxaketa eginez (Daes, 1997 84-86 parr.).

¹⁵⁶ Turista eta indigenen arteko gatazka hau turismoa dagoen toki guztietan aurkituko da. Alaskan, esate baterako, antzekoa gertatzen da arrantzaren gainean. Indigenek bizitzeko eta arrotek aisialdirako behar dutelako, hori bai arrantzaren %96 arrantza komertzial ala deportibora zuzenduta dago (IWGIA,2000:19-21).

¹⁵⁷ Horela deskribatzen du Trask-ek: First came hiking tours, they wanted to see the wildlife so the hiked on the pig trail where we hunt. The pigs were driven from their regular habitat because of expanding human use of the trails. Then they needed campgrounds, clearing and building their "accommodations" destroyed wild areas where we gathered plants for cultural uses. Next they decided to take the shoreline and refused to allow us to fish (aip. Ibidem:9).

¹⁵⁸ Turismoaren bidez Mendebaldeak bereganatu eta modan jarri dituen ohitura indigenen artean "surf" ala "puenting" kirolak aipatu daitezke.

kantak (Seeger, 1991) eta sinismenak¹⁵⁹ turismoak erakartzeko¹⁶⁰ gaiak bihurtu dira (Daes, 1997). Produktu turistikoak kultura indigenen azalezko irudi folklorikoa ematen du eta inoiz gutxi dago ikusi dugun kulturari buruzko informazio sakona¹⁶¹, are gutxiago euren ahots ez sortua. Modu honetan kalteak ugaritu egiten dira. Turismoak sortu zezakeen etekin ekonomikoa ez jasotzeaz gain beste motako etekina, hots, kultura indigenaren errespetuzko tratamendua ez da gertatuko¹⁶².

Herri indigenen kultura, erlijioa, bizimodua, mundu ikuskera eta ekonomia modernotasunak bere aisialdian kontsumitzen duen gaia bihurtu da. Turismoarekin loturiko beste gai bat erlijio indigenen bortxaketa da. Erlijio indigenak eta euren tradizioak Aro Berria “*New Age*” delako literaturan sarritan agertzen dira. Honen inguruan indigenek seriooki salatu duten “plastikozko chamanekin” loturiko kolonizazio mota berri bat agertzen da (Aldred, 2000). “Alternatiboak” diren hainbat europarrok kontsumitu egiten dute indigena exotikoa, ekologikoa eta mistikoa nahasten korrante hau (Aldred, 2000).. Kultur manifestazioak, euren testuingurutik atera, gure errealitatera ekarri eta moldatu egiten dira hobeto kontsumitu daitezten, azkenean kultura indigenaren lapurreta, besteganatzea gertatzen delarik. Era honetan herri indigenen kultura desitxuratu eta idealizatu egin da¹⁶³ edo gizabanako anomikoentzako produktua bihurtuz (Noguerol, 1999).

Askotan euren ahaleginak ondorio latzak izango ditu herri indigenen kosmos ikuskeran, hauen lurren zein sinismen erlijiosoen bortxaketa suposatuko duelako¹⁶⁴. Toki sakratuen

¹⁵⁹ Turistekin loturiko beste fenomeno bat kulturen eta ekonomian egindako aldaketak dira. Turistek maitatzen dutenarekin (hauen artean diseinuak, arropak, kantak eta dantzak etab.) hornitzeko artizautza utzi eta ekoizpen industrialari ekin beharko diote. Modu honetan ohiko produkzioa eta honen gaineko ohiko jabego intelektuala bermatzeko sistemak krisian sartzen dira. Askok eskaerari erantzuteko aldatu egiten dituzte diseinuak, kantak eta abar kanpoko merkatuaren gustuari hobeto erantzuteko asmoz. Turistek eragindako eragin korrante honen arabera euren gustuko diren kultur manifestazio kulturalak balioztatuko dira. Tradizio bezala saltzen dena birdefinitu egingo da kanpotarren eskakizunari hobeto erantzun ahal izateko. Hau zilegia bada ere beste alderdi ez zilegi batekin batera gertatuko da: artea nahiz toki sakratuetan dauden aztarnak, artea eta gorpuak zein natur baliabideen aleak eta honekin loturiko jakinduria ere trafiko ezlegalaren gaiak bihurtuz. Daes-ek (1997) anitz kasu aipatzen ditu bere txostenean eta gogoratu egiten digu historikoki herri indigenen giza aztarnak oroigarri bezala mantentzea ohitura zaharra dela gure artean.

¹⁶⁰ Fenomeno hau ez da gaurkoa eta kolonialismo bera hasi zenetik gertatu da, baina orain bidaiatzeko gai den edozeinek burutu dezake lapurreta apropos ala jakin gabe. Prozesu honen inguruan gertatutakoak sakontzeko bide Lobo, S. (1991); Seeger (1991, Ingold (1992); Crooll, (1995).

¹⁶¹ Tradizioa ulertzeko modu honek herri indigenen kultura zerbait geldo eta estatiko bezala kontsideratzen ditu eta ukatu egiten du kultura biziak eta euren terminoetan bilakatzen direnik. Beraz, ukatu egiten die euren tradizioa gaur egungo mundu kulturarekin nahasteko aukera ala teknologia berriez baliatzeko aukera. Teknologia berria ala motibo berrien erabilera askotan “tradizioaren” aurkako modernismotzat kondenatu egiten da. Honelako egoerak artean, musikan eta literaturan aurkitu daitezke errazago, baina lehen ikusi dugun bezalaxe natur baliabideekin aritzeko moduan ere (gogoratu Sri Lanka-ko kasua). Are gehiago, ohiko lurren eta baliabideen kasuan, lurraldearekin ohiko harremana frogatzeko orduan ala gobernu sistemaren funtzionamendua eta honekin loturiko eskubideak definitzeko orduan “tradizionala vs konsumitibario” arteko auzia berebizikoa bihurtzen da.

¹⁶² “Parecería que vivimos para vender imagen folklórica de los países para el beneficio de unos cuantos que ostentan el poder político y económico. O puede que eso se deba a la falta de entendimiento o el desconocimiento de la cultura indígena para no catalogarles de racismo. Así lo vemos en la milenaria cultura maya: su arte y vestimenta son reconocidos y comercializados en el mundo entero, pero no se dice quién es el verdadero dueño y menos aún el origen de los mismos” (López, 1995:51-52).

¹⁶³ Gure kioskotan errez aurkitu daitezkeen “Año Cero”-n maiz agertzen dira mota honetako gaiak herri indigenekin lotzen dituzten artikulak. “Chaman” hitza erabili egiten da gizon magikoa deskribatzeko. Bere garaian Castañeda antropologoaren lanak modan egon ziren eta herri indigenen alde mistikoa popularra bihurtu zuten, are gehiago bidai mistikoa egiteko “peyote” ala “ayahuasca” antzeko drogak erabiltzen zirenean. Gai honetan gertatzen diren bortxaketen berri gehiago izateko jo <http://www.nativeweb.com>, bertan “Indigenous Peoples and Occultism” delako Web horria aurkitu daiteke eta ikasi Australian, Ipar Amerikan zein Erta Amerikan gertaturiko kasuez.

¹⁶⁴ Tokien artean aipatu Uluru (Ayers Rock) Australian bertako herri indigenentzat sakratua dela, antzekoa gertatzen da Machu Pichu-ekin. Tradizio mailan

okupazioa eta euren ohitura sakratuen behaketa hainbat paketa turistikoen parte da¹⁶⁵ gaur egun. Guzti honek Laugarren Munduaren ekimena kolonialismo mota hau salatzen eraman du¹⁶⁶.

Kasu hauetan turistek etorrera ohiko erlijioa praktikatzeko eskubidearen bortxaketa eragin du. Baina txarrena zera da, guzti hau, herri indigenei inolako baimena, iritzia ala partaidetza eskaini gabe edota ateratako etekinen zerbait eman gabe egiten dela. Beraz, indigenek ez dute euren kulturak kolpatu eta kontsumitzen duen prozesu honetan inolako parte-hartze positiborik¹⁶⁷. Are larriago dena, euren lurren gaineko eta bertako toki sakratuen gaineko kontrola galdu egin dute, eta ikusi beharra dute hau nola kanpotarrei eskaintzen zaien euren bitartean. Hona hemen turismoak nola okupatu dituen herri indigenen lur sakratuak Hawain.

The eco-tourism development covers 54,000 acres of land identified as a prime subsistence area in the task force report. It will impact numerous archaeological sites including places at Halena Mauna Loa and Kaupoa. Ecotourism "accommodations" have been built on the top sacred sites and in the middle of archaeological areas to give tourist a taste of old Hawaii. In addition to hiking and camping facilities, extensive motorcycle and mountain bike trails are being developed. The sea shore will be the site of "ocean sports activities" (Trask, 1998:8).

3.3 IRUDIAREN GALERA ETA KULTURAREN KRISIALDIA

Turismoan erabilitako herri indigenei buruzko irudiak zer ikusirik gehiago dute nazioarteko turismoak ala Hollywood-ek (Curchill, 1992) sorturiko estereotipoekin (Riverwind, 2007). Auzi honek berebiziko garrantzia du irudiari jarraitzen dion mundu batean, holako irudiak halako turistak erakarriko dituelako. Argi dago egon badaudela bertako kulturentzat benetako etsaiak izan daitezkeen irudiak. Kanpoan saltzen den irudiaren kontrol galpen honen testigantza eskaintzen digu Das-ek (1998) turismoak Sri Lankaren irudia homosexualen paradisu bezala bultzatu egin duela kritikatzeko duenean¹⁶⁸. Beste ondorio bat turismoak sorturiko arrazismoa izango da. Beltz kolorekoa arbuiatu egiten den bitartean txuri kolorekoa goraiatu egingo da. Beraz, tradizioa berraldatu egiten da eta Sri Lanka saltzen dituen argazki eta bidai katalogoetan

aipatu ere herri indigenen erlijio askok erabili egiten dituztela drogak, adibidez, Amazoniako askok, Shuar barne, Ayahuasca erabiltzen dute euren praktiketan. Euren kulturetan egindako drogen erabilera ez du zer ikusirik Mendebaldean gertatzen denarekin. Beste adibide bat kokaren inguruan gertatzen da eta Bolibian drogen aurkako plangintzek indigenentzat kulturalki den inportantea den landare baten erauzketa proposatzen dute.

¹⁶⁵ Kasu honen erakuslea asko daude mundu mailan baina eskura erraza delako edozein bidai agentzian Baliko Toraja herriaren kasua aipatu nahi dut. Pakete Turistikoa hileta batera joatea proposatzen da. Edozein kulturaren gertakizun hau intimoa da eta ezin dut imajinatu zer gertatuko litzatekeen hemen Euskal Herriaren hiletan batean bat-batean hiru autobus helduko balira, turistek gainezka eta hasi elizan eta hilerrian argazkiak ateratzen eta hilobien zatiak etxera eramaten etab."The People of Sagada revere their land and their ancestors. But the sacredness and solemnity of their rituals honoring the agricultural cycle and the passage of life are transgressed by curious tourist. Worse, the sacred burial caves of the Kankanaeys have been desecrated by tourists taking the bones of the ancestors as souvenirs and writing graffiti on the walls and wooden coffins (Carling, 1998:6).

¹⁶⁶ Gai honetan sakontzeko bide hemen Lakotek seriozki hartu zuten gai hau eta guda deklaratu <http://puffin.creighton.edu/lakota/war.html>. Honetaz sakontzeko eta indigenen ikuspegiak jabetzeko bide Giago (2005), Jean (2000), Aldred (2000) eta Takaoka.

¹⁶⁷ Honela deskribatzen du errealtate gogor hau hondoko idazle maya: "Los mayas hemos sido tomados en cuenta para el folclor presentado a los turistas, pero hemos sido marginados de la administración y beneficio del negocio que esto implica. Hemos pasado a ser guardianes y barrenderos de los centros ceremoniales y otras construcciones de nuestros antepasados presentados al turismo" (Toj, 1995:64).

¹⁶⁸ Irudi honen ondorioz turismoak homosexualak eta are txarragoak diren pedofiloak erakarri dituela Reuter 1995ko albiste bat "Sri Lanka Cracks Down on Paedophiles". Mota honetako kasuei alternatiba bilatzeko asmoz bide Singh et alia (eds) (1989).

azal argiago duten pertsonak erakutsiko dira.

Honelako portaerekin euren burua eta kultura aurkezteko eskubidea bortxatu egin da (Alia & Bull, 2005). Euren kulturatik zer eta nola erakusten den kanpotarrek erabakitzen dute. Modu honetan euren irudiaren gaineko kontrola galdu egiten da¹⁶⁹. Turistari moldaturiko gezurrezko errekreazio kultural honetan, ezer gutxi adierazten zaie turistei, gaur egun, herri indigenek bizi duten errealtateaz, arazoez eta gaur egungo egoeraz. Ostera, jarraitu egiten da irudi “tradizional”¹⁷⁰ bat eskaintzen, modernotasunarentzat harrigarriago gertatzen diren berezitasun kulturalak azpimarratuz.¹⁷¹

Turismoaren eraginez arrotzen moduek sarrera izango dute eta gizarte egituraren krisialdia sortzen da, euren inguru, kultur¹⁷², ekonomia¹⁷³ zein gazteei asko eginez, batik bat min.¹⁷⁴ Gazteek jasoko dute nortasun krisia eta euren burua ohiko eta berriaren artean harrapatu aurkituko dute. Gainera turismoak sorturiko ekonomian sartu egiten dira eta, baita turismoaren inguruan sorturiko gaizkile ekonomian¹⁷⁵ ere.

4. BIOPIRATERIA: ALTXOR BERDEAREN BILA

Chambers-ek (1983) Ohiko Jakinduria (OJ) sistema oro hartzailea dela dio. Bertan kontzeptu, sinismenak eta pertzepzioak aurkituko ditugu, baita ere herrien jakinduria mantentzeko, pilatzeko, eskuratzeko, handitzeko eta igortzeko sistema bat. Gainera, Ojk

¹⁶⁹ Turismoaren barnean alde baikorrak badaude ere, herri indigenek prozesu honen kontrola galtzen dutenean batik bat, gertaturiko alde ezkorrek benetan kezagarriak bihurtzen dira. Turismoak prozesu bezala erakargarria egiteko beharrezko azpiegiturak eraikitzeo herri indigenen giza eskubideen bortxaketa gertatzen da. Giza Bortxaketa hau lurralde okupazioa gertatu ondoren turismoarekin loturiko ekimenak hasten direnean ematen da. Sorturiko kalteak ohiko bizimodua aldatu egingo dute eta arrotzen zein bertakoan arteko baliabide natural zein kulturalen gaineko borroka hasiko da. Herri indigenak galgaitze aterako dira borroka honetan hots, beharrezko janariaren eskasia, etxebizitzaren eta erieteko lurraren eskasia, derrigorrezko birkokapena eta komunitate osoen toki aldatzea, gazteen eta umeen artean eragindako prostituzioa, eta lan zein eskubide politikoek ukazioa jasan beharko dutelako. Halaber, ondorioak epe luzearako bereziki kaltegarriak izan daitezke euren kultura, ekologia eta ekonomiztatze eta baita eurek bizi direneko Hirugarren Munduko Estatuentzat. Osasunean ere, ondorioak bereziki larriak izango dira: sexualki kutsaturiko gaixotasunak direla eta hala geuk eramandako beste motako gaixotasunak zabaldu egiten direlako. Historikoki gure gaixotasunek herri indigenengan izandako kaltea nolakoa izan den ikusi dugu aurreko kapituluetan. Honetaz gain, turismoak bizkortu egiten du krisialdi soziala eta familien apurketa zein belaunaldien arteko gatazka. Umeen hezkuntzari oztopoak sortzen dizkio, eskola uztera bultzatu eta kalean turismoan sorturiko ekonomian ahalik eta lehenik ariztera bultzatzen ditu beste kultura baten baloreetara erakarritze eta honek sorturiko esplotazioa mekanismoetara erakarritze (droga trafikoa, prostituzioa etab.)

¹⁷⁰ Indigenari buruzko irudia idealizazio eta mesprezu gorriaren artean mugitu da. Kasu honetan idealizazioa izango da kaltea sortuko duena eta indigena exotikoa (gure kulturari kuriosoenak ala kontrajarrienak egiten zaizkion pasartei garrantzia emanez), indigena ekologikoa (indigenak zahar-zaharra industrializazio aurreko bizimodu eta jakintza baten gordailu bezala agertuko, eta “homo ecologicus” horren gorpuztea delarik) edota indigena magikoa (ia indigena asko chamanak dira eta drogak edota beste bitartekoak erabiliz kultura modernoak ahaztu dituen dimentsioetara heldu daitezke, erlijio holistikoa baten profeta berriak izanik) bilatzeko eta kontsumitzeko gosea izango du. Beraz, turistak maite dituen kulturaren pasarte ala zati batzuk bultzatuko dira arrotzek kontsumitu dezaten eta beste batzuk aldiz galdu egingo dira eskaerarik ez dagoelako. Ohikoa birdefinitu egingo da arrotzak eskatutakoari erantzuteko. Geuk herri indigenei ditugun hainbat estereotipoen komentarioa ikusteko bide Virella (1999).

¹⁷¹ Toki sakratuen erabilera turismorako kultura indigenari norainoko iraina den ikusteko bide Daes-ek (1997) idatzitakoa bereziki 39. Paragrafoan.

¹⁷² Kultur gaitze hau nabariagoa da hizkuntzaren kasuan, etxekoa alboratu eta kanpoko hizkuntzei garrantzi ematen zaielako. Honek berebiziko inpaktua izango du kulturaren eta komunitatearen bizitzan euren ohiko kohesioa apurtu egingo delako.

¹⁷³ Nekazari eta arrantzaleen ekonomia batik bat dira kolpatuenak bi talde hauek naturarekiko duten mendetasuna erabatekoa delako eta proiektu turistikoak diseinatzen direnean nekazaritza erabiliko lurrak eta itsaso eremuak turismoak behar dituen golf zelaiak ala beste edozein azpiegitura garatzeko erabiltzen direlako.

¹⁷⁴ Gazteak lehen deskribatu dugun bezalaxe dira modu latz-latzean turismoaren alde ezkorrenak arinago jasotzen dituztenak. Prostituzioa, droga kontsumoa, kontsumismoa, ohiko lanen eta kulturaren arbuioa dira gazte indigenen artean aurkitzen diren ondorioak. Askok alkoholismoan, droga trafikoa ala kontsumoan edota prostituzioan erortzen direlarik dirua eskuratzeko asmoz.

¹⁷⁵ Droga kontsumoa eta lizunkeria ekartzen dute hainbatek: “Tourist bring with them Western ways. The illegal propagation, sale and use of marijuana and hashish flourishes in response to tourist demands. Other tourist activities, like swimming nude drinking alcohol, offend local people and violate their taboos. Commercialism and other western values weaken the social fabric (Carling, 1986).

berebiziko garrantzia izan du orain arte munduko biodibertsitatea mantentzeko, eta etorkizunean ere ezinbestekoa gertatuko da (Sinng, 1997).

OJ zertan datzan antzemateko hobe dugu hura mendebaldeko ezagupen zientifikoarekin kontrajartzea (Semali. & L.Kincheloe (1999). Ezagupen zientifiko eskura erreza da, liburuetan zein beste euskarrien bitartez, munduko edozein bazterrean komunikatzeko edota irakasteko erreza izanik (Seini, 2003). Nekazarien jakinduria, ostera, ez da arrotzentzako eskura erreza, literatura etnografikoan. kode antropologiko itxian, aurkituko dugun informazioa da, estudiatuz bakarrik eskura daitekeena (Warren, 1989). Beste aukera bakarra, nekazaritza inguruan egitea, bertan behaketa eginez eta bertakoen irakaskuntza sistemak erabiliz, soilik ikasi daiteke. Toki zehatza izate honek bere abantailak eta mugak ditu. Azken boladan, tokian tokiko ekosistemei loturiko ezagupena kulturen iraupenerako argudioa bihurtu da. Beraz, OJren abantaila toki batean behatu daitekeen horretan aurkituko dugu. Bertako herrientzat garrantzitsua izanik, euren bizitzak era zuzenean baldintzatzen duen informazioan du oinarria. Warren-en (1994) iritziz, OJk ingurumenaren funtzionamenduari buruzko ikuspegi sistemiko eta oro hartzailea eskaintzen digu. Ezagupen sistema honek dimentsio asko ukitzen ditu linguistika, medikuntza, psikologia klinikoa, botanika, zoologia, etnologia, ekologia, nekazaritza, abeltzaintza eta artisautza besteren artean, (Shahidullah, 2007).

Adibidez, medikuntzan, osasun aditu indigenek medikuntza modernoaren periferian ari dira euren eginkizuna burutzen. Arrantza, baso kudeaketa, ur baliabideen kudeaketa eta abere zaintzan ere tokiko aditu asko aurkitu daitezke, abilezia handia eta informazio egokia dutenak izanik. Aditu hauek burutzen dituzten lan asko zientifiko modernoek egiten dutenarekin dute antza: eurek berezitu, izena eman, inguruan daudenak kontuan harturik deskribatu, klasifikatu, behatu, konparatu, aztertu, esperimendu egiten dute eta aurreikuspen lana egiten saiatzen dira (Chambers, 1983).

Brundtland txostenak (1987) herri indigenek, euren ingurumena mantenduz munduko anzitasun kulturala eta biologikoa sostengatzeko egindako kontribuzioa onartzearekin batera, herri indigenen ekosistemen balorea eta ohiko jakinduriaren garrantzia aitortu zuen. Mendeetan zehar, euren ohiko kulturen balorea ukatuta ikusi ondoren, lehenengo aldiz, bai herri indigenek bai euren kulturei nahiz naturarekin harremana ulertzeko moduari balorea nola aitortu zaien ikusiko dugu. Munduko zientifikoaren artean OJrekiko dagoen interesaren lekuko da

Garapen Iraunkorra lortzeko OJ ezagupen zientifikoarekin modu sinkretiko batean konbinatuz gero herri indigenen eta munduko gizarte guztien onurako izan daitekeela uste dute askok. OJ-k mendebaldeko zientzia teknika sostengarriagoetara jotzeko ahaleginean lagundu dezake eta industri bioteknologikoak lortu dezakeena handitu, erraztu eta arindu.

...by combining the ecological sound, sustainable yield principles of Indian agriculture with specific techniques of commercial agriculture researchers are creating new productions systems that can improve the lives of rain forest colonist and conserve rain forest resources at the same time (Clay, 1988:5).

Aitorpen honekin, bat batean, indigenak Garapen Iraunkorraren aurreko lerroa eta ekologismoa gorpuzten eta erakutsi dezaketen kulturak bihurtu dira askorentzat. Miguel Alfonso Martinez-ek (1999b), ironiaz, aldi berean modernotasunaren aurreko eta osteko (pre-post modernos) bihurtu dituztela dio. Horrela da garapen munduan ari diren teoriko eta praktikoez ez baitute ondikoan asmatu non kokatu eta zelan jokatu eurekin. Orain sostengarritasuna lortzeko ahaleginean bertako kultura aldagai independente bezala onartzea eskatuko zaie. Aldagai etniko baten existentzia onartze honek aldaketa suposatuko du garapen plangintzan eta teoriaran.

Gauzak horrela, Estatuak biodibertsitatearen gaineko ustiaketa baimenak eman ditzake beste edozein baliabideekin gertatzen den bezalaxe. Egoera berri honek sekulako mehatxuak eta aukera berriak sortzen ditu herri indigenentzat.

La biodiversidad, por lo tanto, es hoy por hoy un arma de doble filo para los pueblos Indígenas: por una parte, supone la posibilidad de un futuro digno para estas poblaciones, encuadrado en su sistema de conocimiento y potencialidades que interesa proteger en toda esta potencialidad pero que en tanto que tal totalidad será imposible de patentar según las concepciones occidentales. Por otra parte, es objeto de codicia para el capital occidental y susceptible de convertirse en arma arrojada contra las comunidades indígenas a través de la biotecnología y los sistemas de protección de patentes (...). Es decir, la biodiversidad puede ser una salida para las economías indígenas modernas y ocasionar serios problemas en un futuro si su revalorización comercial tiene como resultado la pérdida de control sobre sus modos de vida tradicionales (Noguero, 1997:163).

4.1 BBK: ERAUZKETA MARKOA EZARTZEN

Munduko biodibertsitatea sustengatzeko, zein garatzen ari den bioteknologiarentzako OJ-k daukan garrantzia argi eta garbi, gelditu zen Biodibertsitateari buruzko Konbenioan. 1992ko maiatzean Nairobín izandako “*Convention on Biological Diversity*”, 1992ko ekainean “*UN Conference on Environment and Development*” Rio de Janeiro-n, eta azkenean 1993an sinaturiko Biodibertsitateari Buruzko Hitzarmenean (BBK) biodibertsitatea zein bertan aurkitzen diren baliabide bioteknologiak kontserbatu egin behar zirela baietsi zen. Biodibertsitatearen ardura guztion ardura dela onartu zen, nazio erkidegoak nahiz nazio bakoitzak banaka burutu behar zuen betebeharrak hau baietsi ere. Konbentzioaren garrantzia berebizikoa izango da: 1) lehenengo aldia izango da biodibertsitatea tratatua dela espezifikoki eta lehenengo aldia ere, mundu mailako hitzarmen baten muinean aurkitzen dugula. Eta lehenengo aldia ere, biodibertsitatearen iraupena gizateria osoaren ardura dela onartzen dela. 2) teknologia eta bioteknologia ukituz alderdi guztiak besarkatzeko gogoia erakusten du eta herri txiroak laguntzeko mekanismoak martxan jartzeko konpromisoa erakutsi.

Según el Convenio sobre Diversidad Biológica fruto de la Cumbre de la Tierra celebrada en Río de Janeiro en 1992: “la diversidad biológica es esencial para el desarrollo de la biotecnología. Debido a su carácter vital el Convenio prevé un flujo de recursos financieros desde el Norte hacia el Sur vía la distribución justa y equitativa de la comercialización de la diversidad genética del Sur. Este intercambio tendría como objeto el apoyar el uso sostenible de la biodiversidad y se realizará a través de acuerdos bilaterales. Estos acuerdos se

basarán en el intercambio de biodiversidad por recursos financieros, tecnología y el desarrollo de recursos humanos (Egziabheri, 1997:126).

Konbenio honek biodibertsitateari eta bere sostenguari buruzko informazio egokiena Hegoaldean dagoela diosku; gauzak horrela, BBKk biodibertsitatea mantentzeko, kooperazioa eta informazioa elkar trukatzeko nahiz etekinak konpartitzeko markoa eskaintzen du. Gainera, BBKk bultzatu egiten du biodibertsitatearen babesa eta baliabide ekologikoen erabilera sostengarria. Hain konplexu eta arlo anizduna izanik, egin beharreko zehatzak nazio, are gehiago, udal mailan burutu beharko direlarik (IUCN, 1994). “*In situ*” egindako kontserbazioaren garrantziak ez die herri indigenei euren baliabideen gaineko kontrola ekarri. BBKren bidez, ordura arte gizateriaren jabegoa zen munduko biodibertsitatea Estatuaren jabegoa soilik izatera pasatuko da. Are gehiago, Estatuaren lurraldean dagoen biodibertsitatea ustiatzeko eskubidea Estatuarena dela esaten da eta ez beste inorena. Hainbat aldiz gertatu den moduan nazioarteko erkidegoak Estatuaren eskuetan jartzen du biodibertsitatearen gaineko jabetza, eskubideak eta erantzukizunak. Herri indigenek 8j artikuluan errekonozimendua lortzen badute ere, ez dute inolako eskubiderik lortzen Estatu nagusi duen eskema honetan.

La propiedad común de la Humanidad que aparece en otros documentos ha sido reemplazada por un reconocimiento del derecho soberano de los estados a explotar sus propios recursos de acuerdo con sus políticas medioambientales. Más que derechos de propiedad sobre los recursos como perteneciente a los pueblos Indígenas, los Estados tratan los recursos situados dentro de sus fronteras como su derecho exclusivo a explotar y controlar (La Alianza Mundial de los Pueblos Indígenas y Tribales de los Bosques Tropicales, 1997:145).

4.2 BIOBILAKETA: BIOLAPURKETARAKO LASTERKETA

1992tik aurrera biodibertsitatearen garrantzia onartzearekin batera ohiko jakinduriarekin loturiko lapurreta eta baliabide bioteknologikoen kontrola bultzatuko da. Ingurumenari aplikaturiko betiko zapalkuntza eta erauzketa teknikak zelula eta kate biologikora eramanez. Kolonialismo berri honen oldartzeak kolokan jarriko ditu orain arte bizirik iraun duten herri indigenak, euren nortasuna, instituzioak eta baloreak erasotu dituelako eta gainera imajina ezinezko arazo konplexua jarri aurrean.

Patenting of life forms, bio-prospecting and free trade arrangements are aspects of this neocolonial wave and has transformed concerns which were previously focused on anthropologist, archaeologist, museums and artists into all aspects of indigenous life. The reasons for the anger felt by indigenous peoples is that the external power of the state and market are entering aspects of life which are sensitive and mark the uniqueness and dignity of indigenous peoples (Gray, 1995:3).

1992an onarturiko Garapen Iraunkorraren (GS) kontzeptua garapen prozesua, neurri apal batean, birbideratzeko balio izan badu ere, honi loturiko kolonialismoa agertu da azken hamarkadan: urre berdearen egarria duen ekolonialismoa, alegia. Kolonialismo berri honek, bioteknologiak aurrera egiteko ezinbestekoak diren gaien gaineko kontrola ziurtatu nahi izango du.

Bicolonialismo por ser un concepto, que en el transcurso de la discusión, se asemeja al ávido apetito de los conquistadores que buscaban oro y que, para obtenerlo, iban a justificar los medios el geno/ecocidio. Pues bien la biodiversidad es el oro de hoy (Delgado, 1996:22).

Kolonialismo berri honen helburuak herri indigenen ekosistemetan bizi diren bizidun nahiz bizigabeetan aurkitu daitezkeen osagarri biologikokoak zein hauekin loturiko jakinduria izango dira. Kolonialismo berri honek dakarren berrikuntza tragikoa: indigenak berak, euren gorputza zein egitura biologikoa bihurtu direla helburua.

Aitorpen honek indigenen lurraldeetan dagoenari balore ekologikoa suposatzeaz gain, balore handidun etekinak atera daitezkeela suposatzen du Iparraldean indartsu den industri bioteknologikoarentzat. Gaur egun botiketan erabiltzen diren sendagaietatik zenbat duten jatorria ohiko jakindurian jakiteko hemen 1990ko hamarkadako datu batzuk.

- *Some 7000 natural compounds are currently used in modern medicine, most of those had been used for centuries by European-Asiatic and Amerindians healers;*
- *Twenty-five percent of US prescription drugs contain one or more plant derived active ingredients;*
- *In 1985 the world market value of drugs was estimated at US 90 billions medical plants accounted for 43 billion;*
- *In 1980 imports of medicinal plants worldwide were estimated at US 551 million (Elisabetsky, 1991:9).*

1995an Alemanian, Frantziar, Italian, Espainiar, Britaina Handian eta Holandan saldutako belar botikak 7 bilioira heltzen dira (Gupta, 2000:64) eta merkatua handitzen ari delako bioaniztasun menpekotasuna areagotzen ari da. Bermejok (2001) 1997an botika produktuen %40a belarretatik ateratzen dela gogoratzen digu eta honen balorea 120.000 miloi dolarretakoa dela esan.

Jokoan dagoena horren handia izanik, eta bioteknologiaren beharrei hobeto erantzuteko asmoz etnofarmakologia delako zientzi berria sortu da (Elisabetsky, 1991). Modu honetan etorkizuneko botikak eta medikuntza garatzeko diziplinen arteko azterketa zientifiko burutuko duten adituak prestatzeko. Ohiko kulturek euren landareei eta ekosistemari buruz duten ezagutza sakona aprobetxatuz, sektore honetako industriek euren lana hobetu, prozesua arindu eta kostuak jeitsi egin dituzte, aberastasun handia sortuz.

Bioteknologikoak hain beharrezko duen germoplasma pilatzeko, biodibertsitatearen sekretuak lortzeko, biobilaketa (*bioprospecting*) delakoari ekin dio. Horretarako tokian tokiko beharrezko aleak eskuratuko dituzten Unibertsitate ala GKE-ekin elkar lanean arituko dira. Lan modu hau 60ko hamarkadan AEBtako gobernuak erakundeak hasi ziren Nigerian ohiko sendakuntzan erabilitako landareak aztertzen (Gupta, 2000). Multinazionalen artean Merck & Co., Smithkline Beecham, Monsanto, Sterling eta Bristol Meyers aurkitu ditzakegu besteen artean (Daes, 1997:13-14 parr.). Biobilaketaren ahalegin nagusia medikuntzarekin loturiko gaietan kontzentratu da. Aniztasun biologikoaren eta XXI. mendeko medikuntzaren arteko harremana maisuki erakutsi dute Chivian & Bernstein-ek (2008). Euren lanean harreman honi osasun zientzien ikuspegitik heltzen diote, eta sakondu egiten dute Colfer-ek (2008 eta 2006) eta Chivian-ek esandakoa (2002). Zientzialariek orain baieztatu egin dute indigenenek erabilitako

hainbat botika eta sendagaien balioa eta honek multinazionalen interesa erakarri du.

Gainera, Daes-ek gogoratzen duen bezala biobilaketa indartu egin da 1986tik aurrera, batez ere HIESA agertu ondoren, mendebaldeko nazioek dituzten gaixotasunak sendatzeko egiten delako nagusiki, minbizia ala bihotzeko gaitzak, beste batzuen artean (Daes, 1997:98 parr.). Biobilaketa taldeak diziplinen arteko adituak osotzen dituzte, eta bertan ez dira abokatuak falta.

Los investigadores llegan a los territorios indígenas con grandes equipos etnobotánicos, químicos, abogados, antropólogos, en forma directa o a través de intermediarios. Muchos de estos científicos trabajan con universidades locales y recolectan plantas medicinales en base a las prácticas que existen en el lugar. Algunos tienen buenas intenciones y hacen convenios primeramente, pero negocian en sus propios términos y no en los de los pueblos indígenas. Cabe destacar que la mayoría no firma convenios con las comunidades, simplemente viene y piratean los conocimientos indígenas (López, 1999:326).

Biobilaketan, belargileak helburu nagusia izaten dira. Tokian tokiko jakintsu hauek, populazio, ingurumen eta mundu izpiritualaren arteko orekaren jagoleak dira kultura indigenarentzako. Kanpotarrentzat aldiz, eurak dira biodibertsitatea mantentzeko zer egin behar den eta ekosistema dagoena zertarako erabili hobeto dakitenak. Lehen Munduko botanikoeak, zoologoeak eta beste hainbatek onartu egiten duten Hirugarren eta Laugarren Munduko biodibertsitatea estudiantzerakoan hobe dutela jakintsu indigena bat erabiltzea, denbora eta energia euren kaxa gastatzea baino (Simpson, 1997). Belargilearen irudi honek ez du zer ikusirik tradizionalki saldu zaigun “chaman” magikoaren estereotipoarekin.

La propia eficacia de la acción de un chamán radica frecuentemente en la explicitación que realiza de su conocimiento sobre el mundo natural. Aunque no siempre, los chamanes son conscientes del valor adaptativo del conocimiento de la naturaleza; su importancia como especialistas que controlan la obtención de recursos y el equilibrio del sistema ecológico ha sido oscurecida en ocasiones por una tendencia a describir a los chamanes nativos en términos de meros curanderos o de fanáticos religiosos (Díaz, 1986:70).

Geroxeago, germoplasma eta bertan dagoen informazio genetikoa identifikatu ondoren, mundu garatuaren laborategietara eramán eta bertan prozesatu ondoren, garrantzizko printzipio aktiboak isolatu eta hauen gainean egindako balore handiko produktu berriak aterako dituzte (Kloppenburg, 1991).

Pilaturiko informazioarekin Iparraldean dauden gene-bankuak ondo hornitzea eta ondorengo ikerketarako beharrezkoak diren gaiak eskuragarri izatea posible egingo da. Informazio genetikoaren pilaketa honetan herri indigenek ez dute inolako etekinik, informaziorik edota aurrerapen teknologiko ala laguntza medikorik jasotzen. Herri indigenen lurretan dagoen bioinformazioaren lapurreta honi biopirateria deitzen zaio (RAFI, 1995).

Erakunde ekologistak ere parte hartzen ari dira biopirateria saiakera honetan, askotan GS diskurtsoa erabiliz, baina herri indigenei ezer gutxi emanez (Jhonston, 1999). Gene bankuak, “*in situ*” dagoen biodibertsitatea mantentzeko eta eskuratzeko aldizkako bide bat izanik, behar beharrezkoak gertatzen dira bioteknologiarentzat. Industria honek garatzeko ezinbestekoa du abere, landare eta hazien germoplasma izatea produktu berriak garatu ahal izateko. Gene

bankuetan, aleak kontrolpeko tenperatura eta hezetasuna duten eraikuntzak daude eta bertan material genetikoak pilatu eta mantendu egingo da, hobekuntza eta ikerkuntza programetan erabili arte. Gen banku hauek hornitzeko mota guztietako germoplasmaren bilaketa eta pilaketa ari dira munduko hainbat gobernu, unibertsitate, GKE, multinazional eta nazioarteko erakundeak.

4.3 HUGO: HERRI INDIGENEN ARIMA XURGATZEN

Jakinduri edota bioinformazioaren lapurreta hau ez da zoritxarrez animalia, landare ala ekosisteman aurkitzen direnei mugatu, landare nahiz animalia geneak ez ezik pertsonen geneak ere bilatzen direlako. Errealitate honek bidea zabaldu du pertsona batek dituen geneak jabetza pribatua bihurtzeko. Aroha Te Pareake Mead aktibista maoriak ekokolonialismoaren ezaugarri hau salatu du herri indigenen duintasuna, bizitza eta kultura berak iraintzen dituelako.

La segunda onda de colonización fija su vista por medios ilícitos apropiándose del conocimiento indígena sobre el medio ambiente, de las prácticas curativas preventivas, y en particular de las plantas domesticadas por indígenas (medicinales, colorantes, tubérculos y vegetales para mencionar algunas)". Los mismos PIs son candidatos óptimos para la segunda ola de colonización. No solamente el DNA se puede extraer de una planta, también los humanos lo poseen. Otra vez Aroha: "el genoma humano contiene no sólo la herencia de un individuo sino de toda una comunidad. Para muchos PIs el concepto de "propiedad" de un gen humano por parte de un individuo no es aceptable. Más aún la propiedad de genes por parte de un individuo no es aceptable. Más aún la propiedad de genes por parte de una compañía es condenable".....Pues bien. Ya varios PIs considerados en peligro de extinción, porque biológicamente no se pueden reproducir sin correr altos riesgos de degeneración biológica....., han sido pautados como posibles candidatos ideales de los que se podrían extraer muestras cutáneas, sangre y uñas con el objeto de adquirir el DNA para poder buscar la variación genética. Paralela a esta situación, y como efecto de lo que Haraway argumentaba, se han formado Proyectos del Genoma Humano. Es decir, posibles intentos organizados de biotecnólogos, en concomitancia con los departamentos de biología de las universidades, o los institutos nacionales de salud, en los que se comenzaría a almacenar dichas muestras de DNA. Por ejemplo, el proyecto sobre la Diversidad del Genoma Humano ya apunta a más de 200 comunidades indígenas de las islas del Pacífico Sur (aip. Delgado, 1996:24).

Zalantzarik gabe giza DNA eskuratzeko egin den mundu mailako ahalegin handiena eta arbuia garriena Genoma proiektuarena da. HUGO izenez ezaguturiko nazioarteko ekimenak giza egitura genetikoaren mapa burutzeko jaio zen, horretarako 100.000 gene eta 3 biloi osagarri kimiko aztertu beharko zituztelarik. Helburua talde etniko bakoitzak ea zergatik konposizio genetiko ezberdina duten jakitea da eta horretarako genetikaz gain euren historia, antropologia eta hizkuntzak aztertuko dira (Garcia-Romeu et alia, 1998).

HUGO ekimenean egon badago herri indigenekiko zeharo arrazista eta kolonialista den ezaugarri bat euren gaur egungo egoeraz eta bizirik iraunarazteko egin daitezkeen ahaleginak ahaztu eta euren planetarako beharrezkoa den informazioa eskuratzeko ahalegina eginez. Herri hauen ongizatea, iritzia, parte hartzeko gogoak eta antzekoak ez dira inoiz lehentasunezko gaia izan prozesu honetan. Giza material genetikoaren pilaketari eman zitzaion lehentasuna eta jakintzat hartu zen gizabanako zein herri ezberdinek derrigorrez kontribuzioa behar zutela egin proiektu honetan. Zientzia eta luzapenez gizateri osorako mesedegarria izango zelakoan. Talde asko gainera desagertzeaz zeudelako euren oroimen genetikoak gordetzeko ahalegin bezala erakutsi zen.

La preservación es el tema dominante, por encima de la conservación y un tipo de desarrollo que pueda cambiar la realidad existente. Se asume como un hecho que muchas poblaciones humanas habrán de extinguirse inexorablemente. El proyecto, que se muestra totalmente indiferente a la suerte de las mismas, las menciona como “grupos carentes de interés histórico que deberán ser muestreados antes de su desaparición como comunidades integrales, preservándose así su papel en la Historia de la humanidad (García-Romeu et alia, 1998:81)

Gene hauen pilaketa inportantea da bertan gure historia genetiko, bizitzeko, gaixorik jausteko eta hiltzeko dugun informazioa bertan dagoelako. Zientifikoek jakin badakite gene hauetan etorkizuneko terapien iturburua eta tresna bereziak zein pertsona bakoitzaren egitura genetikoari, modu egokian, moldatuko zaion “medikuntza pertsonalizatua” burutu ahal izateko oinarriko informazio dagoela. Munduko zientifikoek ez duten berriz itsu-itsuan aritu beharko, mila proba egiten sendagaiak ala terapia egokiak aurkitzeko. Genetikak arazoa zein den eta non dagoen kokatuta erakutsiko digu, geldituko den gauza bakarra arazo eta pertsona bakoitzerako tresna terapeutiko egokia diseinatzea izango da. Eta horretarako landare eta animalia nahiz gizakietatik etorritako informazioa genetiko eta giza genomaren mapa lortzea ezinbestekoa da.

Hain inportantea den informazio hau literalki erauzi egiten da herri indigenen gorputzetatik euren odolaren, ilearen eta gorputzeko beste atalen zatitxoak kenduz hemendik beharrezko informazioa eskuratzeko. Gainera, herri indigenek eurengandik lorturiko produktuak patentatzeko ahaleginak jasan dituzte, hauen artean ezagunetarikoa Ngobe-Bugle emakume baten kasua izanik.

Zalantzarik gabe, kolonialismo berri baten aurrean gaude. Biobilaketak eta ekokolonialismoak bultzaturiko eskema honetan: 1) jakinduria eta germoplasma erauzi egiten dira; kontrola galtzen da eta bizitzarako, osasunerako nahiz ekonomiarako beharrezkoak diren baliabideak galtzen dira eta lurrak zein baliabideak desjabetzeko presioa areagotu egiten da 2) jakinduriarekin loturiko sakratuaren zentzua eta nortasunaren galpena; eta azkenenoz 3) ezagupena, bioteknologia eta natur baliabideak produktua bihurtzen dira, OJK daukan osotasuna eta elkarketa apurtu egiten da, kanpokoekin harreman esplotatzailea hasten da, antzeko harremanak sortuko dira komunitateren barnean eta azkenenoz natur baliabideen birrintzea eta biodibertsitatearen galpena gertatuko da. (Colchester, 1995:5). Praktika hau zeharo salagarria gertatzen da herri indigenen ustez ondoko arrazoi hauengatik:

**Colonialista: porque se imponen los instrumentos de los países desarrollados para apropiarse de los recursos de los pueblos indígenas.*

**racista: ya que desprecia y minimiza el valor de los sistemas de nuestro conocimiento*

**de usurpación: ya que en su esencia es una práctica de robo (COICA, 1997:156).*

**V. KAPITULUA: NAZIOARTEKO
POLITIKAN AKTORETZAT ONARTU
ZUTENEKOA**

SARRERA

“Never believe the myth of the vanishing Indian”

James Anaya

Nazioarteko Gizartearen historia hasiera-hasieratik herri indigenekin lotuta egon dela ikusi dugu bigarren kapituluan. Sepulveda eta Las Casas-asen arteko eztabaida ospetsuak Lege Naturalaren “*Natural Law*” hasiera markatu zuen. Lege Naturalaren garai honetan herri indigenen berezkotasunaren eta euren eskubideen onarpen mugatua gertatuko zen (Anaya, 1996 eta 2003, Niezen 2003, Thornberry 2002; Keal 2003; Panzironi 2006), eta honek muga historiko markatu zuen nazioarteko Zuzenbidearen eta Nazioarteko Harremanetan. Aurreko garai hau amaitu egin zen XIX. mendeko errepublika berriek eta Europako botere kolonialek nazio eraikuntzari eta kolonialismoari hasi ziotenean. Aipaturiko garai bi hauek herri indigenen berezko definizioak eta ikuspegiak garatu ziren. Hauexek indigenen eta europarrak ez zirenen egoera moral eta legalari buruzko debate sutsu eta sakonen ondorioa izan ziren (Williams, 1993).

III. kapituluan errepublikanoaren garaian, herri indigenek gradualki galdu egin zuten aurretik onartzen zitzairen naziotasuna. Hau horrela gertatzen da “Nazioen Familian” kide izateko sarrera irizpideak askoz zorrotzagoak egin zituztelako. Nazioen Familian ez egoteak Estatuak sustaturiko konkista eta dominazioaren objektu bihurtu zituen. Kultura euro-amerikanoa barneko nahiz urazandiko Estatuaren kolonizazioaren bidez munduratu egin zen. Beraz, zuzenbide positibistaren garaia deitu den honetan nazioarteko gizartearen oinarri den Estatuaren eraikuntza, herri indigenen konkista eta okupazioarekin (Korman, 1996), domestikazioarekin (Martínez, 1999), birkokapenarekin, asimilazioarekin eta herri indigenen bazterkeriarekin batera gertatu zen. Aldi berean gertatu ziren nazio eraikuntza eta desagitea (Clay, 1993). Alde batetik, inposatu egin zen Europako zibilizazioa eta bere egitura politiko, ekonomiko, sozialak eta kulturalak, bestetik, bultzatu egin zen “barbaroen” desagertzea. Indigenei Nazioarteko Harremanen historian ez zaie jaramonik egiten eta desagertu egiten dira bere gune nagusitik (Woo, 2003). Horrexegatik diogu nazioartean ere errealitate ezkutua direla herri indigenak, eta hauek pairaturiko konkista eta domestikazioaren esperientzia (Niezen, 2003). Herri basati eta zibilizatuen artean ezartzen den muga erradikala, dikotomikoa eta gaindiezina da, eta gaur egun jarraitzen du munduko osoko herri indigenen errealitatea eta existentzia bera ere mugatzen. Mendebaldeko zientzia positibistak ere barneratu egin du zibilizatu eta basatien arteko haustura hau (Clay, 1993). Izan ere, honek ezartzen duen sistema politiko, ekonomiko, sozial, kultural eta ezagupenen arteko hierarkia mendebaldeko filosofiaren izaerazko osagaia da (Melody, Murdock & Wilmer, 1994). Adibide bat, aurreko kapituluan ikusi dugun bezala mendebaldeko ezagupena zientzia eta objektibotasunarekin identifikatzen da. Hau dela mendebaldeko Estatuak kontrolatzen duten nazioarteko erakundearen bitartez jabego intelektuala babesten duten legeen babesa izango du. Ostera indigenen jakinduria mitologikoa, zientziaren aurrekoa, subjektiboa, kolektiboa eta

sinismen pilaketa bezala ikusiko da. Hau garrantzi gabekotzat jotzen delako ukatu egiten zaio inolako lege babesaren duenik. Guzti honen aurka altxatuko da Laugarren Mundua.

Zorionez Nazioarteko Zuzenbide Positiboaren garaia bukatu egin zen II. Mundu Gerla amaitzarekin batera. Gerla ostean garai berri bati eman zitzaion hasiera, bertan nazioarteko gizarte berri bat, humanoagoa dena agertzen da, non giza eskubideen errespetua eta arazo globalei emandako konponbide kolektiboa bilatzen den (Del Arenal 2002). Nazioarteko giza eskubideen aldeko mugimendu baten agerpenak animatu egin zituen bai gizabanakoak, bai Estatu gabeko nazioak, gutxiengoak eta herri indigenak berdintasuna, diskriminazio eza eta berezko gizartearen partaide bezala dagozkion eskubide kolektiboak errebindikatzera, eta nazioartean babespen berezia, autogobernua eta toki propioa eskatzera (Kincaid, 2001:135).

Aldaketa garrantzitsu hauek gertatu baziren ere Guda Hotzaren garian, Estatuak nazioarteko politikan paper zentrala izaten jarraitu zuten. Baina Sobiet Batasuna desagertu ondoren gertatu ziren aldaketekin batera berriz agertu ziren aurretik “izoztuak” bezala zeuden arazoak. Hauen artean arazo etnikoen agerpenak eztabaida sutsuak eragin zituen gure diziplinan. Hau dela-eta, gobernuak ez ziren aktore berrien existentzia onartu zen. Hala eta guztiz ere, nazioarteko gizarte garaikidea jarraitzen du, batez ere, gauza guztien gainetik Estatuaren gizarte bat izaten, eta gure diziplinan Estatuaren darrai analisi unitate nagusia eta nazioarteko harremanen aktore zentrala izaten (Arenal 2002; Barbe 2003). Horregatik mintzatzen gara gure diziplinaren duen estatozentrismoaz. Horrela da aurreko hamarkadetan egondako debateak izanda ere, ia ezina egiten baitaie ondorengoa.

...introducir la consideración de otros actores en los esquemas analíticos utilizados desde las distintas aproximaciones. Se proclama su existencia y a continuación pasan a ser ignorados de nuevo, porque no se han elaborado esquemas analíticos integrados (García Segura, 2005:63).

Eragozpen hau are deigarriagoa egiten da gatazka etnikoen kasuan (Brubaker, 1998), zeren eta gure arloko paradigma nagusiek gatazka etnikoen ikerketa periferikotzat jo dutelako (Fenton, 2004), edota sarriago Estatuak nagusi duen nazioarteko status quo arentzat mehatxu bezala. Ikuspegi estatozentrikoa nagusi izanik, gobernuak ez diren aktoreek aitzindari dituzten gatazkak, errekurso politiko, teknologiko edo militar gutxi erabiltzen dituztelako ez dute adituaren interesa harrapatzen (Gurr & Harff, 1994). Ondorioz ez dituzte aipatzen munduko mehatxuei buruzko zerrendetan. Edota aipatzen dituztenean beti Estatuaren ikuspegitik heltzen diote arazoari, horregatik interes gehiago dago independentzia eta Estatu berri baten sorrera helburu duten mugimendu etnonazionalistetan (Niezen, 2003). Laugarren Munduak, gatazka konponketarako bide baketsua erabiltzen dituztelako eta independentzia helburu ez dutelako ez dute horrenbesteko interesik erakartzen (Tulley 2002; Niezen 2003). Eragozpenak existitzen dira nazioarteko mugimendu berritzaile honen berezitasunak ondo harrapatzeko. Laugarren Munduak ukatu egiten ditu Estatu/Estatu gabekoa, subirano/ez subiranoa antzeko kategoriak, era berean

integratu egiten ditu autodeterminazioa bezalako XIX. mendeko printzipioak baina aldi berean Estatu independente baten eraikuntza ukatuz, ostera autodeterminazioa dauden Estatuaren barnean gauzatzeko apustua eginez. Proposamen hau interes handikoa deritzogu benetan nazio arteko harremanetan interesa duten guztientzako. Era berean jakin badakigu ere ez dela horren interesgarria izango Estatuaren arteko harremanetan adituak diren askorentzat, hauek estatozentrisismoaren gatibu izanik kezka handiz ikusten dutelako etnonazionalismoaren loratzea (Griffiths & Sullivan, 1997). Izan ere, ukazina da nazionalismoa, bere agerpen ezberdinetan, gora doan fenomeno dela, bai nazioarteko zein nazio barneko ikuspuntu batetik (Rule, 1992). Arrazoi hau dela eta, gure diziplinak ezin dio ikusezinarena egin. Horrexegatik herri indigenen nazioarteko harremanetan zein Zientzia Politikoetan duten presentzia eskasa oso kritikatu izan da, bereziki Laugarren Munduko kideen aldetik (Melody, Murdock & Wilmer 1994; Inayatullah & Blaney 2004). Egile hauek azpimarratu egin dute zientzia positibistatik esandako askok zama etnikoa dutela: hain zuen ere, salatu egiten dute Estatuak osotzen duten gizarte nagusiaren ikuspegitik menderakuntza etnikoa eragiten duten harremanak ez direla erakusten. Egoera honekin amaitzeko Laugarren Munduko herri indigenen ikuspegia txertatzea proposatzen du, eta bizitza politikoan, ekonomikoan, sozialean eta kulturean, menderakuntzazko eta bazterkeriazko esperientzietatik eraikitzea ikuspegi berri bat.

Zorionez, 80ko eta 90ko hamarkadetan gertaturiko eztabaida sakonek Estatuak aktore bakarra moduan zuen monopolioarekin apurtu dute, horrexegatik orain Estatuak ez diren beste aktore berrien existentzia onartzen delarik. Askotasun honen barruan Estatuaren arteko Nazioarteko Erakundeak (NZ), adibidez Europar Batasuna, Erakunde Transnazionalak (ET), Nazioarteko Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKE), askapen mugimenduak, Estatu gabeko nazioak, gutxiengo etnikoak eta herri indigenak, elkarteak¹⁷⁶ eta nazioartean ari diren gizabanakoak. Gaur egun onartu egiten da nazioarteko harremanak ez direla bakarrik Estatuaren artekoak eta beren monopolio hutsa. Soka honi jarraituz eskola ingelesaren ordezkaria den Bulleek gaur egungo gizarteak Erdi Aro berri baten antza duela diosku. Egoera berri honetan 1) Estatuaren integrazio erregionala, 2) Estatu batzuen zatiketa, 3) Bortxa pribatuaren indartzea 4) nazioarteko erakundeek duten indar berria eta handia (enpresak, GKEak, mugimendu politikoak, gizarte mugimenduak, etab. eta, azkenik 5) munduaren batasun teknologikoa. Ezaugarri hauek aitortzea Estatu kanpoko aktoreen garrantzia errekonozitzea suposatzen du, baita ere aktore hauek nazioarteko gizarteak bizi dituen aldaketa eta hausturak eragiteko duten garrantzia (en García Segura, 2005:63). Ibáñez-ek (2005:129), ildo berari jarraituz, nazioarteko gizarte post-internazionala den baten aurrean gaudela diosku

¹⁷⁶ Categoría honetan Der-Derian-ek "antidiplomacia" deitzen dituenak daude, eta hauei gehitu behar zaie elkarte profesionalak, interes ekonomikoa duten taldeak eta erakunde erlijiosoa.

V KAPITULUA:
ETXEAN PENTSATUZ MUNDUAN JOKATU: XX. MENDEKO NAZIOARTEKO
POLITIKAREN AKTORE BERRIA

...como el conjunto de relaciones sociales conformado por las interacciones que dan en el seno de la sociedad internacional de Estados y entre todos los actores de las relaciones internacionales gubernamentales y no gubernamentales, públicos y privados, según pautas de comportamiento orientadas a la preservación de objetivos elementales del orden social.

Beraz, nazioarteko gizarte heterogeneo, konplexu eta dinamiko baten aurrean gaude (Del Arenal, 2001-2002). Aldizkako ikuspegi hauen arabera nazioarteko gizartea Estatuaren arteko gizarte bat da, nazio arteko sistema politiko zabalago baten barruan dago eta honen eragina jasotzen du. Eragin hau harremanetan ez ezik nazioarteko ordenaren berrikuntzan eta eraikuntzan ere (Ohanyan, 2003) sumatuko da. Hurbilketa teoriko honek gaintitu egiten du lehenago nagusi zen nazioarteko harremanen eta harreman transnazionalen arteko haustura. Azken honek joera handia izan du ezkutatzeko gaur egungo nazioarteko gizartea eraikitzeko orduan gobernu kanpoko aktoreen eragina eta aktoretza (García Segura, 2005:65). Laugarren Munduaren kasuan gainera zentzu handiko galdera planteatzen digu: ¿Nola aurre egin Estatuaren subiranotasunari honek, subiranotasun printzipioari helduz giza eskubideen bortxaketa handiak egiten dituenen?.

Nazioarteko errealitate konplexu, aldakor, mugikor eta interdependenteari heltzeko hurbilketa berriek posible egiten dute Laugarren Munduaren azterketa. Laugarren Mundua indartzen ari den nazioarteko aktore berria da. Diskurtso anti-hegemonikoa sortzeko gaitasuna du, eta ahalegin honetan Estatuak duen toki zentrala, bere zilegitasuna, eta aldi berean, Estatuak osotzen duten nazioarteko zilegitasuna kuestionatzen du. Nazioarteko aktorea dela diogu bere ekimenak nazioartean, berarena den eragin eremu batean egiten dituelako (*issue arena*), eta hauek ondorio politiko ekonomiko, sozial edota kulturalak dituelako nazioarteko mailan. Honetaz gain, nazioarteko beste aktore politiko, ekonomiko, sozialek edota kulturek aitortu egiten dute aktore bezala eta errekonozitu bere honen izaera, ekimen ahalmena eta eragina (Del Arenal 2002; Barbe 2003). Jasotzen duen aitortpen hau irabazi egiten du Estatu ordezkariak euren kalkuluetan eta estrategietan sartzen dituztelako eta euren lana eragina duelako nazioarteko beste aktoreengan (García Segura, 2002). Azkenik, Laugarren Munduaren aurrean gaudelarik, nazioarteko gizartean aritzeko orduan autonomia handia duen aktore baten aurrean gaude. Hau horrela da berak kuestionatu egiten duelako nola galdu zuten euren subiranotasuna, lurraldeak eta nola txertatu zituzten gaur egungo Estatuetan, baita ere kuestionatu nazioartean oraintsu arte nagusi izan den ideologiak dioena: herri indigenen domestikazioa ona, ekindiezina eta aproposa dela hain zuzen.

Geuk Laugarren Mundua Estatu kanpoko nazioarteko aktorea dela baieztatzen dugu ala Ferguson-ek (1989 en García Segura, 2005) dioen bezala polity177 bat.

177 Idazle honek aktore kategoria Estatuarekin lotzen du eta aldatuta bezala polity erabiliko du. Polity bakoitzak badu nortasuna, instituzionalizazio maila bat, iherarkia eta helburu politikoak lortzeko mobilizazio eragiteko gaitasuna.

1. NAZIOARTEKO AKTOREA BERRIA: ¿PRE ALA POST MODERNOA?

Aurreko kapituluetan erakutsi dugun moduan, herri indigenen konkista eta kolonizazioa, bereziki XIX. y XX. gertaturikoa, herri indigenen “domestikazioa” (Martínez, 1999) ekarri zuen. Domestikazioak zera suposatzen du historian zehar hainbat hitzarmenetan nazio bezala aitortu ziren herriak, esate baterako Iroquesak, (Woo, 2003), nazioarteko agertokitik desagertu egiten direla (Anaya, 1996), eta Estutuen menpeko izatera pasatu. Hau prozesu konplexu eta etengabea da, gehien bat XIX. mendean gertatu zena, baina munduko herri indigenekiko diskurtso nagusi eta praktika nagusiaren parte izatera helduko dena XIX, (Tilley, 2002). XIX. mendean Ameriketako indigenei aplikaturiko estigma munduratu egiten da globaliza eta bihurtu egiten da orduko nazioarteko gizartean baztertzeko irizpide bat (Daes, 1996). Honen arabera erabateko aitortpen politikoa eta nazioarteko Zuzenbideak berari sor zaizkion onurak eta babesak bakarrik errekonozituko zaizkio “nazio zibilizatuei (Del Arenal, 2001-2002). Eskubide guztiak dituen “gizarte zibilizatu” eta ia eskubiderik gabeko munduko “basatien178” arteko hika-mika. Orain dagoen “West” eta okzidentalizaturiko Estatuena (193 estados), “Rest” (Laugarren Mundua eta gutxiengo nazionalak) aurka bertsiio aurreratu bat delakoaren aurka. Zibilizatu eta basatien arteko haustura erradikal hau herri indigenek pairatu duten nazio eraikuntza eta zabalkunde koloniala prozesuen mamian aurkituko da, baita hauei loturiko XX. mendeko garapen politiken barruan. Halaber II. Mundu Gerraren nazioarteko gizartearen muinean aurkituko dugu. Guda osteko deskolonizazioak mugari historiko bat ezarri zuen, neurri batean Estatuena nazioarteko gizartearen humanizazioa eta unibertsalizazioa gertatuko da179.

Gure ustez aipaturiko unibertsaltasuna hau ez da ez zuzena ez osoa, Estatuak bakarrik hartzen dituelako aintzat. Estatuena ordena da, Estatuak sortua Estatuentzako, eta Estatuak jarraitzen du erreferentzi nagusia izaten. Laugarren Munduaren agerpena Estatu eta Estatu gabeko herri indigenen arteko berdintasun, diskriminazio ezaren printzipioak jartzen ditu mahai gainean. Era honetan gaur egungo nazioarteko gizarte heterogeneo eta konplexua gertuago egongo litzateke aldarrikatu duten unibertsaltasun erreala horretatik. Hau da nazioarteko gizartearen unibertsalizazioa Laugarren Munduak bere deskolonizazioa burutu eta nazioartean toki propioa lortzen duenean gertatuko da.

Gauzak horrela, Laugarren Munduaren existentziak arazo interesgarri bat planteatzen

178 Klasiifikazio honetan egon badaude tarteko egoera batean dauden “barbaroak” hauek izando dituzte tribua baino landuago diren egiturak eta kristau zibilizaziotik at daude, baina Nazioarteko Zuzenbideak onartu ziren aitortpen partzial bat. Basatien aldiz euren gizatasunarekin loturiko aitortpena egiten zitzaizkien eta gizatasun printzipioei lotu, baina ez dute Nazioarteko Zuzenbide Postibioaren aldetik ezer lortuko

179 Del Arenal unibertsaltasunaz hitz egin daitekeela dio zeren eta: “por cuanto que han desaparecido los estándares de civilización que tradicionalmente han discriminado las relaciones entre distintos pueblos y unidades políticas y hoy todos los Estados son en principio soberanos y como tales se rigen por el principio de igualdad jurídica, estando sometidos a un Derecho internacional igualmente universal, que es aceptado por la práctica totalidad de los Estados” (Ibid.50)

digu herri indigenen nazio aktoretzari buruz: “agertu berri diren aktore berriak” ala “itzuli diren aspaldiko aktoreak”. Beste kasuetan ez bezala Laugarren Mundua osotzen duten herri asko iraganean gizarte osoak eta independenteak ziren, euren gobernu egitura propioak zituzten, lurralde zehatz eta populazio jakin batekin, eta izan bazuten, ongi erabili zutelako “Estatu Zibilizatuekin” nazioarteko harremanak izateko gaitasuna. Baina, Estatuak eragindako domestikazioa zein euren borondatez soilik inposaturiko “nazio independenteak” kategoria indargabetzeko ahaleginak, nahiko al dira euren izate politikoa eta historikoa desagerrarazteko? Eta izate horri dagozkion eskubideak indargabetzeko? Geuk ezetz uste dugu, eta horrekin bat egiten dugu herri indigena askorekin eta Laugarren Munduarekin.

Nazioarteko gizarteari buruz eta berorren zilegitasun eta moralitasunari buruz planteatzen zaizkigun galdera hauek munduko elite guztiek erdietsi nahi duten modernitate, aurrerakuntza eta justizia gaurko egunean nola gauzatzen diren birpentsatzera garamatza. Laugarren Munduak helburu duen basatiaren gizatasuna interpelatu egiten gaitu, argi erakutsiz beharrezkoa dela nazioarteko ordenaren eta justiziaren artean oreka ezartzea (Martínez Bringas, 2006). Garcia Segura-k (2005:65) honako hau funtsezko gaia dela diosku.

un orden que perpetúe la injusticia sólo será estable a través de la coerción y se convertirá no sólo en hegemónico sino en totalitario. Un orden que se imponga a la justicia- además de imponer el Estado como actor y la soberanía como principio- será una fuente de problemas más que una solución para los problemas del siglo XXI”

Justiziak nazioarteko sisteman duen garrantziaren aldeko aldarrikapen honek bidea zabaltzen dio hurbilketa berri eta kritikoei. Sistema hobetuko duen honelakoen beharra defendatzen du Del Arenal-ek (2002).

...debemos empezar a pensar e interpretar la sociedad mundial en términos diferentes a los dominantes hasta ahora, lo que supone elaborar nuevas teorías explicativas de esta sociedad mundial y de los fenómenos internacionales que la caracterizan, capaces no sólo de darnos una explicación coherente de los mismos, sino también de ofrecer soluciones a los problemas de esa sociedad mundial” (Ibid:82).

Beraz, testuinguru honetan baieztatzen dugu Laugarren Munduaren garrantzia, bera nazioarteko aktore berriak izanik inportantzia handiagoa duelako gaur egungo nazioarteko gizartea hobetzeko egindako kontribuzio kritikoaren bidez. Berak egindako kritika Del Arenal-ek (2002) esandako ildoari jarraitzen dio, argi erakutsiz gaur egungo sistemak bere barnean duen injustizia, esklusioa eta dependentzia.

Gure iritziz herri indigenek pairaturiko okupazioa eta domestikazioa ez du suposatzen euren desagertzea entitate subiranoak bezala, eurek ez dutelako amorarik eman eta erresistentzian jarraitu dutelako, nahiz eta nazioarteko gizartean ikusezinak bihurtu. Beraz, aktore pre-post moderno baten itzuleraren aurrean gaude, ala, benetan aktore berri baten agerpenaren aurrean?. Biak elkartzen dira Laugarren Munduaren baitan, baina mugimendu honetan ez gaude herri indigena batek indibidualki egindako saio baten aurrean, 1923ko Iroquesen kasuan legez, ez

, kasu honetan aktore izaera pan-indigena duen aktore kolektibo berri baten aurrean gaude. Honek esperientzi indigena mundu mailan zabaldu du, indigenak bizi direneko Estatuaren zilegitasuna kolokan jarritz, eta, aldi berean, nazioarteko erkidegoarena.

1.1 PARADIPLOMACIA INDIGENA

Nazioartean diplomazia klasikoa praktikatzen duten aktore westfalianoak aritzen diren aktoreen berrien existentziak hauek burutzen duten ekintza motaren izena planteatzera garamatza.

Gure proposamena paradiploMACIA hitza erabiltzea da, nahiz eta jakin oso eztabaidatua izan den izena dela, eta deitura honen azpian aktore askotasun ikaragarri dagoela, bertan biltzen direlarik Estatuak ez diren asko eta asko. Soldatos-en arabera (Aguirrek aipa, 2003:207) paradiploMACIAk paraleloari, konplementarioa denari, batzutan Estatuaren diplomazioarekin topo egiten duenari erreferentzia egiten dio. Izen hau 80ko hamarkadan agertu zen

...por la crisis político-institucional de los Estados federales, de globalización económica, de cada vez mayor interdependencia en la relaciones internacionales y de descentralización de la acción exterior (Aguirre, 2003:228).

Izendapenak duen kutsu paralelo honek sortzen du kezka eta kontzeptuaren bikoiztasuna salatzen duten eztabaidak sortu ditu. Honek bere esanahiaren egiazkotasuna planteatzera garamatza. Argitzeko behar hau are nabariagoa egingo zaigu paradiploMACIAri buruzko bibliografia gehiena Gobernu Zentral ez diren Gobernuetan zentratzen delako, eta sistema federalei egiten dienean erreferentzia (Canadá, EEUU, México, Alemania etc.), gehien bat nazioarteko sistemari dagokion neurrian sistema hauetan gobernu zentralen eta periferikoen artean sorturiko tentsioak aztertuz (Cornago 1999; Keatin 1999; Aldecoa 1999). Kritika gehienak dauden kasuetan azpimarratu egiten duten aktore zentral hauek gobernuak ez direnik. Gehienetan ez dagoelako Estatuaren gobernuarekin benetako gatazkarik, salbuespena Québec izanik. Estatuari egindako erreferentzia hau Soldatos eta Dechaceken lanetan era aurkitzen da. Egile hauen aburuz paradiploMACIAk nazioarteko ekimen deszentralizatu bati egiten dio erreferentzia. Hau ona, osagarria eta Estatuarentzat arrisku gabea litzateke. Ostera eurek onartzen dute beste ekimen bat dagoela, deszentralizatua izanik ere, gatazka sorburua eta Estatuarentzat arriskutsua dena, azken honi protodiplomazia deitu diote. Honek independentzia izango luke helburua. Argi dakusagunez berriz ere aktore diplomatikoen ekimena baldintzatzen duen erreferentziako kontzeptu bezala.

ParadiploMACIA Estatuari lotuta ez dagoela dioten kritikoen artean Der Derian-ek (1987) ondokoa diosku: gobernu kanpoko eta paraleloa dela Estatuaren diplomaziarekin aldentuz gero. Bere iritziz nazioartean buruturiko ekimen mota hau Estatuak ez diren aktoreek burutzen dute. Kategoria honetan nazioarteko enpresak, langileen nazioarteko erakundeak, erkidego etnikoak, linguistiko eta erlijiosoak. GKEk, nazioarteko komunikabideak, zientzialarien sareak eta gizabanakoak sartzen dira. Aktore hauek bitartekaritza burutzen duten elkarrengandik urrun

dauden errealitateen artean (*estranged*). Gainera honek ez du Soldatos eta Dechacek-en protodiplomaziak duen kutsu subertsiboa, ez baitute helburutzat diplomazia eta nazioarteko ordenuaren eraldatzea. Baltasar-ek (1999) bat dator planteamendu honekin, eta azpimarratu egiten du paradiplomazia eta protodiplomazia bereizteko beharra, baita ere diplomazioa mota honek duen garrantzia aitortzea subiranoa ez den entitate batek ez baitu Estatu subirano osoa helburu.

Guzti hau esan ondoren, uste dugu paradiplomazia dela izendapenik egokiena. Laugarren Mundua ez baita gobernuaren egituraren zati eta aktore berria dugulako, batzuetan gatazkan baina gehienetan osagarria den ekimena deskribatuz. Aguirre-k (2003:221) bat egiten du ikuspuntu honekin eta zera baieztatu Laugarren Mundua/Herri Indigenak paradiplomazioa kasu garbi-garbia dela

...la paradiplomacia indigena, el conjunto de acciones ejercidas internacionalmente y protagonizadas por los PIs... la estructura organizativa del movimiento no se basa fundamentalmente en el carácter gubernamental o administrativo que puedan tener algunas comunidades.

Aguirrek ondo esan duen bezala Laugarren Munduaren parte diren gobernu batzuen papera oso inportantea da, esate baterako Nunavuut, edota Groelandia, edota aipaturiko Liga Iroquesarena. Hala ere, hauek ez duten Laugarren Munduaren nortasuna, agenda ala ekimena baldintzatzen. Horrexegatik esan daiteke Laugarren Mundua dela mugazgandiko mugimendua, pan-indigena, berria, izaera erreformista duena, paradiplomatikoa eta ez protodiplomatikoa, eta aktore ezberdinekin harremanak mantentzen dituen

individuos y Estados, sociedades civiles y organizaciones intergubernamentales internacionales (OIGs), entre intereses corporativos privados e intereses públicos internacionales, entre artistas e intelectuales de prestigio internacional y formuladores tecnoburocráticos de la política exterior, entre científicos en general y opinión pública internacional (Ibid.)

Izan ere, “gobernuaren ez den diplomazia” da , batzuetan Estaturen gobernuarekin aritzen dena, beste batzuetan Gobernu ez Zentralekin: hau da harreman biziak mantentzen ditu nazioarteko gizarte zibilaren kideekin, eurengan ondorioak dituzten gaiak tratatzen dituzten nazioarteko erakundeetan, enbaxadekin sarritan kontaktuak dituzte, eta nazioartean propaganda zabaltzen dute Laugarren Munduaren errealitatea eta arazoak erakutsiz. Guzti hau egiten dute giza eskubideen babes erregimen bat erdiesteko eta nazioarteko gizarteak kide bezala errekonozitua izateko.

Hau esan ondoren argi utzi behar dugu, Laugarren Munduak sarritan erabili dituela Estaturen sinboloak eta berorren propioak diren diskurtsoak (herri berezi batzuen ordezkariak, gainera kasu batzuetan errekonozituak zirenak), baita diplomaziarenak (berezko pasaporteak, aldarrikaturiko hitzarmenak). Niezen-ek (2003) honelako berezitasunak azpimarratzen ditu, ezen hauek nazioarteko beste aktore batzuegandik bereizten baitute Laugarren Mundua.

2. LAUGARREN MUNDUA: PARADIPLOMAZIA INDIGENAREN SORRERA

Herri indigenek kolonialismoaren aurkako erresistentzia modu ezberdinak erabili egin dituzte: negoziazioa, hitzarmenak ala borroka armatua egoera eta garai ezberdinetan erabilitako bitartekoak izan dira gailentzen zitzaizen sistemari aurre egin asmoz (Lips, 1937). Hala ere, 1970tik aurrera herri indigenek gai izan dira erresistentzi estrategia berria eta konplexua diseinatzeko euren borroka eta eskaerak nazioartekora eramanez. Iraganean ez bezala aurrean zuten mehatxua ondo ulertu eta honi aurre egiteko gai zen estregia prestatu dute. Halaber, nazioarteko mugimendu pan-indigena sortu dute Estatu sistema eta globalizazio harrapakeriari aurre egin ahal izateko. Ahalegin honetan bere burua Laugarren Mundua bezala aurkezten duen nazioarteko aktore berri bat eratu dute. Mugimendu honek munduan dauden 300 milioi indigenen ahotsa ordezkatzeko du.

Estatuak nagusi dituen nazioarteko erkidegoak Estatu gabeko herri indigenekiko jarrera aldatu du. Era berean nazioarteko erkidegoak Estatu gabeko nazioen kontribuzioa munduko aniztasun kulturala eta biologikoa defendatzeko orduan aitortu eta partaidetza eremuak zabaldu dizkio herri indigenei. Aitorpen hau azken hiru hamarkadetan herri indigenek buruturiko nazioarteko mobilizazioaren ondorio da. Mobilizazio honek nazioarteko erakundeek, mota guzietako aktore ez gubernamentalek eta Estatuak indigenei zituzten jarrera, joerak eta jokaerak aldatzera eraman ditu. Prozesu hau ezer gutxi estudiatu da nazioarteko harremanen kasuan.

Herri indigenek tokian tokiko zein nazioarteko mobilizazioen bidez globalismo harrapakeriaren aurkako borroka burutu dute. Herri indigenen mobilizazioa historikoki euren aurka arituriko etnokraziaren aurkako erresistentzi mugimendua da. Kolonialismoarekin loturiko Estatu-eraikuntzaren zein garapen prozesuen biktimen erantzuna hain zuzen (Arregi, 1993). Laugarren Mundua mendetasunezko errealitatea aldatu eta modernotasunaren onura aprobetxatu nahi duen prozesua bezala ulertu behar dugu

...the hardest task in the struggle for the Fourth World is to learn to produce a new reality that reconstructs a tradition in which people can hold common beliefs, and which uses all the benefits of a global technology (Manuel, 1974:245).

Era berean behialako “*mutual dependence*” egoera batetara itzuli nahi du horrela herrien arteko elkarriketa eta errespetua berreskuratuz.

This was the period of mutual dependence for that part of the world, when both Europeans and North Americans believed themselves to be benefiting from an exchange which allowed both cultures to better meet their own needs (Ibid.:17).

Euren kasuan globalizazioaren (mundu mailako integrazioa) eta lokalismoaren (kultur ezberdintasuna mantentzen duen espazioa) arteko tentsioak eta botere borrokek ikus daitezke.

Indigenek beren nazioarteko presentzia posiblea egiteko bultzaturiko Laugarren

V KAPITULUA:
ETXEAN PENTSATUZ MUNDUAN JOKATU: XX. MENDEKO NAZIOARTEKO
POLITIKAREN AKTORE BERRIA

Munduak, ideologian eta praktika politikoan, globalismo¹⁸⁰ solidarioa¹⁸¹ bultzatuz, bat egin du globalismo gizatiarra defendatzen duten indarrekin. Laugarren Munduak, nazioarteko presentziaren bidez, munduko indigenen nazio eta herri izaeraren aitortzea zein autodeterminazioa errebindikatzen ditu. Era berean, beren aniztasun kultural eta politikoaren defentsa; berdintasuna, justizia eta elkartasuna eskuratzeko helburuak ditu ere. Gainera, gaitasun handia erakutsi du globalizazio harrapakariaren biktima diren indigenen kontzientzi komuna sortzeko eta ekintza bateratu batetara eramateko. Honegatik, herri indigenak XX. mendeko azken 30 urteetan nazioarteko zein Estatu barneko garrantzi handiko aktore politikoak bihurtu dira (Nieven 2003; Keal 2003; Gonzalez 1998; Stavenhagen 1997; Burger 2006, Noguerol 1997; Gutierrez 1992).

Munduko herri indigenak eta Estatu gabeko nazioak¹⁸² bateratu nahi duen “Laugarren Mundua” ¹⁸³ nazioarteko mugimendu berria da (Seton, 1999:NET). Autoidentifikazioari eta maila lokalean gertaturiko erresistentzia prozesuei garrantzia ematen die. Seton-ek (1999) eta Pino-Roblesek (2002) defendatu egiten dute nazioarteko aktore politiko berri hau ondo ulertzeko, errealitate honi ondo moldaturiko marko teoriko berri bat behar dela. Laugarren Munduaren teoria izendatu duten ikerketa berri honen bidez makro eta mikro politikaren arteko harremanak eta aniztasunez beteriko erresistentzia prozesuak estudiatu daitezke herri indigenen

¹⁸⁰ Ekintza globala diogu bertan maila globalean hasitako prozesuak eta aktoreak maila lokalarekin elkartu, nahastu eta elkarrengaitan aritu direlako. Kasu honetan maila lokaleko aktoreak nazioartekotasunetik errotirako arazoei aurre egin beharko diete, eta honetarako eskuragarri dituzten estrategia eta baliabide guztiak erabiliko dituzte. Errexitentziarako saiakerak honetan nazioarteko laguntza eskuratzeko eta arazoei ahalik eta ikusgarritasun gehien ematea da jorratzen diren alorretariko bat. Paradiplomazia Laugarren Munduko herriek XX. mendean planteaturiko borroka globalaren ezaugarri bat da eta nazioarteko aktoreekin izandako kontaktuak, bidaiak, komunikabideetan egindako agerpenak erabili egin dituzte indigenak (Burger,1990). Gainera globaltasun hau behetik-gorako fenomeno da. Kontzeptu hau ekonomia globalean erabili da eta multinazionalen ala nazioarteko aktoreen politikak maila lokalean sorturiko errealitateaz hitz egiteko baina Laugarren Munduak planteaturiko kasuak goitik-beherako globaltasunari erantzun egiten dio eta alternatiba egin. 1970an ekologistek erabilitako "think global act local" leloa orain 90ko hamarkadan "etxean eta munduan pentsatuz bietan jokatu" bihurtu dute eredu indigenek. Eredu honek globalismo solidarioa bultzatzen du eta gai da gizarte zibilaren mundu mailako sistema berria eskatzen duten indarrek bat egiteko, hots, Seattle ala Chiapas-eko kasuek erakusten duten bezalaxe. Esperientzia honek gaur egun dugu nazioarteko erkidegoari baztertuen boza ekarri eta aniztasunaren errendoa planteatzen die.

¹⁸¹ Jesus Alemanian-ekin, Parlamentu Kunako teknikariarekin 1999an Valentzian izandako elkarrizketa batean indigenak eurentzat eskatzen dutena munduko herri guztientzat eskatzen dutela esan zidan. Gainera jakin badakite euren herrietan jokoan dauden auziak munduko beste askorentzat inportanteak direla. Zentzu honetan kontzientzia globalista ikaragarria dute. Bere ustez globalismoaren oinarrian lokalismo solidarioak daude. Egoera eta borroka lokal askoren arteko harreman sistemoan aurkituko dugu indigenek eta bere laguntzaileek ehunduriko elkartasun sare globala. Euren borrokaren globalismoan mila borroka lokalen arteko elkartasuna aurkituko dugu beraz.

¹⁸² Tesis honetarako Laugarren Mundua erabiltzen dugunean herri indigenei soilik erreferitzeko erabiliko dugu eta kanpoan utziko ditugu Estatu gabeko nazioak ala nazio-herriak. Baita ere Laugarren Mundua zentzu ekonomikoan ulertu dituzten egileak. Are gehiago Laugarren Mundua herri indigenek HIKE burutzeko erabiltzen duten nortasun eta praktika pan-indigenari erreferitzeko erabiliko dugu eta ez tokian tokiko mobilizazioaz hitz egiteko. Maila honetan herri indigena zehatzet mintzatu beharko ginatke eta honek gure tesiaren helburuen gainetik dago. Dena dela, gure ustez Laugarren Munduaren interpretazioa zentzu zabalean nazio eta herri indigenak besarkatuko litzuzke bere baitan. 1993an Glen Morris-ekin Iowako Unibertsitatean izandako elkarrizketa batean “we indigenous peoples” eta “you nation peoples” erabili zuen. Geuk ontzat ematen dugu bereizketa hau ez baitugu uste euskaldunok Europako indigenak Manuel-en sentuan garenik, Europako herri zaharrena baizik. Seton (1999), Ryser (1992) edo Nietzsche (1985)-ek herri indigena eta nazio herrien arteko elkarrengaitaren garrantzia planteatzen badute ere argi utzi behar dugu aktore ezberdinak direla. Manueken definizioari atxikisuz, ez dugu uste Euskaldunak indigenak garenik ez baitugu izadiarekin herri indigenek duten harremana eta gure ekonomia zeharo industrial delako. Manueken definizio honek, kapitulu honen 13 orrian dagoena, kanpoan utziko gaitu eta gure ustez euskaldunak beste munduei egotzitako portaerarekin zer ikusirik gehiago dugu. Hala ere, Laugarren Munduaren teoriak nazio eta indigenak herrien arteko elkarrengaiterako markoa eskaintzen du. Elkarlana garapen gaietan ez ezik maila politikoan eta nazioarteko politikan eman daitekeela uste dugu. Definizio ezberdin hauetaz jabetzeko bide Griggs (1992) eta Satyendra (2006).

¹⁸³ Chief Manuel-ek 1974an aurkezturiko kontzeptu honek gure nazioarteko analisiaren aldaketa burutzera eramaten gaitu. Nazioarteko bibliografian azken 50 urteetan nagusi izan den Hiru Munduen existentziari “Laugarren” hau lotu beharko diogu. Laugarren mundu honetan herri indigenak aurreko munduak osotzen duten Estatuon barruan bizi direnak ditugu. Herri hauek Naturarekin harreman berezia izango dute eta euren subiranotasuna eta iraupen kulturala erdiesteko autodeterminazioaren beharra defendatzen dute (Seton,1999:NET). Mehatxu pean bizi diren kulturen arteko elkartasuna eta autodeterminazioaren helburua da konpartitzen dutena eta helburu hauek erdiesteko nazioartekora joko dute indigena eta ez indigenentzat mundu justuago bat egin asmoz. Paradiplomazia “Laugarren Munduak” nazioarteko erkidegoan merezi duen tokia erdiesteko tresna izango da.

ikuspegitik¹⁸⁴. Jarrera honek aldizkako bide bat eskaintzen digu gatazka etnikoak aztertzeke saioan ikuspegi Estatzentrikoak nagusi ditugulako nonahi (Connor, 1983).

Kapitulu honetan Herri Indigenen Kanpo Ekintzak (HIKE) lorturiko arrakasten historia labor bat egingo dugu¹⁸⁵. Historia honekin garbi utzi nahi dugu HIKE kode etnikoan egindako mundu mailako mugimendu originala dela. Munduko indigenak osotzen duten Laugarren Munduaren existentzia defendatuz, aktore berri baten presentzia azpimarratu nahi dugu.

3. KANPOKO EKINTZA INDIGENA XX. MENDEAN. HISTORIA LABURRA

3.1 AURREKARIAK

Nazioarteko joko politikoak aspaldidanik baldintzatu ditu herri indigenen eguneroko errealitatea eta jokaera. Europarrek suposatzen zuten mehatxuari aurre egiteko herri indigenen arteko batasuna ezinbestekotzat zela aurreikusten zutenen artean Miantomonoren kasua dugu aipagai. Berak argi asko ikusi zuen herri eta kultur iraupena lurraldearen gaineko kontrolari lotuta zegoela eta horretan zetzala europarrekin izandako gatazka.

The Indian response to English land hunger was a shrewd mixture of economic self-interest and cultural adjustment, but was ultimately expressed as political resistance. They did so by forging new alliances with other Indian (and European) groups, responding with great creativity to the new diplomatic circumstances in which they found themselves. Miantomono...to argue for the necessity of a new Indian unity to match that of the English: "for so" he said "are the Indians as the English are, and say brother to one another; so must we be one as they are, otherwise we shall be all gone shortly" (Cronon, 1983:163).

Diplomazia indigenaren adibideak Ipar Ameriketara XVIII. mendean gertaturiko Frantses eta Ingelesen arteko gerletan aurkitu dezakegu aisa (Dowd, 2005). Garai hauetan Irokesekek lortu egin zuten nazio tratamendua izatea eta XVIII. mendean sarritan joan ziren Paris ala Londonera diplomazia egitera (Schneider & Furmanski 1992; Cooper 2004). Ana Erreginarekin (1710) George II. (1730) eta George III (1762) bildu eta eurekin bakezko eta anaitasunezko itunak sinatu zituzten (Dowd, 2005). Errepublika berriak sortu aurreko garai honetan aipamena merezi du Pontiac-en kasua, bera saiatu baitzen mugimendu pan-indigena bat sortzen kolonizatzaileei aurre egin ahal izateko (Middleton, 2006)

¹⁸⁴ Teoria kritikoak eta World System teoriak erabilitako zentro-periferia analisiak inportanteak badira barne-kolonialismoa aztertzeke ez zaigu nahikoa iruditzen; gai ekonomikoak inportanteak izanik balore ekonomikoa ez duten auziak garrantzi handikoak direlako herri indigenentzat. Mundializazio ekonomikoa nagusi den une honetan herri indigenen borroka balore ez ekonomikoaren garrantzia eta beren aldeko borroka planteatzen digu. Bizitza, herrien eta kulturen balioa termino ekonomikoetan kontsideratzen duen globalizazio harrapakeriaren aurkako mugimendu alternatiboa dugu Laugarren Mundua. Laugarren Munduaren teoria hurbilago dago botere-gatazka modelotatik (Feagin, 1980). Modelo honetan botere harremanari eta honen ondorioz sorturiko gizarte sailkapen ekonomikoari emango zaio garrantzia. Bide Blauer (1972)

¹⁸⁵ Historia laburra bada ere mundu mailako ikuspegia eskaini nahi dugu Laugarren Munduak egiten duen mundu mailako apustua ikus dadin. Gainera, herri indigenen mobilizazioaren historia egiteke dago eta dagoena Estatu ala erregio mailan egindako historia dugu. Inoiz gutxi agertzen zaigu nazioarteko ekintza komunaren eta bere aktoreen historia. Are gehiago, Estatu espainolean herri indigenei buruz nagusi dugun bibliografia antropologian ala historian aurkitzen du bere iturria eta Latino Amerikako herri indigenei buruzkoa dugu. Hau dela eta, guretzat indigenen auzia kolonialismo historikoarekin loturikoa da. Inoiz gutxitan agertzen dira Europa (Samiak eta Groenlandiako Inuitak), Afrika, Ozeania ala Asiako herriak indigenak bezala deskribatuta eta, bai, aldi tribuak bezala. Geuk joera honekin apurtu eta egon badagoela nazioarteko eta mundu mailako den mobilizazio indigena erakutsi nahi dugu. Gure ustez egiteko dago nazioarteko prozesu nagusien historia eta baita NBERen mailan gertatutakoaren historia non gertaturiko prozesuen, tentsioak eta protagonista agertzen diren.

3. kapituluan aipatu dugu bezalaxe AEBko errepublikaren sorrera Britaina Handiak sinaturiko hitzarmenen indargabetzea ekarri zuen. Britainiarren alde eta estatu berriaren aurka borrokatu zirenen artean eta pan-indigenismoaren aurrekaria dugu Tecumseh-ren¹⁸⁶ (1768-1813), Shawneen aitzindaria. Tecumseh-ek XIX. mendearen lehen urteetan euro-amerikanoei aurre egiteko konfederazio indigena zabala egiteko proposamena egin eta helburu honi dedikatu zion bizitza¹⁸⁷. Genozidioaren salaketa eta pan-indigenismoaren aurrekaria den diskurtsoa antzeman daiteke¹⁸⁸ hurrengo aipamenean.

Where are the Pequot? Where are the Narragansett, the Mohican, the Pokanoket and many other once powerful tribes of our people? They have vanished before the avarice and the oppression of the White Man, as snow before the summer sun.

Will we let ourselves be destroyed in our turn without a struggle, give up our homes, our country bequeathed to us by the Great Spirit, the graves of our dead and everything that is dear and sacred to us? I know you will cry with me, "Never!Never!" (Brown, 1970:1).

Nazioarteko ikuspuntu batetik hau da erkidego pan-indigena sortzeko aurrekaririk interesgarriena. Tecumseh bateratu egin baitzituen euro-amerikanoen aurre egiteak sorturiko genozidioa eta honi aurre egiteko aliantza pan-indigena sortzeko beharra. Gainera, Britainia Handiarekin elkartu zen EABren aurka egiteko 1812ko gudan. Bere asmoak aurrera egin izan balu honek suposatuko zezakeen EAB erdi-ekialdean Estatu indigena baten sorrera (Hall, 2003) baina britainiarren traizioak ezinezkoa egin zuen asmo hau. Tecumseh-ren oroimena AEBko indigenentzat Laugarren Mundukoentzat erreferentzi bat da.

Geroxeago egon egon ziren erresistentzia pan-indigena, gehien bat arlo militarrean, eragiteko saiakerak Tatankaiotanka (Zezen Eseria) eta Tasunka Witko (Zaldi Zoroa), aitzindariak izanik Little Big Horn-eko garaipena erdietsi zen baina ezin izan zuten 3. kapituluan deskribatu dugun domestikazio prozesua saihestu (Wilmer, 1993).

3.1.1 Birrinduriko Ahalegin Konstituzionalistak

Herri indigenak XIX. mendean Ameriketako egitura politikoak eta gizabanakoen bihotzak harrotzen zituen ideologi liberaletik kanpo gelditu zirela pentsatzeak errakuntza

¹⁸⁶ Zalantzarik gabe Tecumseh dugu aparteko pertsonaia konfederazio edo mugimendu pan-indigena sendoa eraikitzeke egindako ahaleginagatik. Antzindari honek ondo ezagutzen zuen zurien gizartea eta bere asmoa izan zen Estatu indigena bat eraikitzea. Tecumseh-ren asmo honek gainditu egiten zuen Pontiac ala Little Turtle-k lehenago osoturiko aliantza militar pan-indigenen planteamendua. Bere ideia Amerikarren eta Kanadako Britainarren arteko Estatu tapoia sortzea zen. Horretarako beste nazio indigenekin kontaktuan jarri eta ingelesez aliatua izan zen 1812ko Amerikarren aurkako gerlan. Tecumseh-ren apostuaren funtsean Britaina eta AEB arteko gerlaren ekidinezintasuna zegoen. Zoritxarrez 1795ko Jay-ko tratatua sinatu ondoren ingelesek argi utzi zuten indigenak apoiatzeko politika amaitua zela. Hau horrela izan zen zen 1812ko gerlan eta Tecumseh bakarrik utzi zuten. Aliatuak EABren armaden esku gelditu ziren eta ez zitzaizkien ezinbestekoa zen hornizio eta laguntza eman. Horrela amaitu zen Ipar Amerikan Estatu indigena eraikitzeke ahalegin hau. Ipar Ameriketako indigenentzat Tecumseh-ren oroimena eta bere batasun pan-indigenaren aldeko deialdia indarrean dirau eta zalantzarik gabe mugimendu pan-indigenaren imaginario simboliko-politikoan toki berezia du.

¹⁸⁷ Bere asmoa eta herri indigenen defentsa sutsua egungo mugimendu indigenentzat inspirazioa izaten jarraitzen du eta lortezinezko batasun pan-indigenaren ikurra bihurtu da.

¹⁸⁸ Mezu honetan aipatutakoak gaurkotasuna handikoak izaten jarraitzen dute XX. mendean petrolio ala beste mineralen bila doazen multinazionalak aurrean dituzten herri indigenentzat. Genozidio, etnozidio eta ekozidioa XIX mendean zein XX.enean auzi nagusiak dira herri indigenentzat eta euren mobilizazioaren azpian aurkituko ditugu han eta hemen.

litzateke. Azken bolada honetan herri indigenek AEBko Konstituzioan izandako eragina aipatu egin dute hainbat egileek (Johansen, 1982; Lowi & Ginsberg 1990). Indarrean zeuden ideiak eta prozesuak ezagutz189 egon egon ziren euren subiranotasuna bitarteko berriekin defendatzeko ahalegin indigenak.

Mendebaldeko herriekin lehenengo kontaktuak gertatu ondoren egon ziren euro-amerikarrak euren modua ulertzera eta errespetatzera helduko ez zela ikusirik, euren ohiko moduak aldatzeari ekin ziotenak. Aldaketa honetan euren jokabideak eta gizarte egitura batzuk moldatu egin ziren euro-amerikarrenak islatu nahian. Adibide aipagarriena Nazio Zibilizatuek190 protagonizaturikoa da. Hauen artean Txerokiek idatziriko konstituzioa dugu, zegozkien subiranotasuna eta herri eskubideak defendatzeko idatzi zena.

Considerando que nuestros Padres han existido, como Nación separada y distinta, en posesión y ejercicio de las esenciales y adecuados atributos de la soberanía, desde un periodo que se extiende hasta la antigüedad, más allá de los registros y la memoria del hombre....Nosotros el pueblo....por la presente acordamos solemne y mutuamente integrarnos en un solo cuerpo político al modo y con el título de Nación Cherokee (Wright, 1994:349).

Konstituzio honetan ohiko lege zaharraren inspirazioa eta herri indigenen marka zen naturarekiko harremana aurkitu daitezke bere muinean

Esta constitución como su predecesora de 1827, tomó bastante de prestado de la de Estados Unidos, pero permaneció fiel a un principio fundamental de la América precolombina: la tierra seguía siendo patrimonio común de la nación; los individuos sólo poseían sus bienes, casas y mejoras (Ibid.).

Printzipio hau horrela agertzen da eurek jakin bazekitelako natura eta lurraldearekin zuten harremanaren iraupena zela hil ala biziko borroka bat. Azkenean kultura eta herri bezala bizirik irauteko konstituzioa idazteaz gain, hezkuntza sistema publikoa eta gobernu egitura liberalari jarraitzen zioten egitura garatu zituzten.

Desde 1827 hasta la supuesta disolución de la nación cheroqui en 1906 los desarrollos constitucionales se produjeron como cabía esperar. Después de la guerra civil, los cheroquies crearon un amplio e impresionante sistema de enseñanza pública. Se organizaron en una pequeña república y mantuvieron una cámara legislativa, tribunales y una rama ejecutiva hasta que el gobierno federal intervino y abolió las instituciones (Gutierrez, 1992:25).

Indigenen ahalegina ez zetozen bat Amerikarren indigenen lurak konkistatzeko zuten asmoekin. Gauzak horrela herri zibilizatu bezala kontsideratua izateko egindako ahalegin honek ez zuen aldeko jarrerarik aurkitu, indigenak ez baitziren “ganorazko errepublikak” kontsideratzen (Watson, 1992). Azkenean AEBko gobernuak lurak kendu eta nazio txerokiak eraikitako hezkuntza publikoa bermatzen zuen egitura eta berezko sistema politikoa birrinduz, historiaren orrietatik erauzi egin zuten.

1871an AEBk herri indigenak nazioak zirela onartzen zuten hitzarmenen sinadurari

189 Garai berrietara moldatzeko gaitasunaren lekuko dugu Sequoyah-ren kasua. Txeroki honek alfabeto bat asmatu zuen eta hura izan zen jatorri europarra ez zuen lehenengo alfabetoa Iparraldean. Txerokiek euren tradizioak eta medikuek erabiltzen zuten jakinduria gordetzeko. bide Sturtevant (1991).

190 Cherokee, Choctaw, Chickasaws, Creeks, eta Seminole ziren konfederazio hau osotzen zuten nazioek

amaiera eman zion. 1778tik 1871ra bitartean sinaturiko hitzarmenak nazioartekoak izateari utzi zioten (Wilmer 1993, Martínez 1999, Minde 1995), AEBren ustez.

4. XX MENDEAN: HERRI INDIGENAK IRAUTEKO BORROKAN

XIX. mendearen amaieran eta XX. gizaldiaren hasieran ikusiko ditugu euren egoera zuzentzeko nazioartera jotzeko lehenengo ahaleginak. Sanders-ek (1980), dioskunez Maoriek 1882, 1884, 1914 eta 1924 saiatu egin ziren Britainia Handiko errege-erreginekin batzartzen kolonietako gobernuarekin zituzten auzietan bitartekaritza burutzeko. 1909an British Columbiako Nishga herriak jo zuen Britainia Handiko Erregearengana bere bitartekaritza ala *Judicial Comite of the Privy Council* delakoena lortzeko, azken hau Inperio Britainiarrean zegoen azken eta gorengo apelazio gortea zen. Kasu guztietan ahaleginek huts egin zuten, etxera itzultzeko eta euren arazoak bertako gobernuarekin hitzartuz konpondu zezatela esan zitzaizkien. Adibide hauek, kale egin bazuten ere, jo muga bihurtu ziren geroxeago Laugarren Mundua bihurtuko zen horrentzat, erakutsi egin zutelako hirugarren instantzia baten aurrean eztabaidatu zitezkeela gaiak, eta hauek aliatu potentzialak izan zitezkeela, kasu hoberenean, edota txarreanean tokian tokiko gobernuak baino ulerkorragoak.

XX. mendeko lehenengo hamarkadetan herri indigenen borrokaren ardatz nagusia lokala¹⁹¹ bazen ere Nazioen Ligaren jaiotzarekin batera nazioarteratzeko lehenengo ahaleginak ikusiko ditugu. Ligaren sorkuntzaren inguruan zegoen proposamenen idealistak herri indigenen interesa erakarri zuen. Bertan bakea sustatzeko eta nazioarteko zuzenbideak gidatuko zuen orden berria eraikitzeko gogoia plazaratu zen. Honetaz gain, autodeterminazioari buruzko Wilson presidentearen proposamenaren 5. artikulua indigenen arreta piztu zuen¹⁹².

Ligaren sorreran gutxiengo¹⁹³ auzia garrantzi handikoa izan zen, eta argi zegoen honelako egoerak konpontzeko prozedura bereziak ezarri behar zituela nazioarteko erkidegoak. Honetaz jabetuz, 1923an Chief Deskahe Irokesak¹⁹⁴ eta Chief Ratana Maoriak negoziazioa eta

¹⁹¹ Mendearen hasieran herri indigenen eskubideak defenditzeko Estatu mailako erakundeak sortu ziren. AEBtan, Kanada, Australia, Zelanda Berria eta Eskandinabian. Adibidez, AEBko indigenek 1900ean AEBko indigena guztiak batu eta euren interesa banaka baino taldean hobeto defendatuko zuen "The Society of American Indians" sortu zen. Geroxeago, "National Congress of American Indians" (1940) eratu zen eta ondoren "National Indian Youth Council"(1961) agertu zen. Talde hauei esker euren kulturarekiko maitasuna eta harrotasuna garatu eta sendotu egin zen eta pan-indigenismoak behar zituen oinarriak ezarri. Honekin batera Estatu mailako aitzindariak sortzeari ekin eta hezkuntza zein lanarekin loturiko gaiekin aritu ziren. Saiakera honetan gizon gorriaren eskaera eta ideologia politikoa garatzen joan zen eta eskubide zibilen defentsa, hezkuntza, lege laguntza eta arautegiaren aldatetaren inguruan zentratu zuten euren egitekoa. Baita burujabetzarako eskubidea defendatu desobediencia zibila bultzatu egin zuten ere. Lan politiko honen ondorioz egun nazioarteko mugimendu indigenaren parte diren hainbat argudio eta ikuspuntu jorratu egin ziren. Gizon gorriaren ideologiaren mamian Europar kulturaren kritika zorrotza burutuko da eta kritika honetan inguruarekin loturiko kosmos-ikuskeraren indigenak garrantzi handia hartuko du

¹⁹² Puntu honek honela dio. "Strict observance of the principle that in determining all such questions of sovereignty the interests of the population concerned must have equal weight with the equitable claims of the government" (Ryser,1992:NET).

¹⁹³ I GMren osteko giroan gutxiengo nazionalen auzia garrantziko gaia bihurtu zen. Giro honetan gutxiengoaren eskubideak babestu behar diren kontzientzia hasiko da emeki-emeki zabalzen nazioarteko erkidegoan eta areagotu egingo dira gutxiengoen aldeko ahaleginak.

¹⁹⁴ Garrantzizkoa da Irokesak honelako ekimen paradipomatikoa egitea, historikoki eurek nazioarteko harremanetan, XVIII eta XIXan aktoreak izan zirelako eta Frantzia nahiz Britainia Handiarekin eta euren ondorengoekin hitzarmenak sinatu zituzten. Aliatu izaera galdu ondoren interesgarria da ikustea nola nazioarteko maila jo zuten laguntza bila, hein handi batean nazioarteko erkidegoaren moduak, hala hobe esanda, behialako moduak ezagutzen zituztelako, eta nazioarteko legedian itxaropena zutelako egin zuten. Irokesak pasaporteak eraman zituztela esatea eta onartu egin zituela Suizako gobernuak esan ere. Gauza bera gertatuko da 1977an

hitzartutakoari errespetua indigenak mantenduriko aspaldiko printzipioak izanik, eta euren hitzarmenak nazioartekoak¹⁹⁵ zirela mantenduz Ginebrara jo zuten 196 (Schneider & Furmanski, 1996). Bertan Haudenasaunce aitzindaria zen Deskeheh bi urte eman zituen lobbya egiten (Delgado et alia, 1996:2). Ekintza honekin hasi zen XX. mendean herri indigenek egindako lehen ekintza paradipomatikoa. Deskeheh-i, batez ere Holandako gobernuak, baina baita ere Irlanda, Estonia, Panama eta Persiako gobernuek baietza eman zioten baina Britainia Handiak ezetz borobila. I Mundu Gerratik botere nagusienetarik bezala atera zen Britain Handiak indigenen arazoak arazo domestikoa eta ez nazioartekoa zela inposatu zuen (Khosravi, 2006). Funtsean ondoko taktika hauek erabili zituzten buruzagi indigenaren eskaera indargabetzeko.

1. The United Kingdom used major-power intervention and procedural appeals to block the Haudenosaunce claim from ever reaching the League of Nations General Assembly.

2. Canada claimed that this was not a global issue but "entirely of domestic concern".

3. Canada asserted that this was not a matter of group/collective rights but a matter between "the Canadian Government and individuals owing it allegiance".

4. Canada claimed that Haudenosaunce claims were not legitimate but were merely "calculated to embarrass this Government".

5. Finally, Canada contended that Six Nations were not "an organized and self-governing people so as to form a political unit apart from Canada" but that they were integrated into the Canadian state as citizens (Cornstassel, 2008:110),

Beraz, Ligak ez zuen euren aldeko erabakirik hartu. Nazioen Ligak indigenekin loturikoa auziak "barne arazoa"tzat kontsideratzea erabaki zuen, Izan ere, bere 22. artikuluan indigenak nazio aurreratuen erantzukizunaren eta babesaren pean gelditzen zirela aldarrikatu zuten Nazioen Ligak, "sacred trust of civilization" (Clavero, 1994:23) deklaratu. Argi gelditu zen Wilson-ek aldarrikaturiko autodeterminazioa eta gutxiengoei omen zegokien babesa Europan bizi ziren taldeei soilik aplikatu zitzaizela.

Herri indigenen ahalegina ez zen onartu herri subirano batek bere eskubideak defendatzeko egindako ahalegina bezala. Ostera gauza kurioso bat bezala ikusi zuten Estatuek. Cooper-ek (2004) honela deskribatzen du Laugarren Munduarentzat aurrekari eta aitzindari izan zen gizon honen esperientzia.

In the early 20th century, Deskaheh, chief of the Younger Bear Clan of the Cayuga Nation, defended Haudenosaunce treaty rights against encroachment by the government of Canada and demanded respect for indigenous independence. After challenging the Canadian and British government in his homeland, Deskaheh decided to engage the governments in the global arena. In 1923, he petitioned the League of Nations to recognize the wrongs committed against the Haudenosaunce peoples and to assist in upholding principles of peace. His oratorical skills convinced the Netherlands to join his written petition. Some nations even encouraged the League to place Deskaheh's entreaty on its agenda. Ireland, Panama, Persia, and Estonia attempted to bring the petition before the League's General Assembly and sought an advisory opinion from the Permanent Court of Justice on

¹⁹⁵ Deskahehen kasua oso interesgarria da Estatuaren sinboloak eta erretorika erabili zuelako Ginebran, eta, are gehiago, eskaini egin zuelako Ingalaterrak aliatuak zirelako berekin sinaturiko itunak nazioartekoak zirela frogatzeko ebidentzia historikoa. Bide Cornstassel (2008), Nizen (2003), Woo (2003) Schneider & Furmanski, Tilley (2002). Egile hauek diotenez, bai britanikoez, zein frantzesek nahiz holandesek Iroquesak naziotzat aitortu zituzten, garaiko diplomaziaren arauak segituz, Lege Naturalaren (Law of Nations). Barruan.

¹⁹⁶ Nazioen Liga sortu baino lehen Maoriak saiatu egin ziren inperioren goi mailako boterea zen koroara jotzen bere bitartekaritza eskatzeko eta Zelanda Berriko gobernuari presioa egiteko modu bezala. Antzekoa egin zuten Kanadako baina ez zuten inolako konponbiderik lortu. Honetaz gehiago jakiteko bide Cooper" (2004:NET).

the question of whether the Haudenosaunee Confederacy was a state.

Even though Deskaheh was not successful inside the League of Nations, his demands were heard and respected by labor unions and citizens of Europe. He began a tradition inspired indigenous peoples to continue their efforts to ensure equality in everyday life and to participate in the international process of building a culture of peace and human rights based on the rule of law (Cooperb:NET).

Estatuen artean lortu ez zuten arrakasta Suizako gizarte zibilarekin eta botere lokalekin lortu zuten (IITC, 1997). Baina gobernuekin zuten gatazka konpontzeko, euren hitzarmenak balioztatzeko ahaleginean, nazioarteko gizartearen laguntza eta bitartekotza lortzeko ahaleginak alegia, porrot egin zuen. Hala ere, porrot politikoa mugarri sinbolikoa bihurtu zen eta erreferentzia bihurtu.

Argi gelditu zen Wilson-ek aldarrikaturiko autodeterminazioa ez zela indigenentzat egina. Hala ere, bere mezuaren burrunbak indigena askorentzat inspirazioa izan zen. Hau buruan nazioarteko arautegia eta gobernu sortu nahi zuten erakundeetan parte hartu behar zutela ikusi zuten indigenek.

II MG osteko testuinguruak ez zuten gauzak asko aldatu. Aliatuen printzipioak biltzen zituen eta NBEren Kartaren aurrekaria den Atlantic Charter –ek autodeterminazio eskubidea eta deskolonizazioa bultzatzeko deliberoa erakutsi zuen. Roosevelt-ek modu honetan Wilson presidentearen idealismoari jarraipena emanez (Von Laue, 1987). Gainera, naziek eramandako politikaren eraginez arrazismoaren kondena eta minorien babesa printzipio bezala bultzatuko da nazioarteko erkidego berrian (Weyler 1984, Niezen 2003), nazio eta gizabanako guztien berdintasuna defendatuz. Ondoko NBEren sorrera eta Giza Eskubideen Aldarrikapenak tokian tokiko mugimendu indigenen arreta erakarri zuen. Erakunde hauek testuinguru berria sortu zuten eta giza eskubideen defentsa eta promoziorako egitura berria ezarri, baita ere euren babesa ziurtatzeko jarraipen mekanismoak Era berean, 50. hamarkadan garatuko den eskubide zibilen eta deskolonizazioaren aldeko borrokek nazioarteko garaiko ordenuaren zutabeak gogor astindu zituen. Bi prozesu hauek gutxiengo etnikoek bizi zuten kultura zapalkuntzari buruz kontzientzi berri bat sortu zuten. Beste alde batetik asimilazio politiken porrotak tribu eta herri ezberdinak batzen zituen nortasun berrien loratzea ekarri zuen (Minde 1999, Jull 1998, Niezen 2003).

Hala ere, 50. hamarkadan indigenek ez zuten lortu nazioarteko erakundeen aldetik inolako aitorpen berezirik. Mende honetan bigarrenez, nazioarteko legearen babesak kanpo utzi zituen indigenak, eta koloniek bizi zuten arazoaren konponbiderako autodeterminazioa agintzen zen bitartean, indigenentzat garapena defendatzen zen, Latino Amerikako Estatuak horrela aldarrikatuta (Rodríguez-Piñero, 2005). Aipaturikoa gertatzen zen bitartean, Hopiek nazioarteko testuinguru berrian giza eskubideen eremuari loturiko aukera berriak zabaltzear zeudela ikusi eta berauek aprobetxatzeko borondatea agertu zuten. Hopiek 1950an Truman presidenteari euren eskaerak eta salaketak NBEra eramateko abisua egin zioten (Weyler, 1984:213).

4.1 1960KO URTE GARRATZAK: INDIGENISMO GIZATIARRAREN HAMARKADA

Laugarren Munduak tokian tokiko, Estatu, Erregio, eta kontinentetako erakunde, gobernu zein gizabanako indigenak biltzen ditu bere baitan. Laugarren Mundukoek mugimendu etniko handi baten kide dira nazioarteko politikan parte hartzeko, euren artean kontaktuak dituzte sarri askotan, eta nazioarteko eremutan, NBE mailan bereziki, modu koordinatuan borrokatzen duten nortasun agenda komuna garatu dute.

Prozesu guzti honen hasiera 60. hamarkadan aurkituko dugu mundu mailan emandako borrokei jarraituz eta, batez ere, giza eskubideen eta eskubide zibilen alde zein arrazakeriaren kontra gertaturiko borrokei jarraituz¹⁹⁷. Ezin dugu ahaztu 60ko hamarkadako mundu ekonomiak ala lasterketa militarrek beharrezkoak zituzten baliabide estrategikoak lortzeko mundu mailako lasterketa hasiko da¹⁹⁸. Hau dela eta, herri indigenen eskubideen defentsa gehien bat lurraldearen inguruan, erreserba ala “ayllu”-aren inguruan kokatuko da. Lehenengo munduko indigenak AEBtan¹⁹⁹, Kanada, Australian²⁰⁰, Zelanda Berrian ala Eskadinabian²⁰¹) kulturaren defentsan eta arrazakeriaren aurkako eskubide zibilen aldeko mugimenduetan inspirazioa aurkituko dute (Minde, 1995). Toki guzi hauetan erakunde indigenak sortuko dira euren eskubide zibilak defendatzeko eta tokian zeudenak indartu. Aldi berean, orduan bizi zen deskolonizazio prozesua izango dute beste erreferente nagusia. Lurra eta kulturaren defentsaren inguruko mugimendu hauetan hasi zen “gizon gorriaren” ideologia garatzen.

197 Giza eskubideen aldeko borroka hobekuntza asko sortu zituen AEBtako gutxiengoentzat. Hobekuntza honek arlo ezberdinetan erabateko eragina izan bazuen ere, hezkuntza lorturiko aurrerapena izango da aparteko garrantzia izango duena. Ordura arte hezkuntza murriztua zuten taldeek talde nagusiak bereak zituen baliabideetan parte hartzen hasi ziren, Iparraldean honek indigenen sarrera unibertsitate zein gainerako ziklo guzietan suposatuko du. Hezkuntzan izandako hobekuntzak erakunde gaitasun politikoaren sendotzea ekarri zuen euren ahalmen politikoa indartu egin zelarik. Delgadok (1996:2) gogoratu egiten digu hamarkada honetan zein hurrengoan izandako eskubide zibilen aldeko borroka erorin 70 institutu daudela gai indigenei buruz ikerketa egiten eta zuzendari indigenak dituztenak. Ikasketadun indigena hauek HIKeren sustatzaileak bihurtuko dira eta aktore paradiplomatikoa nagusiak izango ditugu. Hobekuntza honekin batera hamarkadaren amaiera aldean hirietako indigenek sorturiko erakunde berriak sortuko dira, hurrengo hamarkadan protagonismo handia irabazi zuelako aipatu egin behar dugu 1968an sorturiko American Indian Movement.

198 Hamarkada honetan indarrean zegoen hazkuntza ekonomikoa eta blokeen arteko gatazkak beharrezkoa egin zuen natur baliabideen ustiapena. Uranio eta antzeko mineral estrategikoaren ustiaketa martxan jarriko da. Ordura arte lur agortuak kontsideratuta zeuden herri indigenen lurraldeetan honelako mineralak aurkitu egingo dira eta euren lurraldean zeuden baliabideak eskuragarri egiteko legediak bultzatzen hasiko dira. North American Power Alliance (NAWAPA) aipatu daiteke bertan Kanada eta AEBtako ibai eta lakuen ustiaketa industrialak burutzeko hitzarmena adostuko da (Morris,1992:NET). Herri indigenen erreserbetan zeuden lurraldeak ez indigenak ustiatzeko ahaleginak biderkatu egingo dira. Lur indigenetan dauden baliabideak (mineralak, zura, nekazal lurra, aisialdirako erreka, urtegi erraldoiak egiteko ibaiak eta inguruko lurrak etab) esplotatzeko ahaleginak laguntzeko legedi federala erabiliko da AEBtan eta Kanadan. Azken honetan gobernuak herri indigenen naziotasunarekin amaitzeko “White Paper” delako ekimena jarriko du martxan. Gobernuak bultzaturiko ekimen honen arabera herri indigenak zuten nazio tratamendu berezitua bertan behera utzi eta Kanadako Estatuan ondo txertaturiko gutxiengo izatera pasatzen ziren. Ondorioz euren lurren gaineko kontrola galdu egingen zen eta ez indigenen partaidetza erraztu. Politika honek 1930ko hamarkadan AEBtan Indian Reorganization Act-ek egindakoa errepikatu nahi izan zuen: gobernu indigena tradizionalekin amaitu, Estatu egituraren kokaturiko gobernuak bultzatu, erreserba sistema akabatu, lurraldearen jabetza pribatua sustatu eta indigenak hirietara bultzatu. AEBtan zein Kanadan herri indigenen kontrako mobilizazio sendoa jarri zuen martxan (Feagin,1989). Munduko toki askotan hasiko dira herri indigenak euren lurralde eta kulturaren alde mobilizatzen. Modernotasunaren oldartzea benetan gogorra zenean erexistentzia egitea posiblea zela frogatzen zuten adibideak loratzen hasi ziren, batez ere Lehenengo Munduan.

199 Hamarkada honetan National Congress of American Indians eta National Indian Education Association biak erakunde pan-indigenak aurkituko ditugu erexistentzia zibilarrekin loturiko ekimenak bultzatzen zein epaitegietan borrokatzen, euren eskubideak eta sinaturiko hitzarmenetan agertzen zirenak defendatzeko.

200 Australian ere 1966an Gurinji herriak protesta eta manifestaldiak egin zituen bizi zuen egoeratik protestatzeko. Gertakizun honek bertako herri indigenen mobilizazioaren hasiera suposatuko du.

201 Norwedia, Suiza, Dinamarka eta Finlandiako Samiak bateratzeko ahaleginak sendotu egin ziren eta Northern Sami Council Sortu 1957an. Erakunde hau mugengandiko erakunde nazional indigena dugu. Antzeko prozesuak eman ziren beste tokietan. Erakunde hauek izango dira nazioarteko ekimenaren bidea prEstatuko dutenak

Hirugarren Munduan, aldiz, askatasuna lortu berria zuten Estatuak garapena eta Estatu-erakuntza zabaltzeko politikak buru belarri aplikatzen ari ziren. Garapen prozesuak bideratzen gobernu ez demokratikoak izango ditugu nagusi mundu mailan. Aniztasun kulturala nazio erakuntzaren aurkako mehatxutzat hartuz asimilazioa zen bultzaturiko politika ofiziala. Barne kolonialismoa, sarraski ekologikoa eta giza eskubideen bortxaketa nagusitu egin ziren munduko lau bazterretan; herri indigenak askotan biolentzia horren biktima zirelarik. Egoera honetan herri indigenen saiakerak ezkerreko mugimenduei lotuta ikasle eta, batez ere, nekazari mugimenduei lotuta ikusiko ditugu Hego Amerikan²⁰².

Guda Hotzaren gatibu ziren Lehen eta Bigarren munduek proiektu erraldoiak eta azpiegitura lana bultzatzen ari zen nonahi. Lehen Munduan Eskandinabia, EAB eta Autralia, Zelanda Berrian eta Kanadan indigenen azken lurak besterenganatzeko saiakerak etengabeak izan ziren. Saiakera hauen aurka mugimendu indigena indartsuak sortu ziren, esate baterako Kanadan “White Paper” delakoaren aurka. Mugimendu hauetan indigenak eskubide sozialeen aldeko mugimenduekin bat egin zuten. (Manuel 1974; Minde 1995; Delgado 1996; Feagin 1989; Eidheim 1995). Honekin batera deskolonizazioa izango da “gizon gorriaren ideologia” elikatuko duen beste iturria. Are gehiago, indigenek ikusten dutenean Hirugarren Munduko nazio berriak ere euren lurretan dauden baliabideen egarri direla, eta nazio-Estatu homogeneizatuak sortzea zutela helburu. 60 hamarkadan desarrollismoaren hasieran markatzen da. Garapen proiektuek eragindako genozidioa eta etnozidioa, batez ere, herri indigenen kasua nazioarteko orduko gizarte zibilaren begietara ekarri zuten²⁰³. Amazonia bihurtuko da modernotasunak eragindako sarraski genozidaren ikurra. Amazoniak herri indigenen sufrimendua eta injustizia erakutsi zuen estrainekez.

El efecto de la "conquista del Amazonas" es visible en los procesos de despojo, desplazamiento poblacional, destribalización, deshumanización, desmoralización, dependencia y suicidio colectivo....La deforestación en estas regiones es sinónimo de extinción, migración obligada y penetración de las petroleras, minería, agroganadería y madereras (Delgado, 1996:11).

Hamarkada honetan hasita eta hurrengotan areagotuz, garapen proiektuak bitarteko Amazoniako hainbat herri indigenek desagertzeko zorian aurkitu zuten euren burua. Brasilen

202 Gure ustez egoera historiko hauek eta eurak sorturiko testuinguruek baldintzatu egin zuten Lehen Munduko eta Hirugarren Munduko erakundeen kultura eta mobilizatzeke modua. Hego Ameriketako mugimendu indigenak ezkerrean unibertsoan mugituko dira batik bat, eta horrela jarraituko dute 70ko hamarkadan benetako mugimendu indianista agertu arte (Caravantes,1997). Aldiz Lehen Munduko herri indigenak aldeko testuingurua aurkitu zuten erakundeak sortzeko eta kontaktuak, konferentziak eta abar egiteko. Eurok gobernu demokratikoen moduekin eta GKEkin kontaktuak sendotu egin zituzten mobilizatorako eremuak bertan zituztelako. Arrazakeria eta giza eskubide zibilen aldeko mugimenduaren geruza eta babesa inportantea gertatu zen askapen mugimendua prestatzeko. Hirugarren Munduan aldiz, honelako kultura demokratikoa faltan zegoen. Mobilizatzea bizitza jokatzea izango da. Hau dela eta, herri indigenen eskubideen aldeko borroka askotan garapenarekin loturiko gaien inguruan aurkituko dugu ezkutaturik. Garapena eta mobilizazio politika lotuko dituen gaietariko bat lurraldearen defentsa izango da.

203 Garai honetan gai hauez arduratzen direnak gehien bat erakunde kristauak izango dira hala Eliza Katolikoarekin nola Eliza protestanteekin loturikoak. Honetaz gain akademikoak eta antropologoak zein institutu indigenistetan daudenak euren kezka erakutsiko dute. Garai honetan ardurua hau indigena ez kontaktuei buruzkoa zen gehien bat. Ahulagoak ikusten zituzten eta behialako kontaktuek izan zituzten ondorio genozidak II GM osteko munduan errepikatzea ez zen bidezkoa askorentzat. Indigena ez kontaktua irudia Amazoniako herriek osotuko dute gehien bat. Zibilizazio modernoaren frontera berri honetan geziak erabiliz autodefentsan ari ziren indigenen garrasiak hainbat euroamerikarren bihotzak ukitu zituen.

bereziki, hil ala biziko borroka gertatu zen askorentzat eta genozidioaren eta etnozidioaren errealitateak GKE ekintza piztu zuen batez era eliza kristauekin loturikoak (Puig, 2004)204. Iraupen kulturala eta herri indigenen lurak babesteko eskubidea garrantzizko auzia bihurtu zen Iparraldeko GKE batzuentzat (Coates, 1996). Euren laguntzari esker, Shuar-ek lehenengo konfederazioa sortuko dute eta nazioarteko kontaktuak eduki euren lurak eta kultura defendatzeko asmoz. Kasu honetan Shuar herriak lokarri etnikoa erabili zuen ahaidegoetan banaturiko komunitate ezberdinen arteko ekintza batasuna eragiteko. Gainera, Shuar herriak trebezi handia erakutsi zuen euren helburuak erdiesteko ahaleginean erakunde ez indigenak konprometitzeko (Weiss 2000; Stavenhagen 1997). Shuar-ak agertzen dira askotan globalismo harrapakariaren aurka herri indigenen mobilizazioa kode etnikoan burutu zuen lehenengo kasu bezala (Morris, 1992).

Hamarkada honetan “indigenismoa”, hau da, aktore ez indigenen nagusitasuna izango dugu herri indigenen eskubideen aldeko borrokan nagusi. Esker oneko antropologoak, akademikoak eta kristau elizen erakundeak dira protagonista. Eurok egindako ahaleginak indigenak bizi zireneko Estatuetan “gutxiengo” integratuak lortzeko egin ziren. Borondate oneko indigenista hauek mundu modernoaren inposaketa ekidinezina zela uste zuten, eta saiatu egin ziren prozesuaren gogortasuna moteltzen. Estatuetao erakunde bereziak, nazioarteko garapen erakundeak, NLE eta antzekoak izango dira euren egoeraz arduratuko direnak. Hala ere, NBEan giza eskubideez arduratzen diren erakundeak ez dute indigenen ardurarik izango. Mundu mailan herri indigenen egoera “garapen arazoa” eta giza eskubideei dagokionez barne arazoa izaten jarraituko du.

Garai honetan indigena miseria gorrian bizi denaren irudiarekin lotuta ikusiko dugu gehien bat. Beraz, indigena garapen eta ongizate politiken “objektuak izango da. Politika hauek euren salbaziorako asimilazioa bultzatzen zuten eta modernotasunaren aurrean irtenbiderik ez zegoela mantentzen zuten. Gauzak horrela eginbeharrekoa trantsizioa ahalik eta hobeto, biguna egitea zen.

Jarrera honi Ryser-ek (1986) “gezur izugarria” deitu dio eta konkista eta menekotasuna arrazionalizatzeko eta bultzatzeko tresna izan dela diosku. Hamarkada honetan indigenentzako gutxiengoei sor zitzaien errespetua eskatzen zen, baina errespetu hau gizabanako mailan eta Estatuaren ardura bezala ikusten zen. Inolaz ez herri ezberdin bati zor zitzaion errespetua.

Indigenismoaren ikuspegitik indigenak euren egoera hobetzeko ekimen ezberdinen

204 60ko eta 70ko hamarkadetan Brasilen beste edonon baino larriago emango da kultura eta herri indigenen desagerpena. Bortxa, kutsadurak ala gaixotasun ezezagunek sorturiko kalteek ordu arte gizarte modernoarekin kontaktu gutxi izan zuten herriak ia desagerrarazi egin zituzten. Honelako egoerak garapenaren aplikazioarekin kritikoak ziren hainbat sektoreen aldeko ekintza piztu zuen kristau mugimenduak hasiko dira herri indigenen organizazioa bultzatzen.

“objektuak”, onuradunak ziren, baina inoiz ez subjektuak. Erantzukizun osoa ez indigenei zegokien. Beraz, nazioarteko erkidegoan indigenen “gabezia” izango dugu nagusi. Euren arazoak tratatzen direnean ez indigenei zuzenduriko programen barruan aurkituko ditugu indigenak. Mundu indigenari buruzko informazioa ez indigenen eskutik helduko zaigu (Gonzalez, 1998).

Nortasun propio baten gabezia Lehenengo, Bigarren nahiz Hirugarren Munduko Estatuak martxan jarritako politika eta ekimen politikoetan ikusi daiteke. Indigenak ez indigenek definituriko helburuak lortzeko bitartekotzat izango dituzte.

4.2 1970KO HAMARKADA: MUNDU MAILAKO MUGIMENDU BATEN HASIERA

Hamarkada da honetan gauzak dezente aldatuko dira eta “askapen objektuen”²⁰⁵ matxinada isila jarriko da abiadan.

...the Indians who have survived the long process of depopulation and domination preserve a vigorous sense of their historical continuity. The Americas have witnessed a revival of the Indians in recent decades. The indigenous groups are asserting their cultural origins; they are organizing themselves in the new landscape offered by recent events in their respective countries and, through the establishment of various social alliances, they are striving to forge a new, forward-looking identity from their inherited traditions and the modern environment (Commission on Human Rights:1992 15 parr.).

Aurreko hamarkadan hasitako errebindikazio prozesuak sendotu eta “gizon gorriaren” ahotsa nazioartekoan urratsez-urrats aurrera egiten hasiko da. Hamarkada honetan Guda Hotza bere horretan jarraitzen badu ere, egon badaude nazioarteko testuinguruan aipamen berezia merezi duten gertakizunak. Deskolonizazio prozesuaren gailurra lortzen da eta Hirugarren Munduko nazioak nazioarteko erkidegoan euren indarra NBEan sentiarazi egingo dute “Herri ez Lerrotuen Mugimenduaren” bitartez. Hamarkada honetan ere, Hirugarren Munduko petrolio ekoizleek “petrolioaren krisialdia” eragin zuten²⁰⁶. Krisialdi honek gogor aztindu zuen orduko nazioarteko erkidegoa. Nazio boteretsuek argi ikusi zuten nolakoa zen baliabide eskazia. Kontzientzi honek gaintitu egin zuen “nation building” orduko politika, eta hasiera eman “global interdependence” primatzen zuen hurbilketa bati. Hurbilketa berri honetan nazioarteko erakunde eta beste aktoreen partaidetza handitu egingo da. Nazioarteko erakundeak zein multinazionalak, Hirugarren Munduan batik bat, garapena zelan erdietsi definitzen eta dibersifikazio ekonomikoa lortzeko ahaleginetan laguntzen ikusiko ditugu. Beraz, bereziki Hirugarren Munduan Estatuaren internazioanalizazioa aurkituko dugu. Gero eta gehiago NBE familiako edota nazioarteko beste aktore batzuk Estatuari inposatu egingo dizkiote garapena lortzeko errezetak.

²⁰⁵ Mendebaldetzarrok indigenak “askatzeko” izan dugun joera, erlijio, politika, ekonomian eta ekologian aurkitu daiteke. Gura askapena euren menekotasuna eta triskantza izan da askotan. Subjektu zuria, meneko indigena harreman hau puskatzeko mugimendua sendotu egin zen hamarkada honetan eta “subjektu indigenaren” agerraldia nazioarteko politikan hasiko da.

²⁰⁶ Gertakizun honek berebiziko garrantzia izan zuen herri indigenentzat eta eredu honi jarraituz AEBtan Council of Energy Resources Tribes (CERT) sortu zuten beren baliabideak hobeto kudeatzeko. Hala ere, ez zuten lortu espero zuten fruitua eta gobernuaren kontrolpean erori zen (Feagin,1989; Morris, 1992).

Petrolioaren krisialdiak Lehenengo eta Bigarren Mundua bultzatu egin zituen euren barneko baliabideak gehiago ustiatzera. Barneko baliabideen gaineko presioa areagotu egingo da, eta ordura arte urruneko lurraldeen konkista intentsifikatu egingo da (Calvo 1990; Burger 1990; Morris 1992; Coates 1996).

Testuinguru honetan, deskolonizazio mugimendua inspirazioa bihurtuko zen herri indigenentzat²⁰⁷. Esperientzi kolonialistan oinarrituz hamarkada honetan “barne kolonialismoaren” ideiak aurrera egingo du indigenen artean.

Es hasta 1970 que, gracias a los movimientos africanos de liberación, se redefinió el concepto de colonialismo aplicándolo a los Pueblos nativos opresores y locales que operan en cada Estado independiente. Se definió que un Pueblo es colonialista e imperialista cuando, entre otros, monopoliza y controla el Estado mientras que el resto de comunidades étnicas son sujetos coloniales, practica la opresión lingüística y cultural contra los sujetos coloniales, mediante el expansionismo cultural de su etnia o la prohibición de enseñar y utilizar los idiomas no oficiales. Asimismo, cuando realiza esfuerzos por asimilar a los miembros de los Pueblos y nacionalidades oprimidas so pretexto de reconocerles igualdad de derechos y darles el acceso al poder, y cuando practica políticas específicas de explotación económica de los miembros de Pueblos dominados, etc (Cojti, 1997:25).

Kolonialismo eta arrazakeriaren aurkako mundu mailako iritzia sendotu egingo da nazioarteko diskurtso eta praktikan. Honetan indigenak Hirugarren Munduko herrien laguntza jasoko dute. Aldi berean, Helsinkiko akordioak²⁰⁸ sinatu ziren 1975an. Hauek funtsezkoak izan ziren Laugarren Munduaren sorrerako nazioarteko marko eta aukera berriak sortu zituelako (Ryser, 1992 eta 1995). 37 Estatuek onarturiko lanerako marko berria zen. Akordioetan segurtasuna, harreman ekonomikoak, herri eta nazioen arteko harremanak, giza eskubideak eta nazioarteko portaera bideratzeko printzipioak ezartzen ziren. Nahiz eta betetzeko derrigorrezkoak ez izan pisu moral handikoak dira gobernu maila goreneko onarpena jaso zutelako. Azken Erabakiak 4 ardatz nagusi ditu, 3 sekziotan banatu zirenak. 1. sekzioa segurtasuna auziei heltzen dio bi parteetan banaturik. Lehenengoak 10 printzipio dituen aldarrikapena Estaturen arteko harremanak bideratzeko. Bigarrena Estaturen arteko segurtasun konfiantza sortzeko neurriak aurreikusten dira. 2. sekzioan kooperazioari buruzko gaiak ekonomian, zientzia, teknología, eta ingurumenean. 3. sekzioa giza kooperazioari zuzenduta dago. Ryser-ek garrantzizkotzat jotzen

²⁰⁷ Aurreko hamarkadan herri indigenen eta askatasun mugimenduen arteko harremanak egon ziren eta indigenenek beste kontinente batzuetan zegoen Pan-Africanismo ala Pan-Arabisismoan inspirazioa aurkituko dute. Alor honetan azpimarratu egin beharok genuke Joseph Manuelek 1971 Nyererekin izandako elkarrizketa non buruzagi indigena honek batasuna lortzeko gomendio jaso zuen. www.wcis/fwdp/international/wcip.txt.

²⁰⁸ 1975ko Helsinkiko Aktan herri indigenei erreferentzia egiten zaie. Erreferentzi hau gutxiengoen eskubideez arduratzen den VII. printzipioan eta eskubide berdintasunaz zein autodeterminazioaz arduratzen den VIII. printzipioarekin lotuta aurkituko ditugu. AEB-ek onartu egin zuten herri indigenekin izandako harremanak VIII. printzipioari begiratuz egingo zirela. Gertakizun honek berebiziko garrantzia izango du eta herri indigenekiko nazioarteko jarreraren aldatetaren hasiera markatzen du. Modu honetan AEBek giza eskubideei buruz hitz egiteko euren gobernuaren eta indigenen gobernuen arteko negoziazioei ekiteko nazioarteko konpromisoa hartu zuen Helsinkiko akordioei helduz eta bere markoan lan eginez herri indigenek lortu egin zuten 1979an AEBtako herri indigenei egoerari buruz txosten bat kaleratzea. Bide www.wcis/fwdp/international/fwp20884.txt.

Txosten honetan herri indigenek bizi zuten egoera tamalgarria aipatzen da eta euren giza eskubideekiko Errespetua eskatu. Modu honetan herri indigenen egoera EEBB giza eskubideen egoera kritikatzeko gaia bihurtuko da eta erabili egingo da potentzien arteko gatazkan giza eskubideekin loturiko gaiak jorratzen direnean Gainera bertan gogoratu egiten da Helsinkiko akordioetan EEBBak herri indigenekin izandako harremanetan autodeterminazio eskubidea gidatatzat erabiliko dela eta eurekin izandako harremanak ez direla gutxiengoei zuzenduriko aletan jarritakoari tratatuko esaten da. Beraz, onartu egiten da hemen gutxiengo kategoria ez dagokiela. Onarpen honek giza eskubideekin loturiko ekintza politikoa bultzatu zuen.

ditu marko berria sortu zutelako Estatuaren arteko ekintza kolektiboa posiblea eginez, era honetan aukera eta dinamika berriak sortu ziren herri indigenen partaidetzarako. Era berean akordioaren konplimendua jarraitzeko nazioarteko mekanismoak sortu ziren. Aipatzekoak diren berrikuntzen artean Nixon Administrazioak aplikatu zuen autodeterminazio printzipioa herri indigenen eta EABren arteko harremanak bideratzek. Ryser-en arabera (1995)209 AEB-k bidalitako 1979ko txostenak esaten du harremanak erregulatzen dituen printzipioak VII (gutxiengo nazionalen eskubideak) eta VIII (autodeterminazioa) direla. Era berean idazle honek gogoratu egiten digu Europan Segurtasun eta Lankidetzarako Batzordeak AEBri eskatu egin ziola txosten berezi bat emakume indigenen esterilizazioari buruz, eta auzi honek bere isla izan zuen 1977ko AEBk aurkeztu zuen Helsinkiko akordioaren jarraipen txostenean.

Honekin batera Carter Administrazioak, giza eskubideen alde egindako apustua sustatuz, nazioarteko testuinguru politikoan aldaketa eragin zuen (Fourth World Documentation Project, 1983). Hegoafrika, Rhodesia ala Txile gertatutakoak giza eskubideak Estatuaren ardura ez ezik nazioarteko erkidegoaren ardura ere direla frogatuz.

Herri indigenen kultura eta lurraldeen defentsak mobilizazio indartsu bat bultzatu zuen erregio nahiz nazioarteko mailan. Honek “status quo”ekin kritikoak ziren indar asko bildu zituen bere inguruan. Mobilizazioa bai asimilazioaren eta garapen etnozidaren aurka bai herri indigenen eskubideen aldekoa izan zen. Ikuspegi aldaketa honetan paper handia izan zuten antropologo, abokatu eta mota zein jatorri guztietako profesional kritikoek.

Al correr los años sesentas algunos antropólogos más jóvenes, que antes habían apoyado las posiciones gubernamentales, comenzaron a externar dudas crecientes con respecto a estas políticas y formularon críticas no sólo a programas y proyectos específicos sino a las estrategias mismas del estado en relación a las poblaciones indígenas en general. Al mismo tiempo, algunos de ellos se involucraron más con el movimiento indígena emergente en América Latina, y esta combinación de perspectivas e intereses produjo un nuevo nivel de análisis, incluso una nueva perspectiva y visión acerca de los pueblos indígenas y sus luchas. Después de haber sido mencionados sólo esporádicamente durante los años anteriores, los derechos humanos se transformaron en el tema central de nuevos debates y discusiones, promovidos en las décadas de los setenta y ochenta por los horrores de las guerras civiles en América Central y la creciente indignación pública, tanto a nivel nacional como internacional, por las violaciones masivas de los derechos de las poblaciones indígenas (Stavenhagen, 1999:73).

Giza eskubideekin loturiko gaiak nazioarteko agendaren puntu garrantzitsu bat bihurtuko dira. Estatu baten irudia zikintzeko indarra izan eta GKEen interesa eta ekintza mobilizatzeko gauza izango dira. Egoera berri honek nazioarteko zein GKE eginkizunetan aldaketa bultzatuko du eta mugak ezarri Estatuak zuten nagusitasunari.

Nazioarteko testuinguru berri honek berebiziko ondorioak izango ditu herri indigenengan eta euren mobilizazio ahaleginak areagotu eta tinkotu egingo ditu. Asimilazio politikaren aurkako

indigenen erresistentzia Lehenengo zein Hirugarren Munduan areagotu egingo da. Lurraren defentsa eta desarrollismoaren aurkako borroka herri mailan ez ezik nazioarteko erakundeetan ere emango da, bitarteko eta estrategia ezberdinak erabiliz.

Testuinguru honetan ordezkari indigena batzuk hasi ziren euren antzekotasunen kontzientzia garatzen eta elkarrekin lan egiteko beharraz jabetzen²¹⁰. Antzekotasunen artean aipagarria dugu mundu osoko indigenak batzen dituen kolonialismoaren esperientzia (Minde, 1995). Hau berebiziko erakusle etnikoa bihurtu da, batetik Laugarren Munduak duen nortasun eta proposamenaren berezko elementua delako eta, bestetik, erresistentzian dauden herriak bezala irudikatzen dituelako.

But despite invasion, war, slavery, and disease, the fabrication of legal doctrines of discovery and wardship; and governmental policies and programs designed to assimilate and destroy tribal identity, indigenous peoples have survived. Resistance against cultural and physical genocide and the struggle to obtain recognition of political and economic rights continues at the local, national and international levels. Weapons of resistance range from primitive bows and arrows to the submission of petitions before the International Court of Justice (WCIP, 1981:NET)

Asimilazioaren aurkako eta lurraren gaineko eskubideen aldeko borroka funtsezko gaia izango dugu AEBtan, Kanadan Australia, Txilen²¹¹, Mexikon eta Paraguayan²¹². Indigenen borrokek giza eskubide mailan zein ekologian aritzen diren erakundeen interesa piztuko dute eta harremanak sendotu egingo dira herri indigenekin. Herri indigenek Hirugarren Munduko askapen mugimenduekin harremanak hasi eta eskubide zibilen mugimenduetan inspiraturiko erakunde berriak sortu zituzten, intsumisio zibilarri loturiko estrategiak eta politikak martxan jarri (Feagin,1989;Morris,1992). Testuinguru honetan “modernotasunaren” eta desarrollismoaren kontrako diskurtso indigena independentea garatzen joango da. Bertan ekozidio, genozidio eta etnozidioaren aurkako jarrera eta giza eskubide zein ekologiarekin loturiko gaiak herri indigenen autodeterminazioarekin lotuta agertuko dira. Naturarekiko lotura, lurrarekikoa, naziotasuna eta honi dagozkion eskubideak, nazio barneko zein arteko diskurtso indigenaren oinarriak bihurtuko dira.

The white Europeans are new comers to the continent. They sharply accelerated war on the continent. They killed many animal species. They betrayed the Native Americans who had aided them in establishing a place on the continent. They destroyed the ecosystem and polluted the environment. Respect for the land and nature is a common theme in many Native American cultures. Many Native Americans now argue that the solution to problems of environmental damage lies in recognizing the superiority of Native Americans values, including a respect for the environment and a strong sense of community (Feagin, 1989:201).

Herri indigenek bizi zuten egoera aztertzeko 1971ak NBEak Txosten berezi bat agindu

²¹⁰Kleivan (Pain-ek aip, 1985:49). “On the day it becomes clear to their leaders that differences between world aboriginal peoples are essentially less than their similarities on the account of their historical fate in a world of conquerors and conquered...these people will become a political force

²¹¹ 1979an Txileko Juntak 1949an AEBtan ala 1969an Kanadan gertutakoari jarraituz 2568 Lege India onartu zuen. Lege honekin Maputxeen eskubideak amaitutzat eman eta euren lurrak “garatzeko” libre gelditzen ziren. Lurraren gaineko honelako erasoek Maputxeen mobilizazio gogorra eragin zuten.

²¹² Hemen egoera larriagoa izan zen Ashe indigenek genozidioaren ertzean jarri baitzituen Paraguayko gobernuaren politikak. Gertatutakoaren larritasuna NBEren Giza Eskubide mailara heldu eta ikerketa bat bultzatu zuen.

zion Cobos Jaunari. Bestetik, iraultza isil honen beste pasadizo garrantzitsu bat Kariben gertatu zen. Elizen Mundu Batzarrak (WCC), 1971an Barbadosen herri indigenekin loturiko gaiak aztertzeko elizak, antropologoak eta mota guzietako adituak batu zituen. Biltzar honen emaitza nagusia Barbados I delako aldarrikapena²¹³ izan zen, bertan herri indigenak bizi zuten egoera kolonialetik askatzeko deialdia egin zen eta salatu egin ziren orduko Estatuak, erlijiosoek eta antropologoek izandako erantzukizuna zapalkuntza honetan²¹⁴. Gainera, aldarrikapenak herri indigenek euren bide propioa egiteko eta autogobernua izateko duten eskubidea ere defendatu zuen. Honetaz gain, Barbados I-k indigenak euren askapen borrokaren protagonistak zirela eta euren lehentasuna eta ahotsa eman zitzaizela ondorioztatu zuen. Ondorio hauek eragin handikoak gertatu ziren herri indigenentzat. Batetik, “euren aldeko zuriaren” eta gizarte zibilaren egitekoak birdefinitu egin zituelako, bestetik garrantzi asko eman zitzaizkion herri indigenen protagonismo politikoa bultzatzeari eta euren ahotsa entzunarazteko bideak sortzeari. Finean, historikoki eraikitako herri indigenen gabezia konpontzeko beharrezkotzat ikusi zen herri indigenek euren boza eta euren diskurtsoa berreskuratzeko laguntza eskaintzea. Neurri handi batean indigenen irudia, errealitatea eta diskurtsoak transmititzen zituen “borondate oneko zuriaren” protagonismoarekin (Dussel, 1988) amaitzea erabaki zen. Hain zuzen ere, Europara ala munduko beste eskualdetara etortzeko eta euren errealitatea eta itxaropenak zuzenean helarazteko bideak lantzea suposatzen zuen.

Nazioarteko gizarte zibil eta indigenen arteko elkarlanaren hasiera markatu zuen Barbados I –ek. Honek sorturiko dinamikak posiblea egin zuen gizarte zibilak eskaintako bitartekoak erabiliz erakunde indigenak sortzea eta Europa zein AEBtara bidaiak egitea²¹⁵. Aurrez aurreko harremanak bultzatu egin ziren. Garai honetan gizon gorriaren ideologia zabalduko zuen salaketa diskurtso politikoa izan zen nagusi. Indigenek “errudun sentimendua” eta erromantizismoa bultzatu egingo dituzte, laguntza eta mota guzietako bitartekoak eskuratu nahian. Anayak (1991) azpimarratu egiten du herri indigenen nazio izaera azpimarratzen duen diskurtsoaren garrantzia. Diskurtso honen arabera, nazio izate horri dagozkion eskubideak onartu behar zaizkio eta gaur egun bizi duten egoeratik ordainak zor. Diskurtso honekin batera, giza eskubideekin loturiko diskurtsoa bultzatzen hasiko dira eta talde eskubideak eskatzen. Hamarkada

213 Herri indigenen gaietan adituak direnek 1971ko biltzar honetan kokatzen duten nazioarteko herri indigenen protagonismo politikoa hasiera, biltzar honetan herri indigenek euren ahotsa propioa izan behar zutela defendatu zelako. Ikuspuntu honek apurta egin zuen urte askotako praktikarekin non gobernuak, politikoez, antropologo eta intelektualek indioen arazoez kezkatu eta hitz egiten zuten. Herri indigenen ordezkapena bultzatzen zuen indigenismo honen ordez herri indigenen protagonismoa, partaidetza zuzena eta ahotsa defendatuko dira. Indigena bere orainaldiaren eta etorkizunaren protagonista eta subjektua izango da. Atzean geldituko dira objektu soila zeneko garaiak. Proposamen honek ondorio benetan iraultzaileak izan zituen eta erakunde zein politikoa indigena berrien agerpena ahalbidetu zuen.

214 Kritika honekin Latino Amerika osoan oso hedatuta zegoen indigenismoaren kritika zorrotza egin zen. Ia Latino Amerikako Estatu guzietan 1940an Pazcuaron adosturiko printzipioei helduz Instituto Indigenistaren bat zeukaten. Barbados-eko aldarrikapenak eginkizun indigenistaren alde krudelenak azaldu zituen eta herri indigenen protagonismoa lagunduko zuen diskurtsoa ezarri zuen eta honen aldeko praktikarako gonbitea egin.

215 Buruzagi indigenen garai izango da. Herri ezberdinetako aitzindariak Europara joko dute euren kasua aurkezteko. Herri indigenen nazioasunaren diskurtsoa indartsu entzungo da garai honetan. Buruzagi hauek hitz jarri eta indar sinboliko handikoak izango dira, Ipar Ameriketako indigenen kasuan batik batik. Iparraldeko indigenak izango dira aitzindaritzaz izango dutenak ekintza paradiplomatiakoan.

honetan paradiploiaz indigena bideratzeko erakunde bereziak sortuko dira, hasiko dira kanpora jotzen, nazioarteko interesa erakartzen, nazioarteko gizarte zibilarekin harremanak sendotzen, eta NBERen mailan lehenengo harremanak izaten.

4.2.1 Laugarren Mundua: paradiploiaz indigenaren agerpena

Barbados I-ek berebiziko oihartzuna eta eragina izan zuen Ipar Ameriketako, eta Europako²¹⁶ zirkulu akademikoetan²¹⁷, batez ere herri indigenekin lanean ala ikerketan ari ziren antropologo eta euren erakunde profesionaletara heldu zelako. Prozesu luze honetan berebiziko garrantzi izan zuen 1972an ekologiarekin loturiko Estokolmoko Munduko Gailurrean gertaturikoak²¹⁸. Bertan Kanadako ordezkartzan partaide George Manuel zegoelako eta gainera beste 10 Hopi buruzagiek parte hartu zutelako. Hauek Hirugarren Munduko Estatua lortu berria zutenen laguntza eta elkartasunaren bila joan baziren ere, aurki behialako kolonialismoaren aurkako buruzagiak, Estatu gizonak bihurtu zirela, eta “modernotasunarekin” konpromiso erradikala zutela ikusi egin zuten. Bertaratu zirenak Hirugarren Munduko gobernuen teknologi, zientzia eta industrializaziorako grina ikusi eta euren balore izpiritualak eta Natura errespetatzeko euren diskurtsoak nola trufatzen ziren ikusi egin behar izan zuten.

Indian leaders learned much about the nature of international politics, and with whom they could align” (Weyler, 1984:213).

Weyler-ek dioskunez esperientzi honen ondorioz Hirugarren Mundukoak ahaztu eta mugimendu etnonazionalistei begira hasi ziren aliatu berriak eta egokiagoak bilatzeko, aipaturikoen artean euskaldunak geundelarik (Manuel,1974:11).

4.2.2 Indigenen aldeko erakundeen sorrera

1970ko hamarkadan Amazonaseko herrien inguruko kezka izan zen nagusi mundu mailan (Coates,1996; Ekins,1992) eta zonalde honetan bizi diren herri indigenak laguntzeko burutuko dira hainbat ekimen. Copenhaguen-en IWGIA sortuko da. Bere helburua herri indigenek mundu mailan bizi duten egoeraren ikerketa plazaratzea izanik. London-en Survival International²¹⁹ sortuko da, herri indigenak pairatzen dituzten gehiegikeriak eta praktika genozidak salatzen.

216 Caravantes-ek (1999) ondo dioten bezala herri indigenen diskurtsoak lehenago eta indartsuago onartu zen Lehen Mundukoaren artean Hirugarren ala Bigarren Mundukoaren artean baino. Etnikotasun indigenak Nazioarteko gizarte zibilean eta Lehen Munduko gobernu batzuen artean aldeko jarrera piztu zuen. Errealitate honek esplikatzen du gaur egun bizi dugun egoera non nazioartekoan irabazitako indarra ez du parekorik aurkitzen maila lokalean. Toki askotan indigenek maila lokalean aurrean duten egoera eta errealitatea etnokratikoa izaten jarraitzen du.

217 Ameriketako Iparaldean gertaturiko eskubide zibileen aldeko mugimenduak posible egin zuten hamarkada honetan funtsezkoa izango den “Intelligentsia” indigenaren sorrera. Unibertsitate mailako hezkuntza munduan sartzeak, gutxiengoentzat ezarritako dauden programetaz baliatuz, posiblea egingo du, emeki-emeki herri indigenen auzietan (Native Studies) delako lerro akademikoak garatzea. Horrela euren profesionalak trebatu zituzten arazoei hobeto erantzun ahal izateko. Ipar Ameriketako indigenentzat unibertsitatearen ateak zabaltzea garrantzi handikoa gertatu zen, batez ere, abokatu indigenen trebakuntza ahalbidetu zuelako eta hauek sinaturiko tratatuen defendatutako trebatu zituztelako. Apurka-apurka profesional hauek piloturiko esperientzia NBERa saltoa egiteko balioko du.

218 Bide “Declaration of the United Nations Conference on the Human Environment” (1972).

219 Hasiera batean erakunde hau Latino Amerikako herrietara dedikatzen zen baina ondoren mundu osoko herrietara zabaltzen zuten euren ahalegina.

AEBn Harvard-eko antropologoek herri indigenen lurak eta kulturak babesten laguntzeko Cultural Survival 220 sortu zuten.

Nazioarteko gizarte zibilean sorturiko erakunde hauekin batera, herri indigenen artean ere nazioartekora batera ekiteko World Council of Indigenous Peoples (WCIP) (1975) eta International Indigenous Treaty Council²²¹ (IITC) (1974) Ipar Ameriketara²²² sortu ziren. 1974an AEBtako 100 nazio indigenek autodeterminazioa eskubidearen aldeko apustua egin eta Subiranotasun Aldarrikapena sinatu zuten (Ryser, 1992). Autodeterminazioa bihurtu zen ondoko urteetan lau haizetara zabaldu zen mugimendu pan-indigenaren marka.

By the mid-1970s, indigenous peoples had formed their own non-governmental organizations. The International Indian Treaty Council, World Council of Indigenous Peoples and eventually the Inuit Circumpolar Conference and the Unrepresented Nations and Peoples' Organization formed the vanguard of organizations with representational participation directly from indigenous nations. Through these bodies began the emergence of a consensus between indigenous nation delegations on the form and content of new international rules of conduct aimed at guiding state relations with these nations. Repeated contacts between delegations began building trust and recognition of a new international principle: Through cooperative measures and agreements, indigenous nations may arrange mutual political, social, economic and strategic support (Ryser, 1994:NET).

Horrela nazioarteko politikan aktore izateko borondate sendoa zeukan aktore berria jaiotzen: Laugarren Mundua. Mugimendu berri honek egoera agoniakoan dauden Estatu gabeko herri indigenak izango ditu protagonista. Munduko periferian, modernotasunaren ertzean bizi zirenak, nazioarteko zentro politikoan zegoen NBera hurbiltzeko abiadan jarri ziren.

On the day it becomes clear to their leaders that differences between world aboriginal peoples are essentially less than their similarities on the account of their historical fate in a world of conquerors and conquered...these people will become a political force (Kleivan aip. Pain, 1985:49).

4.2.2.1 George Manuel: Kontzeptuaren sortzailea

Mugimendu pan-indigena sortzeko ahaleginean aipamen berezia merezi du Chief Joseph Manuel-ek. Chief Joseph Manuel-ek nazioarteko sustatzailearen²²³ (Moravcsik, 1998) papera bete zuen eta Laugarren Munduaren diskurtsoa eta nazioarteko sarea sustatu zuen. Ahalegin honekin euren agenda eta arazoei heltzeko aldeko nazioarteko plataforma sortu eta euren arazoak euren ahotsez planteatzeko espazioa bilatu nahi zen. Manuel boomerang efektua indigenen mesederako posible egin zuen gizona dugu.

Aitzindari honek Kanadako National Indian Brotherhood of Canada (NIBC)-rentzat egin

²²⁰ Cultural Survival-ek garapen ekonomikoa bultzatzeko gobernuen planak eta "fontera"ren zabalkundeak kontuan harturik burutuko du bere lana. Saiakera guzi hauen lana nagusiki Amazonian kokatu zen.

²²¹ IITC sorrera 1974an Hego-Dakotan egindako batzarrean gertatu zen. Bertan ia 98 nazio indigenetako 5000 ordezkari bildu ziren. IITC sareak sortzeko, koalizioak egiteko, informazio zabalteko eta maila lokalean, erregionalean, nazionalean nahiz nazioartekoan herri indigenen partaidetza bultzatzeko asmoarekin sortu egin zen. Orduetik hona IITC nazioarteko partaidetza handia izan du esparru honetan aitzindariaren artean aurkituko dugularik.

²²² Erakunde hauek bereiztu egin ditugu euren asmoen artean fronte pan-indigena zabala sortzea eta kanpo ekintza komuna egitea zutelako helburu. WCIP-k argiago erakusten du bere izaera pan-indigena bere mezua eta egitekoa munduko herri indigena guzietan luzatzen dienean.

²²³ Moravcsikek aldiz, barruan zein nazioartean ondo posizionatuta egonik barneko zein nazioarteko aktoreak mobilizatzeko gaitasuna duen pertsonari egiten dio erreferentzia. Honek gaitasuna izango Estatu barnean blokeaturik dauden auziak berplanteatzeko nazioarteko sostengua lortzeko.

zuen lan, baina bere nazioarteko lanaren²²⁴ ondorioz, pan-indigenismoaren beharra ikusi eta errealitate honi nazioarteko erkidegoan zegokion toki politikoa errebindikatu zuen. 1974an Manuel-ek batera “Laugarren Munduaren”²²⁵ ideia aurkeztuko du. Berak argi utziko du Laugarren Mundua munduko indigenak osotzen dutela eta ez bakarrik Ameriketakoak. Manuel-ek Europa, Ozeania eta Asiako indigenekin mantendu zituen kontaktuak eta pairaturiko barne kolonialismoak sorturiko arazo komunak kontzientzia hartu (Dyson, 2004).

Definizio honetan herri indigenen marka diren gaiak aurkitzen ditugu. Euren naziotasunaren ukapena, arrotzak balira bezala tratatuak izatearena modernotasunak buruturiko kolonizazioaren biktimak izatea (Survival International,1992) Estatu barruan pairaturiko marginazio, indar politikoaren eza, euren lurraldetan dauden baliabideak kudeatzeko ezintasuna lurralde bakoitzean lehenengo herria izatearena²²⁶. Halaber, Naturarekiko harreman berezia kosmos ikuskera ezberdin baten existentzian oinarrituta dagoena aipatu zen. Honelako proposamen honek indigena eta ez indigenen arteko mugak markatu ditu.

A perception of the earth as an animate being: a belief that humans are in a kinship system with other living things; a perception of the land as essential to the identity of the people; a concept of reciprocity and balance that extends to relationships among humans, including future generations, and between humans and the natural world (Suagee, 1998:84).

4.2.2.2 Paradiplomazia indigenaren lehenengo urratsak

1973an, Manuelek Artikoko herriek Copenhaguen antolatutako konferentzia batean parte hartu zuen. Bertan Groelandia eta Kanadako Inuitak, Eskandinabiko Samiak, Kanadako Dene eta Metis Petrolioaren krisiaren erdi-erdian batzartu ziren honelako krisialdiak euren lurraldeetan izango zituen ondorioak aztertzeko, periferiako lurren kolonizazioaren alde iluna erakutsiz. Jull-ek (1998) hemen identifikatu du nazioarteko mugimendu garaikidearen sorrera puntua Batzar honetan auzi indigenei buruzko mundu mailako konferentzia antolatzea adostu zen, eta berau indigenak kontrolatua izan behar zuela. 1974an Manuelek proposamena bota eta beste kontinenteko erakunde indigenekin hasi zen lanean. Manuelek 1974an “*World Council of Churches*” delakoarekin batera hasi zen Herri Indigenen Nazioarteko Konferentzia sustatzen. Urte honetan Guayanan bidea prestatzeko konferentzi bat antolatu zen eta bertan “herri indigenen” definizio politiko pan-indigena bat sortu zen (Sanders, 1980:NET).Guda Hotzaren erdian

²²⁴ Joseph-ek bere bidaetan kontinente ezberdineko herri indigenekin izan zuen kontakua eta Irokeseen eta Maorien nazioarteko esperientzia gogoratuz eta 1971an Nyererek emandako aholkuari jarraituz munduko indigenen arteko batasuna sortzeko ahaleginari ekin zion. Joseph-ek Estokolmoko 1972ko Konferentzian Kanadako ordezkariaren partaidea ere izan zen eta ikusi egin zuen ekologiak eta eko-garapenak irabazten ari ziren indarra. Baita nazioarteko erkidegoan GKEen presentzia eta indarra areagotzen ari zela eta hainbat gaien inguruan NBEak aholkularitza Estatusa eman ziela. Berak biltzen zuen nazioarteko esperientzi hau pan-indigenismoari eskaini zion.

²²⁵ Kontzeptu honi buruz bide Grigs (1992) eta baita McFarlane (1993); Manuel & Posluns (1974); Wilmer, (1993).

²²⁶ Laugarren Munduaren definizioak aldiz honi heltzen dio hasieratik nazio izaerari. Hau da Estatuaren barruan dauden nazioak dira eta praktikan nazio arrotzak balira bezala tratatu dituztenak. Nazio izaera honetan datza gakoa. Laugarren Munduko deialdia Estatuarekin banaka zein nazioarteko Estatu sistemarekin herri indigenekin duten harremana berriz negoziatzeko egiten da. Proposamena Estatu nazioanizdunak sortzea eta bidea autodeterminazioa litzateke. Hamarkada honetan nazioarteko erkidegoan buruturiko HIKEren helburu bat gutxiengo izateari utzi eta herri indigenen nazio izaera errebindikatzea izango da. Garai honetan nazio diskurtsoa nagusitu egingo da: galduriko nazio izaera, iraganeko eta garaiko genozidioa eta etnozidioak eta kolonialismo berria izango da nagusi.

munduko herri indigenek osotzen zuten Laugarren Mundua²²⁷ aurkeztu zen. Aktore berri honek beste blokeekiko independentzia eta bere izaera eta eskaeren berezitasuna aurkeztu zion nazioarteko erkidegoari.

1975an Kanadan Herri Indigenen Nazioarteko Konferentziaren ondorioz WCIP-Herri Indigenen Munduko Batzarra (HIMB)-228 sortu zen. Port Albert-en indigenen ordezkari zabalago egon zen, gobernu ordezkari batzuk eta komunikabideak. Konferentziak ondoko gaiak aztertu zituen 1) NBE mailan zuten ordezkariak, 2) Herri Indigenen Mundu Batzordearen fundazio gutuna 3) herri indigenen egoera politiko, sozial, ekonomiko eta justiziazkoarekin loturiko auziak 4) nortasun kulturalaren bermatzea eta 5) herri indigenen lurra eta lurraldearen babesa. Erakunde hau IITCekin batera HIKEn gune eta erreferente nagusia bihurtuko delarik. Nazioarteratzeko prozesu honetan beste urrats inportante bat NIBC-ek NBEren aholkulari statusa jaso zuenean gertatuko zen, munduko horrelakorik jasotzen zuen lehenengo erakunde indigena izanik. NIBC-ek zuen NBEren aholkulari statusa HIMB-ri pasatu egin zion eta Port Alberni-en erabakitako autodeterminazioa erdiesteko konpromisoa hartu zuen honek. NBEren sorrera aldarrikapenean esandakoa kontuan harturik “*We the indigenous peoples of the world...vow to control our destinies*” aldarrikatu zuen WCIPek. Gaur egungo NBE nagusi den Estatuaren arteko sistema benetako nazioarteko sistema bihurtzeko mundu mailako mugimendua martxan zegoen.

Herri Indigenen Munduko Batzarra agertzearekin batera, aipatzekoa da ere beste nazioarteko sustatzaile baten lana. Jimmie Durham, eskultore cherokeea, 60. eta 70. hamarkadetan Ginebran bizi zena. Bere emazteak Elizen Mundu Batzarrarentzat lan egiten zuen eta mundu osoko askapen mugimenduekin zuen harremana adibidez Hego Afrikako Kongresu Nazional Afrikanoarekin SWAPOrekin, etab. 1974an American Indian Movement delakoarekin bildu eta International Indian Treaty Council (IITC)²²⁹ sortzeko konbentzitu zituen (Dunbar-Ortiz, 2006). AEB barruan AIM, mugimendu indigena erradikalak, pairatzen zuen egoera gogorra lehentzeko modu bat legez ikusten zen nazioartera jotzea. Durham-en proposamenak bat egin zuen Deloriak ere defendatzen zuen nazioartera jotzeko behararekin (Dyson, 2004), ondorioz 1975an sortu zen paradiploiazarako erakunde indigena hau. Bere helburu nagusietarikoa

²²⁷ Nazioarteko bibliografian Hirugarren Munduak berea duen aniztasuna arazoz beterikoa gertatu da. Antzeko gauza gertatzen zaigu Laugarren Munduarekin eta beste hirurekin kontrastatzeko ahaleginean Estatuak ez izatea, (nahiz eta Pazifikokoan egon indigenek zuzenduriko Estatuak egon), eta Naturarekin lotura bereziki inportanteak iruditzen zaizkigu egoera zeharo ezberdinak bateratzen dituzten ezaugarriak kontuan hartzeko orduan.

²²⁸ Kontseilu honek mundu mailako herri, erakunde eta banako indigena asko batuko ditu bere baitan. Koordinadorak erakunde erregionalak koordinatu zituen mundu mailako herri indigenen partaidetza bultzatzeko asmoz. Sorturiko erakunde erregionalak hondoko hauek izan ziren Central American Regional Council, South American Regional Council, South Pacific Regional Council and the Inuit Circumpolar Conference.

²²⁹ Midek (2007) aipatu egiten digu mugimendu indigenari buruzko bibliografian Iparramerikarrek eta IITC-k izandako nagusitasuna. Aldiz beste mugimendu batzuek izan duten garrantzia gutxietsi egin da: Esate baterako HIMB izandako garrantzia eta adibidez Samiek ala Noruegako gobernuak izandako, Sander-ek defendatu egin duena, ez da hainbeste aipatzen. Gainera, IITC izandako partaidetza, Minderen ustez (2007) gai zehatzetara mugatuagoa izan da, baita geografikoki mugatuagoa. Minderen aburuz Manuelek sustaturiko mugimendua benetan globala eta moderatuagoa izanik bide posiblistak hobeto aprobetxatu ditu. IITC aldiz posizionamendu gogorragoak izan ditu “herri indigenen naziotasuna eta honi dagozkion eskubideak” azpimarratuz.

AEBren kontra lotsaren politika (*policy of embarrassment*) erabiltzea (Minde, 2007:18-19).

Mundu osoko indigenak bat egin zuten Laugarren Munduaren ideiarekin, eta nortasun pan-indigena bezala erabili zuten euren gobernuarekin negoziatzeko, baita nazioarteko sistemari bere babesa eskatzeko eta bizi zuten egoera ekonomikoak, sozialak, eta kulturalak hobetzeko eskatzeko (Gartrell, 1986). Honi jarraituz batzarrak, aldarrikapenak batzar paraleloan antolakuntza gertatu zen edonon. Guzti hauen bidez nortasun berri eta agenda pan-indigena amankomuna garatu zen.

NBEren mailako presentzia indigena handitu egingo da 1977an IITC-ak aholkulari izaera jaso zuenean. Bi erakunde hauek bihurtu ziren HIKERen aitzindariak, koordinatzaile eta bultzatzaile nagusiak hamarkada honetan. HIKEA koordinatzeko eta egituratzeko nazioarteko, erregio mailako ala gai zehatzen inguruetan egindako konferentziak eta bestelako ekintzak erabili zituzten. Erakunde hauek pan-indigenismoaren mundu mailako erreferentzia bihurtu ziren, eta paradiploiazia eta nazioarteko prozesuetan partaidetza bultzatzea izango du helburu nagusia²³⁰. Partaidetza eta presentzia bultzatzeko modua herri indigenen arazoak tratatzeko nazioarteko konferentziak sustatzeara izango da. Konferentzi hauek GKE ez indigenekin batera egingo dira. Era honetan Manuel-ek (1974:261) esandakoa eredu bihurtuko da *"I have set down here our own needs as Indian peoples for the Fourth World. We know that we cannot move very far in that direction unless you (non-Natives) also choose to move"* eta finkatu egingo dute HIKERen ezaugarri garrantzitsu hau.

Paradiploiazia esker, gizarte zibilaren erakundeekin lan eginez, informazio berria publikatu, giza eskubideetan berezituriko erakunde eta beste aktoreekin nahiz akademiarekin loturiko zirkuluetan debatea bultzatuz, gobernuen politikak, proiektu eta jokaerak kritikatu egin ziren. Honela, herri indigenen arazoak, euren eskaerak eta gero eta hobeto antolaturiko proposamenak nazioartean egin ziren. Honekin batera, GKEek lagunduta, biderkatu ziren nazioartera egindakoak. Esate baterako, Amazoniako hainbat aitzindari indigenak aukera izan zuten euren egoera aztertzen zuten konferentzi ezberdinetan parte hartzeko. Wisconsin-eko Unibertsitateak 1977an Barbados IIan antolaturiko bigarren biltzarrean²³¹ zein 1978an Arrazismoa eta Arraza Bazterkeria konbatitzeko Nazio Batuen Konferentzian eta Baliabide Natiboen Kontrola eta Nazioarteko Korporazioen problematika aztertzeko konferentzian parte hartu zuten (Morris, 1992). Konferentzi honetan, lehenengoz, "herri indigena" izena erabili zen

²³⁰ Asmo honen sendotasuna eta giza eskubideen alorrean bultzatu behar zen ekimena zela argi zuten herri indigenek. Honen lekuko 1977an Kirunan, Suediako Samien lurraldean, WCIP-ek onarturiko aldarrikapena dugu bide WCIP (1977). Bertan herri indigenek pairaturiko giza eskubideen bortxaketak salatzeak, NBEan eta nazioarteko erkidegoan giza eskubideez arduratzen diren erakundeetara eramateko deialdia egiten zaie munduko aitzindari indigenei. Baita NBEari fondo bat sortzeko deialdia egiten zaio beraren aurrean zein beste erakunde zein nazioarteko epaitegien aurrean euren kasuak aurkeztu nahi dituzten indigenei laguntzeko. Kirunako aldarrikapen honetan hurrengo hamarkadan Populazio Indigenen Lantaldeak landuko duenaren aurrekari bat aurkitu daiteke.

²³¹ Gure ikuspegitik Barbados II aurrekoa baino interesgarriagoa da bertan partaidetza indigena izan zelako. Aurrekoan ez zen horrelakorik gertatu.

inolako mugarik gabe eta onartu egin zen indigenek euren lurraldeekiko eta baliabideekiko eskubideak zituztela. Konferentzia honetatik ateratako aldarrikapenean zera esaten zen.

21. The conference endorses the right of indigenous peoples to maintain their traditional structure of economy and culture, including their own language, and also recognizes the special relationship of indigenous peoples to their land, and stresses that their land, land rights and natural resources should not be taken from them.

Amazoniako indigenek aukera izan zuten euren laguntzaileekin eztabaidatuz euren ikuspegia zabaltzeko, iritzi eta analisisia ezberdinak entzuteko eta euren borrokarekin bat egingo luketen talde eta posibilitateez jabetzeko. Kontaktua hauei esker euren erakundeak zein garapen proiektuak bultzatzeko behar zituzten bitartekoak lortu zituzten.

1977an Barbados II-rekin batera, garrantzi handikoa gertatu zen beste biltzar bat dugu. “*International NGO Conference on Discrimination Against Indigenous Populations*”. Konferentzi honen antolakuntzan paper nagusia izan zuen IITC-ek. Bertan NBEan aholkulari statusa zuten 600 erakunde inguru bateratu ziren Arraza Bereizkeriaren eta Deskolonizazio Batzordeak gonbidatuta. Bertaratu zirenen artean 26 irokesak euren pasaporteekin joan zirenak²³² aipatu behar. Ekintza hau sinbolikoa bada ere galduriko Estatusaren errebindikazioa erakusten du eta ekintza paradipomatikoa kontsideratu dezakegu. Une honetan argi gelditu zen HIKE burutzeko eta, batez ere, NBEan partehartzeko erabaki tinkoa zegoela. Horrela erakusten du NBEko bertan Russel Means-ek esandakoak.

You see there is only one color of mankind that is not allowed to participate in the international community, and that color is red. The black, the white, the brown, the yellow- all participate in one form or another. We no longer, until this day, have had a voice within the international community (aip. IITC, 1977).

Pasarte honetan “gizon gorriaren ideologiak” nazioartean parte hartzea aurreikusten zuela erakusten du. Russel-ek indigenak nazioak bezala onartuak izatea eta hauei dagokien nazioarteko presentzia bermatzeko neurriak hartzea eskatu zuen. Hau da, NBE mailan paradipomazia indigenaren mugarrietako bat: estreinakoz indigenak NBEren barnean, euren ahotsez hitz egiteko parada izan eta Laugarren Munduari zegokion tokia errebindikatuko egin zutenean.

Biltzar honen ondorioen artean aipagarria dugu *Draft Declaration of Principles for the Defense of the Indigenous Nations and Peoples of the Western Hemisphere* egin zela. Dokumentu honetan onartu egiten zen nazio indigenak eta herri indigenak daudela eta errealitate hauei moldatzeko nazioarteko legedi berria behar zela. Aldarrikapen hau, 1985an egindakoarekin batera, oinarritzko dokumentu eta aurrekariak izango dira HIGEA diseinatzeke orduan. Dokumentu hauetan defendatu egiten da nazioarteko aktore berri baten existentzia eta kategoria honi dagozkion eskubideak bermatzeko eskakizuna egiten da.

²³² Pasadizo honek garrantzi sinboliko handia du mende hasieran gertatu zen bezalaxe Suizak onartu egin zituelako pasaporteak eta munduko herri indigenen artean Irokesak direlako Estatua berriz izateko gogoia errebindikatzen duten gutxienetariakoak. Irokesak tesi honen hasierako kapituluetan erakutsi dugun bezala aparteko kasua dira eta bere garaian konfederazio politiko indartsua zirela ez dago ukatzerik, ezta domestikazio politikari egindako erexistentzia.

Nazioarteko diskurtso honi esker, nazioarteko gizarte zibilaren laguntza izanik, herri indigenek sendotu eta berrindartu egin zituzten euren tokian tokiko diskurtso politikoak eta alternatiba kulturalak. Era honetan, belaunaldietan zehar sorturiko eta mantenduriko ikuspegi, mezu eta eskaerak plazaratu egingo dituzte. Baita ere eskatu euren Estaturei nahiz legea goiburu duen nazioarteko erkidegoari euren eskubideak errespetatzea. Eskubide hauen artean autodeterminazioa, herri ezberdinak bezala irauteko eskubidea, euren bizimodua mantentzeko zein herri garapena euren asmoei jarraituz nahiz eurak protagonista izanik lortzeko eskubidea²³³ aurkituko ditugu.

Idea honi jarraituz erakunde indigenek nazioartera abiatuko dira, batetik euron gobernuarekin duten negoziatzeko ahalmena sendotzeko, bestetik, gobernuaren kontroletik at dagoena esperimentatzeko eta elkarlanerako eremu autonomo bat izateko non beste aktoreekin estrategia komunak landu daitezkeen (Carruthers, 1996).

Indigenak euren arazo propioak nazioarteko gai eta joerekin lotzen hasiko dira Giza eskubide ekologia ala bakearekin loturikoak jorratuko dituzte euren proposamenetan. Hots, hamarkada honetan hizpide zen “*New Economic Order*”²³⁴ delakoari buruz hausnarketa plazaratu zuten proposamen honen alde onak zein txarrak erakutsiz.

En la década de 1970, los indígenas de toda América formaron alianzas nacionales e internacionales y utilizaron esta nueva voz para defenderse de las políticas que ignoraban su derecho a la tierra y amenazaban su supervivencia. Comenzaron a tener presencia en los medios de comunicación y a enfrentarse al Banco Mundial, a los gobiernos y a otras instituciones responsables de la violación de sus derechos. (Survival International, 1992:5).

Hamarkada honetan HIKE eta giza eskubideak fermuki lotuta agertuko zaizkigu eta joera hau sendotu egingo da hurrengo hamarkadetan.

4.3 1980KO HAMARKADAN MUGIMENDUA SENDOTZEN

Hirugarren Munduan inportazioak ordezkatzeko estrategiek porrot egin zuten. Nazioarteko Fondoak eta Munduko Bankuak Hirugarren Munduko Estaturen kanpoko zorra ordaintzeko egitura ekonomikoa doitzeko programak jarri zituzten martxan. Gauzak horrela, aurreko hamarkadetan hasitako herri indigenen lurraldeetan aurkitzen ziren baliabideen ustiaketak gora egin zuen.

Hirugarren Munduko Estaturek zein nazioarteko erakundeek sustaturiko erasoei erantzuteko mobilizazio indigenak indarra irabazi zuen, eta jarraitu egingo ditu Banku Mundialaren eta beste nazioarteko erakundeen aurka 1970ko hamarkadan emandako urratsak.

233 Honelako gaiei buruzko hausnarketa dokumentuak eta eztabaida anitz eman ziren autodeterminazioarekin batera, lurraldearen gaineko kontrola, nazio izaera eta talde jabegoa defendatuz. Bide WCIS (1981). Bertan Sub-Committee on Petitions, Information and Assistance of the Special Committee on Decolonization delakoaren gonbidapenari erantzunez WCIP gai hauekin loturiko jarrera erakutsi zuen.

234 Zehaztasun gehiagorako bide CWIS (1979).

Beraz, hamarkada honetan Laugarren Munduaren ekimena sendotu egin zen eta globalismo harrapakariari aurre egiteko gauza bihurtu (Delgado, 1996).

Hamarkada honetan ere, ekologiak nazioarteko agendan aurrera egin zuen. Garai honetan hasiko dira herri indigenen eskubideak eta ekologia lotuko dituzten analisiak egiten (Delgado, 1996). Aurreko hamarkadetan garapena gidatu zuen paradigma nagusiaren kritika bizia egingo da, eta herri indigenen rola berraztertu ekologiarekin eta giza eskubideekin loturiko gaiak indarra hartzen zuten heinean.

Whites concerned about the survival of the environment could suddenly see that the Indians have been giving environmental speeches for hundred years, suddenly, when, to the more pessimistic ecologist prospects for a fruitful future seemed most dark the Indian movement lit the way with a convincing and healthy relationship to the land (Weyler, 1984:243).

Indigenak akademikoen artean eta eurei loturiko komunitate epistemologikoen artean ospea irabaziko zuten (Gupta, 1999), eta honek baldintzatu eta erraztu egingo du euren aldeko jarrera. Garapen alternatiboa, ekologia, giza eskubideak eta herri indigenak (Nugkuag, 1995) lotzen duen ikuspegi alternatiboak aurrera egin zuen nazioarteko aditu, gobernu teknikari, akademiko GKEen zein, azkenenik, politikoen artean.

Akademikoen artean aipagarria da herri indigenek nazioarteko sare epistemologikoen laguntza jasoko dutela. Antropologia, Ekologia, eta Giza Eskubideetan zein gatazka prebentzian adituak direnek lagundu egin zituzten indigenak Komunitate hauek oso inportanteak dira askotan Estatuak eta nazioarteko erakundeek euren deliberoak hartzeko erabiltzen duten marko ideologikoa baldintzatzen dutelako (Salomón 1992 Haas, 1992:35 aip.).

70. hamarkadan Laugarren Munduko aktibista eta ideologoek defendatu egin zuten herri indigenen nazio izaera eta autodeterminazioa gorpuzteko era egokiena herri indigenen gobernu modeloak indartzea zela. Horrelako proposamenek borroka indigena laguntzen hasten diren kolektibo ezberdinetan sustraitu ziren. Hauteriko batzuk hasi ziren Laugarren Munduaren izaera alternatiboa azpimarratzen. Akademian antzeko zerbait gertatu zen Nietschmann-ek (1985)235 bere lanak argitaratu zituenean eta indarrean zegoen Guda Hotzaren ideologiari ikuspegi berri bat gehitu zionean. Ikerlari honek Estatuak eta herri indigenak elkarren aurka zituzten gatazkak ezin zirela Guda Hotzaren testuinguruan bakarrik ulertu esan zuen, eta Laugarren Munduaren existentziaz eta Laugarren Munduko gudetaz hitz egin zuen. Soka beretik jarraituz nazioarteko aktore berri baten sorrera iragarri zuen.

Increasingly, the Fourth World is emerging as a new force in international politics because in the common defence of their nations, many indigenous peoples do not accept being mere subjects of international

235 Egile hau Nikaraguako kosta Atlantikoan bizi diren indigenetan (mismitos, sumos, ramos), aditua izanikEste aper handia jokatu zuen AEB eta Sandinisten arteko gatazkan. Junta Sandinistak indigenak nola tratatzen zituen auzia bihurtu zen. Hau zela eta, Reagan administrazioak laguntza politiko eta militarra eskaini zien indigenei.

law and state sovereignty and trusteeship bureaucracies. Instead, they are organizing and exerting their own participation and policies as sovereign peoples and nations" (Ibid.)

Akademiko eta aktibisten lan konbinatuak argi utzi zuen Estaturen gaur egungo mugak ez datozela bat herri indigenen muga "imaginatuekin", eta salatu egin zuten herri indigenek galdua zutela euren lurretan zeuden baliabideen gaineko kontrola eta beraiek erabiltzeko aukera. Nietschman (1994:231-238) gainera salatu egin zuen nazio-erakuntzaren beste alde nazio-desegitea zela, eta desegite honek askotasun biologikoa eta kulturala etengabe murritzen ari zela. Nietschman-en lana Nicaragua eta Guatemalan zentratu zen nagusiki, baina era berean hamarkada honetan bizi ziren gatazka asko Laugarren Munduko gerlak zirela erakutsi zuen.

By the end of 1983 and the beginning of 1984, Indigenous populations had become involved as direct combatants, or as targeted non-combatants in no fewer than twenty wars or major violent conflicts of an ongoing nature around the world. Notable among these conflicts are those involving the Timorese (Indonesia), Kalinga and Bontoc (Philippines), Miskito, Sumo and Rama (Nicaragua), Pipil (El Salvador), Maya (Guatemala), Karen (Burma), Yanamamu (Brazil), and Naga (India) (WCIP,1984:NET).

Hamarkada honetan Laugarren Mundukoek kuestionatu egingo dituzte existitzen diren eta indigenak bizi direneko Estaturen muga geo-politikoak, batez ere muga hauen barnean nazio bakarra dagoela dioen pentsamendu ofiziala (Minde 1995). Garai honetan Laugarren Munduak arrakasta lortu zuen Estaturen barruan herri indigenek duten espazio eskasa salatze, baita domestikazio eta asimilazio politiken aurkako iritzia indartzen.

...the legitimacy of political incorporation and cultural assimilation as an exercise of state sovereignty" (Wilmer, 1992:42).

Hamarkada honetan Laugarren Mundua oso efektiboa izan zen Mendebaldeak herri indigenen aurrean erakusten zuen nagusitasuna kritikatzeko. Horrexegatik bilatu egin zuen diskurtso kolonialak sorturiko irudi ezkorretatik askatzea eta indiotasuna zerbait positibo bezala ezarri. Gainera, lortu egin zuen erakustea munduan zeuden gatazka politiko, militar, kultural eta ekologiko asko ezin zirela konpondu herri indigenen eskubideak aitortu eta indarrean jarri arte. Gainera, Laugarren Mundua agertu egin zen globalizazio harrapakariaren aurka ziharduen aktore geopolitiko sendo eta indartsu bezala (Delgado, 1996:1).

Beraz, Hirugarren Munduan gertaturiko mobilizazio indigenak mundu mailako erreferente bihurtuko ziren gizarte zibilaren zein akademikoentzat, komunikabide eta politikoen arreta erakarriz (Carruthers, 1997, Shiva 1998). Amazonia, Narvada ala Chipcko gertaturiko mobilizazioak globalizazio neoliberalaren aurkako sinboloak bihurtu ziren eta aldaketa sozial eta politiko baten beharra erakutsiko dute (Jassonof,1997). Kasu hauetan ekologistekin batera izandako protagonismoak indigenei ikusgarritasuna eman zien. Ekologistentzat indigenak globalizazio neoliberalaren aurkako erexistentzian lehenengo defentsa lerro bihurtu ziren (Cultural Survival, 1993). Indigenak eta ekosistemak lotzen dituen ikuspegia indarra irabazten hasiko da hamarkada honetan. Etnoaniztasunik gabe ez dagoela bioaniztasunik argi gelditu zen (Shiva, 1989). Indigenek zuten muga mugen etikak ez indigena askoren interesa lortu zuen (Martínez

Bringas, 2006), baita nazioarteko mugimendu ekologistarena. Egoera honetan Laugarren Mundukoek genozidio, “etnozidio” eta “ekoizidio”ri alternatiba bezala defendatzen zuten autodeterminazioa sostengua irabazten hasi zen.

Beraz, ekologismoak eta garapen alternatiboaren indarrek mundu politikoan zein akademian aurrera egiteak indigenentzako mesedegarria gertatu zen. Lehenengo munduan alderdi berdeak espazio politikoa lortu zuten eta alderdi tradizionaleri alternatiba bihurtu ziren hainbat herrietan. Hirugarren Munduan pobreen ekologismoa agertuko da neoliberalismoak martxan jarritako hainbat proiektuen aurka mobilizatuz. Ekologismoa eta garapen alternatiboa helburu zuten nazioarteko gizarte zibila herri indigenen aliatu bihurtu zen.

Whites concerned about the survival of the environment could suddenly see that the Indians have been giving environmental speeches for hundred years, suddenly, when, to the more pessimistic ecologist prospects for a fruitful future seemed most dark the Indian movement lit the way with a convincing and healthy relationship to the land (Weyler, 1984:243).

Herri indigenei mugimenduaren zabalkundeari dagokienez, hamarkada hau Asiako herri indigenen hamarkada izango da zalantzarik gabe. Aurreko hamarkadan Lehenengo Munduko indigenen protagonismoa nagusi zen batez ere Amerika, Australia y Ozeania (Bose 1996, Kingsbury, 1997). Mugimendu hauek demokrazia jaio eta garatu egin ziren. 80. hamarkadan berriz Asiako mugimenduek diktadura gogorrei aurre egiten agertuko dira. Asiako herri indigenen hamarkada izango da (Bose, 1996). Asian 150 milioi indigena bizi dira Bangla Desh, Burma, Txina, India, Indonesia, Japon, Malaysia, Pakistan, Filipina, Sri Lanka edo Tailandia bezalako herrietan (Pritchard, 2001). Asiako herri indigenen garapen programen aurkako mobilizazioa²³⁶ indartu egin zuten²³⁷, eta Asian barneko kolonialismoak hasitako hainbat gatazka non etnozidioa eta ekoizidioa bateratzen zirela erakutsi zuten. (Peang-Meth 2002), baita hauen aurkako mobilizazioa.

Filipinasen Cordillera People Bangla Desh-en Chittagon Hill Tracks-eko jendea, Malasian Sarawak-eko Penan edota Indonesian Dayak-en kasuak aipagarriak dira, egoera larrian bizi ziren toki hauetako herri indigenak euren defentsarako erakundeak sortzeaz gain nazioartera jo zuten²³⁸. Asiako erakunde indigena hauek PIL-era joko zuten euren errealitatea erakusteko eta

236 Cultural Survival Quarterly aldizkariak ale bereziak atera zituen hamarkada honetan nazioarteko garapen programen aurkako herri indigenen borrokaren testigantza emateko bertan betidanik jasan duten etnozidio ala genozidio ahaleginei garapen programen kaltea eta aurkako erexistentzia agertuko dira protagonista. Mobilizazioaren ikuspegi zabala eta aberatsa izateko bide Cultural Survival Quarterly-ren ondoko ale bereziak (1982) Deforestation: The Human Costs Cultural Survival Quarterly 6. (2); (1984) Mobilization Organizing to Survive Cultural Survival Quarterly 8 (4); (1986) Multilateral Banks and Indigenous Peoples: Development or Destruction? Cultural Survival Quarterly 10 (1); (1986) Mountain People Cultural Survival Quarterly 10 (3); (1988) Hydroelectric Dams Cultural Survival Quarterly 12 (2); (1986) Land Rights Cultural Survival Quarterly 10 (2).

237 Honetaz gain herri indigenek multinazionalak ulertzeko eta eurekin aritzeko egindako ahaleginaren lekuko dira ondorengo dokumentuak WCIP (1981) www.wcis.org/fwdp/international/transnat.txt; Ryser (1982) www.wcis.org/fwdp/international/worldbnk.txt; WCIP www.wcis.org/fwdp/international/trnscorp.txt. ala National Congress of American Indians www.wcis.org/fwdp/international/bankpoly.txt.

238 80. hamarkadan ezezik 90. hamarkadan eta orain ere jarraitzen dute indigenek euren eskubideen bortxaketa pairatzen. Horretaz jabetzeko bide Manchanda (2006), Jackson. (2000), Tauli-Corpus (2000), Swain (1996), Malanes (1999), Parajuli (1990).

nazioarteko erkidegoaren laguntzaren bila. Latino Amerikan aurreko hamarkadan gertaturiko gatazkei Asiako, Ozeania ala Afrikakoak gehituko zitzaizkion. 1989an estreinakoz erakunde afrikar baten partaidetza ematen da Moringe Ole Parkipuny, Tanzania masaiak Populazio Indigenen Lantaldean parte hartu zuenean (Hodgson, 1994).

Amazoniarekin batera Asiako basoen defentsa munduko herri indigenen eta ekologisten ikurra bihurtuko da. Testuinguru honetan aniztasun ekologikoa mantentzeko kultur aniztasunak duen garrantzia gizarte zibilaren printzipioen artean sendotu egingo da. Akademia mailan OJri garrantzia ematen hasiko zaio eta Brundtland txostenak erakusten duen bezalaxe, ingurumen eta gizartearen arteko harremanari, kulturaren garrantzia ingurumena mantentzeko zein partaidetza eragiteko orduan batik bat gehituko zaio.

1970ko indigenen mobilizazioa nazio errebindikazioan zentratu bazen ere 1980 hamarkadan nazioarteko agendan agertzen ziren gaiei loturiko lana burutu zuten. Indigenak argi ikusi zuten nazioarteak bizirauteko beharrezko laguntza eman zezakeela. Hain zuzen ere, euren ahotsa kanpoan entzunarazteko eta kanpotik laguntza eta baliabide gehiago erakartzeko gaitasuna bihurtuko da mugimendu indigena garaikidearen marka (Niezen, 2003).

Aurreko hamarkadan pilaturiko esperientzia aprobetxatuz, indigenek nazioarteko erakundeen mailan parte hartzea sendotu egin zuten. Nazioarteko sistema gobernatzen dituzten sistema normatiboa ezagutzeko eta erabiltzeko balioaz jabetu eta trebezia erabili zuten. Erakunde indigenak Herri Indigenen Eskubideak defendatzeko nazioarteko aldarrikapen baten beharra defendatzen hasiko dira²³⁹. Aurreko hamarkadako Kirunan erabakitakoari helduz, Martinez Cobos, NBEko adituak, egindako txostenaren bidetik joz eta giza eskubideekin loturiko beste tresna juridikoei erreferentzia eginez euren eskaerak planteatu zituzten²⁴⁰.

Kontinente guztietan, euren indarra hobetzeko asmoz, herri indigenak Estatu mailako erakundeak ala erregio mailakoa erakunde pan-indigenak sortzen hasiko dira. Erakunde berri hauek nazioarteko gizartearen aktore aktiboak diren erakunde-kideak izango dira. (Martí i Puig 2004, Pieck 2006), Latino Amerikan aldiz erregio mailako erakunde pan-indigenen sorrera ikusiko dugu. Aurreko hamarkadan sorturiko erakundeak “*Confederación de Naciones Indígenas de la Amazonia Ecuatoriana (CONFENIAE)*”, “*Asociación Indígena de la Selva Peruana (AIDSESP)*”, “*Consejo Regional Indígena del Cauca (CRIC)*”, “*Confederación Indígena del Oriente Boliviano (CIDOB)*”, UNI (Brasil) eta hamarkada honetakoak *Organización Nacional de*

239 Nazioarteko Giza eskubideei loturiko estandarren eskaeraren inguruan bide (1981) [www.wcis.org /fdwp/international/intconv.txt](http://www.wcis.org/fdwp/international/intconv.txt); (1986) [www.wcis.org /fdwp/international/fwp20884.txt](http://www.wcis.org/fdwp/international/fwp20884.txt); pakearen eta blokeen arteko distentsioarekin lotuta (1985) www.wcis.org /fdwp/international/daypeace.txt; (1981) www.wcis.org /fdwp/international/indlnd.txt; autodeterminazioari buruz (1985) www.wcis.org /fdwp/international/ slf-dtrm.txt. dokumentu hauek GKEen foroetan zein NBEren erakunde ala partaideen aurrean aurkeztu ziren.

240 NBEren mailan egindako aurrerapen eta herri indigenei zuzenduriko nazioarteko itun baten beharra 1981 kaleratu zuen WCIP-ek (1981). Bide www.wcis.org/fdwp/international/intconv.txt

Indígenas de Colombia (ONIC) bateratu egingo dira eta *Confederación de Organizaciones de la Cuenca Amazónica* (COICA)²⁴¹ (1984) sortu zuten.

Herri Indigenen Munduko Batzarrak hamarkada honetan egindako lana ikaragarria izan zen. Manuelek bost kontinenteetan zehar bidaiatu eta bertako indigenekin aritu zen (Sanders, 1980). WCIP-ren inguruan bilduriko erakundeek 1980an herri indigenek genozidio, ekozidio eta etnozidioaren salaketa burutu zuen “Bertrand Russel Tribunal”²⁴² antolatu zuten. Bertan herri indigenek pairaturiko genozidio, etnozidio, ekozidio eta gainerako bortxaketen nahiz errudunen deskribapen gordina egin zen. Laugarren Munduak lortu egin zuen Noruegaren laguntza Russel Tribunal-aren ostean. Honekin batera Groenlandiako gobernuak emandako laguntza eta sostengu intelektuala oso inportantea izango da. Eta honetan Laugarren Munduak ordu arte ezezagunak zituen mailetara heltzeko gai izango zen (Minde, 1995). Garai honetan mugimendu indigenak egindako nazioarteko aliantzek lagundu egin zioten euren indar politikoa sendotzen eta globalizazio harrapakariaren ondorio ezkorrei aurre egiten (Weiss, 2000).

Urte bat geroxeago 1981an UNESCO-k Meeting of Experts on Ethno-Development and Ethnocide in Latin America burutu zen Costa Rican. Biltzar honetan etnozidioren salaketa eta etnogarapenaren aldeko apustua eginez. Hau garrantzi handikoa suertatu zen herri indigenek pairatzen duten errealitateari heltzen ziolako. Ordu arte, asko ziren etnozidioaren existentzia ukatzen zuten adituak eta asimilazioa zen jarraitu beharreko politika ofiziala. UNESCOren bilera asimilazioa zalantzan jarriko eta alternatiba gisa etnogarapena defendatu zuen. Urte berean GKEek antolaturiko *International NGO Conference on Indigenous Peoples and the Land*. Indigena asko bildu ziren hemen 1977ko biltzarrean baino gehiago eta lehenengo aldiz Laugarren Mundua” bezala NBEan aurkeztu zuten euren burua (Pino-Robles, 1999). Giza Eskubide eta Ekologiarekin loturiko gaiak eztabaidatu zituzten: energi, mineral, nekazaritza industriekin, jaki ala nazioarteko droga trafikoarekin loturiko gaiak, alegia.

Urte honetan ere garrantzi handiko beste gertakizun bat gertatu zen Douglass Sander, eta Manuelen aholkulari eta zuzenbide irakasleak, Herri Indigenen Munduko Batzarraren bilera batean nazioarteko Konbentzio baten zirriborroa aurkeztu zuenean, hau da herri indigenen eskubideak zaintzeko nazioarteko estandar baten proposamena egin zen lehenengo aldia (Minde, 2007:27). Konbentzioa Estatuak eta herri indigenek onartu beharko zutelarik.

HIKEren beste bi mugarri 1982an gertatuko dira. Lehenengoa, Banku Mundialak euren

²⁴¹ Erakunde hau osotzen duten erregio mailako erakundeei buruz eta egindako lanari buruz gehiago jakiteko bide COICA <http://www.satnet.net/coica/>.

²⁴² Tribunal honek indar morala izan zuen gehien bat eta “Bertrand Russell Tribunal on the Rights of the Indians of the Americas” deitu zen. Herri indigenekiko mundu libreak izandako jokaera eta praktikak salatu eta giza eskubide mailan bere nagusitasuna zalantzan jarri zen. Indigenek bizi zuten egoera latza eta larria mahai gainean jarri zen eta giza eskubideen alorrean aditu eta aritu ziren guztien atentzioa erakarri zuen. Txosten honetan mundu osoko indigenek pairatzen duten bortxaren salaketa eta giza eskubideen aldeko eskakizuna entzun zen El Salvador, Guatemala, Bolibia eta Txileko gobernuen kondena egin zen. Bide www.wcis.org/fwdp/international/russell.txt.

V KAPITULUA:
ETXEAN PENTSATUZ MUNDUAN JOKATU: XX. MENDEKO NAZIOARTEKO
POLITIKAREN AKTORE BERRIA

*Tribal Policy*²⁴³ onarpena izan zen. Dokumentu honetan herri indigenei eskubide batzuk onartu egiten zaizkie. Era honetan Bankuaren politika barruan zegoenez maileguak eskatzen zituzten gobernuei presioa egiteko beta aurkitu zuren indigenek. Nahiz eta *Tribal Policy* honek kutsu asimilazionista izan, garapen proiektuek herri indigenengan duten ondorio genozidak, etnozidak eta bestelakoak saihesteko borondatea agertu zuen. Bankuak honelakoak saihestea iradokitzen zaien Bankuaren zerbitzuak eskatzen dituzten gobernuei. Horrenbesteko garrantzia duen erakunde batek martxan jarritako ekimena dugu hau eta hemendik eratorria den arautegiak parada eskainiko die indigenei euren Estatuei presioa egiteko nazioarteko legedia eta iritzi publikoa erabili zuten indigenek.

Garrantzi handiko beste mugarrira 1982an NBEk, herri indigenek egindako presioei zein berak aginduriko Martinez-Cobos-en txostenari erantzunez, Populazio Indigenen Lantaldea (PIL) onartu²⁴⁴ zuenean gertatu zen. Era honetan urteetan NBEren aldetik indigenek pairaturiko interes eza amaitu egin zen. PILk Laugarren Munduaren partaidetzarako, euren arazoez arduratzeko eta hauei erantzuteko nazioarteko legedia egiteko saioan parte hartzeko atea zabaldu zuen. PIL HIKERen bilgune nagusia bihurtu zen eta herri indigenen ekintza paradipomatikoa sendotzeko, sustatzeko zein koordinatzeko balioko²⁴⁵. Ahalegin honetan herri indigenek, aldeko hainbat GKE ez indigenen laguntza izan zuten²⁴⁶. GKE hauen lana funtsezkoa bihurtu zen NBE mailako HIKE aurrera eraman ahal izateko.

PIL sortu zenetik, indigenen ekimen nagusia eremu honen inguruan kokatu da, bere locus

²⁴³ Banku Mundialaren 1982ko "Tribal Policy-k" argi uzten du mailegu bat lortzeko gobernuak bete behar dituzten baldintzak eta kezkatuta azaltzen da indigenek garapen proiektuak eragotzeko eta Bankuaren irudia zikintzeko daukaten ahalmenaz. Multinazionalak nazioarteko erkidego eta, batez ere, NBE erabiltzeko zuten ahalmenaren jabe izanik, indigenak hasi ziren nazioartera jotzen, multinazionalen papera salatzen eta euren eragin ezkorra mugatzeko beharra defendatzen. Hamarkada honetan inoiz baino gehiago, Banku Mundiala, Nazioarteko Moneta Fondoa eta gainerako nazioarteko erakunde finantzierok zein multinazionalen laguntzarekin Estatuek buruturiko garapen proiektuan aurka bideratuko da mobilizazio indigena.

²⁴⁴ Lehenengo aldiz, munduko "herri indigenek" nazioarteko gizartearen gune nagusia den NBEren mailan euren arazoak eta ikuspuntuak plazaratzeko eta nazioarteko prozesuetan zuzenean parte hartzeko parada izango dute. Prozesu honetan erabateko izan zen Augusto Willensen, Guatemalako ordezkariaren papera (Clavero, 1994). Berak defendatu egin zuen herri indigenen auziak aztertzeko aparteko talde bat sortzea. Ordura arte indigenen arazoak gutxiengo eta talde etnikoen foroetan tratatzen ziren. Willensen-ek herri indigenak aparteko entitateak izanik euren arazoak bereziak zirela eta defendatu zuten NBEren aldetik azterketa berezia merezi zutela. 1982an gertaturiko lehen bileran zeuden 30 lagunek 1999an 1000 inguru hartu zuten parte. Partaidetzan ikusten dugun igoera handi-mandi honek bertan trataturiko auzien garrantziaren eta hauek tratatzeko prozesuak eta metodologia zabalak lorturiko arrakastaren erakusleak dira. 80ko hamarkadan Lehen Munduko erakunde eta herri ordezkariak ziren nagusi NBE mailako partaidetzan. Erakunde hauekin batera Europa ala Ginebra inguruan bizi ziren banako indigenen partaidetza eman zen (Stavenhagen, 1995).

²⁴⁵ Partaidetza eta negozio bideratzeko indigenek proposaturiko printzipioak zeintzuk diren jakiteko bide <http://www.cwis.org/fwdp/international/82-11964.txt>. Berlan Giza eskubideen Batzordearen E/CN.4/Sub.2/AC.4/1982/R.1 dokumentuaren kopia aurkitu daiteke.

²⁴⁶ HIKEaren historia eta bere arrakasta ezin izango genuke ondo ulertu GKEek, hots, "World Council of Churches" (WCC) ala "Asociación Internacional de Juristas", IWGIA, Survival, Cultural Survival, Anti Slavery Society eta antzekoen laguntzari erreparatu gabe. Erakunde hauek baliabide ekonomikoak, teknikoak, paradipomatikoak eta juridikoak eskaini egin dizkio Laugarren Munduari. Hasieratik herri indigenak nazioarteratzeko ahaleginean bultzatzaile eta laguntzaile izan ditugu. Eurek lortu dute auzi indigenak nazioarteko zein tokian-tokio komunikabideetan eta agenda politikoetan egotea eta bultzatu egin dute herri indigenen nazioarteko partaidetza NBEren erakundeetan batik bat. Helburu honekin HIKE bultzatzeko eta zabalatzeko erregio mailako konferentziak eta mintegiak burutu egin ziren. Aipamen berezi merezi du WCC-k urtero Lantaldea bildu baino lehen burutzen duen biltzara non bertaraturiko herri indigenek elkar ezagutzeko eta tratatu behar diren auzien aurrean komuneko estrategiak lantzen dituzten. Bilera hauetan "Caucus Indigenaren" hazia aurki dezakegu. Honetat gain, WCC eta WCIP arteko elkarlana iraunkorra izan da. 1980tik elkarlan hau erakunde kristau honen eta herri indigenen arteko solasaldiaren testuinguruan kokatu behar da eta berari giza eskubideak oinarri dituen mundu justuago baten aldeko ahalegin komunean. Elkarrengatiketa honetan kokatzen da HIKEa eta herri indigenen nazioarteko mugimendua, zibilizazioen arteko elkarrengatiketa burutzeko kode ezberdin eta aurrerakoak ezartzen direlarik. Honelako prozesuek garrantzi handia dute zibilizazioen arteko elkartopoa historikoki bortxarekin konpondu nahi izan direlako eta indartsuen nagusitasuna inposatu delako herri indigenen eta ez indigenen arteko elkarrengatiketa. Ostera, hamarkada honetan GKE eta gizarte zibilaren erakunde ez indigenek buruturiko esperientzia giza eskubideen unibertsaltasuna oinarri izanik, 500 urtez luzatu den harremanaren kode nagusiak berdefinitzeko parada eskaintzen du.

nagusia izatera heldu delarik Foro honetan munduko herri indigenek bizi dituzten arazoei buruzko aurrez aurreko testigantzak eskaintzeko parada lortu zuten. Honelakoak entzun ondoren, NBEko adituen laguntzarekin gobernu, herri indigenak eta nazioarteko erakunde eta aktoreen arteko negoziazioak gertatu ziren Honekin batera, agindu egin ziren indigenek pairatzen zituzten arazo nagusiei heltzen zieten txosten bereziak. Izan ere, txostenetan iradokitako proposamenetan legedi berria egiteko aukerak biderkatu egin ziren PILen existentziarekin. Izan ere, PIL elkarren berri izateko, arazo eta ikuspuntuak komunak identifikatzeko, estrategi alternatiboak diseinatzeko eta proposamenak presentatzeko toki nagusia bihurtuko zen (Burger 2006; Minde 1995; Niezen 2003; Wilmer 1993; Cooper 2004; Sanders 1989; Clavero 2006). Honetaz gain, espazio honek parada emango die nazioarteko, erregio ala Estatu mailako sare informalak sortzeko (Garcia-Alix, 2006). Baita ere, gobernuen banaka zein taldeka lobia egiteko²⁴⁷ ala GKEen laguntza²⁴⁸ lortzeko ere (Burger,1999). Modu honetan euren mezuak zabaltzeko, euren erakundeak sendotzeko baliabide politiko, tekniko eta ekonomikoak eskuratzeko eta garapen zein beste motako proiektuak bultzatzeko laguntza erdiesteko aukera izan zuten. Lantaldeak ahalbidetu egin ziren herri indigenei euren presentzia sentiarazten, Estatus politikoa handitzea, etxean gertatzen diren tentsio politikoetatik urrun egonik beren gobernuen kontaktu eta negoziazio zuzenean sartzeara, eta nazioarteko zuzenbidearekin kontaktu zuzenean egonik eta bere moduetan bustitzea²⁴⁹. Gainera, egoera larrian dauden herri indigenei egoera katartikoa eskaini die euren arazoa plazaratzeko eta parada eman antzeko arazoak bizi dituzten herri indigenen elkartasuna modu zuzenean sentiarazteko. Modu honetan euren herrietan bizi duten isolamendua apurtzen zelarik²⁵⁰. Baita ere erreferente positiboak eskaini zizkien euren agenda osatu ahal izateko.

...Estas reuniones de la ONU fueron para los indígenas un proceso de aprendizaje de las complejidades del mundo diplomático multilateral y una ocasión para forjar alianzas entre ellos y con diversas organizaciones no gubernamentales de derechos humanos. Así fue surgiendo a lo largo de estos encuentros una agenda indígena de derechos humanos, que ha contribuido paulatinamente a la emergencia de un derecho internacional de los pueblos indígenas y a la construcción de los pueblos indígenas como un nuevo sujeto colectivo del derecho internacional (Stavenhagen, 2006:24).

Nazioarteko konferentzia eta PILren babespean nahiz aukeraturiko ekintza eremuetan

²⁴⁷ Lantaldea gertatzen bitartean Areto Nagusiaren alboko kafetegian burutu egiten da lobbya. Herri indigenek bertan izaten dute parada euren gobernuen, GKEkin ala beste indigenekin aritzeko eta asmo, kezka eta proiektuak eztabaidatzeko. Sare paradipomatikoa neurri handi batean hemen ehuntzen da.

²⁴⁸ GKEen papera oso inportantea izaten jarraituko du. NBEren mailan horietariko batzuk aholkulari statusa izango dute eta posible izango dute herri indigenei buruzko NBEren mailako eztabaidetan parte hartzea. Honetaz gain, paradiploiazian aritu ahal izateko herri indigenak beharrezkoa duten diru laguntzak euren bitartez lortzen dituzte. Horretaz gain, lan politikoa egiten dute herri indigenen egoera eta agenda bultzatzeko, euren kasua mundu industrializatuaren politiko eta gizarte zibilari ezagutarazteko. Erakunde hauek NBEren mailan duten aholkulari statusa ezinbestekoa gertatu zitzaizkien herri indigenei Lantaldearen hasierako fase batean zein NLE 169. Hitzarmenaren negoziazioan euren partaidetza eta prozesuen jarraipena ziurtatzeko.

²⁴⁹ Honelakoak aipatu egiten dituzte Dahl & Gray (1997), baina 1999an neuk pertsonalki aukera izan nuen Genevan Mapuche eta Txileko gobernuaren ordezkari baten arteko bilera batean egoteko, lekuko gisa hain zuzen. Garai hartan Mapuche-ak borrokan ari ziren auren lurretan eraiki nahi ziren urtegien aurka. Bilera hau ezinezkoa zen Txilen egitea eta itzuli ondoren ordezkari honetaz zegoen Jose Lincoqueo abokatuak arazoak izan zituen justiziarekin.

²⁵⁰ Neuk 1999an eta 2000ean egindako bisitaldietan parada izan dut une hunkigarriak ikusteko non egoera larri-larrian zeuden herri indigenen ordezkariak bertara jo zuten laguntza eta babesaren bila. euren biziraupena arriskuan jartzen zuen egoera bat konpontzeko laguntza eskuratu asmoz. Eurek konponbidea bertan zegoela uste zuten eta miresteko den idealismoa erakutsi zuten. Zoritxarrez NBEren funtzionamendua eta egitura diplomatikoa ez dago une hunkigarrietarako prest eta laster ikasten dute bertan ez dagoela konponbidea. Hala ere, balore sinboliko eta katartiko ikaragarria du honek .

(issue-arena) delakoetan parte hartuz Laugarren Munduak Estatuak baldintzatzeko gaitasuna garatu zuen, lobby ekintzak eginez, eta arazo indigenak helburu duten txostenak bultzatuz. Era berean biderkatu egin ziren proselitismoa egiteko aukerak eta sare indigena zein aldekoak (Stavenhagen, 2006). Geroxeago informazio elkartrukatzea eta estrategia komun garapena etorriko zen Hau “*Transnacional Advocacy Networks*” delakoan ezaugarria izanik (Keck & Sikkink, 1998),.

Gauzak horrela, hamarkada honetan NBERen mailan HIKeren ahalegina Herri Indigenen Giza Eskubideen Aldarrikapena (HIGEA) sortzeko errebindikazioaren inguruan zentratu zen²⁵¹. Honekin batera bultzatu egingo dira herri indigenentzat garrantzitsuak diren gaien inguruko txostenak. Hauen artean aipagarriak dira herri indigenek pairaturiko arrazakeria aztertzen zuten txostena²⁵². Honek jorraturiko bide beretik jo zuten beste txosten batzuk eta arrazakeriaren aurkako aktibismoa Laugarren Munduak jorraturiko ekimen-eremua bihurtu zen. Hasierako mezu politiko sendoak ezagutarazteko ahaleginak tokia utziko dio gai zehatzetan²⁵³ zentratutako askoz ere teknikoago eta proposamenak egiteko²⁵⁴ zen ekintza paradiploamatikoari. Euren eskubideak errebindikatzeko hamarkada honetan praktikan jarritako agintazio politikoa eta legala konbinatzen duen HIKE jarri zen martxan (Sanders, 1980:NET). HIMBk Panaman 1984an egindako bileran Camberran onarturiko Sanders-en zirriborroa onartu zen, bertan 17 artikuluek osaturiko proposamena onartu zelarik. Panaman adostutakoari jarraituz, 1985an NBERen mailako lanaren nondik norakoak argitu asmoz *Declaration of Principles on the Rights of Indigenous Peoples*²⁵⁵ onartu zuten NBERen mailan parte hartzen ari ziren erakunde indigenek eta aldeko GKEek.

Nazioarteko eremuan izandako partaidetzak, zein ekologista, akademiko eta garapen alternatiboaren aldeko aliatuekin egindako lanak lagundu egin zuten herri indigenen aktoretza

251 1982tik 1987ra Aldarrikapenaren zirriborroan kontzentratuko ziren Genevan joandako erakunde ordezkariek. Partaidetza urte hauetan nahiko mugatua izan zen 1982 eta 1983an 15 erakunde inguru hartuko dute parte (Berraondo,1999:93). Bizi zituzten erasoaldiek amaiera emateko paradiplomazian arituko diren herri indigenek nazioarteko erkidegoak ontzat hartuko zuten araudi baten proposamena bultzatu nahi zuten. WCIP eta IITC-ek ildo honetatik jo zuten herri indigenen partaidetza bultzatzeko ahalegin handiak eginez. Zirriborroan herri indigenek pairatzen zituzten arazoei erantzuteko legedia bultzatu nahi zen. Zirriborroan beraz, genozidio, etnozidio, herri indigenen bortxa eta jazarkezaren aurkako neurriak, autodeterminazioa eta herri izaeraren bultzada, eskubide kultural, erlijioso, ekonomiko eta sozialak zein lurraldearen gaineko zein ekosistemarekiko harreman berezia defendatu ziren. 1985an Panaman prozesu hau laguntzeko Herri Indigenak eta Giza Eskubideak izeneko dokumentua baietsi zen. Prozesu honetan zehar indigenek nazioarteko legediaren azterketa sakona burutzen dute eta euren eskaerak NBERen hizkuntza eta kontzeptuak erabiliz burutuko dute proposamen hau. Honelako goi mailako saikera burutzea errazagoa egingo zitzaizen Lehen Munduko indigenei, eurentzat lege bidea eta hitzarmenen inguruko defentsa ezaguna egiten zaielako. EEBB, Kanada, Australia eta Zelanda Berriko indigenei sinaturiko hitzarmenen defentsa euren erexistentzia bidea izan da mendearen zehar. Aldiz, Hirugarren Munduko indigenek ez zuten nazioarteko lege sistemarekin aritzeko horrenbesteko esperietzirik ez prestutasunik.

252 Honen adibidea E/CN.4/1989/22 arrazismoaren gaiari helten dion txostena dugu. Ondorengo txosten gehiago gai honi loturikoak egingo dira hurrengo hamarkadan eta XXI. mendeko lehenengo astean.

253 Anayak (1991) esan egiten digu herri indigenen nazioarteko mugimenduan bi diskurtsoen existentzia aurkituko daitekeela. Bata, galduriko “nazio” izaera gogoratzen duena eta honi nazioarteko erkidegoan dagozkion eskubideak errebindikatzen duena eta galdutakoaren erreparazioa esakten duena. Bestea, indigenek pairatzen dituzten auzi zehatzet helzten diena. 1990ko hamarkadan indartsuagoa izango da auzi zehatzet helduz naziotasunaren izaera defendatzen duena. 1980an ikusten den diskurtsoak gogorrago helzten zion “nazio eskubideei” eta ondorioz Estatuaren jarrera kontrako jarrera aurkituko dugu nagusi. Autodeterminazio eta “herriak” deitura onartzearen aurkako jarrera izango dugu nagusi Estatuaren aldetik.

254 Diskurtso politiko gogorari utzi eta asko hasiko dira garapena eta ekonomiarri lotzen zaion autodeterminazioa defendatzen. Kultura, osasuna eta lur eskubideekin zein hauen gestioarekin loturiko gaiak garrantzia irabaziko dute. Honek ez du suposatzen “nazio diskurtsoari uko egiten zaionik”, baina planteaturiko estrategia arazo puntualekin eta beren gestioarekin lotuta egongo da.

255 Bide U.N. Doc. E/CN.4/Sub.2/1987/22 Annex 5

politikoa eta euren kulturaren balorearen aldeko iritzia sortzen. Hamarkada honetan akademian zein nazioarteko instituzioetan jatorria duen herri indigenen aldeko literatura indartsua agertuko da. Bertan herri indigenen kasua giza eskubide mailan baina batez ere, euren ohiko jakinduriak ingurumenaren babeserako zuen garrantzia hasi ziren modu indartsu batean zabaltzen. Sutherland-ek (1995) aipatu egiten du herri indigenek gobernu eta akademikoekin landuriko kontaktuak erabat baldintzatu egin zutela ekologiarekin loturiko nazioarteko agenda. Egile honen ustez eragin hau are nabariagoa da ohiko jakinduriari loturiko debate eta ikerketan. Adibide gisa, munduko etnobotanikoak, biologoak, biokimikoak eta indigenekin bateratu zituen *First International Congress of Ethnobiology*. Biltzar hau Brasilgo Belen-en egin zuten eta bertan indigenen ohiko jakinduria erabiltzeagatik konpentsazioaren bat jaso behar zutela defendatu zen. Honelako batzarrek indigenak hamarkada honetan sare epistemologikoekin, aktibista zein gobernuarekin aliantzak sortzeko eta gai zehatzei loturiko nazioarteko sare zabalak lortzeko gaitasuna erakusten digute.

Herri indigenen aktoretza politikoa, euren kulturaren balorea munduko biodibertsitatea mantentzeko nahiz euren kulturaren jarraipena bermatzeko bai HIGEaren proposamenen zein 1989an UNICEFek bultzaturiko Haurren Konbentzioan aurkituko ditugu. Munduko umeentzat hain garrantzitsua den konbentzio honetan lortu egin zen haur indigenei euren kultura mantentzeko zuten eskubidea bere 30. artikuluan aitortzea. Artikulu hau NBERen mailan herri indigenei zuzenduriko lehena da (Burger, 1999) eta ama kulturaren aldeko eskubide hau garrantzitsua da euren umeak jasan dituzten politika asimilatzailei aurre egiteko.

Herri indigenen aktoretza eta kulturen aldeko hamarkada honetan gertaturiko beste sona handiko beste gertakizuna NLEren 169 hitzarmenaren onarpena izan zen.

4.3.1 169 Hitzarmena: Hamarkadako Aurrerakuntza Nagusia

Aurrerako aipatu dugun bezala, NLEk bultzaturiko 107 hitzarmenak munduko herri indigenen egoera zertxobait hobetu zuen, baina asimilazio bidean jartzeko gomendioa berebiziko mehatxua suposatzen zuen herri indigenentzat. Indigenentzat asimilazioa heriotza zen. Jokoan zegoena horren garrantzitsua izanik mugimendu indigena asko mehatxu honi aurre egiteko sortu ziren. Garapen prozesuaren hastapenak birplanteatzeko, euren herri izaera defendatzeko, politika eta proiektuetan aldaketa eragiteko, asimilazioa uxatzeko nahiz honen ordezkari kultura eta herri/nazioen arteko elkarrizketa ezartzeko lan politikoari hasi zioten. Ezaugarri asimilazionistarekin batera indigenek ez zuten maite 107ak gobernuari euren arazoaren gainean nahiz euren etorkizuna erabakitzeko zuten erabateko boterea. Beraz, asimilazioaren aurka eta burujabetasunaren zein deszentralizazioaren aldeko mugimendua sustatu zuten hamarkada honetan. Deskribatu dugun bezalaxe, euren presentzia eta eragina indartu egin zen nazioarteko

eremuan, gobernuen arteko erakundeen artean zein gobernuz kanpokoen artean.

1986an WCIP-ek etnozidioaren aurkako jarrera hartu, 107ren eragin ezkorra salatu eta konbenioan aldaketa eskatu zuen (Anaya, 1996). Goi mailako eztabaidatan modu zuzenean izan ez bazen ere, langile sindikatuen bidez ala gobernu ordezkariartzetan parte hartuz lortu egin zuten euren ikuspuntuak mahai gainean jartzea (Tomei, 1997). NLEak zegoen egoeraz jabetuz, 107 hitzarmena berraztertzeko kontsulta batzuk egin zituen, batez ere, Latino Amerikan eta indigenek hauetan parte hartu zuten. Hala ere, inportantea da argitzea indigenen partaidetza eskasa izan zela eta zeharkako bideak erabili behar izan zituztela euren ikuspuntuak balioztatzeko. Baina arrakasta izan zuten komunikabide eta gizarte zibilarekin asimilazio politikaren ondorio ezkorrak erakusten, horrela Nazioarteko Lan Erakundea (NLE) bere jarrera birplanteatzera eramanez. Horrexegatik 169 sorreran zegoen ebaluazio lantaldera ordezkari indigena batzuk gonbidatu zituen. Khosravi-ren (2006: 13-14), arabera 107 hitzarmenaren aurkako kritika eta aktibismo asko Lantaldean sortu ziren. Honi erantzunez NLEk adituen batzorde bat deitzea erabaki zuen, eta hemen sartu ziren. Herri Indigenen Munduko Batzarra eta Survival International lehen aldiz parte hartu zuten nazioarteko foro batean aditu bezala. Honetaz gain egon egon ziren langileen ordezkariartzet lagunduta indigenak ikusle bezala (Tomei, 1997). Gobernuen, langile ordezkarien eta enpresa ordezkarien arteko negoziazioen ondorioa izan zen 169 ituna. Hitzarmen honek aurrekoaren hizkuntza asimilazionista arbuiatu eta kulturen arteko errespetu eta duintasunaren alde egiten du (Ibid.). Ondorioz NLEk 1989an herri indigenen eskubideak aitortzen zituen 169. hitzarmena²⁵⁶ onartu zuen²⁵⁷. Modu honetan NBEren familiako erakunde nagusi batek herri indigenek egindako ekintza paradipomatikoaren fruituak onartu eta txertatu egin zituen nazioarteko garrantzi handiko itun²⁵⁸ batean.

Indigenen partaidetza eskasa izan bazen ere, ituna herri indigenen eskubideak onartzen dituen maila gorena duen ituna izanik, hurrengo hamarkadan gertaturiko hainbat errebindikazio indigenen protagonista izan da (Anaya, 2006), Estatu zein nazioarteko aktoreekin izandako negoziaketetan erreferentzia bihurtu delarik. Latino Amerikako hainbat herrietan herri indigenen presioei erantzunez euren aldaketa konstituzionaletan aintzakotzat hartu zuten hitzarmen hau²⁵⁹, eta indigenen egoera hobetzeko ahalegin askotan protagonista izan dugu.

169aren inguruko prozesuan parte hartuz Laugarren Munduak bere presentzia eta

²⁵⁶ Bide http://www.cwis.org/fwdp/International/ilo_169.txt

²⁵⁷ Itun hoau onartu duten herriak onodoko hauek izan dira Argentina, Bolivia, Brasil, Colombia, Costa Rica, Ecuador, Guatemala, Honduras, México, Paraguay, Peru....

²⁵⁸ Honek sinatzaileek begirale prozedura bat onartzen dute eta herri indigenek bertara jo dezaketela konbentzioaren aurkakorik gertatzen denean eta bertan salaketa burutu. NBEren mailan onarturiko Itun bakoitzak duen jarraipen prozedurak eta honek eskaintzen dituen aukera paradipomatikoez jabetzeko bide Roulet (1997).

²⁵⁹ Mexiko-ko eta Guatemalako konstituzio berriek 169ri erreferentzia egiten diote eta <http://www.oit.or.cr/mdtsanjo/indig/derecho.htm> aurkituko daiteke honi buruzko informazio gehiago.

eraginkortasuna sendotu egin zuen hamarkada honetan. Izan ere, bidea prestatu zuen hurrengo hamarkadan gertaturiko aurrerakuntzak ahalbidetzeko. Zeharka zein zuzenean, ikusiko ditugu herri eta nazio indigenak Estatu zein nazioarteko erakundeekin harreman zuzenean ikusi genituen. Gainera, jarrera historiko luze batekin apurtuz onartu egin zen Estatu eta gizabanakoaren artean eskubide bereziak dituzten herri indigenak daudela. Nahiz eta eztabaida handiaren erdian izan, indigenek lortu egin zuten euren ahotsa eta presentzia nazioarteko politikan finkatzea.

Bestalde prozesu honetan parte hartu zuten erakundeek euren Estatusa goratu zuten eta esperientzi honek sare diplomatiko propioa zabaltzeko balio handikoa izan zitzaizkion. Prozesu honen adibide ona dugu COICA. Erakunde indigena honek NBEak antolatutako batzarretan parte hartuz eta NLEren 169 hitzarmenaren inguruko negoziaketan parte hartu izanik. Era honetan, erakunde indigena Europako hainbat aktore berriekin harremanetan jarri zen eta komunikabideekin kontaktuak lortuz aliatuak nahiz nazioarteko baliabide ekonomiko ugari lortu zituen. COICAk egindako bisitaldiek baldintzatu egin zituzten ondorengo politikak ofizial zein ez ofiziala asko. Kasu honetan erakunde honek Amazoniako gaietan bere pisu politikoa nazioarteko erkidegoan nahi erregioa mailan tinkotu egin zuen

La importancia de COICA en las Naciones Unidas y durante la revisión del Convenio 107/169 de la OIT, estuvo más allá de sus contribuciones en este proceso. Su persistente participación puso al movimiento indígena del Amazonas en contacto con los partidos verdes europeos, los movimientos de trabajadores, y una variedad de grupos de apoyo a los indígenas. Estos contactos resultaron ser sumamente importantes para conseguir una base política y financiera a través de Europa. Gracias a estos contactos, COICA aprendió como moverse dentro del juego de la política y la financiación internacional, dejó viva su presencia en estos círculos a través de sus visitas e, indirectamente, influyó en las decisiones de las fuentes de financiación tanto oficiales como no-oficiales (Chase, 1996:110).

4.4 NAZIOARTEKO AKTOREAREN SENDOTZEA

1992tik 2007ra indigenek aurreko 500 urteetan izan ez duten ikusgarritasuna lortu dute mundu mailan. Euren presentzia eta diskurtsoa nabaria da, euren protagonismoaren adibide gisa aipa ditzagun Amerikaren Aurkikuntzaren 500. Mendeurrenean (1992), Garapen Iraunkorra (GS) munduratu zuen Rioko Gailurrean (1992), Giza Eskubideei Buruzko Vienako Mundu Konferentzian (1993), Herri Indigenei Nazioarteko Urtean (1993) eta hauei zuzenduriko hamarkadan (1994-2004), matxinada Zapatistan (1994) edota Seattle, Genova ala Porto Alegreko Globalizazioaren Aurkako Biltzarretan, bai eta Arrazismo eta Xenofobiaren Aurkako Durban-eko Bileran (2001) edo Rioko 10 urteren osteko Johannesburg-eko II Mundu Gailurrean (2002), Tunez-ko Informazio Gizarteari buruzko. Gailurrean, eta, azkenik, Bali-n (2007) Klima

260 Irabazitako garrantziaren froga 1986an COICA-k Right Livelihood Award (Nobel Alternatiboa) jaso zuenean aurkitu dezakegu. Sari honek erakunde indigena honi ikusgarritasuna eman zion eta bere statusa mundu osoko GKE guztien aurrean goratu. Hau gertatu ondoren COICAk burua zen Evaristo Nkuag-ek aurkera izan zuen Banku Mundialaren buruarekin elkartzeko. Guzti honek erakutsi egiten digu nola 80ko hamarkadan herri indigenen presentzia eta aktoretza onarturiko zerbait zela garapen, giza eskubide eta ekologiarekin lan egiten zuten nazioarteko aktoreen artean. Hala ere, 1989ra arte ez dira euren espresuki zuzenduriko itun ala hitzarmenetan euren aktoretza politikoa eta euren herri eskubideak onartzen.

Aldaketari buruzko Gailurrean Biltzar hauetan zein bertan sorturiko goi mailako dokumentuetan herri indigenak presente egon dira. Honetaz gain 2000an gertaturiko Herri Indigenen Foro Iraunkorraren sorrera eta 2007an Herri Indigenen Eskubide Unibertsalen Aldarrikapenaren onarpena.

Horrelako ekimenekin lortu egin zuten euren ahotsarekin mendeetan isilean eta ezkutuan mantendu zituen eta sarritan arbuia ere egin zituen nazioarteko gizartean. Presentzia honek nazioarteko zuzenbidean oraindik dagoen ideologia kolonialistaren dekonstrukzioaren eta kritikaren jomuga markatzen du (Ryser, 1996). Ideologia hau herri indigenekiko bizirik dagoen nagusitasunezko sentimendua islatzen (Cirkovic, 2006).

90ko hamarkadan aurreko hamarkadetako nazioarteko erkidegoa biziki baldintzatu zuen Guda Hotza amaitu egin zen. Bigarren Munduak ezaguturiko inplosioak nazioarteko paradigma eta egituren erabateko aldaketa ekarri zuen. Metafora bat erabiliz zera esan dezakegu, Guda Hotzak sorturiko izotzak agenda indigena zanpatu eta blokeen arteko gatazkaren gatibu mantentzen zutela, izotzak desagertu ahala gai indigenek gora egin zuten, eta hamarkada honetan mugimendu indigenaren benetako loraldia gertatu zela esan dezakegu, inolako ezbairik gabe. Guda Hotzaren osteko eszenatokian globalismo eta interdependentziarekin loturiko gaiek garrantzia irabazi zuten nazioarteko agenda berrian (Del Arenal, 2002). Nazioarteko ordenu berria deitu zen horretan indigenek maite zituzten gaiek, hots, giza eskubideak, demokraziaren sustapenak, ekologiak, demokrazia eta partaidetza nahiz gatazka prebentzioa aurkituko ditugu²⁶¹.

Hamarkada honetan, multilateralismoa eta nazioarteko erakundeen garrantzia, ekimena eta presentzia mundu mailako arazoei aurre egiteko ezinbestekotzat ikusten zen (Cleveland, 1993). Giro berri honetan eta Sobiet Batasunean gertaturikoa ikusirik gatazka prebentzioen aldeko apustu sendoa egin zen. Gatazkak oro har eta batez ere gatazka etnikoak konpontzeko eta prebenitzeko elkarlana, negoziazioa eta gatazken zergatiak ulertzeko eta honekin loturiko mekanismo berriak ezartzeko beharra nagusitu zen (Ryser, 1993).

...the failure of the communist regimes to subordinate ethnic to class identities has demonstrated the enduring pull of ethnic ties in the contemporary world. The emergence of fundamentalist Islam demonstrated both –marxist and liberals- were wrong in believing that the growth of technology would necessarily lead to secularization. It is now widely understood that modernization threatening cultural identities stimulates their resurgence and the growth of religiosity demonstrates the powerful attraction of transcendental sentiments as an ordering element in human relations as a way to explain collective misfortunes (Weiner, 1992:317).

Giro honetan gatazkak prebenitzeko eta konpontzeko ekimenek nazioarteko erakunde, politiko eta akademikoen agendetan aurrera egin zuten (Bercovich, 2003). Giro berrian Laugarren

²⁶¹ Gai hauen arteko uztarketa nola gauzatzen den ikusteko bide Survival International <http://www.survival.org.uk/index2.htm>; Amnesty International <http://www.amnesty.org/>; <http://www.cs.org/>; Cultural Survival <http://www.cs.org/> eta IWGIA <http://www.iwgia.org>. Toki hauetan herri indigenak protagonista duten mundu osoko gatazka etnikoak aurkituko ditugu.

Munduak bere partaidetza eta kontribuzioa gauzatzeko bide berriak aurkitu zituen. Aurreko hamarkadan egindako lanari esker, gatazka zein hondamendi ekologikoa prebenitzeko bibliografian areagotu egin zen euren presentzia, nazioarteko ahaleginean derrigorrezko partaide bezala aipatzen zirelarik Era horretan akademiko eta adituen artean aurreko hamarkadan lortutako eragina handitu egin zen (Sutherland 1995; Davis 1998).

Garai honetan aurreko hamarkadan hasitako bake prozesuek aurrera egin zuten eta bakea ikusiko dugu Salvador, Guatemalan, Nikaragua Bangla Desh, Timor-en ala Perun. Munduan zehar demokraziaren haizeak joko indartsu jo zuen eta diktadura anitz erori ziren. Hainbat tokietan gobernu demokratikoak izango ditugu diktadurak ala etnokraziak zeuden tokietan. Txile, Hego Afrika, Filipinak ala Indonesian, gutxi batzuk aipatzeagatik dira prozesu honen lekuko. Demokraziaren hedapenak mobilizaziorako aukera berriak sortu zituen herri indigenentzako (Dunaway, 2003).

Nazioarteko testuinguru berri honek Laugarren Munduaren mobilizazioa erraztu egin zuen eta posiblea egin Mexikon. Bolibia, Txilen, Ekuador ala Guatemalan, herri indigenek irabazitako protagonismo politikoa. Testuinguru berri honi eta aurreko hamarkadan herri indigenen aldeko nazioarteko lortutakoari jarraituz eta herri indigenek egindako barne presioari erantzunez, Latino Amerikako Estatu bakar batzuek herri indigenen eskubideak konstituzio aldaketak egin zituzten, gehien bat eskubide kulturalak, sustatu nahian: Nikaragua (1986), Brasil (1988) Ekuador (1994 eta 1998), Nikaragua (1995), Kolonia (1991), Mexiko (1992 eta 2001), Guatemala (1992), El Salvador (1992), Paraguay (1992), Peru (1993), Bolivia (1994), Argentina (1994), Bolivia (1994), Venezuela (1994) eta Australian (1992). Modu batean ala bestean, herri indigenen eskubide kulturalak eta zabalera ezberdineko lurraldearen gaineko eskubideak onartu ziren, baina oso gutxitan onartu ziren Estatuaren nazio aniztasuna edota lurraldeen gaineko kontrola ala gobernu autonomoak (Gonzalez, 2007).

Hamarkada honetan herri indigenek gorengo ikusgarritasun politikoa irabazi zuten, eta euren aktoretza nazioarteko erkidegoan, baina bereziki NBEren baitan finkatu da. Aurreko hamarkadetan egindako presio politikoari erantzunez NBEak herri indigenen partaidetza ahalbidetzeko bideak eta ekimenak bultzatu zituen hamarkada honetan. Hau dela eta, HIKEn loratzea ikusiko dugu, inoiz baino gehiago, eta inoiz baino sarriago agertuko baitzaizkigu indigenak nazioarteko aferetan parte hartzen. Nazioarteko partaidetza honek aurreko hamarkadetan egindako ahalegina sakondu eta biderkatu egin zuen. Gainera hamarkada honetan indiotasuna mundu mailako nortasuna eta arazoa bihurtuko da. Aurreko hamarkadetan ezagunak egin zaizkigun aktoreei Afrika (Murunbi, 2004) eta Sobiet Batasuna (Shapovalov, 2005) izandakoaren herri indigenak gehitu zitzaizkion. Modu honetan, Laugarren Munduaren agenda eta identitate kolektiboa mundu mailako fenomeno bihurtu zen eta kontinente guztietara

zabalduriko fenomenoak bihurtu.

Aipatu dugun bezala, orduko nazioarteko agendan berrian ekologia eta garapen sostengarriarekin loturiko gaiak interes handikoak kontsideratu ziren. Giro berri honetan, askok hasi ziren botere kontzentrazioaren arriskuak salatzen. Kritiko hauen aburuz ingurumen krisialdia eta giza eskubideen bortxaketa botere politiko eta ekonomikoaren kontzentrazioarekin lotuta zegoen (Clay 1994; Malanes 1999). Kontzentrazioaren aurka nazioarteko gizarte zibila “*Grass Roots Diplomacy*” agertu zen ahots alternatibo bezala multinazionaleri eta bere meneko ziren gobernu laguntzaileei aurre egiteko. Aliatu honen presentziarekin batera, komunikabide teknologian gertaturiko aurrerakadak posiblea egin zuten nazioarteko mugimendu pan-indigenaren sendotzea. (Salazar, 2004) eta zabaltzea²⁶² (Seton 1999; Arregi 2006).

Faktore guzti hauek posible egin dute Laugarren Munduak planteaturiko nortasun pan-indigena eta bere agenda nazioarteko politikan ez ezik komunikabideetan eta Internet indartsu agertzea ere. Mendekak isiltasunean eta ahazturik egon ondoren indigenek euren aktoretza politikoa, errealitate aktiboa eta erresistentziazko historia ekarri digute begi aurrera. Indigenek inoiz baino gehiago fenomeno garaikidea, moderno eta globala direla erakutsi digute. Are gehiago, herri indigenen kulturen kultura deitu duen horrekin gure zibilizazio industrial, arrazionalista eta teknokratikoei kontrajartzen zaien mundu-ikuspena dagoela erakutsi dute.

Aurreko hamarkadan bilduriko esperientzia aprobetxatuz eta aukera berriez baliatuz HIKE bere goi mailara eramango duen intelligentsia pan-indigena sortu zen aurreko hamarkadan ohiko aitzindarien protagonismoa hartuz. Intelligentsia honek nazioarteko erkidegoan nagusi ziren joera eta jarrerai hobeto moldatzen zitzaion diskurtso eta praktika politikoa burutu zuen, inoiz baino teknikoagoa²⁶³. Helburua Laugarren Munduari dagokion tokia lortzea nazioarteko erkidegoan eta bertan aktoretza aktiboa burutuz parekoei dagokien tratamendua jasotzea.

Now we shall not rest until we have regained our rightful place. We shall tell our young people what we know. We shall send them to the corners of the earth to learn more. They shall lead us (Declaration of the Five Country Cherokees, Burger, 1990:136 aip.).

Mundu berriak pairatzen zituen erronkei erantzuteko asmoz NBek ikuspuntu berriak hartu eta herri indigenei lagungarri gertatu zitzaizkion aldaketak jarri zituen martxan. Hamarkada honetan 40 urtez nazioarteko politikaz euren ahotsaz kanpo egon ondoren “Laugarren Munduak” aurkitu egin zuen bere tokia, Are gehiago, onartu egingo zaio bere aktoretza eta bere arazoei hobeto erantzungo dion nazioarteko sistema batera abiatzeko proposamena kontuan hartu zen.

²⁶² Mundu mailan Laugarren Munduak lorturiko hedapena eta bere barruan dagoen aniztasunaren gestioa ezinezkoa litzateke teknologi berriak egon ez balira. Gainera indigenak ciberdiploiaz ondo ulertu eta praktikatu egin dutela esan genezake. Guzti honek apurtu egiten du indigena tradizional eta isolatuaren estereotipoa. Bide Arregi (2006), Bollier (2003), Mills (2002), Crawford & Bray-Crawford (1995), Arquilla. & Ronfeldt-ek (2001) sartu egiten dituzte herri indigenak euren Netwar kontzeptuan.

²⁶³ Aurreko hamarkadan hasitako prozesuei jarraituz hamarkada honetan indigenen partaidetza NBeren mailan askoz propositiboagoa izango da eta ikusiko da teknikari indigenen lana. Segun ze arlotan abokatu, biologo, ingeniari ala soziologo zein antropologo indigenen partaidetza ikusiko dugu. Guzti hauek NBeren terminologia hizkuntza eta prozeduratan aurrekoak baino jasoagoak izango ditugu.

Helburu hau erdiesteko negoziaketa eta presio politikoa izan zen²⁶⁴. HIKeren helburu nagusia nazio, Estatu eta nazioarteko erakundeekin negoziazioak burutzea. Honen helburua herri indigenen arazoei hobeto erantzuten dien nazio barneko nahiz arteko marko normatibo eta politikoa berria lortzea izanik. Hamarkada honetan negoziazio politikoa tresna eta helburua izango da. Indigenek mundu akademikoan, nazioarteko gizarte zibilaren eta nazioarteko adituen artean aliatuak lortu bazituzten ere, argi zuten nazioarteko eta Estatu barneko sektore nagusiekin elkarrizketa eta negoziazioa beharrezkoak zirela.

We can not let the confrontation of the past dictate the shape of the future. Government to government, we can work together toward a better tomorrow (Bill Frank Jr., Nisqually Indian, aip. Burger, 1990:144).

Printzipio honi jarraituz herri indigenek euren ikuspuntua aurkezteko balio handikoak izan ziren foru ezberdinetan parte hartu zuten hamarkada honetan. NBERen babespean antolaturiko txosten, ikerketa, tailer²⁶⁵, konferentzi eta antzekoek aukera ezin hobeagoak eskaini die herri indigenei euren ahotsa entzunarazteko eta euren prestakuntza²⁶⁶, erakunde sendotasuna zein euren partaidetza nazioarteko erkidegoan hobetzeko. Era berean, berei zuzenduriko ekimenen kopurua herri indigenek irabazitako presentzia eta garrantziaren testigu bihurtu dira. Gainera, NBERen mailan gauzaturiko partaidetza beren arazoak konpontzeko negoziaketa eta nazioarteko legediaren alde egindako konpromisoaren froga bihurtu da. Negoziaketa eta legearen errespetua beraz, izango dira eurek bizi dituzten arazo larriak konpontzeko bidea kasu berezietan matxinada, hots, Chiapas, Chittagon Hill Trucks ala Burman zein Papua Guinea Berrian.

1990ko hamarkadan ia ezinezko gertatuko zaigu giza eskubideez, ekologiaz, garapenaz, sakontze demokratikoaz eta gobernu egokiaz (Cleveland, 1993; Martí i Puig, 2004), justiziaz, kultura aniztasunaz, gatazka etnikoaz (Gurr, 1994), demokraziaz eta nazioarteko gizarte zibilaz hitz egitea herri indigenei erreferentzi egin gabe (Dunaway, 2003). “Laugarren Munduaren” presentzia biderkatu egingo da hamarkada honetan eta inoiz baino gehiago izango dira nazioarteko politikan zabalduko leihoak. Hauek euren arazoak eta proposamenak kaleratzeko

²⁶⁴ Tesis honetan zehar erakutsi egin dugu Laugarren Munduaren borroka giza eskubideekin lotuta eman dela. Indigenek beste nazio eta banakoei onartzen zaizkien eskubide berdinak eskatu dituzte: Herri indigenengan modu batean ala bestean eragina izan duten konbentzioen zerrenda nahiko zehatza <http://fletcher.tufts.edu/multi/humanRights.html> helbidean aurkitu daiteke. Beste baliabide asko giza eskubide eta ekologiarekin lotuta <http://www1.umn.edu/humanrts/> helbidean aurkitu daitezke.

²⁶⁵ 1991an Groelandian bilduriko aditu talde batek herri indigenen autodeterminazio esperientziak aztertu zituen; 1992 Txilen Garapen Sostengarriari egiten dioten kontribuzioa aztertuko bildu ziren, 1996an Kanadan lurren gaineko eskubide eta eskaerekin loturiko esperientzi praktikoen azterketa burutu zen. Gerorako beste mintegi asko antolatu dira gai zehatzei heltzeko. Mintegi hauetan herri indigenek parte hartu egin dute euren arazoak, itxaropenak eta proposamenak adituei komunikatzu. Modu honetan lortu egin dute hauek txosten ofizialaren parte izatea eta erabakiak hartzeko prozesuan presente egotea. Era honetan herri indigenen agenda paradipomatikoan garrantziko diren auziak agenda diplomatikora pasatu dira. Mintegi hauek gaiak hobeto jorratzeko, egokiago prestatzeko eta partaidetza bultzatzeko egiten dira.

²⁶⁶ NLEak zein ekologia ala giza eskubide mailan egindako konbentzioekin loturiko formakuntza ala kapazitazio programak oso garrantzitsuak izan dira herri indigenen prestakuntza eta gaitasun politikoa eta administratiboa hobetzeko. Gainera Lantaldearen inguruan bertan biltzen den mugimendu pan-indigenak gizarte zibilaren taldeekin batera NBEan hobeto aritzeko formakuntza kursoak antolatu ditu. Ekimen hauen ondorioz herri indigenen nazioarteko ordezkariak inoiz baino prEstatuago ikusiko ditugu euren arazoak ala euren eragina izango duten auziak nazioarteko foroetan debatitzen direnean parte hartzeko. Formakuntza nahiz kapazitazio programen adibide bezala 169 Hitzamenaren inguruan antolaturiko ekimen sorta aipatu behar dugu. Hitzarmen honek jarraitzen du gai indigenetan erreferentzi nagusia izaten eta bere eragina bultzatzeko egindako ahaleginek erakunde zein ordezkari indigenen gaitasuna eta prestakuntza dezente hobetu dute. Honelako nazioarteko hitzarmen eta prozesuen inguruan gertaturiko ekimenei erreparatu gabe ezin izango ondu ulertu gaur egungo mobilizazio indigena garaikidea.

aprobetxatuko dituzte herri indigenak²⁶⁷. Hamarkada honetan NBEren mailako partaidetzak puntu altuena lortuko du 1999an 1000 pertsona inguru bildu zirenean PILan 17. Saioan. Modu honetan euren ekimenez aurreko hamarkadan sorturiko esparru politiko hau sendotu eta finkatu egingo da. Aurreko hamarkadetan prozesua hasi zuten erakunde historikoekin batera, maila lokaleko GKE indigenak ala herri indigenen ordezkariak ikusiko ditugu hamarkada honetan nazioarteko politikan esku hartzen. Lehenengo Munduko eta Amerikako ordezkarietarako prozesuan zuten erabateko nagusitasuna osatu egin zen Asia, Afrika eta Pazifikoko eta Sobiet Batasuna zenaren ordezkarien partaidetzarekin.

Errealitate honek mugimenduaren izaera dinamikoa erakusten du eta enbido egin NBEn europar botereen kolonizazio historiakoa eta “indigena” lotzen dituzte definizioei. Indigenek “ur gatzituaren” printzipioari kritika gogorra egin, berau bertan behera uztea eta “barne kolonizazioa” integratzen duen kontzeptu berri baten beharra defendatu dute (Cojti,1997). Barne kolonialismoaren kontzeptuak intelektual ez indigenen lanetan ere aurkituko dugu. Hots, Stavenhaguen-ek (1990) erabili egingo du herri indigenen egoera mundu mailan deskribatzeko eta hurrengo hamarkadan egile ezberdinek Afrikako (Kabunda 2005, Caranci,2005) egoera deskribatzeko erabili egin dute.

Nazioarteko oihartzuna ukan eta nazioarteko sarea eraikitzeko balio zuten ekimenen artean aipagarria da 1991an UNESCO-k Otawan egindako “500 urteak baino aruntzago izpiritua sendotzen” biltzarra. Bertan 800 partaide bildu ziren eta Ameriketako ordezkariak ez ezik Filipinas, Australia, Eskandinabia, Errusia eta Afrikako ordezkariak egon ziren. Bertan bildutakoek etnozidioa, akulturazio, hezkuntza elebidunarekin eta kulturen arteko harremani buruz mintzatu ziren. UNESCO-k zabalduko bide honi jarraituz San Cristobal de las Casas-en (1991) eta Oaxacana-an (1993) hezkuntza eta kulturarekin loturiko gaiak aztertu ziren.

Honekin batera, Munduko Bankuak 1991an 4.20 herri indigenekiko politika berria onartu egin zuen²⁶⁸. Arautegi honek herri indigenen definizioa eskaini, partaidetza eskubidea defendatu eta euren lurretan Banku Mundialak lagunduriko proiektuak daudenean “Herri Indigenen Aldeko Garapen” planak izatea agindu zuen. Gainera, ondorio ezkorrak sahiesteko eta baita ere babesa emateko gogoia erakutsi egin zituen eta mekanismoak ezarri egiten ditu proiektuen inguruko prozedura guzietan herri indigenak integratzeko. Erabaki honetan pisu handia izan zuten 1980ko hamarkadan Bankuak berak bultzaturiko proiektuen aurka mundu mailan egindako

²⁶⁷ Hamarkada honetan izandako partaidetzaz jabetzeko <http://www.indianlaw.org/links.html> aurkitu dugu martxan jarritako prozesuei buruzko informazioa

²⁶⁸ World Bank operational directive 1982 eta 4.20 berriaren historiari buruzko informazioa <http://wbi018.worldbank.org/essd/essd.nsf/28354584d9d97c29852567cc00780e2a/f0eb151669712593852567cc0077f6a4?OpenDocument> helbidean lortu daiteke. 4.20 Direktiba berriari buruz gehiago jakiteko jo helbide honetara <http://wbi018.worldbank.org/Institutional/Manuals/OpManual.nsf/tocall/0F7D6F3F04DD70398525672C007D08ED?OpenDocument>

mobilizazioak. Geroxeago, bide honi heldu zioten Banku Interamerikanoak eta beste nazioarteko finantza erakundeek. Hau garrantzi handikoa gertatu zen honelako erakundeek kontuan hartu dituztelako herri indigenen aldeko nazioarteko.

Herri indigenen nazioarteko presentzia eta ikusgarritasunari dagokionez, 1992a izango da, ezbairik gabe, arrakastaren urtea, Urte honetan Ameriketako Aurkikuntzaren Bosgarren Mendeurrenaren aurkako inguruko mobilizazioak gertatu ziren. Espainia eta Batikanorentzat fundazio mito inportantea ospatzen zen eta honek ekarri egin zuen indigenen mundu mailako erantzuna, Ameriketara handiagoa izan bazen ere. Gogoratu egin behar dugu 1977ko konferentzian indigenek eskatu egin zutela urriaren 12a “Nazioarteko elkartasun eta Doluminaren eguna izandatzeari” (Ortiz-Dunbar, 2004). Herri indigenek eta euren erakundeek, horietariko asko ekintza honen inguruan sortutakoak, protagonismoa lortu eta politiko zein munduko komunikabide guztien artean lortu zuten (Van Cott, 1996). Mendeurrenaren inguruan prEstatuturiko ospakizun zein salaketak herri indigenen partaidetza izan zuten. Gertakizun historiko honen inguruan buruturiko hausnarketa kolektibo honetan kulturen arteko komunikazioari atea zabaltzeko eta historia ofizialari kritika egin zitzaion. Zapalduen ikuspuntua, euren ahotik entzutea posiblea izan zen²⁶⁹.

Aurreko hamarkadetan herri indigenek giza eskubide eta ekologia uztartzen zituztenak ekimenaren fruituak mundu mailako onarpena lortu zuten²⁷⁰. Urte honetan hasten da euren gorengo eta presentzia eta aktoreztza nazioarteko harremanetan benetan gauzatu egin zen. Munduak aurpegi indigenak, mezu indigenak eta protagonista indigenak ikusi zituen, lehenengo aldiz agenda global berriaren auziak eztabaidatzen NBEko foro batean eta Estatu ordezkarien aurrean.

Herri indigenek, euren egindako kritikak eta proposamenen bidez, garapenaren norabidea eta ingurumenarekin zuen modernotasunak harremana aldatzeko debatean protagonismoa irabazi zuten. 1992ko Errioko Munduko Gailurretik²⁷¹ hasita, eta honetatik eratorriak diren Konbentzio eta ekimen²⁷² guztiek modu batean ala bestean herri indigenen paperaren aitortzea eta euren

269 Urteurrena ofiziala ospatzeko prEstatuturiko ekintzek erantzuna jaso zuten “Aurkikuntzaren” ideologiarekin ados ez zeuden indarren aldetik. Indigenek diskurtso ofizialaren handitasun eta balorazio positiboaren aurrean euren esperientziaren testigantza jarri zuten. Urte honetan aukera izan genuen ikuspegi ezberdinetatik azken 500 urte hauetan europarrek eta euren ondorengoez egindakoaren balorazioa anitza eta aberatsa izateko. Aldi honetan herri indigenen ahotza eta ikuspuntua ozeki entzun zen. Honetat bide Morris (1992) ala Cultural Survival Quarterly-ren (1992) Speaking for Ourselves: Native Americans Look Ahead at the Columbus Quincentenary 16 (3).

270 Urte honetan mundu mailako indigenen artean kontaktuan areagotzen direnean indiotasuna ulertzeko ikuspegi ezberdinen batasuna sortuko da. NBEan nahiz komunikabideetan herri indigenen nortasun eta agenda pan-indigena agertuko dira protagonista. Urte honetan lorturiko arrakastak inspirazio handikoak izango dira mundu osoko indigenentzat eta mugimenduaren indar berria eta nazioartekotasuna lau haizeetara zabaltzeko zuten.

271 Brutland txostenak (1987) iradokitakoari jarraituz herri indigenen errekonoizimendua gauzatu da. Aitorpen honek aurreko NBEren mailan 50 urteetan pairaturiko presentzia faltarekin amaituko du, eta herri indigenen balore eta kulturen aldeko delibero inportantea dela esan daiteke. Hemendik eratorriak diren Konbentzio eta akordio guztiek printzipio honi lotuko zaizkio.

272 Hemen Biodibertsitateari Buruzko Konbentzioa (1992), Eguraldi Aldaketari Buruzko Hitzarmena, Basoei buruzko Hitzarmena ala Desertizazioaren Aurkako Hitzarmenak herri indigenen partaidetza beharrezkotzat jo zuten euren helburuak lortzeko orduan.

partaidetzaren beharraz aritu ziren. Lorturiko nazioarteko errekonozimendu honek sendotu egin ditu ekologiarekin loturiko gaiak, HIKE-ren ardatz nagusietako bat izatera pasatu zelarik.

Gailurrean lorturiko arrakastaren atzean, Kari-Oca-ko biltzar indigena eta paraleloan egindako “Lurraren Gutun Indigena”²⁷³ zegoen. Rio-n GSaren nondik-norako nagusiak eztabaidatzeko eta negoziatzeko Estatu buru, diplomatiko, aditu eta antzekoak bildu ziren bitartean, Kari-Oca-n indigenak eta gizarte zibilaren ordezkariak bildu ziren, GSri buruzko eztabaida honi euren kontribuzioa egiteko²⁷⁴. Mobilizazio indigena honen ondorioz Erri-tik ateratako Agenda 21-ek bere 26. artikulua²⁷⁵ “herri indigenei” eskaini zien, euren garrantzia eta egokitasuna munduko arazo ekologikoak tratatzeko eta prebenitzeko orduan gorai patuz. Hau gutxi balitz, gailur honetan lehenengo aldiz ordezkari indigena batek plenariori hitza zuzentzeko aukera izan zuen (Burger 1997; Minde 1995; Anaya 1997).

Garapen eta ekologia bateratzen zituen GSan indigenak nazioarteko estrategietan aktoreak bezala agertu ziren lehen aldiz. Gainera, Erri-tik eratorriak diren itun eta dokumentuetan euren kulturen balioa, natura kudeatzeko trebetasuna aitortu egiten da, indigenen auto garapena bultzatzeko eta euren eskubideak bermatzeko deialdia eginez. Modu honetan GSa bultzatzeko politika eta programen (*major group*) bihurtuko dira. Beraz, indigenak lagundu eta indartu beharreko aliatu bezala agertuko zaizkigu. Lur eskubideak eta kulturaren balioa sustatzeko nazioarteko deialdia hedatuko da. Ondorioz, nazioarteko legedia zein printzipio hauek integratzen dituzten Estatu mailako legediek indigenak babesteko mandatua bere gain hartu zuten.

Historian zehar behin eta berriz euren kulturen balioa ukatuta ikusi ondoren indigenek nazio industrializatuei zer kontribuitzerik badutela ikusi zuten munduko Estatuak, beren nazioarteko sistemak eta berau osotzen duten erakundeek²⁷⁶.

Arlo honetan ezagaturiko arrakasta aprobe txatuz ekologiarekin lotuta zabaltzen ari zen eremu horretan benetako presentzi eraginkorra izateko gai zehatzei loturiko nazioarteko erakunde indigenak sortu ziren, adibidez, basoen defentsan zentratutako mundu mailako, International Alliance of Indigenous –Tribal Peoples of the Tropical Forest sortu zen. Erakunde honek Laugarren Munduaren ideologiari jarraituz biopolitikarekin loturiko arloetan erregio mailako erakundeak, GKE eta adituak bilduko ditu bere baitan. Sortu zenetik arlo honetan

²⁷³ Kari-Oca-ko aldarrikapena herri indigenek zein ekologistek egindako ondorengo aldarrikapenentzako erreferentzia bihurtu da herri indigenen kosmos-ikuskerara, iritzia eta proposamena plazaratzen duelako. Kari-Oca-n gertaturiko foroa herri indigenen mugimendu paradiplomatikoaren indarraren froga lehenengoetarikoa izan zen eta arazo larri baten inguruan mundu mailako gailur batean euren ahots eta partaidetza propioekin presente zeuden lehenengo aldia.

²⁷⁴ Estatu ala NBEren mailako bilerak gertatu baino lehen biltzar indigenak egiteko ohitura eredu bihurtuko da. Eredu honi jarraituko zaio bai Munduko Elizen Kontseiluak lagundurik Lantaldea urteko bilera hasi baino lehen egindako Caucus Indigenan. Biltzar indigena hauek gai nagusiak eta jarrera nagusiak eztabaidatzeko egiten dira, Biodibertsitateari Buruzko Kontentzioaren inguruan sorturiko Foru Indigena dinamika berdina jarraituko du.

²⁷⁵ Dokumentu hau <http://www.ecouncil.ac.cr/indig/legislation/english/chap26en.htm> lortu daiteke.

²⁷⁶ Herri Indigenen balioa GSa bultzatzeko orduan eta euren OJren garrantziaz jabetzeko aurreko kapituluetan aipaturikoen gain bide Krieger (2008), UNEP (1992), United Nations ((1994), Warren (1994).

erreferentziazko erakundea bihurtuko da.

1992an Ruslan Kasbulatov, Errusiako Sobiet Supremoaren presidentea, CWIS-i egin zion gonbidapena Errusian ziren 150 talde etnikoekin izan beharreko harremanak nola hobetu zitezkeen hausnarketan laguntzeko. Asmo honi jarraituz WCIS-ek Nazioarteko Konferentzia baten antolaketa iradoki zuen eta Errusia eta Alemaniaren baietza jaso *“We suggested that Russia, Germany, Japan and the United States of America join ten Fourth World nations including the San Blas Kuna of Central America, Tibet, Sami of Scandinavia, Massai of southern Kenya and Northern Tanzania, Lummi of the United States of America, the Crimean Tartar and others in a planning body to organize an international Congress of Nations and States in Moscow”* (Ryser, 2001:NET). Kasu honetan AEB-ek kontrako jarrera erakutsi, Japon konbentzitu eta Errusiarrak eta Alemanak bakarrik gelditu ziren ordezkari indigenekin batera. Hala ere, konferentzia hau 1993an burutu eta gatazka etnikoak konpontzeko eta prebenitzeko iradokizun franko egin ziren: Estatuak eta nazioen arteko harremanak modu konstruktibo eta positibo batean garatu asmoz.

Urte honetan gertaturiko azken mugarrira Rigoberta Menchú-ri Pake Nobel Saria jaso zuenean gertatu zen. Horrela, herri indigenek azken 500 urteetan gauzaturiko erresistentzia eta bere borrokaren zilegitasunaren aitortpena jaso zuten.

La lucha que hemos emprendido para que nuestros derechos sean reconocidos y respetados, ha transcendido las fronteras y nuestros propios países para ir directamente al campo internacional. Hemos hecho trabajo de denuncia de parlamentos, diplomático. Hemos ido a los propios salones de la ONU para exigir a este organismo que nos acompañe en nuestra lucha y nuestras demandas (Menchu, 1997:21).

1993an Vienan egin zen Giza Eskubideei buruzko Mundu Mailako Konferentzian²⁷⁷ presente egon ziren. Aldi honetan ia dozena bat ordezkari izan genituen hitza osoko bilburari zuzentzen (Khosravi 2006; Burger 1997). Indigenen herri izaeraren aitortpenik ezta berei loturiko autodeterminazio eskubideak aurrera egin ez bazuen ere, Foru Iraunkorra sortzeko herri indigenen eskaera bultzatu egin zen. Halaber, euren nazioarteko zein Estatu barneko partaidetza areagotzeko eta sendotzeko deialdia²⁷⁸ egin zuen Konferentzi inportante honek.

Deialdi honi jarraituz NBEak 1993ko urtea izendatu zuen “Munduko Populazio Indigenen Urtea”. Indigenek nahi zuten 1992a izendatzea baina AEB eta Espainiak 1993ra atzeratu zuten (Minde, 1995). Urteetan zehar mobilizazio pan-indigenaren helburu bat bete zuen: honelako urte bat izatea munduko herri indigenek bizi zuten egoeraren larriaren gainean munduko

²⁷⁷ Vienan buruturiko Giza Eskubideei buruzko Mundu Konferentzian hasita euren bizitza baldintzatzen duten eremu eta prozesu guzietan herri indigenen partaidetza bultzatu zen. Geroxeago, 1994an El Cairon izandako Populazio eta Garapenari buruz Nazioarteko Konferentzian eta 1995an Copenhaguen egindako Gizarte Garapenari buruzko Mundu Gailurrean zein Pekin-eko Emakumeen Mundu Konferentzian ala 1996an Estambul-en buruturiko Giza Asentamenduen NBEen Konferentzian (Habitat II) herri indigena eta ez indigenen arteko harreman adiskidetsuen defentsa egin zen eta ezarri garatu beharko printzipio bezala herri indigenen kulturak, bizi moduak eta mota guzietako beharrak asetzeko neurriak hartzeko deialdia luzatu gobernu eta nazioarteko nahiz GKE guzietan.

²⁷⁸ Vienako deklarazioa <http://www1.umn.edu/humanrts/instree/11viedec.html> helbidean lortu daiteke.

arreta eta interesa erakartzeko. Gura errealitatea bihurtu zuen NBEk 1993ko urtea zeregin honetarako izendatu zuenean. Urte honen xede nagusienetarikoa herri indigenek bizi zuten arazoei aurre egiteko nazioarteko kooperazioa sendotzea zelarik. Jorraturiko alorrak giza eskubideak, ingurumena, garapena, hezkuntza eta osasuna izan ziren eta aukeraturiko slogana “Herri Indigenak: Aliantza Berria”. Honetaz gain, Rigoberta Menchu urte honetarako NBEren borondate oneko enbaxadorea izendatu zuten.

Honekin batera, 1993an ere, 48/163 ebazpenean NBEko Batzar Orokorak onartu egin zuten 1995-2004 hamarkada herri indigenen hamarkada izendatzea. Hamarkada honen helburua, herri indigenekin nazioarteko kooperazioa bultzatzea zen. Era honetan herri indigenek pairatzen zituzten arazoei (giza eskubideen, osasun, ingurumena eta garapenaren alorrean batik bat) aurre egin ahal izateko. Hamarkada honi laguntzeko Hamarkadarako Borondatezko Kontribuzioen Fondo sortu zen. Fondo honetan UNDPren ordezkari bat, hiru gobernu emaileen ordezkariak, Populazio Indigenen Lantaldearen Burua eta Herri Indigenen bost ordezkariak biltzen dira ordudunik. Honetaz gain, komunikazio eta kontzientizazio mailan laguntzeko Abuztuaren 9, herri indigenen nazioarteko eguna bezala izendatu zen. Baina seguruenez benetako mugarrria HIGEaren azken zirriborroa onartu zenean lortu zen.

Justu hau onartuta gero, 1994an WCIP inguruko jendeak beste herri eta ordezkari indigenekin batera HIGEAri alternatiba egiteko Herri Indigenen Nazioarteko Konbentzioa proposatu zuten. Alternatiba hau indigenek propio buruturikoa da²⁷⁹.

HIGEA azpibatzerde mailan 1993an onartua izan ondoren 1995an zirriborroak bere bidea jarraitu zuen. Giza Eskubideen Batzordeak talde berezia sortu zuen HIGEAREN proposamena eztabaidatzeko. Estatuaren eragina berehala sentiarazi zen. Hasieratik prozedurak luzatu, negoziazioak bihurtu eta indigenen partaidetza eta Estatuak onartutakoa berridazteko intentzioa azaldu zuten. Zirriborroaren osotasunaren defentsa HIKERen beste ardatza bihurtu zen hamarkada honetan.

Bestalde 1995an Herri Indigenen Foru Iraunkorra sortzeko lehenengo bilera egin zen Copenhaguen-en eta Laugarren Munduak partaidetzarekin. Foru Iraunkorraren iradokizuna NBEren sistema indartzeko eta Laugarren Munduaren partaidetza gauzatzeko beste pausu inportante bat zen,

NBEtik kanpo 1996an Copenhaguen-en Visions Abya Yala delako nazioarteko erakunde eta ordezkari indigenen bilera gertatu zen. Amerikako herri indigenen ordezkariak aukera izan

279 2006an NBEko Batzar Nagusiak HIGEAREN onarpena urte betez atzeratu ondoren, eta HIGEA aldarrikapena izanik duen aholku Estatusa eta inolaz ez derrigortasuna aipatuz, batuzk hasi ziren konbentzio baten beharra aipatzen. Alperaturikoa nazioarteko konbentzioa bihurtuko litzateke 30 partaide sinatuko balute Konbentzio honen testua eta aurreko historiari buruz bide (1981) www.wcis.org/fdwp/international/intconv.txt eta www.wcis.org/fdwp/international/scrinsum.txt.

zuten Europako herriei, zuzenean, NBEren mailan zein Estatu bakoitzean gertatzen ari ziren prozesuei buruzko informazioa emateko. Bilera hau garrantzi handikoa izan zen egungo arazo eta prozesuei erantzuteko herri indigenek euren proposamenak kaleratu zituztelako. Jorraturiko gaien artean autodeterminazio eta lurraldetasuna, biodibertsitatea eta jabego intelektuala, hezkuntza eta kultura, izpiritualtasuna eta erlijioa, emakumea, nazioarteko hitzarmenak, nazioarteko kooperazioa eta garapena, komunikazioa, osasuna eta ohiko sendakuntza egon ziren. Bilera honetan trataturiko gaiak eta ikuspuntuak bilduz bertan “Copenhaguen-eko aldarrikapena²⁸⁰ atara zen. Bertan Laugarren Munduak buruturiko HIKeren ardatza diren gaiak eta aurkitu daitezke, baita ere nazioartean aritzeko proposamenak eta lan ildo nagusiak ere.

1997an aitzindari indigenak NBEren giza eskubide sisteman trebatzeko programa onartu egin zen. Modu honetan prozesuaren bultzatzaile izango den belaunaldi berri baten kapazitatea hobetzeko egin zen eta Afrika, Asia zein Sobiet Batasuna izandako ordezkarien partaidetza bultzatu egingo da. 2000tik gaurdaino NBEren programa honen barruan eta Eusko Jaurlaritzaren finantziarioz, Deustuko Unibertsitatean Latino Amerikako aitzindariarentzat trebatze saio berezia egiten da gazteleraz *Programa de Formación en Derechos Humanos para Pueblos Indígenas de Latinoamérica* izenarekin. Hasierako formakuntza Bilbon jaso ondoren azken saioa Genevan burutuko dute, NBE sistema eta bere inguruko GKEen artean, trebakuntza amaituko dutelarik. Ingelesez bakarrik irakasten zen programa hau 2006an gazteleraz, frantsesez eta errusieraz egiten da munduko toki ezberdinetan.

1999 HIKEk bultzada handia jaso zuen Miguel Alfonso Martinez *Estudio sobre los tratados, convenios y otros acuerdos constructivos entre los Estados y las poblaciones indígenas* indigenek sinaturiko hitzarmenei buruzko txostena aurkeztu zuenean. Txosten honetan Martinez-ek domestikazio politika gogor kritikatu egin zuen. Martinez-ek argi utzi zuen indigenekin sinaturiko tratatuak nazioartekoak zirela eta direla indargabetu aldebakarki. Izan ere, egindako subiranotasun indigenaren ukapena legegabekotzat eman zuen eta gogoratu Hawaii antzeko kasuak daudela. Hawaii deskolonizaziorako herrien artean egon beharko lukeela zion Martinez-ek. Azkenenik, azpimarratu egin zuen sinaturiko hitzarmenak ahalmena handia dutela indigena eta ez indigenen artean XXI. mendeko harremanak bideratzeko.

1992an hasita herri indigenak NBEk antolatutako nazioarteko mundu mailako gailur inportante guztietan presentzia izan zuten, eta eremu honetan sorturiko aldarrikapena eta ekintza programetan aipatuak izatea lortu zutelarik. Hots, Vienako Giza Eskubideei buruzko Konferentzia

²⁸⁰ HIKeren barruan gai ala egoera zehatzen aurrean egindako aldarrikapenek aukera eman digute herri indigenen presentzia politikoaz eta beren jarreraz jabetzeko. Hauetariko batzuk Jaurlaritzak ateratako “Derechos de los Pueblos Indígenas” liburuan aurkitu daitezke. Copenhaguen-ekoarekin batera Kari-Ocako (1992) GSari buruz; Mataatua (1993); Jabego intelektual eta Kulturalari buruz; Phoenix (1995) Giza Genomari buruzkoa. Liburu honetan aurkitzen ez diren beste batzuk Leticia (1997) basoei buruzkoa eta Seattlekoa (2000) urtekoa izan daitezke. Kasu guztietan herri indigenek garrantzizko mailako gaien aurrean euren jarrera agertu dute.

(1993), El Kairoko Populazioari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzia (1994); Copenhagueneko Gizarte Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzia; Beijingeko Emakumei buruzko 4. Nazioarteko Konferentzia; Arrazismoari, Arrazakeri, Xenofobia eta Intolerantziari buruzko Durbaneko Mundu Konferentzia (2001); Johannesburgoko WSSD Gailurraren (2002) eta Tunezko Informazio Gizarteari buruzko Mundu Konferentzia dira aipagarrienak. Aipaturiko kasu hauek nazioartean duten presentzia eta euren alde zabalduko iritzi eta joeraren erakusleak dira.

Nazioarteko biltzarretan izandako partaidetzarekin batera, aipatzekoak dira indigenek egingandako aldarrikapenak, adibidez, 1996an Copenhague-ko aldarrikapenak aurretik jorrituriko bidetik abiatu eta osatu egin zituen aurretik gertaturikoak: hala nola Kari-Oca-koa (1992) Garapen Sostengarriari buruzkoa, Mataatua-koa (1993) jabego intelektualari, biopirateria eta eskubide kulturalari buruzkoa; Phoenix-koa(1995) Giza Genomari buruzkoa, Leticia-koa (1997) basoei buruzkoa, Seattle (2000) eta Bonn (2004) klima aldaketari buruzkoa.

Paradiplomazia indigenaren arrakasta honek, NBEren adituek bultzaturiko aldaketarekin batera, eraman egin zituen NBEren sistemaren barruan dauden hainbat erakunde herri indigenekiko euren politika eta ekimen ereduak berriz aztertzerantz. Adibidez, WIPO, UNESCO, UNDP, WHO, Nazioarteko Moneta Fondoa edota Munduko Bankuak eta bere kideak (*Banco de Desarrollo Iberoamericano*, *Banco de Desarrollo Asiático*) politika bereziak bultzatu zituzten. Halaber Europar Batasunak edota Amerikako Estatu-tuen Batasunak bat egin zuten nazioarteko joera honekin.

Nazioartean lorturiko onarpenek hainbat Estatu 169 ituna sinatzerantz eraman zuten. Kanada, Australia eta Zelanda Berriak “*Terra Nullius*”, alboratzeko ekimenak hartzen dira. Era berean lege ekimen berriek “*Native Title*” errekonozitzen dute Herri Indigenekin negoziatzeko beharra eta itun zaharren inguruan kontzentzu berriak lortzeko apustua. Horretarako akordio berriak ala gaurkotze formula juridikoak erabili daitezkeela defendatzen da. Itunen bidea erabiliz Estatu, erregioetako gobernu, multinazional eta herri indigenen arteko gatazkak bidera daitezke (Martínez, 1999). Hala ere, Estatuak nahiago dute akordio berrietara heltzea. Hau horrela da Itunetan “*nation-to-nation*” Estatua onartzen delako, eta horrek atea zabaltzen duelako nazioarteko zuzenbidearen bidea jorratzeko (Short, 2003).

Aipaturiko bidetik abiatuz, Latino Amerikako hainbat konstituzio berriek herri indigenei zuzenduta daude eta eskubide kultural batzuk onartu zataizkien. Asian ere Filipinas, Kanpuchea eta Malasiako gobernuak legedi berria eta aurrerakoiagoa jarri zuten martxan, herri indigenei nolabaiteko aipamenak eginez. Europan (Noruega) eta Errusian ere herri indigenen singularitatea onetsi zen. Afrikan Etiopia, Camerun, Uganda, Argelia eta Hego Afrikan antzeko ekimenak sustatu ziren. Herri indigenak onartzeko joera honek bere isla izan zuen nazioarteko itunetan eta hainbat prozesuetan. Hala eta guztiz ere, aitorpen hauetariko asko oso mugatuak dira herri

indigenak gutxiengo nazionaltzat dituztelako eta euren eskubideak Estatuek emandako zerbait bailitzan.

1990ko hamarkada honetan gertaturiko aurrerapenik handienak, hala ere, hondoko bi hauek dira Herri Indigenen Aferen Foro Iraunkorraren (hemendik aurrera HIFI) sorrera (2001) eta Giza Eskubideen Batzordearen Barruan Afera Indigenen Errelatore baten izendapena (2002). Bi eremu berri hauen onarpenak indigenek nazioarteko erkidegoan lorturiko onarpen mailaren zein NBEren egitura gorengo mailan kokatzeko gaitasunaz testigantza eskaintzen digu.

5. FORO IRAUNKORRA: PARTAIDETZA INDIGENARAKO MEKANISMOA

NBEren mailan herri indigenak partaidetza iraunkorra eta NBEren mailan ahalik eta gorenaren izateko aspirazioa aspaldiko kontua da. Kapituluaren hasieran Deskaheh –en esperientzia dugu aitzindari eta aurrekaria, gero 1980ko hamarkadan eta 1991ko Nuukeko mintegian egindako eskaerak aipatu ditzakegu. Eskaera honek Laugarren Munduak duen nazioarteko erkidegoaren aldeketarako (*system transforming*) ekimenerako, funtsezko auzia da. Honelako gune batek nazio eta Estatu ordezkarien presentzia eta elkarlana ahalbidetzen duelako, batik bat.

New institutions which permit direct, coequal participation of nations and states are now essential for the construct of a new international political order (Ryser, 1993:NET).

Foroaren ideiarene gibelean, NBEren mailan erakunde sektore eta batzordeen artean banatuta dauden herri indigenei buruzko ekimena, programak eta abarren koordinazioa sustatuko zuen gunea lortzea zen. Hau HIKERen helburu nagusietariko bat bihurtu zen 1990ko hamarkadan²⁸¹.

1993an Vienan izandako Giza Eskubideei buruzko Mundu Konferentzian Danimarkako ordezkariak zuen Groelandia-ko gobernuaren ordezkariak Herri Indigenen Foro Iraunkorraren alde (HIFI) deklarazioa egin zuen²⁸². Konferentziak ekimen hau onartu eta bere bideragarritasuna aztertzeke deialdia zabaldu zion NBERi. Urte berean NBEak 48/163an Batzar Orokorrak erabaki egin zuen Giza Eskubideen Batzarrari gai honi lehentasuna ematea. Honek, bere aldetik, 1994an eskaera luzatu zion PIL-i gai hau aztertu zezan.

Foruaren bideragarritasuna aztertzeke 1995an lehenengo tailerra egin zen Copenhaguen (Danimarkan). Bertan 21 gobernu ordezkari, 21 ordezkari indigena eta 2 aditu independenteak hartu zuten parte. Tailer honetan erabili egin zen Daes eta Stavenhaguen adituek prestatuturiko txostena²⁸³ eta Foroan gai nagusiak definitu ziren: NBEren egitura mailan non kokatu; non

²⁸¹ Prozesua jarraitu ahal izateke bide IWGLA (1999), IWGLA (1997), IWGLA (2000).

²⁸² Kasu honetan paradiplomatiako baino herri indigenen kontrolpean dagoen gobernu ez zentral baten ekintza dugu hau. Dena dela, Foroaren historian bere partaidetza garrantzi handikoa izan da. Honetan gehiago sakontzeke eta ikusteko bertako gobernuak egindako proposamena bide E/CN.4/1995/141.

²⁸³ Txosten honetan hausnarketa egin, gai nagusiak eta modelook partaidetzarako deskribatuko dira bide E/CN.4/Sub.2/AC.4/1995/7/Add.2.

izango zuen egoitza; nortzuk, zenbat eta zer zonaldetakoak izango ziren partaide indigenak, nolako iraupena izango zuten karguan; zer gai eta nolako mandatuarekin tratatuko zituen; zer prozedura jarraitu beharko zuen Foroak eta, azkenik, nola finantzatuko. Honetaz gain, Foroa nazioarteko erkidegoan Laugarren Munduaren presentzia ziurtatzeko bidea eta indigenak partaide zireneko gatazka konponbiderako tresna zela azpimarratu zen.

Una revolución pacífica en la cual las Naciones Unidas, con el establecimiento del Foro Permanente para los Pueblos Indígenas, reconoce a los mismos como pueblos diversos fortaleciendo así la unidad de los estados individuales y creando una nueva agenda para la coexistencia pacífica (Petersen, 1999:11).

Danimarkan iradokitakoari jarraituz 1995an Azpibatzaordeak, bere 47. Saioan, HIFI sortzeko proposamena plazaratu zuen. Bere mandatuari buruz giza eskubide, garapena, ingurumen, osasuna, hezkuntza eta kultura sartzeari kontsideratzea defendatu. Zuen. Mandatua HIFI-k NBEko egiturari izango duen tokia araberako erabakiko zela argudiatu zen ere. Mandatuaren zabalera argitzeko azterketa bat eskatu zen, NBEren mailan honetaz arduratzen diren beste erakundeekin topo ez egiteko.

Urte berean, Batzar Orokorrak bere A/51/493 dokumentuan onartu egiten zuen ez zeudela NBEren egiturari herri indigenei buruzko gaietan aritu ala interesa dutenen arteko informazioa bultzatzeko mekanismoak. Are gehiago, Idazkari Nagusiak herri indigenen partaidetza eraginkorra bermatzeko prozedura egokirik ez zegoela onartu zuen (Henriksen, 1997:15).

1997an bigarren tailerraren aurretik Indigenek Foru Iraunkorrari buruzko Herri Indigenen Lehenengo Mintegia egin zuten Temuco. Bertan egoeraren analisia egin ondoren proposatu egingo dira ondokoak: HIFI NBEren egiturari ahalik eta toki altuenean kokatzea; herri indigenen partaidetza zabala eta gobernuei dutenen parekoa izatea; eta eskubideak kulturalak, zibilak, politiko, sozialak, ekonomikoak, osasuna, emakume eta haurren eskubideak, garapena, hezkuntza; gatazka konponbidea eta NBEren sistemarekin aktibitatea koordinatzea izatea bere mandatuari.

1997an bigarren Lantaldea Santiagon (Txilen) egin zen. HIFI bultzatzeko prozesuari proposamen zehatzak egiteko borondatea agertu eta ECOSOCra pasatzea erabaki zen. Lantaldeak onartu egin zuen mintegian indigenek erabakitakoa. Hori bai proposatu egin zen partaidetza, mandatua zein banaketa geografikoari buruzko azterketa egitea, herri indigenak non bizi diren eta hauen ordezkaritza zabala nola hobeto bermatu zitekeen jakiteko²⁸⁴.

1998an HIFIr buruzko Herri Indigenen Bigarren Mintegia Ukupeni-Iskardup (Kuna Yala, Panaman) burutu zen. Bertan adosturiko proposamenak aurrekoan erabakitakoari eutsi eta aurreko mandatuari gehitu egin zizkion ondokoak: biodibertsitatea, Estatuaren aniztasuna kulturala

²⁸⁴ Azkenean indigenek proposaturikoa ikusteko bide E/CN.4/2000/86. Banaketa geografiko honek kontuan hartzen du herri indigenen errealitatea eta ez NBEak egiten duen banaketa.

aitortzeko konstituzio erreformak, gatazken prebentzioa, legedi nazionalaren araudia, bizitzeko eskubidea, hondamendien inpaktua eta emergentziak. Honetaz gain, partaidetzari begira begirale eta partaideen arteko bereizketa onartu zen. Erakunde eta aditu indigenak partehartzeko aukera bai baina botoa emateko aukerari ezetza eman zitzaion. 1998/20an Batzarrak onartu egin zuen Txilen tratatutakoa eta Lantalde berezi bat sortzea prozesua aztertzeko. Urte berean, gaia aztertzeko Asiako Herri Indigenek bilera bat burutu zuten Indoren (India). Bertan idazkaritza independente bat sortzeko proposamena egin zuten. Halaber, Artikoko Herriek Ginebran bildu eta Deklarazio bat plazaratu egin zuten gai honekin lotuta. Mandatu zabala izatea, ECOSOC-i proposamenak, txostenak eta gomendioa egiteko ahalmena izatea etab. Proposatu zen. Halaber, eskatu egingo da HIFI NBEren mailan herri indigenekin loturiko gai guztien koordinazio gune nagusia izatea.

AITPN-k, Sami Kontseiluarekin eta Auzi Indigenen Nazioarteko Taldearekin batera, herri indigenen jarrerak eta hauen iradokizunak bilduko zituen txosten bat jarri zuten martxan. 2000. urtean helburu honekin Copenhaguen bildu egin ziren ordezkari indigenak eta onartu *“Recomendaciones del Sector Indigena sobre la Creación de una Foro Permanente para Pueblos Indígenas en el Sistema de Naciones Unidas”*²⁸⁵. Bertan talde nagusiei eta begiraleen partaidetzari buruz proposamenak egin ziren. Gobernu ordezkariak onartu egin zuten dokumentu hau ondoko lanerako oinarri bezala.

Ondorengo negoziazioetan Chakma-k (2000) salatu du herri indigenen ikuspuntuak ez zirela kontuan hartu, eta Lantaldearen presidenteak gobernuekin egindako negoziazioei lehentasuna eman zela. Egile honek laguntzaile²⁸⁶ eta azpitaldeen sorrera partaidetza zentzu faltsua sortzeko erabili zela dio. Finean, gobernuekin izandako negoziazioa zela erabakigarriena estaltzeko estrategia zela salatu du idazle honek.

5.1 GIZA ESKUBIDEEN EREMUTIK HARATAGO

Gobernuztat indigenek egindako proposamenetan mandatuaren inguruko eztabaida eta preseskiago gatazka konpontzeko mandatuarekin loturikoak dira puntu gatazkatsuenak²⁸⁷ (Chakma, 2000). Baita ere, herri indigenen eskubideak errespetatzeko Estatuetakoko legediak ikustatzeko asmoa. Guda Hotzaren osteko munduan Estatu barneko gatazka etnikoak nagusi

²⁸⁵ Bide E/CN.4/AC.47/2000/86

²⁸⁶ Eraginkortasuna mantentzeko zereginen agenda banatzea eta taldeka aztertzea proposatu zen. Talde Bakoitzean gobernu ordezkari eta ordezkari indigena bat laguntzaile bezala egoteko deliberoa hartu zen.

²⁸⁷ 1999ko Abuztuan Genevan nengoelarik Espainiako Gobernuaren ordezkariak eskatuta eta berari itzulpena egiteko eskatuta parada izan nuen honi buruzko gobernuen arteko batzar informal batean parte hartzeko. Batzarra ingelesez zen. Agertu ziren gaien artean gatazka prebentzioarena, herri indigenen ordezkariarena eta Bangla Desh-eko zein Malasiako ordezkariak planteaturiko “herri izaerarena” izan ziren. Hauen artean larriena askorentzat herri indigenak NBEren tresnak erabiliz muga barneko gatazketan parte hartu dezaketela. Askok ez zuten horrelakorik ikusi nahi. Nahiz eta indigenek defendatu kasu honetan txostenak eta iradokizunak egitea besterik ez zela gobernuek, ez zuten honetan amore eman nahi.

direnean Laugarren Munduak bultzaturiko eskaera honek gobernuen alarmak piztu zituen. Gobernuek HIFI-k gatazka prebenitzeko eta konpontzeko mandatua izateak Estatu subiranotasunaren aurkako mehatxutzat hartu zuten. Finean, gobernuek ez dute nahi NBEan, Estatuen kontrolpean dauden egituran, Estatu ez den norbaiti euren arazoetan sartzeko aukera ematerik. Honelakoak “Laugarren Munduaren” aldeko nazioarteko interbentzioari ateak zabaldu egingo bailizkioke eta Estatu subiranotasuna eta honi loturiko botere hegemonikoa mugatu.

HIGEArekin gertatutakoaren antzera HIFIREn mandatua murrizteko Estatuen ahalegina etengabea izan zen. Testuinguru honetan eztabaida gorria egon zen ordezkariak²⁸⁸ hautatzeko prozeduraren inguruan. Estatu batzuek aukeraketa Estatuen zeregina eta ahalmena izatea defendatzen zuten, eta planteatu egiten zuten Lantaldearen parte hartzen duten askoren “errepresentazio falta”. Jarrera honek ordezkariak batzuen zilegitasunaren arazoa planteatzen zuen. Errepresentazioaren zilegitasunaren auzia ez da Estatuak oztopatzeko asmatutako zerbitu, existitzen den kezka legitimoa²⁸⁹ baizik.

Errealitate hau aitzakotzat harturik, Estatu batzuek planteatu zuten ordezkariak indigenak Estatuen baimena izatea. Honek beto boterea suposatzen zuen Estatuen partetik. Jarrera honen bultzatzaile sutsuen artean garaiko Espainiako Gobernuaren ordezkaria izan genuen. Espainiako ordezkariak NLEren modelo defendatu zuen bere proposamena bultzatzeko. Honetan Estatuak ordezkariak kontrolatzeko botere asko dute eta honelako posibilitatea ez zitzaien indigenei gustatu. Gobernu espainoleko ordezkariaren jarrerak eta egindako presioak erakunde indigena eta GKEen kritika zorrotza eragin zuen²⁹⁰ (Chakma, 1999:419). Indigenek egindako kritikaren arabera proposamen espainolari jaramon eginez gero gobernuaren jarrera sustengatzen ez duten ordezkari indigenek ezin izango lukete parte hartu. Gainera, Afrika eta Asiako herri indigenak baztertzeko bidea zabalik geldituko litzateke.

Indigenek ordezkariaren auzia bideratzeko ekimenak garatu zituzten eta errepresentatibitatearen auzian euren berezko prozedurak kontuan hartuz proposamen zehatzak

²⁸⁸ ECOSOCeko presidentek izendatuko ditu ordezkari indigenak eta ECOSOC gobernuak izendaturiko adituak.

²⁸⁹ Jesus Alemañcia, Kuna Parlamentuaren teknikariak prozesu paradiplomatiakoaren inguruan ezkarriketan ari ginela “indiotak” kategoria aipatu zuen. Indiotak sustriak eta jatorrizko kultura eta errealitatearekin harremana galdu baina, gehien bat, nazioarteko erakundeetan parte hartuz eta Europan ala Amerikan bizirik auzi indigenen kontura arituz bizimodua lortzen zutenen erreferentzia. Aktore paradiplomatiako honek izan ditzakeen ordezkariaren zilegitasuna pil-pilean daukagun gaia dugu. Noren ordezkariak dira indiotak. Lantaldean herri indigenen izenean hitza hartzen duten askok nortzuk dira?, Noren interesa defendatzen dute?. Galdera hortxe dago eta XXI mendean gaudelarik herri indigenei dagokie euren “ordezkariaren auziari heltzea. Ipar Ameriketako herri indigena batzuen kasuan argi dago “herri ordezkariak” direla eta mandatu nahiko zehatzak daudela. Gauza bera gertatzen da Samien kasuan. Kasu hauetan ohiko aitzindariak herri mailako auzien ardura mantentzen duten bitartean, gazteagoak diren teknikoak nazioarteko auziez eta sareak egiteaz arduratuko dira, baina erabaki politikoa herri ordezkari politikoen mailan dirau. Banaketa hau nazioarteko politikak suposatzen duen konplexutasunari erantzuteko egina zen eta ahalegin paradiplomatiakoaren espezializazioa suposatzen du mugimendu eta herri indigena guztientzat. Hala ere, esan beharra dago urte hauetan NBEren mailan zein nazioarteko politikan aritzeko trebezi handia bereganatu duten indigenak aurkitu dezakegula. Hauek hainbat GKE ala gobernuen laguntza eta faborea lortu dute eta euren presentzia zein eragina ezin da ukatu. Ahalegin paradiplomatiakoaren barruan asko dira eta aditu mailan kontsideratu egin beharko genituzke. Aditu indigenak izatea ez du suposatu behar herri indigenen interesa automatikoki defendatzen dutenik, ezta honen aurkariak eta gobernuen meneko direnik.

²⁹⁰ Kritika hauek zirela eta Azpibatzerdean zegoen Espainiako gobernuko ordezkariak jarrera zabalagoa aurkeztu eta Lantaldean gertatutako ordezkariaren jarrera pertsonala eta inolaz ere gobernuarena islatzen zuela esan zuen.

egin. Samiek, adibidez, argi utzi dute bereiztu egin behar dela gobernuen indigenen ordezkari eta aditu ala erakunde indigenen artean. HIFiren botoa dutenak ordezkari indigenak ohiko gobernuen herri ordezkariak lirateke. Aldiz, Foruko partaideak eta bertaraturiko erakunde indigenak begirale bezala ahotsa bakarrik izan (IWGIA, 1999:94). Beraz, ordezkari indigenek ahalegina egin dute errepresentazioaren arazoa hau eurek konpontzeko.

Bere izenetik “Herri” izena kenduz 2000. urteko apirilaren 27an Giza Eskubideen Batzordeak Afera Indigenentzako Foru Iraunkorren (AIFI) sorrera erabaki zuen bere 2000787 ebazpenean. Azkenean AIFI-k, ECOSOCekiko aholkulari izaera du, 16 ordezkari ditu (8 indigenak). ECOSOCeko presidentek mundu osoko erakunde indigenekin kontaktuan egon ondoren 291 hautatuak dira hauek, eta bere mandatua garapen ekonomiko eta sozialaz; kulturaz, ingurumenaz, hezkuntzaz, osasun eta giza eskubideez arduratzea da. Dena dela AEB-ek eta Asiako Estatuak, Kubaren laguntzarekin, herri indigenen ordezkariak kontrolatzeko saiok arrakasta izan zuten eta behin betiko dokumentuan euren ikuspuntua txertatu zuten “*como resultado de las consultas formales con el departamento y los grupos regionales a través de sus coordinadores*” eta “*incluyendo procesos internos, cuando sea adecuado, y procesos de consulta a indígenas locales*”. Beraz, ordezkariak ezin izango da inoiz Estatuaren kontra erabaki.

Onarturiko AIFI-k planteatzen duen beste erroka ordezkariak geografikoarekin zer ikusirik du indigenek 17 zonalde geografikoak proposatzen zituzten bitartean 8 onartu dira. Erregio indigenak ondoko hauek lirateke: Artikoa/Europa, Asia, Ipar Amerika, Erta/Hego Amerika eta Karibe, Pazifikoa, Sobiet Batasuna izandakoa eta Ekialdeko Europa, Afrika eta, azkenenoz, zortzigarren ordezkariak aldatu egingo litzateke Asia, Afrika eta. Erta/Hego Amerika eta Karibe artean.

AIFI-k NBE mailan herri indigenekin loturiko ekimenak koordinatzea du beste betebeharren artean.

El propósito del Foro Permanente es servir como órgano asesor del Consejo con el mandato de examinar las cuestiones indígenas en el contexto de atribuciones del Consejo relativas al desarrollo económico y social, la cultura, el medio ambiente, la educación, la salud y los derechos humanos; para ello el Foro Permanente:

- a. Prestará asesoramiento especializado y formulará recomendaciones sobre las cuestiones indígenas al Consejo, así como a los programas, fondos y organismos de las Naciones Unidas, por conducto del Consejo;*
- b. Difundirá las actividades relacionadas con las cuestiones indígenas y promoverá su integración y coordinación dentro del sistema de las Naciones Unidas; y*
- c. Preparará y difundirá información sobre cuestiones indígenas.*

Guzti honekin argi gelditzen da herri indigenen partaidetza NBEren mailan giza

291 Panaman 2001ko Maiatzean egindako Indigenous Peoples' Millennium Conference on the Permanent Forum on Indigenous Issues bertaratu ziren ordezkariak salatu egin zuten Fondorako ordezkariak aukeratzeko High Commissioner for Human Rights bidalitako gutuna non proposamenak erakundek egitea iradokitzen den. Hau horrela erregio mailako konsultak egin gabe egingo balitz indigenek euren benetako ordezkariak aukeratzeko bidea ukatu egingo zaiela diote. Are gehiago, salatu egin dute Idazkaritzak aukeratu egingo litzakeela. Beraz, berriz ere, Estatuaren eta nazioarteko erakundearen trikimailuak aurkitzen ditugu ordezkari indigenak kontrolpean mantentzeko.

eskubideen alorretik haratago mugitu behar dela, eta Giza Eskubideen Batzordearen mandatutik at dauden esparruak ere ukitu behar dituela. Esate baterako, ospitale baten eraikuntza WHO/OMS ala UNDP/PNUDren ardura izan daiteke eta honelako bat lortzeko ez litzateke jo behar Giza Eskubideen Batzordera osasuna izateko eskubide betetzea eskatuz. Hau bide luzeegia litzateke garapenarekin loturiko zerbait lortzeko. AIFI honelako kasuei arinago erantzuteko koordinazio gunea izan nahi du. Proposamen honen arabera, Lantaldea giza eskubideen gaitan gehiago zentratuko litzateke eta HIFIrekin koordinazio izango luke. Bataren sorrera estu zergatik bestearen desagerpena ekarri behar. Baina aurre ikusten da oldartze bat, Estatuaren aldetik, Lantaldeak ezarritako prozedura zabal eta demokratikoarekin amaitzeko. AIFI-ren onarpenarekin, beraz, espero daiteke Lantaldea desegiteko ahaleginen bat. Funtzio bikoizketa eta aurrekontu eskasia erabiliko dira Lantaldearen mandatuarekin amaitzeko. Dagoeneko AIFI bihurtzen ari dela HIKeren gune nagusi izan daiteke eta Lantaldea egoera agoniakoan dagoela esan daiteke. Genevatik New Yorkerako pisu politikoaren aldaketa nabaria da..

... once the Permanent Forum has been established and has held its first annual session, the Council will make a decision concerning the continued functioning of the Working Group on Indigenous Populations and conduct a review of all existing mechanisms, procedures and programmes within the United Nations concerning indigenous issues with a view to rationalizing activities, avoiding duplication and overlap and promoting effectiveness (Economic and Social Council 2000:8 parr.).

Estatuaren asmoaz era da, oso deserosoa egin zaien Lantaldearekin eta bere dinamikarekin amaitzea (Morris,1998). Indigenek Lantaldea aldeko erabaki sendoa hartu zuten eta positiboa ikusi. Herri indigenek bizi dituzten arazoak konpontzeko eta bere eskubideak babesteko nazioarteko normatiboa egiteko funtzioa (Giza Eskubideen Batzordeak, gero ECOSOC, eta Batzar Orokorrek onartu beharko dituenak) funtsezkoa izaten jarraitzen du. Erakunde indigenek Lantaldea eginbeharrean laguntzeko ohitura hartu dute eta eraginkorra ikusten dute. Gainera, AIFIren lana, aditu indigena eta ez indigenek ECOSOCi aholku eman koordinatzea eta informatzea delarik, konplimentatu egiten duelako indigenen ustez.

Urtero 2002tik aurrera 10 egunez bildu egiten dira New Yorken AIFIren partaide diren 16 adituak, gehi herri indigenen ehunaka ordezkari, GKE eta gobernu ordezkariak. Lehenengo batzarretik urteko batzarrek gai nagusi bat izango zutela erabaki zen. Hala ere, honekin batera herri indigenentzako interesgarriak ziren beste gai batzuk ere sartuko zirela erabaki zen. Trataturiko gaiak ondokoa hauek izan dira: 2003an Gazteri eta Haur indigenak; 2004an emakume indigenak eta 2005an milenioko garapen helburuak (I eta II); azkenik 2006an milurtekoaren garapen helburuak: milenioko garapen helburuak birdefinituz ikuspegi indigena batetik. Urte honetan honetaz gain aztertu egin ziren Estatu eta gizarte zibilaren arteko partaidetza, herri indigenak eta ongizate erakusleak, herri indigenak eta emigrazioa, BBKren aditu taldeari eta etekinak partitzeko legedia zein herri indigenen eskubideak.

PILean gertatu zen bezala herri indigenak euren artean eta GKE zein gobernu

ordezkariekin biltzeko, negoziatzeko, gai zehatzei heltzeko, egindako lanak eta dituzten kezkek aurkezteko, martxan dauden programak presentatzeko etab. balio die.

Batzarrekin batera lantaldeak eta mintegi bereziak egin izan dira. 2004an herri indigenei buruzko datu berezituak buruz, 2005an Ohiko Jakinduriari buruz eta, bestea, aurretik egindako oniritzi aske, oso eta informatuari buruzkoa. Azkenik 2007an tailer bereziak antolatu dira klima beroketa eta ingurugiroa aztertzeke, eta indigenek aurkezturiko ekimenak aztertzeke, baita ere aitzindari indigenekin osaturiko aholkulari taldeari buruz eta NBEen duen paperari. Tailer berezien eremuan Foroak erakutsi duen gaitasuna indartu egiten du bere lana eremu berezitu legeez, eta erakutsi egin du bere indarra gai indigenak NBE mailan zein nazioarteko politikan sustatzeko.

Foroak beraz lortu egin du ekimen indigenaren *locus* nagusia bihurtzea eta PIL292ekin gertatzen zen bezalaxe biltzargune aproposa bihurtu da, bertan gai indigenetan ari diren aktoreek informazioa, ikuspuntuak, ekimenak elkartrukatu dezakete eta euren agendak ezagutarazi..

Gainera, Foroak lortu egin du bere egitekoan txertatzea PIL eta Gai Indigenetarako Errelatore Berezia, Rodolfo Stavenhaguen lehenago eta James Anaya²⁹³ orain. Bere koordinazio lana dela eta komunikazio kanalak zabaldu egin dira NBEren sistemaren barruan gai indigenetan ari diren beste erakundeekin. Koordinazio berri honek lehen ez zegoen informaturiko partaidetza mekanismo baten existentziaz testigantza eskaintzen digu. Era honetan herri indigenek aukera daukate euren presentzia sentiarazteko, eta bideak zabaltzen ditu euren proposamenak baldintzatu dezaten NBEk hartu eta euren bizitzetan eragina duten hainbat erabaki.

Gainera HIGEAren onarpenak eragina izan du Foroaren egitekoan, bere presidentea Tauli-Corpus-ek (2008) dioen bezala, HIGEA bere lana burutzeko markoa izango da, eta indigenentzako nazioarteko gizartean dauden aukerak biderkatu egiten dira.

5.2 JATORRIZKO PROPOSAMEN INDIGENAK AURKITUARIKO OZTOPOAK

Herri Indigenek lortu arren Estatus propio baten onarpena, baita euren agendaren auzi batzuk, giza eskubide eta ekologiarekin lorturikoak batik bat, huts egin dute gatazka prebentzioan eta konponbidean parte hartzeko orduan. Hau oso larria da gatazka asko eta asko indigenak dituztelako sufritzen, eta hainbat kasuetan legedi terrorismoaren aurkako erabiltzen delako euren eskubideak zapaltzeko. Erakutsi dugun bezala anitz gatazka dira Laugarren Munduaren geografian gertatzen direnak. Ordea, gutxi dira gatazka hauetan prebentzio, bitartekaritza ala konponketan aritzeko aukerak. Hau horrela da, historikoki euren errebindikazio historikoa izan

292 Giza Eskubideen Kontseiluak bere 6/36 ebazpenean erabaki egin zuen aditu talde bat izatea, euren betebeharra Kontseiluari herri indigenen eskubideei buruz aholkuak emateko. Talde hau 5 aditu independenteez osotzen dute.

293 James Anaya 2007tik aurrera Errelatore berria da.

bada ere, eta Foroaren sorrera prozesuan horrela eskatu bazen ere. Chittagong Hill Tracks, Guatemala, Ecuador ala Chiapas-en izandako gatazkek behin eta berriz erakusten dute indigenek bizi duten egoera kaskarra. Behin eta berriz biktimen artean indigenak ditugu nagusi. Kasu hauetan nazioarteko bitartekaritza ezinbestekoa gertatu daiteke horrelako bortxa gelditzeko. Hala ere ez da horrelakorik gertatzen bitartekaritza indigenarekin eta gatazka prebentzioan, bitartekotzan eta konponbidean Estatuak eta Nazioarteko Erakundeak edota GKE aurkitzen ditugu. Gaur egun ez Foroa, ezta Errelatorea ere, ez dira gauza horrelako zerbait egiteko are gutxiago behialako Lantaldea, gaurko Adituen Taldea. Errelatorearen existentziak itxaropenari leihotxo bat zabaltzen dio baina itxaropena ekimen zehatzetan gorpuzten ez bada ez dago zer egiterik.

Oztopoei begiratuz gero zera gelditzen da argi: Paradiplomazia indigenak sorturiko espazioak mugari historiko bat izanda ere, ez dela nahiko Estatuak kontrolaturiko egitura batean aurrera egiteko. Hau horrela da maizegi Estatuak entzungor egiten dietelako indigenen errebindikazioei. Era honetan paradiplomazioaren mugak markatzen dira eta erakusten da herri indigenen eskubideak bermatzeko bidea luze-luzea dela, eta, Corntassel-ek (2004:NET) erakutsi digunez hurrengo testuan, asko gelditzen dela egiteko.

One of the most significant developments of the Decade was the creation of the Permanent Forum on Indigenous Issues by the Economic and Social Council in 2000. This Forum was compromised from the beginning by the refusal of states to approve a "Permanent Forum on Indigenous Peoples" (our emphasis), fearing that the word "peoples" would imply a recognition of indigenous peoples' right of self-determination. Also, representatives attending the inaugural meeting of the Forum in New York stressed that the Forum should support research and policymaking in relation to indigenous peoples, rather than be a "house of complaints." Given the severe limitations of the Forum to act against injustices perpetrated against 370 million indigenous peoples worldwide, proposals to structure the Forum as solely a report-writing and data-gathering agency for state governments is tantamount to criminal negligence on the part of the UN.

During the Indigenous Decade, indigenous organizations and individual nations have continued to demonstrate by developing a proliferation of indigenous declarations across a wide range of issues: Indigenous Peoples Seattle Declaration (1999); Baguio Declaration (1999); Declaration of Indigenous Peoples on Climate Change (2000); Indigenous Peoples Millennium Conference statement (2001); Declaration and Platform of Action on the occasion of the First Indigenous Women's Summit of the Americas (2002). However, these declarations are, for the most part, ignored by states because of their political content and non-binding legal status. While declarations generally provide clear statements of indigenous political identity and objectives, the issue is not whether indigenous peoples are capable of stating their position; the issue is how to secure state commitment to achieving indigenous peoples' rights within the UN. Activities undertaken prior to and during the Indigenous Decade demonstrate that having indigenous issues on the UN agenda is insufficient to ensure the protection of indigenous peoples' rights.

**VI. KAPITULUA: HERRI INDIGENAK GIZA
ESKUBIDE UNIBERTSALEN BIDETIK**

SARRERA

Aurreko kapituluetan indigenek jasandako zapalkuntzaren historia eta nolakotasunak jorratu ditugu. Era berean, gaur egun pairatzen dituzten egoera larriak eta aurrean dituzten mehatxuei aurre egiteko martxan jarritako mobilizazioa hizpide izan dugu. Mehatxu guztiei erantzuteko nazioartera jotzeko erabakia funtsezkoa izan da, eta, gainera, herri indigenek osatzen duten mundu mailako mugimendu garaikidearen marka bihurtu da. Herri indigenek nazioarteko erkidegoan gaur egun duten presentzia ezin izango genuke ondo ulertu XX. mendeko bigarren erditik hona, nazioarteko zuzenbidean, zehatzago, giza eskubideen arloan, gertaturiko aurrerakuntzari erreparatu gabe. Honekin batera, indigenek zuzenbide subjektu “*right holders*” bezala jokatzeko gauzaturiko borondatea funtsezkoa gertatu da aldeko testuingurua gorpuzteko (Barsh, 1994). Finean garai honetan Laugarren Mundua nazioarteko zuzenbidearen eraikuntzan subjektu dugu. Hau inportantea da Kreimer-ek (1999:4) dioskun legez:

...el derecho es algo cambiante, en continua construcción. Y lo que es más importante, facilita participar en esa construcción. Porque esta construcción del derecho por sus autores y sujetos es una forma de pensar y concretar la autodeterminación.

Beraz, giza eskubide unibertsalen inguruko ekimenak Laugarren Munduaren ekimen-eremu estrategikoa bezala ulertu behar dugu (Bringas, 2006). Iraganean nazioarteko zuzenbidea kolonialismoaren tresna izan bada, gaur egun herri indigenen herri izaera eta eskubideak defendatzeko tresna paregabea bihurtu da (Anaya, 1996:4). Era berean ezin ahaztu nazioarteko Zuzenbidean ere politikak duen garrantzia.

...como hemos señalado los derechos humanos y el derecho internacional han estado fuertemente politizados por los Estados (...) en general son manejados en función de consideraciones políticas. En consecuencia cualquier análisis del derecho internacional, relaciones y derecho humanos debe tener en cuenta lo político...Esto es especialmente importante cuando se trata de poner en práctica las normas internacionales, las obligaciones y definición de los conceptos de derechos humanos (McKay, 1999:42-43).

Indigenek hau arras ondo ulertu dute eta ekimen politiko paregabea burutu dute giza eskubideen markoa euren aldera ekarriz (Muehlebach, 2003). Honetarako Europar tradizioan oinarrituriko kontzeptuak hartu eta euren egoera eta igurikapenak komunikatzeko birmoldatu dituzte. Kosmos ikuskera ezberdinen arteko elkarrizketa honetan giza eskubideen esparrua eta berorri loturiko hizkuntza eta tradizioa garrantzi handikoa izan da herri indigenentzat. Herri indigenek pairaturiko bortxa egoerak, euren minak eta saminak, euren igurikapenak eta guzti hau birbideratzeko egindako iradokizunak giza eskubide unibertsalen hizkuntza eta printzipioak erabiliz egin da. Giza eskubideen inguruan hasitako elkarrizketa hau oso inportantea izan da giza eskubide unibertsalen ulerkuntza hobe eta sakonagoa ahalbidetu duelako. Giza eskubide unibertsalen marko honetan gertaturiko hartu-emanak alde biak euren ohiko printzipioak berraztertzerara eramán ditu.

Por un lado, entendemos que las actuales reivindicaciones de los pueblos indígenas...interpelan significativamente a la tradición oficial de los derechos humanos, exigiéndole revisiones importantes, tanto en lo relativo a la fundamentación como en lo relativo a los contenidos. Y, por otro lado, creemos que esta tradición

pide modulaciones significativas a esas reivindicaciones, que, de este modo, se ven a su vez interpeladas (Etxebarria, 2006:63).

Giza eskubideekin arituz eta bere kodeak maisuki ulertuz lortu egin dute Estatu en ezusteko onarpena eskuratzea, eta beraientzat funtsezkoa den nazioarteko legedia baldintzatzea (Barsh, 1998). Martinez Bringasek (2006) asmatu duen bezala ekimen indigenak Estatu en gainetik proiektatzen da eta Estatua birpentsatzeko debatea sustatu du. Esaldi batean, indigen en kanpo ekintza Estatutik haratago pentsatzera eta bizi dituzte egoerei irtenbidea bilatzera garamatza.

Y para lograrlo, que posibilidad tienen los pueblos indígenas de escribir sus narraciones y cosmovisiones con un tipo de escritura que trascienda los ámbitos de influencia de los Estados, es decir, más allá de la historia trabada y realizada por los sectores hegemónicos atrincherados en el fortín de la estatalidad en el estrecho ámbito de miras y comprensiones en que la política queda reducida al Estado (Martínez Bringas, 2006:94).

Ondorioz, giza eskubideen unibertsalen babes sistema herri indigenei zabaltzeko orduan herri indigenak euren zuzenduriko berezko legediaren bultzatzaile²⁹⁴ nagusi bezala kontsideratu behar ditugu. 1970ko “antzinako nazio subiranotasunarekin loturiko diskurtso gogorak Estatu en beldurak piztu eta kontrako jarrerak areagotu egiten zituela ikusirik, 1980ko hamarkadan Laugarren Munduak arazo zehatzei loturiko bidea jorratzeari ekin zion, eta estrategia posibilistago bati hasiera eman. Aurki giza eskubideen aldeko erakunde eta komunitate epistemologikoetan aurkitu zuten indigenek aliatuak (Minde, 1995). Adituak nazioarteko erakundeekin batera inportanteak dira nazioarteko Zuzenbidea egiteko orduan aktoreak direlako (Mckay, 1999:49). Euren batera nazioartean bultzatu egin zuten kontzientzia berri bat eta euren aldeko giroa sortu (Burger, 2006). Era berean Estatu en iritzia aldaketa eta kontsensuz berri bat eragin dute (Martínez Bringas, 2006). Anaya-k (2006:53) zuzenbide kontsetudinario emergente berri baten aurrean gaudela diosku. Estatu en iritziaren aldaketa honek posiblea egin du herri indigenekiko nazioarteko iritzi konbergentea agertzea²⁹⁵.

Apustu honen emaitzak onak izan dira, eta herri indigenak NBEren aldetik euren eskubideak babesteko orduan euren egoerari buruzko aldeko aipamenak eta arreta berezia lortu dute. Honek, batetik, mendeetako isolamendu eta kultur/herri ikusezinarekin amaitu du. Bestetik, presentzia propioa eman die nazioarteko giza eskubideez arduratzen diren instituzioetan.

²⁹⁴ Bultzatzaile izate honek nazioarteko zuzenbidearen objektua izatetik subjektua izatera pasatzea suposatzen du. Hauxe noski, azken hamarkadetan egindako saio politiko askoren ondorioa da eta herri indigenen kanpo ekintzak lortutako arrakastaren isla dugu. Giza eskubideen bortzaketa jaso dutenen artean herri indigenen kasua berezia da. Normalean oso kasu gutxitan lortzen dute bortzaketen biktimek pairaturikoa sahisteko egindako tresna juridikoen sortze prozesuan (standard setting) parte hartzea. Herri indigenen kasuan, ostera, eurak bermatuko dituzten tresna juridikoen sortze eta eztabaida prozesuetan parte hartzeko egindako ahalegina berezia izan da eta euren praktika politikoaren dimensio inportante bat dugu. Partaidetza modu zuzenean ala aldeko GKEen bidez, lortu da. Era honetan, euren iritziak eta ikuspuntuak eztabaidatu, onartu eta txertatu egin direla ziurtatu dute.

²⁹⁵ NBE horrela onartzen du: “Los pueblos indígenas tienen derecho a disfrutar de todos los derechos humanos existentes. Los comités de las Naciones Unidas encargados de vigilar la aplicación de los acuerdos jurídicamente vinculantes —el Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos, el Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales, la Convención Internacional sobre la Eliminación de todas las Formas de Discriminación Racial y la Convención sobre los Derechos del Niño, en las que se incluyen disposiciones concretas relativas a los pueblos indígenas— examinan las cuestiones relacionadas con los pueblos indígenas al analizar los informes de los Estados sobre la aplicación de los tratados. Los órganos competentes son, respectivamente, el Comité de Derechos Humanos, el Comité de Derechos Económicos, Sociales y Culturales, el Comité para la Eliminación de la Discriminación Racial y el Comité de los Derechos del Niño” (ONU, 1998:17).

Are gehiago, gaur egun nazio arteko zuzenbidearen barruan esparru berezia izatera, eta NBEren erakundearen egituraren toki propio izatera heldu dira. Nazioarteko zuzenbidea eta giza eskubide unibertsalak babesten dituzten hitzarmen nagusiek herri indigenen egoera kontuan hartu, eta euren defentsaren ardura hartu dute euren gainean.

Zalantzarik gabe, XX. mendeko azken herenean buruturiko mobilizazioari esker herri indigenek lortu dute nazioarteko politikan aktore bihurtzea, eskubide bereziak merezi duten talde bezala onartuak izatea (Stavenhaguen, 2006)), euren agendaren inguruko eztabaida piztea, euren partaidetzarekin euren arazoak konpontzeko legedi berria bultzatzea, eurentzat propio sorturiko programa eta erakundeak izatea, eta azkenik, herri indigenekin loturiko gaiak, NBEren eta bere sistemaren kide diren erakundeen, ardura berezia bihurtzea (Burger, 2006). Adibidez, WIPO, UNESCO, UNDP, UNEP ala Munduko Bankuaren antzeko erakundeak herri indigenen eskakizunei erantzuteko ahaleginak egiten ari dira²⁹⁶ errekonozimendu joera indartsu honi atxikiz (Garcia Alix, 2006).

Partaidetza eta kulturen arteko elkarrizketa, giza eskubide unibertsalen inguruan garaturikoa, Laugarren Munduak lorturiko presentzia eta indarraren testigantza eskaintzen digu. Ekimen eremu honetan egindako lanaren bitartez indigenak gai dira kolonialismoaren uhin ezberdinak kendu diotena berreskuratzeko oinarri sendoak jartzeko. Honelakoen artean aipatu behar ditugu herri/nazio izaera, kultur/herri harrotasuna, autonomi ekonomiko, politiko, kultural eta erlijio osoan autonomia, lurralde eta ekosistemen gaineko kontrola, subiranotasuna, euren kultura euren etorkizuneko belaunaldiei pasatzeko gaitasuna

Deskribatu dugun errealitate berri honek aukera franko eta erronka ugari planteatzen dizkio bai Laugarren Munduko kide eta bai ikertzaileei zein giza eskubideez arduratzen diren guztiei. Kapitulu honetan giza eskubideen aldeko egindakoak eta erronka zein nazioarteko legearen ikuspegitik sortzen diren oztopoak aztertu nahi ditugu.

1. GIZA ESKUBIDEAK ETA HERRI INDIGENAK: IKUSPEGI HISTORIKO LABUR BAT

Hasiera hasieratik herri indigenak eta giza eskubideak estuki lotuta aurkitzen ditugu historian eta giza eskubideei buruzko bibliografian. 1492an Europarrak Ameriketako kostaldeetara heldu ziren momentutik konkistak sorturiko gehiegikeriek idazle eta pentsalari europarren kezka piztu zuten²⁹⁷. Ondoko mendeetan gutxi batzuk izan ziren herri indigenen

²⁹⁶ Herri indigenek lortu egin dute NBEko sistemaren erakunde hauek programa bereziak eta mota ezberdinetako ekintzak martxan jartzea herri indigenek planteatzen dituzten arazoei hobetu erantzun ahal izateko. Asmo hauek zertan diren jabetzeko bide A/54/487/Add.1 eta A/54/487.

²⁹⁷ Hauexei mugak jartzeko eta konkistari loturiko bortxa krudela ezabatzeko ahaleginak egin ziren. Herri indigenen gizatasunaren alde zein izaera honi zegozkion eskubideen alde atera ziren pentsalarien artean aipamen berezia merezi dute De las Casas, nazioarteko harremanen alorrean bereziki maitaturiko Francisco de Vitoria ala Hugo Groetius (Berraondo, 1999). Idazle hauek sutsu aritu ziren herri indigenen gizatasuna eta euren lurraldeen gaineko eskubideak defendatzen, hauek zalantzan jartzen ziren garai latz eta gogorretan. Euren ahaleginak herri indigenen eskubideen onarpen mugatu bat ekarri zuen, nazioarteko Zuzenbidean "Lege Naturala" bezala ezagutzen dena (Keal, 2003).

eskubideak defendatuko zituztenak eta euren sona eta eragina ez zen, inolaz ere, aurrekoen parera heldu.

XIX. eta XX. mendeko lehenengo erdian Errepublika berrien Estatu interesa nagusi izanik, nazioarteko legedia kolonizazioa defenditzeko eta zilegia egiteko bitartekoa bihurtu zen. Zuzenbide positiboaren garaian (Del Arenal, 2002) aurreko babesak desagertu egin ziren (William 1990; Morris 1992a; Wilmer 1993; Clavero 1994; Anaya 1996). Zapalkuntza, konkista eta kolonizazioa helburu zuen egitura honetan, indigenak domestikatuak eta desjabetuak izan ondoren, nazioarteko zuzenbidearen bazterretara botatzen zituzten, herri eskubiderik gabeko “basatiak” kontsideratu zituztelarik (Tilley, 2002).

I Munduko Gerraren ostean sortu zen Nazioen Ligak gutxiengo nazionalak Europan babesteko mekanismoak ezarri zituen. *Covenant of the League of Nations* delakoaren 22 artikulua argi utzi zuen kolonietan bizi ziren populazio indigenen ongizatea herri zibilizatuaren betebeharra zela “*a sacred trust of civilisation*” zela. Beraz Estatu kolonialei emandako “jagoletza”. Horretarako ezarri egin zen urtero gai honi buruz txosten bidaltzeko beharra. Hala ere, ez zen kontsideratu Estatuetan bizi ziren indigenak honelakoaren onuradunak zirenik. Giro honetan, 1923an Irokesek eta Maoriek euren itunak baliarazteko egindako ahalegin paradipomatikoak porrot egin zuten, bosgarren kapituluan deskribatu dugun bezalaxe.

Hala ere, Ligarekin lotuta zegoen Nazioarteko Lan Erakundeak (NLE) indigenak langileak kontsideratuz, pairatzen zituzten esklabutza antzeko egoerak salatu eta edozein langileari zegozkion eskubideak aitortu egin zizkien. Honek indigenen aldeko gutxieneko lege markoaren hasiera-puntua markatzen du (Rodríguez-Piñero, 2005). Honelako tresna juridikoen existentziak indigenei babesa eskaini eta eman zien pairatzen ari ziren egoera tamalgarriari aurre egiteko gutxieneko babesa. Herri indigenak bezala ez bazen ere, langile ororen egoera hobetzeko onarturiko nazioarteko legediak euren alde jokatu zuen, eta gizabanako orori dagokion babesa eman (Rodríguez-Piñero 2005).

1.1 GIZA ESKUBIDEAK ETA NAZIOARTEKO ORDEN BERRIA

Nazioarteko Zuzenbidean emandako benetako iraultza 1948an Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onartu zenean gertatu zen (Del Arenal, 2002). Aldarrikapen honek, mundu mailakoa izanik, historikoki herri indigenei inposaturiko europarren nagusitasuna zein honi loturiko inperialismo kulturala salatu eta kolokan jarri zituen (Minde, 1995). Gainera, aldarrikapenak²⁹⁸ nazioarteko legediaren nagusitasuna ezarri zuen printzipio bezala eta posiblea egin Estatuaren erabateko nagusitasuna mugatuko duen nazioarteko fiskalizazio sistema. Guzti

²⁹⁸ Aldarrikapenak aldeko onak baditu ere herri indigenen ikuspegitik muga sendoak ere erakusten ditu. Batetik, gizabanakoa zentroan jarri talde eskubideak errez onartzen ez dituen ikuspegia ezartzen duelako eta mundu ikuskera eta balore europarrak gehien bat islatzen dituelako, beste kulturen tradizioari atek itxiz.

honek hasieratik indigenen artean interesa erakarri eta itzaropena piztu zuen (Wilmer, 1993). Gainera, nazioarteko zuzenbide berri honek parada eskaintzen zien “*multilateral dependence*” (Manuel, 1974) antzeko egoera errekuperatzeko.

Ordutik hona amaitu egin da Estatuaren erabateko egoera hegemonikoa²⁹⁹. Hala ere, hasiera batean, gizabanakori aitortzen zitzaizkion babesak eta eskubideak gutxiengo eta herri indigenei luzatzeko egindako ahaleginek ez zuten arrakasta handirik izan, Guda Hotzaren testuinguruan. Aldarrikapenaren urte berean 1948an NBEan herri indigenen egoera aztertzeko Bolibiako gobernuak bultzaturiko proposamen bat atzera bota zuten. Hau ez da arraroa nazioarteko testuingurua ez baitzen indigenentzako lagungarria. 1948an Europa eta Latin Amerikako Estatu askok ez zuten onartzen euren mugen barruan indigenak zeudenik (Eide, 2006) eta NBEren Kartak bere 73 eta 76 artikuluetan indigenekiko Estatuaren “jagole” papera defendatzen zuen (Bodley, 1982), lehen aipaturiko 22 artikulua bidetik. Hau horrela ikusi daiteke Rodríguez Piñerok (2005) deskribatzen duen pasarte batean: hau NLEren 1946ko kolonietan bizi ziren populazio indigenen egoera aztertzen ari zelarik, Ameriketako indigenek antzekoa behar zutela proposatu zenean, Mexikoko enpresa gizonen ordezkariak, Illanes Ramos Jna, kontra agertu zen zera esanez:

...a fundamental distinction between “their” African indigenous populations and “ours” American indigenous populations. The former had a problem of “citizenship”, of “self-determination”; the latter, a problem of social retardation. This is why the standards being drafted for colonial people were not applicable in the Americas. Indian “backwardness” was just a matter of “nutrition”, the “use of alcohol”, “the problem of clothing”, “diseases”, and first and foremost, a “problem of education” (Ibid:2)

Hala ere, 1949an ECOSOC-ek bere 238 (IX) ebazpenean eta 275 (III) Gutxiengoen Babespenerako eta Bazterkeriaren Prebentziorako Azpibatzaordeari luzaturiko gonbitean herri indigenen egoera aztertzeko deliberoa hartu zen (MacKay, 1999). Bi txosten aurkeztu ziren delibero honi jarraituz. Honetaz gain, NBEren sistemaren esklabuzari buruz ari ziren hainbat txostenetan herri indigenek bizi zituzten baldintza penagarriari egin zitzaizkien erreferentzia³⁰⁰. Errealitate latz honen aurrean NLEk 1950ko hamarkadan txosten bereziak egin eta lehenengo herri indigenen aldeko konbenioa³⁰¹ onartu zuen 1957an. Itun honek bizi zuten egoera larria kontuan harturik indigenei babes franko eskaini zien. Hala ere, nazioarteko erkidegoan eta euren

²⁹⁹ Giza Eskubideen Aldarrikapena sinatu duten Estatuak helburuak lortzeko euren borondatea agertu dute eta honek ez du, inolaz ere, suposatzen legedia berehala aplikatuko denik eta Estatuak horren bermatzaile bihurtzen direnik. Giza eskubideen aplikazioa eza adierazteko baldintza egokiak ez daudela edo lege zein mekanismo instituzionaletan dauden akatsak aipatzen dira. Hau dela eta NBEak bitarteko ezberdinak (batzorde bereziak, txostenak, aholkuak etab) jarri zituen indarrean partaide ziren Estatuaren giza eskubideekiko errespetua ikustatzeko (Stavenhagen, 1999:80).

³⁰⁰ Herri indigenei egindako erreferentziak esklabuzari, derrigorrezko lana eta menekotasuna eta antzekoekin lotuta agertuko dira. 1926an Nazioen Ligak onarturiko esklabuzaren aurkako Konbentzioak ez zuten horrelakorik aurreikusten. Esklabuzaren Aurkako Batzorde Bereziak 50ko hamarkadan egindako hainbat txostenetan herri indigenen kasuak agertu ziren, bizi zuten egoerari buruz kezka sortuz.

³⁰¹ Konbenioen garrantzi handia du onartu ondoren derrigorrez aplikatzeko mandatu dagoelako. Ez da beste tresna juridikoen kasuan legez, aplikazioa borondatezko konpromiso moralala dela ezer baino gehiago. Gainera konbenio hau euren eskubideak defendatzeko munduko herri indigena guztientzat lanerako tresna bihurtu zen pairatzen dituzten egoera latzei aurre egiteko gutxiengo bitarteko eskainiz. Hitzarmen honetan herri indigenen garapen kulturala, ekonomikoa eta soziala sustatzeko gonbitea luzatzen da. Gainera, integrazioa bultzatzeko indarraren erabilera debekatuko da (2. art. 4. par.). Ohiko legea kontuan hartzeko beharra aipatu (art. 7), eta ohiko kultura, usadioak eta erlijioa kontuan hartzea eskatuko da (4. art.).

erakundeetan nagusi ziren Estatuaren iritzia islatuz Nazioarteko Lan Erakundeak ere asimilazioa³⁰² garapen helburua zela zioen ikuspegia onartu egin zuen 107 Konbenioan³⁰³. Itun honek indigenak kolonia aurreko kulturekin lotzen ditu, eta ukatu egiten du inolako eboluzio edota kanpotarren kulturetatik maileguak egon direnik (Sobero Martínez, 2003). Gainera, 107 itunak “sasi tribala” deituriko kategoria onartzen du. Hemen ez kultura indigenean ezta Estatuaren ere integraturik ez dauden gizabanako zein taldeak aurkituko genituzke (Gomez, 2006) Hauek akulturazio prozesu baten biktima dira eta mundu bien arbuioa eta bazterketa pairatzen dute. Arazo larri hauek konpontzeko asmoz eta “atzerapen indigenari” behin betiko konpontzeko asimilazioa defendatuko da.

Gauzak horrela 1940 eta 1960 bitartean “hiritartasun unibertsala” printzipioari loturiko politikak jarri ziren martxan. Hauek ez zuten onartzen Estatu eta gizabanakoaren artean tartekorik zegoenik. Are gehiago, Estatu indartsuak erdiesteko asmoz, integrakuntza eta kultur homegeneizazioa defendatu ziren. Errepublikak berriek indartsu ekin zioten politika asimilazionista gogorrek bultzatzeari. Nazioarteko garapen politikek eta giza eskubideen aldeko politikek aurrera egin zuten neurrian, “herri indigenak” kategoria teknikoak bihurtu zen garapen politiken onuradunak identifikatzeko. Guzti hau herri indigenen existentzia kolonia garaitik etorritako problematzat zuen marko kontzeptual eta normatibo baten barruan garatu zelarik (Stavenhagen, 1990).

2. 1960-1990. ALDEKO MARKO BATEN ERAIKUNTZA

Indigenak modu zabal batean eta ororentzat euren eskubideak babesten dituzten giza eskubide mailan garrantzitsuak diren hitzarmenak erabili egin dituzte euren presentzia eta lana sendotzeko. Ondoan aipatuko ditugun hitzarmenek ez dute berezko aipamenik ezta eskubide berezirik aipatu ere, baina indigenak euren mesederako erabili eta euren inguruan mugitu izan dira.

1960ko NBEren Batzar Nagusiaren 1514 ebazpenak zabaldu egin zuen bidea ondokoa esan zuenean: “herri guztiek dute autodeterminaziorako eskubidea” bere 1. artikulua: Honek lehen aldiz Europako Estatu sistematik at zeuden herriak ere hartzen zituen bere baitan, eta argi utzi zuen eurak euren garapen soziala eta kulturalaren nondik-norakoak askatasunean erabakitzeke libre zirela. Hala ere, 1960 eta 1970 autodeterminazio eskubidearen aplikazio

³⁰² Literaturan eta NBEak ateratako arrazakeriaren aurkako txosten ofizialean anitzak dira eskaintako adibideak eta asimilazioaren helburua Estatu barruan nahiz nazioarteko erkidegoaren mailan ikuspegi eta helburu onartu bat izan da orain gutxi arte. Gogoratu beharra dago Nazio Artoko Lan Erakundeak bultzaturiko 107. Konbenioak asimilazioa zuela helburua eta 1989an 169 Konbenioa indarrean sartu arte hau zela ikuspegi nagusia. Are gehiago, 169 Konbenioa sinatu ez duten herrietako asimilazio helburua izaten darrak.

³⁰³ Erakundearen partaide ziren 27 Estatuak sinatu zuten, horietatik 14 amerikarrak izanik: Argentina, Bolivia, Brasil, Kolonbia, Costa Rica, Kuba, República Dominicana, El Salvador, Perú, Ekuador, Haiti, Mexiko, Paraguay, Panamá. 1996an 169 Konbenioa sinatu ez duten herrietan indarrean darrak. Hauen artean Argentina, Brasil, Kuba, Dominica Republicana, El Salvador, Ecuador, Panamá eta Perú aurkitu ditzakegu.

errealak ez zituen indigenak ukitu. Hau horrela izan zen deskolonizazioa Estatu kolonialek ondo kudeaturiko prozesua izan zelako. Eta muga kolonialen barruan eraiki zirelako Estatu berriak. Hori bai gobernu kolonialen, arrazismo eta apartheid delakoaren kondena indigenen mesederako gertatu zen. Afrikako herrien independentzia eta Gizarte Eskubideen aldeko borroka USAn eta Europan inspirazioa izan ziren herri indigenentzat (Sanders, 1981).

Gainera urte hauetan berdintasuna guztion artean sustatzea zen kezka nagusia, eta Estatuak bermatu behar zuten hau. Estatu barruan integrazioa berdintasunean zen lelo nagusia eta horretarako bereizkeria prebenitzeko ahalegin handiak egin ziren. Testuinguru honetan Arrazakeria eta Bereizkeria prebenitzeko marko juridikoan hasiko dira herri indigenen aldeko lehen urratsak ematen.

1965ean onarturiko Arrazakeria Ezabatze Konbentzioan herri indigenen egoerari aipamen txiki bat egin zitzaion (Minde, 1995). Giza Eskubideen Idazkaritza-Human Rights Secretariat (hemendik aurrera Secretariat) gutxiengoan egoeraz kezkatzen hasi zen. NBERen mailan Giza Eskubideei buruzko azpikomisia (hemendik aurrera azpikomisia) izan zen gutxiengoan egoeraz kezkatzen hasi zena. Gai hauek aztertzeke errelatoreak bidali egin ziren eta posiblea izan zen Estatuak kritikatzeko giza eskubideak bortxatzen zirenean. Azpikomisia Estatuak izendaturiko adituez osoturik zegoen. Nahiz eta diplomatikoak ez izan Estatuak kritikatzeko ahalegin gutxi egin ziren. Praktikan Secretariat eta Errelatoreak egindako lanek atea zabaldu zuten gutxiengoan arazoak aztertzeke.

Indigenen egoera aztertu zeneko lehenengo kasua 1966-70ra Hernan Santa Cruz diplomatikoak egindako txostenean gertatu zen. Diplomatiko txiletar honek minorien bereizkeria ekonomiko, sozial eta kulturalari buruz idatzi zuen indigenak aipatuz. Allenderen gobernuak indigenek egindako lurraldearen gaineko eskaera batzuk bultzatu zituen (Minde, 2007) eta Santa Cruz onartu egin zituen aipamen batzuk egitea (Santa Cruz, 1966)³⁰⁴. Baina txiletarrak ez zituen gutxiengoengandik bereiztu eta asimilazioa defendatu zuen euren “atzerapena eta miseria” konpontzeko bidea bezala. Dena dela txiletarrak zabaldu egin zion bidea gutxiengoan txostenetik independentea izango zen herri indigenei buruzko txosten propio bati, (Minde, 2008).

Aldi berean, deskolonizazioaren seme ziren Estatu berrien artean gutxiengoek ez zutela babes berezirik merezi defendatzeari eta euren mugen barnean horrelakoak zeudenik ukatzeari ekin zioten Estatu independente bihurturiko kide berri askok.

1966an Eskubide Politiko eta Zibilak zein Eskubide Ekonomikoak, Sozialak eta

304 Bide chapter IX: “Measures taken in connexion with the protection of indigenous peoples” eta XIV, chapter XII, para1094-1102, “Problems of indigenous populations.”

VI. KAPITULUA:
HERRI INDIGENAK GIZA ESKUBIDE UNIBERTSALEN BIDETIK

Kulturalak onartzen zituzten konbentzioak onetsi ziren³⁰⁵ (hemendik aurrera EPZESK/ICCPR). Herri indigenen kasuan Konbentzioaren 27. artikulua izan da ekimen gehien ahalbidetu duena. Artikulu honek gutxiengo etnikoek euren nortasuna babesteko eta mantentzeko eskubidea dutela dio eta bidea zabaltzeko eskubide kulturalen aitortpenerako³⁰⁶ eta indigena kasko erabili dute artikulu hau euren eskubideak baliarazteko.

In those States in which ethnic, religious or linguistic minorities exists, persons belonging to such minorities shall not be denied the right, in community with the other members of their group, to enjoy their own culture, to profess and practice their own religion, or to use their own language .

Garai honetan indigenek “gutxiengoei”³⁰⁷ aitortzen zaizkien eskubideei helduko dizkiote³⁰⁸ nagusia ziren asimilazio politikei aurre egin asmoz. Hauek baitziren sistemak zabalik uzten zizkien zirrikitu bakarrak³⁰⁹. 27. artikulua zabaltzeko egin zituen luzaroan indigenentzat itxita egon diren arlo politikoak eta kulturalak. Bide batez, herri indigenen eskubideak banaka zein taldeka defenditzeko³¹⁰ parada eskaini zien. Errealitate honek sortu zuen talde eta banakoaren arteko elkarrengaitzatzea bat, herri indigenen kasuan ekintza politikoa eta nortasuna baldintzatuko duena. Etnikotasuna eta giza eskubideak³¹¹ estuki lotuta agertuko dira euren nortasunean, diskurtsoan eta praktika politikoan. Indigena kolonizazioak sorturiko markoaren eta mekanismoen biktima eta giza eskubideen bortxaketa pairatuko duen baztertua izango da. Era honetan nortasun indigena, oro har, eta Laugarren Munduaren definizioa giza eskubideen bortxarekin eta berari kontra egiteko erresistentziari lotuta aurkituko dugu (Daes, 1996).

Hemendik aurrera, indigenek HIKE gauzatzekoan giza eskubideen hizkuntza erabili egingo dute euren diskurtsoa egiteko. Gehiago esateko, nazioarteko legediari egindako

³⁰⁵ Urteetan pentsamendu nagusia izan den iritziaz jarraituz gizabanakoaren eskubideak onartzea nahikoa zela guztien eskubideak defendatzeko eta, beraz, ez zela behar talde bakoitzari zezenduriko eskubide sorta berezia sortu behar uste baitzuten Estatu, erakunde eta aditu gehienek. Ikuspegi hau 80ko eta Haurren Eskubideen Konbentzioaren onarpenarekin kolonka jarri zen.

³⁰⁶ Are gehiago, askok ez zegoela giza eskubideei buruz hitz egiterik ez bada herri indigenen egoera hobetzen defendatu zuten, bereziki Ameriketako kontinentean. Zaila da giza eskubideen errespetuaz hitz egitea herri indigenek Ipar Ameriketara zein Hegoaldean Estatu zein interes pribatuaren eskutik jasaten dituzten gehiegikeriei erreparatu gabe (Stavenhagen, 1990; Amnesty International 1992; Churchill, 1992 & 1993).

³⁰⁷ 27. artikuluan esandakoa banakoei dagokien eskubidea da eta inolaz ez herri/talde eskubide bat. 1984ko Lubicon Lake Band decision delakoak argi utzi zuen hau. 1984an Lubicon Lake Bandeko chief B. Ominayak salaketa egin zuen Kanadak multinazionalen euren lurretan petrolio eta gasa esplotatzeko baimena eman zienean bere autodeterminazio eskubidea bortxatu egin zuela aldarrikatuz. Horretarako EPZESK/ICCPR konbentzioei heldu zien. Giza Eskubideen Batzordeak 1990an erabaki egin zuen berari zegokiona eta Konbentzioek babesten zutena banakoaren eskubideen bortxaketa zela eta ezin zutela onartu autodeterminazioaren bortxaketari lotzen zitzaion salaketa bat. Hala ere 27. artikuluari helduz bai onartu egin zuela kasu honetan horrelako erabakiek ondorioak dituztela eta bortxatu egiten duela 27. artikuluekin loturiko kultura mantentzeko eskubidea. Honek argi erakutsi zuen EPZESK/ICCPR ez zela bide egokia talde eskubideak balioarazteko eta bai aldez gizabanakoei kulturarekin lotuta zegozkion eskubideak balieztatzeko. Antzekoa ikusten da Sandra Lovelace v. Canadaren kasuan non emakume indigena batek borrokatu eta lortu egin zuen bere tribu nortasuna mantentzea ez indigena batekin ezkondu ondoren.

³⁰⁸ 90an berezko tokia lortu duten herri askok 60an “gutxiengo” bezala definitzen zituzten euren buruak beste aukerarik ez zegoelako.

³⁰⁹ Nazioarteko Zuzenbideak izan duen jarrera ondo deskribatzen du Anaya: “International practice has tended to treat indigenous peoples and minorities as comprising distinct but overlapping categories subject to common normative considerations (Anaya, 1996:100).

³¹⁰ Giza eskubideen defentsarako erakundeen inguruan hitzaldi, konferentzi eta giza eskubideen sustapenerako lantaldeak zein kurtsuak eta antzekoak antolatzea ahalbidetzen du. Ekintza guzi hauek, askotan kanpotarren laguntza eta presentziarekin burutzen direnak parada eskaintzen diete herri indigenei espazio publikoa irabazteko, euren borroka zuzenean erakusteko, kanpoan honek erakartzen duen aldeko jarrera eta interesa plazaratzeko, esperientziak elkartrukatzeko, beharrezkoa denean nazioarteko erakundeen laguntza eta babesa eskatzeko eta euren borroka zuzenean eskaeran globala den kausa eta prozesu batekin lotzeko.

³¹¹ Hasierako hiru kapituluetan erakutsi dugun bezala, historikoki garapena, giza eskubideak eta ekologiak estu estuki lotuta aurkitzen ditugu. Lurralde eta bertako ekosistema bat garapen beharria bihurtzen denean, konkista eta okupazioa jartzen dira martxan. Prozesu honek bertan bizi diren herri indigenen eskubideen bortxaketa eragiten du. Honek ondorioz, sorturiko gatazka ustiaketa sisteman eta ingurugiroan ondorio ezkor larriak sortzen ditu. Guzti hau esperientzi eta nortasun indigenaren marka bihurtu da jada.

erreferentziak eta berau mantentzeko konpromisoa diskurtso indigenaren ezaugarri garaikide eta berria bihurtuko da. Hori bai, mendebaldeko tradizioari jarraituz garatu den nazioarteko zuzenbidearen hainbat kontzeptu hartu eta esanahia aldatu egin zaie ikuspegi eta eskaera indigenei nazioarteko giza eskubideen diskurtsoan tokia egiteko. Jabetze honen adibide ditugu autodeterminazio, nazio, lurralde, garapen, genozidio, arraza bereizkeriaren eta jabego antzeko kontzeptuak. Indigenek honen definizioa zabaldu egingo dute euren eskaera eta honi dagokion nazioarteko aitortzen eta bermea posiblea egin dadin. Hori bai euren eskubideen defentsa egiterakoan eskaera “herri” eta ez “banako indigena” bezala egingo da.

2.1 1970ko hamarkada: herri indigenak indarra hartzen

Hamarkada honetan erakundearen barnetik zein kanpotik, herri indigenek eta GKEek312, egindako lanari esker, Nazio Batuen Erakundea zuzenki eta espresuki herri indigenen arazoez arduratzen hasi ziren. Prozesu honetan inportanteak izan ziren aditu ez indigena batzuek egindakoak. Ateak zabaldu zituztenen artean aipamen merezia egin behar Secretariat delakoan lan egiten zuen Augusto Willemsen Díaz, guatemaldarrak. Honek Samiekin harremana hasi zuen eta 1971an Giza Eskubideen Batzordearen bilera batean Carlos Garcia Bauer-ekin kontaktatu zuen. Bauer Giza Eskubideen Aldarrikapenaren aita horietariko bat zen, oso errespetatua beraz. Honek lortu egin zuen herri indigenei buruzko txosten berrian indigenak gutxiengoaren saku berean sarturik ez egotea. Are gehiago lortu egin zuen herri indigenek pairatzen zuten diskriminazioari buruzko txosten bat sustatzea. Bere aburuz, Azpikomisioko adituek eta ez Batzordeko diplomatikoez burutu behar zuten lan hau.

27. artikuluari jarraituz Azpibatzaordeak gutxiengoaren eskubideei buruzko ikerketa agindu zion Caportorti-ri, berak 1977an amaituriko txostenean indigenen kasua aztertzeke beste ikerketa bat behar zela idatzi zuen. Txostena beraz diskriminazioari buruz eta herri indigenei buruz zen, ez

312 Herri indigenen kulturak asimilatzeke iritzia handia bazen ere munduko Estatu guzietan 60ko hamarkadan asko izan ziren herri indigenek egindako ahaleginak eta borrokak honi aurre egiteko. Borroka bide honek bere fruituak eman zituen 70ko hamarkadan. Herri, bailara, herrialde, Estatu, erregio nahiz nazioarteko mailan talde erlijioso, ekologista eta giza eskubideen defendatzaileekin egindako kontaktuak indigenen jarrera, diskurtso eta mugimendua sendotu egingo dute. Gainera herri indigenak gai izango dira elkarri laguntzeko, koordinaturiko ekintzak martxan jartzeko eta guzti hau nazioarteko komunikabideen bidez nazioarteko nahiz tokian tokiko iritzi publikoari helarazteko. Helburu hauek lortzeko nazioarteko erakunde Pan-indigenak sortu ziren eta hauen bidez nazioarteko sareak sortu, informazioa elkartrukatu, ekimen bateratuak prEstatu eta eskaerak zein hauek bideratzeko agenda komun bat eratu zuten. Honi jarraituz gobernu zein nazioarteko lobbya eta presioa egingo dute. Gainera, honelako ekimenek AEBtan nahiz beste tokietan eskubide zibilen alde gertaturiko mugimendu eta sareen laguntza jaso zuten. Honek posiblea egingo zuen kontzientzi bateratu bat eta eremu berri sortzea ekimen politikoa eta giza eskubideen borroka aurrera eramateko.

Hau lortzeko laguntza handikoak nazioarteko GKE batzuk giza eskubideen alorrean, ekologian ala garapen kritikoan zein eliza eta ezkerreko mugimenduetan ari zirenak (komunitate epistemikoak); Auzi Indigenen Lan Taldea, Survival International, Indigenei Buruzko Ikerketen Zentroa, Mundu Dokumentazioaren (IGWIA) Laugarren Mundua Proiektua (Four World Project). Erakunde hauek paper aparta izan zuten informazioa pilatzeko, tratatzeko eta hedatzeko ahaleginetan, jendeari gertakizun eta auzi nagusiei buruzko informazioa eskaintzeko orduan, gobernuak eta nazioarteko erakundeak informatuz, komunikabideekin lan eginez herri indigenentzat garrantzi handiko ziren gaiak trata zituzten eta nazioartean nahiz nazioartean lobby egiteko orduan.

Ekologistak ere herri indigenen aldeko plataforma honen eskarri inportantea izan ziren. Aspalditik begirale lana burutu dute eta garapen izenean burutu izan diren hainbat proiektu zapaltzaileen salaketa egin egin dute ere. Urteetan zehar ekologistek ulertu eta garatu egin dute herri indigenekin aliantza bat. Ekologistek indigenak integratu egin dituzte zonaldeak eta natur baliabideak zaintzeko estrategietan.

Azkenik, hamarkada hauetan giza eskubideen defentsan berezituriko hainbat erakunde lotu egin zaizkio herri indigenen borrokari. Amnesty International eta beste batzuek salatu egin dute herri indigenek pairatzen duten bortxa, pobrezia, bazterketa, genozidioa (Guatemalaren kasuan batik bat) eta etnozidioaren aurka.

garai hartan politikoki oso konplexua zen “gutxiengoei” buruz (Minde, 2007). Horrela herri indigenei NBERen atak zabaldu egin zitzaizkien eta indigenak gutxiengoetatik bereiztea lortu zuen Willemsen Díaz-ek (Díaz Córdoba 2002).

Beraz, Arrazismo eta bereizkeriaren aurkako erakundeak izan ziren, giza eskubideez arduratzen direnen artean indigenen auziez estreinakoz arduratuko zirenak. Euretako erralatore batek bere txostenean erakutsitako kezka eta deskribaturiko egoerak ECOSOC-en interesa piztu zuen (Díaz Córdoba, 2002). Kezkari jarraituz Azpibatzordeak eta Batzordeak euren prozesuari hasi ECOSOC-ek hain famatua egin den Martínez-Cobos-en txostena egiteko agindua eman zuen. 1971ko maiatzaren 21ko 1389 (L) ebazpena onartuz313. Erabaki honen ondorioz, ECOSOC-ek herri indigenen giza eskubideen mailan Estudio del problema de la discriminación contra las poblaciones indígenas mugarría eta erreferentzia bihurtu den txostena agindu zion 1972an Gutxiengoen Babespenerako eta Bazterkeriaren Prebentziorako Azpibatzordeko Martínez-Cobos Jaunari. Cobos-ek hamahiru urte eman zituen txostena burutzeko, Willemsen Díaz-ek txosten honetan lan ikaragarria egin zuelarik (Minde, 2008). Txostenean herri indigenak munduko talde ahulenak izaten jarraitzen zutela baieztatu ondoren, herri indigenen definizio bat eskaini eta aztertu egin zuen nazioarteko erakunde eta GKEek indigenekin egindako lana arlo honetan. Ondorioen artean eskatu egiten da giza eskubideen eremuan aurkituriko bazterkeriaren ezabaketa, indigenak bermatzeko neurriak hartzea eta indigenei zuzenduriko berezko ekimen berezirako eremuak sortzea. Adituak aipaturiko interes handiko eremuen artean hondoko hauek izendatzen dira: osasuna, etxebizitza, hezkuntza, hizkuntza eta kultura, erakunde sozial kultural eta politikoak, luraren erabilera, lana, eskubide politikoak, eta eskubide eta usadio erlijiosoak nahiz justiziaren aurrean beharrezko berdintasuna bermatzeko alegia.

Hamabi ale dituen txosten potolo honek herri indigenek bizi duten egoera, bazterkeria, orduko egoera, igurikapenak eta giza eskubideen mailan NBEan egindakoak aztertu zituen. Cobos txostena ekimen indigenen ardatza eta inspirazioa bihurtu zen ondoko aditu eta aritu askorentzat.

1974an Esklabutzaren aurkako hitzaldi batean Willemsen Díaz herri indigenei buruzko lantalde baten behararen eta sorreraren proposamena egin zuen (Minde, 2008).

Aldi berean, Azpibatzordean 1974an sorturiko Esklabutzari buruzko Taldeak herri indigenen kasua izan zuen aztergai. Talde honek 1977tik 1980ra egindako saioretan indigena askok jasaten zituzten gehiegizko lan baldintzak aztertu zituen eta baieztatu egin zuen horrelako asko sarritan nozitzen zituztela. Mendebaldeko kontzientzia ikaratu egin zuen beste kasu bat

Txilen gertatu zen. Pinotxeten diktadurak maputxeak bereziki kolpatu zituen eta euren lurrak pribatizatu. Gertaturikoak kezka handia sortu zuen orduko nazioarteko erkidegoan. Gutxiengoen Babespenerako eta Bazterkeriaren Prebentziorako Azpibatzenordeak 1975an Txilen gertaturiko giza eskubideen bortxaketa aztertzeko “*ad hoc*” sorturiko taldeak Mapuchen kasua salatu zen. Honi jarraituz 1978an NBEko Batzar Orokorrak Mapuchen aldeko ebazpenak onartu zituen³¹⁴ eta indigena hauen aurkako gehiegikeriak salatu egin ziren.

Urte honetan bertan arrazismoa borrokatzeko egindako Mundu Konferentziak³¹⁵ ere herri indigenen egoerari heldu zion. Hain zuzen ere Minde-k (1997:21) hemen kokatzen du Laugarren Munduak hasitako instituzionalizazioaren hasiera. Konferentziak herri indigenak euren kultura, lurraldea eta ekonomia mantentzeko zuten eskubideak onartu zituen eta euren baliabideak ez zutela inork hartu behar aldarrikatu zuen bere 21. artikuluan (Gupta, 1999). Ekintza planak Estatuak hainbat arlotan indigenen eskubideak onartzea eskatzen zuen: hala nola, hizkuntza eta nortasun etnikoa erabiltzeko, euren erakundeak erabiltzeko etab. Beste puntu erabakigarria ondokoa da: Estatuak indigenak euren ahotsez hitz egiteko eta euren esperientziak elkartrukatzeko errepresentatiboa zen nazioarteko erakunde bat erraztu eta lagundu behar zutela. Ordutik hona herri indigenen eskubideak NBEren giza eskubideen gaineko lanerako ardura bihurtu ziren (Ibid:22). Aslak Nils Sara, Samia, Noruegako ordezkartzan egonik paper inportantea jokatu zuen afera hauek defendatzeko eta NBEren makinarian txertatzeko orduan. Konferentzia honetatik aurrera herri indigenak eta gutxiengoak bi kategoria ezberdinetan aztertu ziren. Arrazoi nagusia ondokoa izanik nazioarteko Zuzenbideak ondorio ezberdinak dituela herri indigenentzako eta gutxiengoentzako.

Erabaki hauek lagungarriak gertatu zaizkien arrazismoaren aurpegi berria salatzen zuelako eta herri indigenen eskaerak onartu egin zituelako bereziki lagungarria izan zen indigenentzat.

En las dos Conferencias Mundiales para Combatir el Racismo y la Discriminación Racial, convocadas por las Naciones Unidas en Ginebra en 1978 y 1983, se debatieron aspectos de la discriminación contra los pueblos indígenas y se incluyeron principios y medidas apropiados en las resoluciones y programas de acción. Algunos de estos principios se consignan en el proyecto de declaración universal sobre los derechos de los pueblos indígenas. En seminarios organizados en el marco de los Decenios de la Lucha contra el Racismo y la Discriminación Racial, en particular en Ginebra en 1979 y en Managua en 1981 se han tratado cuestiones de derechos humanos que afectan a los pueblos indígenas (ONU, 1998:18).

2.2 1980ko Hamarkada: Zabalduriko Bidea Sendotzen

Hamarkada honetan presentzia eta partaidetza indigena giza eskubideei buruzko

³¹⁴ Bide A/33/1 75: 4 parr. eta 1979ko abenduko 17ko A/34/1.

³¹⁵ Konferentzia honetan 125 Estatu bildu ziren. Konferentzia honek onarturiko 20 eta 21. paragrafoan aipamen zuzenak egiten zaizkio gutxiengo etniko eta herri indigenen kasuei. 27. Paragrafoak nazioarteko ekintza programa bat proposatzen du eta herri indigenei espresuki zuzenduta ez badago ere aplikagarria gertatu zen herri indigenentzako

debateetan sendotu egin zen, indigenei bereziki zuzenduriko foroak eta ekimenak biderkatzearekin batera. Presentzi hau Laugarren Munduaren ahotsa eraman zuten erakunde indigenez gain, ezin izango ondo ulertu berriz ere nazioarteko aditu ez indigenen eta aldeko gobernuen paperari³¹⁶ erreparatu gabe. Norwediako gobernuak aprobetxatu egin zuen 1981an Giza Eskubideei buruzko Dibisioak Lantalde bat sortzeko zuen asmoa. Noruegak Asborj Eide, aditua Azpibatzordearen kidea izateko. Eide ordezkari eta NGEkin batera Willemsen Diaz lagundu egin zuten Lantaldearen mandatua eta hau NBEren sistema barruan aurrera egiteko (Eide, 1987). Ahaleginak arrakasta izan zuen eta Laugarren Munduaren partaidetza zuzena NBE mailan 1982an finkatu egin zen Azpibatzordearen barruan Populazio Indigenen Lan Taldea³¹⁷ (Populazio Indigenen Lantaldea /Populazio Indigenen Lantaldea, hemendik aurrera Lantaldea) sortu zenean³¹⁸. Bere lehendabiziko presidentea Asborj Eide zelarik.

Aurreko kapituluan aipatu badugu ere gogoratu egin behar dugu 1977ko GKE ezberdinek antolaturiko NBE mailako konferentzian aipatu egin zela PIL sortzeko proposamena. Hau Draft Declaration of Principles for the Defense of the Indigenous Nations and Peoples of the Western Hemisphere delakoan aurkitu dezakegu (Garcia-Alix & Borrás, 2006).

Sortu zenetik hau izan da nazioarteko mugimendu pan-indigenaren gune nagusia izan da, bai partaidetza zein ekimenaren aldetik. Laugarren Munduak izan duen “think-tank” garrantzitsu hau indigenek eraikitako nazioarteko sarearen kokaleku nagusia izan da, mundu mailako sarea berorren inguruan garatu delarik. Baita ere, herri indigenek giza eskubideak sakontzeko egindako kontribuzioa hemen mamitu da neurri handi batean. Zalantzarik gabe, Lantaldearen sorrerak indigenak “gutxiengo” kategorian mantentzeko Estatu ahaleginaren porrota markatu zuen, indigenei dagokien toki propioaren eta bere berezitasunaren errekonozimendua suposatu zuelarik. Gutxiengoei zuzenduriko taldea eta Lantaldea azpibatzorde beraren bi adar izango dira, garapen paralelo baina berezituak izango dituztelarik.

Lantaldearen sorrerak kolonialismo harrapakaria eta herri indigenen arteko gatazka kudeatzeko eta birbideratzeko aukera suposatu zuen hasieratik. Kulturen arteko hizketaldiaren kokaleku nagusia bihurtu zen³¹⁹. Gobernuak lotsaraziz “shame politics” (Minde, 1995) edota

³¹⁶ Kontsultatu Minde (2002) eta (2008) Noruegako gobernuak bai Lantaldea zein 169 Ituna sustatzeko izan zuen paperaz jabetzeko.

³¹⁷ Guptak (1999) antzeman duen bezalaxe argi utzi behar da Lantalde honek ez dela “kexatarako epaitegi” bat beraz, ezin du Estatuaren aurkako salaketarik jaso, ikertu eta konponbiderik burutu. Bere eginbeharra herri indigenen egoerari buruzko informazio jasotzea eta zabaltzea da.

³¹⁸ Aurreko kapituluan Populazio Indigenen Lantaldea (PIL) izendatu izan dugu herri indigenen ikuspegia deskribatzen ari ginelako. Hala ere, orain NBEren moduekin ari garenez izen ofiziala erabiliko dugu eta Populazio Indigenen Lantaldea (Lantaldea) izena erabiliko dugu. NBEren eta lantaldearen partaide diren Estatu batzuk beldur ziren herri hitza nazioarteko testuinguruan erabiltzeaz. Horren ordez neutroagoa omen den Populazioak aukeratu zen izen ofiziala bezala. Lan Taldea bost aditu independenteek osotzen dute, munduko erregio geopolitiko bakoitzetik etorritakoa dira eta Azpibatzordearen partaide direnen artean aukeratu dira. PIL biltzen da urtero eta mundu osoko ordezkariak indigenak bertara jotzen dute honetan partehartzeko eta ikustatzeko euren arazoarekin loturiko negoziaketak. Gainera, herri indigenek taldeka zein banaka aukera dute euren arazo eta ikuspuntuak Lan Taldeari jakinarazteko bost minutuko hitzaldi batean. PILek horrelakoak kontuan hartu ditzake herri indigenen eskubideak hobeto bermatu dituen legedia sortzeko orduan.

³¹⁹ In the clash of interest and cultures that arises from the new colonialism, the United Nations emerges as a key player. In 1982, the United Nations created the Working Group on Indigenous Populations. This body is the only place in which the United States grants indigenous peoples an established right to speak as indigenous peoples,

Lantaldearekin lan eginez, herri indigenek euren eskubideak defendatzeko negoziazio eta nazioarteko lege bidea hautatu egingo dute, NBERi bitarteko eta babesle Estatusa emanaz³²⁰.

Gogoratu egin behar dugu Lantaldearen helburuak ondokoak direla³²¹

- Herri indigenen giza eskubide eta oinarriko askatasunei babespena eta sustapenari dagozkion Estatu mailako gertaerak ikustatzea.

- Herri indigenen giza eskubideei dagozkion nazioarteko arauak egitea, kontuan hartuz munduko herri indigenek egoera eta igurikapenei dagokionean dituzten antzekotasun nahiz ezberdintasunak.

Autodeterminazioa eta baliabideen gaineko kontrola afera nagusiak izanik Laugarren Munduaren agendan eta Lantaldeak zuen legegile izate honek hainbat Estaturen ardura eta kezka piztu zuen. Horrexegatik, indigena kategoria honen onuradunak zeintzuk ziren mugatzeko (Sanders, 1991) oldartzea hasi eta hortxe hasi zen “peoples” eta “people” arteko eztabaida antzu bezain gordin hura.

1983an Batzar Orokorrak Nazio Batuen Erakundearen Herri Indigenentzat Borondatezko Kontribuzioen Fondoa onartu zuen. Honen betebeharra erakunde eta ordezkari indigenei laguntza ematea Lantaldearen saioetara joan ahal izateko. Era honetan erakunde indigena zein herri ordezkari partaidetza posiblea egin zen eta parekorik ez duen prozesua bizkortu egin zen.

Lantaldearen eta Fondoaren existentziak ahalbidetu egin du herri indigenen partaidetzaz zabalera eta orain gutxi arte ezaguna izan dena NBERen mailan. Azpibartzordeko aditu eta partaideek arauak moldatu egin zituzten herri indigenen partaidetza ahalik eta zabalena posiblea egiteko. Beste batzordetan aholkulari Estatusa duten erakundeak bakarrik egon daitezke. Kasu honetan partaidetza zabalari ateak zabalduz erakunde indigenak, banako indigenak, akademikoak eta abar parte hartu egin dute Lantaldearen batzarretan.

Lantaldearen lehenengo saioak aipaturiko garapenen jarraipen funtzioan zentratu ziren. Argitu beharra dugu Lantaldea ez zela salaketak burutzeko tokia eta ez zuela “gertutariako argitzeko” (*fact-finding*) inolako funtziorik. Hala ere, Lantaldea osotzen zuten adituek hasiera-hasieratik onartu egin zuten herri indigenen bizitzaren benetako esperientziak jasotzea hainbat kontzeptu argitzeko lagungarria izan zitekeela, baita ere arauk egiteko orduan. Hau dela eta, indigenen partaidetza funtsezko gertakizuna izan da Lantaldearen historian. Modu honetan lortu

nations, and organizations (Cultural Survival, 1993:4).

³²⁰ Eztabaida eta negoziazio saio guzietan herri indigenek partaidetza zabalera izan dute. Beraz, indigenek euren eskubideak babestu asmoz eta beren igurikapenak gorpuzteko nazioarteko lanabesaren sorkuntzan aktiboki parte hartu dute. Partaidetza hau bai lobby eginez eta onesten zena euren interesekin bat datorrela ziurtatzeko asmoarekin burutu da. Partaidetza aktibo eta propositibo honetan datza berrikuntza eta mugimendu pan-indigenak giza eskubideen alorrean egindako kontribuzioaren indarra

³²¹ Hauek hasierako hastapenak baziren ere, lantaldearen mandatuak handitu egin da eta ikerketa bereziak egiteko ahalmena jaso du: herri indigenen eta Estaturen artean sinaturiko itun, hitzarmen, eta antzekoen azterketa (1989), ondare kultural eta intelektualari dagokiona (1992) edota herri indigenek lurraldearekin duten harremana aztertzen duena (1997).

egin da herri indigenen esperientzia historikoaren eta gaur egungo egoeraren eta errebindikazioen ezagutza hobea izatea. Ulerpen honek Lantaldea herri indigenen eskubideen estandarra egiteko markoa izatea posible egin du. Gertaturiko gertakizun/garapenen jarraipena Lantaldearen funtsezko egiteko bat izaten jarraitzen du gaur arte.

1982tik 1994ra Lantaldearen egitekorik printzipalena HIGEAren zirriborroa bultzatu izan zen. 1985 Azpibatzordeak Batzar Orokorrak onartuko zuen HIGEA idaztea eskatu eta onartu zen Eide (2006). Hau lortu ondoren gai zehatzei planteatzeari eta aztertzeari heldu zion lantaldeak. Landuriko gaien artean ondoko hauek aipagarriak dira: osasuna eta herri indigenak, herri indigenak, ingurumena eta garapen jasangarria; hezkuntza eta hizkuntza; herri indigenak eta lurrikariko euren harremana; haur eta gazte indigenak; herri indigenak eta garapena izateko duten eskubidea. Azken urteetan jorraturiko gaien hauek izan dira herri indigenak eta globalizazioa, herri indigenak eta gatazka konponketa; herri indigenak eta euren jakinduriaren babes nazionala eta nazioartekoa, eta azkenik, helburu militarretarako indigenak ez diren autoritate, talde ala banakoek egindako herri indigenen lurraldeen okupazioari buruzkoa.

1989an ECOSOC-ek baimena eman zion Azpibatzordeari Miguel Alfonso Martínez errelatore berezia izendatzeko. Martínez-en betebeharra herri indigenek Estatuekin sinaturiko itunak, hitzarmen, eta bestelako akordioak aztertzea zen eta iradokitzea hauexek Estatuaren eta indigenen arteko gaur egungo harremana birbideratzeko zeukaten gaitasuna³²². Iniziatiba honek onartu egin zuen historikoki indigenentzat hain garrantzia izan den tratatuaren auzia. Baita ere, tratatuek gaur egun harremanak bideratzeko ala berriak eraikitzeke orduan duten potentziala.

1989an Haurren Eskubideen Konbentzioak gizabanakoa ez den talde baten eskubideen babespenerako espreski sorturiko hitzarmenak bere 30. artikuluan ume indigenek euren kultura mantentzeko duten eskubidea zuen bere baitan³²³. Tradizio etnozidari aurre egiteko bitartekoa jarri zen indigenen eskuetan eta bultzada eman zitzaion kultura propioa indartzeko eta suspertzeko ekimenei. Hezkuntza elebiduna eskatzen zuten mugimenduek nazioarteko legediaren bultzada izango dute eta honekin loturiko bitartekoak. UNICEF-ek 2003an Haur Indigenei Buruzko Eskubideei buruz antolatu zuen debate bat. Geroxeago, beste hitzarmen orokorrekin gertatu den bezala, Haurrei Eskubideei Buruzko Komiteak 2005an aurkezturiko txostenetatik bederatzitan egiten zaie erreferentzia indigenei.

³²² Eztabaida sutsuak sortu dituen txosten honen aurkezpena 1999an gertatu zen Ginebran. Txostenak hitzarmenak egin zituzten herri indigenen nazio izaera azpimarratzen du, eta sinaturiko hitzarmenen nazioarteko izaera defendatu. Hawairen kasua bereziki aipatu eta gaur egun arte hizpide bihurtu den Afrika eta Asiako herri indigenen ukazioa, definizio historiko-geografiko bat erabiliz, defendatu zituelako.

³²³ Eskubide hau oso inportantea da historikoki asimilazio politiken barruan hezkuntza erabiliz eta familiarik ala jatorrizko komunitatetik aldenduz umeak erabili direlako kultura indigenak errausteko ahaleginean. Askotan umeak hezitzeko ahaleginak jatorrizko kulturarenganako mesprezia eta lotsa sortzea zuelako helburu. Artikulu honek politika asimilazionista guzti kolonka jartzea eta kultur bakartasuna aldarrikatzen zen politiketan kultur aniztasunaren aldeko apustua egitea garrantzi handiko lorpena da. Gainera kontuan hartu behar dugu haurrak etorkizuna eta honekin loturiko biziraupena bermatzeko garrantzi handiko taldea direla eta eurek bereziki jasaten dituztela etnozidio eta giza eskubideen zein kultura indigenen gainean eragindako erasoak. Hau dela eta 2000. urteko PILEko saioak Hitzarmenari eta Haurren zein gazteen gaia izan zuten aztergai nagusia.

Giza eskubideei loturiko foro hauetan parte hartuz lobia egiteko aukerak biderkatu egiten dira eta GKEen ala aditu akademikoen interesa erakartzeko nahiz mundu mailako komunikabideei gertatutakoa jakinarazteko parada ematen die. Gainera 1235 prozeduraren bitartez aurkezturiko salaketa eta txostenen inguruko informazioa publikoa izanik, komunikabideengana heltzeko eta hedatua izateko aukera asko ditu. Modu honetan nazioarteko iritzi publikoaren begi eta belarrietara heltzen delarik.

Batzorde hauetan antolaturiko ekintzetan partehartzeaz gain hamarkadan zehar Lantaldeak egindako txostenetan hartu dute parte³²⁴. Era honetan NBEari bere egitekoa hobeto egiten laguntzen dioten bitartean, herri indigenek pairatzen dituzten egoera larriak eta eurak konpontzeko egiten dituzten eskaerak, gomendioak eta proposamenak bertan daudela ziurtatu egingo dute adituen txostenek.

2.3 LNE 169 Hitzarmenaren Inguruko Hausnarketa Batzuk

1989an onaturiko garrantzi handiko hitzarmen honek herri indigenen eskubideen mailan erreferentziazko dokumentua dugu³²⁵. Zalantzarik gabe une honetan NBEren sistema maila altuena duen herri indigenen aldeko aldarrikapena da. Gainera, itunek duten indar eraginkorra duen (García-Romeu et alia, 1998:20) lanabes juridiko inportantea dugu.

107 hitzarmenak helburu zuen “asimilazioaren” arbuizatzea eta indigenek duten euren burua auto definitzeko eskubidearen onarpena dira, besteak beste, hitzarmen honek egindako ekarpen interesgarri eta aipatuena. 169 itunak Laugarren Munduak bultzaturiko kontzertua bere indarraren erakuslea da. Kontsensuz berri hau autonomia eta burujabetzaren aldeko errebindikazio indigenaren inguruan eraiki zelarik” (Gomez, 2006:135).

169 itunak 1980an gertaturiko iritzi eta pentsamoldeen iraulketa sakon bat erakusten du. Iraultza hau 90. hamarkadan gertaturiko aldaketen aitzindaria izango da bidea zabaldu zielako garapen paradigma alternatiboari. 1970an bizi zen desarrollismoari eta berari loturiko asimilazioari egindako kritika, askotan indigenek bultzaturikoa, posiblea egin zuen 169 itunaren bultzada. Beste arrazoien artean 107 itunak zuen kutsu asimilatzailea gainditzeko.

³²⁴ Hamarkada honetan egindako txostenak hauek liriteke “Informe del Seminario de las Naciones Unidas sobre los Efectos del Racismo y la Discriminación Racial en las Relaciones Sociales y Económicas entre Poblaciones Indígenas y Estados E/CN.4/Sub.2/1989/22; “Propiedad Intelectual de las Poblaciones Indígenas: Breve Informe del Secretario General” E/CN.4/Sub.2/1992/30, “Estudio sobre la Protección de la Propiedad Cultural e Intelectual de los Pueblos Indígenas” E/CN.4/Sub.2/1993/28; Inversiones y Operaciones Transnacionales en las Tierras de los Pueblos Indígenas. Informe del Centro de las Naciones Unidas sobre Corporaciones Transnacionales” E/CN.4/AC.2/1991/Misc.1, E/CN.4/Sub.2/1992/54, E/CN.4/Sub.2/1994/40; Informe de la Reunión de Expertos para Revisar la Experiencia de Países en la Operación de Esquemas de Autogobierno interno para Pueblos Indígenas” E/CN.4/1992/42/Add.1; “Informe de la Conferencia Técnica de las Naciones Unidas sobre la Experiencia Práctica en la Realización del Autodesarrollo Sostenible de los Pueblos Indígenas” E/CN.4/Sub.2/1992/31

³²⁵ 169. hitzarmena orain arte nazio gutxiak onartu badute ere erabili egiten da erreferentziazko dokumentu bezala herri indigenekin loturiko akordio berriak negoziatzeko orduan. Herri Indigenen Eskubideen Aldarrikapenaren kasuan ez bezala hitzarmenak sinatzen dutenei hitzarmenaren mamia indartzeko derrigortasuna ezartzen die. Inolaz ere, ezta Aldarrikapenaren kasuan bezalaxe (soft law) borondatezko eta luzeko helburuak erdiesteko konpromiso etiko bat agertzea soilik. Hala ere, ez du Munduko Merkataritza Erakundeak duen ahalmena betetzen ez denean zigorrak ezartzeko.

1982an Lantaldea sortu zenetik, 107326 itunari egindako kritikek kezka sortu zuten LNE mailan. Ondorioz 1985an ekin egin zion debatea eta berrikusketari, honen ekarpen nagusia 169 itun berria izan zelarik (Rodríguez-Piñero, 2005). 1986an, horretarako sortu zen aditu taldeak 107 birpentsatu egin behar zela ondorioztatu zuen “integrakuntza/asimilazioarako” joera “ezegokia” zelako (Sobero Martínez, 2003:18). Herri Indigenen Mundu Batzordeak eta Survival International estrainekoz hartu zuten parte aditu bezala horrelako nazioarteko foru batean (Khosravi 2006). Hauekin batera ikusle bezala, langileen ordezkariak lagunduta, beste indigena batzuk egon ziren. (Tomei, 1997). Adituok indigenen igurikapenak integratzea eta Estatu kopururik ahalik eta altuena onartu behar zuela itun berria ondorioztatu zuten. Horrela bakarrik onera egin baitezake Laugarren Munduaren egoerak (Khosravi 2006). Gainera, adituok asimilazioaren bazterketa, kulturen arteko errespetu eta elkarbizitzaren alde egin zuten, eta lurren gaineko eskubideak zein populazioen tokialdatzeak ikertzearen alde agertu ziren. Ordezkari indigenek bere aldetik defendatu egin zuten herriak zirela eta horrela izan behar zutela onartuak eta ukatu egin zuten populazioa berei deitzea (Niezen, 2003). Hemen hasiko da hortik aurrera indigena eta ez indigenen artean edozein eztabaida baldintzatu duen gaia.

1988an LNEk 107 ituna berrikusteko konferentzia bat konbokatu zuen. Aurretik kide diren Estatu guztiei galdeketa bat bidali zitzairen, proposatzen ziren gaien aurrean zuten jarrera alde aurretik ikusteko. Hasieratik herri vs populazioen arteko gaia gatazka pizten duen horietakoa zela agertu zen. Estatuaren aldetik argi gelditu zen Laugarren Munduaren autodeterminazioa aurreratuko zuen edozein testu. Jarrera honen lekuko dugu Suediarena. Estatu honek proposatu egin zuen formula bat, zera esanez: “herri” izena erabiltzeak ez zuela suposatzen herri indigenei autodeterminazio indarrean jartzeko eskubidea (Sobero Martínez, 2003:21 aip.). Gainera bai Estatuetakoz zein enpresarien ordezkariak uko egin zioten “herria” erabiltzeari langileen ordezkariak, adituok eta ikusle indigenek esaten zutenaren kontra. Egoera gogor honetan “Caucus Indigena”³²⁷-k aldarrikapen bat egin zuen autodeterminazioaren erabilerak inolako Estatu apurketarik ala independentzia suposatzen zuenik (Barsh, 1990). Blokeo giro honetan onartu egin zen “herriak” erabiltzea indigenei deitzeko, baina gehitu egin zitzaion famatua egin den gehigarri bat non argi esaten den autodeterminazio eskubidea eta herri kategoriari nazioarteko Zuzenbidean onartzen zaizkion eskubideak ez dituela suposatzen. (Sobero Martínez, 2003:24n aip.). LNEk klausula hau erabili zuen eztabaida hau NBERen eskuetan uzteko, bera delako foroa eta berari baitagokio eztabaida honen inplikazioak argitzea.

326 107 Itunaren analisis sakona egin ahalizateko bide bide Hannun (1998).

327. Bertan zeudenak hauek ziren: Four Nations, Treaty Six Chiefs, the Federation of Saskatchewan Indians and the Four Directions Council of Canada, the Ainu of Japan and the National Coalition of Aboriginal Organizations of Australia were joined by representatives of the World Council of Indigenous Peoples (WCIP), Nordic Sami Council, the Pacific Council of Indigenous Peoples (PACIP), and the Indian Council of South America (CISA). Además COICA, indígenas de Brasil, el Inuit Circumpolar Conference y delegados de la nación Mohawk.

Argi dago Estatu eta herri indigenen arteko interes gatazka eta tirabirak nabariak izan zirela hitzarmen honen onarpen prozesuan³²⁸. Herri indigenek ez zuten hitzarmen hau sortzeko prozesuan partaidetza zuzenik ez botorik eta artikulua ezberdinen inguruan nabaria izan zen desadostasuna eta gobernuen ikuspuntuari emandako lehentasuna.

Nazioarteko lege tresna honek herri indigenak berezko kultura eta herri izaera dutela deklaratu du. Aurreitzak hau aitortu egiten du, baita ere euren aktoretaza politikoa nahiz euren autogobernurako eskubidea onartzen die.

las aspiraciones de esos pueblos a asumir el control de sus propias instituciones y formas de vida y de su desarrollo económico y a mantener y fortalecer sus identidades, lenguas y religiones, dentro del marco de los Estados en que viven” (OIT, Convenio 169).

Aitorpen honek indigenak asimilatzeke helburuarekin amaitzen du eta kultura errespetatzeko, biziarazteko eta ondorengoei pasatzeko eskubide ezartzen du. Are gehiago, 169 Itunak onartu egiten ditu talde eskubideak herri indigenen eskubideen elementu berezi eta berezko bezala (McKayk, 1999:54an aip).

Honetaz gain, hitzarmenak, NLErentzat zein gainerako guztientzat, garatutako artikuluen bidez herri indigenek planteaturiko auziekin aritzeko arautegi minimo³²⁹ bat ezartzen du. Izan ere, gaurdaino, mundu mailan herri indigenen eskubideez arduratzen den tresna juridiko boteretsua da. Honexegatik, hain zuzen ere, nazioarteko legedian herri indigenen eskubideak definitzeko orduan erreferentzi marko inportantea da.

Besteak beste, herri izaera eta baliabideen gaineko eskubideak onartu egin dira. Berritasunen artean aipatzekoa da lurraldearen kontzeptua onartzen duela.

introduce otra novedad importante al hablar de territorio, incluyendo la totalidad del habitat, es decir, para los Pls éste comprende no sólo la tierra sino también las aguas, espacios aéreos, medioambiente, lagunas sagradas y centros ceremoniales (Gómez, 2006:140).

Gainera, 169 hitzarmenak bertan herri indigenak nazioarteko garapen politikaren objektu izatetik subjektuak izatera pasatu direla aitortu zuen. Onarturiko berrikuntzen artean hondokoa: euren eragina duten edozein prozesutan³³⁰, hasi baino lehen, euren kontsulta³³¹ eginez kontatu, negoziatu eta adostasuna lortzeko asmoz prozesuak hasi behar direla onetsi zuen. Garapen proiektuak martxan jarri baino lehen kontsulta egin behar. Esplotazioa egin aurretik herri indigenak kontsultatzera eta honek eragingo dituen ondorio ezkorren ebaluazioa egitera behartu egiten ditu gobernuak. Gainera, egoera kaltegarria ala galpenak gertatzen diren kasuetan

³²⁸ Tirabiren kasuan hortxe dugu 3. artikuluan herri indigenen lurralde itzultzeko beharrez aritzen dena. Herri indigenei garapen politiken barruan kendutako lurraldeak itzultzeko mandatu mugatzeko ahaleginak egin zituzten hainbat gobernu. Adibidez, hortxe dugu Guatemalako kasuan artikulua hain mugatzeko hartutako erabakia non bertako gobernuak hitzarmena onartzeko barneko legediaren nagusitasuna aplikatzen zion artikulua honi. Modu honetan oztopatu egiten da lurraldeen itzulera. Honetaz gehiago jakiteko bide García-Romeu et alia. (1998), Tomei & Swepston (1995), Swepston (1990), Van de Fliert (1994).

³²⁹ Hitzarmena sinatzen den momentutik aplikatzeko derrigorotasuna ezarri egiten da eta derrigorrezkotasun honek bere isla aurkitu behar du Estatu barneko legedian. Hitzarmenak gobernuak herri indigenekin harremanak izateko orduan bete beharke arautegia ezartzen du

³³⁰ 15 artikulua azpimarratu egiten du kontsultaren beharra batez ere baliabideen jabea Estatu demean eta honen ustiaketa lurralde indigenetan dagoen.

³³¹ Artikulua 6 (1) a da.

kontentsazioa ematera behartzen ditu gobernuak.

Kontsultaren auziak Estatu askoren beldurrak piztu zituen. Askok beto boterea ematen zitzaie indigenei uste baitzuten eta hau euren subiranotasunari horma jartzea zela iritzi zioten. Esan dugun bezala Estatuaren arteko dokumentua izanik irakurketa erradikalek ez dute tokirik. Gomez-ek (2006) argitzen digunez, honek zera suposatzen du Estatuak ezin dituztela aldebakarki aplikatu indigenen eskubideak eta askatasunak bortxatuko dituzten neurriak (Ibid:143). Kontsulta inguruan hautsak harrotu dituen debate bat dago aplikatu beharreko metodologiari eta honen ondorioei buruz. Onartu egiten da kontsentimendua Laugarren Munduarekin izan beharreko harremanaren ardatza dela eta hau errespetu, informazio eta partaidetza printzipioen gainean eraiki behar dela. Kontsulta auzian aldarrikapenak puntu honetan esplizituagoa da, derrigortasuna markatuz.

...no es explícito en el consentimiento previo, la Declaración, en cambio si explícita que los Estados deben obtener un consentimiento informado para la aprobación de cualquier proyecto que afecte a las tierras de los PIs, territorios y otros recursos. Lo que sí establece el Convenio 169 es que los PIs como propietarios de las tierras y los gobiernos como dueños de los recursos necesitan tener consultas (Gómez, 2006:).

Lurraldearekiko eskubideak hitzarmenaren beste atal garrantzitsua osotzen dute. 14 artikuluan Estatuak ezin dituela herri indigenen lurak “berek”³³² besterik gabe deklaratu egiten da³³³ eta herri indigenen lurren erabilera motak³³⁴ errespetatzeko deia egiten du. Espresuki deia egiten zaio Estatuari ez indigenek egindako lurralde okupazioak saihesteko eta zigortzeko³³⁵. Era berean herri indigenek euren lurretan dauden baliabideekiko dituzten eskubideak errespetatu behar direla ezartzen du eta hauen erabileran, administrazioa eta kontserbazioan parte hartu behar dutela baietsi egiten da. Nazioarteko hitzarmen garrantzitsu honek defendatu egiten du, bere 15.artikuluan, garapen sostengarritik eratorriak diren onuretan partaidetza izatea, ekosistemak kudeaketan eta kontserbazioan partaide izatea, eta herri mailan sorturiko industri eta ohiko lanen iraupena. Hori bai lurralde hauetan lur azpian dauden baliabideak Estatuaren monopolioa izaten jarraituko dute.

Hari beretik jarraituz, indigenek euren lurraldearekin duten lotura berezian oinarrituriko erlijio eta balio kulturallekiko begirunea eskatu egiten du ere. Beraz, lurraldea, natura eta kultura modu estu-estuan lotuta agertzen zaizkigu hitzarmen honetan. Herri indigenen diskurtsoan argi esan da euren lurraldearekiko eta bertan dauden baliabideekiko duten jabego eskubidea urratu egiten denean, honekin loturiko aniztasun kultural eta biologikoaren galpena gertatu dela. Lelo honi jarraituz 169 hitzarmenak lurraldeak, natur baliabideak eta nortasun indigena lotu egiten ditu

332 Garrantzi handikoa dugu erabaki hau historikoki Estatuak bereak egin dituelako herri indigenen lurralde asko eta tradizionalak, bai neoliberalismoak zein marxismoak, euren lurren gaineko legedietan bultzatu egin dutelako Estatuaren rol hau. Lurraldearen aurkako politika hauek etnozidio, genozidio eta giza eskubideen bortxaketaren hasieran eta mamian aurkituko ditugularik.

333 14. Artikulua

334 Articulo 17 lurra izateko modu tradizionalak komentatzen ditu.

335 18. Artikulua

harreman estu eta trinko batean. Era berean kultur askotasun eta biodibertsitatearen artean dagoen harremana onartu egiten da eta euren ohiko jakinduriaren garrantzia eta berau babesteko neurriak (Sutherland, 1995) hartu behar direla baieztatzen da. Onartu egiten da herri indigenek lurraldearekin eta Naturarekin duten harreman propioa eta berezia³³⁶, baita kultura eta erlijioaren baloreak. Hari honi jarraituz Itunak indigenen hizkuntza, kultura, erakunde, nortasun eta erlijioen baloreen aitorpena egin³³⁷ eta Estatuak hauek babestera derrigortzen du. Hitzarmenak euren instituzioak, bizimoduak, nortasuna, hizkuntza eta erlijioa mantentzeko eta sendotzeko eskubideak onartu egiten ditu eta garapen politikak definitzeko orduan herri indigenak kontuan hartuz derrigortu egiten du. Honetarako herri indigenei erabateko aitorpena eta errespetua erakutsi behar zaiela esaten du: euren balore, praktika sozialei, kulturei, erlijioso eta espiritualei zein euren instituzioei. Honetaz gain, kontsulta printzipioa ezartzen du herri indigenengan eragina izango duen edozein neurri administratiboa hartu baino lehen. Halaber, defendatu egiten du kasu hauetan herri indigenen partaidetza eta oniritziaren beharra udalerrri, herrialde nahiz Estatu mailan gauzatzea. Errespetua, informazio eta partaidetza printzipioak ezarri egiten ditu indigenekin aritzeko irizpide nagusi bezala.

Prozesu luze honetan herri indigenek arrazistatzat hartu zuten autodeterminazioa ukatzen zien klausula (IWGIA, 1989:201) eta honek kontradikzioan zegoela 3.1 eta 35 itun beraren artikuluekin, hauek herri indigenei eskubide berdintasuna bermatzen dielarik. Gainera, azpimarratu behar dugu bizia piztu zuten artikuluen artean hortxe ditugu 13-19 doazenak eta 23; bertan lurralde eta bere baliabide naturalak zein kulturalen gaineko eskubideak dituztela hizpide, baita ere jabego intelektualarekin loturikoak³³⁸.

Nahiz eta hasiera batean erakunde indigenek ituna kritikatu bertan ez zutelako partaidetzarik izan, erakunde indigenek, batik bat Hego Ameriketakoak, euren errebindikazioen artean sartu eta arrakastatsuak izan dira euren gobernu batzuk onartzera bultzatu dituztenean (Anaya, 2006). Hala ere, ezin ukatu Itunak duen kutsu estatozentrista. Estatuak baita da Itunean dauden eskubideen onarpena lortu behar duena. Eta agertzen diren artikuluen asko intentzioen deklarazio bat direlako, ez direlako bete (Gomez 2006; Anaya 2006), eta betetzea lortzeko erreklamazioetara jo behar izan da. Gainera indigenak jarraitzen dute partaidetza zuzenerako

336 23. artikulua honela dio "la artesanía, las industrias rurales y comunitarias y las actividades tradicionales y relacionadas con la economía de subsistencia de los pueblos interesados, como la caza, la pesca, la caza con trampas y la recolección, deberán reconocerse como factores importantes del mantenimiento de su cultura y de su autosuficiencia y desarrollo económicos. Con la participación de esos pueblos, y siempre que haya lugar, los gobiernos deberán velar por que se fortalezcan y fomenten dichas actividades".

337 Artikulua ondokoa da⁸ (2).

338 Hemen XXI. Mendean Estatuak eta herri indigenen artean gertatzen ari den gatazkaren mamia dugu. Hirugarren eta laugarren kapituluak ikusi dugun bezalaxe ekonomia globalen nagusi den lan banaketaren egituraren Hirugarren Munduko Estatu askoz natur baliabide ezberdinen ustiaketa aurkitzen dituzte euren garapen planak aurrera eramateko sasak. Beraz, ezin izango dute amore eman eurentzat estrategikoak diren baliabideen kasuan. Izateko estrategiko hau, are nabariagoa dugu. XXI. mendean garrantzi handiko izango den bio-teknologiaren beharrak asetzeko. Baliabideen garrantzia horrelakoa izanik, ez da erreza honetan Estatuak duten eskubideak borondatez mugatzea. Gainera, errealitateak argi erakusten digu interes ekonomiko estrategikoak eta giza eskubideak topo egiten dutenean Estatuak interesa ateratzen dela nagusi. Hau horrela da nazioarteko erkidegoa eta NBEa Estatuak gobernatzen dutelako.

mekanismoak izan gabe eta ez dute salaketak martxan jartzeko indarrik. Estatuak, enpresarien zein langileen ordezkariak soilik dute horrelako gaitasunik NLE sisteman.

Laburbilduz, LNERen 169 Ituna herri indigenei aitortzen zaizkion eskubideei buruzko kontzentzu berri baten isla den lanabes juridikoa dugu. Era berean kontzentzu berri horren lehen emaitza dugu, bigarrena Aldarrikapena delarik. LNERen dokumentu bat bada ere, bere mamiak ez dio bakarrik langile indigenen gaiei heltzen, eta Laugarren Munduaren agendan agertzen diren hainbat planteatzen ditu: hala nola lurraldeak eta bertan dauden baliabideak, ohiko sistema judizialak eta sistema politikoak, partaidetza eta kontsulta etab.

Bere mugak dituen arren Itunak ahalbidetu du nazioarteko Zuzenbidearen sujetu berezia bezala herri indigenak onartzea. Honekin batera garatu den arazo eta errebindikazio indigenei buruzko giroan herri indigenen eskubideei buruzko kontzentzua berria sustatu du (Anaya, 2004) eta honi esker herri indigenei buruzko legedi berri bat agertu da. Hau dela eta esan genezake herri indigenen eskubideak nazioarteko Zuzenbidearen eremu dinamikoetako bat direla (Anaya, 2006).

Itunaz gain oso interesgarria da, LNERen Aditu Batzordeak Itunaren inguruan sorturiko jurisprudentzia. Itunak ez du jarraipen batzorde berezirik eta Itunaren aplikapenak sortzen dituen gatazkak Aditu Batzordeak konpontzen ditu. Katetoria honetan aipamen berezia merezi du Kolombiako U'wa herriaren kasua (Anaya 2006). Kolombiako Central Unitaria de Trabajadores de Colombia aurkeztu zion kasu hau NLERi. Batzordean kontsulta betebeharra ez zela burutu esan eta konponketarako neurri batzuk agindu zituen.

3. GIZA ESKUBIDEEKIN LOTURIKO ERRONKA ETA AUKERA BERRIAK

1993an Batzar Nagusiak abenduko 48/163 ebazpenean Munduko Herri Indigenen Hamarkada onartu zen³³⁹. Hauekin batera NBEk 1993a Herri Indigenei eskaini zien, honela herri indigenekiko zuen konpromisoa erakutsiz. Halaber, 1997an herri indigenen hainbat erakunde indigenek ECOSOC-ek emandako aholkulari izaera jaso zuten. Modu honetan indigenen partaidetza eta presentzia NBEko goi mailatan ziurtatu zutelarik³⁴⁰ (Naciones Unidas, 1998:3-4).

1990ko hamarkadan Lantaldea NBERen sistemaren barruan partaidetza gehien daukan eremuetariko bat bihurtu zen. Funtzionamendurako prozedura zabala ezarriz mundu osoko ordezkari, erakunde nahiz banako indigenak zein gai hauetan euren aldeko aditu-ikertzaile direnak parte hartu zuten bertan. Gainera, ezarritako partaidetzarako prozedurak, malgutasun

³³⁹ Hamarkada 1994an hasi eta 2004ra arte luzatzen da.

³⁴⁰ Nazio Batuen Erakundeak gaztelarazko bertsioan honako erakunde hauei aitortu egin zaiela aholkulari izaera esaten zaigu: "La Asociación Cultural Jekto de Costa Rica, la Asociación Indígena Mundial, La Asociación de Kunas Unidos por Napguana, la Comisión para Aborígenes e Isleños del Estrecho de Torres, la Conferencia Inuit Circumpolar, el Consejo de los Cuatro Vientos, el Consejo Indio de Sudamérica, el Consejo Internacional de Tratados Indios, el Consejo Mundial de Pueblos Indígenas, el Consejo Nacional de Jóvenes Indígenas, el Consejo Sami, el Gran Consejo de los Crees (de Quebec), el Indian Law Resource Centre, la International Organization of Indigenous Resources Development y la Secretaría Nacional de Servicios Jurídicos Aborígenes e Isleños" (ONU,1998:4).

handikoak izanik, posiblea egiten du ordezkari indigenek eta gobernuek aurrez aurreko harremana izatea; eta herri indigenei dagokien gaiekin loturiko eztabaidan kide izatea. Era honetan historian lehenengoz hizketaldi positiboa gauzatu da, Estatu eta nazioarteko erakundeek indigenen errealitate eta izaerari buruz zuten iritzia aldatzea lortuz.

Aurrerapen guzti hauetaz baliatuz indigenek historian zehar inoiz izan ez dituzten foroak³⁴¹ eta bitarteko juridikoak eskuratu dituzte, euren giza eskubideak defendatzeko eta pairaturiko erasoez babesteko. Honetaz gain, euren eskubide eta agenda politikoa diseinatzeko, sustatzeko eta lantzeko parada eskaini die eta besteekin komuntasun eta erantzukizun partitua lantzeko. Halaber, euren igurikapen eta itxaropenei loturiko nazioarteko legedi berri baten eraikuntzan parte hartuz, beste herri eta aktoreekin batera lan egiteko parada ematen die. Aurrean duten bidea luzea bada ere, lortu lortu dute dagoeneko, euren sufrimenduak eurenak ez ezik munduko askorenak bihurtzea; eta hauek konpontzeko nazioarteko erkidegoaren defentsaz arduratzen diren erakundeak so izatea eta euren patuaz kezkatzea.

Aldi berean, nazioarteko ekimenaren onuradun/objektuak izateaz gain, herri indigenak nazioarteko erkidegoak eskaintzen dien ekimen politikorako aukerak aprobetxatu izan dituzte, eta, era honetan, nazioarteko legedia eraikitzeko ahaleginean partaide aktiboak, erabateko subjektuak dira (Barsh, 1994). Izan ere, giza eskubideen inguruko lanetan parte hartzeak nazioarteko sistemak eskaintzen dituen aukerez eta gauzak gertarazteko prozedurez jabetzea ekarri du. Beraz, iraganean ez bezala, gaur egun herri indigenak ditugu protagonista nagusiak euren eskubideen defentsan. Ekimen paradiplomatiko aberats eta konplexu honek erakutsi egiten digu lidergo berri baten aurrean gaudela, eta lider indigena gazte hauek, nazioarteko dinamikak, nazioarteko instituzioak eta politika egiteko moduak ondo ulertuz (Dyck, 1985), gai izan direla NBEren mailan eragin eremuak aprobetxatzeko eta eskalatzeko. Aditu indigenak nazioarteko erakunde, GKE, ala Estatuak bidalitako delegazioetan aurkitu dezakegu, baita hainbat gobernuen partaideen artean

At the same time, however, Indigenous leaders have acquired an increasingly high level of sophistication in understanding the legal implications of these violations within international law, and have built an extremely strong global network within their own organizations, as well as with civil society, multilateral agencies and governments. Also to be noted is that many former grassroots Indigenous activists have taken up consultant roles with governments, and in a number of cases, Indigenous scientists and lawyers are key experts on government delegations. Several countries also now have Indigenous politicians within their governments who are able to develop and monitor implementation policies directly relevant to the needs of their communities as well (Drache, 2002).

Are gehiago, eurak dira askotan bortxaketak ikertzeko, salatzeo eta konpontzeko

341 Herri Indigenen giza eskubideen sustapenerako garaturiko tresnak lantaldeak, mintegi bereziak, konferentziak koordinazio eta lan politiko egiteko bitarteko garrantzitsuak izan dira. Gailurrak, txosten bereziak eta antzekoak harremanak eta komunezko iritzia zein euren ikuspegiak bultzatzeko parada eskaini die. Baita ere, nazioarteko agendan hauek kokatzeko aukera eskaintzen die. Mintegien artean Ginebran 1989an arrazakeriaren gaia aztertzeo, 1991an Groelandian auto-gobernuaren inguruan izandako esperientziak izan zituzten aztergai; 1992an Herri indigenak eta Garapen Sostengarriaren arteko harremana aztertzeo mintegia egin zuten Txilen; 1996an Kanadan Adituen Mintegi berezi bat egin zen Lurralde Indigenen gaineko Eskubideak eta Errebindikazioak aztertzeo.

prozedurak hasten dituztenak. Izaera propositibo hau oso garrantzitsua da³⁴². Ildo honi jarraituz, Laugarren Munduak hamarkadan zehar Lantaldeak egindako txostenetan hartu dute parte³⁴³. Era honetan NBERi bere egitekoa hobeto egiten laguntzen dioten bitartean, herri indigenek pairatzen dituzten egoera larriak eta eurak konpontzeko egiten dituzten eskaerak, gomendioak eta proposamenak adituen txostenean daudela ziurtatu egingo dute³⁴⁴.

Izaera aktibo hau babes orokorreko hitzarmenen inguruan dauden komiteek eskainitako mekanismoetan ere ikusiko dugu. Adibidez, 1966ko Eskubide Politiko eta Zibilen Hitzarmenarekin loturikoa da Giza Eskubideen Komitea. Estatuak noraino sinatutakoa bete duten jakiteko jarraipen-lana burutzen du komite honek. Estatuak hitzarmena sinatu eta hurrengo urtean txosten bat bidali behar diote Komiteari. Hurrengo txostenak Komiteak eskatzen duenean igortzen dira. Eskaera hau bost urtero egiten da. 2005ko hitzarmenaren parte diren Estatuak aurkezturiko 15 txostenetan 3 erreferentzia egiten zaizkio herri indigenei. 2006ko Komiteak egindako gomendio orokorretan ere 27. mugimendu askatasunari buruzkoa ala gutxiengoaren eskubideei buruzkoan aurkitu daitezke (Burger, 2006:124). Komiteak begirale funtzioa betetzen du eta bere lana betetzeko hiru mekanismo ditu: goiz alerta, Estatuaren arteko salaketan azterketa eta partikularrek egindako salaketan azterketa. Indigenek mekanismo hauek maiz erabili dituzte eurek sufrituriko bortxaketak salatze eta hauek prebenituko dituen proposamenak jakinarazteko.

1997an Arraza Bereizkeriaren Ezabaketarako Komiteak Gomendio Orokorrak 23 zenbakiarekin Indigenous Peoples izeneko kapitulua onartu zuen. Bere 4. eta 5. parrafoak oso inportanteak gertatu ziren indigenen herri izaera onartu autogobernua onartu ziren (Eide, 2007:50). Komite honekin ere indigenek harremana izan eta lana egin dute. Historikoki hau erabili egin dute maiz euren egoera salatzeko eta Estatuaren politika nazioarteko erakundeen begietara ekartzeko (Eide, 2007). Adibide gisa, aipatu behar dugu ondokoa: Arraza Bereizkeriaren Ezabaketarako Komiteak 2005an jasotako 16 txostenetatik 6k erreferentzia egiten

342 Sofistikazio honen adibidea NBEk ematen du: "Los pueblos indígenas y sus organizaciones hacen cada vez más caso de los diversos procedimientos disponibles para presentar comunicaciones o denuncias. Estos son, en particular, el llamado procedimiento «1503», creado por el Consejo Económico y Social para el examen de los cuadros persistentes de violaciones manifiestas de los derechos humanos, y los procedimientos previstos en el Protocolo Facultativo del Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos. Los relatores especiales encargados de investigar la situación de los derechos humanos en determinados países o de preparar informes sobre determinadas materias, por ejemplo la intolerancia religiosa, los derechos humanos" (ONU, 1998:17).

343 Hamarkada honetan egindako txostenak hauek liriateke "Informe del Seminario de las Naciones Unidas sobre los Efectos del Racismo y la Discriminación Racial en las Relaciones Sociales y Económicas entre Poblaciones Indígenas y Estados E/CN.4/Sub.2/1989/22; "Propiedad Intelectual de las Poblaciones Indígenas: Breve Informe del Secretario General" E/CN.4/Sub.2/1992/30, "Estudio sobre la Protección de la Propiedad Cultural e Intelectual de los Pueblos Indígenas" E/CN.4/Sub.2/1993/28; Inversiones y Operaciones Transnacionales en las Tierras de los Pueblos Indígenas. Informe del Centro de las Naciones Unidas sobre Corporaciones Transnacionales" E/CN.4/AC.2/1991/Misc.1, E/CN.4/Sub.2/1992/54, E/CN.4/Sub.2/1994/40; Informe de la Reunión de Expertos para Revisar la Experiencia de Países en la Operación de Esquemas de Autogobierno interno para Pueblos Indígenas" E/CN.4/1992/42/Add.1; "Informe de la Conferencia Técnica de las Naciones Unidas sobre la Experiencia Práctica en la Realización del Autodesarrollo Sostenible de los Pueblos Indígenas" E/CN.4/Sub.2/1992/31

344 2007an Lantaldea desagertu eta bere tokian Herri Indigenen Eskubideei buruzko Aditu Taldea sortu da. Ordezkapen hau NBERen mailan gertatzen den aldaketaren barruan ulertu behar da, hau Giza Eskubideei buruzko Kontseiluaren³⁴⁴ barruan dagoelarik. Talde berria ondo kokaturik dago NBERen jerarkiaren barruan, antzinako azpi-batzordearen mendeko diren lantaldeen artean. Are gehiago, DOCIP-en arabera, esistitzen diren hiru lantaldeen artean (gutxiengoak, komunikazioa eta esklabutza) egitura berrian eragina galdu ez duen bakarra da. Gainera Taldearen aukeraketa prozedura kontuan hartzen ditu aditu indigenak zeregin honetarako.

diete indigenek bizi dituzten egoerei. Komiteak egiten dituen gomendioen artean 23. herri indigenen eskubideei buruzkoa da eta 24. herri indigenei ala talde etniko, arraza ala gutxiengoek bizi dituzten egoerari buruzkoa dena, indigenak aipatzen ditu (Burger, 2006:124). Halaber, Genozidioaren Aurkako Aldarrikapenak³⁴⁵ espresuki egiten die erreferentzia herri indigenei.

3.1 Giza Eskubideen Batzordea eta Errelatore Berezia

1996an Giza Eskubideen Batzordeak auzi indigenak bere atenzioa merezi zuen gaia zela onartu eta erabaki zuen arreta bereziko 23. puntua bere agendan izendatzea. Ordura arte herri indigenen gaiak Azpibatzerde mailan aztertzen baziren orain Batzordearen maila altuagoan ere tratatuz. Gauzak horrela ekimen indigena Azpibatzerdearen ondoko puntuetan zentratuko da: 6. (askatasun eta giza eskubideen bortxaketa), 4. (gertakizun berrien azterketa), 5. (arrazak diskriminazioa), 7. (orden ekonomiko berria eta giza eskubideen sustapena), 15. (Herri indigenen aurkako diskriminazioa). Aldiz, Batzorde mailan 12. (giza eskubideen bortxaketa), 17. (azpibatzerdearen txostena) eta 23. (auzi indigenak) izango dira ekimen gune nagusiak.

2000 urtean ECOSOC-ek Afera Indigenentzako Foru Iraunkorra-ren sorrera onartu eta 2001an Giza Eskubideen Batzordeak herri indigenentzako errelatore berezi bat egotea baietsi egiten zuen³⁴⁶. Errelatore berria herri indigenen aurka egiten diren eskubide bortxaketak prebenitzeko ahaleginean beste indar bat suposatzen du giza eskubideen bortxaketa, deskribatzeko, honetaz informazioa pilatzeko, informazioa elkartrukatzeko eta horrelakoak prebenitzeko eta gertatzen denean horrelakoak konpontzeko nazioarteko legedia egiteko. Gainera, errelatore berezi honek ahalmena du bortxaketa kasuetan bat bateko ekintzari hasteko eta kasua ezagutzeko bisitaldiak egiteko.

Lehenengo txostenean³⁴⁷ garapen programa erraldoiek herri indigenengan dituzten ondorioak aztertu zituen batetik, eta bestetik, herri indigenak eta taldeen oinarritzko eskubide eta askatasunak aztertu zituen. Bigarren txostenak³⁴⁸ justizia administrazioan herri indigenak dituzten arazoak eta herri indigenen zuzenbide konsuetudinarioa aztertu ziren. Hirugarrenak, hezkuntza sisteman partaide izateko herri indigenek dituzten eragozpenak eta jasotako hezkuntzaren kalitatea aztertu ziren. 2006ko txostenak herri indigenen eskubideak babesteko emandako konstituzio erreforma izan zituen aztergai³⁴⁹.

Herri eta Estatu ezberdinei egindako bisitaldiak ere ekimen inportanteak izan dira. Bisitaldiek aukera berezia eskaintzen dute tokian tokiko errealitatea ezagutzeko, eta euren xedea

³⁴⁵ CERD/C/66/1.

³⁴⁶ Bide <http://www.unhchr.ch/Huridocda/Huridocda.nsf/TestFrame/902e844fb8cf380cc1256a3800554a87?Opendocument>

³⁴⁷ E/CN.4/2003/90.

³⁴⁸ E/CN.4/2003/80.

³⁴⁹ E/CN.4/2003/88.

tokian tokiko gobernuekin, herri indigenekin, aditu zein GKEkin elkarrizketa zabaltea da. Era honetan posiblea da informazio zuzena eta kontrastatua izatea eta Foro Iraunkorrari zuzentzea. Errelatore bereziak 2002an Filipinas eta Guatemala³⁵⁰ bisitatu zituen, 2003an Mexico³⁵¹ eta Txile³⁵². 2004an Kolombia eta Kanada³⁵³. 2005an Hegoafrika³⁵⁴ eta Kanada³⁵⁵ eta Zelanda Berria³⁵⁶. 2006an Ecuador³⁵⁷ eta Kenia³⁵⁸. En 2007 Bolivia³⁵⁹. Txosten hauetan errelatoreak herri indigenek bizi duten egoera aztertu ondoren herri indigenekin zer ikusirik duten aktore guztiei zuzenduriko gomendioak egiten ditu. Zer neurriraino egindako gomendioak bete diren jakiteko 2005etik aurrera hauen jarraipena egiten du ere³⁶⁰. Honek beste mekanismo bat eskaini die herri indigenei munduari jakinarazteko euren egoera nolakoa den, euren keak munduratz.

Las recomendaciones presentadas por el Relator en sus informes anuales se han convertido en un instrumento político de gran importancia para los pueblos indígenas, siendo utilizados para promover la implementación de sus derechos no solo en el ámbito internacional, sino también en el ámbito regional y nacional (García Alix & Borraz, 2006:234).

Giza eskubideen esparruan aurrerapenak handiak izan badira ere, Laugarren Munduaren presentzia zein eskaerek sorturiko zalaparta ez da gaueko ahuntz baten eztula izan. Estatu eta indigenen arteko talka hau inon baino argiago ikusten da HIGEAREN inguruan izandako eztabaidetan. Eztabaida hauek Estatu eta herri indigenen artean abian dagoen elkarrizketaren mugak markatzen ditu. Bertan nazioarteko erkidegoa ulertzeko bi ikuspegien arteko elkar topoa gori-goria agertzen zaigu.

4. ALDARRIKAPENAREN INGURUKO ESTATUEN OLDARTZEA

Estatu eta herri indigenen artean dagoen gatazka, indarren arteko desoreka erakusten duena, definizioaren inguruko auzia izan da³⁶¹ historikoki. 169 Itunaren inguruko eztabaidan komentatu dugu Populazioak vs. Herriak izeneko eztabaida honen nondik-norako nagusiak. Laugarren Munduak autodeterminazioaren erronka eta talde eskubideen defentsa planteatuz aktore kolektibo berri baten errealitatea erakutsi dio nazioarteko erkidegoari: talde eskubide bereziak merezi dituzten herri indigenena, hain zuzen. Errealitate honek herri indigenen kasua kategoria berria eta berezia izatean datza. Eztabaida politikoa gori-goria izan bada ere adituek ez

350 E/CN.4/2003/80/Add.2

351 E/CN.4/2004/80/Add.2

352 E/CN.4/2004/80/Add.3

353 E/CN.4/2005/88/Add.3

354 E/CN.4/2006/78/Add.2

355 E/CN.4/2006/78/Add.3.

356 E/CN.4/2006/78/Add.3.

357 A/HRC/4/32/Add.2.

358 A/HRC/4/32/Add.3.

359 A/HRC/6/15/Add.2

360 Errelatoreak egindako txostenak irakurtzeko jo hurrengo helbidera <http://www2.ohchr.org/spanish/issues/indigenous/rapporteur/reports.htm>

361 Arazoa diogu Miguel Alfonso Martínez proposamenaren atzean G-77aren Estatu asko ditugulako eta hauek prest egongo lirakeelako hitzarmendun nazio indigenak laguntzeko Afrika eta Asiako "ustezko herri indigenak" kanpo geldituko balira. Gainera auzi hau beste batzuekin batera, erabili egin dute HIGEAREN onerpenaren aurka egon diren Namibia ala Bostwana. Honek noski apurtu egingo luke bere hasieratik herri indigenen nazioarteko mugimendu pan-indigenak izan duen berdintasun eta unibertsaltasun printzipioa honekin loturiko barne kohesioa eta orain arte erakutsi duten elkartasuna (IWGIA, 2000).

dute inolako zalantzarik, horrela frogatzen baitu Daes-ek (1993) egindako txostenean ondoko paragrafoetan dionean indigenak herriak direla zentzu oso-osoan eta inolako zalantza izpirik gabe.

7. Indigenous groups are unquestionably "peoples" in every political, social, cultural and ethnological meaning of this term. They have their own specific languages, laws, values and traditions; their own long histories as distinct societies and nations; and a unique economic, religious and spiritual relationship with the territories in which they have lived. It is neither logical nor scientific to treat them as the same "peoples" as their neighbours, who obviously have different languages, histories and cultures.

8. The United Nations should not pretend, for the sake of a convenient legal fiction, that those differences do not exist.

Herri izate hau kontuan harturik, Laugarren Munduak Estatuak erkidegoari planteatzen dizkion arazo eta kontraesanak ez dira makalak. Nola onartu talde eskubideak izaera honi dagokion herritasuna eta autodeterminazio eskubidea onartu gabe?; Nola onartu autodeterminazioa eta bere garapena gaur egun existitzen diren Estatuak barruan? Nola uztartu Estatuak batasuna euren barruan dagoen herri/nazio aniztasunarekin? Nola lortu hau herri indigenen interesa eta Estatuak interesak errespetatu?; Nola orekatu munduko eta Estatuak aniztasun kulturala eta biologikoa mantentzeko mandatua ekonomia globalak inposatzen dien errealitatearekin?.

Galdera guzti hauek indarrean dagoen status quori erronka egiten diote eta tentsio ikaragarriak sortu dituzte. Hauen isla HIGEAren inguruan sorturiko eztabaida gogorra eta luzea izan da. HIGEA Laugarren Munduaren helburu nagusia izan da azken hamarkadetan eta 1970an hasitako prozesuaren gailurra markatzen du. Gainera, 1994an hasitako hamarkadaren xede nagusietariko bat dugu eta duen mandatu araugilearen ondorio inportanteena gainera.

Aldarrikapenak ondoko ezaugarri interesgarriak ditu: batetik, ekintza paradiplomatiakoaren ondorioa izanik herri indigenen eskubideak babesteko marko unibertsala bihurtuko da; bestetik, herri indigenek beste edozein aktorearekin dituzten negoziazio prozesuetan ezinbesteko erreferentzia bihurtu zaigu³⁶². Beste modu batean esanda, HIGEAk indigena eta ez indigenen artean XXI. mendean harremanak birbideratzeko eta kudeatzeko marko bezala ulertu behar dugu.

HIGEA, beraz, herri indigenek aurrez aurreko komunikazioak eginez deskribatu dituzten bortxaketa zehatzei erantzuteko egindako ahalegina dugu. Ez da adituen, politiko, legegizon ala esker oneko jendeek egindako ahalegin intelektualaren fruitu hutsa. Ez, bortxa, bazterkeria eta biolentzia eguneroko bizitzan jasotzen duen talde edota banako indigenek euren segurtasuna eta eskubideak ahalik eta hobeto defendatzeko egindako ahaleginaren fruitua dugu. Biktimek euren arazoei erantzuteko munduko nazio, Estatu eta nazioarteko erakundeei egindako proposamen minimoa, eraikitzaile eta posibilista dugu. Gaur egungo nazioarteko erakundeekin lan eginez

362 Dagoeneko 169 hitzarmenarekin batera herri indigena askok euren negoziatioak burutzeko orduan erreferentzi dokumentu bezala erabiltzen dute.

sortu delako eta espresuki bizi dituzten gatazkak konpontzeko nazioarteko lege hautatu duelako azpimarratzen dugu. Ez du suposatzen eskubide berriak onartzen direnik.

La Propuesta de Declaración de las Naciones Unidas, vista en su totalidad y con base en la legislación internacional existente, no establece en su presente estado de elaboración a los «pueblos indígenas» como una categoría que goza de una vasta gama de derechos exclusivos (. ..) Los efectos principales del proceso y del texto en sí mismo son más bien el proponer o desarrollar una serie de principios básicos de fundamental importancia, el refutar y desaprobar cierto tipo de argumentos utilizados contra las demandas de los pueblos indígenas, el legitimar las demandas legales y políticas de los pueblos indígenas y el especificar el significado de bien establecidas normas internacionales en contextos especiales que involucran a pueblos indígenas (Kingsbury, 1997:51).

HIGEAn, oro har talde eskubideak dira nagusi, besteak beste, autodeterminazio eskubidea, herri bezala bizirauteko eskubidea, nortasun linguistiko, izpiritual eta kulturalaren babesa, ohiko lurralde eta bertan dauden ekosistemen nahiz baliabideen gaineko jabetza eskubidea etab. 1994an onaturiko aldarrikapenak sarrera bat eta 45 artikulua zituen.

Lehenengo atalean (1-5 artikulua): Autodeterminazio eskubidea, Estatuan partehartzeko eskubidea, nazionalitatea izateko eta bazterketatik libre izateko askatasuna aipatzen dira.

II. Atalean (5-11 art.): Tratatu egiten dira herri indigenen iraupenak, berezko talde bezala, egun jasotzen dituen mehatxuak. Bertan aipatu egiten dira existentzia euren osotasuna eta segurtasun fisikoa, bermatzeko beharra eta genozidio nahiz etnozidioaren aurkako bermapenak

III. Atalean (12-14 art.) Nortasun kultural, erlijioso, izpirituala eta linguistikoa mantentzeko deialdia. Artikulu hauek euren tradizio kulturala mantentzeko, euren usadioak, euren jabetza kulturala eta intelektuala bermatzeko instituzioak eta euren izpiritualtasuna eta tradizio erlijiosoa mantentzeko eskubidea.

IV. (15-18.): Kultura, hezkuntza, informazioa eta lan munduarekin loturiko eskubideak aipatzen dira. Atal honetan herri indigenek berezko hezkuntza instituzioak izateko, hezkuntza euren hizkuntza emateko, eta euren igurikapenak eta kulturak modu egoki batean hezkuntza sistema eta materialetan nahiz informazio publikoan garatzeko eskubideak.

V. Atalean (19-24 art.): Garapena izateko eskubidea, partaidetza eta beste eskubide sozial eta ekonomikoak aipatzen dira. Indartze ekonomiko eta sozialarekin lotuta aurkituko dugu atal hau. Halaber, ukitu egiten ditu sistema politiko, ekonomiko eta sozial indigenak mantentzeko eta indartzeko eskubideak; bertan sartuz ohiko praktikak ekonomikoak, beste edozein praktika eta ohiko osasun sistemak.

VI. Atalean (25-30 art.): Lurraldeak eta baliabideak. Atal honek bereziki azpimarratu egiten du herri indigenek euren ohiko lurraldeekin duten harreman berezia. Baita bertan kokatzen diren lurra, ura, eta ekosistemaren beste osagaiekin³⁶³ Hemen biopolitikarekin loturiko gaiak

363 Osagaiak diogu baliabideak erabiltzeko europarrok naturari emandako bitarteko izaera islatzen duelako. Bizirauteko bitartekoak badira ere naturaren osagaiekin

aipatzen dira: euren artean lurralde eta baliabideekin loturiko eskubideak, jabego intelektualala eta kulturala, eta ingurumenaren babespena eta segurtasun ekologikoa.

VII. Atalean (31-36 art.): Artikulu hauek herri indigenen erabaki eremuaren eraikuntzarekin lotuta aurkitzen ditugu, autodeterminazioa zehazteko bidean egin beharrekoa jorratuz. Landutako auzien artean partaidetza eta hiritartasuna erabakitzeke eskubidea, erakunde eta lege egiturak, beste herri batzuekin harremanak, eta Estatuekin sinaturiko itun, hitzarmen eta antzeko bestelakoen aitortpena

VIII Atalean (37-41 art.): Estatuak eta NBEk zein bere sistemarekin loturiko beste erakundeek aldarrikapena indarrean jartzeko mekanismoak.

Eta amaitzeko IX. Atalean (42-45art.): Aldarrikapenaren zabalera eta mugak tratatzen dira

HIGEAK herri indigenek bizi duten egoera kaxkarra birbideratzeko eta munduko beste Estatu, nazio ala GKEkin aritzeko gutxieneko marko normatiboa da. Bertan adosturiko minimoak agertzen dira eta honek ez du, inolaz ere, suposatzen etorkizunean garatu daitezke eskubide berriei uko egiten zaienik. Aldarrikapen hau herri indigenek bizi dituzten arazo eta itzaropenei heltzen die, euren esperientzian oinarrituta daude eta euren partaidetza zuzenaren eta negoziazio gaitasunaren ondorioa. Horrelako partaidetza prozesurik NBEren mailan ezta beste inon aurkitzea (Burger, 1997).

HIGEAK herri indigenen nazioarteko agendan agertzen diren puntu nagusiak bilduko ditu bere baitan. Honetaz gain, badu beste ezaugarri garrantzi-garrantzitsua HIGEAK bere baitan biltzen ditu beste hitzarmenetan agertzen diren printzipioak eta artikuluak, jada nazioarteko Zuzenbidean onarturik daudenak. Hau funtsezkoa gertatzen da aldarrikapena izanik betetzeko derrigortasunik normalean ez badago bai kasu honetan aipaturiko berezitasuna dela-eta.

La excepción se da cuando una declaración repite principios existentes de derecho internacional o contiene normas de derecho nacional consuetudinario, y es por ello de carácter obligatorio, al menos respecto a la (s) disposición (es) relevante(s) (MacKay, 1999:53).

Garrantzizko kontsideratzen dituzten gaiekin batera indigenek egindako proposamenak agertuko zaizkigu³⁶⁴. Hauen artean egon badaude kutsu indigena berezkoa dituztenak, hots, 7. artikulua etnozidioaren kondena egiten duena. Genozidioarena kondena agertu egiten da beste

indigenek duten harreman erlijioso eta izpirituala garrantzitsuegia da baliabide izaera ekonomikoa duen deitura erabiltzeko. Kritika bezala esan beharra daukat ikerlari askok dituzten formazio liberal edota marxistaren ondorioz ez diotela behar duen garrantzia ematen erlijioari herri indigenak ikertzen dituztenean. Gure ustez Hirugarren Munduan, oro har, baina herri indigenen kasuan bereziki euren izpiritualtasuna euren borroka eta ekintza politikotik ezin da banatu, erlijioa eta nortasuna estu-estuki lotuta daudelako. Zoritxarrez, askorentzat izpiritualtasunaren gaia bigarren mailakoa izaten jarraitzen du. Hau akats bat litzateke kosmos-ikuskeraren indigenen nortasuna, lurraldeak, ustiapena, autodeterminazioa etab elkarri lotuta eta banaezin direla, behin eta berriz, esan dutelako indigenek.

³⁶⁴ Proposamenak ekintza paradiplomatiakoaren ondorioak dira eta gehien bat "Caucus Indigenaren" fruitua. 80ko hamarkadan PILen tratatuko lantzeko saiok hasi baino lehen eta saioa zirauen artean bilerak indigena eta ez indigenen artean egiten ziren. 90ko hamarkadan aldiz "Caucus Indigena" bat sortuko da protagonismoa eta komuneko jarrera indigena lortu asmoz. Caucus honek Lantaldearen Presidenteari adosturiko erabaki ofizialak aurkeztu zizkion non eurentzat ezinbestekotzat ziren gune kritikoak agertzen ziren. Era honetan HIGEA izan behar zituen arauetaz buruzko mezu gardena bidali zien partaide ez indigenei.

testu juridikoetan baina ez etnozidioarena (Burger, 1997:105). Honetaz gain, beste dokumentuetan agertzen ez den izaera kolektiboa du eta azpimarratu egiten du negoziazio, kontsulta eta “adostasunaren” balioa herri indigenak eta Estatuaren arteko harremanak gidatzeko printzipioak bezala.

HIGEA nazioarteko erkidegoa gobernatzeko duen egituraren birmoldaketarako proposamena ere da, horretarako Estatu gabeko herrien partaidetza zuzenagoa defendatzen duelarik. Munduko nazioek suposatzen duten errealitate anizduna kontuan hartzea eta aniztasun hau txertatzeko nazioarteko erakunde birmoldaketa bultzatzea proposatzen da. Honetarako eta benetako kulturen arteko hizketaldiari ekiteko eta elkarrenganako errespetua bultzatzeko proposamena biltzen da aldarrikapenean. Iraganeko gaizki egindakoak gainditzeko eta nazioarteko legean eta elkar errespetuan oinarrituriko lankidetzari ekiteko proposamena da. Aurrean dugun proposamena giza eskubideen errespetuan, unibertsaltasunean, berdintasunean, diskriminazioaren ezean, eskubideen arteko elkarloturan eta banaezintasunean oinarrituta dago (Anaya, 1999). Orden berri bat ezartzeko ez bada daukaguna hobetzeko indigenen kontribuzioa NBEko goi karguek 2002. urtean egindako AIFiren lehen sesioan emandako sarrera hitzaldietan Mary Robinson eta Kofi Anan-ek aitortu egin zuten herri indigenek euren partaidetzaren bitartez nazioarteko erkidegoari hobekuntza ekarri diotela. Baita ere, NBERi bere helburuak erdiesteko egin diezaioketen kontribuzioa azpimarratu zuten.

Indeed, you have rights, needs and aspirations that can and must be addressed by the world Organization. And you have knowledge, vision, values, skills and many other attributes that can help us at the United Nations, and indeed all of humankind, to achieve our long-sought goals of development and peace. (Secretary-General Kofi Annan, 2002)

HIGEA bildutakoa aldaketa sakona suposatzen du nazioarteko sistemarentzat, Herri indigenen eskaera eta eurek egindako proposamena mundu askoz demokratago, partizipatiboago, ekologikoago egiteko proposamena da, eta bat egiten du gizarte zibilaren zein nazioarteko World Government antzeko mugimenduen partaideekin (Kothari, 1991; Falk, 1991; Adam & Kingsbury, 1991).

Hala ere, herri indigenen eskaerak hainbat Estatuentzako mehatxu zuzena dira. CANZUS taldekoek (Kanada, AEB, Australia, Zelanda Berria), Japon, Txina Frantzia ala Brasil³⁶⁵ ez datoz bat aldarrikapenak planteatzen dituen hainbat artikuluekin, euren subiranotasunaren gainean mugak jarri eta hau konpartitzera bultzatu egingo lituzkeelako³⁶⁶. 1987tik 1993ra egindako presio paradiplomatiakoari esker 1994an azpibatzerde mailan HIGEAren onarpena lortu egin bazuten ere, ondorengo bidea oztopoz josita agertu da. Ezin ahaztu biak PIL eta Azpibatzerdearen

³⁶⁵ Artikulu bakoitzaren aurrean Estatuaren jarrera zein den ikusteko bide Barsh (1996). Idazle honek aditu zein aritua dugu HIGEAren inguruko eztabaidatan eta berak egindako deskribapena beste egileek egindakoa baino zehatzagoa dugu. Gray-k (1996) ere saiakera bat egin du Estatuaren jarrera deskribatzeko baina Barsh-enak artikuluz artikuluz aztertzen ditu.

³⁶⁶ Mehatxatutzat ikusten diren artikuluek bereziki autodeterminazioarekin eta baliabideen gaineko jabego eta erabilera eskubideekin lotuta daude.

adituez osoturik daudela, Batzarrean aldiz, diplomatikoak dira nagusi.

1993ko zirriborroaren proposamenen artean Estatuak gehien aztoratzen duen gaia 3. artikuluan ezartzen den autodeterminazio eskubidearekin dugu lotuta. Hemen argi ikusten da NBEa nazio batuen erkidegoa izatetik urrun dugula eta berriz ere, Estatu banatuak ditugula nagusi. CANZUS autodeterminazio eskubidea onartzearen kontra agertu eta gutxi batzuk izan ziren urte honetan, aldarrikapenean agertzen den moduan (Dinamarka eta Fidji), baina nazioarteko zuzenbidean historikoki ulertu denaren interpretazio mugatua eginez³⁶⁷. Barneko autodeterminazioaren aldeko apustua UNESCO-k zein buruzagi indigena askok egingo dute. Autodeterminazio eskubidearen ikuspegi mugatzailea ezartzeko ahalegin hau ere 31. artikuluaen “ingelesezko” ala “gaztelerazko” itzulpenen artean dagoen ezberdintasunean eta ondorengo eztabaidan antzeman daiteke. Ingelesez autonomia ezartzeko moduetariko bat dela dioen artean gazteleraz, berriz, modua, bera eta bakarra omen dena, dela dio. 1993ko zirriborroak oposizio gogorra ezagutu arren CANZUS aldetik herri indigenek ez zuten autodeterminazioaren auzian atzera egin, eta gainera Estatuaren papera eta bere zilegitasuna zalantzan jarri zuten.

La irrupción de los pueblos indígenas como sujetos de derechos quiebra el carácter estadocéntrico con el que el Derecho Internacional de los Derechos Humanos ha venido normando a quienes son sujetos colectivos. La irrupción del sujeto pueblos indígenas también supone un reto a la lógica del Derecho Constitucional inhabilitada hasta ahora para cobijar formas jurídicas colectivas y soberanas más allá de la propia realidad del Estado-Nación y del pueblo al que está realidad construida o imaginada se remite (Martínez Bringas, 2006:90).

Eztabaida honek baldintzatu egin zuen 1993ko dokumentuan eta batez ere 2007 behin betirako HIGEA. Estatuak 1993ko zirriborroa aldatzeko saioa 1995an Giza Eskubideen Batzarrean lantalde berezia sortu zenean ikusi zen. HIGEAri buruzko Lantaldea (hemendik aurrera HIGEA Lantaldea) euren interesei hobeto erantzun zion dokumentu bat lortzeko asmotan. Gertakizun honek onarpen prozedura trabatu egin zuen. Herri indigenek HIGEA zegoen bezala onartu behar zela eta ez zela negoziatuko esan zuten.

The Draft Declaration is still the only agreement which addresses holistically most of our concerns, and thus our position that it be passed in its original form (Matthew Coone Come, the Grand Chief of the Grand Council of the Crees, Tauli-Corpuz, 1999:aip109).

Hala ere aurki errealitate diplomatiko latz bati erantzun behar izan zioten: NBE Estatuak nagusi dira eta Batzordean zein Batzar Nagusian botoa ematen duten bakarrak. Negoziatu ezean Estatuak artikulua bakoitzari euren kasa botoa alde ala kontra edo emendakinak aurkeztuz burutu zuten euren asmoan, inolako eztabaida egin gabe. Hau arriskutsua oso zen indigenentzat euren ikuspuntuak ezin izango zirelako entzun eta gobernuekin elkartrukatu, eurengan eragina izateko eta euren jarrera aldarazteko aukera desagertuz.

Gauzak horrela aldarrikapena aztertzeko Batzordean Estatuak, NBEko egituraz eta

³⁶⁷ Autodeterminazioaren eskaera herri indigenen nazioarteko ekintza politikoaren muin-muinean aurkitu daiteke eta honen inguruan egindako hausnarketaren inguruan bide Simpson, (1997), Obieta (1985) Gurr (1994), Anaya, (1996); Anaya, (1991).

prozeduraz baliatuz, zirriborroa aldatzeko eta ahultzeko mota guzietako trikimailuak erabili zituzten zirriborroan dagoena mugatzeko, birdefinitzeko, “zehazteko” asmoz, eta finean HIGEAren indarra moteldu nahian (Barsh,1998). Hizkuntzaren zehaztasunak aitzakiatzat erabili egin ziren dokumentu inportante honen onarpena atzeratzeko³⁶⁸ eta hizkuntza diplomatikoaren ñabardurak arma bihurtu. Gainera, Chavez-ek (2000) deskribatzen duen bezala herri indigenek presentzia, partaidetza eta euren boza helarazteko irabazitako eskubidea murriztu egin zen gobernu ordezkarien arteko saio ez ofizialen bidez. Prozedura hau gogor kritikatu zuten indigenek.

.....Our delegations strongly believe that the methodology which we have seen gathering momentum over the past two years, in which states are being encouraged to enter into closed sessions without the participation of Indigenous Peoples to draft new text, is contradictory and prohibitive to the spirit of partnership and consensus we have all professed. In fact, it takes us further away from the possibility of a consensus which includes both state and Indigenous delegations. It also violates the stated objective of strengthening of new relationships and new partnerships between states and Indigenous Peoples called for by the General Assembly Declaration for the International Decade of the World's Indigenous Peoples, as well as the intention of Commission on Human Rights resolution 1995/32 which calls for the participation of Indigenous Peoples in this process (IITC:2002).

Halaber, ordezkari indigena batzuekin izandako elkarrizketak laster “negoiazio” mailakoak balira bezala aurkezteko saiakerak egin ziren mugimendu indigenaren batasuna apurtzeko asmoarekin. Gobernuak egindako saio hauei erantzutea ez zen erreza izan Caucus Indigenarentzat eta kontraesana eta tirabirak sortu zituen honek (Garcia Alix-Borraz, 2006). Baina zegoen blokeo egoeran ordezkari indigena batzuk hasi ziren estrategia aldaketa planteatzen eta 1994ko zirriborroa zegoen bezala onartzeko jarreratik aldentzen.

Tim Coulter-ek (1997:NET) dioen bezala herri indigenek aurrean izan duten egoera ez da erreza izan. Nazioarteko sisteman Estatuek jaun eta jabe jarraitzen dute eta euren ahalegin paradipomatikoarekin herri indigenek hitz egitea eta gobernuak entzutea lortu badute ere, azken erabakia gobernuen esku darrai. HIKE “indar morala” da (Manuel, 1974) eta berorren muga gobernuak negoziaketa eta elkarrizketaren bidez erakartzeko saioa amaitzen denean agertzen zaigu. Honexegatik, Coulter-ek (1997:NET) errealitateak planteatzen duen aukera krudela mahai gainean jarri zuen du. Egokia al da Estuekin negoziaketan sartzea? Egin al daiteke horrelakorik euren hastapenak arriskuan jarri gabe? Zeintzuk dira ahalezko ondoriok negoziazioa burutu ala aldaketak egitea onartzen bada? Nola lortu daiteke ahalik eta modu eraginkorrean aldarrikapena ahuldu baino sendotu egingo duen hizkuntza?.

Coulter-en proposamenari jarraituz, honekin loturiko beste arazoa planteatu egiten da eskubideak negoziatu egiten direnean. Ahal da printzipioak negoziatzea? Hau gertatzen bada ez al dira etorkizuneko negoziazio indarrak motelduko? Zer gertatzen da negoziazio mahaitik erortzen

368 Prozesu luze eta latza honetan gertatutakoak jarraitzeko bide E/CN.4/2000/84 bertan lantaldearen presidentea den Luis-Enrique Chavez-ek bere txostenean bileran gertaturikoa deskribatu egiten du. Aurrekoak kontsultatu nahi badira irakurri E/CN.4/1994/84, E/CN.4/1998/106 eta E/CN.4/1999/82

diren eskubideekin? Ordezkarri batzuei erauzitako akordioak guztion onespena bezala erabili dezakete Estatuak? orduan zer egin?.

Egoera ezta izan erreza. negoziazioetan sartzeari testua berridazteko atea zabaltzea baitzen. Ordezkarri maximalistek zirriborroaren onarpena zegoen bezala eta aldaketarik gabe onartzea defendatzen zuten. Posibilistagoak (Artic Circle, Tetteba eta Samiak) zirenak gaur egungo nazioarteko sistemaren mugak eta errealitateak kontuan izanik hartu-eman etikoari heltzeko proposamena egiten zuten. Kontuan hartuta eztabaidan parte hartzen ez bazen Estatuak euren aingotutako zutela, proposatu egiten zen harreman etiko bat aldarrikapenaren mamia ahalik eta hobeto Batzar Nagusira heltzen zela ziurtatzeko. Helburua Estatuaren heztea eta erabakiak hartzeko orduan herri indigenen ikuspegia eta alternatibak kontuan izatea zen. Coulter-ek (1997:NET) eta bere erakundeak proposaturiko bide posibilista ekintza etiko batean oinarritzen zen non Estatuak argi utziko liekete paradipomatiko indigenek ez dutela negoziatzen burutuko, eta ez daudela prest eskubideetan inolako mugarik onartzeko. Modu honetan aldarrikapena hobetzeko eta sendotzeko eztabaidak bai baina ez negoziatzen. Ikuspuntu hau mantentzekotan aldarrikapena sendotzen zituzten hobekuntzak bakarrik onartzeko asmoa zegoen. Eztabaidan aritzeko lan taldeak antolaturiko bileretan parte hartzea eta Estatu ordezkariekin banaka zein taldeak lobby egitea izanik. Egon bazegoen ahalik eta sostengu zabalekoa izateak aukera gehiago ematen ditu "customary law" bihurtzeko (Anaya, 2006). Laugarren Munduak honetara zuzendu zituen ahaleginak.

Gauzak horrela Giza Eskubideen Batzordean (GEB) 1995tik gertaturiko eztabaidan urteetan onarturiko artikulua bakarrak bi izan ziren 5. eta 43. Bi hauek banakoen eskubideekin loturik ditugu. 15, 16, 17, 18 artikuluen kasuan (kultura, hezkuntza, informazioa eta lan munduarekin loturiko eskubideak) adostasunerako bidea nahiko jorratu zen 2001ko saioan 1, 2, 44, 45 artikulua (giza eskubideekin loturiko hastapen orokorrak dira eta beste lanabes juridikoetatik datozenak) eta 12, 13, 14 (kultura, eta tradizioarekin loturikoak) eztabaidatu egin ziren adostasun ala jarreraren hurbiltze bat bideratzeko. Garrantzi handiko artikulua hauekin batera ezadostasunak eta konpontzeko zailak gertatzen zirena autodeterminazioa (3. Art.) eta natur baliabideen kontrol gaineoak (25-30) ziren batik bat. Egoerak ez zuen hobera egin ondoko bi urteetan.

2002tik 2003ra Norwediako gobernuak aurkezturiko proposamena non autodeterminazioa zehazteko Estatuaren batasunari buruzko artikulua gehitzen zen aurrera egin zuen Estatu honek aitzindarritza hartu zuen neurrian. Baina benetako aldaketa 2003an Copenhaguen egin zen Taler batean bide posibilista jorratzen ari ziren indigenak batu ziren. Negoziaziorako malgutasuna eta HIGEAren kontra ziren Estatuak isolatzeko eta aldekoak

laguntzeko deliberoa hartu zen. Halaber autodeterminazio eskubidea eta herri indigenen eskubide kolektiboak ezin zirela negoziatu adostu zen. Gainera Estatuaren proposamenak artikulua zehatzei lotuta eztabaidatu ziren Honek 1994koa zegoen bezala jarrerarekin apurtzea suposatu zuen (Åhrén, 2007:91) eta indigenek argi ikusi zuten Batzordera bidaliko zen testua Chavez-ena izango zela, Estatuaren erabateko adostasuna lortu ezean. Copenhaguen-go bilerari jarraitu zion Montrealen egindako beste bilera batek. Hemen argi gelditu zen erregio indigena guztietako ordezkariak parte hartzen zutela ekimen honetan. Ordutik aurrera posiblistek “Montrealgo Taldea” bezala ezagutu ziren.

2004an 1994-2004 Populazio Indigenen Aldeko Hamarkadaren helburu nagusienetarikoa zen HIGEAren onarpena ez zen lortu. Urte honetako abenduan HIGEA aurrean zituen oztupoak horren handiak izanik eta hamarkadak lorturiko helburuak hain xume-xumeak 2005ean NBek Bigarren Hamarkada onartzeko erabakia hartu zen, honen helburuen artean HIGEAren onarpena espresuki aipatu zelarik³⁶⁹.

30. urteko debate luzean aritu ondoren indigenek onarpenerako bidea eta berorri loturiko prozesua trabaturik zeudela ikusi zuten argi eta garbi. Blokeoak sorturiko tentsioa eta frustrazioa salatu asmoz indigenek gose greba bat antolatu zuten Genevan hainbat Estatuak jarritako oztupoak salatuz, eta HIGEAren onarturiko proposamena indargabetzeko eta berridazteko saiakerari aurre eginez. Hala ere gauzak mugitzen hasiak ziren Norwediako gobernuak, beste Estatuarekin eta Eskandinabiako indigenekin batera (Samiak eta Groelandiako Gobernu autonomoa), proposamen bat landu zuen HIGEAren bertsio berria CRP 1 izenez ezagutu dena. Bertan 1994ko HIGEAri egindako hainbat emendakinak onartu egin ziren jatorrizkoak baino hobea zirelako. Ondorengo negoziaketetan CRP 1 erabili zen. Honek Estatu eta indigenen arteko elkarlana erraztu zuen eta negoziazioa aurrera bultzatu (Åhrén, 2007). Aurrera pausua Sami Council eta Sami Parliamentarian Council CRP 5 aurkeztu zutenean eman zen, honek negoziatioetan itzal handirik izan ez bazuen ere bai indigenen artean bultzatu egin zen eta erdietsi ere ordezkariak indigenak euren hitzekin proposaturiko testuak bidaltzea (Ibid, 2007:96). CRP 5 Estatuak egindako CRP 1 delakoari egindako alternatiba indigena bezala ulertu dezakegu.

Azkenean, 2005an Norwediak harturiko aitzindaritzari Guatemala eta Mexiko gehitu zitzaizkion eta gauzak aurrera egin zuten ustekabeko moduan. Indigena eta Estatuaren³⁷⁰ kontsultak areagotu egin ziren eta azkenik urte honetan HIGEAren inguruko blokeoa gainditu

³⁶⁹Bigarren hamarkadak honela dio: “The finalization of negotiations on the Draft Declaration on the Rights of Indigenous Peoples and its adoption early in the Decade should be a priority for the Second Decade. The draft shall not fall below existing international standards. Consideration may be given to innovative methods for the Commission on Human Rights Working Group on the Draft Declaration” (United Nations General Assembly, 2005).

³⁷⁰ Prozezu honetan lagundu zuten Estatuaren artean aipatu ditugun hiru hauei Espainia, Dinamarka, Noruega, Estatu Baltikoak eta Suiza gehitu behar dizkiogu (Åhrén, 2007:97). Baita ere

VI. KAPITULUA:
HERRI INDIGENAK GIZA ESKUBIDE UNIBERTSALEN BIDETIK

egin zen Chavez Lan Taldearen presidentek bere proposamena³⁷¹ aurkeztu egin zuenean. Korapilo diplomatikoa askatzeko ahalegin honetan Mexikoko ordezkariak eragin ikaragarria izan zuen. Berak “*Taller internacional sobre el Proyecto de Declaración de las Naciones Unidas sobre los Derechos de los Pueblos Indígenas*”³⁷² delako tailerra antolatu zuen, berau ezinbestekoa izan zelarik aditu, gobernu ordezkari zein ordezkari indigenen kontribuzioak bateratzeko. Lorturiko giro berriaren adibidea “herri indigena” deituraren onarpena izan zen

Esta discusión se vio favorecida por la reciente adopción por parte de los Jefes de Estado y de Gobierno, del documento final de la Cumbre Mundial 2005, en el marco de la Reunión Plenaria de Alto Nivel de la Asamblea General de Naciones Unidas, el cual consolida el reconocimiento del término pueblos indígenas, y refrenda el compromiso con los derechos humanos de los pueblos indígenas. (Taller Internacional, 2005:3).

Hurrengo urtean, 2006an, HIGEAri buruzko Lantaldearen presidentea Chavez-k kontsentsu dokumentu bat aurkeztu zuenean³⁷³. Proposamen honek Laugarren Munduaren onarpena eta gobernu askorena erdietsi zuen. Chavez-ek egindako dokumentu horren defentsak helburu zehatza zuen: CANZUS taldeko Estatuak zuten mesfidantzak kentzea, eta argi uztea gorengo helburua Estatu eta herri indigenen artean harreman berri eta eraginkorra ezartzea zela³⁷⁴.

Nazioarteko lobby³⁷⁵ ekimen handi baten ondorioz 2006an Batzarrak onartu zuen zirriborroa aurkeztu zuen. Urte honetako ekainaren 29an³⁷⁶ Giza Eskubideen Komite berriak onartu egin zuen HIGEA³⁷⁷: 30 boto alde, 2 kontra³⁷⁸ eta 12 abstentzio³⁷⁹.

³⁷¹ Indigenen jarrera eta proposamenez jabetzeko bide. Documento presentado por indígenas organizaciones sobre la “Disposiciones Generales” del Proyecto de Declaración de la ONU sobre los Derechos de los Pueblos Indígenas (E/CN.4/2005/WG.15/CRP.2). Documento presentado por indígenas organizaciones sobre la necesidad urgente de mejorar el proceso de elaboración de normas de la ONU, Importancia del criterio de “Coherencia con el derecho internacional y su desarrollo progresivo” (E/CN.4/2005/WG.15/CRP.3) - Documento presentado por indígenas organizaciones sobre el derecho de los pueblos indígenas a la restitución (E/CN.4/2005/WG.15/CRP.4). Observaciones y enmiendas a los artículos examinados del proyecto de declaración sobre los derechos de los pueblos indígenas y la introducción de nuevos párrafos en la parte dispositiva, formuladas por el Movimiento Indio Tupaj Katari el Consejo Mundial por la Paz (E/CN.4/2005/WG.15/CRP.5).

³⁷² Taller internacional sobre el proyecto de declaración de las Naciones Unidas sobre los derechos de los pueblos indígenas” (Pátzcuaro, Michoacán, México, 26 - 30 de septiembre de 2005) (E/CN.4/2005/WG.15/CRP.1)

³⁷³ Chavez-en testuak egin zituen aldatetak antzemateko bide Díaz & Martín (2006) eta Eiden (2007). Aldaketa nagusia artikuluko 3.aren bertsio berria da. Hemen lotu egiten dira autodeterminazioa autonomia eta autogobernuarekin bizi direneko Estatuaren barruan.

³⁷⁴ Regino & Torres (2006) honela deskribatzen dute “He explained that the Declaration does not contain any threats for States in terms of their territorial integrity and article 46 is very clear in this respect. He said it would not be possible for the Declaration not to be ambiguous, but this is a virtue rather than a defect. He added that the Declaration does not codify preferential rights, but recognises specific rights aimed at protecting a vulnerable social group. He states that it is not a consensual text, but this should not be reason for concern in the human rights field, as it is increasingly difficult to reach unanimity in these matters. In the face of this situation, he said the most important thing is to make the decision to support indigenous peoples. For this purpose, he asked member States of the General Assembly to provide an overwhelming support for the Declaration. He finally said that States that have doubts regarding the Declaration will be reconciled with its content with time and in their everyday relations with indigenous peoples. The Declaration’s ultimate end is to create a new relationship between States and Indigenous Peoples”.

³⁷⁵ Ekimen hau errepikatu egin zen Batzar Orokorrena aldeko botoa eskatuz, Caucaus Indigena eta bera osostzen duten erakundeak bidali egin zituzten aldeko botoa eskatzen zuten testuak NBEan ordezkari finkoak dituzten Estatuak. Adibide bezala bide Union of BC Indian Chiefs (2006)

³⁷⁶ Jarraipen sakonago bat egiteko bide doCIP (2006).

³⁷⁷ Honela dio UNOG-k: “The United Nations Declaration on the Rights of Indigenous Peoples says indigenous peoples have the right to the full enjoyment, as a collective or as individuals, of all human rights and fundamental freedoms as recognized in the Charter of the United Nations, the Universal Declaration of Human Rights and international human rights law. Indigenous peoples and individuals are free and equal to all other peoples and individuals and have the right to be free from any kind of discrimination, in the exercise of their rights, in particular that based on their indigenous origin or identity. Indigenous peoples have the right of self-determination. By virtue of that right they freely determine their political status and freely pursue their economic, social and cultural development. Indigenous peoples have the right to maintain and strengthen their distinct political, legal, economic, social and cultural institutions, while retaining their rights to participate fully, if they so choose, in the political, economic, social and cultural life of the State” (UNOG, 2006).

³⁷⁸ Kanada eta Rusia izan ziren kontrako bozka

NBEn Mexicok duen ordezkariak Enrique Berruga Filloy-k HIGEAK ez zuela Estatuaren batasunaren aurka inolako mehatxurik suposatzen aldarrikatu zuen.

It is important to point out that the declaration is, in many ways, recognition of provisions which already exist in numerous national legislations such as the case of the Mexican Constitution. It is also essential to say that, because this sometimes creates confusion, that it contains all of the necessary safe guards to preserve the integrity and institutions of nation states. Politically speaking this declaration enjoys a very broad support within the international community and most importantly from the vast majority of the world's Indigenous Peoples (en Burchett, 2006).

Jarrera eta iritzi berbera zuten beste Estatuak aldeko dokumentu bat sinatu zuten (Caucus Indígena, 2006). Antzeko ekimenak bultzatu zituzten Foro Iraunkorrek (Economic and Social Council, 2006) eta Stavenhanguen Errelatoreak. Hala ere, CANZUSEk bere aldetik lobby gogorra egin zuen eta askoren ametsak huts-hustean gelditu ziren 2006ko Azaroaren 28an, askorentzat Batzar Nagusian onartua izango zenaren egun berean, 380, Bostwana eta Namibiako 381 gobernuek 382, Afrika ordezkatzuz 383, onarpena atzeratzea lortu zutenean 384. Azkenean 82 boto alde, 67 kontra eta 25 abstentzio. Gauzak horrela atzeratu egin zen erabaki eta adostu zen 61 sesiorako aurkeztuko zitzaizola erabakia Batzar Nagusiari.

Herri indigenek tristeziak hartu zuten erabaki hau. Maniobra honek oztopo serioa izateaz gain leioa zabaltzen zion debatea berriz irekitzeari eta HIGEA berridazteari. Horrek suposatzen zuen Kontseiluak onartu zuena baino testu ahulagoa bat izatea. Arriskua hortxe egonda ere, garaia zen lorturiko kontzertuen gainean ekimen paradiplomatiakoari berriz hasteko eta testuaren aldeko sostengu indartsua erdiesteko (Coulter: 2006). Azkenean nazioarteko testu indartsuago baten aldeko ekimen paradiplomatiakoari ekin zioten. Indigenak kontaktuak izan zituzten gobernu ordezkariekin, baina izandako "kotsultak ezin zutela HIGEAri buruzko lantalde berri bat ezartzeko erabili argi utzita. Kotsultak Laugarren Munduaren partaidetzarekin egin behar zirela, Giza Eskubideen Kontseiluak egindako lana indartzeko eta ezin zirela 2007ko iraila baino gehiago luzatu (Indigenous Caucus, 2006) defendatu zuten. Kotsultak laguntzeko Batzar Orokorraren presidentak Filipinako enbaxadorea Davide, izendatu zuen. Honek jarrera kontrajarriak zituzten Estatuaren arteko kotsultak laguntzen aritu zen diferentziak gutxitu eta akordio batera heldu asmoz.

Afrikarren ustekabeko ezetzak Laugarren Munduaren paradiplomaziaren barruan bizi izan den garai inportantetariko bati hasiera eman zion. Erantzun honetan Afrikako Estatu batzuk, mundu osoko herri indigenen ordezkariak eta GKEak, Caucus Indígenaren, koordinazio pean,

379 El texto IWGIA (2006) Estatuaren jarrerak eta Caucus Indigenaren azken aldarrikapena deskribatzen du.

380 Resolución (L.18/Rev.1).

381 Para profundizar en la postura mantenida al respecto por los estados africanos bide Assembly/AU/Dec.141 (VIII)

382 Herri afrikar hauek CANZUS argumentazioa euren eginez, definizioari buruzko arazoak, autodeterminazioarekin loturiko desadostasunak eta antzekoak erabiliz testua berriz eztabaidatzeko denbora eskatu zuten.

383 Resolución (A/C.3/61/L.57/Rev.1).

384 Resolución /Assembly/AU/DEC.141 (VIII).

Geneva eta New York-en kontaktuak izan zituzten, Estatu Afrikarrekin eta HIGEAren aldeko Estatuekin, hauek “*co-patrocinadores*” bezala ezagutzen zirenak. Afrikarrek zituzten kezkei erantzuten aritu ziren, baina argi utzita ez zutela aldaketarik onartuko jatorrizko testuan. Giro honetan ekimen pedagogiko interesgarri bat burutu zen HIGEAren alde, sostenguak lortzeko eta zeuden oztopoak bidetik kentzeko³⁸⁵.

Ahalegin paradipomatiko honen alde jokatu zuen faktore inportante bat honako hau zen: ustez “Afrikarren jarrera” ez zen Estatu guztiena, Hego Afrika, Kamerun eta Zambia aldeko botoa eman eta Argelia, Ghana, Marruecos, Nigeria, Senegal eta Tunez abstenitu egin baitziren. Debatea gertatu zenean NBE Estatu batzuk HIGEAren alde agertu eta kontra zeudenen jarrerari aurka egin zioten. Baina horrelako asmoek ezin izan zuten nabaria-nabaria zen gertakari baten eragina aldatu: ia Afrikako Estatu gehienek ez zuten parte hartu HIGEAren inguruko eztabaida luzean, eta HIGEAren puntu batzuen inguruan zalantzak eta beldurrak zituzten. Beldur eta kezka hauek Aide Memoire³⁸⁶, izeneko dokumentuan bildu ziren. Kezka hauek Batasun Afrikarren 2007ko urtarrileko biltzarrean batu ziren eta deia egin zien Afrikako Estatuei onarpenaren kontrako botoa ematera³⁸⁷. Egoera sakonki aztertu ondoren Laugarren Munduak argi ikusi zuen Afrikarren kezka asko ezjakintasunaren ondorio zirela³⁸⁸ Aide Memoire delakoari erantzun asmoz, Afrikako 6 adituez osaturiko talde batek, IWGIAren laguntzarekin, New York-era joan ziren 2007ko apirilean, 19 enbaxada afrikarrak bisitatu asmoz eta HIGEAri buruz eztabaidatzeko. Halaber, IWGIA-k Foroarekin batera mahai inguru bat antolatu zuen Afrikako Estatuak zituzten ordezkari finkoekin eta beste Estatu batzuetako ordezkariekin. Ekimen guzti hauekin batera, “Afrikako Herri Indigenen Koordinazio Komiteak” (IPACC) antolatu egin zuen Aide txostenari erantzun kritiko³⁸⁹ bat, Afrikako Estatuaren kezkei erantzunez.

Indigenek antolaturiko presio arrakastatsu honen ondorioz, Giza Eskubideei buruzko Komisio Afrikarrak HIGEAri buruzko eztabaida izan zuen 2007ren maiatzean Ghana-n egindako 41. saioan. Komisioak HIGEAren aldeko botoa eman zuen Afrikako Giza Eskubideen kartarekin bat zetorrela kontsideratuz. Gainera adituez osaturiko delegazio batek bisita egin zien Kamerun, Erta Afrikako Errepublikari, Kongoko Errepublikari eta Burundiri HIGEAren aldeko jarrera sustatuz.

2007aren maiatzean, Estatu afrikarrek NBEko Batzar Orokorreko presidentari HIGEAri egindako emendakina sorta bat aurkeztu zioten, bertan 30 aldaketa baino gehiago agertzen

³⁸⁵ Caucus Indigena-k izandako sostengu eta honen martxan jarritako ekimenaren ikuspegi bat izateko bide <http://www.ipcaucus.net/>

³⁸⁶ Bide Grupo Africano (2006).

³⁸⁷ Bide African Union Organization (2007).

³⁸⁸ Arazo ziren auzioak herri indigenen definizioekin, autodeterminazioarekin, baliabide eta lurraldearen jabearekin, erakunde politiko eta ekonomikoaren ezarpenarekin eta Estatuaren batasunarekin loturik daude.

³⁸⁹ Indigenous Peoples of Africa Coordinating Committee (IPACC) (2007).

zirelarik. Bai erakunde indigenek zein aldeko Estatuek ezetz borobila eman zioten proposamen honi. Hauek ostera Kontseiluan onetsi zen HIGEAren onarpenaren aldeko proposamena egin zuten eta saiatu egin ziren afrikarrek Estatuen batasunari zituzten kezka argitzen.

Gauzak horrela eta bizi zen blokeo egoera kontuan izanik, argi zegoan 61. Batzar Orokorrerako adostasunik ez bazegoen, CANRZUS (CANZUS+Rusia) taldeak, berriz ere, HIGEAren inguruko eztabaida berriz eraikitze aukera zuela. Honen aurrean HIGEAren aldeko Estatuek (Guatemala, Mexiko eta Peru) ekimena hartuz posibilista zen irtenbide bat aurkitu zioten egoera latz honi. Hau ez zen Laugarren Munduko guztien gustuko izan³⁹⁰ baina posiblea egin zuen 2007ko irailaren 13an HIGEA onartzea. Azken fase honetan Laugarren Munduak ez zuen inolako partaidetzarik izan afrikarrek eta HIGEAren aldeko Estatuek mantendu zituzten negoziazioetan, ezta ere Batzar Orokorrean izandako bozkan.

Hasierako egoera oso konplexua zen. Afrikako blokea bere ezetza eman balu HIGEAri ez esatea ofizialki suposatuko zukeen, indigeneen ikuspegitik kontrolatzeko zaila zen egoera bati atea zabalduz. Estatu afrikar eta “*co-patrocinadores*” delakoen arteko negoziazioek lortu egin zuten 30tik 9 emendakinetara pasatzea: (4) aldaketa hitz aurrean eta (5) artikuluetan. Artikuluetan inportanteena Estatuen batasunari erreferentzia egiten ziona zen. Honen truke

...quedaron sin enmiendas todas las disposiciones claves incluyendo las sobre los derechos a la tierra y recursos, a la libre-determinación, consentimiento libre, previo e informado y a los tratados” (Comité Directivo del Conclave Mundial de los Pueblos Indígenas, 2007).

Halaber, HIGEAren aldeko Estatuek baieztatu egin zuten adostuta zegoela bloke afrikarrak ezetza emango ziola Kanadak edota beste edozeinek aurkezturiko emendakinei. Proposamen hau Caucus Indigenari aurkeztu zitzaion, hau saiatu egin zen bi emendakin sartzen baina ez zen horrelakorik onartu. Estatuen arteko akordioak kinka larrian jarri zuen Laugarren Mundua: Akordio testuak 46. artikuluan onartzen zuen batasun printzipioarekin oso ados ez bazeuden ere, ez zituen ukitzen autodeterminazio, lurra, lurralde eta natur baliabideei, aurreko adostasun, libre eta informatu eta, azkenik, hitzaurrean agertzen ziren paragrafoak non herri indigenei dagozkion berezko eskubideak eta berdintasuna onartzen zaizkien. Gainera, edozein aldaketa sustatzea dinamika arriskutsuan sartzea suposatzen zuen.

...los Co-Patrocinadores manifestaron que el acuerdo se tiene que entender como un conjunto o “un paquete”. Eso significa que si el grupo de Co-Patrocinadores se reúne otra vez con el Grupo Africano para intentar renegociar el texto sobre integridad territorial, el Grupo Africano de inmediato contestaría que quiere abrir y renegociar los artículos sobre tierras y recursos naturales, los cuales en el acuerdo final quedaron sin cambios al texto aprobado por el Consejo de Derechos Humanos. Por lo tanto en la opinión del Grupo de los Co-Patrocinadores intentar cambiar el texto acordado no es una opción viable para los Pueblos Indígenas. Ahora los Co-Patrocinadores quieren saber si los Pueblos Indígenas pueden aceptar o no la Declaración con las enmiendas negociadas” (Comité Directivo del Conclave Mundial de los Pueblos Indígenas, 2007).

Egoera konplexu honetan, Laugarren Munduak hiru egun bakarrik izan zituen zirt ala zart

³⁹⁰ Ikuspegi kritiko batetaz jabetzeko bide American Indian Law Alliance (2007)

egiteko. Asia, Europa eta Karibeko Estatuon baietza eta orain Afrikanoea izanik onarpena segurtaturik zegoen. Testua Laugarren Mundua osotzen duten 7 lurraldeetara bidali zen eta kontzentzuz Asia, Asia Pacífico, Africa, Artiko eta Errusia onartu zen. Ipar Amerika eta Latino Amerikan ez zen aho-batez onartu baina erakunde askok baietza eman zuten. Hector Huertas, Kuna aitzindariak horrela deskribatzen du une garrantzitsu hau:

Un proceso de consensos con tantos pueblos indígenas involucrados es tremendamente complicado y todos los que hemos participado del proceso conocemos esa realidad. El proceso de negociación implica a Pueblos Indígenas y también Estados por lo que, ha sido en sí, un proceso largo y dificultoso. El instrumento internacional de una declaración no tiene carácter vinculante, pero sí tiene una fuerza moral y proporciona principios y derecho a la labor interpretativa de nuestros líderes, organizaciones, y a las Cortes y el sistema de protección de los derechos humanos, por que va dirigida a los Estados. Por otro lado, aunque existen organizaciones que no concuerdan con las 9 modificaciones de la declaración existen 20 párrafos y 41 articulado que no fueron modificados y que contienen también textos importantes de la declaración. Además, existen interpretaciones de abogados y expertos a favor que señalan que las modificaciones no destruyen los derechos contenidos en la declaración, si no que esos párrafos y artículos intactos ofrecen las garantías y protección” (Huertas, 2007).

Finan, HIGEA onartu egin zen 143 Estatuon baietzarekin. Aurka 4 (Canada, AEB, Australia y Nueva Zelanda) eta 11 abstenitu egin ziren (Azerbaijan, Bangladesh, Bhutan, Burundi, Kolombia, Georgia, Kenya, Nigeria, Errusiar Federazioa, Samoa eta Ukraina). AEB, Australia, Kanada eta Zelanda Berriaren ezetzak Laugarren Munduaren haserrea piztu zuen. Estatu hauek autodeterminazio, lurra, lurralde eta natur baliabideei, aurreko adostasun, libre eta informatuan zentratu zen (azken hau beto eskubide bezala ikusten baitzuen), jabego intelektual eta indigenen lege sistema onartzearen aurka agertu ziren. Latino Amerikako Estatu guztiek, Kolombia ezik³⁹¹, alde agertu ziren. Afrikarren artean Burundi, Kenya, Nigeria izan ziren abstentziora jo zuten bakarrak.

Onarturiko HIGEAK 46 artikulatu ditu, indigenek dituzten erakunde, kultura eta tradizio propioak babesteko eskubidea onartzen ditu, baita euren garapen propioa euren behar eta tradizioen arabera bilatzeko askatasuna. Herri indigenen eskubideak babesteko gutxieneko ereduak ezarten ditu, baita ere berezikeria eta bazterketa borrokatzeko, eskubide indibidual eta kolektiboez aritzen da. Gainera eskubide kulturalak, nortasuna hezkuntza, osasuna, lana, hizkuntza eta beste asko lantzen ditu. Halaber, Estatuekin harreman baketsu eta kooperaziozkoak mantzentzea sustatzen du eta defendatu herri indigenen osoko partaidetza euri dagokien auzietan. Izan ere, autodeterminazioa eskubidea onartzen du dauden Estatuon barruan “within existing Status”, eta autogobernuarekin lotuta, barneko arazoei mugaturik. Era berean gizon eta emakumeen arteko berdintasuna onartzen du. Ohiko lurren gaineko jabegoa eta bertan dauden baliabideen gaineko kontrola eta ingurumenaren kontserbazioa aintzat hartzen dituela. Baita ere, euren lurraldeetan ekintza militarretik libre gelditzeko eskubidea onartzen dute, salbuespen bakarra euren eskatuta ala egoera larrietan gertatzen denean. Azkenik, mugaz haratago dauden

³⁹¹ HIGEAⁿ agertzen ziren hainbat artikulatu euren konstituziaren hainbat artikuluen aurka zegoela esan zuen.

herri indigenekin harremanak izateko eskubidea aitortzen du.

Onarturiko testuak herri indigenen burujabetza onartzen du, barneko eta tokian tokiko auziei mugatuz bada ere. Osoko irakurketa batek erakutsiko digu autogobernurako tresna eta babesak bertan daudela, eurentzat funtsezko diren gaiak bere eraginpean egon beharko leudekeela aipatzen direlarik lurraldeen gaineko kontrola, eurengan ondorioak dituzten auzietan parte hartzea, kulturarekin loturiko auziak, hezkuntza edota ohiko jakinduriaren gaineko jabegoa, etab.

HIGEaren onarpena Tauli-Corpuz-ek dioskun bezala (Indigenous Peoples Indigenous Voices, 2007) Estatu eta Laugarren Munduaren artean, estreinakoz historian, lorturiko hizketaldi positiboaren ondorioa da. Laugarren Munduak suposatzen duen askotasunaren onarpenean eta nazioarteko zuzenbide justu eta iraunkorrago baten eraikuntzan aurrera emandako urrats bat.

The long time devoted to the drafting of the Declaration by the United Nations stemmed from the conviction that Indigenous Peoples have rights as distinct peoples and that a constructive dialogue among all would eventually lead to a better understanding of diverse worldviews and cultures, a realignment of positions and, finally, to the building of partnerships between states and Indigenous Peoples for a more just and sustainable world (Ibid.).

4.1 AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEARI BURUZ

Autodeterminazioa HIGEaren zein agenda eta ekimen paradiplomatikoaren indigenaren bihotz-bihotzean aurkitzen da.

From the right to self-determination flow the right to develop and maintain governing institutions, the rights to culture, way of life, and religion, and the right to sovereignty over ancestral land and natural resources (Sarfaty, 2002:1).

Funtsezko auzi honen inguruan amaiera gabeko debateak eta hika-mikak gertatu dira. Zalantzarik ez debate konplexu baten aurrean gaudela, nazioarteko Zuzenbidearen izaera politikoa ageri-agerian uzten duen (McKay, 1999) horietakoa, hain zuzen.

Aurreko bi mendean autodeterminazioa eskubidea nazioen inspirazioa eta inperioren porrota izan dela ezin ukatu. Ez da posible XX. mendeko historia eta gaurko nazioarteko erkidegoa ulertu autodeterminazio eskubideak izan duen garrantziari erreparatu gabe. Munduan dauden 194 Estatuetatik ehunetik gora autodeterminazio eskubideari sor diote existentzia (Ryser, 1992).

Castellino & Gilbert (2003) autodeterminazioaren inguruko eztabaida arazoz beterikoa dela diote: batetik, arrakasta handia izan duen printzipio politikoa unibertsala delako, baina, bestetik, aldi berean bere aplikazioa, nazioarteko Zuzenbidearen arabera, oso-oso konplikatu delako. Are gehiago historikoki kontu handiz erregulatu izan dute Estatuak (Sanders 1991), nori aplikatu zaion, noiz eta nola asko zaindu delarik (Clavero 2003). Orain gutxi arte autodeterminazioatik kanpo gelditu izan dira indigenak helburua izan delako euren Estaturen lurralde batasuna eta eurek osaturiko nazioarteko erkidegoaren baretasuna babestea (Del Arenal, 2002). Horretarako bi mekanismo nagusi erabili dira: 1) “herria” eta eskubide honen subjektu

kategoria nori aplikatzen zaion asko zaindu dute (McKay, 1999)³⁹², eta indigenak “gutxiengoan” boltsa berean sartzen saiatu dira (Thornberry, 2002), eskubide kolektiboak daudenik ukatzen eta eskubide indibidualak bakarrik aplikatzen saiatu dira (Alvarez 2006; Oliva 2005). 2) eskubidearen erabilera nori onarten zaion ondo mugatzea “ur gatzituaren printzipioa” aplikatuz. Clavero-k (1997) gogoratzen duen bezalaxe asko dira diotenak autodeterminazio eskubidea kolonia diren herriei bakarrik aplikatzen zaiela, edota okupazio atzerritarra noziturik giza eskubide bortxaketa izugarriak pairatu dituztenei (Daes, 2002). Horrela herri indigenak dagoen tokietan Estatu independenteak sortzeko betarik ez zabaltzeko ahalegina (Clavero, 1994) burutzen da autodeterminazio eskubidearen ikuspegi mugatzailea nagusituz³⁹³ (Clavero, 1998).

Hari honi jarraituz, Estatuak herri indigenen eta gutxiengo nazionalen autodeterminazioa gataska eta Estatu apurketarekin lotzen saiatu egin dira (Brubaker, 1998) euren jarrera ezkorra justifikatzeko. Honen arabera herri indigenei autodeterminazioa onartuz gero “domino efektua” (Conversi, 1993) gertatu eta nazioarteko orekarentzat ondorio kaltegarriak izango lukeen “balkanizazioa” edota Moynihan-en “pandemonium” (1993) delakoaren atarian geundekela iragarri dute. Errealitate hau kontuan harturik, argi dago autodeterminazio eskubidearen aplikazioa oso zaila³⁹⁴ gertatzen dela, salbuespenak salbuespen, egun dugun nazioarteko erkidego honetan.

Indigenek ikuspegi hau azken bi hamarkadan gertatutakoa ikusi ondoren bere horretan mantentzea zaila dela argudiatzen dute (Ryser 1993; Morrison 1992; McLaughlin 1995; Léger 1994; Lipschutz 1992), eta salatu egiten dute eskubidea ukatu egiten zaiela gertatu ez den balizko apurketa baten izenean. Praktika politikoak bere errealitateak sortzen ditu eta Estatuaren parte izan zirenak gaur egun Estatu berriak dira, hots, Mendebaldeko Timor, Kosovo. Horrexegatik indigenek burujabetasuna indarrean jartzeko eskubidea aldarrikatu dute, nahiz eta jakin aditu askoren ustetan burujabetasuna/subiranotasuna Estatuak bakarrik dutela esan (Alvarez, 2008).

Estatuaren ikuspegi mugatzailea eta katastrofista izateaz gain, gehiegikeri bat eta oinarri gabeko analisia dela uste du Conversi-k³⁹⁵ (1993), eta Laugarren Munduak beti kontsideratu dut traba egiteko ekimen baten aurrean gaudela³⁹⁶. Laugarren Mundua kreatibotasun handiarekin

³⁹² Mekanismo hau Estatuaren klubea berrien sarrera kudeatzeko baliabide bezala erabili izan da horrexegatik 169 itunaren inguruan eta ordutik nazioartean indigenak agertu diren foroetan gertaturikoak, Sren polemika izenez ezaguna ingelesez People vs PEOPLES.

³⁹³ Ikuspegi honen arabera Estatu bateko populazio osoa, gehinetan Estatuaren kontrolatzen duen talde nagusia, da subiranotasunaren sujetoa, eta hau ezin da banatu barruan bizi diren herri/nazioen artean.

³⁹⁴ Van Cott (1996:51) sakonsu egiten du honetan. “The application of a right to self-determination to Latin American Indians is questionable on several important grounds: a tradition of international law of a territorial rather than an ethnic or cultural definition of peoples; an affinity in international law for individuals rather than less-defines and accepted collective rights; the historical context of self-determination law, which is explicitly European and postcolonial; and a strong balancing principle of nonintervention in the internal matters of nation-states in UN legal instruments.

³⁹⁵ Egile honek ez du “domino efektuan” sinisten. Bestalde apurketa egiteko orain arte gertaturiko ahalegin arriskutsu bakarrak 2008an Bolivian gertatu dira, honen protagonista herri indigenen eskubideen aurka altxatu den elite ez indigena izanik.

³⁹⁶ Anaya (1991:35) funtsezko gaiari heltzen dio hemen: “The absolutist view of self-determination moreover misses the principle’s essential thrust, which is not fundamentally about exercising a one-shot choice for some degree of “sovereignty” but, rather, is about securing for individuals and groups a political order that promotes a

erantzunez, Estatuak hezteko ahaleginean beldurrak uxatzen aritu da, eta benetan zer nahi duten erakutsiz (Coulter, 2006).

Laugarren Munduak arrakasta izan du euren kasua deskolonizazioaren onuradunekin lotzen, hauek ere konkistatuak izan ondoren euren lurren kontrola galdu zutelako. Munduko beste edozein nazioei aitortzen zaien bezalaxe NBERen Kartan zein 1966ko Eskubide Politiko Zibilak, Ekonomikoak, Sozialak eta Kulturalen Itunean herri indigenei ere autodeterminazio eskubidea dagokiela baietsi du Laugarren Munduak. Kontrakoa munduko herri ala nazioen arteko berdintasun printzipioa haustea litzateke (Anaya, 1996) eta portaera honetan giza eskubideen aurkako jarrera eta historikoki pairatu duten arrazakeria indarrean dagoela erakutsiko zukeen³⁹⁷ (Daes, 2001). 1966ko Itunen 1. artikulua dela gogoratu eta herri guztiei dagokiona izanik HIGEAren oinarria zela printzipioari atxiki diote, bai 1 (a) erabakitze eskubideari buruz zein 1 (b) baliabide naturalen kontrolari buruz.

Honekin indigenek nazioartean nagusi den aurreiritzi Estatuazalea eta eurozentrikoa salatu dute eta apustu globalista egin. Euren aburuz debatea ezin da Estatu zale eta Estatu-zatikatzailen artean banatu. Mindek (2007) ondo deskribatzen du hau ondoko parrafoan Laugarren Munduko ideiaaren aitzindariaren pentsamendua.

Manuel underlined that the movement was “a global village” where the indigenous and the States could not “go entirely our separate ways” ...He therefore dissociated himself from the secessionist rhetoric, probably because he realised “the Aboriginal world is almost wholly dependent upon the good faith and morality of the nations of the East and West within which it finds itself (Ibid:18)

Are gehiago ikuspegi sezesionistaren sinplekeria eta faltsutasuna salatu dute indigenek (Léger 1994, Anaya, 1996; Buchanan 1991; Churchill 1992; Dyck, 1985). Manuel (1974), Morris (1992), Ryser (1993), Van Cott (1996) ala Churchill (1997), Gupta (1999) bezalako adituek argi utzi dute herri indigenek oinarritzko gizarte egiturak ez datozela bat nazioarteko erkidegoan nagusi diren nazio eta Estatuarekin. Ikuspegi hau neurri handi batean arrotza egiten zaie euren oinarritzko giza taldeak eta gizarte egiturak erabat ezberdinak direlako³⁹⁸. Hala ere, euren talde eskubideak defendatzeko nazioarteko erkidegoan aski ezaguna den herri/nazio deitura aukeratu

perpetual condition of freedom. In the decolonization context independent statehood was not as much an end it was the means for achieving conditions of human dignity

³⁹⁷ Kasu honetan nazioarteko diskurtsoari ez ezik nazioarteko praktika eta hurbileko historiari begirada bat bota beharko genioke. 1990ko hamarkadan asko izan dira autodeterminazioa eskubidea erabiliz askatu diren nazioak. Herri Baltiko ala Ukraniaren kasuan Estatu baten parte zirenak independenteak bihurtu ziren bertako herriek horrela erabaki zutenean. Harturiko delibero hau onetsi egin zuen nazioarteko erkidegoak. Adibide honi helzten diote Laugarren Munduko herriek berdintasuna eta diskriminazio eza eskatzen dutenean.

³⁹⁸ Egile indigena ezberdinek ikuspegi kritikoz begiratzen diote egungo nazio-Estatu sistemari eta hau Europarren sorkuntza dela esaten dute. Euren iritziz gizarte egitura hauek ez datoz bat herri indigenek sorturikoekin. Indigenen kasuan ahaidegoa, tribua ala konfederazioak aurkitu daitezke errazago. Euren egitura politiko-soziala ezberdina da eta geuk Nazio-estatuak suposatzen duen zentralizazio eta batasunetik urrun daude. Hala ere, inguruan duten errealtateari moldatu nahian 1970tik aurrera diskurtso pan-indigenari jarraituz eta nazioarteko erkidegoan nagusi den semantikari moldatuz nazio identifikazioa gero eta gehiago erabiltzen ari dira. Morris-ek (1992b) zentzu kultural eta politikoa hartu behar dela diosku. Autodeterminazioaren inguruan dagoen eztabaida baretu nahian Morris (1992b), Anaya (1996, 1999), Ryser (1992) ala Barh-ek (1996) nazio eta Estatu kontzeptuak eta nazio bakoitzari Estatu bat dagokiola dioen pentsamendu nazionalista arrotza zaiela eta herri indigena gehienak kategoria hauek baino harreman berria nahi dutela diote. Harreman honen sustraian autodeterminazio eskubidea ulertzeko modu berri bat dago.

egin dute (Buchanan, 1993) egokiena baina ez hoberena³⁹⁹ zelako.

Estatuek erabilitako argudio nagusiari buelta emanaz autodeterminazioa gatazka sorrerarekin lotzea baino gatazka prebentzio eta konponketarekin lotu dute indigenek: hain zuzen, autodeterminazioa⁴⁰⁰ herri indigenak eta Estatuak aurrez aurre jarri dituen hainbat gatazka konpontzeko eta prebenitzeko tresna eraginkorra dela diote indigenek (Enriksen, 1999; Tauli-Corpuz 1999; Anaya 1999; Keating 1999; Jauregi 1999; Léger 1994). Indigenek euren estrategian burujabetasuna eta independentzia gauza ezberdinak direla erakutsi dute, eta euren kasuan, salbuespenak salbuespen, bilatzen ez dena. Pilatu ditugun ebidentzia guztiek argi uzten dute ez dela independentziari buruz. Bide beretik Claverok (2002) HIGEA ez duela independentzia bilatzen baieztatu du.

El proyecto no prevé que dicho derecho pueda ahora ejercitarse en la dirección de formarse un Estado independiente. En tal caso, no habría reconocimiento ni garantía por parte de Naciones Unidas de no proceder la aceptación por el Estado correspondiente. Las previsiones del proyecto van en otra línea, la de unas autonomías de los pueblos indígenas con dicho reconocimiento y dicha garantía del orden internacional por determinación siempre ahora, en la medida tanto del autogobierno propio como de la relación con el Estado, de los mismos pueblos, no de los Estados (Clavero, 2003:NET).

Jarrera honen erakusle da 1994ko HIGEAren 45. artikuluan Estatu zatiketa sahiesteko den 1970 Nazioen Arteko Harreman Adiskidetsuen Hitzarmenari egindako erreferentzia. Gauzak horrela, ikuspegi indigena batetik, autodeterminazio eskubidea duintasunezko (Anaya, 1991), benetako berdintasunezko eta diskriminazio ezari buruzko auzia da, iraupen kultural, etniko eta ekologikoarekin loturik dagoena (Tauli-Corpuz, 2001), Estatu eta nazioarteko erkidegoaren zilegitasunaren oinarriak kuestionatu eta proposatzen duena eta erabaki eremu indigena baten sorrera defendatu. Proposamenak estatua zentro duen mundu sistema batetik nazioa zentroa duen sistema batetara pasatzeko iraganbideak eraikitzea du helburu. Hau “*consent of the colonized via nation-to-nation*” (Short, 2002) filosofian oinarrituz erdietsiko litzateke. Ideia hau HIGEAren bihotzean aurkitzen da.

El conjunto de la declaración sólo tiene sentido si lo que se está previendo es esto, el mantenimiento de unas comunidades, las indígenas en el interior de unos estados, los actuales, en cuya virtud viene a registrarse la serie de derechos. Por el mismo derecho de autodeterminación, son las propias comunidades y no los estados ni tampoco unas instituciones internacionales quienes podrán adoptar la decisión correspondiente de permanencia en un estado o de constitución de uno propio. El mismo texto puede verse que reitera esto con un inciso de opción indígena cada vez que se refiere a la participación en instituciones estatales (Clavero, 1994:88).

Beraz, argi eta garbi herri indigenen helburua protodiplomatikoa eta era berean barneko autodeterminazioaren aldeko Estatu jarrerak agertzen hasi ziren. Eiden-ek (2006:52) zergatia esplikatzen digu: 1998-1999 tartean gobernu batzuk autodeterminazio izena erabili egin zuten

³⁹⁹ Cornassel-k (2003) honekin bat egin eta nazio, Estatuarekin batera herritasuna/peoplehood onartzea proposatzen du honek hobeto erantzuten baitio Laugarren Munduaren errealtateari

⁴⁰⁰ Gatazka prebentzioa gai inportantea da herri indigenen agendan eta autodeterminazioarekin estuki lotuta aurkitzen dugu. Gatazka hauetan indigenak eta euren populazio zibilak dira biktima gehien bat Guatemala, Timor, Peru, Kolonbia eta beste hainbat kasuetan horrela erakusten digute. Bortxa Estatuak, gerrillek zein kolonoek jarri dute martxan eta herri indigenek euren iraupenerako duten arrisku larriena da. HIGEA bortxatik eta genozidio zein etnozidiotik aske daudela ziurtatzeko hainbat artikulua aurkituko ditugu. Gatazka prebentzio aktiboari lotuta defendatzen dute autodeterminazioa.

herri indigenekin zeuzkaten harremanak izendatzeko. Hau dela eta Batzordeak eskatu egin zien Estatu hauei informazio gehiago barne autodeterminazio politikei eta onuradunei buruz. Elkartruke hauen bitartez, diosku aditu honek, 1966ko konbentzioaren 1 eta 27 artikulua lotzen zituen barne autodeterminazioari buruzko kontzientzia zabaldu egin zen. Aurrerakuntza honetaz jabetzen ziren indigenak baina ez zuten alboratu nahi Estatu batek bere populazio indigena gizagabeki tratatzen duen kasuetan Estatuarekin apurtzeko aukera. Gainera Daes-ek (2000:67) beste arrazoi boteretsu bat mahai gainean jarraitzen du: autodeterminazioarekin negoziatzeko indartsua den posizio batetik heldu behar diotela Estatuarekin duten harremanari uste dute indigenek. Posizio honetatik konfiantzazko harremana garatu dezaketela Estatuekin pentsatuz. Baina ez dute ahazten Estatuekin izandako harremanetan nagusi diren porrotak, eta ikasi egin dute Estatuengan ezin dela konfiantza askorik izan. Gainera Estatu batzuekin akordiotara heldu direnean hurrengo Gobernuak hauek bertan behera utzi ditu. Ikasi egin dute gobernuak eta baita konstituzioak aldatu daitezkeela eta negoziaturikoak ezerezean gelditu. Horrexegatik bilatzen dute nazioartean ospe eta oihartzuna duen autodeterminazioan bilatu dute euren interes eta posizioaren bermea. Funtsean Estaturen blokeari aurre egiteko eta zinez eta borondate honez negoziatzera behartzeko tresna da autodeterminazioa. Honen bidez, nazioarteko bitartekaritza bilatzen da Estatuaren hegemonia mugatzeko eta parekoen arteko paktua sustatzeko. Estatuak ez badu negoziatziorik nahi eta blokeatzen edota fede txarrez egiten badu negoziazioa hau horrela ikusi eta horrela geldi dadila munduaren aurrean bilatzen dute indigenek.

Helburua beraz, Estatu naziobakardunetik Estatu nazioanizdunera pasatzea da. Hemen datza gakoa, Caucus Indigenak argi erakutsi duen bezalaxe. Eztabaida osoa ezin da inolaz ere artikulatu batean finkatuz egin, HIGEA-n agertzen diren artikulua guztiak bere osotasunean hartuta interpretatu behar dela defendatu zuten⁴⁰¹. Are gehiago, autodeterminazio eskubidea sailetan eta auzietan apurturik HIGEA osoan dago barreiaturik.

Honetaz jabetuz, herri indigenek proposamena egin diote nazioarteko erkidegoari aniztasun etnikoa kudeatzeko bide berriak proposatuz. Independentzia bilatzen dutela diotenei ko-dependentsiaren⁴⁰² debatea proposatu diete; hau da, Estatuekin pareko bezala jokatzuz, beraiekin batera munduak bizi dituen arazoei aurre egiteko eta elkar bizitzeko marko berria eraikitzea⁴⁰³.

401 Honela zion: "...the Indigenous Caucus issued a statement recommending inter alia that the working group focus on Articles 3, 31 and 36: "...the whole UN Declaration on the Rights of Indigenous Peoples must be viewed from Article 3, our right to Self-Determination. Articles 31 and 36 are related articles that help clarify this fundamental right of 'all Peoples'" (DoCIP, 2002:NET).

402 Interdependentsiaren diskurtsoa globalizazioak dituen arazoei aurre egiteko nahiko hedatuta dago Estatuaren artean. Arazo ekologikoak, terrorismoa, droga trafikoa, HIES izurritea etab. Estatuak banaka konpontzeko ezintasuna. Indigenek ideia honi helduz Estatuekin batera nazioak ere egon daitezkeela gogoratu digu eta ko-dependentsia bultzatu harreman berria elkarlana eta interes batasuna aurkezteko. Diskurtso berri honekin independentzia-Estatu batasunak duen suma-huts kutsua apurtu egiten da eta independentzia-dependentsia harremanaren alternatiba den ez suma-huts den egoera bat planteatuko zaigu. Ikuspegi alternatibo honetan aktore guztien existentzia, elkarbizitza eta eragina posibleak dira eta aktoreek ez dute nortasun eta lurraldearen zein bertan dauden baliabideen gainean monopolioa inposatzeko borrokarik sortuko eta Estatu multinazionalaren bidetik joko dute.

403 Shortek (2002) Tully-k (2000) auzketzen duen "treaty federalism" aukera defendatzen du etorkizunerako. Proposamen honek herri izaerari loturiko jatorrizko

Proposamen honekin indigenek besteekiko zer dependentzi maila izango duten erabaki nahi dute, elkar mendetasunaren ondorio ezkorrek kudeatu eta baikorrak sustatu (mutual dependence).

Estatuekin zein nazioarteko erkidegoarekin harreman berria hasteko eta azken 500 urteetako herentzia beltza atzean uzteko, ezinbestekoa zen autodeterminazio eskubidea onartu eta sustatuko zuen marko berria zabaltzea (Franke, 2007). Harreman berria adiskidetasuna berreraikitzeke eta geografikoki hurbil dauden herrien arteko errekontziliaziora⁴⁰⁴ heltzeko bidea izanik.

Errekontziliazioan aurrera egiteko ezinbestekoa Estatu barneko aldatetekin batera nazioen arteko itun berrira heltzea herri hauen eskubide ekonomiko, politikoa, sozialak eta kulturalak onartu eta sustatzen dituen nazioarteko marko berria ezarri⁴⁰⁵ (Menchu, 2000). Menchu-ren ustez iraganeko gaitzak sendatuko duen alternatiba nazioarteko legediari errespetua erakutsiz lortu behar zen. Nazioarteko legediak errekontziliaziorako markoa izateaz gain lorturiko itunaren babesa eta zaindaritza funtzioak beteko lituzke. Honekin bat dator Morris (1980) eta autodeterminazioan oinarrituriko harreman berria lortzeko asmoa dagoela HIGEAn azpimarratu zuen Chavez-ek 2005an bere testuaren defentsa egin zuenean (Regino & Torres, 2006). Era honetan bakarrik amaituko delako Estatuaren baitan diren herri indigenek pairatzen duten barne kolonialismoarekin eta nazioartean izan duten estalketarekin.

The maintenance of international peace will only be obtained if the relations between States, peoples and cultures are based on an unrestricted respect for International Law and for the principles of non-intervention and self-determination of all peoples. International relations must be based on true independence and equality, and they must be just and democratic (Morris, 1980: 9-10)

Honetan datza indigenek defendaturiko autodeterminazioaren benetako indarra. Beste eskubide askoren garapenez aurrebaldintza da eta hauen oinarrian dago, eta horrela agertzen da Cobos Txostenean ala Sanders-ek 1981 aurkezturiko proposamenean (Minde, 2008). Vatikanok ere horren aldeko jarrera erakutsi zuen 1985an (Barsh, 1986:382) aurrekoekin bat eginez. Printzipio hau 1985 hasi eta 1994an onartu zen HIGEAn zirriborroan aurkitzen da.

Finean, autodeterminazioaren giblean zera dago tratatu zaharretan agertzen diren

subiranotasuna aintzat hartzen du eta kritikatu subiranotasun esklusiboa eta atea zabaldu berdinen arteko subiranotasun partituarri. "...is sensitive to the fact that indigenous peoples were 'independent political entities' at the time of colonisation, a status that has not been legitimately surrendered, and consequently the continuing imposition of settler state sovereignty is illegitimate. Moreover, Tully's approach replaces the false assumption that jurisdiction must be exclusive with two (indigenous) principles: free and equal peoples on the same continent can mutually recognise the autonomy or sovereignty of each other in certain spheres and share jurisdictions in others without incorporation or subordination....Essentially, this form of treaty federalism recognises prior and existing sovereignty not as state sovereignty, but, rather, a stateless, self governing and autonomous people, equal in status, but not in form, to the (settler) state, with a willingness to negotiate shared jurisdiction of land and resources"(Ibid.:NET).

404 Azken bolada honetan gatazka konponketaren ardatz nagusia bihurtu zaigua hau: "Reconciliation as a peacemaking paradigm emerged as an innovative response to some of the horrendous mass atrocities and human rights violations that marked the twentieth century. It was to provide an alternative to traditional state diplomacy and realpolitik that would focus on restoring and rebuilding relationships. To that end, reconciliation processes have set themselves the difficult task of 'balancing' and accommodating the often competing notions of truth, justice, vengeance and forgiveness that animate societal responses to atrocities and human rights violations" (Short, 200:24).

405 Modu honetan nazio gaituak izateari amaiera emango litzaioke. Errealitate honek egun indarrean dagoen Estatu barneko zein arteko marko politikoaren desegokitasuna erakusten du. NBE maila onartu egin da gaur egungo nazioarteko markoak ez diela herri indigenei behar bezala erantzuten. Marko berriak euren eskubideen eta euren buruen ordezkapena hobeto bermatuko luke eta irabazitako subjektu izaera aitortu.

eskubideak berriz indartzeko eta hauek ezartzen dituzten betebeharrak betetzea, batik bat, lurraren gainean, ehiza ala arrantzari lotutakoak (Deloria, 1981). Eskubide hauekin batera herri indigenek euren kulturak iraunarazteko beharrezkoak diren bitartekoak maila ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalean izatea eskatzen dute. Funtsean autodeterminazio eskubideak euren herriengan eta euren orainaldian zein geroan eragina izan dezakeen edozein prozesuan herri hauek partaidetza izango dutela, berdinak bezala tratamendua jaso eta kaltegarri gertatzen den orori ezetz borobila emateko⁴⁰⁶ eskubidea dutela onartzea litzateke (Taylor, 1989).

Modu honetan talde zein banakoen giza eskubideak hobeto babesteko, HIGEA onartzearekin batera Estatuaren eta berari loturiko egituraren birplanteaketa gertatu beharko da (Stavenhagen, 1998), indigenen partaidetzari tokia egin asmoz (Frank, 1998:79).

Ildo posibilista hau gehiago jorratuz eskubide honek bi alderdi nagusi dituela diosku Anayak (1996): (1) gobernua erabakitzeke ahalmena eta (2) garapen ekonomiko, soziala eta kulturala gauzatzeko tresna izatearena. Tullyk (2000) proposamen honi jarraituz indigenen eskaera laburbildu egin du ondoko testuan.

Indigenous peoples continue to exercise, without interference, their own stateless, popular sovereignty on the territories they reserve for themselves.

In return for non-interference on indigenous territories, the settlers can establish their own governments and jurisdictions on unoccupied territories given to them by indigenous peoples.

Indigenous peoples agree to share jurisdiction with the settlers over the remaining overlapping territories, treating each other as equal, self-governing, and co-existing entities and setting up negotiating procedures to work out consensual and mutually binding relations of autonomy and interdependence...subject to review and renegotiation where necessary, as circumstances change and differences arise (Tully, 2000:53).

Autodeterminazioa herri indigena bakoitzaren errealitate eta erabakitzeke gaitasunarekin lotuta dagoela onartuz, Laugarren Munduak azpimarratu du burujabetasuna erdiesteko modu asko daudela, bakoitza errealitate zehatzari erantzuten diona: ezin baitira guztiak txapel berean sartu (Churchill 1997:432).

Burujabetasuna⁴⁰⁷ gauzatuz herri indigena batek eskumen nahiko izango litzuzke bere iraupena ziurtatzeko, bere premiei erantzuteke zein igurikapenak asetzeke beharrezkoak diren bitartekoak eskuratzeko.

Self-determination implies the recuperation of, and control over lands and natural resources; over local and regional decision-making processes; over naming authorities and carrying out community services, education in their own language and re-evaluation of their autochthonous culture; and over the choice of

⁴⁰⁶ Beto botere honetan datza Estatuak euren subiranotasunean onartzen ez duten beste muga bat. Euren ustez Estatu barneko talde bati gobernuak egindako garapen planak gelditzeke boterea gehiegizkoa iruditzen baitaie. Bestalde, betorik gabe gehiengoaren interesa aitzakiatzat erabiliz gobernuak euren planak inposa diezazkieke indigenei. Hau horrela izan delako historian eta ondorioak tamalgarriak gertatuz indigenen eskubideak behin eta berriz urratu direlako beto boterea hain garrantzitsua dugu. LNE 169ak ezarri egiten du kontsulta egiteke beharra nahiz eta jarraitu botere nagusia Estatuari onartzen.

⁴⁰⁷ Horrela definitu dugu, modu zabalean, Laugarren Munduan aurkitzen dugun herri aniztasuna handia delako eta bakoitzak bere arazo, egoera eta tradizioari moldaturiko bidea aurkitu beharko duelako. Konplexutasunaren adibide bezala esan herri indigena askok ahaidegoan ala komunitatean aurkitzen dutela autoidentifikazio nagusia eta zatiketa dela nagusi. Ondorioz, kasu batzuetan autonomia eskatzen denean udal mailan eskatu dute batzuk pan-indigenistak direnean erregio mailakoa eskatzen duten bitartean. Autonomiaren eskakizunak planteatzen dituen konplexutasuna zehazteke orduan Yanner-ek (1998) Mexikoko kasua aztertuz erakutsi du. Hemen errealitate indigena modernotasunak sorturiko nazio-Estatu kategorietan itzultzeke zailtasuna ikusten da.

scientific, technological elements to be adopted for their communities' development (Blauert & Guidi, 1992:189).

Laburbilduz, urteetako lan latzari esker Laugarren Munduak erdietsi du Estatu beldurrak uxatzea eta heztea, informazio zuzena emanez (Coulter, 2006). Era honetan lortu egin dute autodeterminazio indigenaren inguruan iritzi aldaketa sustatzea eta sostengu zabal bat lortzea nazioarteko erkidego mailan⁴⁰⁸. Autodeterminazioa “within existing states” formulak beharrezko atxikimendua lortu, blokeoarekin amaitu eta HIGEAri bidea libratu dio.

Laugarren Munduak bere malgutasuna erakutsi du, baita ere kontsentsu berria lortzeko asmoa izan eta Estatu beldurrak uxatzeko formulak onartzeko deliberoa hartzerakoan (IWGIA, 2006). Onarturiko HIGEAk 1994koarekin konparatuta artikulua 3 eta 4k 1994ko 3 eta 31a birformulatuz autodeterminazioa autogobernuarekin lotzen du. Edonola ere, 46. artikuluan esandakoak ezin direla, inolaz ere, erabili herri indigenen eskubideak mugatzeko diosku Tauli-Corpuz-en (2007b) ondoko testuan.

Preamble Paragraph 16 confirms that the right of self-determination of “all peoples” is the right referred to in the Charter of the UN, the International Covenants on Civil and Political Rights and Economic, Social and Cultural Rights and Vienna Declaration and Programme of Action. The right of self-determination of Indigenous Peoples contained in Article 3 of the Declaration is the same right contained in international law. The reference to the Vienna Declaration and Programme of Action also affirms that the principle of territorial integrity found in Article 46 of the UN Declaration on the Rights of Indigenous Peoples only applies to the right of self-determination and not other rights. Furthermore, the Vienna Declaration and the 1970 Declaration on Principles of International Law concerning Friendly Relations and Cooperation Among States in Accordance with the Charter of the United Nations say that for States to invoke territorial integrity, they must be “conducting themselves in compliance with the principle of equal rights and self-determination of peoples (Ibid.).

Autogobernua beraz ez da muga autodeterminaziorako bera zehazteko modu bat baino⁴⁰⁹. Hari honetatik tiratuz, Estatu afrikarrekin gertaturiko eztabaida balio behar digu Estatu beldurrak behingoz uxatzeko. Era berean honek zera erakusten digu HIGEA onartu ondoren, Daes-ek (1993:2) iragarri zuen bezala, autodeterminazio subjektuen artean kategoria berri baten aurrean gaudela, eta, ondorioz, horrek suposatzen dituen aukera berriez jabetu behar gara. Gainera herri indigenen eskubideen aldeko aro berri baten eta adostasun oinarritzko baten atarian gaudela esan genezake (Anaya 1996; Coulter, Pritchard 2001; Clavero 1994). Adostasun berri honen erakusleen artean aipagarria da 2007ko azaroaren 8an Evo Morales-ek bultzaturiko erabakia, zeinaren arabera Herri Indigenei buruzko Legea izenarekin HIGEA Boliviako barne legea bihurtu baitzen. Tauli-Corpuz, (2008) Foro Iraunkorraren presidentearen arabera, honelako kasuek, argi erakusten dute HIGEA nazioarteko “customary law” bihurtzeko bidean dagoela.

⁴⁰⁸ This growing acceptance by states is the result of well-founded advocacy by indigenous leaders. Indigenous participants in the UN and OAS processes have argued correctly and convincingly that indigenous peoples have a right to self-determination under international law just as all other peoples. The right of self-determination is essential to the preservation and well-being of indigenous cultures and societies and is necessary for the enjoyment of all other human rights. Moreover, indigenous peoples within states have the right of self-determination as distinct peoples, supported by the principles of international law, supported by history, supported by the concepts of justice and political freedom, and supported by widespread and growing practice by states recognizing various forms of self-determination, self-government, and autonomy by indigenous peoples (Coulter, 2002:1).

⁴⁰⁹ Egon badago nazioarteko legalitateari eginiko beste erreferentzia batzuk, kontu eta zuhertasun handiz idatzi direnak. Hauen helburu Estatu beldurrei erantzutea da, eta “Taller de Pátzcuaro” (2005) delakoan agertzen da euren mamia. Gainera 1994an onarturiko HIGEAk 31. artikuluan, ingelesezko bertsioan gauza hori zioen. Erdarazkoan geroxeago onartu zen autodeterminazioa=autonomia afertzen zen

Gainera HIGEA eskubideen adierazpen berezia da esan dugun bezala, lehenengo aldiz adierazpenaren onuradun zuzenak direnak Estatuekin eta nazioarteko erakundeekin izandako elkarrizketa eta adostasunaren ondorioz sortu baita. Halaber bertan dauden eskubideak ez dira berriak dagoeneko beste adierazpen nahiz hitzarmenetan agertzen diren eskubideak baizik, herri indigenen kasura moldatuak noski. Gainera HIGEA betetzeko mandatua 42. artikuluan agertzen da, eta hau NBEko Batzar Nagusiak harturiko erabaki batetik eratorria dugu. Artikuluak honela dio

Las Naciones Unidas, sus órganos, incluido el Foro Permanente para las Cuestiones Indígenas, y los organismos especializados, en particular a nivel local, así como los Estados, promoverán el respeto y la plena aplicación de las disposiciones de la presente Declaración y velarán por la eficacia de la presente Declaración.

Hau dela eta Clavero-k (2007) adierazpen soilek baino gehiago dela diosku 42. artikuluari egindako adierazpen batean.

15. El caso de la Declaración sobre los Derechos de los Pueblos Indígenas y en particular de su artículo 42 es en cambio enteramente nuevo y no cuenta con precedente alguno. No cabe interpretarlo a la luz de otros casos o por medio de analogías. La Declaración no es una Convención y el Foro no es un Comité de derechos humanos. El caso es otro; como integralmente nuevo debe entenderse y ponerse en práctica. La novedad procede incluso de la forma como esta Declaración se ha elaborado y acordado. Como toda Declaración de Derechos Humanos ha sido adoptada por la Asamblea General de Naciones Unidas, pero, como ninguna otra, sin precedente alguno, ha sido previamente elaborada con la participación además decisiva de quienes son titulares de los derechos a los que se refiere, esto es mediante acuerdo con representantes indígenas. Esta Declaración no es desde luego una Convención o Tratado entre Estados, pero constituye un Tratado, Convención o Pacto entre Estados y Pueblos, entre los Estados de Naciones Unidas y los Pueblos Indígenas. Es ahora el Covenant entre ellos. Su novedad radical así responde a motivos de peso y razones de fondo (Ibid. 15 parr.).

**VII. KAPITULUA: HERRI INDIGENEN
EKARPENAK GARAPEN
SOSTENGARRIAREN ERRONKAN**

“The Master of Life has appointed this place
for us to light our fires, and here we shall remain.”

Tecumseh (Shawnee)

SARRERA

HIKEk azken hamarkadan seriooki jorraturiko beste eremu nagusia ekologiarekin eta lurralde tradizionalen gaineko eskubidearekin lotuta dago. Lurraldea, kultura, jakinduria, gizartea, politika eta erlijioa estuki loturik daude herri indigenen mundu ikuskeran. Herri indigenen ustez ez-indigenen definizioak eta kategoriak ez dute euren kulturek ekosistemari eskainitako garrantzia eta konplexutasuna islatzen. Indigenentzat biodibertsitatea bizidunen aniztasuna baino askoz gehiago da. Beren ustez dagoena zera da: gizaki, beste bizidunen eta ez bizidunen arteko “bizitzaren sarea” (Rovillos, 1999). Kontzeptu honen arabera guztien arteko elkarreragiketa estua dago eta partaide bakoitzak besteekiko betebeharrak ditu. Betebeharrak jatorri erlijiosoa dute. Beraz, naturarekiko harremana kulturala izateaz gain erlijiosoa ere bada.

Ez-indigenek inoiz gutxi hartuko dituzte kontuan dimentsio hauek gehienetan erabilera ekonomikoetan ala ekologikoetan gelditzen direlako. Aldiz, ez indigenen ikuspegian ez da horrela gertatzen eta gizon eta lurraldearen arteko banaketa arlo askotan antzeman daiteke. Indigenen ikuspegian bat eta bera dena ez indigenen kategorietan banatzeko joera nabari-nabaria da giza eskubideen kasuan, horren isla HIGEA bera delarik. Eskubide politiko, kulturari loturiko ohizko jakinduria eta lurraldearen gaineko jabetza eta erabilera eskubideak “native title”, atal ezberdinetan zatikatuak agertzen dira (Corntassel, 2008). Denbora asko eta lan eskerga sendoa behar izan dute indigenek egin gauza euren aldera alda daitezela. Euren irudiaren aldaketa eta kontribuzioaren onespina posiblea egin duen kontzientzia aldaketaren hasiera 1972an Estokolmoko Mundu Konferentzian proposaturiko eko-garapenean aurkitzen da. Aurki proposamen berri honen mamiari heldu zioten indigenek. Ekintza eremu indigena berri honen sorkuntzan eta garapenean funtsezkoa izan zen George Manuel. Manuelek konferentzi honetan parte hartu zuen Kanadako gobernuak bidalitako ordezkarietan (Sanders, 1987). Esperientzi honek biziki kolpatu zuen eta 1974an “Laugarren Mundua”ren ideia bota zuenean, Naturarekin indigenek duten harreman bereziaren garrantziaz jabe zen. Bai bere proposamenean bai geroxeago egindako aldarrikapenetan ere izadiarekiko harremana indigenen benetako markatzaile etnikoa bihurtu da (Arregi, 1993) honetan aurkitzen dugularik Laugarren eta beste Hiru Munduen arteko ezberdintasuna (Manuel, 1974) nagusia. Manuelen proposamenean herri indigenen nortasuna, iraupena zein autodeterminazioa euren lurra eta lurraldeekin era estu-estuan loturik agertzen da. Auzien arteko harreman trinko hau Laugarren Munduaren agenda eta praktikan agertzen delarik.

Bosgarren kapituluan ikusi dugun bezala 80ko hamarkadan indigenek protagonismo

handia izan zuten politika ekologikoan. Ez dago ukatzerik ekologistekin egindako aliantzak ezinbestekoak izan direla HIKeren presentzia eta indarra esplikatzen. Elkarlan hau 1970an hasi eta hurrengo hamarkadetan sendotu egin zen, bosgarren kapituluaren deskribatu dugun moduan. Indigenak “*environmental justice*” izeneko AEBko mugimenduaren sorreran aurkitu ditzakegu (Minde 1995) eta 1970ko hamarkadan hasita talde ekologistekin kontaktuak areagotu egin ziren. Hau dela eta, gizon gorriaren ideologian funtsezkoa den izadiarekiko harremana ekologisten interesa harrapatu zuen. Adibidez, Laugarren Munduaren diskurtsoan, ingurumen arrazismoa “*environmental racism*”⁴¹⁰ eta ekoziaren salaketa protagonismo berezia izan dute aspaldianik eta horrela dirau gaur egun (Bullard, 2004:iii). Laugarren Munduak Estatuaren ahalegin desarrollistarekin loturiko paradigma zibilizatailearen okerrak⁴¹¹ eta mugak azpimarratu ondoren, honek eragindako miseria eta triskantza ekologikoa⁴¹² ekiditeko orduan zeukan ahulezia erakutsi zuen (Vickers, 1983).

GSren inguruan herri indigenak, ekologistak, giza eskubideen defendatzaileak eta garapen alternatibo baten aldekoak bateratu egin ziren. Gauzak horrela, Laugarren Munduko agenda ikerlari, politiko, diplomatiko, aditu eta GKE-en (komunitate epistemologikoak eta *transnational advocacy networks*) delakoen mahaietara heldu da. Are gehigo asko dira hasi direnak indigenekin batera GS gauzatzeko bidea jorratzen. Gizarte zibileko ordezkari hauek aldaketa defendatzen zuten gobernu eta nazioarteko erakundeekin bat egin zuten, honela GS-aren sustapenerako mundu mailako koalizio zabala sortuz. Indigenek garapen prozesua, bere baloreak, estrategiak, politikak eta praktikak birdefinitzeko deia zabaldu zuten⁴¹³, eta, zalantzarik ez, GSren agerpenerako bidea prestatu zuten. Ahalegin honen isla nazioarteko erakundearen egindako diskurtso, estrategia programa eta praktika politikoen aldaketan aurkitu dezakegu⁴¹⁴. Maila honetan paradigma aldaketa batetaz hitz egin daiteke. Laugarren partaidetza eta eragina handia

410 Bullard (2004,iii) honelako definizioa eskaintzen du: “Environmental racism refers to any policy, practice, or directive that differentially affects or disadvantages (whether intended or unintended) individuals, groups, or communities based on race or color”.

411 Herri indigenek paradigma nagusiari egindako kritika zorrotza izan da, eta berorren isla GSan aurkitu dezakegu. Garapen eragindako krisialdi ekologikoarekin batera menekotasun soziologiko, politiko eta kulturala sortzen dela beti defendatu dute indigenek, eta alternatiba bezala herri indigenen partaidetza eta tokian tokiko baliabideen gaineko kontrola bultzatu behar dela esan. Ikuspuntu hauek zein bere kritikak GSaren aldeko diskurtsoan, ikuspegi etno-ekologikoan bereziki, aurkituko ditugu.

412 Modernizazio-industrializazioa goiburu zuten paradigmaren kritikak ildo ezberdinak jarraitu ditu Lehen Munduan eta Hirugarrenean. Lehen Munduko gehiago zentratu izan da garapen prozesuaren gaizki egindakoetan eta ondorioz sorturiko kutsaduran, hau da bizitza kalitatearen txartzeko baten kontzientzia. Ikuspegi honetatik begiratuta krisialdi ekologikoa nozituriko garapen modeloaren ondorioa da. Egindako kritika honetaz jabetzeko eta GSaren defentsaren ildo nagusiak zehazteko bide Anderson (1989 Anne (1989), Arnold (1989) Berger (1987), Bunker (1987), Corea, (1990), Dobson, (1990) Ekins (1991),Gómez, (1997), Holmberg, (1991), Kim (199), Paz, (1992), Redclift (1987), Redclift, (1992). Rich, (1990), Starke (1990), Strong (1991), Tokar (1988) Tucker (1983),World Commission for Environment and Development. (1987),-IUCN, The United Nations Environment and Development Program-UNEP, World Wide Fund in Nature- WWF (1991),-IUCN,The United Nations Environment and Development Program-UNEP, World Wide Fund in Nature- WWF. The World Conservation Strategy: (1980), Naess (1986).

413 Ikuspuntu honek amaitu egiten du ekonomi tradizionalen nagusi zen ikuspegi neoklasikoarekin non Natura baliabideen iturri eta zaborra pilatzeko toki mugagabea zela defendatzen baitzen. GSak argi eta garbi uzten du sostengarriratu ekologikoak muga bat ezartzen duela, eta hortik aurrera hazkuntza arriskuan jar dezakeen narriadura honek hazkuntza ekonomikoari zein gizateriari ora har mehatxu egiten dio.

414 Diskurtsoaren garrantzia bereziki hau garapen asuntuetan dauden nazioarteko erakundearen kasuan inportantea ikusten dugu, bertako agintari eta langileek euren erreferentziazko dokumentuetan diotenari erreparatu egin behar diotelako eguneroko lana burutzeko orduan. Gainera garrantzi honen isla Errio-ko Gailurrean izandako Estatu buru, burokrata nahiz herri indigenen zein GKEen partaidetza ikus daiteke. 176 Estatu buru, 1500 GKE eta 7.000 kazetari bildu baitziren bertan.

izan da.

Giza eskubideen eremuan ez bezala, GSri esker posiblea izan da mendeetan baztertuta egon den herri indigenen ahotsa ozenki entzutea, euren presentzia antzematea, euren kulturaren balorea preziatzea eta gizateriari egindako kontribuzioa baloratzea. GSk herri indigenei eta euren kulturei garapenari buruzko nazioarteko diskurtsoan agertzeko aukera eman die, eta bidea eskaini egin die ere agenda globalean herri indigenek aspaldi defendaturiko ikuspegiak integrazteko (Arregi, 1993).

Halaber, Nazioarteko Zuzenbidean hainbeste iskanbila eta egonezina sortu duten gaien goritasuna epeldu egiten da GSren markoan, tokian tokiko autogobernuaz eta natur baliabideen gestioaz ari garenean. Esparru honetan deszentralizazioa, partaidetza eta alderdi bakoitzak emandako onespeneraren aldeko diskurtsoek bide errazagoa dute Estatuentzako onargarriagoa den “tokian tokiko autogobernuarekin” lotzen direlako.

Beraz, GS izeneko paradigma alternatiboa, giza eskubideen eremuan gertatu den bezala, aldi berean, herri indigenen mobilizaziorako⁴¹⁵ tresna, eta euren mobilizazioaren ondorioz eraikitako markoa bezala kontsideratu behar dugu.

Kapitulu honetan garapen eta ekologia lotzen dituen ikuspegi alternatibo honetan indigenek izandako partaidetza aztertu nahi dugu, baita eurek honetan egindako kontribuzioak eta hauek aurkituriko oztopoak eta lorturiko aurrerapenak.

1. GARAPEN SOSTENGARRIA ETA HERRI INDIGENEN ALDAGARRI ETNIKOAREN NAZIOARTEKO AITORPENA

Blokeen arteko gatazka desagertu ondoren, eta honi loturiko paradigma errealista beste garai bateko toki hegemonikoa galdu ondoren, ekologiarekin loturiko gaiak aurrera egin dute nazioarteko agendan (Barbe, 2003). Testuinguru honetan GS garatu eta iritsi zen nazioarteko paradigma alternatiboa izatera. GS izena estreinakoz⁴¹⁶ 1980an erabili zen *“The World Conservation Strategy: Living Resource Conservation for Sustainable Development”* (IUCN, 1980) izeneko dokumentuan. Ordutik ona anitz izan dira kontzeptu honi heldu dioten erakunde, talde eta ikerlariak. Gaur egun 200 definizio omen daude (Bermejo, 2000) kezka, disziplina eta ikuspegi politiko anitzen pilaketa islatzen duelako, eta etengabeko eztabaidan dagoen kontzeptua dugu. Mundu mailan onarpen eta arrakasta gehien lortu duen definizioa WCED-ek Brundtland

⁴¹⁵ Errio-ko Gailurrean bertan Garapen Sostengarriarekin loturiko eremuak herri indigenen kanpo ekintzarako eremuak bihurtu dira. Munduko biodibertsitatea ekologikoa zein kulturala babesteko egindako nazioarteko ahaleginetan herri indigenen partaidetza aurkitu daiteke.

⁴¹⁶ Aurrekariaren artean aipatu behar dugu Estokolmo-ko 1972ko Giza Inguruari buruzko Biltzarra, baita 1972an iraultzailea gertatu zen Erromako Klub-ak, “Meadows txostena” hazkuntza zero defendatzen zuena. Urte berean Mesanovic eta Restel-en txostena, honako hau moderatuagoa atera zuen Klubak; geroxeago Carter Presidenteak eskatuta “Global 2000” txostena atera zen 1980an.

txostenean emandakoa da⁴¹⁷.

Askoren ustez zehaztasun gutxikoa dugu definizioa⁴¹⁸; aldiz, beste batzuen ustez, honetan datza bere abantaila. Zehaztasun falta honek joko politikorako aukera handiak eskaintzen ditu: gehien bat beharrak zeintzuk diren eta nola beteko diren ez delako esaten (Vivian, 1992).

Gainera Estokolmoko Biltzarrean nagusi izan zen ekonomia⁴¹⁹ vs ekologia eztabaidari buelta emanez, ekonomisten eta ekologisten arteko akordioa posiblea egin duelako irabazi du horrenbesteko arrakasta. Kontzeptuak garapenaren muga⁴²⁰ ekologikoa⁴²¹ onartu eta belaunaldien arteko berdintasunari⁴²² erreparatuz garapen prozesuaren berrantolaketa burutzeko beharra ezarri du.

GSren iturria zen Brundtland txostena kontraesanez⁴²³ beteta agertzen bada ere, eta betiko negoziua itxura berde batekin askotan egiten dela⁴²⁴ onartuz, aitortu egin behar diogu lortu egin zuela GSren ideia nazioarteko erkidegoan zabaltzea, eta nazioarteko erakundeen nahiz banku multilateralen agendan egotea. GS definitzeko, ulertzeko eta lantzeko hamaika modu daude baina prozesua findu duten artean aipagarriak dira guretzat tokian tokiko kulturaren baloreei erreparatu diotenak. Era honetan ingurugiroa mantendu duten kulturak daudela erakutsi da eta kultura hauen iraupena guztion mesederako izan daitekeela onartu ere. Modu honetan ekonomia klasikoan, politika liberalean eta garapen teorian banakoaren eta ekonomia liberalaren aldeko erabateko apustua orekatu egiten da. Helburu sozialak eta gizarte interesa agertu eta

417 Honela dio honek; "The development that meets the goal of the present without compromising the ability of future generations to meet their own needs" (WCED, 1987:43).

418 Garapen eta Sostengarria hitzak aho ezberdinetan eta esanahi kontrajarrien erabiltzen delako gauzak bere tokian jartzeko bide IUCN et alia (1991).

419 Gailur honetan Indira Ghandi-k egindako kritikari jarraituz arazo ekologikoa Lehen Munduko Estatuak Hirugarren Munduko Estatuak bilakaera ekonomiko eragozteko erabilitako trikimailua zela pentsatu zuten askok. 90. hamarkadan krisialdi ekologikoaren seriotasunari buruzko informazioa ukaezina zen eta hemen eskaintzen dugun bibliografiak erakusten duen bezalaxe aldaketen beharra Hirugarren Munduko herri mugimenduetatik dator. Ondorioz, kalte ekologikoak gizataldeei oinazea dakarkela argi gelditzen da.

420 Hazkuntzaren mugak zehazteko orduan munduko bizitza mantentzeko naturak eskaintzen dituen zerbitzu eta baliabideen kalitatea denbora jarraituan mantentzeko segurtasunezko baldintzek markatuko dute. Kontzeptu honi sostengarritasuna deituko zaio eta bere mugak pasatuz gero ekosistema batek porrot egingo du eta bizitzarako hain garrantzitsuak diren zerbitzuak eskaintzari utzi. Bide Pearce & Tunner (1990); IUCN et alia (1980) eta (1997) bide BBKek ematen duen definizioa ere.

421 Printzipio hau gorde asmoz GSak proposatu egin du baliabide naturalei balore ekonomiko bat ematea, euren garrantzia gorpuztu eta plazaratzeko asmoz. Ekonomia tradizionalen natur baliabideei gehienetan eta balore ekonomikoak ez bazuten zero kostua ematen zitzairen. Modu honetan triskantza ekologikoak ez zuen islarik aurkitzen proiektu bat martxan jarriko zen ala ez erabaki behar zuen kalkulua ekonomikoan. Hau aldatuz eta balore ekonomikoak emanez kontserbaziorako pizgarriak lortuko dira eta baita baliabide ekonomikoak sortu natur sostengarritasuna eta pobrezia eragotzeko lortuko duen politika ekonomikoaren arrazionalizatzea. Bide Williams (1989); Lowrance (1986).

422 Ideia honekin belaunaldien arteko elkartzaren printzipio ezartzen da GS-ren hastapen inportanteenartiko bat bezala. Printzipio honen onarpenak berebiziko garrantzia izango du herri indigenentzat euren kulturetan bizirik iraun duen printzipioa delako. Erabaki baten ondorioak hartzeko orduan zazpi belaunaldi kontaktatzen dituzte Ipar Amerikako indigenek erabakiaren inpaktua neurtzeko orduan. Ikuspuntu hau GS-ri buruzko idatzi askotan Brundtland Txostenean barne ikusi daiteke. GS-ak aipaturiko etika berria bilatzeko eta deskribatzeko orduan askotan herri indigenen erlijio edota ikuspuntuari helten zaio. Hau dela eta kultura indigenak begirunez ikusten hasi gara eta zabaldu egin da mundu mailan indigena ekologikoaren irudia.

423 Lehenengo kontraesana izenean aurkitzen da, ingelesez "to develop" zer ikusirik handiagoa du eboluzioarekin hazkuntzarekin baino. Hazkuntzaren ideia produkzio eta betiko ikuspegi neoklasikoarekin zer ikusirik gehiago du. Beste kontraesan bat teknologian duen erabateko fedean aurkitu dezakegu. Txostenak esan esaten du krisialdi ekologikoa gure produkzio sistemaren eta erabilitako teknologiaren ondorio dela, baina konpontzeko orduan zientzia eta teknologia gehiago agintzen digu. Nekazaritza munduan batik bat oso eztabaidagarria da hori, Hirugarren Munduko nekazariarentzat batez ere. Bestetik, jarraitzen du oso antropozentrikoa izaten

424 Hazkuntza berdeari egindako kritikei buruz gehiago jakiteko bide Core (1990), Ekins (1991), Holmberg (1991), Starke (1990), Bandopadhyay & Shiva (1988), Esteve (1992), Hallen (1988).

integratu egingo dira ikuspegi berrian, bere diskurtsoan eta ondorengo estrategian. Aldagai hauek bikain konbinatzen dituelako World Resources Institute-ak (1991) emandako definizioa erabiliko dugu tesia honetarako.

Sustainable development is a process of social and economic change in which resources use, technology and customs are all in harmony enabling the current generations to meet its needs without compromising those of future generations. (Ibid.:193).

Definizioak ez du, ohikoa den bezalaxe, Mendebaldeko jakintza, zein egitura politiko ekonomikoak gaintik jartzen eta garrantzia ematen die oreka hirukoitza hau mantentzeko gai diren proposamenei. Horrela herri indigenentzat ezinbestekoa den kulturari leihoa zabaltzen zaio. Kultura funtsezkoa gertatuko zaigu herri indigenei buruz ari garenean (Corntassel, 2008).

Kontzientzi berri honek, asimilazioa eta kultur primitiboen desagertzea defenditu duen ikuspegi nagusiarekin haustura erradikala suposatzen du. Honela Estatu etnokratikoaren izaera eta joera homogeneitzailea errefusatu egiten da, herri indigenen balorea baietsi eta mundu estatozentriko batetik naziozentrikoa den mundu batetara pasatzeko atea irekitzen da.

Aniztasun biologikoa sostengatzen duten kultura propioak mantentzeko gonbitea Brundtland txostenean aurkitzen dugu, eta, gainera, ondoko hainbat testuetan Naturaren jagoleak, abisu-emaile "gate keepers" eta GSren aldeko lehen interbentzio lerroa bezala deskribatzen dira (WCED, 1987:61).

1.1 AITORPEN INSTRUMENTALISTAREN ARGI-ILUNAK

Kultura indigenen eta euren kontribuzioaren aitortzea positiboa izan bada ere, kontuan hartu behar dugu GSren diskurtsoan eta praktikan nagusitu den ikuspegi instrumentalista, honek moldatuko egiten duela nazioarteko erakundeek herri indigenekiko duten ikuspegia.

...they are seen as means to development, that is, as aids or obstacles to achieving ends defined by considerations outside indigenous values systems (Goulet, 1987:227).

Aipaturiko bitarteko izaera hau are nabariagoa da, ohiko jakinduria ukitzen denean, sentikortasun handiko ingurumen kudeaketarako, baso tropikalak batik bat, jakintza aproposa aitortzen zaielako indigenei (Holtdoel, 2005). Halaber, etika berria sortzeko orduan euren kulturetan inspirazioa⁴²⁵ bilatu delako hainbat kasutan (Deloria, 1999), indigena ekologikoaren

⁴²⁵ Tradizio indigenean aurkituriko inspirazioaren kasua dugu Green Peacen beraren sorreran aurki dezakegu. "Green Peace"en fundatzaileek 1971an Cree buruzagi baten ahotik entzun zuten ondokoa "Llegará un tiempo en que los pájaros caerán del cielo, los animales de los bosques morirán, el mar se ennegrecerá y los ríos correrán envenenados. En ese tiempo hombres de todas las razas y pueblos se unirán como guerreros del arco iris para luchar contra la destrucción de la tierra". Hortzadar Gerlarren kondaira indigena erabili izan dute euren sinbologia eta konpromezu globala erakusteko. "Green Peace"k izen hau aukeratu zuen bere itsasontzi batentzat eta segurtasun ekologia erdiesteko mundu mailako aliantza horretan herri indigenen beharrezko partaidetzaren lekuko bihurtu da. Natura zaintzeko ahaleginean denak "rainbow warrior". Beraz ikonografia ekologista garaikidean bere pisua izan dute tradizio indigenei eta etika berri bat bilatzeko ahaleginean ispiritualtasun eta kultura indigenei interesa berpiztu dute. Internazionalismo ekologistaren ikurra bihurtu da kultura eta kolore ezberdinetako gizon-emakumeak biltzen dituen kondaira Cree hau kode globalistan berinterpretatua. Honelako inspirazioak ekologia eta new age konbinatzen dituzten "deep ecology" taldeetan aurkituko dugu. "Rainbow Warrior" pareko baina bere koda globalista eta paradiplomatiako mantentzen duena Tibetean jatorri duen Shambhala profetia da. Hemen ere nazio ezberdinetako gudari sakratuen ideia agertzen delarik.

irudia zabalduz. Oso hedatuta dagoen irudi honen eraikuntzan indigenek (Shepard, 1999) nahiz ez indigenek hartu dute parte, askotan herri indigenen irudi idealizatu eta esentzialistak zabaldu dituztelarik (Dumoulin, 2005; Hames, 2007). Kultura indigenak berez kontserbazionistak direla dioen korrante esentzialista honen aurrean eszeptikoa agertzen da Smith (1999). Egile honek gogoratu egiten du elkarreragiketan bilatu behar dela eta herri indigenek garatu duten harremanaren benetako abantaila.

our survival as peoples has come from our knowledge of our contexts, our environment, not from some active beneficence of our Earth Mother (Ibid.:4).

Mendeetan zehar ingurumenarekin elkarreragiketan garaturiko harreman hau dela-eta, indigenen jakinduria ezinbestekoa gertatzen da produktu berri eta egokiak sortzeko balio digulako (Tinnerman, 2003). Ohiko jakinduriak oso konplexuak eta hauskorak diren ekosistemak kudeatzeko balio handia du⁴²⁶, eta bereziki ingurumen gestiorako duen baloreagatik balioztatuko da (Lidgard, 2004), zer esanik ez bioteknologiaren garapenerako dagoen potentzialean, laugarren kapituluan deskribatu dugun bezala.

Indigenek GSrako daukaten garrantzia ia azken konbentzio eta aldarrikapen inportante guztietan aurkituko dugu. Horrela gertatu zen, estreinakoz, 1992an Nazio Batuetako Garapen eta Ingurumenaren Erakundeak antolatutariako Errioko Gailurra, non GS mundu mailan ezagutzera eman zen. Gailur honetan 176 Estatu parte hartu zuten eta gai ekologikoa indartsu sartu zuten nazioarteko gai zerrendan. Gailur honen ondorioz “Errioko Aldarrikapena”⁴²⁷, “Agenda 21”⁴²⁸, “Aldaketa Klimatikoari buruzko Konbentzioa”, “Biodibertsitateari Buruzko Konbentzioa” (BBK), eta “Basoei buruzko Hastapenak adostu ziren”⁴²⁹. Hauek indigenak duten izaera estrategikoa “major group” aipatzen dute eta euren partaidetza defendatu GS estrategiak egiterakoan⁴³⁰. Ildo honetatik abiatuz, 2002an, Johannesburgon egindako Rio de Janeiro-ko osteko mundu gailurrean “*Johannesburg Declaration on Sustainable Development*” delakoan

⁴²⁶ Kudeaketa balioa azpimarratzen du: “...these communities are the repositories of vast accumulation of traditional knowledge and experience that links humanity with its ancient origins. Their disappearance is a loss for the larger society which could learn a great deal from traditional skills in sustainable managing of very complex ecological systems. It is ironic that the more formal development reaches more deeply into the rain forest it tends to destroy the only cultures that have proved able to thrive in these environments” (WCED,1987:115).

⁴²⁷ Rio-ko Aldarrikapen honetan herri indigenen parte hartzea oso mugatua izan zen eta beldurrik gabe esanenez hau gobernuen gailurra izan zela. Gainera, neurri handi batean herri indigenen lurretan zeuden natur baliabideak eskuratzeko arauak jartzeko saio bat izan zen. Gailurra gehien bat printzipioen aldarrikapen batean gelditzen da. Herri indigenen jardueraz eta euren proposaturiko jabetzeko Kari-Oca-ko gailur paraleloari begiratu beharko diogu. Bertan autodeterminazio eskubidean oinarrituriko ingurugiroarekin loturiko beharriak aurkituko ditugu.

⁴²⁸ Agenda 21ean programa eta politika proposamena aurkitzen dugu. Bertan, ur, aire eta lurzoruen nariadura zein pozoitzeari aurre egiteko eta biodibertsitatea babesteko ahalegina aurkezten da. Ahalegin honetan aliatuen artean emakume, GKE, udal txeko, langile, merkatari, zientzialari, nekazariekin batera herri indigenak agertzen dira aipaturik.

⁴²⁹ Sona handiko Nazioarteko hitzarmen hauek taldean zein banaka ekologiarekin loturiko eremu nahiz ildo nagusiak markatzen dituzte eta guztiek herri indigenen garrantzi eta euren partaidetzaren ezinbestekotasuna aitortzen dute. Hauei atxikisuz IUCN, WWF, Green Peace eta antzeko nazioarteko erakundeek euren GS politikak definitzerakoan herri indigenei dedikatzen diete atalen bat.

⁴³⁰ Errioko Aldarrikapen bere 22. printzipioan, Agenda 21 Ekintza Planak 26. Kapituluak, NLE-ren 169. Konbentzioan, Ingurugiroa eta Giza Eskubideak NBeko txostenean U.N.Doc E/CN.4/Sub.2/1994/9. Biodibertsitateari Buruzko Konbentzioak eta beste askok herri indigenen eta euren kulturen balorearen aitortpena egiten dute eta garrantzi handiko taldeetatik izendatu ingurugiroa zaintzeko nazioarteko estrategietan.

agenda 21rekiko atxikimendua berretsi egin zen eta herri indigenen alde egindako aitorpen erradikalena egin

We reaffirm the vital role of indigenous peoples in sustainable development

Esaldi honetan gizateriaren ongizaterako beharrezkoak diren GS, herri indigenak eta euren ingurumenak, intimoki lotzen dira. Giza eskubideekin gertatu den antzera, indigenen ongizatea demokrazia mailaren erakuslea den legez, indigenen partaidetza GSren erakuslea bihurtu da ere. Harreman honen azterna *World Summit on Sustainable Development. Plan of Implementation*⁴³¹ delakoan aurkitzen da: pobreziaaren aurkako atalean indigenentzat euren ekosistemekiko sarrera izatea zein garrantzitsua den aipatzen da (6e eta 6h parr.); ekoturismoaren garapenean formazio eta partaidetza sustatzea beharrezko ikusi; (41) BBKrekin loturiko partaidetza eta laguntza tekniko-ekonomikoa aipatzen dira, baita ere etekinetan indigenak partaide egiteko beharra; basoak (43) eta meatzari (44) buruzkoetan indigenen partaidetzaren beharra azpimarratzen da ere; indigenen osasun sistema eta jakinduria (58) sustatzeko konpromisoa eta OJ errespetatzen duen ikerketa egiteko deialdia egiten da (103). Honelako hurbilketa teorikoak praktikara eraman direla ikus dezakegu Mundu Gizarte Foroaren 2009ko Brasilgo Amazonian egindako biltzarrean, non herri indigenak, biodibertsitatea eta aldaketa klimatikoak lotu egin diren. Biltzarrean herri indigenak eta euren partaidetza gai nagusietariko bat izanik (Oxfam, 2009). Indigenei egindako berezko erreferentzien beste adibide interesgarri bat “

Zalantzarik gabe onarpen hauek indigenen agenda garatzeko aukerak indartu egin ditu, baina ezin dugu ahaztu aitorpen instrumentalak bere alde iluna duela, eta mehatxu serioak ere planteatzen dizkiola Laugarren Munduari. Aitorpen instrumentalak garrantzitsua izanik bere arriskuak ditu: (i) errealitate indigenaren aitorpen mugatua eta zatikatua da, zientziak baieztatu dezakeena eta praktikara eraman daitekeenari soilik ematen dio garrantzia (Chambers, 1983), (ii) Aitorpena, gainera, gizarte modernoak aurredefinituriko alorretan gertatzen da, ezer gutxi aipatzen delarik indigenek jasandako errealitate historikoaz ala egungo egoeraz (Arregi, 2006), (iii) irudi ekologistak, Basati Onaren idealizazioa den neurrian (Dumoulin, 2005). gehiegizko igurikapenak sortu ditzake (Hames, 2007), (iv) azkenik herri indigenen ikuspegi esentzialista eta estatikoa zabaltzen du (Smith, 1999) goratzen dituen, kultura tradizional-primitiboak modernotasunarekin kontaktu gutxi dituztenak (Arregi, 2006). Izan ere, azken bi hauek bereziki arriskutsuak gerta daitezke. Herri indigenen aldeko laguntza ezerezean gelditu daitekelako igurikapenak ez badira betetzen, ala herri indigenen errealitatea bestelakoa denean⁴³²; hau da, zer gertatuko da herri indigenak ez direnean hain efizienteak, ez dutenean eskaintzeko ezagupenik

431 Dokumentu hau 2002ko irailaren 4an aurreraturiko bertsioa (unedited) da.

432 Ekologista eta herri indigenen arteko gatazkaren kasu interesgarri bat ikusteko bide Gupta (1999) edota Gallart (1998).

ala ez ekologikoa den herria agertzen denean (Dark, 2000; Gallart, 1998)?. Kasu hauetan lurralde zein kultura indigenen besteganatzea gertatu daiteke kontserbazio izenean “benetako indigena ekologikoak” ez daudelako egiten dela esaten delarik⁴³³

Garrantzitsua da gogoratzea, hein handi batean hemen egindako aitorten instrumentala Lehen Munduan egindako agenda bati ondo datorkiolako egiten dela⁴³⁴. Ezin ahaztu ikuspegi honetan arrotzen jomugak eta interesak direla nagusi eta indigenen kontribuzioa hauen arabera egingo dela. Honelako salaketa hainbat aitzindari indigenen ahotan dago. Euren irudia, jakinduria, kultura eta erlijioa zuriak definituriko agenda bat bultzatzeko erabiltzen da. Zuriak kultura indigenaren zer ezaugarri, usadio edo erakunde baliozkoak diren erabakitzen dute. Diskurtsoaren lapurreta ere burutzen dute herri indigenen ikuspegia eta ideiak bereganatzen dituztenean. Hau da Leonor Zalabata⁴³⁵-ek salatzen duena.

Nuestros valores nos son tomados, se cambian y son dados por los blancos, no por los indígenas que son los que deben explicar esto. Los blancos ecologistas siguen incluso suplantando la voz de los indios (Ibid.1995).

Zalabata-k salatu egiten du oraingoz zurien arazo, balore, behar eta mundu ikuskerari lehentasuna ematen zaiela. Berorren aburuz indigenei ez zaie aukerarik eman eurena esplikatzeko, munduari zer nolako kontribuzioa egin diezaioketen erabakitzeko edota zer eskatzen duten horren truke plazaratzeko.

2. BASOAREN PATUA, HIL ALA BIZIKO BORROKA

Herri indigenek modernotasuna eta industrializazioa helburu zuen garapenari egindako kritika⁴³⁶ aspaldikoa dela erakutsi dugu⁴³⁷. Herri indigenek aspalditik mantendu izan duten (Cronon, 1983) euroamerikanoek basoa, baloratzeko ikuspegi ekonomiko murrizta erabili dutela (Deloria, 1999) eta ez dutela inoiz ulertu indigenek Naturarekin zuten harremana aberats eta anitza, ez ulertu ezta onartu ere (Colchester, 2000).

Herri indigenen ikuspegiaren ingurumena eta gizona biziaren sarearen zati bat dira Ikuspegi

⁴³³ Laugarren kapituluaren komentatu ditugu kolonialismo mota berriak eta nola geratu diren horrelako kasuak

⁴³⁴ Antzeko salaketa Biodibertsitateari Buruzko Konbenioaren 8J eta 10C artikuluen inguruan ikusi daiteke. Biodibertsitatearen garrantzia dela eta Lehen Munduak neurriak hartu ditu hura mantentzeko baina herri indigenei inolako eskubide ala etekin aitortpena egin gabe. Bioteknologiaren garapenak zein biodibertsitatearen garrantzia munduko oreka ekologikoa mantentzeko handia izanik sortu diren mehatxu berrien deskribapena laugarren artikuluan ikusi dugu. Ekologiak etorkizuneko mundua egituratzeko daukan garrantzi hau dela eta nazioarteko konbenioa zein GATT TRIPetan toki berezia eskaintzen zaio honen gaineko Lehen Munduaren kontrola ziurtatzeko.

⁴³⁵ Leonor Zalabata Torres Colombia-ko Santa Martako Arhuaco-en buruzagi bat eta "Confederación Indígena Tayrona y al Movimiento de Autoridades Indígenas de Colombia"-ko partaidea ere. Cesar Gaviria Presidenteak "Comisionada para el Ordenamiento Territorial" kargua eman zion. Aipamena berak Vitoria-Gasteiz-en 1995ko azaroan "Colombia: Pueblos Indígenas" izeneko hitzaldian egin zuen.

⁴³⁶ Desarrollismoaren ondorio ezkorrenak nekazari pobreak, herri indigenak, hirietako langabetuak eta Lehen Munduko gutxiengoak dira gehien nozitzen dituztenak. Garapen planetan gobernu eta beste aktore ekonomikoaren epe laburreko ikuspegiak topo egiten du nekazari eta herri indigenen ikuspegiarekin. Hauek dira gero ondorio ezkorrenak jaso dituztenak.

⁴³⁷ Kasu honetan kezkarriena da natura eta honek eskaintzen dituen bizitzarako ezinbestekoak gertatzen zerbitzuen narriadura. Adibidez, jakiak erateko erabilitako teknologiak lur soroaren aberastasuna mantentzeko baldintzak hondatu egin ditu, deforestazioa bultzatu, erregai fosilen ustiapena eragin, siketeria eta lur agortuak ekarri eta urrunera joatera derrigortu ditu nekazal biztanle asko (O'Connor, 1987:7). Guzti honen kritika eta ekimena kasu askotan herri indigenen esku egon da, hots, Indian emandako Chipko mugimendua ala Ekuadorreko Amazonian ala Nigerian petrolio enpresan aurkako Shuar ala Ogonien mugimendua.

hau alternatiba egiten dio antropozentrismoari zein ekozentrismoari. Indigenek ingurumenaren ezagutza sakonean eta bere osagaien elkarreragiketean oinarrituriko natur gestiorako sistema konplexuak sortu dituzte (Ramachandra, 1997). Konplexutasun honen aitortpena, berandu bada ere, heldu da eta ontzat ematen da herri indigenak dauden tokietan biodibertsitatea mantendu egin dela, baita ere Estatu geografiarekin batera herri indigenek gorpuzten duten eta aniztasun biologikoa sustatzen duen nazio geografia dagoela.

...where there are nation peoples with an intact, self-governed homeland, there are still biologically rich environments. A physical map of the world aptly demonstrates this, showing that the still-forested areas or the world are areas lived in by nation peoples. The converse is equally striking: state environments-where the non nations peoples live- are almost areas of destructive deforestation, desertification, massive freshwater depletion and pollution, and large-scale reduction of genetic-biological diversity (Nietchsmann, 1994:239).

Basoa dugu Laugarren Munduaren interesak GSren aldekoekin bat egiten dueneko eremua. Brundtland txostenean herri indigenak eta baso tropikalen kasua erabili da harreman sakon honetan oinarrituriko ikuspegia eta bere antonimoa den desarrollismoak egindakoa erakusteko. Historikoki basoek kolonialismo uhin ezberdinen atzaparkada pairatu dute mundu mailan (Davis, 1977; Tucker, 1983) eta herri autonomiatik herri dependentziara pasatzeko prozesuan funtsezko ekintza-eremua izan dira (Manuel, 1974).

1990tik aurrera basoek, baina bereziki ohian tropikalak⁴³⁸ munduko bizitza eta aniztasuna mantentzeko ahaleginean esparru estrategikoak dira (Colfer, 2008), are gehiago XXI. mendean aldaketa klimatikoari aurre egiteko ahaleginetan. Garrantzi ekologikoaz⁴³⁹ gain, onartu egiten da basoek, herri indigenen iraupena bermatzeko (Burger, 1992), zein euren ongizatea edota etorkizuneko hazkuntza ekonomikoa mantentzeko orduan funtsezkoak direla. Gainera, baso tropikalen kasua aukera ezin hobea eskaintzen digu indigenek desarrollismoari⁴⁴⁰, estatozentrismoari⁴⁴¹ eta zientifikokeriari⁴⁴² (Ekins, 1992) egindako kritika erakusteko. Kritika honetan Estatuak buruturiko konkistak, etnozidioda eta ekozidioda salatzen dira. Baita gogoratu beste geografiak daudela, nazio-ingurumenak alegia, Estatuak eraikitako horietatik ezberdintzen direnak.

⁴³⁸ Brundtland txostenak zein Munduko Bankuak (1992) ingurugiroaren babeserako garrantziko eremuak deskribatzen dituzte: ura, aide kutsadura, hondakin solidoak eta arriskutsuak, lurra eta ingurumena, aldaketa atmosferikoak eta baso eremuak.

⁴³⁹ Ikuspegi desarrollistan aitorturiko Naturaren balio gehien bat ekonomikoa izan da eta alboratu egin dira Naturak ekosistemarik zein gizateriari eskaintzen dizkien beste mota batetako dohaineko zerbitzuak. Baso naturalak zein aldatuak gizateriari zerbitzu ederrak eskaintzen dizkio: batetik, lurreko bizitza posible egiten duten laguntza sistemen osagarri bat da; bestetik, atmosfera eta klima erregulatzeke ezinbestekoak gertatzen dira. Adibidez, baso borealak azpi zonak berotu egiten dituzte beroa erakartzen duten masa iluna sortzen dutelako. Baso tropikalen eragina are handiagoa dugu atmosferaren zirkulazio sistema gidatzen laguntzen dutelako, euri patroio orokorrak baldintzatuz eta beroa zonalde temperatuei beroa banatuz. Honetaz gain, basoak tokian tokiko klima epeldu egiten du umeltasuna eraginez eta zonalde berean basorik ez duten tokietan baino egonkortasun handiagoa duten temperaturak sortuz. Temperaturaren eragina izateaz gain ziklo hidrobiologikoa erregulatu, lurzorua muturreko higaduratik babestu, eta ibaien siltazio ahalmena murriztu eta ibai emariaren abiadura moteldu eta moderatu egon daitezkeen goraldiak eta ibaian gerta daitezkeen beste aldaketa arriskutsuak prebenitzen lagundu egiten du. Gainera lur emari eta ibaietan honelakoak eginez arrainen existentzia eta birsorkuntza posiblea egiten dute (IUCN, UNEP, WWF, 1991:122).

⁴⁴⁰ Ikuspegi honen arabera Estatuak aurrerakada edota garapena zer ikusirik estua dute kontsumorako zuzenduriko gizarte baten hazkuntzarekin.

⁴⁴¹ Ikuspegi honen arabera Estatuak izango da botere politikoa egituratzeko modu zilegi bakarra eta egokia.

⁴⁴² Mundua ulertzeko eta antzemateko modu zilegi bakarra dela dioen ikuspegia litzateke. Ikuspegi honen arabera beste tradizio guztiak sineskeriak ala jakintza sistema aurre zientifikoak lirateke.

The history and geography of state expansion versus nation resistance have produced two remarkably different kind of environments, dominated by new states cultures and state-peoples –usually characterized by large and dense numbers, environmentally unsustainable centrifugal economies, biological impoverishment, and, most often, rare landscapes. Second, there are nations environments historically populated by nation peoples and characterized by ecologically adopted, centripetal cultures and economies, surviving biological richness, and variegated, healthy landscapes (Nietchsmann,1994:240).

Kinka larri honetan GSk herri indigenei egindako ekarpen eta baieztapen inportanteena, gure aburuz, euren kulturen balioari egindako aitortzean datza⁴⁴³. Indigenek, aniztasun kulturalik⁴⁴⁴, gabe ez dagoela aniztasun biologikoa mantentzerik irakatsi dute. Halaber bi hauek ez dago mantentzerik herri indigenen ohiko lurren gaineko gobernu ez bada. Beraz, biodibertsitatea eta kulturantzatasuna Estatu gabeko nazioen iraupenari estuki lotuta agertzen da.

... Biodiversity occurs in the nations claimed by the states not in the states; if biodiversity were under the control of the state it would be gone (Nietchsmann, 1994:240).

2.1 HERRI INDIGENAK, NAZIO IRAUPENA ETA INGURUMEN SEGURTASUNA

Indigenen historian zehar kolonialismo mota ezberdinek, euren ekosistemak eta lurraldeak esplotatu eta larriki kutsatu dituzte. Honek egoerak larriari jarri ditu bertan bizi ziren herriak (McCuen, 1996). Indigenen esperientzia luzea da honetan eta euren kasuan besteetan ez bezala lurrak, lurraldeak eta herriaren bizi iraupena loturik agertzen dira estu-estuki⁴⁴⁵: hemen

443 GS-ak kulturari egindako aitortze benetako iraultza suposatzen du, mendeetan zehar "Terra Nullius" herri indigenekiko mantenduriko ideologia behin betikoz alboratzeko erabili delako: herri hauek, euren kulturak primitiboak direla eta ez direla gai Natura modu egokian maneiatzeko mantenduz. Aitortze honek ondorio iraultzaileak ditu orain arte garapen diskurtsoan nagusi izan den ikuspegi modernizatzaile etnozidaren aurka doalako eta onartzen duelako GS-arekin loturiko asuntzetan egon badagoela aldagai etniko bat. Hau kontuan hartuko beharko da genero aldagaia kontuan hartzen den bezalaxe, garapen sostengarriri buruzko politika egiteko orduan.

444 Literatura ekologikoa sarri askotan aurkitu daiteke herri indigenen testigantza desarrollismoak egindako sarraski kultural-ekologikoa salatzen, euren erexistentzia globalizazio korporatibo harapakariaren aurrean azpimarratzeko, euren kosmologia eta sinismenak, edota, azken bolada honetan, ohiko jakinduriaren balio eta aplikazioari buruzkoak. Gainera euren irudia beste ekologista batzuk defendatzen duten "homo tecnocologikoari" "homo etno-ekologikoa" kontrajartzeko balio du. Bi hauek, noski, modernotasunaren protagonista izan den "homo economicus"-i alternatiba bezala. "Homo etno-ekologiko"-aren mezu ezagunetarikoa Chief Seattle-en gutuna da ekologismo globalistaren aldarrikapena bihurtu dena eta bertan erlijioa eta etika ekologista nahastu dituena. Herri indigenei buruzko mezuak sarri aurkituko ditugu. "Deep ecology" delakoaren jarraitzaileen artean.

445 Azken hamabost urteetan herri indigenen eta euren lurraldeen artean dagoen harremana nahiko landua izan da NBERen mailan. Herri indigenez arduratu izan diren adituek txosten ugari produzitu dituzte. Hauen berri izateko Bide Rijssen, R. (1999). Informe del Grupo de Trabajo ad hoc de composición abierta sobre el establecimiento de un foro permanente para las poblaciones indígenas E/CN.4/1999/83). Comisión de Derechos Humanos; D.(1996) Dominios ancestrales de pueblos indígenas: Centro de crecimiento para la cooperación económica y ambiental. Informe del Seminario de Expertos sobre las experiencias prácticas con respecto a los derechos y reivindicaciones relativos a tierras indígenas. E/CN.4/Sub.2/AC.4/1996/Add.1; Róldan, R. (1996) Anotaciones sobre la legalidad y reconocimiento de los derechos territoriales indígenas en los países amazónicos. Informe del Seminario de Expertos sobre las experiencias prácticas con respecto a los derechos y reivindicaciones relativos a tierras indígenas. E/CN.4/Sub.2/AC.4/1996/Add.1. Coates, K.(1996) Los pimeros pueblos y la tierra: Visión global de las reclamaciones territoriales y su transacción. Informe del Seminario de Expertos sobre las experiencias prácticas con respecto a los derechos y reivindicaciones relativos a tierras indígenas. E/CN.4/Sub.2/AC.4/1996/Add.1; Daes, E.I. (1999) Los Derechos Humanos de las Poblaciones Indígenas. Las Poblaciones Indígenas y su relación con la tierra. Segundo Informe sobre la marcha de los trabajos en relación con el documento de trabajo preparado por la Relatora Especial E/CN.4/Sub.2/1999/18; ILO (2000) Recent Developments Concerning Indigenous and Tribal Peoples. UN Working Group on Indigenous Populations, ILO: Geneva; (2000) Informe de la Alta Comisionada para los Derechos Humanos Ejecución del Programa de Actividades del Decenio Internacional de las Poblaciones Indígenas del Mundo E/CN.4/2000/85; Informe del Secretario Nacional. Programa de Actividades del Decenio Internacional de las Poblaciones Indígenas del Mundo A/54/487/Add.1; Oyarzún, J. A. (1996). Comisión de Derechos Humanos. Report of the Expert Seminar on Practical Experience Regarding Indigenous Land Rights and Claims E/CN.4/Sub.2/1996/6; Plant, R.(1996) El tratamiento de los derechos y reclamaciones territoriales indígenas: El papel de la asistencia técnica internacional. Informe del Seminario de Expertos sobre las experiencias prácticas con respecto a los derechos y reivindicaciones relativos a tierras indígenas. E/CN.4/Sub.2/AC.4/1996/Add.1; Report of the Secretary General Programme of Activities of the International Decade of the World's Indigenous People. A/54/487/Add.1; Review of Developments Pertaining to the Promotion and Protection of Human Rights and Fundamental Freedoms of Indigenous Peoples. Principal Theme: Indigenous Children and Youth. E/CN.4/Sub.2/AC.4/2000/2; Seminar on "Multiculturalism in Africa: Peaceful and Constructive Group Accommodation in Situations Involving Minorities and Indigenous Peoples", Tanzania, May 2000. E/CN.4/Sub.2/AC.5/2000/WP.3; Urrutia, J. (1999). Informe sobre el Grupo de Trabajo establecido de conformidad con la resolución 1995/32 de la Comisión de Derechos

datza euren benetako nazio segurtasunaren funtsa eta mamia.

Indigenous peoples, however, consider themselves to be nations, and their conception of national security is intimately connected to their survival as nations. Thus, in addition to physical security-protection from violence and coercion, indigenous peoples struggle to protect their cultural security, their medium for preserving the Indian nation as a political, territorial, and societal entity. The most important security issue is not only retaining lands they have controlled for generations, but also the right to control that land communally. Land is not merely an economic resource to indigenous peoples (although for the majority of Indians who eke out a living through subsistence farming, it is vital to survival), land is also the material guarantee of indigenous self-government and autonomy. It provides the basis for the re-creation of the indigenous community as a social organization -the medium through which native peoples pass their culture and their identity to their descendants (Van Cott, 1996:2).

Gauzak horrela, herri indigenenek segurtasun teoria berriak aprobeixatu dituzte eta euren mesederako erabili. Munduaren ongizatea eta herri indigenen interesa lotzen dituen diskurtsoaren adibidea dugu ondokoa 2001ko "Third International Forum of Indigenous Peoples on Climate Change" (hemendik aurrera, Bonneko Aldarrikapena).

We have historically and continue to play a fundamental role in the conservation and protection of the forests, biological diversity and the maintenance of ecosystems crucial for the prevention of severe climatic change. Long ago, our elders and our sciences foretold of the severe impacts of Western "development" models based on indiscriminate logging, oil exploitation, mining, carbon-emitting industries, persistent organic pollutants and the insatiable consumption patterns of the industrialized countries. Today, these unsustainable models threaten the very life of Mother Earth and the lives of all of us who are her children (Ibid.).

Mehatxu globala aipatzen badute ere, indigenak gehiago heltzen diete udal, bailara ala erregio mailako kasuei, eta hauetan prozesu globalek dituzten ondorioei. Prozesu hauek saihesteko estrategi egokiak bultzatzeko Estatuena papera funtsezkoa da. Estatuak kolonizazioari eta ondorengo kutsadurari muga jartzea zein herri indigenen lurraldeak eta ekosistemak errespetatzeko neurri positiboak hartzea, gatazka prebenitzeko bide egokia izan daiteke.

Hau dela-eta, "Draft Declaration of Principles for the Defense of the Indigenous Nations and Peoples of the Americas" dokumentuaren 13. artikuluan herri-iraupena, segurtasuna eta ekologia lotzen dira, Estatuak horrelakoei aurre egiteko eskatzen zaien bitartean.

It shall be unlawful for any state to make or permit any action... which will directly or indirectly result in the destruction or deterioration of an indigenous nation or group through the effects of pollution of earth, air, water or which in any way depletes, displaces or destroys any natural resources or other resources under the dominion of an indigenous nation or group.

2.1.1 Segurtasuna, ekologia eta herri iraupena uztartuz

Indigenek sustaturiko ikuspuntu honek bat egiten du giza segurtasunaren "human security" jarraitzaileekin. Idazle globalista batzuk arrisku ekologikoaren eta garapenaren arteko harremana aurreratu (Pirages, 1983) zuten 1980ko hamarkadan. Egun argi dago ingurumen narriadurak eta honi loturiko krisialdi ekologikoak gizonaren jardueran aurkitzen duela bere zio

nagusia. Gizarte tentsioak areagotu eta gatazka nazioartekoa nahiz nazio barnekoa sortzeko gaitasuna duela mehatxu ekologikoak aurreratu zuten adituok. Are gehiago, Brundtland txostenak⁴⁴⁶ esan zuen aurrean dugun mehatxua ekologikoa behialako mehatxu nuklearraren parekoa dela

Egun lehen ez genuen informazio pila ikaragarria dugu eta egon badago zientifikoen artean masa kritiko nahiko mehatxuaren existentziaz hitz egiteko (Gallart, 1998, Grassa, 1998). Jabetze honetan berebiziko garrantzia izan dute aurrerakuntza teknologikoek, superkonputadoreen existentzia batik bat, ahalbidetu duten informazio pilaketa (Cleveland, 1993). Modu honetan banakoen nahiz gizartearen arreta erakartzea eta mehatxua errealagoa, nabariagoa eta hurbilagoa egitea lortu da (Man, 1991).

GSk iragarritako katastrofeen artean bereziki aipagarriak dira ere klima aldaketarekin eta urarekin loturikoak. Batetik, itsaso urak igo egingo direlako eta kostaldeko lurak nahiz Kirabati antzeko uharte-Estatuak desagertu egingo liratekeelako; bestetik Artikoan bizi diren herriak gogor kolpatzen dituelako ingurumen aldaketak. Arrisku hau salatzen dute *“The Bonn Declaration. Third International Forum of Indigenous Peoples and Local Communities on Climate Change”* aldarrikapenean.

We have the obligation to inform the international community about our grave concern regarding the social, cultural, economic and security threats posed by climate change to Indigenous Peoples and Local Communities living in small island states (ibid).

Baita ere, nekazaritzarako eta edateko ura agortu egingo litzatekeelako hainbat tokietan⁴⁴⁷, gaixotasunak areagotu⁴⁴⁸ eta askok emigraziora bultzatu egingo lituzke klima aldaketak. Agertoki honetan gatazka pizteko posibilitateak handiagoak⁴⁴⁹ dira Hirugarren Munduan⁴⁵⁰, baina ondorioak Iparraldean ere sentituko direla iragartzen da.

Hirugarren Munduko Estatu askok euren baliabide eta azpiegituren gaineko presioa nola handitzen ari den eta talde ezberdinen arteko tirabirak nola biderkatzen diren dakusate. Adituen ustez emigrazioak ingurumenaren gaineko presioa areagotu egiten du (Hughes, 1991), baita

⁴⁴⁶ Horrela dio: “Ten or even five years ago, a survey of people’s anxieties about the future of human civilization might have put fears about the military security, focused on a threat of East-West conflict close to the top of the list. Such survey today would be more likely to show such fears being replaced by concerns over global environment” (WCED, 1989:2-3).

⁴⁴⁷ Uraren urritasuna eta beraren gaineko kontrola ezartzeko ahalaginak dira aditu askoren ustez gatazka zentzu tradizionalan piztu dezaketen faktoreak. Bide Swain (1998); Izquierdo (1998); Starr & Stoll (1988).

⁴⁴⁸ Honetaz bide Epstein (2000).

⁴⁴⁹ Edateko ura, arrain bankuak, ustiaketarako basoak eta lurak gatazkak sortu ditzakete euren urritasuna areagotzen ari delako hainbat zonaldeetan eta bizirauteko funtsezkoak izanik fisikoki kontrolatu eta okupatu daitezkeelako.

⁴⁵⁰ Hirugarrena Munduak gehiago jasango duela diosku ondoko parrafoak: “the TW will be more vulnerable and they will suffer, either singly or in combination, four main interrelated social effects: reduced agricultural production, general economic decline, population displacement and disruption of regular and legitimized social relations. These social effects, in turn, may cause several specific types of severe conflict including scarcity disputes between countries, clashes between ethnic groups, and civil strife and insurgency” (Homer-Dixon, 1993:200).

azpiegituren gainekoa ere. Zailagoa bihurtzen dute etengabeko hazkuntzan ari diren beharrak asetzea, etorkin eta bertakoen baliabide zein zerbitzu urrien gaineko gatazka areagotzen eta gaiztotzen delarik⁴⁵¹.

Guzti honen ondorioz, garapen eta ekologiararen seguritazioa⁴⁵² gertatu da ingurumen segurtasunari⁴⁵³ buruzko eztabaida segurtasunari buruzko debatean sartu denean. Hala ere, segurtasuna, bere teoriar eta praktikan ulertzeko modu alternatiboak landu dira Giza Segurtasuna⁴⁵⁴ izenpean. Hurbilketa berriak leihobat eskaini dio indigenei euren herri segurtasuna besarkatzeko. Hurbilketa honek segurtasun mehatxuen biktimitetan jartzen duelako lehentasuna eta euren partaidetza bilatu segurtasun sistema alternatibo edota osagarriak tokian jartzeko.

To me, the concept of "human security" presents a useful entry point to the central security issue of the day; i.e., the security of the people. It represents a paradigm shift from the traditional resort to the state as the provider of security. First of all, by focusing on the people who are the very victims of today's security threats, you come closer to identifying their protective needs. Secondly, by examining the people with their diverging interests and relations with each other, you uncover the social, economic and political factors that promote or endanger their security (Ogata, 2001).

Beraz XXI mendeko segurtasunak, segurtasuna militarraz gain, arazo berriak aurreikusi behar ditu eta, hots, pobrezia, ingurumen narriadura, giza eskubideen bortxaketa, demokraziaren osasunari zein zapalkuntza politiko nahiz tentsio erlijiosoei erreparatu⁴⁵⁵.

Esandakoari jarraituz, indigenek euren ekosistemak mantentzeko ahaleginak munduko segurtasuna eta egonkortasun ekologikoa mantentzeko kontribuzio bezala aurkeztu dute. Ingurumen segurtasuna⁴⁵⁶ nazioarteko segurtasun agendan⁴⁵⁷ integratzeko ahalegin indigenaren

⁴⁵¹ Emigrazioak suposatzen dituen arazoak hortxe badaude ere gure ustez gatazkak Estatu barnekoak eta nazioen artean gertatu daitezke, indigenen kasuak erakusten duen legez. Hauek askoz gehiago dira gaur egun natur baliabideen inguruan aurkitzen ditugun gatazkak, hauek segurtasun ekonomikoarekin eta bizi iraupena segurtatzeko ezinbestekoak direlako. Are errazago aurkituko ditugu Estatu versus talde etnikoak, talde etnikoen arteko ala Estatu+ talde etniko vs talde etniko antzeko tipologia (Dabelko & Dabelko, 1998). Gatazka hauek talde ezberdinek ezinbestekotzat dituzten lurralde eta baliabideen gainean gertatuko dira. Bide Manuel (2000) eta Ward (2000). Bertan Kanadako Estatuarekin izandako gatazkak aipatzen dira herri indigenen ohiko lurralde eta baliabideen ingurukoak dira eta bigarren kasuan iragaritako bortxa kasuak episodioak piztu zituen Abuztu honetan Kanadan. Segurtasun diskurtso ikuspegi globalistarekin ados bagaude ere ez dugu galdu behar errealitatea.

⁴⁵² Bat-bateko aldatetaren ideiarri jarraituz, diskurtso mailan, arazo ekologikoaren seguritazioa bat gertatu da kontzientzi eta sakrifizioa eragin nahian. Jatorri eta konponbide militar klasikoaren diskurtsoa eta sentimenduak mobilizatu nahi dira mehatxu ekologikoari aurre egiteko.

⁴⁵³ Mota honetako diskurtsoa lagungarri gertatzen zaie herri indigenei Estatu zentro duen segurtasun ikuspegi klasikoetik urruntzen delako. Nor eta zeren kontra defendatu aldatu egiten da eta baita erabili beharreko bitartekoak. Testuinguru berri honetan eurak aliatu bezala agertuko dira. Aldaketa honek amaitu egiten du indigenak segurtasun arazotzat zuen tradizio luze batekin. Gerra Hotzaren garaian herri indigenek euren eskubideen alde altxatzen ziren bakoitzean indarrean zegoen ideologia erabiliz segurtasun arazoa bihurtu eta matxinatuak deklaratu zuten aurka jotzen zuten. Ideologia desarrollista eta praktikaren aurka egotea nahiko zen indar iraultzaileen artean baten burua kokatzeko eta matxinatua bezala tratatua izateko. Gainera, herri askotan herri indigenen nortasuna ukatuta zegoenez eta "nekazariak" zirela kontsideratzen zenez euren eskaerak ezkeraren eskakizunekin bat egiten zutela uste zuten askok eta bloke sobietarraren aliatu bezala ikusi. Gerra Hotza zela eta 1948an NBERen mailan Boliviako gobernuak aurkezturiko proposamena herri indigenen

⁴⁵⁴ Honetaz gehiago jakiteko bide Alkiren (2002) eta gai honi loturiko beste dokumentu interesgarriak ondoko web honetan <http://www.humansecurity-chs.org/doc/index.html>.

⁴⁵⁵ Speth (1990:10) ondokoa dio: "From the national interest point of view, when resources and population challenges go unmet, the economic and social stresses that can arise can lead to political instability that may ultimately jeopardize the economic and political interest of industrial countries. As a consequence of ecological disruption, natural disasters and increasing population growth masses of refugees emigrating and looking for better environmental and social conditions can create instability and conflict"

⁴⁵⁶ Kontzepzio berrian mehatxuaren ideia bera aldatzen da: "una amenaza para la seguridad nacional es cualquier cosa que desafíe la salud, el bienestar económico, la estabilidad social y la paz política de un pueblo". Por supuesto, en estas definiciones el sujeto de la seguridad no es el estado nación en forma abstracta, sino el conjunto de valores, instituciones, grupos, en definitiva estamos hablando de la defensa de una forma de vida...La seguridad ya no es "exclusivamente una cuestión de prevención de la guerra,

testigantza eskaintzen du Langlais-ek (1996) Ipar Poloan frogaturikoa aipatzen duenean.

The circumpolar north and the recent activities of its aboriginal peoples have proven to be fruitful ground for considering and applying the ever-increasing efforts being made in many countries to reformulate notions of security by including ecological and environmental thinking." The United States has resisted suggestions that Arctic military security be an issue for discussion in circumpolar fora. More and more, we're seeing activity and interest in the Circumpolar North being framed in terms of ecological and environmental "security" (Ibid.:2).

GSren barnean, ingurumenaren defentsa eta segurtasunari buruzko hurbilketa berriak uztartzen dituen diskurtso globalista honen garapenak leihoa zabaldu die indigenen herri segurtasunarentzat funtsezkoa den ingurumen osasuna eta lurraldeen gaineko eskubideen defentsari. Gatazka giro honetatik urrunduz GSk aitortu egiten du interes global bat dagoela, munduko gizaki eta nazio zein Estatu guztiak lotzen dituen. Interes global hau bat dator Estatu gabeko herriek duten segurtasunari buruzko kezkarekin. Modu honetan, mundu mailako ingurumen segurtasuna helburu globalak bihurtuko da interes globalak indigenen helburu lokalekin bat egiten duenean (Arregi, 1993). Makro-mikro prozesuen uztarketa eta elkarreragiketa GSren bihotzean dago.

...the systemic nature of environmental issues and the globalization of the economy require that even actions that have a primary impact at local level must be taken in a global context.... the amount of local success or failure will decide our common future (Strong, Vivian & Ghai 1992:foreword).

Arrazoi guzti hauek direla medio, herri indigenen eskubideei emandako tratamendua demokraziaren zabalkundearen zein GS egokiaren erakuslea izango da (Van Dyke 1985; Urban & Sherzer; Stavenhagen 1999; Tauli-Corpuz 2000; Opllock 1995; Varese 1996). Honetaz jabetuz, 2002ko Johannesburgoko Ekintza Planak GSrentzat segurtasuna, bakea, giza eskubideen errespetua, aniztasun kulturala eta garapena gauzatzeko eskubidea funtsezkoak direla onartu du.

5. Peace, security, stability and respect for human rights and fundamental freedoms, including the right to development, as well as respect for cultural diversity, are essential for achieving sustainable development and ensuring that sustainable development benefits all (WSSD, 2002:5 parr.).

2.1.2 Biziteko basoa versus produziteko basoa

Indigenen kasuan Laugarren Munduaren geografian eta Estatu barnekoak dira protagonista (Morris1992, Ryser 1993, Bowen, Tauli-Corpuz 2000). Sills-ek (1993) dioenez, Laugarren Munduko geografian aurkitzen ditugun gatazka gehienetan Estatuari oposizio egiten diotenak agertoki den lurraldeekiko indigenak dira, eta askotan natur baliabideez eta basoz osaturiko lurraldearen kontrola da auzian aurkitzen duguna. Behar beharrezkoak diren baliabideen kontrola dugu auzian.

la irreversible destrucción del medio ambiental se está convirtiendo en una amenaza a la seguridad mundial del mismo orden y magnitud" (Kennedy, 1993:198).

457 Segurtasunaren atal berri honen aldeko ikuspuntuak ikusteko bide Eleik (1990), Grassa (1995), Grassa (1998) Homer-Dixon (1993), Hughes (1991), Izquierdo (1998).

The ethnic thrust of the Fourth World Movements is characterized by the attempt of indigenous peoples to retain and regain control over what traditionally was theirs to control before states were created or imposed upon them (Ibid.:10).

Hau horrela da mendeetan zehar basoan aurkituriko eta berak emandako fruituak balore handikoak izan baitira munduko gizon aberats zein txiroentzat⁴⁵⁸. Hazkuntza ekonomikoak eta biziraupeneko ekonomiak baliabide berdinaren gainean burutzen dute euren lehiaketa (Tauli-Corpuz, 1999), eta aberatsek behar dituztenak txiroek behar dituztenen lepotik lortzen dira. Borroka, beraz, hazkuntza eskakizunen eta bizirauteko eskakizunen artean; baliabideak erabiltzeko modu sostengarri eta ez sostengarriaren artean eta zilegiak ala makurrak diren moduen artean (Shiva, 1989:1225) gertatzen ari da.

Hazkuntza garapen modeloak aberastasuna gutxientzat eta gehiengoarentzat bizirauteko ezinbestekoa duten ekosistemaren larrialdia ekarriko du (Parajuli, 1990). Talde ezberdinek eurentzat beharrezkotzat diren baliabideen gainean kontrola ezartzeko borrokak piztu du maila lokalean, erregionalean, nazionalean zein nazioartean gatazka. Gatazkaren muinenen baliabideekiko harremana ulertzeko, beraiek ustiatzeko modu kontrajarriak egongo dira (Rodriguez, 2000, Spence 1999): eurak eskuratzeko eskubidea nork duen, zer baldintzatan, nola eta nor profitatuko den erabakitze orduan sortutakoak gehien bat (Simpson, 1997; Villena 2000). Weiskel-ek (1989) dioen bezalaxe ez dago nekazaritza osteko mundu mailako gizartea egiterik, eta nekazari herrien aurkako mundu mailako erasoak izan da hazkuntza politikak egin duen akats handienetarikoa⁴⁵⁹.

Desarrollismoaren predikamenduei⁴⁶⁰ jarraituz garapen bidean dauden Estatuak muga barneko ekosistemen ustiaketa intentsiboa bultzatzerakoan triskantza erraldoia eragin dute ingurumen mailan⁴⁶¹. Naturaren ustiaketa intentsibo hau gauzatzeko eraikitako urtegi, arrantxo, meatzea eta nekazal enpresak ezer gutxi hobetu dute pobreen egoera, bai aldiz, lortu dutela eragindako triskantza ekologikoaren kaltetuenak izatea⁴⁶². Indigenen egoera hobetu beharrean basoaren ustiaketa desarrollistak desjabetze eta pobreziazko zurrumbilo zoro baten gatibu bihurtu

⁴⁵⁸ Gizartearen garapenerako ezinbestekoak gertatu diren onura eta zerbitzuak basoetatik datozkigu. Basoak ekosistema konplexuak dira eta aniztasunaz beterikoak ditugu eta giza taldeei erabilera anitzeko produktuak eskaintzen dizkie. Adibidez, munduko errenta baxuena duten herriek kontsumitzen duten energiaren iturburu egurrean aurkitu dezakegu. Honetaz gain, basoak beharrezko bazka jateko animaliak eta barazkiak, senda belarrak, fibrak, larruak, olioak, gomak, kautxu, latex, eta egurretik ez datozen beste hainbat produktu eskaintzen dizkigu. Produktu hauek berebiziko garrantzia dute basotik bizi diren eta bizirauteko ekonomia praktikatzeko duten Hirugarren Munduko populazioentzat nahiz Lehen Munduko hainbat enpresentzat, aurreko kapituluaren ikusi dugun bezalaxe (IUCN, UNEP, WWF, 1991:132).

⁴⁵⁹ Hazkuntza garapen modeloaren ikurra izan den Iraultza Berdeari egindako okerrez jabetzeko bide Chadler (1986).

⁴⁶⁰ Munduan nazioarteko garapen prozesuari esker gailendu den ikuspegi desarrollista homozentriko nagusiak natur baliabideak garapen prozesua bultzatzeko erregai bezala kontsideratu ditu eta hauen balio ekonomikoari soilik eman dio garrantzia. Ikuspegi honek mundu osoko hainbat herri indigenei emandako erabilera balioak ukatu egin ditu eta natura, bere fruituak, zerbitzuak eta balioa ezartzeko ikuspegi murrizta bultzatu du.

⁴⁶¹ Mundu aberatsak bere bizimodua mantentzeko urruneko lurraldeetan kokaturiko baliabideekiko mendetasun handia du eta bertan burutzen da ustiapena eta ondorengo inpaktua sorturiko narriadura ekologikoa. Egoera honek garai kolonialetan aurkitzen du bere sorburua (Bandyopadhyay & Shiva, 1988).

⁴⁶² 1972ko Hirugarren Munduko diskurtsoan pobrezia zela benetako kutsadura esaten zen eta arazo ekologikoa garapena erdietsi ondoren bakarrik izango zuela garrantzia defendatzen zen. Baina errealitatearen poderioz narriadura ekologikoa pobreak aberatsak baino indartsuago jotzen dituela onartu behar izan dute Hirugarren Munduko Estatuak. Kutsadurak euren edateko ura pozoitu, eriteko lurrak agortu, istripuak eta hondamendiak, zein osasun gutxiko bizi baldintzak eta gaixotasunaz jotako egorak eragin dituelako

ditu⁴⁶³. Brundtland Txostenak, modernizazio, desjabetze⁴⁶⁴, pobrezi eta ingurumen narriaduraren arteko harreman argia dagoela erakutsi dute⁴⁶⁵.

Ingurumenarekin izandako ohiko harremana mantendu ezinak gauzak larriagotu egin ditu krisialdi kultural eta soziologikoa piztuz (Parajuli, 1990). Gogoratu egin behar dugu munduko herri indigena eta nekazari askok inguruko natura eta basoetan aurkitzen dituztela bizirauteko behar dituzten hainbat jaki eta lehengai (Shiva, 1997b). Honetaz gain euren nortasuna, kultura eta erlijioa basoari lotuta egoten da (Colchester, 1999).

Desarrollismoaren estrategiek sorturiko desjabetzeak eta ohiko ekosistemak gobernatzeko gaitasunaren galpenak pobreek eragindako gain esplotazioa esplikatzen dute (Vivian, 1992). Are gehiago, krisialdia desjabetzea eta herri lurak gobernatzeko eta kudeatzeko ohiko sistema aplikatzeko ezintasuna gertatzen denean ematen da. Ohiko lurrekiko eta bertan dauden baliabideekiko sarrera debekatzen denean ez dago lurak eta ekosistema bere horretan mantentzeko pizgarririk⁴⁶⁶, hauen jabetza eta etekina Estatuari ala industri pribatu bati zein edozein aktore arrotz bati pasatu zaiolako (Esteve, 1987 & 1992). Hau da benetako zilegi lurren tragedia (*tragedy of the commons*). Beraz, bizi kalitatearen txartzea eta jaistea gertatzekotan ingurumenak nozitu egingo luke jendeak bizirauteko ahaleginean egindako triskantzaren ondorioz. Era berean, ingurumen garbi eta sendo batek bere inguruan dituen populazioen bizi maila bermatu eta hobetu egingo luke (Scott & Howe, 1992).

2.1.3 Herri Lurak eta Gobernu Indigenaren Garrantzia

Zilegi lurren sistemak mundu mailan duen garrantziari erreparatu dio GSk. Hirugarren Munduan egindako ikerketa askok baieztatu egin dute munduan zehar zilegi lurren sistema eta jabetza komunitarioa nagusi direla (Fahrenheitst, 1992:71). Paradigma desarrollistaren ikurra izan den zilegi lurren tragedia delakoa baztertuz, GSren aburuz, zilegi lurren sistemak ez du inolaz suposatzen sarrera eta baliabideen eskuragarritasuna libre direnik, ezta gain esplotaziorako bide laburrena denik. Are gehiago zilegi lurren tragedia sisteman honen krisialdi, besteganatze eta

⁴⁶³ Kasu hau nabari nabaria da uzta kolonialak vs uzta indigenak kasuan. Botere kolonialek balore ekonomiko handidun espezie batzuen monolaborantzak bultzatu zituzten, hots, pinua eta eukaliptoak bertako zuhaitzen lepotik. Aukera honek ondorio larriak ekarri zizkien bertako ekosistemari loturiko ekonomia naturala praktikatzeko zutenei, ezin zituztelako ohiko zuhaitzek eskaintzen zituzten zerbitzuak eskuratu. Modu honetan narriadura ekologikoa baldintza sozial eta kulturalen gainbeherarekin bat egingo du gertakizunen hauen arteko elkarrengaitik delarik ezaugarri larriena izanik (Shanmugaratnam, 1989).

⁴⁶⁴ Desjabetzea diogunean herri indigena batek ohikoak dituen lurren gaineko kontrola eta bere kaxa erabiltzeko gaitasuna galtzen denean gertatzen da. Talde jabego hau aurreko kapituluetan ikusi dugun bezalaxe liberalismoak jaurtiriko erasoen helburua izan da historikoki eta Hardin-en "herri lurren tragedia" teoriari esker bihurtu da famatua nazioarteko garapenaren hamarkadetan. Ondorio ezkorren testigantza Mexikon "ejido" sistemaren krisialdiarekin, NAFTAren sarrerak eragindakoa gehien bat, eta honekin loturiko matxinada zapatistarekin lotuta ikusi dezakegu.

⁴⁶⁵ Horrela dio WCDEk (1987:123): "poor's peoples lack of alternatives or access to traditional lands pushes them to try to grow crops in marginal lands which are unproductive, the lack of productivity leads to a search for more land to cultivate and to a vicious circle of environmental destruction".

⁴⁶⁶ Pizgarrien asuntuen ondokoa argi utzi: "Communities that are deprived of their customary access to resources on which they depend, from their traditional tenure rights and rights to exclude outsiders, have no incentive in sustainable management because there is no benefit. In this situation they find themselves forced to over-exploit lands whose management responsibility and benefit belongs to others" (WCDE:67).

pribatizazioa gertatzen direnean ematen da (Vivian, 1992). Hau aldatzeko eta indigenak GSan partaide eta kide bihurtzeko beharrezkoa da: (1) ingurumena gain esplotatzera behartzen duten faktoreak ezagutzea eta aldatzea; (2) txikizio ekologikoari buelta emango dioten pizgarri eraginkorrak identifikatzea eta aplikatzea (Shiva 1988; Chambers 1983); (3) tokian tokiko egoera eta baldintzak ezagutzen dituzten udal mailako instituzioak sustatzea eta (4) tokian tokiko populazioaren partaidetza laguntzen duen planifikazio prozesua bultzatzea.

3. GARAPEN SOSTENGARRIA INDIGENENTZAKO MARKO ALTERNATIBOA

GSren arrakasta maila lokalean, edota hobe esanda mila maila lokaletan gertatutakoaren ondorioa izango da. Maila lokala, beraz erabakigarria gertatzen da GSren aldeko planifikazioan. Bertako jendea, bere indarra, sormena eta energia ez badira harrapatzen ez dago GSri buruz hitz egiterik. Argi dago proiektuek porrot egingo dutela beharren identifikazioa eta garaturiko estrategiek komunitateen baloreen, euren pertzepzio ala lehenetsuen aurka egiten badira (Rodriguez, 2000). Hau dela eta deszentralizazioaren aldeko apustua GSren hastapen nagusien artean aurkituko dugu (Villena, 2000). Honen aldeko lege marko⁴⁶⁷ berri bat egitearekin deszentralizazioaren⁴⁶⁸ eta komunitatearen partaidetzaren⁴⁶⁹ aldeko apustu zabala egin da⁴⁷⁰. Hau gutxi ez balitz nazioarteko mailegu zein garapen erakundeek bat egin dute honekin euren politikaren osagai ofiziala izanik.

Nazioarteko adituek tokian tokiko ekosistemak hobeto kudeatzeko orduan maila lokaleko komunitateak direla aipatzenak argi dute eta hauek urruneko teknikoak baino hobeto egin dezaketela ere dakite (Warren, 1994). Partaidetzaren aldeko apustu honek aldaketa sakona suposatzen du garapenaren planifikazioaz arduratzen diren guztientzat. Goitik-beherako

⁴⁶⁷ Asmoak ederrak badira ere, handiak dira honen aurka dauden interesak Estatuaren zein beste aktore askoren aldetik, eta deszentralizazioa eta partaidetza hitzak potoloak dira zenbaitentzako. Azkenean planteatzen dena modelo demokratiko partizipatiboari loturiko dezentralizazioa da eta asko dira horren aurka altxatzen direnak gobernu mailan ez baitaude prest egitura administratiboa eta abarrekoko aldatzeko. Aldaketaren aurka autonomiak eta deszentralizazioak eragin dezakeen balkanizazioa eta gatazka etnikoa aipatzen dira eta esaten da Estatuaren aurka eta bere lurralde osotasunaren aurka burutzen dela. Nahiz eta diskurtso deszentralizatzaileak eta partaidetzaren aldekoak herri indigenen alde egin asko izan dira definizio mugatzaileak inposatu dituztenak bere aplikazioa bakarrik basogintza ala proiektuen mailara mugatuz

⁴⁶⁸ Estatu askorentzat nazioartetik datozkien proposamen hau iraultzailea izango da nazio-erakuntzaren dotrinak eta garapenaren diskurtso nagusiak aniztasun ekologiko eta kulturalaren konkista defendatzen zuelako eta hau bihurtu delako ohiko praktika. Nahiz eta nazioarteko diskurtsoan adostasuna egon eta diskurtso ofizialaren parte izan euren aplikazio praktikoa oso murriztua izan da. Hala ere, Garapen Sostengariaren teoria eta praktikak zein giza eskubideen eremuan emandako aurrerapenek posiblea egin dute aipaturiko ildoetatik aldaketa instituzional sakonak gertatzea eta herri indigenek aitopren ezberdinak jasotzea, adibidez, Kolonbia (1991), Mexiko (1992), Paraguay (1992), Peru (1993), Bolivia (1994), Argentina (1994), Ekuador (1996), eta Venezuela (2000). Honelako ausiak eta herri indigenekin loturiko beste hainbeste ere Guatemalako (1995) zein San Andres Larrainzar-Chiapas-eko bake akordioetan ere aurkitzen dira. Autonomia aitoprenak Latino Amerikan Panaman eta Nikaraguan aurkitu daitezke eta hortik kanpo Groelandian

⁴⁶⁹ Partaidetzaren gaiaren barruan herri indigenei zuzenduriko ikuspuntu hauek garrantzitsuak dira eurenganako begirunea eta mendeetan zehar nahiz garapen desarrollistaren urteetan jasandako historia latzean gertatutakoak ez errepikatzeko. Asmoak asmo eta praktika askotan kontrakoak bada ere aurre pausatzat jotzen dugu GSak bere proposamenean egindako aipamen berezi hau.

⁴⁷⁰ Partaidetza eta OJren integrazioa bultzatzeko marko instituzional berria defendatzen zuten argi eta garbi Brundtland 1987xostenean: "Sustainability requires the enforcement of wider responsibilities for the impact of decisions. This requires changes in the legal and institutional frames. But the law alone can not make this job" the involvement of community knowledge and support is vital to enforce common interest. Involvement is better secured by decentralizing the management of resources upon which local communities depend and giving them and effective say over the use of these resources. It will also require promoting citizens' initiatives, empowering people's organizations, and strengthening local democracy" (WCDE, 1987:63).

planifikazioak, non boterea, jakintza eta baliabideak kontzentratzen diren, tokia utzi beharko dio behetik-gorako planifikazio eta politikari. Hurbilketa berri honek posiblea egin du ohiko jakintza zientifikoarekin konbinatzea (Colorado 1998; Grenier 1998) baita ere sorturiko ondorio positiboen gaineko kontrola indigenen eskuetan mantentzea.

The bases for grassroots decision making much of which takes place at the community level through indigenous organizations and associations where problems are identified and solutions to them are determined. Solutions seeking behaviour is based on indigenous creativity leading to experimentation and innovation as well as the appraisal of knowledge and technologies introduced from other societies. This allows a shift from scientific research to participatory community or action research in which the aboriginal community participates directly in the research, design and implementation and retains control over the results (Lorin-Labatut & Akhtar, 1992:4 aip.).

3.1 BURUJABETASUNA LANTZEKO LEIHO BAT

Deszentralizazio, autonomia, indigenen ohiko ezagupenaren defentsa eta euren partaidetzaren aldeko apustua erabateko haustura markatzen du “*Terra Nullius*” inspirazio zuen aurreko ideologi kolonialistekin. 169 itunak eta HIGEAK honelako printzipioak goratu dituztelarik. Modu honetan beta ematen da herri indigenen eskaera lokalak marko globalean kokatzeko, baita etnogarapena garatzeko ere (Arregi, 1993), eta horrela herri indigenen kontribuzioa baliarazteko.

Dezentralizazioa eta partaidetza⁴⁷¹ kontribuzioa baliorazteko apustua bereziki lagungarria gerta daiteke komunitateek euren lurraldeak eta bizitzak ukitzen dituzten politiken eta proiektuen inguruko erabakitze prozesuan parte hartu dezaten. Xedea hau litzateke

Ensure that policy makers, development planners, conservationist scientist and managers cooperate with indigenous peoples in a common approach to resource management and economic development. Those measures will provide an infrastructure that could benefit and enforce indigenous peoples (IUCN, UNEP, WWF, 1991:61).

Indigenen kasuan GSk bultzatu nahi duen deszentralizazio eta partaidetza ahalbidetzeko gakoa lurraldeen gaineko eskubideen aitorpenean aurkituko dugu. Hau da partaidetzarako, konfiantza sortzeko zein harreman berriari hasteko pizgarririk nagusia (Colchester, 2000). Printzipio honen arabera ekologia sustatzeko ahaleginak herri indigenak, errekonozituz, euren papera aitortuz, euren oniritzia bilatuz eta euren partaidetzarekin burutu beharko lirateke (Simpson, 1997; Stevens, 1997). Bi printzipio hauek argi eta garbi defendatzen ditu Igoe (2003), dioenean parkeen kudeaketan partizipatiboa egin behar dela eta herri indigenak kontuan hartu behar direla kontserbazio mantentzen bada.

Indigenek behar-beharrezko dituen baliabideak ustiatzeko eskubideak⁴⁷² baldin baditu,

⁴⁷¹Partaidetzaren kontzeptioa eta mugak modu ezberdinean ulertzen dira. Adibidez, GSren ikuspegi instrumentalista bultzatzen dutenak nahikoa dute ikuspegia tertatzearekin baina eurentzat eta proiektuak jarri dituen helburuak hobeto betetzeko bada soilik. GSA giza eskubidea dela diotenen aldez partaidetza garapen proiektuak nozitzen dituzten guztiek duten eskubidea dela diote (WCED,1987:330).

⁴⁷² Dagoneko 169 Itunak horrelakoak onartzen ditu, baina interesgarria iruditzen zaigu ekologiarekin loturiko erakundeek kaleraturiko dokumentu batean aurkitzen

bere eguneroko segurtasuna bermatzeko nahikoa badu, epe luzerako igurikapena eta ikuspegia hobetu eta ingurumenaren gainean presioa askatu egingo da. Beste abantaila bat honako hau dugu: herri lurren sistema, bere ustiaketa eta jabego eskubideak herri ala komunitate bati aitortuz gero, arrotzak ez direla sartuko eta talde barrukoek bakarrik erabiliko dutela bermatuko da (Colchester, 1999). Hau herri indigenentzat eta tokian tokiko komunitateentzat positiboa da onartu egiten delako ingurumen ala baliabide zehatz batekiko mendetasuna duten herriek interes komertzial soila dutenek baino ikuspegi luzeago bat mantentzen dutela kudeaketa eta ustiaketa burutzeko orduan⁴⁷³.

Arazoi hauek direla medio, indigenak GSa bultzatzeko estrategietan integratzeko beharra nazioarteko hainbat aktore esanguratsuek defendatu dute. Bosgarren kapituluan aipatu egin dugu nola "Agenda 21" k bere 26. kapituluan indigenen lehentasunezko taldea (major group) izendatu eta indigenen partaidetza aktiboa sustatzeko bitartekoak jarri behar direla ezartzen duela. Jarrera instrumentalista hau nazioarteko finantza erakundeen kasuan argiago ikusiko dugu beste inon baino. Partaidetza eta herri indigenen aldeko apustua garapen proiektuen helburua hobeto erdiesteko bidetzat aipatu da; gainera aurreko hamarkadetan erakunde hauentzako hain kaltegarriak izan diren gatazkak ekiditeko eta beren inguruko kritika indargabetzeko bideak iradokiz. Honek jarrera aldaketa erraldoia markatzen du, esate baterako, Banco Interamericanok bere idazkietan zera defenditzen du: (i) herri indigenak kontsultatzeko beharra zein proiektuen identifikazio, diseinu, analisi, aplikazio eta ebaluazio faseetan integratzeko eta euren partaidetza bultzatzeko beharra (ii) herri indigenen lurraldeak babesteko dituzten neurriak hartzeko (iii) herri indigenekin lan egiten eta laguntzen dituzten duten GKE agentzien eta erakunde indigenen sendotze instituzionala burutzea (iv) ingurumena mantentzeko eta erabilera sostengarria sustatzeko ahaleginetan herri indigenak aliatu bezala kontsideratzea⁴⁷⁴ (Deruyttere, 1997).

Indigenek lorturiko presentzia eta nazioarteko onarpenari erantzunez, nazioarteko GKE ekologisten artean oso garrantzitsu diren IUCNk 1995an eta WWFk 1997an kontserbazio eta herri indigenei buruzko aitopenenak eta politika jarri zituzten martxan. Ekimen hauetan herri indigenen eskubideekiko errespetua eta euren partaidetza bultzatuko dela onartuz. Blauert & Guidi-k (1992) gai honi helduz erabilera eskubideak nahiko ez direla azpimarratzen dute eta hauek hutsean geldituko direla jabego eskubiderik ez badago. Nazioarteko erakunde (Munduko Bankuak, 1992) eta GKE ekologista askok (IUCN; WWF, 1991) bereganatu egin dute ikuspuntu

dugun aipamen hau: "Recognize the aboriginal rights of indigenous peoples to their lands and resources, including their rights to harvest the animals and plants on which their ways of life depend, to obtain water for their stocks, to manage their resources, and to participate effectively in decisions affecting their lands and resources (IUCN, UNEP, WWF,1991:61)

⁴⁷³ Ekosistema zehatz batekin izandako harreman historikoari "Native Title" deitzen diote indigenek. Modu honetan harremana eta etengabeko ustiaketa eta erabilera eskubideei erreferentzia egiten zaio eta interes komertzialaz gain herri indigenen interesa islatzen duen interesa badagoela erakusten da.

⁴⁷⁴ Antzeko ikuspuntua dute World Bank (1992).

hau: jabego eskubideen aitorenak ingurumenaren erabilera egokiagoa eta ondorio ekologiko baikorragoak ekarriko ditu (Martínez, 2006).

1996an IUCNk 169 hitzarmenaren nahiz HIGEAren balorea onartu egin zuten, gainera euren lanerako erreferentziazko dokumentuak izendatu zituzten, era horretan herri indigenen eskubidekiko errespetua eta aldeko jarrera erakutsiz. Erabaki honek garrantzi testimoniala nahiz erreala handia du IUCN mundu mailan babes zonaldeak sortzeko eta kudeatzeko irizpideak ezartzen baitu. 1997an WWFk *Declaración de Principios sobre los Pueblos y la Conservación* onartuz herri indigenekin aritzeko prozedura ezarri zuen. Erabaki honek bidea zabaldu die beste GKE eta gobernuei deszentralizazio eta partaidetza bideari ekiteko.

Erakunde guzti hauek bat datoz indigenen partaidetza egia egiteko ezinbestekoa dela ondoko puntuak kontuan hartzea: herri indigenen erabaki eremua onartzea, euren egitura eta instituzio politiko eta sozialen aitortzea egitea, eta errekonozitzea eurek zilegitasuna eta autoritatea dutela lege indigenak indartzeko eta euren ondare kulturala eta lurraldeak zein bertan dauden ekosistemak babesteko. Modu honetan posiblea da garapen estrategia eta erabakiak bat etortzea bertako kultura eta beharrek eta ez kanpoko eta urruneko norbaiten nahiekin⁴⁷⁵. Hau lortuz gero kolonialismo berdearen arriskuak uxatu egingo liriteke behin betiko eta benetako GSren aurrean geundeke (International Alliance of Indigenous-Tribal Peoples of the Tropical Forest, 1996:14).

Deszentralizazio eta partaidetza sustatzeak zera suposatzen du bakoitzaren kultura eta nortasunaz harro egonik auto garapena bultzatzen duten egitura eta politikekin, modu koordinatu batean lan egitea, komunitateek eta munduak nozitzen dituzten arazoak konpontzeko (Paz, 1991). Dena dela, aurreko kapituluan argi gelditu den legez, bai 169 Itunak baina are argiago HIGEAk honelako printzipioak onartu eta bere testuan uztartu ditu, autodeterminazio eta autogobernurako bidea zabalduz. Are gehiago, seigarren kapituluan erakutsi dugun bezala XXI. mendean eraiki nahi den harreman berria autodeterminazioan oinarria behar du iraganeko akatsak ez badira errepikatu nahi behintzat.

4. GARAPEN SOSTENGARRIRAKO PROPOSAMEN INDIGENA

Munduan nagusitu den GS proposamena osotu asmoz, Laugarren Munduak berau nola ulertzen duen eta praktikara eramateko proposamena egin du askotan. Kari Ocatik hasita 2002an Johannesburgon antolaturiko mundu gailurrera arte, indigenek euren iritzia eta ikuspegia plazaratu

⁴⁷⁵ Diskurso berri hau oso aproposa gertatzen zaie herri indigenei euren ohiko naturaren gaineko kudeaketa sistemen aitortzea eta bultzada suposatzen duelako eta euren ohiko gobernu sistemaren aitortzerako eta sustapenerako bidea prestatzen duelako. GSarentzat hain garrantzitsua den helburu eta oreka ekologikoaren eskutik, ohiko kultura eta gobernuaren indartzea defendatu eta sustatu egingo delako. GSak bultzaturiko baliabideen gaineko partaidetza bat dator herri indigenen autodeterminazioa eta etno-garapenaren inguruko proposamenetan lurralde eta baliabideen gaineko kontrolari ematen zaion garrantziarekin.

dute nazioarteko goi bileretan, espresuki bilduriko “Caucus Indigena”k erabakitako aldarrikapenak plazaratuz. Indigenen ikuspegia ezagutzeko ondoko dokumentuak kontuan hartu behar dira Laugarren Munduak GSri buruz duen jarrera ulertzeko: *the Draft Declaration on the Rights of Indigenous Peoples; the Charter of the International Alliance of Indigenous and Tribal Peoples of the Tropical Forests; the Mataatua Declaration; the Santa Cruz Declaration on Intellectual Property; the Leticia Declaration of Indigenous Peoples and Other Forest Dependent Peoples on the Sustainable Use and Management of All Types of Forests; the Charter of Indigenous Peoples of the Arctic and the Far East Siberia; the Bali Indigenous Peoples Political Declaration; and, the Declaration of the Indigenous Peoples of Eastern Africa in the Regional WSSD Preparatory Meeting*. Hauei gehitu egin behar zaie Johannesburgoko GSa Gailurrarekin batera indigenek egindako biltzarretik ateratako *Kimberleyko aldarrikapena eta Indigenous Peoples’ Plan of Implementation on Sustainable Development*.

Johannesburgoko 2002ko gailurrean indigenek *Indigenous Caucus-en bidez Indigenous Peoples Plan of Implementation on Sustainable Development* aurkeztu zuten Dokumentu honetan Agenda 21eko 26. eta 20. kapituluaren garrantzia berretsi eta indigenen mundu ikuskera eta izpiritueltasuna; autodeterminazioa eta lurraldea, sinaturiko tratuak; haur eta gazteen ongizatea, emakumea, janari segurtasuna; OJri egindako erreferentziak; lur sakratuen errespetua; meatzaritzaren aurkako jarrera; biopirateriaren aurkako moratorium bat; basoak; energia iturriak; turismoa; kostalde eta arrantza; ur gestioa; ingurumen aldaketa; osasuna eta produktu toxikoak; desertifikazioa; hezkuntza; zientzia; teknologiak eta komunikabideak; segurtasuna eta gatazka konponketa; bizimodu sostengarrien sustapena; multinazionalen erantzukizuna; gobernu deszentralizazioa eta partaidetzarako mekanismoen beharra eta giza eskubideen errespetua GS erdiesteko aurrebaldintza bezala aipatzen dira.

Dokumentu honetan gaurkotasun handiko gaiak aitatzen dira eta indigenak XXI. mendeko agenda globalarekin duen lokarriak erakusten dute. Proposamen hauetan betiko auziez gain XXI mendeko auziak agertzen zaizkigu. Gainera, GSrekin loturiko garapen erakusleen aldaketa defendatzen dutenekin bat eginez, erakusle sozialak eta kulturalak txertatu behar direla mantendu dute. Hurbilketa honek indigenentzat hain garrantzitsua den komunitateari eta bere sendotzeari garrantzia ematen dio, eta demokrazia, giza eskubideen errespetu eta hobekuntza soziala lotu egiten dira. Era honetan, erakusle berriekin posiblea izango da GS oinarri diren esparruak (kulturala, soziala, ekonomikoa eta ekologikoa) besarkatzea eta erakusle ekologiko-ekonomiko soiletatik askatzea⁴⁷⁶.

⁴⁷⁶ Horrela dio Peters-ek (1988:252): “... measures can be created which would include, besides demographic indicators and indexes of economic wellbeing, some

Gogoratu indigenen ustez GS biodibertsitatearen osasunaz baino bizitzaren sareaz (Tauli-Corpuz, 1999) eta berorren osasunaz ari garela gehiago, baita herri indigenen iraupenaz (Corntassel, 2008). Indigenen proposamenak alorren arteko sistema bateratu eta berorren arteko harreman sistemiko batetaz hitz egiten digu.

•*Economic viability: everybody is better off and nobody is worse off. Project will benefit the greater majority and will not cause serious harm or permanent disbenefits to the affected minority.*

•*Ecological viability: ecological functions of the environment and regeneration capacity of natural resources will not be significantly hampered nor altered.*

•*Technological viability: environment-friendly technology will be adopted in the process of production.*

•*Political viability: people participate in the planning and implementation of the project. People own and share the benefits of the project.*

•*Socio-cultural viability: core values, beliefs, and worldview of a community which are consistent with human ecological principles (cg., life-giving, peace-keeping) will be enhanced and not opposed.*

•*Institutional viability: responsible institutions have the capability to sustain development activities (aip. Rovillosek, 1999:12an).*

4.1 AUTODETERMINAZIOA KONTSERBAZIO AHALEGINAREN MUINEAN

Aurreko kapituluan ikusi dugun bezala autodeterminazioa agenda indigenaren bihotza da. Seigarren kapituluan autodeterminazioa printzipio politiko bezala jorratu dugu, baina ezin dugu ahaztu askoz gehiago dela ikuspegi indigenan. Corntassel-ek (2008:118) honela dio honi buruz GSri kritika eginez eta indigenen ikuspegian autodeterminazio sostengarriaz ari garenean zertan ari garen argituz.

...this definition does not go far enough as a benchmark for indigenous political, cultural, economic, and environmental restorative justice (in theory and in practice). For indigenous peoples, sustainability is intrinsically linked to the transmission of traditional knowledge and cultural practices to future generations. Without the ability of community members to continuously renew their relationships with the natural world (i.e., gathering medicines, hunting and fishing, basket-making, etc.), indigenous languages, traditional teachings, family structures, and livelihoods of that community are all jeopardized. Indigenous connections between well-being and food security/ livelihoods are critical to the realization and practice of a sustainable self-determination. When such relationships are severed, "the knowledge, world views, values and practices about these relationships and about other aspects of their food and agro-ecological systems, commonly erode over time as well." In other words, disruptions to indigenous livelihoods, governance, and natural-world relationships can jeopardize the overall health, well-being, identity, and continuity of indigenous communities are all jeopardized.

Baliabide eta lurraldearen gaineko kontrolaren garrantzia onartzen da EPZNK eta ESKNK ren autodeterminaziori buruzko lehenengo artikularen bigarren zatian, lurralde eta baliabideen gaineko kontrolari egiten dionean erreferentzia (Castellino& Gilbert, 2003).

2. All peoples may, for their own ends, freely dispose of their natural wealth and resources without prejudice to any obligations arising out of international economic co-operation, based upon the principle of mutual benefit, and international law. In no case may a people be deprived of its own means of subsistence.

Gauza bera gertatzen da HIGEAren kasuan, non bere V. atalean (19-24 art.) garapena izateko eskubidea, partaidetza eta beste eskubide sozial eta ekonomikoak aipatzen diren. Era

sense first of the degree to which a people can structure their lives according to their own cultural understanding and values, second the degree to which people can pass cultural heritage to their children, and finally and indication of the disruption in the fabric of community and personal life brought by the process of "development".

berean VI. atalean (25-30 art.) lurralde eta baliabideak agertuko dira. Lurraldeek berebiziko garrantzia dute herri indigenentzat, herri indigenen biziraupenerako gakoak baitira. Indigenen ikuspegian herria, norbanakoa, ekosistema eta hauei loturiko kultura gauza bera eta bat dira. Biziazen sarean partaide direnen arteko harremana, eta hauekiko erantzukizuna indigenen sakoneko herri izaeraren nolakotasunak dira (Corntassel, 2008). Ekosistemetan bizirik dirauen biodibertsitatea, lurralde eta ekosistemekin dituzten mota askotako harremanak nahiz guzti hauekin loturiko jakinduria ezinbestekoak dira Laugarren Munduaren etorkizuna bermatzeko eta euren autodeterminazio eskubidearen eraginkortasuna ziurtatzeko.

Any conception of self-determination that does not take into account the multiple patterns of human association and interdependency is at best incomplete or more likely distorted (Anaya, 2004:13).

Hil ala biziko gai hauek ere XXI. mendeko autodeterminazio indigenaren muinean daude eta elkarrekin loturik antzematen ditugu.

...the right of permanent self determination over natural resources was recognized because it was understood early on that without it, the right of self-determination would be meaningless. (Daes, 2004:7)

Gauzak horrela, Estatu eta multinazionalen batera ekologia gaietan lehen mailako aktoreak bihurtu diren GKE kontserbazionisten ikuspuntua birbideratzea lortu dute herri indigenek⁴⁷⁷. Autodeterminazio indigenaren bitartez herri indigenek urrun dauden erakunde ala instituzio ez indigenek, GSren izenean oraingoan ere inposatzea burutu ez dezatela ziurtatu nahi dute (Stevens, 1997). Euren lurretan GS proiektuak hasi baino lehen euren partaidetza, euren ikuspuntuak, interesak eta iritzia kontuan hartzen direla ziurtatu nahi dute. Hau da, euren lurralde, herri ala kulturarentzat kaltegarri izan daitezkeen proiektuei ezetza emateko eskubidea eta gaitasuna (Rodríguez, 2003) azpimarratuz. Beraz, Estatuak zein beste edozein aktoreek proiektu bat martxan jarri baino lehen euren kontsulta bultzatzea, informazio osoa ematea, edozelango etekinetan parte hartzea, euren lurraldeetatik kanporatuak ez izatea eta horrelakorik gertatzekotan kalte ordainak jasotzea eta ahal denean euren lurraldeetara itzultzeko aukera izatea defendatuko dira. Autodeterminazioa beraz edozein harremanen eta proiektuaren oinarri, bihotz eta funtsean egongo da.

Cualquier estrategia de Desarrollo Sostenible en territorio indígena debe partir del reconocimiento del hecho indígena como una realidad cultural y política viva, activa, capaz de tomar las riendas de su desarrollo y de decidir qué tipo de contribución pueden y desean hacer a la comunidad mundial. Los agentes de desarrollo trabajando en zonas indígenas deben tener en cuenta que, para los indígenas, el vínculo entre identidad, biodiversidad y Naturaleza es una cuestión vital para su supervivencia étnica. Y que si se quiere mantener el medio ambiente es necesario apoyar los derechos, la supervivencia y el robustecimiento cultural de estos pueblos, y no, como se ha hecho hasta ahora, centrar el interés en el mantenimiento de zonas ecológicas, ignorando y aislando a las personas que viven allí. Este punto debe estar en la base del entendimiento de los pueblos indígenas y del valor de sus comunidades y culturas (Arregi, aip. Ness-ik 1999:net).

⁴⁷⁷ Modu honetan ideologia eta jakinduri joerak zuzentzen duen komunitate epistemologikoaren barruan eragina lortu dute. Aipaturiko GKE erakunde hauek joerak definitzeaz gain, NBEan aholkularitza statusa dute eta nazioarteko erabaki asko baldintzatzeko ahalmena dute. Beraz, biopolitika mailan, printzipioen inguruan, nazioarteko gizarte zibilaren artean autodeterminazio eskubidea onartu egin dela esan genezake.

Honelako eskaerak bai onarturiko HIGEA n zein 169 Itunean agertzen dira. Seigarren kapituluan erakutsi dugun bezala, Estatuak eta nazioarteko erkidegoak onartu egin dute herri indigenen autodeterminazio eskubidea garatu daitekeela Estatuak mugen barruan. Autodeterminazioa eta honekin loturiko lurraldeen gaineko eskubideak onartzen dituztelarik HIGEA eta GS lotu egiten dira.

In the face of this picture, the importance of implementing the UN Declaration on the Rights of Indigenous Peoples becomes even more crucial for the survival not only of indigenous peoples but of the earth. If the implementation of the Declaration means that we are able to implement our self determined development, we will continue to practice our low-carbon traditional livelihoods, strengthen our ways of nurturing biological and cultural diversity and our harmonious relationship with nature, protects our rights to our lands and resources, then there is a big chance that positive major changes in caring for the earth and living beings can come about. We have already contributed significantly in mitigating climate change through our resistance against oil, gas and coal extraction, our successful struggles to save our forests from being cut and by living sustainable life ways. We will contribute even more to making this world sustainable if the world protects, respects and fulfils our rights as contained in the UNDRIP (Tauli-Corpuz, 2008).

Erabakitako autogobernua “*self determined development*” formula hau hurbil dago Stavenhaguen-ek (1987) bere garaian etnodesarrollo moduan proposatu zuenetik.

It means that an ethnue, whether indigenous or tribal, maintains control over its own resources, social organizations and culture and is free to negotiate with the State the kind of relationship it wishes to have. It also means finding in the group's own culture the resources and creativity necessary to confront the challenges of the modern, changing world (Stavenhagen, 1990:5).

Honela eurengan eragina duten prozesuetan euren partaidetza bermatzen da “free, prior and informed consent” formularen oinarrituz. Etnogarapenak autodeterminazioari heltzeko bide posibilibatza eta ez polemikoa eskaintzen du, Estatuak errealitatea errespetatu eta edozein interpretazio protodiplomatikotik at dago (Seton, 1999), onartzeko askoz errazagoa den garapen endogenotik hurbilago egonik.

...Etnodevelopment that is, policies designed to protect, promote and further the culture of distinct non dominant ethnic groups within the wider society, within the framework of nation-state or the multinational state (Stavenhagen, 1998:17).

4.1.1 Etnogarapena: Euren Giza Eskubide eta Kulturaren Oinarrituriko Bidea

Etnogarapena eta etnoiraupena estuki loturik ditugun kontzeptuak dira. Etnoiraupena herri indigena bakoitzaren nortasuna osotzen eta eratzen duen ondare kultural berezkoaren babesaz eta sustapenaz arduratuko litzateke. Ia nortasun politiko eta soziokulturalaren desagertzea pairatu duten herrientzat etnoiraupena eta euren kulturen babesa eta sustapena hil ala biziko gaia gertatzen da (De la Fuente, 2009). Are gehiago kolonialismo harrapakari berriak euren kultura eta ondare biologikoa lapurtzeko gaiak izendatu dituenean (Delgado, 1996). Globalizazioak bultzaturiko kulturaren aurrerakadak herri indigenentzat oso kaltegarria gertatzen

ari da, euren kultura, elikagai segurtasunean⁴⁷⁸ osasunean, norbanako buruaren estiman, ingurugiroan, eta erlijioan ondorio larriak izanik (Alangui, 2000). Gai hauei erreparatuz, etnoiraupenak ondorio ezkorrei aurre egin eta berezko balore, ikuspuntu eta birsorkuntza kulturala bermatzeko mekanismoak sustatu nahi ditu. Borrokatu beharreko ondorio ezkorrek ondokoak direlarik:

1) Food Security, already inadequate, would be seriously affected, given that the diversity and agricultural production on which communities depend would come to depend on individual, private and foreign interests;

2) The special characteristics of the knowledge and/or know how of Indigenous Peoples, their collective, all embracing and supportive Ancestral nature which prevents it from being possible to individualise and privatise their ownership, like any other asset;

3) Disrespect for life forms, their values and practices and for the dignity of indigenous Peoples which, in the case of the Human Genome and related systems, can already be clearly seen

4) To fight to defend cultural and biological diversity and thus, opposition to the patenting or appropriation of living access to natural resources, control of the knowledge or cultural Matter, which must not be seen as merely a cultural and heritage of peoples, control of the use of their resources and; economic grievance but fundamentally a political one.

5) The substantial genetic and biological erosion;

6) The disruption of the tranquillity of the communities;

7) The plundering of their resources and their territories;

8) Cultural erosion and, finally,

9) The considerable deterioration in their quality of life, (International Alliance of Indigenous-Tribal Peoples of the Tropical Forest, 1999:40).

Hau dela eta, herri indigenek euren ondarea babestu ahal izateko sistema propioak ala nazioarteko laguntzarekin diseinaturikoak, baina eraginkorrak bultzatu nahi dituzte (Shahidullah, 2007). Hau ez da erronka makala inondik inora. Kultur ondare indigenaren osagaiak ez dira askotan publikoak, ezta eskura eta igortzeko errazak. Informazio kulturala, batez ere, zentzu erlijiosoa duena, eta ingurumenarekin lotuta dagoena batik bat, izaera sekretua du (Evatt, 1998). Ikuspuntu honek aurrez aurre topo egiten du merkatu kulturarekin, eta herri indigenentzat funtsezko gaia gertatzen da⁴⁷⁹. Ondorioz, sakratua den informazioa sekretuan mantentzea eskatzen dute herri indigenek bestela informazioa askatzearen ondorio ezkorrek kultura hauek jasango dituztelako⁴⁸⁰. Errealitate honen txertaketak erronka handia suposatzen du herri indigenak jabego intelektualaren babesean interesa dugun guztiontzat.

⁴⁷⁸ Honen arabera indigenek eskubide demokratikoa eta gaitasuna izango lukete elikagaien produkzioa, distribuzioa eta kontsumoa baldintzatzeko eta ziurtatzeko eurak populuen tradizio eta gogoari jarraituz egiten direla (Alangui, 2000:17).

⁴⁷⁹ Laugarren kapituluaren kolonialismo berriarekin loturiko kapituluaren turismo eta "new age" antzeko mugimenduen jarraitzaileek "jatorrasun indigena" kontsumitzen dutela esan dugu. Zenbat eta jatorrago, garbiago, gardenago are atseginagoa egingo zaigu produktu kulturala. Gauzak horrela, sekretuaren gaia kulturen arteko harremanaren funtsezko gaia izan behar da hau. Indigenek askotan ez dakite euren kulturaz egindako erabilerak nolakoak diren eta bilatzen dutenean iraingarria gertatzen zaie. Gai hau are inportanteagoa da OJrekin lotzen dugunean.

⁴⁸⁰ Informazioa usadioei, praktika zehatzei zein toki zehatzei lotuta agertu daiteke. Balio kulturalari buruzko informazioa ezinbestekoa izan daiteke zonalde babestua izendatzeko, duen balore kulturalagatik nahiz ekologikoagatik, baina indigenek sekretua apurtzea debekaturik dutelako ala informazioa askatzean jendearen jakingura piztuko duelako askotan esangura bereziari buruzko informazioa ez ematea erabakitzen dute. Evatt-ek dioskunez benetan arazo potoloa dela eta ikuspegi kultura anitza hartzearen beharra azpimarratzen duena dugu hau.

4.1.2 Esangura Bereziko Lurralde eta Ekosistemen Babesa

Hainbat lurralde, toki, ekosistemak, animalia zein landare motak ezinbestekoak gertatzen dira birsorkuntza kulturala ziurtatzeko. Adibidez, Amerikatako arranoaren lumak ezinbestekoak dira AEBtako hainbat herrien erlijiorako. Kasu hauetan herri indigenek ondare honen babesa eta bertaratzeko/erabiltzeko eskubideak errespetatzea eskatu dute. Balore kultural handiko lurralde ala ekosistema hauen osasuna eta edertasuna mantentzea ezinbestekoa gertatzen da indigenentzat. Ondorioz, guretzat produktuak ala trukerako diren artikuluak, jabego intelektualaren objektua izan daitezkeenak, alegia, indigenentzat herri baten ondarearen parte dira. Beraz, banaezinak eta saldu ezinak. Daes-ek (1995) “ondarea” kontzeptu erabiltzea egokiago ikusten du, talde izaera hobeto islatzen delako

<Patrimonio> es todo lo que forma parte de la identidad característica de un pueblo, que puede compartir si lo desea, con otros pueblos. Esta expresión abarca todo lo que en la legislación internacional se considera como creación del pensamiento y de la destreza del ser humano, como, por ejemplo, canciones relatos, conocimientos científicos y obras de arte. Incluye también el patrimonio histórico y natural, como los restos humanos, las características naturales del paisaje y las especies vegetales y animales autóctonos con las que un pueblo ha estado tradicionalmente vinculado (Ibidem: 24 parr.).

Ondarearen parte dira baliabide genetikoak eta Daes-ek gogoratzen digun bezala⁴⁸¹. Beraz azkenean auzian duguna ondare kulturalaren gaineko kontrola eta autodeterminazioarekin loturiko gaia da: hau da herri indigenak zer, noiz, norekin, zeren truke eta nahi izanez gero, konpartituko duten euren ondarearen aleak. Kontrakoa egitea, mendebaldeko kulturak hain gogoko dituzten zatiketak inposatzea eta herri indigenen kultura kolokan jartzea suposatuko luke⁴⁸².

Sobre todo, es evidente que las actuales formas de protección jurídica de la propiedad intelectual o las patentes, no sólo no son adecuadas para la protección del patrimonio de los pueblos indígenas sino que intrínsecamente no son idóneas. Las medidas jurídicas existentes prevén una protección de duración limitada y tienen por finalidad fomentar la difusión y la utilización de conceptos mediante su venta o mediante un régimen de licencias. El hecho de someter a los pueblos indígenas a ese marco jurídico tendría sobre su identidad el mismo efecto que ha tenido sobre el territorio de muchos países la individualización de la propiedad de la tierra, es decir la fragmentación y venta de las partes, hasta que no queda nada (Ibidem:32 parr.).

Ondarea babestu baina modernotasunak eskaintzen dituen aukerez baliatzeko asko dira OJ eta zientziaren arteko elkarlana hasi daitekeela diotenak (RAFI 1994; Varman 1999; Colfer, 2008), hori bai beti herri indigenen eskubideei erreparatuz. Bide hau jorratuz, aipa dezagun International Society of Ethnobiology, euren lana gidatzeko onarturiko *Codes of Conduct and Standard of Practice* (1997)⁴⁸³. Kodigo hau egiteko behar izaten dira 10 urte eta mundu mailako kontsulta non indigenek eta zientifikoek parte hartu zuten. Kodigo hau gidatzen duten hastapenak

⁴⁸¹ Daes-ek (2004: 42 eta 40 parr.) honela dio: “Genetic resources are among the natural resources belonging to Indigenous peoples...It is a collective right by virtue of which States are obligated to respect, protect, and promote the governmental and property interests of indigenous peoples (as collectivities) in their natural resources”

⁴⁸² Lurraldearen gaineko borroak eta mendeetako esperientzia horrela dio: sakabanaketa, desjabetzea eta salmenta dakar epe luzera.

⁴⁸³ Honen kopia bat Working Group on Traditional Resources Rights (1997). Honen 2006ko bertsio gaurkotua helbide honetan aurki daiteke http://ise.arts.ubc.ca/global_coalition/ethics.php.

ondokoak lirarteke:

self-determination; inalienability; minimum impact; full disclosure; prior consent and veto; confidentiality; active participation; respect; active protection; good faith; compensation; restitution; reciprocity; equitable sharing (Posey, 1998: 52-53)

Bide honetan hasteko, indigenek eskatu egiten dute OJren aitortpen ofiziala eta hau babesteko, sustatzeko eta garatzeko instituzio indigenen bilakaera Hau da GKE, fundazioa ala unibertsitate departamentuen egitea bidea izan daiteke (Melody,1994). Modu honetan, elkarlana eta kosmo ikuskera ezberdinetan oinarrituriko ezagupen, tradizioen arteko elkarlana eta elkarrizketa hasi daiteke (Smith, 1999). Marko honetan zientzia eta OJren inguruko elkarlana eman daiteke eta zibilizazio bientzat onuragarria den kontribuzioak lortzeko bidea zabaltu (Shahidullah, 2007). Horrela etnoiraupena eta autosufizientzia bultzatu daitezke eta zientzia eta beste tradizioen arteko kideak ukatzen duen diskurtsoari⁴⁸⁴ alternatiba eskaini (Arregi, 2006).

Honelako ekimenak inportanteak dira ikerketa munduan indigenen partaidetza eta interesa bermatzeko. Herri indigenak ikerketa objektu izatetik ikerketa subjektu eta partaide eraginkorrek izatera pasatu nahi dute (Posey & Dutfield, 1998). Ikerketan parte hartuz berau nola, zergatik, norentzat eta zer ondorioekin egin daitezkeen ikasten dute. Honelako, sistemak bultzatzeko orduan Kunak aitzindaritza markatu egin dute atzerriko hainbat unibertsitateekin (Arregi, 1993) ikerketarako akordioak sinatuz euren jendearen bertan partaidetza eta trebatuak direla ziurtatu dutelako⁴⁸⁵. Hau oso garrantzitsua da edozein ikerketarako, baina are garrantzitsuagoa gertatzen da bioteknologiarekin loturiko kasuetan patente eta etekinen aukerari lotuta dagoelako.

Reconocimiento del derecho de los pueblos indígenas a participar a nivel directivo en cualquier investigación o proyecto en general, relacionado a recursos biogénicos y biotecnología, así como garantizar sus derechos sobre los resultados de dichos proyectos y su control sobre las patentes y beneficios que de ellos se derivan (Nugkuag, 1995:32).

Zentzu honetan prestakuntza areagotu egin behar indigenen artean mundu mailan ematen ari diren prozesuak ulertu ditzaten eta hauei erantzuteko estrategia eta diskurtsoak gara ditzaten. Borroka honetan herri jabegoa onartzea, kulturalki esanguratsua diren ekosistema eta objektuen babesa, nazioarteko marko kooperatibo baten defentsa ezinbestekoa gertatzen dira. Nondik jo daitezkeen ikusteko hemen Brasilen lortutakoa. OJren gaineko sekretua mantentzeko eskubidea; OJrekiko sarrera ukatzeko eskubidea; OJren gaineko babes intelektuala eskatzeko eskubidea. Kasu honetan komunitateak emango luke baimena eta babesa.; baimena emateko eskubidea

⁴⁸⁴ Zientzia eta OJren artean konponezin arradikala dela nagusi diote Shiva-k (1997) eta deep ecology korrontean dauden beste askok. Sistema kontrajarriak eta elkarren aurkakotzat dituzte. Aldiz, RAFI antzeko zentroek elkarlana defendatu eta praktikatu egiten dute.

⁴⁸⁵ Honen berri Jesus Alemancia Kuna Parlamentuko idazkariak eman zidan izandako elkarrizketa batean. Kune ikerketa eskubideak saldu egiten dizkiete hainbat unibertsitatei biodibertsitateari buruzko ikerketa egin dezaten. Ikerlariaren gidariak eta laguntzaileak soro-lanea egiten dutenak Kuna dira, eta ikerketa burutu ondoren euren guziaren kopia jasotzen dute. Ondorioak aztertze lagun dituzten unibertsitateekin jartzen dira dira kontaktuan eta horrela euren lurraldean dagoen balore zientifikoaren informazioa berri-berria izaten dute.

informazio egokia jaso ondoren OJrekiko sarrera lortzeko eta beraren erabilera eta aplikazio egokia egiteko; ikerturiko datuen eta honetatik eratorriak diren produktuen gaineko jabetza partiturrekiko eskubidea; euren jakinduriatik eratorriak diren patenteak indargabetzeko eskubidea (Simpson, 1997:183).

4.2 BIOPIRATERIAREN AURKAKO BORROKA LATZA

OJ, ondare kulturala, autodeterminazioa eta herri iraupenarentzat duen garrantziaz jabetu ondoren biopirateriaren aurkako borrokari helduko diogu: gai honek zuzenki eraso egiten baitio autodeterminazio indigenari. Bioaniztasunetik eratorriak diren produktuen gaineko jabego intelektualaren inguruan eta honi dagozkion eskubideen nahiz etekinen inguruan kokatzen da eztabaida hau. Izan ere, gai honen inguruan irudikatzen da, beste edonon baino hobeto, mundu ikuskera eta zibilizazioen arteko talka eta ondorengo gatazka latza, konplexu eta desorekatua.

The values and concepts of western PR are basically antithetical to the values, beliefs and practices of many indigenous peoples. Therefore, to urge them to use the western PR regime to protect their traditional knowledge and cultural and biological diversity is problematic. The objective of the TRIPS Agreement to make national PR laws consistent with it is fraught with problems. WTO member-states are obliged to implement domestic legislation that will guarantee the intellectual property rights of corporations. Many governments are either in the process of changing their PR laws or have already changed these. Yet the attempt to explore or develop alternative legal mechanisms which can adequately protect indigenous peoples' cultural and intellectual heritage is wanting (Tauli-Corpuz, 1999:86).

Hau horrela da, Munduko Merkatal Erakundeak (MME/WTO) TRIPS bidez patente sistema globala ezarri nahi duelako. Ondorioz, HIKEren, ardatz nagusi bat herri indigenen eskubide, jakinduri eta baliabide defentsan zentratu da.

Teknologiaren aurrerapenarekin eta jakintzaren jabegoarekin zuzenean loturiko auziak herri indigenei erronka berriak eta konplexutasun handikoak planteatzen dizkiete. TRIP babes sistema honek mendebalde industrializatuaren tradizioa hartzen du kontuan, munduko herri indigenek zein nekazal herriek garaturiko babes moduak eta tradizioak ukatuz (Seini, 2003). Mendebaldeko tradizioan jabegoa diruari zein beste motako etekinen lorpenari lotuta dago. Jabegoa eskuratzeko patentatu nahi den produktua berria eta industrian aplikazioa duena izan beharko du. Babes sistema honek, noski, kanpoan uzten ditu herri indigenak eta mundu osoko nekazariak mendeetan zehar eta era kolektiboan egindakoa (Shahidullah, 2007). Esate baterako, OJ egunero erabiltzen duten herrien errealitatean jakintza eta haziak libreki elkartrukatu egiten dira. Hobekuntza modu dinamiko eta etengabe honetan burutzen da (Shiva, 1993). TRIP-en bidea jarraituko balitz honelako elkartrukeak debekatu egingo lirateke, gaur egun, ezagutzen dugun aniztasun biologikoa eta kulturala mugatuz, eta praktika kulturalak kolokan jarritz (Lidgard, 2004).

El artículo 27.1 de los TRIPs establece que para patentar un producto, éste debe ser innovativo y tener implicación industrial. Esta definición desconoce el sistema de innovación tradicional e intergeneracional llevado a cabo por indígenas y campesinos. Estos cuidan modifican o adaptan sus semillas, las intercambian

libremente y las conservan para el año siguiente (Sing, 1997:136).

TRIP biopirateriak egindako lapurreta zilegi egiteko sistema dela salatu dute askok (Magallanes 1999; Tauli-Corpuz 1999; Simpson 1997). Besteganatze prozesu honetan BBBk paper handia izan du. BKKk OJ gizateriaren jabegoa izatetik Estatuaren jabegoa izatera eraman du, eta defendatu informazioa publikoa egiteko eta partitzeko derrigortasuna (McKay, 1999). Modu honetan interes handiko ekosistemetan sarbidea mundu mailako beharra bihurtzen da, eta are errazago egin ekosistema hauei loturiko bioproduktu berriak sortzea. Baina ikuspegi neoliberal honek, berriz ere, gizarte euroamerikarraren balioak inposatzen ditu eta herri indigenen espiritualtasunaren, eskubideen eta jakinduriaren aurkako erabateko eraso burutu. Eraso hau justu euren kulturen balorea eta euren partaidetzaren beharra espazioa eta errekonozimendua irabazten denean.

TRIP jabego sistemak herri indigenen ezagupen eta kontribuzioaren ukatu egiten du modernotasunaren baitan garatu diren modu eta kontzeptuei lehentasuna emanaz (Seini, 2003). Horrela herri garatuek euren nagusitasun politikoa erabiltzen ari dira mundu ekonomian duten abantaila konparatiboa eskaintzen dien teknologiaren gaineko fruituak babesteko (Lander, 1993/94:53). Beraz puntako teknologia eta honen erabilera izango da “gain balorea” markatuko duena, eta jabegoaren ateak zabalduko dituen hain zuzen ere.

Egoera paradoxikoa beraz, jabego eskubideen defendatzaileen iritziz informazioa⁴⁸⁶ hirugarren munduan harrapatzen denean, gizateriaren ondarearen zati bat da, ondare publikoa beraz, eta ez dago patentea egiterik (Daes, 1997:99 parr.). Aldiz, informazio hau Iparraldeko laborategietan tratatu eta prozesatu ondoren bai bihurtu dela babesteko gaia. Beraz, benetako balorea prozesatu, berraldatu eta herri industrializatueta tratatu eta merkaturatu ondoren soilik jasoko du (Grunwald & Vogel, 1994). Prozesuak berak bihurtuko du berria ohikoa, mendeetan garaturiko “*prior art*” delakoa (Seini, 2003). Ondorioz patentea sintetizaturiko prozesuaren gainean egin ahal izango da.

Se pretende imponer la noción de los países del Norte que considera a los recursos genéticos como producto común de la Humanidad hasta que son modificados por la industria y pueden llegar a ser patentados (La Alianza Mundial de los Pueblos Indígenas y Tribales de los Bosques Tropicales, 1997:145).

Patente sistema honetan gizabanako edota enpresa baten jabego indibiduala onartzen da, baina ez da antzekorik gertatzen herri indigenen artean nagusi den talde jabegoarekin. Are gehiago, jabego kolektiboa ontzat emango duen indigenen saiakerek hutsaren hurrengo arrakasta lortu dute. Ondorioz, Posey eta Harry-k (1998:49) “*Terra Nullius*” en ispiritua, maila zientzia eta bioteknologia sorturiko etekinen gaineko jabegora aplikatzen ari dela salatzen dute. Clay-k (1994)

⁴⁸⁶ Informazioa zentzu zabal batean erabiliko dugu, batzutan ekosisteman aurkitzen den zerbaiten erabilerari buruzkoa da, ohiko erabiltzaileek emandakoa, baina beste batzutan informazioa hau ale baten itxura izango du (bertan harrapatu den landare, ala animalia zein mikroorganismo baten ale bat).

“*Intellectual Terra Nullius*” argi eta garbi kolonizazio berri baten kasuaren aurrean gaudela dio. “*Intellectual Terra Nullius*” tokian tokiko landare eta baliabide biologikoak “basatiak” bezala definitu ondoren kolonizatzaileei⁴⁸⁷ hauetatik eratorriak diren produktuen gaineko jabegoa⁴⁸⁸ lortzeko erabiltzen denean gertatzen da. Aurreko jabegorik egon dagoela ez baita onartzen, ezta aurreko ezagupena (prior art) dagoenik. Finean bigarren kapituluaren Cronon-ek deskribatzen zuen prozesuaren antzekoa gertatzen da, berriz ere, XXI. mendeko zientzia, teknologia eta zuzenbidea erabiliz ekosistema eta baliabide indigenen gaineko konkista bermatzeko.

TRIP modeloak biopirateria sustatu, euren eskubideak urratu, OJren talde izaera ukatu, biodibertsitatearen narriadura eta pobretzea bultzatu, baliabide, lurralde eta ekosistemen krisialdia eragin, eurekin loturiko kultura eta herriak krisialdira eramanez, eskura errazak izandako baliabideen kontzentrazioa ekarri, jateko gaien (*food security*) gaineko kontrola euren eskuetatik kendu eta, oro har, bizitza kalitatearen jaitsiera ekarri du.

TRIPei aurre egiteko saiakera franko burutu dute indigenek. Honen aurka herri indigenek euren burujabetza ezartzeko eskubidea defendatzen dute; eurek izan dituztelako beren jakinduria zaintzeko, zabaltzeko, sustatzeko, berritzeko eta bortxaketak zigortzeko lege sistema propioa (International Alliance of Indigenous-Tribal Peoples of the Tropical Forest, 1999:40). Erresistentzia honen ardatz nagusia BBKk ahalbidetzen dituen aukera apurkak aprobetxatzea, eta berau erabiltzea TRIPei aurre egiteko. BBKren inguruan indigenek errekonozimendu eta errepresentazio politikoa ahalbidetzen duen nazioarteko plataforma bat lortu dute-eta. Honekin batera TRIPek berak Estatuei zabaltzen dien leihoa aprobetxatu dute indigenek: TRIP “*sui generis*” sistemaren ideiarekin heldu eta Estatuak sistema hau definitzea euren jabegoa babestu ahal izateko eskatu dute, baita ere nazioarteko foroetan, teoriarik eta praktikan ganoraz defendatzeko aukera gauzatzeko. Herri indigenek tokian tokiko gobernuaren⁴⁸⁹ laguntzarekin “*sui generis*” bezalako aitorpenik⁴⁹⁰ lortu ezean, mendebaldeko ikuspegia errealitate hegemonikoa bihurtu

⁴⁸⁷ Kasu honetan Natura basatiarekin gertatzen zen legez, merkatu balioa lortzen den unean, hau da ekonomian saldu daitekeen produktua ala lehengai denean emango da kolonizazioa. Basatia dena kolonizatzailearen ekimenaren, lanaren eta hobekuntzan ondorioz bizimodu zibilizatuaren sartuko da eta bere kontribuzioa egin.

⁴⁸⁸ BBKk gaur egun Estatuaren kontrola eta interesa bermatzen dituen hainbat klausula eta gatazkorrak gertatzen diren ikuspuntuak ditu. Indigenek beldur dira hauek aprobetxatuz Estatuak beste Estatuarekin ala enpresa zein GKEkin egindako negoziaketak euren kalterako gerta daitezkeelako. Adibidez, konbentzio barruan tradizioa aipatzen denean beldur dira Estatuak egin dezaketen erabileraz, irudi estatiko bat bultzatuz euren kulturen eta eskaeren modernotasuna ukatu dezaketelako. Sostengarririk da kezka sortzen duen beste definitze bat. Zeinek definitzen du sostengarritasuna eta zergatik eman behar zaio pisu gehiago Estatuak, enpresek ala kanpoko zientifikoei egindako definitzioei indigenek egindakoei baino. Adibidez, bat kontserbazionistek egindako ahalgintetan ikus daitezke hainbat kasuetan euren ahalgintak espezie zehatzetan zentratzen dira eta ez euren ekosisteman hainbeste. Indigenek aldiz ekosisteman zentratzea eskatzen dute.

Beste puntu gatazkorra BBKk ezartzen duen biodibertsitateari buruzko informazioa trukatzeko derrigortasunean datza. Informazio hau askotan izaera sekretua du herri indigenentzat eta ezin da askatu eta, horrela egitekotan, arau zorrotzak zein betebeharrak daude informazio hau erabiltzeko. BBKk honelakorik ukatu eta bere publikotasuna defendatzen du nahiz eta jakin publikoa egin bezain laster, honen gainean lan egin, produktu berriak sortu eta patentatu egin daitezkeela herri indigenei ezer tokatzen ez zaielarik.

⁴⁸⁹ Tokian tokiko gobernuak ere paper zaila dute honelako legedi egoki bat lortzeko ezinbestekoa gertatzen delako bio-teknologiarekin loturiko prozesu guztien eskarmentu handia izatea eta ongi ulertzea industri bakoitzak duen perfil zientifikoa, teknologikoa eta komertziala, baita ere mota honetako kontratuak ezagutzeko eta menderatzeko. Guzti hau ez da erreza izaten Hirugarren Munduko gobernu askorentzat eta multinazionalen abantaila izaten dute negoziazioak burutzekoan.

⁴⁹⁰ Ukazioa da hemen eredu nagusia: “Los regímenes de derechos de propiedad intelectual incluidos en el GATT niegan la innovación llevada a cabo por millones

daiteke (Singh, 1997) munduko nekazari eta herri indigenen egoera gaiztotuz.

Lurrarekin gertatzen den bezala ekosistemarekiko harremanak, usadioak eta hauekin loturiko jakintza talde jabegoa izanik banaezina da. Ezagutza izendaturiko jagoleen eskuetan egoten da eta debekupean dago informazio ematerik (Deloria, 1999). Hau dela eta, indigenek sistema berri baten ezarpena non euren eskubideak eta interesak hobeto islatzen diren lortu nahi dute. Babes sistema indigena honek ondoko puntuak hartu beharko lituzke kontuan.

a) Están referidos a los conocimientos, innovaciones, prácticas, tecnologías y descubrimientos referidos a los recursos materiales e inmateriales, lugares sagrados, recursos de flora y fauna y biogénicas en general, existentes en los territorios que tradicionalmente han ocupado.

b) Se trata de herencias ancestrales culturales y de un tipo de "propiedad" de origen y naturaleza colectivos, así como de aprovechamiento y beneficios comunitarios, diferentes de la propiedad privada e individualista. Dentro de nuestros pueblos buscamos compartir el conocimiento (derecho inclusivo) y no privatizarlo (derecho exclusivo).

c) Incluye también el derecho de poder negarse o de impedir la comercialización y otras acciones sobre determinados recursos naturales o biogénicos, por razones culturales, ecológicas y otras que consideren prioritarias los pueblos indígenas

d) Implica cambiar el concepto de riqueza para que incluya el valor de la biodiversidad y de los pueblos indígenas y sus conocimientos, y a la vez, se mejora la actual relación de desventaja de los llamados países pobres en industrias, pero ricos en recursos bio-culturales (Nugkuag, 1995:33).

Honelako hurbilketa bat proposatzen dute Posey eta Dutfield-ek (1997) euren Ohiko Baliabideen gaineko Eskubideak (OBGE) defendatzen dituztenean⁴⁹¹. Definizio honetan, bildu egingo lirateke indigenak dagoeneko ezagunak dituzten kontzeptu eta printzipioak. Nahiz eta BBKk informazio elkartruckerako derrigortasuna ezarri kontuan hartu behar da informazio hau kultura, baliabideen erabilerari eta izpiritualari lotuta dugula. Beraz, hau gertatzeko beharrezkoa da (1) herri indigenen eskubideak errespetatzen duen negoziazioa burutzea, (2) euren baiezkoa izatea, (3) ordainak nolakoak izango diren ezartzea (4) informazioa babesteko sistema bat izatea informazioak balore izpirituala duenean, (b) talde jabego intelektuala onartzea, (c) egindako ikerketaren kopiak, euren hizkuntzatan badaude hobeto, ematea eta (d) kultura eta ingurugiroa sendotzeko ahaleginak egitea⁴⁹².

Bide posibilistari helduz TRIPEk indigenak dauden Estatuetan “*sui generis*” sistema baten garapena defendatzen dute. TRIP sistemak Estatuak euren errealitatei ondo moldaturiko babes sistema bereziak garatzea ahalbidetzen du. “*Sui generis*” sistemak herri indigenen interesa defendatzen duela ziurtatzeko beharrezkoa da ondoko oinarriko puntuak errespetatzea.

de agricultores y naciones indígenas en el Tercer Mundo...Los gobiernos del Tercer Mundo son presionados para introducir cambios inmediatos en las legislaciones y reglamentaciones sobre derechos de propiedad par variedades de plantas” (Shiva, 1997:129).

⁴⁹¹ Honelako saiakerak arrakastatsuak izan direla frogatzen du WIPO izandako jarrera aldaketa eta OJ moldatzeko egindako ahaleginek. Hemen Chiang-Mai-en 1997an egindako adituen bilkura ala WIPOk eta UNEP-k aginduriko “The Role of Intellectual Property Rights in the Sharing of Benefits Arising from the Use of Biological Resources and Associated Traditional Knowledge. Selected Cases”. Ahalegin hauei erreparatuz gero argi dago mendebaldeko sistema oinarrituriko sistema doitzeko gogoia dagoela modu honetan beste tradizio batzuetan sorturiko jakinduria eta bere fruituak bermatu ahal izateko.

⁴⁹² Elkartrukearen ordaina teknologikoa denean bertako kultura sendotzeko moduan eta euren teknologia eta ahalmena sendotzeko eran eta ez ordezkatzeko egiten dela ziurtatu behar da.

Un sistema que respetase las formas colectivas de representación de los Pueblos Indígenas cuando éstas existan. Un sistema que ofreciese mecanismos de protección de la propiedad intelectual accesibles para los Pueblos Indígenas. Contemplándose la posibilidad de la asistencia legal gratuita cuando ésta se requiera. Un sistema cuyo ámbito de protección fuera internacional y repercutiera en todos los Estados miembros de la OMC. Un sistema que reconociese el carácter de imprescriptibilidad del conocimiento indígena. Un sistema que estuviera dotado de los mecanismos de negociación necesarios para el aseguramiento de una participación en los beneficios a los Pueblos indígenas. Un sistema que protegiese de forma integral el proceso colectivo del conocimiento indígena. Si parte de este conocimiento es patentado mediante el sistema occidental con carácter obligatorio, se debería poner en marcha un proceso de negociación con el Pueblo Indígena de que se trate. Un sistema que estableciese los mecanismos de control necesarios sobre os sistemas occidentales de propiedad intelectual. Un sistema que asegurase un registro del conocimiento tradicional con alcance mundial con participación de los Pueblos Indígenas, tanto en el uso de ese conocimiento, como en el reparto de os beneficios derivados del mismo (García-Romeu et alia, 1998:75).

Honelako sistemak erabiliz baliabideen gaineko kontrola, kudeaketa moduak zein sarrera arautuko dituzten baldintzak eta baimenik gabeko biobilaketaren debekua bermatu egingo lirateke. Honela euren kulturaren iraupena eta balorea zein gizarte egitura indartzeko balio dezake, etnogarapenerako faktore iraunkorra bihurtuz.

4.2.1 Jaki eta Osasun Segurtasuna

GS, OJrekin eta autodeterminazioarekin loturiko beste eremu inportante bat jakiena da, bertan produzitu eta ereiten ziren jakiak, euren haziak etab. mantentzeko ahalegin handia egin nahi dute indigenek. Osagarri kultural honek izugarrizko garrantzia du osasunarentzat eta haur osasunarentzat bereziki.

Indigenous connections between well-being and food security/livelihoods are critical to the realization and practice of a sustainable self-determination. When such relationships are severed, “the knowledge, worldviews, values and practices about these relationships and about other aspects of their food and agro-ecological systems, commonly erode over time as well.”⁶⁷ In other words, disruptions to indigenous livelihoods, governance, and natural-world relationships can jeopardize the overall health, well-being, identity, and continuity of indigenous communities (Corn tassel, 2008:13).

Honekin batera, osasun sistema propioa zein honekin loturiko usadioak mantentzea eta sendotzea da beste helburu bat. Hemen ere, hasiak dira WHOrekin lan egiten ohiko sendakuntza eta osasun zientifikoren arteko elkarlana bultzatzeko (Chivian 2002; Colfer, 2008). Indigenen ustez osasunak alderdi fisikoak, sozialak, izpiritualak, ingurukoak zein ohiko lurraldeen eskubideekin lotutakoak besarkatzen ditu. Hau dela eta, ezinbestekoa da euren ingurumena garbi mantentzea, osasun eta gaixotasunarekin loturiko ezagupena eta ingurumenaren errespetuan oinarrituriko natur kudeaketaren aldeko apustua sustatzea, funtsez-funtsezkoak gertatzen baitira herri indigenen ongizatea bermatzeko (Colfer eta alia 2006; Health Council of the Netherlands eta alia 2004).

5. COP BILTZARRAK: GATAZKA ETA ELKARLANA BIODIBERTSITATEAREN INGURUAN

COP Biltzarretan indigenek parte hartzeko egindakoak ezerezean uzteko Estatuek egindako ahaleginak etengabeak izan dira. Gauza bera gertatu da GSrekin loturiko beste hainbat

prozesuetan. Joera honen adibide gisa esan beharra dago GSrekin loturiko GSren Batzordearen partaidetza eskasa izan dela oso, indigenak posizio dokumentu batzuk onartzera soilik heldu direlarik. Gainera hau posible izan da lehentasun handiko taldeak direlako (Garcia Alix & Borraz, 2006:236). Klima Aldaketa Hitzarmen Markoari buruzko batzarretan parte hartu izan dute baina GKE modura eta inolaz ez herri indigenak bezala. Beste horrenbeste gertatzen da Basoei Buruzko Nazio Batuen Foroan. Garrantzi handiko eremu honetan gertaturikoa ikusirik, indigenen jarreraz jabetzeko *Alianza Mundial de los Pueblos Indígenas y Tribales de los Bosques Tropicales*-ek, bultzaturiko 1996 Leticiako aldarrikapenera jo behar dugu. Indigenek lortu egin zuten euren adiskide ziren Estatuon bitartez aldarrikapen honetan agertzen ziren ondorio batzuk basoari buruzko batzarretan sartzea. Eragin eskasa arriskutsua gerta daiteke zenbait kasuetan: esate baterako, basoen triskantzari buruzko dokumentuetan bai indigenak bai nekazariak agertzen dira errudun nagusi bezala, ordea, oso txikia da baita azalekoa ere multinazionaleri egindako aipamena. Honen aurka indigenak behin eta berriz jo dute Leticiako aldarrikapenera euren jarrera ezagutarazteko. Ahalegin honek lortu du hainbat nazioarteko GKEengan eragina izatea baina ez du lortu antzekorik hitzarmen marko handiak negoziatzen dituzten gobernuen artean. Are gehiago aipaturiko NBE prozesuak Estatuon artekoak diren neurrian, Estatu ez diren aktoreen partaidetza oso nekeza gertatzen da. Kasu hauei erreparatuz gero argi dago planteatzen diren arazoei buruz ikuspegi indigenak zein proposaturiko konponbideek ez dutela behar zuten isla foro hauetan erabaki hartze mailan bederen. Hamaika dira herri indigenen partaidetza, lana eta kontribuzioak oztopatzeke egindakoak.

...la participación indígena queda siempre constreñida dentro de las ayudas y mecanismos establecidos para el desarrollo del proceso. El mismo sistema de trabajo dificulta el desarrollo de un lenguaje propio con el que contrarrestar a las resoluciones del CDB. Los principios básicos que los PIs han presentados como puntos de partida para su participación real, nunca han sido reconocidos. La participación indígena no es apoyada financieramente de forma regular, dependiendo de los fondos de distintas agencias de cooperación y organizaciones de apoyo. Esto quiere decir que los mínimos mecanismos que permiten la preparación de reuniones, la consulta con las comunidades o la simple transmisión de información sobre el proceso, aspectos esenciales de la participación plena y efectiva, no han podido desarrollarse (Garcia Alix & Borraz, 2006:242).

Ekologia eremuan Laugarren Munduari ateak gehien zabaldu dion prozesua BBK izan da. Hemen indigenek batik bat OJri buruzko gaiak landu dituzte onespren instrumentala burutu duen hitzarmen honetan. Mendebaldeko tradizioan jatorria duten ondare kulturala babesteko sistemak nola erabili daitezkeen pentsatu baino, herri indigenek euren tradizio eta legeetan oinarrituriko sistema berezko bat garatu nahi dute. Sistema honetan zer babestu, nola, zertarako, eta nola erabili eta konpartitu erabakiko lukete indigenek. Euren ondare kulturalaren babes sistema baten garapena, euren balioak, sinesmena, teknologia, jakinduria eta kudeaketa sistemak islatzen duena burujabetza prozesuaren osagarri eta ondoriotzat kontsideratu behar dugu. Halaber, etnogarapena eta GS erdiesteko baldintza

Hirugarren Munduko Estatu asko euren ekonomiak hain egoera kaskarrean izanik

baliabide hauetan dute ekonomia mundialean jokatzeko beta bakarra. Ondorioz, Estatuak mugatu eta eragotzi egingo dituzte indigenek euren lurren eskubideak errespetarazteko saiakerak. Estatu jarrera hau nabaria da GS bideratu eta gorpuztu duten konbentzio eta foro ezberdinetan.

1992tik hasita Rio de Janeiro-n iturburua izan zuten BBK (1992), GSri buruzko Batzordea (1992), Basoei buruzko Gobernuen arteko Panela⁴⁹³ (1992), Desertifikazioa konbatitzeko Konbentzioa⁴⁹⁴ (1992) eta bestelakoak HIKeren atentzioa erakarri dute. Honelako tresna juridikoen inguruan nazioarteko prozesuak zabaldu egin dira eta herri indigenek bertan egoteko ahalegin handia egin dute. Hala ere, diskurtso eta aitorten mailan lorturiko presentzia indigenak ez du horrenbesteko islarik izan GS garatzeko nazioarteko foroetan eta hauei loturiko hainbat esparruetan

Estatuak maiz eragotzi egin dute Estatu ez direnen aktoreen partaidetza eta hau indigenen kalterako gertatu da sistematikoki. Estatuak nazioarteko prozedurak erabili egin dituzte partaidetza indigena ukatzeko eurentzat estrategikoak diren gaitan eta lurralde zein ekosistemen gaineko kontrola kategoria honetan sartzen dira. Gogoratu besterik ez dago HIGEAren kontra CANZUSen jarreraren baliabideen gaineko kontrolaren ukazioak izan duen indarra.

Estatu eta indigenen arteko tirabirak, gatazka eta elkarlana erakusteko BBKri loturiko COP sisteman gertaturikoa aztertuko dugu.

1994ko COP1, Bahamaseko Nassaun, lehenengo bileran indigenen partaidetza urria izan zen ordezkari gutxi hurbildu zirelarik. 1995ko COP2, Indonesiako Jakartan egin zen bilera. Indigenen partaidetzak gora egin zuen eta 8J artikulua esanahi eta inplikazioei buruzko eztabaida informalak gertatu ziren. Indigenek eskatu egin zuten partaidetza librea izatea. Biltzarrak onartu egin zuen COP3k 8J artikulua azter zezala egindako eskaera.

1996ko COP3, Argentinako Buenos Aires-en egin zen. Indigenek ordezkaritza inportantea biltzea lortu zuten gehienak Hego Ameriketatik hurbildu zirelarik. Bertaratutakoak seriooki organizatzen hasi ziren eta bultzatu egin zituzten erakunde indigenen errepresentazio ofizialak. COP3 erabaki zuen 8Jri buruzko tailer bat egitea 8Jri buruzkoa. Ildo beretik 8Jri loturiko lantalde bat sortzeko. Lantaldeak sortzeko aipaturiko jarrera honi jarraituz, berrikuntzen artean, lehenengo aldiz, Bioaniztasunari Buruzko Nazioarteko Foruna/International Indigenous Forum on Biodiversity (BBNF) egin zela aipatu behar dugu. Orduz geroztik COPEkin loturiko biltzarra egin baino lehen BBNFren bilera gertatu izan da COPen indigenek bultzatuko duten estrategia adosteko.

⁴⁹³ Bide E/CN.4/IFF/1997/2

⁴⁹⁴ Bide A/Res/47/188

Bilera honetan adosturikoari lotuz, 1997an Biodibertsitateari eta Indigenen Jakinduriari Buruzko Tailerra egin zen Madrilen. Bera gertatu baino lehen estrategia komuna prestatzeko BBNF bildu zen. Madrileko bilera hau COPEko partaide diren Estatuen eta indigenen arteko lehenengoa izan zen. Bertan biodibertsitatea eta OJri buruzko gaiak tratatu ziren. Onartu egin zen “COPko presidentearen” laguna izeneko aholkulari mekanismoa; berorren bitartez NBERen partaidetza indigena murrizteko arauak saihesteko eta ahalbidetzeko herri indigenen parte hartze handiagoa biltzarren organizazio eta gestioan. Baietsi egin ere bai, herri indigenen papera BBK garatzeko orduan, handitu eta sendotu behar zela. Gainera, txosten bat egin zen, non indigenek BBK kontuan hartu behar zituen 200 auzi biltzen ziren. Halaber, Caucus Indigena osatu zen COPEk aztertzen ari diren erabakiak jarraitzeko, estudiatzeko eta indigenen interesen aurka joanez gero beraiei erantzun ahal izateko mekanismo bezala.

COP4 1998ko Slovakiako Bratislavan egin zen. Bertan egindako biltzarrean 8Jren garapena laguntzeko lantalde “*ad hoc*” bat egitea eta iraunkorra (*open ending*) baietsi zen.

El trabajo en el seno de este grupo ha supuesto un interesante desarrollo desde el punto de vista del acceso a la participación de los representantes no estatales dentro de organismos de este tipo. Los representantes indígenas han creado grupos de seguimiento de los distintos temas, han participado en los grupos de contacto y redacción, co-presiden las sesiones del Grupo, mantiene relaciones directas con la Presidencia, el Buro y con los grupos de países participantes y, en general, tienen un peso importante en las resoluciones de este Grupo de Trabajo (García Alix & Borraz, 2006:242).

Lantalde honek COP5i informatzeko agindua jaso zuen. Lantalde honek Madrileko txostenean agertzen ziren puntuen bidetik abiatzeko eta OJ babesteko mekanismoei buruz aholkuak eskaintzeko agindua jaso zuen. Gainera, herri indigenen partaidetzaren inportantzia azpimarratu zen. Halaber, WIPOri eskaera berezia egin zitzaion, bere jardueran, OJ kontuan hartzeko jabego intelektuala definitzeko orduan, baita ere honi loturiko eskubideak definitzeko, eta erabiltzaileentzat hauek duten inplikazioak zehazteko orduan. Puntu hau funtsezkoa da biodibertsitatearen erabilera, etekin zein jabego eskubideak baldintzatuko dituzten protokoloak moldatuko dituelako. Scout-ek (2006) Lantalde honek ondoko mugarriak lortu dituela diosku: 1) Akwé: Kon Borondatzeko ereduaren sustapena; 2) 8Jrekin loturiko Lantaldean partaidetza indigena areagotzea; 3) Foru Iraunkorrarekin elkarlanean portaera etikoa bideratzeko eta indigenen kultura eta ondarea babesteko proposamena bultzatzea eta 4) indigenen eta tokian tokiko komunitatean papera BBKren baitan azpimarratzea hauei benetako ahotsa emanez.

2000ean Sevillan “8Jri Buruzko ad hoc Lantaldearen” lehenengo bilera burutu zen. Honetan 8Jren garapena erdiesteko lan programa baten proposamena burutu zen, Madrileko dokumentua abiapuntutzat hartuz. Baita ere, onartu egin zen bi azpibatzordeetan buru ez indigenekin batera bi buru indigena izatea. Are gehiago, erregio ezberdinetako 6 ordezkari indigena izendatu zituzten COP bulegoaren aholkulari bezala. Ondorioz, lan proposamena egiterakoan indigenek lortu zuten partaidetza inoiz baino handiagoa izan zen. Honetaz gain,

emakume indigenek lortu egin zuten emakumei buruzko neurriak sartzea egindako proposamenean.

2000ean Keniako Nairobín egindako COP5 biltzarrean, 8Jri buruzko lantaldearen egin beharra luzatu egin zen. 8J aplikazioari buruzko ekintza plana onartu zen ofizialki, nahiz eta honek terminologia eta inplikazio legalei buruzko eztabaida sutsua gainditu behar zuen. Hau Sevillako proposamenaren mamiari lotuz proposamen egituratuago bat kontsideratu behar dugu. Halaber, BBNFk COPen aholkulari izaera jaso zuen. Hau gutxi ez balitz, 8Jartikuluarekin loturikoez gain, COPEk harturiko beste erabaki batzuk indigenen parte hartzearen aldeko eskaerak, onetsi ziren. Aipamen hauen bidez indigenen presentzia biderkatu egin zen. Amaitzeko, 8Jri buruzko lantaldeari beste lantalde bat gehitu zitzaion "Sarvide eta Etekiniei Buruzko Lantaldea".

2002. "8Jri Buruzko ad hoc Lantaldea"ren bigarren bilera egin zen Montrealen. Ordezkarri indigena azpibatzerdeetan zein zuzendaritzaren lagunak delako aholkulari mekanismoan izendatu ziren, OJ estatusa eta joera nagusiak deskribatzeko agindua eman zelarik. Halaber, inpaktu soziala, kulturala eta ekonomikoa neurtzeko irizpide eta prozedurak aztertuko zituen txostenaren eskema landu zen. Baita ere, partaidetza mekanismoak eta bitartekoak definitzeko lana burutu zen.

Eztabaida gogorraren kapituluan aipatu beharra dugu indigenek eskaturiko "jakinaren gainean aurretik emandako baietza" (*free, prior and informed consent*). Honek eztabaida sutsuak ekarri zituen, inpaktu ekologikoa, soziala eta kulturala baldintzatzeko prozedurak definitzen ari zirenean.

2002. COP6 Holandako The Hagen gertatutakoak indigenen partaidetza eraginkorraren frogara COP6 harturiko 32 erabakietatik 17k erreferentzia egiten zieten herri indigenei, hauen artean trebakuntza eta partaidetzaren garrantzia azpimarratzen direlarik. Gainera, OJri buruzko lehenengo eskema findu egin zen, onetsi eta bere faseari hasteko prest utzi. Era berean, inpaktu ikerketa kulturala, ekonomikoa eta soziala burutzeko gida arauak "gomendioak" bihurtu zituen COPk. Halaber, OJ babesteko bitartekoetan ikerketarekin jarraitzeko bultzada eman zen. BBNFk modu aktiboan parte hartu zuen "Baliabideen Genetikoetan Sarvide izateko Bonneko Orientabideei eta gai izen ziren herri indigenen "eskubidedunak" bezala definitzeko eta ez "onuradun edota interes talde soila" bezala, ordu arte nazioarteko dokumentuetan egiten zen bezala. Amaitzeko, "Bioaniztasunean Sarvide Izateko Gaitasuna Handitzeko eta Etekinak Partitzeko Ekintza Plana" egitea erabaki zen.

Alde negatiboan, OJren erregistro zein data bankuak izateko beharrari indigenek egindako erreferentzi guztiak erabakietatik kanpo utzi zituen COP6k. Halaber, jakinaren gainean

emandako informazio printzipioa gatazka piztu zuen eta eztabaida sutuak eman ziren alde zein kontra.

Baita ere, BBNFk aholkulari Estatusa jasotzea. OJri buruzko talde honek aholkulari izaera badu ere, negoziazioetan parte hartzeko eta ikuspuntu indigena helarazteko balio izan du. Arrakasta honek HIKE sendotu eta euren bizitzetan ondorio larriak izango dituzten prozesuetan partaidetza segurtatzeko balio izan du⁴⁹⁵.

8Jri buruzko Lantaldeak egindako lanari esker, 2005an eta VII/16 E, 4(d) paragrafoan harturiko erabaki bati erantzunez Idazkaritzak aholkulari talde informala eratu zuen. Honen egitekoa COP-8an berriztatu zelarik. Lantalde honetan herri indigenen zein tokian tokiko komunitateek ordezkariak zituzten, horrela egindako Txosten Trinkoan euren ikuspuntuak txerta zitezten. Ikuspuntu hauek beti ere ohiko jakinduriaren zaintzari buruzkoak izanik. Era berean onartu egin zen txostenaren azterketa kolegiatua egitea indigenen zein tokian tokiko komunitateekin batera (Comisión de Derechos Humanos del Distrito Federal, 2007). Laugarren Munduak Lantalde honen bitartez etengabeko lana egin du hitzarmenen negoziaketetan parte hartzeko. Egindako kontribuzioen artean aipagarria dugu, bai hezkuntzaren balorea zein indigenen ikuspegia erakusten duelako, borondatezko Akwé: Kon printzipioak, COP7an onarturikoak (VII/16 F Erabakia). Bertan argi uzten da beharrezkoa dela herri indigenen lurretan proiektu bat hasi baino lehen honen inpaktua maila ekologiko, kultural zein sozialean kontuan hartzea. Lantalde eta Konbentzioaren dinamikari jarraituz biodibertsitatearekin loturiko gaiak jorratzen jarraitu du Laugarren Munduak, zeregin honetan hitzarmenari buruz Idazkaritzari komentarioak, ikuspuntuak eta proposamenak helaraziz, bereziki herri indigenei eragin egiten dieten asuntoetan.

2006an COP8 Curitiban, Brasilgo herrian egin zen. Indigenek hazkunde ekonomikoaren eta karbono isurien trukaketaren alde egindako apustua gogor kritikatu zuten, baita ere biofuela lortzeko mundu mailako uzten hazkundera. Era berean basoen kontribuzioa onartzen zen unean herri indigenek hauek mantentzeko egindakoa, euren eskubideak errespetatzea eta partaidetza areagotzea eskatu zuten. Indigenek OJren babesa hobetzeko eta hortik etorritako onurak partekatzeke eta euren eskubideak hobeto babesteko deia egin zuten. Kontuan hartu behar da Brasilgo gobernuak bioproduktuen jatorria erakusteko beharra eta onurak partekatzeke nazioarteko sistema baten bultzatzaile nagusienetariko bat dela. Asmoak asmo indigenek ez zuten

⁴⁹⁵ 90ko paradiploiazioa burutzen duten ordezkariak indigenak prestakuntza handikoak ditugu. Giza eskubide alorrean eta ekologian lehentasun handiko gaietan jaiok eta GKEekin lanean ariuz lortu egingo dute euren ikuspuntua bultzatzea eta euren proposamenak kontuan hartuak izatea. Lurraren gaineko herri eskubideak, kulturen balioa, etnogarapena, partaidetza eta kontsultaren inguruko gaiak mundu osoko GKE nagusiek zein nazioarteko erakundeek onartu egingo dute. Aurreko hamarkadan eztabaidagarriak ziren ikuspuntuak 90ko GSaren aldeko agendaren osagarriak izango dira. Ekologian inon baino argiago ikusiko da kontribuzio indigenaren balioa eta euren eskaeren garrantzi globala.

askorik lortu. Erdietsiriko aurrerapenen artean honako hauexek aipatzen ditu Scout-ek (2006:2): indigenak eta tokian tokiko komunitateak laguntzeko borondatezko fondo baten onarpena. 8(j)ren Lantaldean nazioarteko erakundeen partaidetza sustatzeko deia, herri indigenen lege zaharrak kontuan harturik indigenen jakinduria babesteko “*sui generis*” sistema garatu dezaten 8(j)ren Lantaldari emandako agindua; azkenik biodibertsitatearekiko sarrera eta bertatik sorturiko irabaziak partekatze nazioarteko erregimena sortzeko ahaleginean, indigenen partaidetza areagotzeko asmoz, gobernu delegazioetan indigenen partaidetza gehiago egon dadin deialdia zabaldu zuten COPEko partaideek.

Dena dela, argi dago 8(j) artikuluaen gauzatzea posiblea egiteko oztopo ugari daudela, hauen artean borondate politikoaren eza nagusia izanik. Zoritxarrez COPen partaideek oraindik uko egiten diote derrigorrezko neurriei, hala nola “ondo informatua izan ondoren osoko jakinaren gainean aurretik emandako baietzari (*free, prior and informed consent*), eta OJ babesteko beharraz eztabaidatzen jarraitzen dute batzuk.

2008an gauzak aldatu egin ziren zertxobait onerako Bonn-en egindako COP9an batzarrean. Bertan indigenek biodibertsitatearen kontserbazioan partaide direla eta ezin dela horrelakorik erdietsi euren aurka onartu zen. Gainera indigenek eta COP partaideak ados jarri ziren eta onartu egin zuten biodibertsitatea zaintzeko eta modu sostengarrian erabiltzeko asmoz, eta indigenen eskubideak babesteko helburu duen estrategia egiteko orduan indigenek egindako kontribuzioak onartuko zirela. Estrategia hau COP10 aurkeztuko delarik. Bolo-bolo ibili zen beste gai bat izan zen biodibertsitatearekiko sarrera eta honetatik eratorritako irabazien partekatzea. Horrelakoak bideratuko zituen COP10 nazioarteko hitzarmen baten bideratzea ikusten delarik. Azkenik onartu egin zen Rio Konbentzioen arteko elkarlana (Ingurugiroa eta Biodibertsitatea) horretarako “ad hoc” aditu talde bat sortu zen Biodibertsitatea eta Ingurugiro Aldaketa lantzeko, bertan herri indigenak parte hartuko dutelarik. Erabaki hauen artean basoen etorkizuna bermatzeko indigenek duten garrantzia eta eurekin lan egiteko beharra aipatzen da behin eta berriz (UNEP, 2008). Baina zalantzarik gabe aurrerapausorik garrantzitsuena ondoko hau da:

Indigenous peoples who were present at the 9th Conference of Parties of the Convention on Biological Diversity, which was held in the last two weeks of May 2008, succeeded in putting the UNDRIP in several of the decisions of the various working groups such as the Working Group on Article 8j, 10 c and other related provisions; the Working Group on Protected Areas, the decisions on Agrobiodiversity and Marine and Coastal Diversity, among others. While the phrase used says “noting the adoption of the UN Declaration on the Rights of Indigenous Peoples”, this can go a long way in influencing the implementation of the Convention at the national level (Tauli-Corpus, 2008:10).

Ekologian ere HIGEA etorkizunean kontuan hartu beharreko erreferentzia izateak aukera berriez hitz egiten digu, eta inoiz baino beharrezkoagoa izango da tokian tokiko ekimenak eta nazioarteko dinamikak uztartzea herri indigenen eskubideak eta ongi izatea sustatzeko XXI.

mendan.

ONDORIOAK

1. Gaur egun herri indigenek ezagutzen duten “garapen eskasia eta miseria” ez dira berez izandako bilakaeraren ondorioa, kolonialismo uhin ezberdinak eragindakoak baizik. Garai bateko herri indigenak eta euren ondareak konkistatu, okupatu eta domestikatu ondoren, indigenak arrotzen kontrolpean dauden marko eta erakundeen eraginpean bizitzera behartu dituzte. Garai batean gizarte libreak zirenak Estatuaren “auzi domestikotzat” kontsideratuz indigenak isolatu eta ezkutatu dituen “isiltasunezko harresia” eraiki izan dute Estatuak.
2. Indigenek kolonialismo uhin ezberdinei erresistentzia egin diete, estrategia ezberdinak erabiliz historian zehar. Horien artean aipamen berezia merezi du nazioartean propio aritzeko sorturiko Laugarren Munduaren kasuak. Modernotasunaren adituek globalizazio eta asimilazioaren poderioz indigenak desagertuko zirela iragarri bazuten ere ez da horrelakorik gertatu. Are gehiago gaur egungo entitate politiko indartsuak dira. Testuinguru honetan Estatuak eraikitako “isiltasunezko harresia” apurtzeko estrategia bezala ulertu behar dugu Laugarren Munduaren sorrera eta ekintza. Bere agerpen indartsuak nazioarteko eta batez ere NBEren mailan egindako lanak zera erakusten digu: aktore geopolitiko berri baten existentziaren aurrean gaudela. Mugimendu honek Europako mesogobernuen kasuan ez bezala, paradiploaziaren adibide garbia gorpuzten du eta erresistentzi indigenaren alderdi berria erakusten digu. Funtsean, Laugarren Mundua paradiploazia praktikatzeko propio sorturiko mugimendua da, kutsu anticolonialista, pan-indigenista eta autodeterminista sendoa duena, eta ekintza sinbolikoa burutzeaz gain, helburu praktikoa aldarrikatzen duena: euren halabehararen gaineko kontrola eskuratzea eta kolonialismoaren ondorio ezkorak betiko uxatzea.
3. Erbestera jotzeko arrazoen artean ondoko hauek aipatu behar ditugu: (1) gaur egun indigenek pairatzen dituzten eraso eta arazo gehienak nazioartean dute euren iturburua; (2) NBEren aginteak herri indigenak ere besarkatzen ditu, ezin baita bereizkeriarik onartu berdintasun unibertsalaren printzipioa urratu gabe; (3) NBE mailan onartzen diren itun, hitzarmen tratatu nahiz erabakiek inpaktu handia dute herri indigenengan; eta (4) Indigenen kontzientzia, hau da Estatuekin nahiz beste nazioarteko aktoreekin duten borrokan mundu osoko buruzagi eta mugimendu indigenek ontzat eman dute euren auziaren nazioarteratzea, honek euren errebindikazioak eta egoera ezagutarazteko balio baitezake.
4. Ezin izango genuke Laugarren Munduak lorturiko arrakasta ulertu ziberdiplomazia indigenari erreparatu gabe. Horrela Estatuak eraikitako

isiltasunezko harresia apurtu eta indigenak munduko plazara itzuli dira, Interneten aurkitu eta kontaktatu daitezkeelarik. Era honetan klik bat eginez posiblea dugu ikustea lurraldeak, populazioak, gobernuak eta nazioarteko aktore anitzekin harremanak izateko gai diren herriak direla. Honek guztiak posiblea egin digu Laugarren Munduak egindako lanaren arrastoak jarraitzea, eta lortu egin du herri indigenen irudi garaikidea, baikorra eta aktiboa sustatzea. Horrela apurtu egin da mendeetan nagusi izan dugun estereotipoarekin non indigenak gizaki primitibo, isolatuta, sinple eta errudimentarioa bezala irudikatzen den

5. Nazioartean egindakoari esker herri indigenak ez indigenen ekimenaren objektu soila izatetik XXI. Mendean nazioarteko estandar politiko eta juridikoen sorreran subjektu aktibo izatera pasatu dira, eta NBEren mailan estreinakoz gertaturiko prozesu benetan demokratikoa jarri du martxan, non, HIGEAREN onuradun lehenak eta zuzenak parte hartu duten nazioarteko mekanismo horren eraikuntzan. Errealitate honek aukera ematen digu Estatu gabeko nazioek sorturiko Nazioarteko Harremani buruzko diskurtso eta praktika aldizkakoaz jabetzeko, hau sistemaren periferiatik eta Nazioarteko Harremanetan nagusi diren diskurtsoetatik kanpo egin delako.
6. Prozesu honetan Laugarren Munduak tradizio euroamerrikarraren kontzeptuak bereganatu eta esanahi berri bat eman die. Hau nazioarteko eliteekin izandako harremanak gidatzeko parametro kontzeptual komunak ezartzeko ahalegin bezala ulertu behar dugu. XX. azken bi hamarkadetan eta XXI. lehenengoan indigenek planteatzen dituzten ikuspegi eta errebindikazioak gaur egungo munduaren lengoia, jakintza eta arazoak islatzen dute. Beraz, ez da inolaz ere onartu antzinako egiturak eta gizarte isolatuak defendatzen dituzten “basatiak” direnik. Indigenek, beraz, nazioarteko Zuzenbidea, ekologia ala teknologi berriak erabili dituzte globalizazioaren ondorio ezkorretatik babesteko, eta nazioarteko babesa merezi duen kategoria bezala aitortua izateko Era honetan nazioarteko Zuzenbidea garatzeko kontribuzioa egin dute, modu berean, euren diskurtsoa, presentzia eta eragina maila lokalean handitzea erdietsiz.
7. Era honetan Laugarren Munduak Estutuekin hizketaldia saioa zabaldu du. Hau ez dago tokian tokiko edo Estatu mailako zuzenbidean oinarriturik giza eskubide unibertsalen gainean baino. Ekimen honetan Laugarren Munduak eraman du inizatiba eta Estatuak erantzun egin diote indigenen markaturiko agendari. Beraz, zalantza izpirik gabe, esan dezakegu: munduko indigenek Estutuekin duen harremana birbideratzeko ahalegin serioa burutu dute, euren eskubideak

babestuko dituen nazioarteko marko berri bat eraikitzea azken helburua izanik. Horrela ulertu behar dugu indigenen partaidetza giza eskubideen alorrean eta HIGEA bera. Marko honen garrantzia handia da Estatuaren eliteei informatzen baitie XXI. mendean Estatu barruan bizi diren entitate etnikoak nola ulertu eta eurekin nolako harremanak izan behar dituzten. Foro Iraunkorraren eta HIGEAren onarpena abiapuntu inportanteak dira norabide zuzenean. Orain aurrean dagoen erronka nazioarteko lanak sortu dituen ildoak nola sendotu eta sakondu da, eta maila globalean lorturiko lokalean nola uztartu herri indigenen burujabetza sustatzeko asmoz.

8. Laugarren Munduak nazioartean izandako partaidetzak interesgarria oso den fenomeno bat erakutsi digu: gobernu indigenek propio ez dira horrenbeste nabarmendu eta paradiploiazia indigena gehien bat GKE eta norbanako indigenen lana izan da. Hauek nazioartean eta bereziki NBEren sistemaren barruan sortu diren aukerak eta baliabideak aprobetxatuz, burutu dute lana, modu eraginkor batean. Horiatariko batzuk harremana dute herri indigenekin eta gobernu tradizionalekin, baina beste askok ez dute horrelakorik, aditu ala aritu indibidualak izanik, euren burua ez inor besterik ordezkatzen dute. Hala ere, “indiotas” ala “red tie Indians” deitzen dituzten hauek lortu egin dute ospe handia Estatuak, nazioarteko erakundeek edota GKEek sorturiko sareez eta aukerez baliaturik. Hauek “de facto” bihurtu zaizkigu indigenen aurpegi eta ahotsak. Horrexegatik ahal izan dute paradiploiatiko indigena bezala euren burua aurkeztea eta jokatzeta, era berean euren buruarentzat errealitatean ez duten errepresentazioa aldarrikatu dutelarik. Kasu gehienetan oso deserroturik dauden profesionalak dira. Errepresentazio faltaren arazoa larria bada ere, are larriagoa bihurtzen da kontuan hartzen badugu gobernu kolonialek luzaroan erabili dituztela botere hegemonikoen aldeko indigenak. Gainera, ezagunak dira Estatuak nazioarteko foroetan euren politikak bultzatzen dituzten indigenak sartzeko egin dituzten ahaleginak. Honetaz gain, bai nazioarteko erakundeek, multinazionalak zein nazioarteko GKEek joera dute nazioarteko funtzionamendua ondo ezagutzen duten indigenak kontratatzeke. Hauek bihurtzen dira “de facto” indigena ofizialak erakunde zehatzei lotuak agertzen direnak. Arazoa horren larria izanik Estatuak erabili egin dute errepresentazio ezaren auzia ordezkaritza indigenak, batez ere “Caucus Indigena”ren lana kuestionatzeko.
9. HIGEAren onarpenak inoiz baino beharrezkoago egiten du indigenen tokian

tokiko gobernu eta erakunde errepresentatiboen lana sustatzea. Honek zera suposatzen du lan sendoa egin behar dela nazioartean gertaturiko aurrerapenak ezagunak egiteko herri indigena bakoitzean, hauek barneratu daitezzen udal eta erregio mailan. Horrela efektu biderkatzailea sustatuko da eta herri indigenen hobekuntza bultzatu. Hau horrela behar du izan orain arte nazioartean lorturiko aurrerakadak ez baitu herri indigenen ongi izatea nabarmenki hobetu.

10. Ekologiak nazioarteko agendan lorturiko garrantzia dela-eta, herri indigenen erakusle etniko nagusi bat, Naturarekin duten harremana hain justu, mendeetan atzerapenaren markatzailea eta era guztietako kondena ekarri diena, postmodernitatearentzat kategoriatik positiboa bihurtu da. Nazioarteak ontzat eman du ez dagoela planetaren biodibertsitatea mantentzea kultura askotasuna ezabatzen bada. Indigena eta kontserbazioa lotzen dituen irudia indigenek sustatu dute asko bere indar politikoa erabiliz. Gauzak horrela herri indigenak aliatu estrategiko moduan agertzen dira nazioarteko dokumentu askotan. Hala ere, honek badu bere alde iluna: indigenek Naturarekin duten harremana zentzu esentzialistan ulertu eta irudikatu da, harreman honen funtsean dagoen elkarreragiketa ahaztuz. Izan ere, ekosistema indigenetan dagoen biodibertsitatea herri indigenek euren inguruekin izandako harremanaren ondorio da. Hau gizonek sortua eta mantendua da, eta ez behin betiko ezaugarri kulturala. Aldiz kutsu esentzialista aitorten instrumentalean aurkitzen da: inpaktu gutxiko kultura kontserbazionistak bezala eta tokian tokiko “in situ” estrategietan aliatu bezala deskribatzen direnean. Instrumentalismo honek agenda eta agente arrotzekiko dependentzia handia sortzen du, berriz ere. Arriskua zera da, indigenak Estatu eta nazioarteko erakundearen interesen objektua bihurtzea. Hau diogu alor honetan erreferentziazko diren dokumentu eta prozesuetan ez direlako agertzen, erreferentzia txikiez aparte, euren eskubideen inolako babesik. Eskubideak onartu ezean aitorten hutsak gelditzen dira. Kasu honetan berriz ere indigenak eta euren kulturak erabiliak izan daitezke ekologikoaren itxura duten baina benetan lapurreta kulturala diren politikak sustatzeko.
11. Ekologiaren eremuan indigenek arrakasta handia lortu dute euren lurraldeetan dagoen biodibertsitatea nazio indigenen kudeaketa iraunkorraren ondorioa dela frogatu dutenean. Gainera gai izan dira tokian tokiko agendak kezka globalekin lotzen, horrela lortu dutelarik eskubide indigenen aldeko borroka garrantzi globaleko joera bihurtzea. Ildo honi jarraituz, indigenen autodeterminazioan oinarrituriko etnogarapenaren aldeko jarrera handitzea lortu dute. Izan ere,

Estatuek zein nazioarteko beste edozein aktoreek euren lurraldeetan egiteke dagoen edozein proiektu hasi baino lehen aurrez egindako kontsulta, informazio osoa emanik eta askatasunean eginikoa, ziurtatu behar da.

12. Autodeterminazio zein etnogarapenerako ezinbestekoa gertatzen da ondare indigenaren babesa eta batez ere OJren gaineko eskubideak ezartzea. Horrela bakarrik amaitu daiteke egun nagusi dugun “Terra Nullius Intellectualarekin”. Soka honi tiratuz, OJ babesteko sistema propio eta eraginkorrek behar dira indartu, “*sui generis*” delako bideari jarraituz. Horrela OJtik eratorriak diren era guztietako abantailak etnogarapenerako eta herri iraupenerako erabili daitezke. Zoritxarrez indigenen aldeko babes sistemarik ez dugu egun indarrean, eta COP zein beste eremuetan indigenen alde egindako ahaleginak Estatuaren kontrako jarrerarekin egin dute topo. Historikoki Estatuak indigenen ekimenak mugatu edota moteltzeko egindako saioak hamaika izan dira, aldiz, aurrerapausoak gutxi.
13. Ekimen paradiplomatikoa jarraitzen dion edozein saiakerak kontuan hartu behar du autodeterminazio indigenaren printzipio korapilatsua. Estatuak mantentzen duten jarrera klasikotik urrunduz esan genezake autodeterminazio indigenak ez duela independentzia bilatzen, Estatu multinazionalen sorrera baizik. Gaur egungo mundu konplexuan botere autonomo sendoak erdiestearen aldeko apustua egin dute, Estatuaren zein nazioarteko gizartearen aldetik nagusi den nazio bakardun Estatuaren aldeko erabateko apustua kritikatu. Finean, autodeterminazio indigenaren helburua Estatuarekin maila politiko, kultural eta ekonomikoan harreman berri bat hastea da, non interdepentzia nagusitzen den eta subiranotasuna mugatua eta konpartitua izan daitekeen. Bere aplikapenean sormena, imajinazioa, malgutasuna eta tokian tokiko errealitate politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalari erreparatzen dion eskubide kolektiboa erabili nahi da. Helburua kooperazioa eta elkarrizketa oinarri duen mundu orden berri batetara heltzea da non Estatuak eta Estatu gabeko nazioek gai diren herri askotasuna integratzeko eta gatazkak saihesteko. Era honetan herri indigenak sortu egin dute autodeterminazioa subjektuen artean kategoria berri bat: Estatu barnean autodeterminazioa burutzen dutenena. Kategoria honek bereizi egiten ditu independentzia helburu duten Estatu gabeko beste herrien kasutik. Ondorioz, herri indigenekin egindako edozein kooperazio estrategiak herri indigenen berezitasuna hartu behar du hasiera puntutzat. Halaber, komuneko helburuak erdiesteko aliantza baten terminoei jarraituz egin behar da, beti ere agenda indigena eta euren autodeterminazio eskubidea errespetatuz eta biak batzen

dituen Herri Indigenen Eskubideen Aldarrikapena (HIGEA) erreferentetzat izanik.

14. Laugarren Munduak Estatuekin orain arte izandako harremanaren aldaketa sakona bilatzen du, horrela kolonialismoaren ondorioekin behin betirako amaitzeko. Ezin ahaztu HIGEA kolonizazioaren kalteekin bukatzeko egindako tresna dugula. Are gehiago, kalteak eta gaizki eginak konpontzeko asmoz erreparazioa erdiesteko ekimenak eta pairaturiko diskriminazioarekin amaitzeko neurriak hartzeko deia egiten du HIGEAk. Erdietsi nahi den harreman berrian Estatuaren joera bateratzaileak murriztu (Nazio-Estatutik) eta askotasunari onespina egiten dion egitura nahi da (Nazio/Herrien Estatura), era honetan baliokideak eginez bai Estatuaren interesa bai euren kultura eta hizkuntzen babesa eta autogobernua. Laugarren Munduaren ustez itun berriak bere isla izan behar du gaur egungo nazioarteko harremanetan Estatuaren Mundutik Herrien Mundura pasatuz. Bide honetan sakonduz arkitektura berri batez hitz egiten da, egun nagusi den Estatu hegemoniatik urrun dagoena eta apustu serioa eginez autonomia, dezentralizazio, koordinazio eta subsidiarizazioaren alde. Aktore berri honek defendatzen du berdintasuna, diskriminazio eza, autodeterminazioa, elkarbizitza eta kooperazioa ardatz nagusiak direla XXI. mendean ditugun erronkei aurre egin ahal izateko.
15. Nazioarteko partaidetzak ondokoa ahalbidetu die herri indigenei: (1) Euren berezitasunaren eta nazioarteko aktore politikoa izatearen onarpena erdiestea (2) Eurak bizi diren Estatuetakoa gobernuak, nazioarteko erakunde edota bestelako aktoreak salatzeak aukera eta urraketak prebenitzeko legedia sustatzea, honetarako HIGEA eta 169 itunak ontzat hartu direlarik; (3) indigenak gutxiengo kategoriatik bereiztea, nazioarteko Zuzenbideak propio eta berezia den kategoria bat bezala errekonozitua izatea, (4) euren eskubide eta arazo espezifikokoak eztabaidatzeko eremu propioak sortzea, NBEn partaidetzarako espazio hauek beren interesekoak diren gaietan euren presentzia nahiz kontribuzioa iraunkorra ziurtatzen dutelarik (5) mundu osoko indigenekin kontaktatzea eta esperientziak elkartrukatzea euren herrietan marko juridiko berriak eta politika eraginkorrak susta daitezen; (6) nazioarteko aliantza zabalak sortzea beste gobernu, erakunde, sare epistemologiko edota aktibistekin; (7) nazioarteko legediarekin kontaktuan egon eta horrela ikasi dutena aplikatzea, era honetan posiblea egin dutelarik euren lurraldeetan aktore eta legedi lokalak eboluzionatzea euren alde (8) baliabideetan urri diren herri indigenak euren arazoak konpontzeko nazioarteko

aritu sareekin lan egitea posiblea eginez.

AIFI. Afera Indigenetarako Foru Iraunkorra.

BBK. Bioaniztasunari Buruzko Konbentzioa.

BBNF. Bioaniztasunari Buruzko Nazioarteko Foruna.

CANZUS. Kanada, Australia, Zelanda Berria eta AEBk osotzen duten ardatza, honek tinko borrokatu da urteetan zehar HIGEAren aurka.

COICA. Confederación de Organizaciones de la Cuenca Amazónica.

COP. Conference of the Parties. BBKren Kideen Biltzarra

ECOSOC. Economic and Social Council of the United Nations.

EPZNK. Eskubide Politiko eta Zibilen Nazioarteko Konbentzioa.

ESKKNK. Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Konbentzioa.

ET. Erakunde Transnazionalak.

GKE. Nazioarteko Gobernu Kanpoko Erakundeak.

GS. Garapen Iraunkorra.

HIFI. Herri Indigenen Foro Iraunkorra.

HIGEA LANTALDEA. 1995ko HIGEAri buruzko Lantaldea.

HIGEA. Herri Indigenen Giza Eskubideen Aldarrikapena.

HIKE. Herri Indigenen Kanpo Ekintza.

HIMB. Herri Indigenen Munduko Batzarra.

IITC. International Indian Treaty Council.

IUCN. International Union for Conservation of Nature.

MME. Munduko Merkatal Erakundeak.

NBE. Nazio Batuen Erakundea

NLE. Nazioarteko Lan Erakundea.

NZ. Nazioarteko Erakundeak.

OBGE. Ohiko Baliabideen gaineko Eskubideak.

OJ. Ohiko Jakinduria.

PIL. Populazio Indigenen Lantaldea.

TRIPS. Agreement on trade-related aspects of intellectual property rights.

UNDP. United Nations Environment Programme.

UNEP. United Nations Development Programme.

UNESCO. United Nations Educational, Scientific and Cultural Organization.

WIPO. World Intellectual Property Organization.

WWF. World Wildlife Fund.

- 1919.** NLE eratzen da.
- 1945.** NBE sortzen da.
- 1946.** NBE sistemaren kidea bihurtu zen.
- 1948.** Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onartu zuen NBEko Batzar Orokorrak
- 1953.** NLEk estreinakoz herri indigenei buruzko txostena argitaratu zuen "Indigenous Peoples: Living and Working Conditions of Aboriginal Populations in Independent Countries."
- 1957.** NLEk Populazio Indigena eta Tribalei dagokien 107 Ituna onartu zuen.
- 1962.** Arraza Bereizkeriaren Ezabaketarako Batzordea eratu zuen NBEk.
- 1965.** Arraza Bereizkeria Ezabatze Nazioarteko Konbentzioa onartu zuen NBEko Batzar Orokorrak.
- 1966.** Eskubide Politiko eta Zibilen Nazioarteko Ituna onartu zuen NBEko Batzar Orokorrak
- 1966.** Eskubide Ekonomiko, Kultural eta Sozialen Nazioarteko Ituna onartu zuen NBEko Batzar Orokorrak.
- 1966-70.** Hernan Santa Cruz diplomatikoak egindako txostenean indigenei propio zuzenduriko txosten baten beharra azpimarratzen du.
- 1971.** Martínez Cobo. Errelatore Bereziari herri indigenen egoerari buruzko txostena idazteko agindua eman zitzaion.
- 1977.** GKEek lagunduta lehendabiziko aldiz egin zen herri indigenen aurkako bereizkeriari buruzko nazioarteko konferentzi bat herri indigenei buruz.
- 1978.** NBEko Batzar Orokorrak Mapuchen aldeko ebazpenak onartu zituen.
- 1979.** Emakumeen kontrako Bortxakeriaren Aurkako Konbentzioa.
- 1982.** Populazio Indigenen Lantaldea sortu zen Giza Eskubideei buruzko Batzordearen barruan.
- 1981-84.** Martínez Coboren txosten trinko eta mardula argitaratu zen
- 1984.** Torturaren aurkako Konbentzioa onartu zen.
- 1985.** Populazio Indigenak laguntzeko NBEren Borondatezko Fondoa eratu zen.
- 1987.** Eskubide Kultural, Ekonomiko eta Sozialen Batzordea sustatu zen
- 1989.** NLEk Herri Indigenei buruzko 169 Ituna onartu zuen.

1989. Haurren Eskubideei Buruzko Konbentzioa onartu zen.

1992. Rio de Janeiron Lurraren Gailurra burutu zen eta honekin loturiko Agenda 21.

1993. PILk HIGEAren zirriborroa onartu zen.

- NBek izendatu egin zuen 1993 Populazio Indigenen Urtea.

- Vienan Giza Eskubideei buruzko Mundu Konferentzia egin zen. Bertan Foru Iraunkorraren aldeko aldarrikapena egin zelarik.

- BBK onartu zen.

1994. Giza Eskubideei buruzko Batzordearen Azpibatzerdeak HIGEAren zirriborroa onartu zen.

- NBERen Batzar Orokorak izendatu egin zuen 1995-2004 Munduko Herri Indigenen Hamarkada.

1995. HIGEAri buruzko Lantaldea sortu zen Giza Eskubideei buruzko Batzordean.

2000. Afera Indigenentzako Foru Iraunkorra onartu zen NBERen egituraren barnean

2001. Giza Eskubide eta Asunto Indigenei buruzko Errelatore Berezia izendatu zen.

2007. PIL desagertu eta Herri Indigenen Eskubideen Gaineko Adituen Mekanismoa sortu zen.

2007. HIGEA onartu zuen NBERen Batzar Orokorak.

SORBURUAK ETA BIBLIOGRAFIA

NAZIO BATUEN ERAKUNDEAREN DOKUMENTUAK.

1970

Hernan Santa Cruz (1970). *Study on Racial Discrimination in the Political, Economic, Social and Cultural Spheres*. United Nations Publication, Sales number E.71. X.

1976

Santa Cruz, H. (1976). *Racial Discrimination: study by Hernan Santa Cruz, Special Rapporteur of the Sub-Commission on Prevention of Discrimination and Protection of Minorities. Revised and updated version, 1976* (United Nations publication, Sales No. E.76.XIV.2).

1986

Martínez Cobos, J. (1986). *Estudio sobre la Problemática de la Discriminación contra Poblaciones Indígenas Ginebra: Naciones Unidas*. E/CN.4/Sub.2/1986/7.

United Nations General Assembly (2005). *Draft Programme of Action for the Second International Decade of the World's Indigenous People*. A/60. Report of the Secretary-General .

1987

UNEP (1997). *A Compilation of Case Studies Submitted by Governments and Indigenous Local Communities Organisations*. UNEP/CDB/TKBD/1/Inf.1.

1992

Commission on Human Rights (1992). *Review of Developments Pertaining to the Promotion and Protection of Human Rights and Fundamental Freedoms of Indigenous Populations, Including Economic and Social Relations between Indigenous Peoples and States*. E/CN.4/Sub.2/AC.4/1992/5.

Commission on Human Rights (1992). *Review of Developments Pertaining to the Promotion and Protection of Human Rights and Fundamental Freedoms of Indigenous Populations, Including Economic and Social Relations between Indigenous Peoples and States*. E/CN.4/Sub.2/AC.4/1992/5.

1993

Daes, E.-I. (1993). *Chairperson of the Working Group on Indigenous Populations, Discrimination Against Indigenous Peoples, Explanatory note concerning the Draft Declaration on the Rights of Indigenous Peoples, Item 14, 45th Session of the Sub-Commission on the Prevention of Discrimination and the Protection of Minorities*. E/CN.4/Sub.2/1993/26/Add.1.

1995

Daes, E. (1995). *Chairperson-Rapporteur of the Working Group on Indigenous Populations: Criteria Which Might Be Applied When Considering the Concept of Indigenous Peoples*. E/CN.4/Sub.2/AC.4/1995/3.

Naciones Unidas (1995). *Informe del Secretario Nacional. Programa de Actividades del Decenio Internacional de las Poblaciones Indígenas del Mundo*. A/54/487/Add.1.

Naciones Unidas (1995). *Informe del Secretario Nacional. Programa de Actividades del Decenio Internacional de las Poblaciones Indígenas del Mundo*. A/54/487/Add.1

1996

Coates, K. (1996). *Los primeros pueblos y la tierra: Visión global de las reclamaciones territoriales y su transacción. Informe del Seminario de Expertos sobre las experiencias prácticas con respecto a los derechos y reivindicaciones relativos a tierras indígenas*. E/CN.4/Sub.2/AC.4/1996/Add.1.

Comisión Europea (1997). *Proyecto de documento de trabajo de los servicios de la Comisión sobre el apoyo a Pueblos Indígenas en la cooperación al desarrollo de la comunidad y de los estados miembros de la Unión. Europea No. ES/08/97/11380200.W00* . Servicios de la Comisión Europea.

Daes, E.-I. (1996) "Actividades Normativas: evolución de las Normas Relativas a los Derechos de los Pueblos Indígenas. Documento de Trabajo de la Presidenta-Relatora señora Erica-Irene A. Daes sobre el concepto de "Pueblos Indígenas". In Legarreta, J.(ed.) *Derechos de los Pueblos Indígenas*. Vitoria: Servicio de Publicaciones del Gobierno Vasco.

Daes, E.-I. (1996). *Panorámica concisa de las actividades del sistema de las Naciones Unidas relativas a los pueblos indígenas*. E/CN.4/Sub.2/AC.4/1996/6/Add.1.

1997

Daes, E.-I. (1997). *Las Poblaciones Indígenas y su relación con la Tierra* No. E/CN.4/SUB.2/1997/17. Comisión de Derechos Humanos

Gasgonia, D. (1996). *Dominios ancestrales de pueblos indígenas: Centro de crecimiento para la cooperación económica y ambiental. Informe del Seminario de Expertos sobre las experiencias prácticas con respecto a los derechos y reivindicaciones relativos a tierras indígenas*. E/CN.4/Sub.2/AC.4/1996/Add.1.

Oyarzún, J. A. (1996). *Comisión de Derechos Humanos. Report of the Expert Seminar on Practical Experience Regarding Indigenous Land Rights and Claims*. E/CN.4/Sub.2/1996/6

Plant, R. (1996). *El tratamiento de los derechos y reclamaciones territoriales indígenas: El papel de la asistencia técnica internacional. Informe del Seminario de Expertos sobre las experiencias prácticas con respecto a los derechos y reivindicaciones relativos a tierras indígenas*. E/CN.4/Sub.2/AC.4/1996/Add.1.

Róldan, R. (1996). *Anotaciones sobre la legalidad y reconocimiento de los derechos territoriales indígenas en los países amazónicos. Informe del Seminario de Expertos sobre las experiencias prácticas con respecto a los derechos y reivindicaciones relativos a tierras indígenas*. E/CN.4/Sub.2/AC.4/1996/Add.1.

UNEP (1997). *A Compilation of Case Studies Submitted by Governments and Indigenous Local Communities Organisations*. UNEP/CDB/TKBD/1/Inf.1. UNEP.

1998

Anders, L. (1998). *Initiatives for Protection of Rights of Holders of Traditional Knowledge .Indigenous Peoples and Local Communities Roundtable on Intellectual Property and Indigenous Peoples*. WIPO/INDIP/RT/98/4^a.

Comisión Europea (1998). *Sesión 2141 del Consejo No. Sesión 2141 del Consejo*. Servicios de la Comisión Europea.

Jacanimijoy, A. (1998). *Initiatives for Protection of Rights of Holders of Traditional Knowledge, Indigenous Peoples and Local Communities Roundtable on Intellectual Property and Indigenous People*. WIPO/INDIP/RT/98/4E.

López, A. (1998). *Initiatives for Protection of Rights of Holders of Traditional Knowledge. Indigenous Peoples and Local Communities Roundtable on Intellectual Property and Indigenous Peoples*. WIPO/INDIP/RT/98/4B

Mililani, T. (1998). *Intervention of ka Lahui Hawaii*. En Workshop on Tourism and Indigenous Peoples of the UN Working Group for Indigenous Populations. Geneva.

1999

BlakeneY, M. (1999). *What is Traditional Knowledge? Why Should it be Protected? Who should Protect it? for Whom?: Understanding the Value Chain. Roundtable on Intellectual Property and Traditional Knowledge*. WIPO/IPTK/RT/99/3

Chavez, L. E. (1999). *Cuestiones Indígenas. Informe del Grupo Establecido de conformidad con la resolución 1995/32 de la Comisión de Derechos Humanos*. E/CN.4/2000/84.

Commission on Sustainable Development (1999) *Report on the seventh session*. E/CN.17/1999/L.6

Daes, E.-I. (1999). *Los Derechos Humanos de las Poblaciones Indígenas. Las Poblaciones Indígenas y su relación con la tierra. Segundo Informe sobre la marcha de los trabajos en relación con el documento de trabajo preparado por la Relatora Especial*. E/CN.4/Sub.2/1999/18.

Daes, E.-I. (1999). *Los Derechos Humanos de las Poblaciones Indígenas. Las Poblaciones Indígenas y su relación con la tierra. Segundo Informe sobre la marcha de los trabajos en relación con el documento de trabajo preparado por la Relatora Especial*. E/CN.4/Sub.2/1999/18.

Groh, A. (1999). *Indigenous Peoples, Land Rights, and the Maintenance of Culture. In The 17th Session of the United Nations Working Group on Indigenous Populations*. Geneva: Contributory paper.

International Bureau (1999). *Protection of Traditional Knowledge: A Global Intellectual Property Issue. Roundtable on Intellectual Property and Traditional Knowledge*. WIPO/IPTK/RT/99/2.

Martinez, M. A. (1999). *Estudio sobre los tratados, convenios y otros acuerdos constructivos entre los Estados y las poblaciones indígenas*. E/CN.4/SUB.2/1999/20). Comisión de Derechos Humanos.

Rijssen, R. (1999). *Informe del Grupo de Trabajo ad hoc de composición abierta sobre el establecimiento de un foro permanente para las poblaciones indígenas*. E/CN.4/1999/83.

Urrutia, J. (1999). *Informe sobre el Grupo de Trabajo establecido de conformidad con la resolución 1995/32 de la Comisión de Derechos Humanos*. E/CN.4/SUB.2/1999/82. Comisión de Derechos Humanos.

Varma, S. (1999). *Traditional Knowledge: A Holder's Practical Perspective. Roundtable on Intellectual Property and Traditional Knowledge*. WIPO/IPTK/RT/99/4.

2000

Economic and Social Council resolution (2000). *Resolution Indigenous People Forum Fifty-sixth session Agenda item 15*. E/RES/2000/22.

Naciones Unidas (2000). *Recomendaciones del Sector Indígena sobre la Creación de una Foro Permanente para Pueblos Indígenas en el Sistema de Naciones Unidas*. E/CN.4/AC.47/2000/CRP.1.

Naciones Unidas (2000). *Informe de la Alta Comisionada para los Derechos Humanos Ejecución del Programa de Actividades del Decenio Internacional de las Poblaciones Indígenas del Mundo*. E/CN.4/2000/85.

Naciones Unidas (2000). *Recomendaciones del Sector Indígena sobre la Creación de una Foro Permanente para Pueblos Indígenas en el Sistema de Naciones Unidas*. E/CN.4/AC.47/2000/CRP.1

Recomendaciones del Sector Indígena sobre la Creación de una Foro Permanente para Pueblos Indígenas en el Sistema de Naciones Unidas. E/CN.4/AC.47/2000/CRP.1.

Seminar on Multiculturalism in Africa: Peaceful and Constructive Group Accomodation in Situations Involving Minorities and Indigenous Peoples, Tanzania, May 2000. E/CN.4/Sub.2/AC.5/2000/WP.3.

Weissbrodt, D. (2000). *Principios Relativos a la Conducta de las Empresas en Materia de Derechos Humanos*. E/CN.4/Sub.2/2000/WG.2/WP.1.

Wille, P (2000). *Informe del Grupo de Trabajo Ad Hoc de Composición Abierta sobre el Establecimiento de un Foro Permanente para las Poblaciones Indígenas*. E/CN.4/2000/86.

WIPO (2000). *Concerning Intellectual Property and Genetic Resources, Traditional Knowledge and Folklore*. WO/GA/26/.

WIPO (2000). *WIPO Inter-Regional Meeting on Intellectual Property and Traditional Knowledge*. WIPO/TK/CEI/00/INF.5.

2001

Indigenous Peoples' Caucus (2001). *Indigenous Peoples as a Major Group of Agenda 21 and the United Nations Commission on Sustainable Development Rio +10/World Summit on Sustainable Development*. PrepCom I Multi-stakeholder Presentation Peoples.30, April.

2002

Asamblea General de la ONU (2002). *Documento para el diálogo presentado por los pueblos indígenas. Compromisos y prioridades de los pueblos indígenas ante la Cumbre Mundial de sobre el Desarrollo Sostenible*. A/CONF.199/PC/18/Add.3.

Comisión Sobre el Desarrollo Sostenible (2002). *Apéndice No. 3: Documento de Diálogo por los Pueblos Indígenas*. E/CN:17/2002/PC.2/6.Add.5.

IITC et alia (2002). *Joint Statement the International Indian Treaty Council, Movimiento de la Juventud Kuna, Asociación Napguana, Confederacy of Treaty 6 First Nations, Chickaloon Village Traditional Council, Enlace Continental de Mujeres Indígenas, and the Mashentucket Piquot Tribal Nation. United Nations Commission on Human Rights 7th Ad Hoc Intersessional Working Group on the Draft Declaration for the Rights of Indigenous Peoples*, January 28 – February 8.

Naciones Unidas (2002). *Documento de debate presentado por las organizaciones no gubernamentales*. A/CONF.199/PC/18/Add.4.

Naciones Unidas (2002). *Documento para el diálogo presentado por los pueblos indígenas. Compromisos y prioridades de los pueblos indígenas ante la Cumbre Mundial de sobre el Desarrollo Sostenible*. A/CONF.199/PC/18/Add.3.

Stavenhagen, R. (2002). *Indigenous Issues: Human Rights and Indigenous Issues. Report of the Special Rapporteur on the situation of human rights and fundamental freedoms of indigenous people, Mr. Rodolfo Stavenhagen, submitted pursuant to Commission resolution 2001/5*. E/CN.4/2002.

Stavenhagen, R. (2002). *Indigenous Issues: Human Rights and Indigenous Issues. Report of the Special Rapporteur on the situation of human rights and fundamental freedoms of indigenous people, Mr. Rodolfo Stavenhagen, submitted pursuant to Commission resolution. 2001/5*. E/CN.4/2002.

UNO (2002). *'You have a home at the United Nations' says secretary-general, as indigenous forum concludes first session*. 12-1-2003an ikusia <http://www.un.org/rights/indigenous/sgsm8249.doc.htm>.

2004

Comisión de Derechos Humanos (2004). *Discrimination against Indigenous Peoples. Report of the working group on indigenous. Chairperson-Rapporteur: Ms. Erica-Irene A. Daes. 1-4-2005 an ikusia*. <http://www.cs.org/publications/CSQ/csq-article.cfm?id=435>.

Daes E.-I. (2004). *Indigenous Peoples' Permanent Sovereignty Over Natural Resources, Final Report of the Special Rapporteur, Erica-Irene A. Daes*, E/CN.4/Sub.2/2004/30

2005

Comisión de Derechos Humanos (2005). *Grupo de Trabajo establecido de conformidad con la resolución 1995/32 de la Comisión de Derechos Humanos Resumen de las propuestas hecho por el Presidente (Sr. Luis Enrique CHÁVEZ)*. E/CN.4/2005/WG.15/CRP.7.

Comisión de Derechos Humanos (2005). *Proyecto de informe del Grupo de Trabajo establecido de conformidad*. E/CN.4/2005/WG.15/CRP.6

Comisión de Derechos Humanos (2005). *Taller internacional sobre el proyecto de Declaración de las Naciones Unidas sobre los Derechos de los Pueblos Indígenas Pátzcuaro, Michoacán, México 26-30 de septiembre de 2005*. 24-5-2007an ikusia. <http://www.law.harvard.edu/students/orgs/hrj/iss12/wiessner.shtml>.

Committee on the Elimination of Racism (2005). *Declaration on the prevention of genocide*. 1-4-2005an ikusia. http://www.ohchr.org/english/bodies/cerd/docs/declaration_genocide.doc.

Documento presentado por indígenas organizaciones sobre el derecho de los pueblos indígenas a la restitución. E/CN.4/2005/WG.15/CRP.4.

Documento presentado por indígenas organizaciones sobre la "Disposiciones Generales" del Proyecto de Declaración de la ONU sobre los Derechos de los Pueblos Indígenas. E/CN.4/2005/WG.15/CRP.2.

Documento presentado por indígenas organizaciones sobre la necesidad urgente de mejorar el proceso de elaboración de normas de la ONU, Importancia del criterio de "Coherencia con el derecho internacional y su desarrollo progresivo. E/CN.4/2005/WG.15/CRP.3.

Información recibida por el Gobierno de México sobre el taller internacional sobre el proyecto de declaración de las Naciones Unidas sobre los derechos de los pueblos indígenas (Pátzcuaro, Michoacán, México, 26 - 30 de septiembre de 2005). E/CN.4/2005/WG.15/CRP.1.

Observaciones y enmiendas a los artículos examinados del proyecto de declaración sobre los derechos de los pueblos indígenas y la introducción de nuevos párrafos en la parte dispositiva, formuladas por el Movimiento Indio Tupaj Katari el Consejo Mundial por la Paz. E/CN.4/2005/WG.15/CRP.5.

2006

UN Department of Public Information (2006). *Press conference on declaration of indigenous peoples rights.* 12-6-2006an ikusia. http://www.un.org/News/briefings/docs/2006/061212_Indigenous.doc.htm.

UNO (2006). *Human Rights Council Concludes First Session.* HR/HRC/06/029.

2008

UNEP (2008). *Decisions Adopted by the Conference of the Parties to the Convention on Biological Diversity at its Ninth Meeting.* UNEP/CBD/COP/9/29.

ELKARRIZKETA PERTSONALAK

Glenn Morris, unibertsitateko irakaslea eta abogatu, Iowa City, Iowan (USA) 1993.

Jesus Alemania, Kuna Parlamentuaren idazkaria, Valencia 1999.

Jesús Gonzalez, Mugarik Gabeko partaidea, Bilbo 2002 eta 2007.

Juan José Celorio, Gasteizko Magisteritzako irakaslea, Gasteiz 2005an eta 2007an egin ziren. Gasteizko Magisteritza Eskolak ikasleen praktikak Shuar-ekin egiteko programaren sustatzaile nagusia

Oskar Gonzalez Pujana, Eki Haizea delako GK Eren kidea, Ekuadorreko herri indigenekin elkartruke programaren GK Eren arduraduna.

Sebastián Lara. CIIPI Vitoria-Gasteizko Herri Indigenei Buruzko Dokumentazio eta Informazio Zentruaren arduraduna. 2000ean egin .

Tarcila Ribera, CHIRAPAQ erakundeko buruzagia, Bilbo 2007.

Viviana Figeroa. Indigena Kolla eta Jujuiko senatariaren laguntzailea gai indigenetarako Argentinako Kongresuan.

Monica Chuji. Ekuadorreko Indigena eta Komunikaziozko Idazkari ohia Corraeren Gobernuan.

HERRI INDIGENAK, DEFINIZIOAK, NAZIOARTEKO HARREMANAK ETA GATAZKA

Anheir, H., Glasius, M., Kaldor, K. (2002). *Global Society Year Book 2002*. Oxford: Oxford University Press.

Arkonada, K. (27-5-2009). "No queremos estados que saqueen y militaricen nuestros pueblos". GARA, pp. 22.

Brubaker, R. (1998). "Ethnic and Nationalist Violence". *Annu. Rev. Sociol.*, 24, 423-52.

Barrañeda, I. (Eds.). (2006). *Alianza de Civilizaciones. Seguridad Internacional y Democracia Cosmopolita*. Madrid: Editorial Complutense.

Barrientos, I. (2005). "¿Nacionalismo Indígena?. El transito de una Identidad Étnica a una Identidad Nacional". In Wilhelmi, A. (ed.), *Caminos hacia el Reconocimiento*. Girona: Universidad de Girona.

Bartlett, J.G, Madariaga-Vignudo, L, O'Neil, J.D, Kuhnlein, H. V. (2007). "Identifying Indigenous Peoples in Global Health Research". *International Journal of Circumpolar Health*, 66(4), 287-307.

Bercovitch, J. (2003). *Characteristics of Intractable Conflicts 2007* -3-2an ikusia. http://www.beyondintractability.org/essay/Characteristics_IC/

Bobiwash, R. (2001). *Statement to the World Social Forum*. 2001-12-2an ikusia. <http://www.cwis.org/fge/swsf.htm>.

Bose, T. (1996). *Definition and Delimitation of the Indigenous Peoples of Asia*. 2002-4-15an ikusia. <http://www.iwgia.org/sw312.asp>.

Bowen, J. (1996). "The Myth of Global Ethnic Conflict". *Journal of Democracy*, 7(4), 3-14.

Breully, J. (1985). *Nationalism and the State*. Chicago: University of Chicago Press.

Brubaker, R. (1998). "Ethnic and Nationalist Violence". *Annual Review of Sociology*, 4, 423-52

Brydon, D. (2004). "Cross-Talk, Postcolonial Pedagogy, and Transnational Literacy". *Situation Analysis*, 4, 70-87.

Burgess, G. and Burgess, H. (editors). *Beyond Intractability*. Conflict Research Consortium, Boulder: University of Colorado.

Castree, N. (2004). "Differential geographies: place, indigenous rights and 'local' resources" *Political Geography*, 23(2), 133-167.

Chadwick, A. (1997). *Blood as a narrative/Narrative as blood: Constructing indigenous identity in contemporary American Indian and Māori literatures and politics*. (Ph.D. Dissertation, University of Arizona).

Chase, R. (1992). "The earth is our mother: struggles for American Indian land and liberation in the contemporary United States". In James, A. (Eds.), *The State of Native America: genocide, colonization, and resistance*. Boston: South End Press.

Chase, R. (1993). *Struggle for the Land: Indigenous Resistance to Genocide, Ecocide and Expropriation in Contemporary North America*. Monroe, Me.:Common Courage Press.

Clavero, B. (2008). *Naciones o Pueblos y Estados o Comunidades en Tiempos Constitucionales*. 2009-4-10an ikusia. clavero.derechosindigenas.org/wp-content/uploads/2008/10/aldaketa-clavero.pdf.

- Corm, G. (2006). "Alianza de Civilizaciones. Seguridad Internacional y Democracia Cosmopolita". En Barrañeda, I. (ed.), *Los Desafíos del Mundo Civilizado: Seguridad y Desarrollo. Nacionalismos, terrorismo y humanismo en el siglo XXI*. Madrid: Editorial Complutense.
- Corntassel, J. (2003). "Who is Indigenous: Peoplehood an Etnonationalist Approaches to Rearticulating Indigenous Identity". *Nationalism and Ethnic Politics*, 9(1), 75-100.
- Cultural Survival. (1993). *State of the Peoples*. Boston: Bacon Press.
- Cutler, C., Haufler, V., Porter, T. (1999). *Private Authority and International Affairs State*. Albany: University of New York Press.
- Dabulskis, S. (1997). Outsider research: How white writers 'explore' native issues, knowledge, and experiences. (M.A. Thesis, University of Toronto).
- Daes, E.-I. (1996). "Actividades Normativas: evolución de las Normas Relativas a los Derechos de los Pueblos Indígenas. Documento de Trabajo de la Presidenta-Relatora señora Erica-Irene A. Daes sobre el concepto de "Pueblos Indígenas". In Legarreta, J.(ed.) *Derechos de los Pueblos Indígenas*. Vitoria: Servicio de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Daes, E. (1995). Chairperson-Rapporteur of the Working Group on Indigenous Populations: *Criteria Which Might Be Applied When Considering the Concept of Indigenous Peoples*. E/CN.4/Sub.2/AC.4/1995/3
- Devrome, R. J. (1991). *Indian education: Resistance to internal colonialism*. (Ph.D. Dissertation, University of Alberta).
- Dirlik, A. (2001). "Place-based Imagination: Globalism and the Politics of Place. Dirlik, A & Prazniak (eds.). *Places and Politics in an Age of Globalization*. New York: Rowman and Littlefield.
- Dunaway, W. (2003). "Ethnic Conflict in the Modern World-System: The Dialectics of Counter-Hegemonic Resistance in an Age of Transition". *Journal of World-systems Research*, 1, 3-34.
- Esman, M. J., & Telhami, S. (1995). *International Organizations and Ethnic Conflict*. Ithaca, London: Cornell University Press.
- Esteban, A. (2006). "Aniaq: mi'kmaq y vascos". *Euskal Etxeak*. 72, 6-7.
- Fenton S. (2004). "Beyond Ethnicity: The Global Comparative Analysis of Ethnic Conflict International" *Journal of Comparative Sociology*, 45(3-4), 179-194
- Fingerhut, N. (1996). "Indigenous Peoples in Genocide Studies". *Canadian Review of Sociology and Antropology*, 33(84), 481-506.
- Flaeger, E. (1998). *Tambores Indios: Conocer a los Señores de la Tierra*. Barcelona: Martinez Roca
- Gibernau, M. (1994). "El nacionalismo: ¿Ideología de la Modernidad?". *Debats*, 49, 35-39.
- Gibernau, M. (1996). *Los Nacionalismos*. Barcelona: Editorial Ariel.
- Gray, A. (1997). "Who Are Indigenous Peoples? Indigenous Peoples, Environment and Development". In S. E. Buchi Jurt, Luzia, Ruegg, Christoph, (Ed.), *Proceedings of the Zurich Conference*. University of Zurich: Copenhagen: International Group for Indigenous Affairs and Department of Social Antropology.
- Griffiths, M.&Sullivan, M. (1997). "Nationalism and international relations theory (Rethinking Nationalism). *Australian Journal of Politics & History*, 43 (1), 53-66.
- Guenther, M. (2005). "The Concept of Indigeneity". *Social Anthropology*, 14(1), 17-32.
- Gurr, T., & Harff, B. (1994). *Ethnic Conflict in World Politics*. Oxford: Westview Press.

Horowitz, D. (1985). *Ethnic Groups in Conflict*. Berkeley and Los Angeles: University of California Press.

Ibáñez Muñoz, J. (2005). "Sociedad Postinternacional". In Garcia Segura, C. & Vilarino, E. (2005). *Comunidad Internacional y Sociedad Internacional*. Gernika: Gernika Gogoratzuz.

Igoe, J (2006). "Becoming indigenous peoples: Difference, inequality, and the globalization of East African identity politics". *African Affairs*, 105, 399 - 420.

Inayatullah, N. & Blaney, D. (2004). *International Relations and the Problem of Difference*. ISBN:0415946379.

Leger, M. (2002). "Recognition of the Right to Self-Determination of Indigenous Peoples: Asset or Threat?" *Seminar Right to Self-Determination of Indigenous Peoples*. International Centre for Human and Democratic Development.

Letamendia, F. (2003). "La autodeterminación: evolución histórica, tratamiento constitucional y polémicas actuales". *Vientos del Sur* 71. 2004-12-3an ikusia. <http://www.espaialternatiu.org/spip.php?article1057>.

Kinsbury, B. (2004). "Indigenous Groups and the Politics of Recognition in Asia". *International Group on Minority and Groups Rights*, 11(1-2).

Kinsbury, B. (2003). States, Nations and Borders: the Ethics of Making Boundaries. In Buchanan, A. (ed.), *People and Boundaries: An Internationalized Public Law Approach* Cambridge: Cambridge University Press.

Kinsbury, B. (2001). "Reconciling Five Competing Conceptual Structures of Indigenous Peoples' Claims in International and Comparative Law". *New York University Journal of International Law and Politics*, 34(1), 189-250.

Kinsbury, B. (2000). Operationalizing the right of indigenous peoples to self-determination. In Aikio, P (ed.), *Reconstructing Self-Determination: A relational Approach*. Turku: Åbo Akademi University.

Kingsbury, B. (1998). "Indigenous Peoples' in International Law: A Constructivist Approach" *American Journal of International Law*, 92(3), 414-457.

Kingsbury, B. (1997). "El concepto de "Pueblos Indígenas" en Asia : Puntos de discusión sobre legislación internacional". *Asuntos Indígenas*, 2, 48-56.

Kinsbury, B. (1992). "Claims by non-state actor in International Law". *Cornell International Law Journal*, 25(3), 481-513.

Korman, S. (1996). *The Right of Conquest: The Acquisition of Territory by Force in International Law and Practice*. Oxford: Clarendon Press.

Lake, D. A. (1996). "Containing Fear: The Origins and Management of Conflict". *International Security*, 21(2), 41-75.

McKeen, S. C. (1995). *MicMac documented oral accounts as historical source of materials*. 12-3-2000an ikusia. https://circle.ubc.ca/bitstream/2429/3614/1/ubc_1995-0191.pdf.

Melody, M. ; Murdock, M.; Wilmer, F. (1994) "Including Native American perspectives in the political science curriculum". *Political Science and Politics*, 27(2), 269-276

